

**Memoria
partekatu baterantz**

**Arrasate 1936-1956.
Gerra, erresistentzia eta frankismoa**

Miren Altuna Recio

Juan Ramon Garai Bengoa

Izenburua: Memoria Partekatu Baterantz- Arrasate 1936-1956. Gerra, Erresistenzia eta Frankismoa

Egileak: Miren Altuna Recio, Juan Ramon Garai Bengoa

Edizioa: Arrasateko Udala, Intxorta 1937 kultur Elkarte

Itzulpenak: Maite Uranga Díaz

Orrazketa: Karmel Uribarren Munitxa

Laguntzaileak: Lucia Cabrero Arranz, Arrate Landa Bidaburu, Marga Garmendia Ginea, Angel Balzategi Olazagoitia, Julia Monge Sarabia, José Ángel Barrutiabengoa Uranga, Nati Roa Bedia

Lehenengo edizioa: 2019ko otsaila

Bigarren edizioa: 2021eko abendua

Azala: Julio Galarta Bengoa

Kontrazala: Cándida Rodríguez Barbero eta Angela Lumbreras Rodríguez

Maketazioa: Gertu Inprimategia, Oñati

Inprimaketa: Gertu Inprimategia, Oñati

ISBN: 978-84-09-08051-9

Lege Gordailua: SS-1473-2018

AURKIBIDEA

ARGITALPEN-OHARRA

1. HITZAURREAK	13
2. PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURATIK BIGARREN ERREPUBLIKARA	19
3. ARRASATEKO ALKATEAK ETA ZINEGOTZIAK 1931TIK 1956RA	23
3.1. Errepublika garaian	23
3.2. Diktadura Frankistan	23
3.3. Alkateak eta zinegotzientzako errepresioa	23
4. ALDERDI POLITIKOAK ETA SINDIKATUAK ARRASATEN	25
4.1. Abertzaletasuna Arrasate	25
4.2. Sozialismoa Arrasaten: sorrera eta bilakaera	34
4.3. Errepublikanoak	36
4.4. Karlistak	37
5. BIGARREN ERREPUBLIKA	39
5.1. Lehenengo liskarrak	42
5.2. Gatazka erligiosoak	43
5.3. Maiatzaren Lehena	44
5.4. Gatazka gehiago	45
5.5. Gestoren estatutua	47
5.6. 1933ko hauteskundeak Gorteetarako diputatuak aukeratzeko	47
5.7. Ardoaren estatutua	48
5.8. 1934an Arrasaten alfabetatu gabe zeuden herritarren argazkia	49
5.9. Eskumaren garaipena. Gobernuaren bira eskumara. Patronalaren harrokeria	49
5.10. Gazte Sozialisten erradikalizazioa	51
6. 1934KO URRIKO IRAULTZA	53
6.1. Sei hilabete gerra egoeran: errepresioa eta torturak	61
7. FRENTE POPULARRA	73
8. EMAKUMEAK HISTORIAN ZEHAR	79
8.1. Errepublika eta emakumea	79
8.2. Eskolan. Mojetatik, eskola laikoetara	81
8.3. Emakumeen boto eskubidea	82
8.4. Emakumea lan-munduan	85
8.5. Lanik ez burla artean	88
8.6. Emakumeak gerran	90

8.6.1. Eraildako emakume errepresaliatuak	90
8.6.2. Emakume presoak	90
8.6.3. Ilea moztu eta kaskamotz utzi zituzten	90
8.6.4. Espedientea irekita zuten maistrak	91
8.6.5. Deportatuak	93
8.6.6. Konfiskazioen biktimak	93
8.6.7. Garbitasun-lanetara behartuak: 21	93
8.6.8. Union Cerrajeratik kaleratutako emakumeak	93
8.6.9. Eraso sexualak	94
8.7. Emakumeen egoera Diktaduran	94
9. GERRA ARRASATEN, 1936-1939	101
9.1. Kolpe Militarraren ondorioak Arrasaten	105
9.2. Gerraren kontakizuna	107
9.3. Karlisten atxiloketak	109
9.4. Erreketeak, guda ekintzak eta hildakoen zerrenda. Kintak harrapatutakoak eta hildakoen zerrenda	115
9.5. Gerraren hastapena	133
9.6. Arrasateko Zutabea	134
9.7. EAJ eta altxamendua	138
9.8. Funtzionarioen depurazioa	141
9.9. Arlabango frontearen hasiera	141
9.10. Arrasateko gertakariak	143
10. FRONTEA 7 HILABETEZ EGONKORTU ZEN	157
10.1. 1936ko urriak 4. Elgeta-Kanpazar aldean matxinatuak garaitu zituztenean	157
10.2. Autonomia Estatutua eta Eusko Jaurlaritza	169
11. ARRASATEKO BATAILOIAK	171
11.1. Dragoien batailoia	171
11.2. Amayur batailoia	203
11.3. Beste batailoit batzuk	217
11.4. Arrasate aldean hildako gudariak eta milizianoak	220
12. ERRUGABEAK HILTZEN	225
13. GERRAKO IZENAK eta AHOTSAK	235
13.1. Gerrako testigantzak	235
13.2. Hildakoak zibilen artean	258
13.3. Gerraren ondorioz hildako arrasatearrak	260

13.4. Herritik ihes egin zutenen testigantzak.....	262
13.5. Testigantzak. Kartzela, lan behartuak eta erbestea	294
13.6. Erbesteratutako pertsona zibilak	307
14. UDAL FUNTZIONARIOEN KANPORATZEA.....	325
15. ESPAINIA BAKARRA ETA EUSKERARIK GABE.....	327
15.1. Jazarpena euskararen kontra.....	328
16. HEZKUNTZA ERREPUBLIKA GARAIAN	331
16.1 Maisu-maistren garbiketa	331
17. ERANTZUKIZUN POLITIKOEI BURUZKO LEGEA	335
18. KAUSAK MILITARRAK.....	339
19. KARTZELARATUAK, HERIOTZERA KONDENATUAK ETA LANGILE BATAILOIAK	363
20. 1940tik 1956ra BORROKAN FRANCOREN KONTRA.....	375
20.1. 1940. Ez ziren egon soilik exekuzio-pelotoiak	375
20.2. 1941. Frankisten kausa generala	381
20.3. 1942tik 1946ra: Gertaera garrantzitsuak Arrasaten.....	384
20.4. 1947. Borroken eta mobilizazioen urtea	391
20.5. 1948. Atxiloketak. Kontraesanak antifrankisten artean.....	401
20.6. 1949. Franco Arrasaten.....	402
20.7. 1950. Celestino Uriarte ihesa Martutenetik.....	402
20.8. 1951tik 1956ra: Grebak. Gertaera garrantzitsuak Arrasaten.....	404
21. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK.....	409
22. ERANSKINAK.....	411
I. Arrasateko Biztanleria datuak	
II. Alderdi Sozialista eta Juventudes Sozialisteko militanteak	
III. 1934ko Urriko Iraultza bultzateagatik Arrasateko 132 auzipetuen zerrenda	
IV. Eusko Alderdi Jeltzaleko gudariak	
V. Unión Cerrajeratik 1936ko Urriaren 1ean Kaleratutako Pertsonak: 601 (horietatik 101 emakume)	
VI. ELMA fabrikatik ihes egindako 207 langileen zerrenda	
VII. UCEMek kaleratutako langileeen zerrenda, 1934ko urriko mugimendu iraultzailearen ondorioz	
VIII. Erreketeen taldeen zerrendak	
IX . Milizianoen zerrendak	
X. Union Cerrajerako milizianoak	

23. ELKARRIZKETATUAK	439
24. ORRI-OINAK	443
25. BIBLIOGRAFIA: Liburuak. Artxiboak	453
26. EPILOGOA	457
27. ARGITARATUTAKO LIBURU ETA DOKUMENTALAK	459

Zorigaitza izan zen, hondamendia. Jende asko hil zen ...¹
Gero, gabezia askorekin bizimodu latz eta gogorra aurrera eta behar ...²
Haurdun zegoela hil zuten. Horrelakorik ere!³
Erljioa bai, erlijioa ez endredatu egin gintuzten⁴
Nik kontu hauek ahaztuta ditut. Zoratu egingo nintzateke egunero hauek gogoratuko banitu.⁵

Ia 90 urte ditut eta ez dakit Zuzenbidezko Estatu bat zer den. Lanean hasi nintzenean, Primo de Rivera Diktadorea zen gobernuburua eta bereari diktadura biguna esaten zioten. Honen ostean, Errepublikak iritsi zen eta orduan ere istilu baten edo bestean sartuta nengoen ... Errepublika eta gero Gerra Zibila eta gerraren ostean beste haren Diktadura. Nik ez dakit askatasuna zer den. Pertsona orok pentsatzen duena pentsatzen duela, lasaitasunez bizitzea zer den ez dakit. Gaur egun, demokratizat jotzen dut nire burua, baina demokrazia zer den ere ez dakit.⁶

Bigarren edizioa: egindako ekarpenak

Liburua argitaratu ondoren 19 pertsona jarri ziren gurekin harremanetan ekarpenak egiteko.

Egindako elkarrizketa berriak

Lubakien kokapena ikertzen jarraitzeko 9 baserritar elkarrizketatu ditugu.

14 testigantza berriak jaso ditugu.

Ahotsak.com ataritik 3 pertsonen datu berriak errekuperatu ditugu.

Gerrako umeen gaiaren hildora 24 pertsonekin egon gara eta informazioa eta argazkiak pasatu dizkigute.

Artxibo, hemeroteka eta liburu berriak jorratu ditugu.

Argazki, dokumentu eta plano berriak erantsi dira.

Guztira, Arrasateko 534 pertsona berrien giza urraketak jaso ditugu.

**Arrasaten, 2021ko abendua
Intxorta 1937 kultur elkartea**

Argitalpen-oharra

Arrasate 1936-1956. Gerra, Erresistentzia eta Frankismoa, liburu hau izan behar zen Arrasate 1936. Belaunaldi Etena liburuaren hirugarren edizioa, -1987an eta 2003an argitaratutako edizioak agortuta daude-, baina pentsatu dugu liburua hasi beharrean XX. mendearen hasieran, hastea hain zuzen ere Primo de Ribera-ren diktadura eta Monarkia erori zirenean, eta Errepublika ezarri zenean. Gainera, edizio berriak barne hartzen ditu, 1956ra arte, azken 16 urte horiek, zeintzuk, gerra bukatutzat ematen denetik, estu-estu loturik dauden faxismoari eutsi zion belaunaldi bereari, pertsona ugari hil zen, beste batzuk emigratu egin zuten betiko, eta beste batzuk kartzela eta tratu txarrak jasan zituzten; baina baldintzapean aske egon arren, berriro borrokatu zuten ideia haien alde diktaduraren kontra.

Arrasateko 55 emakumeren eta 75 gizonen testigantzak, gertaera haien lekukoak; dokumentazio lana hainbat udal artxibotan, probintzietako eta militarren artxiboetan; bilaketa lana hemerroteketan eta liburu irakurketa. Laguntza handia eman zigun gure Jose Letona historiagileak 1986an, Oktubre Taldeari emandakoa, eta asko lagundu digute beste historiagilea Jose Maria Urangaren historiagilearen oharrek, 1987ko lehen ediziori eginak. Horrek guztiak ekarri du aurreko bi edizio haietan aurkeztutakoa aberastu eta hobetzea.

Gure eskerrik beroenak, modu batean edo bestean laguntza eman diguzuen pertsona guztiei

Intxorta1937 kultur Elkartea

1. Hitzaurreak

Lehen Prologoa

Arrasateko EAJ, Arrasateko EHBildu, Arrasate-Mondragón-eko PSE-EE, Arrasateko Baleike Udaltalde eta Irabazi-Arrasate.

2016ko irailean, Arrasateko Udaletxean ordezkari politikoak zuten alderdi guztiek osaturiko Memoria eta Bizikidetzaren mahaia abian jarri zen: EAJ-PNV, EHBildu¹, PSE-EE, Baleike eta Irabazi²ko ordezkariak osaturikoa. Mahaiko kideak jabetzen ziren, gertatutakoaren memoria lantzeak, hau da, jasandako giza eskubide urraketa larriari eta sufrimenduari erreparatzeak, gaur egun oraindik oso bizirik diren zauriak eta zenbaitetan ukatuak edo isilduak izandako sufrimenduak izendatzea suposatzen zuela. Bai eta egindako lanak, bizikidetzaren berreraikuntzari ekarpen bat egin ziezaiola iraganarekiko begiradaren inguruko kontsentsua ezinbestekoa zela ere jabetzen ziren.

Azkenean eta hilabeteetako elkarriketa sakonen ondoren –non Argituz eta Intxortako adituen aholkularitza nahitaezkoa bilakatu den-, memoria partekatua eraikitzeak beharrezkoak ziren oinarriko kontsentsuak lortzea posible izan da. Aurkezten diren liburuetan jasota gelditu den memoria alegia.

Bide honi ekiteak elkarren arteko eskuzabaltasun ariketa bat suposatu du, non bakoitzak izan ditzakeen iraganarekiko irakurketa desberdinetatik harago, bizikidetzaren bideari ekiteko akordioa lehenetsi egin da.

Guzti honek fokua irekitzea suposatu du, gureak bezala bizitu izan ditugun sufrimenduez harago jo eta urrunago sentitu ahal izan ditugun horiengana hurbilduz. Ezer berdindu edo nahastu nahi gabe, baizik eta gertatutako guztiari tokia emateko, ahanzturan erori gabe. Lan hauen bitartez biktima guztiei dagozkien egia, justizia eta erreparazioarako oinarriak jarri nahi dira, bai eta Udalerriko sufrimendu egoera guztiak ikustarazten lagundu ere.

Gertatutako guztiari zentzua emateko, memoria lanketa II. Errepublikaren ezarpenetik abiatu eta gaur egunera arte heldu behar zela adostu ondoren, arrazoi metodologikoengatik lana bi garaietan banatzea adostu zen. Intxorta 1937 kultur elkarteak, Memoria Historikoa berreskuratzen eskarmentu handikoa eta jada Arrasaten lan handia aurreratuta zuena, 1936-1956 garaian gertatutakoa jaso du. Ikuspegi historiko zabal batetik, II. Errepublikaren aurkako Alzamentu militarrek eta Frankismoak Arrasateko emakume eta gizonengan izandako eragina jasotzen saiatu den lana gauzatu du.

¹ EHBildu, Sortu, EA, Alternatiba eta independenteak osaturiko koalizioa.

² Irabazi Ezker Anitza-IU, Equo eta independenteak osaturiko koalizioa.

Bestalde, Argituzek, giza eskubideen aldeko Elkartek, jada Udalerri desberdinetan egindako lan desberdinek frogaturiko eskarmentua izanik, 1956-2018 garaiko memoria lanketa egin du. Bere lanean eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegitik, Udalerrian izandako giza eskubideen urraketak eta indarkeria-ekintzak jasotzen dira.

Lan bakoitzak, testuinguru bakoitzari dagokion berezko hurbilketa metodologikoa errespetatu nahi izan du, baina zenbait elementu komun partekatuz: egiaztaturiko eta onarturiko metodologia bat erabili, gertatutakoaren egiazko memoria zehatza jaso, eta memoria inklusiboa eta ez partziala jaso. Hau da, bi lanek gure Udalerriko bizikidetzaren eraikuntzari ekarpen bat egitea izan dute helburu.

Beraz, Intxortak eta Argituzek egindako bi liburuak izenburu berarekin aurkezten dira, hau da, "Memoria partekatu baterantz". Jabeturik - urte luzetako konfrontazioaren ondoren - izandako indarkeria-ekintzen eta giza eskubideen urraketan egiaren eremu komun eta partekatu baterantz abiatzea prozesu dinamiko bat dela.

Azkenik, hilabete hauetan zehar Memoria eta Bizikidetzaren mahaia osatu dugun kideok, bihotzez eskertu nahi dugu bai euren testigantza emanez edo informazioa, dokumentazioa edo datuak erraztuz euren laguntza eta konfiantza adierazi duten pertsona oro. Jasotako narratiba pertsonalak eta bizipen zintzoak dira, zalantzarik gabe, Udalerrian hamarkadetan gertatutako guztia dimentsionatzen laguntzen dutenak, euren ekarpena ere bizikidetzari ekarpen bat bilakatuz. Aldi berean mahaiak, Intxorta 1937 eta Argituzeko kideek egindako dokumentazio bilketa izugarria, azterketa eta erredakzio lanak eskertu nahi ditu. Euren lanari esker mahai kideen borondatea eta konpromisoa egingarria bilakatu delako.

Jakinda lan hauek ez direla prozesuaren bukaera, gure nahia Udalerriko bizikidetzaren berreraikuntzan aurrera egiten jarraitzeko lagungarria izango zaigun oinarri partekatua izatea da.

Bigarren Prologoa

1934: ESNATU ZIRENEAN, SATORRA HANTXE ZEGOEN

Sarritan esan ohi da, fede onez baina seriotasun gutxirekin, irakurtzeak norbera eraldatzen duela, norabide on batean gainera. Bistan da, irakurketatik ezer onik atera nahi bada nolabaiteko inteligentzia behar dela, nolabaiteko gogo bat eta, gainera, aurrean duguna probetxuzkoa izan behar dela. Bada bai, zorionez hala da, Arrasate 1936-1956 liburu horietako bat da, probetxuzkoa. Inteligentziaz eta gogoz hartzeko gai bagara hemen dagoena ez da «kronika» bat zentzu axalekoan, ez da agure eta atsoen kontuez ari den liburu bat, liburu honek garrantzi kapitala dauka, gutxienez, orain azaltzen ahaleginduko naizen bi zentzutan.

Hau historia liburu bat da

Modaren kontra, are liburu hau barnebiltzen duen bildumaren izenaren kontra, esango nuke ezetz, hau ez dela «memoria» liburu bat. Ez da memoria liburu bat ulertzen badugu memoria dela behin eta berriro geure buruei kontatzen –eta aldi bakoitzean berre-raikitzen– dugun kontakizun bat. Ez da memoria liburu bat zeren memoria jukutriaren oso laguna da, esaterako, gogora dezakezu zure familiaren atal batean gertakizun latz bat gertatu zela, eta ahazten ahal zaizu zure familiaren beste adar batek zer erantzukizun izan zituen gertakizun latz horrekiko.

Arrasate 1936-1956, beraz, historia liburu bat da. Bereziki lehen mailako iturriekin eta bigarren mailako iturri batzuekin eraikitako lan fin bat delako. Tartekatzen dira jatorrizko dokumentuen aipuak, elkarrizketak, garaiko prentsaren oharak, historialarien irakurketak. Informazioa ordenatua dago eta, bai, historiaren krudeltasun osoa dago. Alegia, jende xeheak galtzen duenean dagoen krudeltasun guztia. 1934koa galdu zutenak daude, 1936koa galdu zutenak, nazionalen eta karlisten garaipena jasan zutenak daude. Gizonak, emakumeak, gudariak, milizianoak, militanteak, sindikalistak, umezurtzak, jaiotzera iritsi ez ziren seme-alabak eta bilobak (hil zirenak oso gazteak zirelako). Memoria pertsonalaren kontra: hau historia liburu bat da. Baina, era berean, sarritan egungo euskal erakunde publikoetatik egiten den memoriaren kontrako liburu bat ere bada: hau historia liburu bat da. Alegia, sarritan, egun hainbeste aipatzen den «demokrazia eta bizikidetz» ez dago 1934an, 1936an eta 1939an askatasuna –eta berdintasuna– nahi zuten borrokalarien eta beren erakundeen bulkadetan. Ez, 34an iraultza egin zutenek eta 36an Errepublikaren, Euzkadiren, sozialismoaren ala anarkismoaren alde egin zutenek ez zuten «demokrazia»ren alde egin. Arrasateko Alderdi Sozialistaren egoitzan Leninen irudi nabarmen bat zegoen 1930eko hamarkadan, ez Bernsteinena.

Rosa Luxemburg Udaltxan

Lehen Mundu Gerra bukatu eta naziak gobernura iritsi arteko garaian Joseph Roth nobelista eta kaze-

tariak Berlin hirian kokatutako kronikak idatzi zituen egunkarietan. 1921eko maiatzaren 24an hala idatzi zuen Berliner Börsen-Courier-en: «Dakusadana da kalearen eta egunaren gainalde irrigarriki gatzgabea. Zaldi bat, burua makur, oloz betetako zaku baten barruan bila ari da, gurdi batera lotuta dago eta ez daki existentziaren hasieran zaldiak gurdirik gabe zetozeala mundura.⁷» Halakoa zen Weimarreko errepublikako giroa: zaldi bat zaldiak gurdirik gabe jaiotzen zirela ez zekiena. Eta metaforak balio du Weimarrerako, baina balio du beste garai eta toki askotarako. Baita egun bizi dugun 1978ko ziklo konstituzionalerako ere bai. Weimarreko errepublika, azken batean, Alemaniako 1918-1919ko iraultzen errautsen gainean eraiki zen. Iraultza eta zuztarreko eraldaketa soziala nahi zutenak likidatu zituzten (Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht buru). 1934ko Asturias eta EHko iraultzan bezala Alemaniakoan foku asko izan zituen (Stuttgart, Halle, Hanau, Ruhr bailara, Munich, Berlin, Poznan). Eta, beraz, hipotesi iraultzaileak topografia aberats bat izan zuen, baina gerora egongo zen porrotak ere, porrot eta min politikoaren geografia zabal bat utzi zuen.

Horregatik, berdin 1919 osteko Alemanian ala 1934-1939-1978 osteko Arrasaten, memoria ezin da izan ariketa pasibo bat. Ezin da ere izan lehenaldiko bitxikerien bilduma bat. Memoria hori, askatasun erradikalaren eta berdintasunaren alde, jende xehearen bizitzen hobetze iraultzailearen alde egon zirenen aldarrikapen bat izan behar da.

Ala Rosa Luxemburgek, hil aurreko iluntzean idatzi bezala:

Europako lehenengo klase borroka sugarrak amaitu ziren 1831n Lyongo zeta ehuleen altxamenduan porrot nabarmen batekin. Ingalaterrako mugimendu kartistak ere porrot batekin bukatu ziren. Parisko proletarioen insurrekzioak, 1848ko ekaineko egunetan, porrot suntsitzaile batekin bukatu ziren. Parisko Komuna porrot izugarri batekin itxi zen. Sozialismora gidatzen duten bide guztiak –borroka iraultzaileak badira– porrot handiekin erein dira⁸.

Alegia: porrot horietatik gatoz. Porrot horiek ikertu behar ditugu. Eta aztertutakotik ikasita erai-kiko dugu garaipena. Hobeto huts eginda jakingo dugu behingoz irabazten.

Bestea, nostalgiara lerratzen den memoria, iraultza lehenaldiarekin lotzen duena, kapitalismoari eta

kultura autoritarioari soilik etorkizuna ikusten diona da 34ko, 36ko eta 58ko porrot luzei eman dakiekeen bizkarrik hotzena. Memoria ez da garaipen bat. Memoria ez da omenaldi bat. Ez badu aktibatzen bidean gelditu ziren proiektuek zuten ambizioa pizteko adinako kementa.

Dena ikasteke, dena iraultzeke

Alemaniako iraultzaren mendeurrena betetzen den egunotan, normala da, Udalatxera, San Kristobalera begiratzen dugunean bezala, eztarria estutzea eta minak begiak hartzea. Jasandako zapalkuntza haietatik gatoz. Gure aiton-amonek errepresioa jasan zuten. Baina okerrenarekin batera, galdu ziren bizitzekin, erbesteekin, lapurtutako ondasunekin, hautsitako bizitzekin batera, zekarten hoberena aldarrikatzeko ezintasuna etorri zen, proiektuak zekartzaten, mundua sortzeko bestelako moldeak.

Eta ez, ezin diogu ezetz esan mundu eder horri, ezin diegu ezetz esan Biteriren eskoletan ikasitakoei, euskal dantzak egiten zituztenei, zinera txakur txiki-ekin joaten zirenei, futboleko jokatu eta ikustera joaten zirenei «arbitrillo» garrasi egitera, Angiolillo heroizat zuen belaunaldi hari, Unión Cerrajeran lan egiten zuten gizon eta emakumei. Haiei ezetz esatea gure alabei ezetz esatea delako. Bonbak ez dituzte Arrasatera botatzen orain, baina Yemenen lehertzen dira. Ez dira afiliazio politikoagatik zerrenda beltzak egiten, baina lan prekarioa da gazteek jasotzen duten saria, baita Debagoienean ere. Eta Habana oso batek zeharkatzen du Mediterraneoa egunero errefuxiatu eta migranteekin. Esateak ere lotsa ematen digu gaur, baina Warren Buffett enpresari estatubatuarren argi esan zuen 2011n: «klase borroka egon da, eta nire klaseak irabazi du».

XX. mendean iraultzaren satorra sarritan atera zen Arrasaten, itzuliko da gure mendean ere, eta ordurako, liburu honetakoak ongi ikasiak behar ditugu. Garaipenera iritsi diren iraultzetan aurreko porrotak ikasi zituzten mimo eta miresmen berekin.

Hedoi «Errekalde» Etxarte⁹
2018ko urrian, Iruñean

⁹ Bere senideek Errekaldetarrak matxinatuek oso bortizki errepresialatu zituzten.

Juan, Lucio Berezibar Ormazabal, eta Eusebio Berezibar Otadui gerrako frontean hil zituzten; Amadeo Berezibar Aspe, Barcelonara ihesi joandakoa, bonbardeo batean hil zuten; Román Berezibar Ormazabal eta bere emaztea, Francisca Ojanguren Iribecanpos, atxilotuak eta epaitu gabe erailak.

Beste zazpi senideak Unión Cerrajeratik kaleratuak izan ziren: María, María Juana, Victor, Cecilia eta Gabriela Berezibar Ormazabal anai arrebak; Ciriaco Berezibar Aspe eta Lucio Berezibar Galdos.

Maria Berezibar Ormazabal eta bere anaia Victor Arrasatetik kanpora bizitzera joan behar ziren.



1916

2. Primo de Riveraren Diktaduratik Bigarren Errepublikara

1923ko abuztuaren 13an Primo de Rivera jeneralak estatu kolpea eman zuen, eta 1930era arte iraungo zuen diktadura ezarri. Estatu kolpe horrek ez zuen ustekabean harrapatu Estatuko klase politikoa, bistan zegoen gauza baitzen politikak zekarren hondamendia Estatuaren Gobernuan gertatzen ari ziren elkarren segidako aldaketekin. Horregatik Jerezen jaiotako jeneralak “Aberria salbatzeko” ahalegin bat egin zuen, nahiz eta azkenerako lehen bezain gaizki edo okerrago utzi zuen.

Bi izan ziren arrazoi nagusiak Armadak diktaduraren alde egiteko: Marokoko gerra eta biztanleriaren oposizioa gerraren aurka. Arrasaten, herritarrek ez ezik, instituzioek ere gerra hura gaitzesten zuten. Herritar asko beste herrialde batzuetara joan zen Amerika edo Frantziara, gerrara joan behar ez izateko. 1922an 34 arrasatear Marokon zeuden. Urte honetan Mojategi baserriko semea hil zen.¹⁰



Maroko, hauen artean bi arrasatear daude.

Irailaren 30ean udal kargu guztiak kendu ziren, eta udalaren lehendakaritza Guardia Zibilaren postuko komandantea Ceferino Diez Francok hartu zuen. Baina urriaren 2rako beste udal korporazio bat izendatu zen “goitik”; udal gizon berriek hartu zuten lehendabiziko erabakia izan zen elizkizun batean parte hartzea, Jainkoari eskerrak emateko eta aberriaren onura eskatzeko.

Eusko Langileen Alkartasunaren Organoak orduko gertakizunen inguruan zuen iritzia eman zuen “El Obrero Vasco”k:

Estatuaren aitzinkontuen zatirik handiena gerrarako da; hezkuntzarako, aldiz, (irakaskuntzarako) hondarrak. Hainbestearinoko pobrezia intelektuala dugu Espainian, oster, non horrelako gobernua duen nazioan beste inon ezin gerta bailiteke, hemen bezala, hondamendira eramán duten berberak jarraitzea etorkizunaren jabe eta gidari.



Manifestazioa Donostian gerraren aurka.

*Gainera, herri libre bat menderatzea, askatasunaren harrotasuna duen herri bat bortxaz eta indarrez mende hartzea, hori ez dakite gobernariak, dominatzaileak, zenbat kostatzen den, ideiarik ez baitute; ezin da neurtu askatasuna zenbat kostatzen den; oso gutxi gastatu du oraindik Espainiak, askoz ere gehiago kosta behar zaio, Iraultza baten kostua ekarri behar dio. Denek dakite hori horrela dena.*¹¹

Beti egon izan da batasun estu bat, eten ezin den ezkontza bat, botere politikoaren eta militarismoaren artean. Espainiaren ustelkeria honetan, bistan dago botere hori militarrei utzi zaiela; haiek ere usteldu egin ditu ordea.

Ikusi besterik ez dago zenbaterainoko ezintasunean dauden Estatuak dituen arazo sozialak konpontzeko. Egunean bizi dira, zirkunstantziek nola aginduko, halaxe; eta indarra erabiltzen dute jainkoen goreneneko arrazoia balitz bezala; militarrek badakite hori ondo, eta diktaduraren mehatxua darabilte hitzetik hortzera. Boterea badute; botereari eusteko Marokon fantasma sortu dute, eta hor gaude gu ere loturik, josirik, bel-durrez...

*Horren guztiaren atzean burgeseria diruduna dago, militarismoa noiz gailenduko zain, eta ba al dakizu zergatik irabazten duten mairuek? Badutelako ideal bat, beren aberriaren defentsa, hain zuzen.*¹²

Hurrengo urtean, 1924ko martxoaren 29an, beste udal korporazio bat izendatu zuten, Unión Patriotikako bazkideez osatuta, haien buru alkatetzan Dagoberto Resusta: Ricardo Azkoaga, Demetrio Luco, Sandalio Hevia, Juan Goñi, Bonifacio Maidagan, Benito Abarategi, Domingo Altuna, Marcelino Amozarrain, Victoriano Heriz, Nicomedes Mendizabal, Agustin Aguirreurreta eta Melquiades Jauregiberria, zinegotziak. Udal korporazio horrek diktaduraren bukaerara arte jarraitu zuen bere karguan. Biltzen ziren hiru hilean behin, eta egu-

neko egitaraua aurrez erakutsi behar zitzaion herriko autoritate militarri, Guardia Zibilari, alegia.

Diktaduraren etorrerarekin alderdi politiko guztiak legez kanpo geratu ziren, eta agintetik bertatik beste alderdi politiko bat sortu zen: Unión Patriótica. Nahiz eta herrian, behintzat, aparteko ondoriorik ez izan, esan beharra dago 1924ko urte horretan bertan Arrasaten somatena eratu zela. Somatena zen jende armatuzko talde bat, ez zena, ez armada-koa, ez poliziakoa; "kriminalak" harrapatzeko elkartzen ziren. Jatorriz, badirudi Erdi Aroko Katalunian sortua dela erakunde hori, baina Primo de Riverak Estatu osora zabaldu zuen, era horretara gizartearen kontrol politikoa areagotzeko. Erakunde hori desegin zen 1931n, bigarren Errepublikan sartu eta gero.

1923ko urriaren 2a. Primo de Riveraren diktaduraren lehenengo udala

Zinegotziak ezkerretik eskumara

- 1.- Ignacio Mondragón (zinegotzia)
- 2.- Alejandro Alcelay (zinegotzia)
- 3.- Emeterio Erguin (zinegotzia)
- 4.- Francisco Pildain (zinegotzia)
- 5.- Melquiades Jauregibarria (alkatea)
- 6.- Julian Urrategi (zinegotzia)
- 7.- Simon Arrieta (aguazila)
- 8.- Laureano Arana (aguazila)
- 9.- Prudencio Iraeta (idazkaria)
- 10.- Jerónimo Mendicute (zinegotzia)

Apaizak eskumatik ezkerre

- A- Lorenzo Orue.
- B- Hilario Lasaga.
- C- José Joaquín Arin.
- D- Francisco Imaz.
- E- Prudencio Balerdi.
- F- Pedro Eizagirre.



Primo de Rivera jenerala Arrasaten 1925. urtean. Ezkerrean Toribio Agirre, eta eskuman Ricardo Azkoaga.

Primo de Riveraren diktadura ekonomia egoera on baten garaikide gertatu zen; eta aprobetxatu zen azpiegituretan inbertsio publiko handiak egiteko. Gure herri honetan izan zenaren zenbait adibide ateratzeko, zenbait erabaki ikus litezke, 1925ean hartuak: enkargua egin zen ferialeku berriaren planoak eta aurrekontuak egiteko, eta erabakia hartu zuten herrian konpondu beharreko espaloi guztiak neurtzeko. Bi lan horietarako onartu ziren aitzinkontuak iritsi ziren 64.456,24 pezetara.

1928ko ekainaren 21ean Dagobertok alkate eta zinegotzi karguetan dimisioa eman zuen. Ricardo Azcoaga izendatu zuten hurrengo alkate.

Enpresa pribatuek ere aprobetxatu zuten ekonomia egoera egoki hori, ELMA enpresa sortzen da 1925an eta horrela lana ugaldtu, eta mozkinak neurri handian metatu; horren ondorioz, adibidez Unión Cerrajerak, Roneo enpresa ingelesarekin batera, fabrika bat sortu zuen metalezko altzariak egiteko, Estatuan eraiki zen lehenengoa; 1926 urtea zen. Azpimarratzekoa da garai horretan ez zela izan garrantzi handiko lan liskarrik, alde batetik lan ugari zegoelako eta, bestetik, sindikatuak aginte politikoak hurbiletik kontrolatzen zituelako, gaitasun handirik ez zutelako maniobrarako.

Arrasateko Udalak Alfonso XII.aren gurutzea eskatu zuen Felix Arano irakaslearentzat, hura artean bizi zela, 1924an, Primo de Riveraren diktadura garaian eta herriko alkate Dagoberto Resusta zela, eta

1925ean eman zioten gurutze hura. Urte hartan ekainean eskatu zuten Felix Aranorentzat herriko seme kuttun izendatzeko, eta kale nagusiari (Erdiko kaleari) haren izena jartzeko, *urte askoan herriko gazteak hezten eta haiei irakasten izandako merituengatik, Arrasateko herria eta aurreramendu eta hobetzeko nahia sentitzen dituzten guztiak zordun izango baitzaizkio beti.* (Taldea, *Oktubre* (coord.), VVAA., *Arrasate* 1936. *Belaunaldi Etena*, Gráficas Iparaguirre, Urretxu, 1987.)

Hiru anaiak Biteri eskolan ibili ziren, Pedro, Tomas eta Francisco


*Aranokin, amistade haundixa eukien... hamen bizi zan famelixia, bertan (Biterixen) etxien bizi ziren. Apumarejo zan haren suña, osea, Aranon alabakin ezkontuta euen. Eta harek gura izan euen gure Tomas, gerra ostien,... ipini euen tailer bat, Deuston, edo Sestao... eta hara eruetia gura euen gure Tomas. Eta Tomasek esan eutson ya ordurako ya Asamen abilen, da ondo euen, da, ez doiala herrixa ixten. Gainera famelixia zelan geratu biegingtzen: anai bi hilda, aitta ya edadekua, ahizta eta bixok... ez euela gura famelixia alde batera ixteik, eta bera inora ez zoiala. Ya, Asamen lanian be ba abilen, da, hamen geratu zan.*¹³

Belaunaldi bat baino gehiago ibili zen ikasten Aranorekin, izan ere, irakasten aritu zen 28 urtean; bai pedagogian bai ideologian ekarri zituen irakaspen berriez, berrikuntza handiak ekarri zituen garai hartako pentsaera atzerakoian. Horrela zioen Tomas Ruiz de Alegriak, Felix Aranoren ikaslea: *Ikasleei transmititzen jakin zuen bizitzaren esparru guztietarako baliogarriak ziren ideia liberalak. Inolako zalantzarik gabe, lagundu zuen herri bat eraikitzen, sentsiblea izango zena Estatuaren arazo sozio-ekonomiko eta politikoekin. Nire ustez, modu zehatzean aztertu behar da Viteri Eskolak zer ekarri zuen, fenomeno hura zer inportantea izan zen Arrasateko garapen historikoan XX. mendeko lehen zatian.*

Bestalde, 1925. urtean, eskola honek parte aktiboa izan zuen ELMA Industriaren sorreran. Enpresa horretako langileen % 90 Viteri eskolakoa zen, eta Felix Aranoren ikasleak ziren. Arano izan zen ELMAko lehenengo akziodunetako bat. Viteri eskolaren fenomeno garrantzi handikoa izan zen Arrasateren garapen historikoan, XX. mendearen lehen zatian.¹⁴ Viteri eskolako maistra eta bere bikotea Teresa Garcia, arrazoi batzuegatik zein besteengatik, albo batera geratu zen.¹⁵



Teresa Garcia, koadroa pintatu zuen Luis Armengouren Viteri eskolako marrazketa irakasleak.



Felix Arano, koadroa pintatu zuen Luis Armengouren Viteri eskolako marrazketa irakasleak.



Lehen lerroan eskumatik ezkerrera: Félix Arano, Teresa García, Angelita Arano García eta José Luis Martínez Pumarejo. Azken lerroan ezkerrean, txapelakin, Rafael Ariza.

3. Arrasateko alkateak 1931tik 1956ra

3.1. Errepublikara

Jarraian dituzue, diktadura frankistan 1931tik 1956ra, biak barne, Arrasatek izan zituen alkateak. Nabarmentzekoa, 1936ko urritik 1937ko abuztura bitartean, bi udaletxe egon zirela: bata Bizkaian eta Santanderren errefuxiatuta, eta bestea Arrasaten, Errepublikaren aurka altxatutakoek okupatua.

Herritarrek hautatutako alkateak:

Eugenio Resusta Olañeta, 1931ko apirilak 14 - 1933ko uztaila

Luis Martinez de Ubago Milicua, 1933ko uztaila - 1936ko martxoak 11

Nicolas Uriarte Ceberio, 1936ko martxoak 11 - 1937ko maiatza

Jesus Uranga Urrutia, eta Eustasio Markaide Larrañaga 1937ko maiatza - 1937ko abuztuak 26

3.2. Diktadura Frankistan

Agintari militarrek edo Gobernadore Zibilak izendatutako alkateak:

Jose Añibarro Resusta, 1936ko urriak 8 - 1936ko urriak 16

Jesus Gorosabel Mendia, 1936ko urriak 16 - 1938ko uztaileak 18. Masailezurreko minbizia zuenez, Isidoro Echevarría Maidaganek jardun zuen alkate lanetan.

Domingo Arzamendi Aranzabal, 1938ko urriak 8 - 1948ko urriak 6

Isidoro Echevarría Maidagan, 1948ko urriak 8 - 1949ko martxoak 1

Santiago Bastida Mondragón, 1949ko martxoak 1 - 1952ko apirilak 30

Julio Otaduy Riviere, 1952ko maiatzak 1 - 1961eko martxoak 17

3.3 Alkate eta zinegotzientzako errepresioa

Genozidio Frankistaren biktima zuzenak izan ziren Kolpe Faxistaren kontra erresistentzian parte hartu zuten zinegotziak, hautatuak 1931ko apirileko hauteskundeetan, errepublikar ordenaren defendatzaileek. Ordea, kartzela zigorrarekin erreprimitu zituzten zinegotzi karlistak.

Jesus Uranga Urrutia. Sozialista. UGTko militantea. Futsilatuta zuten epaiketa fartsa baten ondoren, akusazio faltsuetan oinarrituta.

Bernardo Gomez Otxoa, "Renteria". Sozialista. UGTko militantea. Ebroko batailan hil zuten.

Felipe Letona Mugika. Errepublikanoa. Ezker Errepublikako kidea. Heriotza zigorrera kondenatua eta kommutatua. Urteak igaro zituen kartzelan. Unión Cerrajeratik kaleratua eta herritik desterratua, Zumarragara joan behar izan zuen bizi eta lan egitera.

Eustasio Markaide Larrañaga. ANV eta Solidaridad de Obreros Vascoseko kidea. Heriotza zigorrera kondenatua eta Kommutatua eta 30 urteko kartzelara zigortua. Urteak igaro zituen

kartzelan. 11 urte geroago, berriz hartu zuten Unión Cerrajeran lanean.

Nicolas Uriarte Ceberio. EAJko kidea. Herriko alkatea zen altxamendu faxista gertatu zenean. Euskal Solidarioa. Gerrako elbarria. Erbestean (Baionan) egon zen.

Cecilio Garro Arriola. Errepublikanoa. Udaltxean sereno kaboa. Lanetik kaleratu zuten.

Patricio Osinaga Urrutia. EAJko kidea. 5.000 pezetako isuna jarri zioten.

Lau zinegotzi karlistetatik hiru kartzelan sartu zituzten Arrasaten, Bergaran eta Bilbon: José Zulueta Aranzabal, Robustiano Zubillaga Agirre, eta Antonio Pagoaga Maquibar, azken biak jipoitu egin zuten Arraten.

4. Alderdi politikoak eta sindikatuak Arrasaten

4.1 Abertzaletasuna Arrasaten

EAJ, ELA, ANV, eta Jagi-Jagi izan ziren Arrasaten gerra aurretik antolatu ziren erakunde abertzaleak.

EAJ

1903rako aldizkari nazionalista batek bazituen 52 harpidedun; baina 1908ko apirilean hartu zuen lehendabiziko aldiz parte Arrasatear batek EAJren Gipuzku Buru Batzarraren bilera batean: Benigno de Altube izan zen.

1908ko abenduaren 5ean Batzokia zabaltzeko arautegia aurkeztu zuten Gobernu Zibilean. Batzokia zabaldu zen egunari dagokionez, *El Guipuzkoarra* aldizkariaren 1909ko uztailaren 3ko aleak hitz egiten zuen ordurako zabalik balego bezala; “Euskadi” aldizkariaren 1922ko abenduaren 9ko aleak, berriz, 12 urte bete zituela, 1910eko abenduaren 8an zabaldu izan balute bezala. Batzoki horretako lehenengo idazkaria izan zen Agustin Maidagan. Udal batzordea osatu zuten, idazkariak gain, Miguel de San Pedro y Altubek, Patricio Osinagak, Jose A. Palacios Otaduik eta Benigno de Altubek.

Guk ezagutu dugun hurrengoko Udal Buru Batzarra 1917an hautatu zen; lehendakaria: Luis Osinaga; idazkaria: Felix Ugalde, eta diruzaina: Patricio Osinaga. Lehen zinegotzia Esteban de Garai (Banco Gipuzkoanoko zuzendaria). Zinegotzi lanetan hasi zen 1906an, eta 1912tik 1914ra bitartean, herriko alkatea izan zen; 1923ra arte zinegotzi jarraitu zuen, eta urte horretan Felipe Maiztegi hautatu zuten kargu horretarako.

Lehen hauteskunde orokorrak izan ziren 1918ko Gorteetarakoak; 163 boto lortu zuten hauteskunde horietan. Haien ekintza guztien iparra eta asmoa izan zen Jaungoikoa eta Lege Zarra; horretxen ondorioz, hain zuzen, urteak joan ahala alderdiaren bizitzan nahastu izan dira erlijioa eta ekintza politikoa.

1921eko uztailaren 10ean batzokia lekuz aldatu zen, Maria San Romanek igo zuen bandera. Ordura arte, urte batzuetan Mendikuteneko tabernaren ondoan egon zen.

1923ko irailaren 15ean Primo de Rivera jeneralak estatu kolpea eman eta garaile atera zen. Euzko Alderdi Jeltzaleak mendian egin zituen bere biltzarrek. Bien bitartean Zentro Obrero Katolikoko Gaztedi Katolikoa gazte abertzalez dago ia osorik osatua, eta Or-Konpon koadrila osatu zuten. Bertako lehendakariak, lehena, Venancio Gatañares eta gero, Victoriano Balerdi izan ziren.¹⁶

1928an Arrasateko Uri Batzarreko lehendakari Felipe Maiztegi aukeratu zuten, diruzain Dionisio Urkiola. EAJak 75 afiliatu zituen.¹⁷

Jarraian Murgiako alkateak Or-konpon koadrilari eskainitako poesia. Balerdik jarri zion musika poesiari:

*Desde la cumbre del Gran Gorbea contemplo el mundo,
y en la falda frondosa miro mi aldea meditabundo
quien, picas azañas, de los abuelos quien fueros vió.
No eran meras patrañas, vanos anhelos que soñe, yo.
De Aitor los descendientes rudos y valientes
mucho hay que contar, del Ebro al mar.
México, La Argentina, la América Latina,*



Arrasateko EAJkoek Gernikan.



Zentro Obrero Katoliko Gaztedia Besre batzuen artean hiru pertsona erailak izan zirenak: Jose Markiegi, Leonardo Guridi, Joseba Zeziaga

*toda poblada está, por vascongados ya.
Hoy tu grandiosa historia, tu excelso nombre con saña impía,
borrar de la memoria pretende Euskera mía.
Titánicos peñascos que eternamente podáis decir,
la raza de los vascos gloriosamente supo existir.
Un acto infame y bruto puso a Euskadi de luto,
tan solo está en la unión hoy nuestra salvación.
Feliz llegar el día para la Euskal Herria,
si llegáis a entender y a entender vascos vuestro deber.*¹⁸

Diktadura erori zenean (1930/01/29), alderdi bizitza publikoa egiten hasi zen berriro EAJ. 1930eko azaroaren 16an, EAJaren bi adarrek bat egin zuten Bergaran, Arrasateko ordezkari Felipe Maiztegik parte hartu zuen batzar batean.

Batzoki berria Banco Guipuzcoanoren lehen so-lairuan inauguratu zen; zuzendari Victoriano Balerdi aukeratu zuten, Adan de Yarza jaunak utzitako lekua betetze-ko; lehen hitzaldia Carlos Linazasoro "Altzetak" eman zuen.

Uri Batzar berria: Tiburtzio Arregi, Pedro Mendizabal, Joseba Uriarte, Felix Ugalde eta Venancio Gastañarez; 1930eko abenduaren 14an hautatu ziren.

Garai hartan EAJk telegramak bidaltzen hasi zen, Kontzertu Ekonomikoaren kontrako erasoari aurre egiteko:

Euskaldun gisa kontzertu ekonomikoen urraketaen aurka erantzun irmo bat eman behar dugu.

Batzokiko presidente - Balerdi.

Euskal Herriak ezinbestekoa du pazientzia izatea kontzertu ekonomikoaren kontrako erasoan aurrean, hau izan baitaiteke sutea eragin dezakeen txinparta.

Juventud Católica-ko presidente - Balerdi.

Errepublikaren etorrerarekin hazkunde handia izango zuen Arrasaten, bai EAJk, bai Alderdi horren eta euskal gizartearen artean lotura eragiten zuten erakunde sektorialeak: ELA, Euzko Gaztedi, Mendigoizale Batza eta Emakume Abertzale Batza.

Emakume Abertzale Batza

Erakunde sortu zen 1931ko uztailaren 31n (San Inazio egunean). Sorrerako bileran 60 emakume elkartu ziren; lehendakariak izan ziren Elisa Garai eta Bitori Luco. Urtea amaitu orduko bikoiztu egin ziren bazkideak, eta 120 izatera iritsi; horien artean oso gutxi ziren ezkonduak.

Lau batzorde antolatu ziren: antzerkia, abestia eta musika, propaganda eta Euskara-Ikastola. Directiva de EAB en 1935-36: Lehendakaria: Paula de Múgica (Oiartzunen eraila). Lehendakari-ordea: Prudencia Gonzalez de Gorroñogoitia. Diruzaina: Maria de Urionabarrenetxea. Idazkaria: Aurora de Untzuetza. Batzordekideak: Margarita de Urrutia, Crescen de Axpe, Dolores Jauregibarria. Bandera-



Emakume abertzale batza Gernikan

1. lerroan: ezkerretik hasita: Andresa "Tigre", Teresa Mendizabal eta Eugeni Bolinaga.
 2. lerroan: Maria Zumelaga, X, Paulatxo Mugika Arregi (fusilatua), X, Pilar Unzueta, X, Aurea Aranburu, Resu Letona.
 3. lerroan: Juli Barrutia, X, X, X, Isabel Zaitegi, Maria Orobengoa (Muzibarko Etxabetarren ama).
 4. lerroan: X, X, Josepa Lasagabaster (Trola), X, Crescen Axpe, Luisa Etxaurre.
 5. lerroan: X, X, X, X, X, Juaristin ama, Trini Zaitegi, Rafaela de Etxaurre, Pastora Sagasta (Mojategi), X, Maria San Pedro, Carmen García eta Maritxu Lasagaster.
- Fani Garaik emandako izen-abizenak



Jose Antonio Agirrekin Gernikan 1931ko urte amaieran. Ezkerrean: Gregorio Orobengoa. Eskuman: Alejandro Mendizábal eta Sebero Altube. Makurtuta dagoen lehenengoa Sabin Arrieta, bigarrena Venancio Castañares. Baita daude Pedro Murgoitio eta Belarro.

duna: Encarnacion Altuna Ortuoste. *Maria Orobengoa Ceciaga nere ama, Oxiña baserrikoa zan, aberzalia Emakume Abertzale Batzakoa.*¹⁹

Euzko Gaztedi

Erakundearen patroia Deun Iñaki (San Inazio) egunean Euskal Jaiak bultzatu zituen. 1933ko uztailaren 31n jai egitaraua izan zen:

7:00etan eta 7:30ean dultzaineroak.

8:30ean Meza eta jaunartzea.

16:30ean frontoian antzerkia eta esku pilota, eta horien ostean, dantza.

1936ko urtarrilaren 9an aukeratu zen Euzko Gaztedi erakundearen zuzendaritza batzorde berria

Presidentea: Nicolas Uriarte. Presidenteordea: Pedro Lekube. Idazkaria: Antonio Vitoria. Diruzaina: Joaquin Garmendia. Kontaduria: Pedro Murgoitio. Administraria: Felipe Agirre. Bokaleak: Román Ortubai, Jose Aguirre, Dionisio Urkiola eta Felipe Maiztegi.

Apirilean dei bereziko biltzar bat egin zuten; 234 bazkidek hartu zuten parte; Nicolas Uriartek lehendakaritza utzi zuen, eta Pedro Lekubek hartu zuen haren kargua. Uri Buru Batzarreko idazkaria



Ziorlako batzokian Telesforo Monzonekin.



Frontoia eraikitzeko betebeharrak. Idazkariaren sinadura: Mikel Castañares. Arrasateko batzokian.

Joseba Ceciaga zen, eta presidentea Juan Arregi.

Urte horietan guztietan egiten diren ekintza, hitzaldi, mitin, irteera eta abarrek ondo baino hobeto islatzen dute nazionalismoak zer-nola egin zuen gora Errepublikara; Irujo, Aguirre, Monzon, Lasarte, Lauaxetak eta beste askok hartu zuten parte haietan.


1936ko otsaileko hauteskundeak zirela-eta dei hau egin zuten herrirako urtarilaren 19an: *Arrasateko jeltzaleak Zutik! Kristau zibilizazioarengatik, aberriaren askatasunarengatik eta euskal justizia sozialarengatik.*

Urte horretako uztailean milaren bat arrasatearrek hartu zuten parte Oñatiko Andre Mariaren Kongregazioan. Uztailaren 19an, Euzko Gaztedi Kiroletzaleak antolatutako mendietan finalista geratutakoiei dominak banatu zitzaizkien.

Euzko Langileen Alkartasuna

1918ko azaroaren 17an Zumarragan Gipuzkoako Euzko Langileen federazioa sortu zelarik, 1919aren hasieran herriko Elkarteak antolatu zen Arrasaten; lehendabiziko presidentea Lucas Querejeta izan zen.

Handik urte batzuetara, 1924ko otsailaren 29an beste zuzendaritza batzorde bat aukeratu zuten: Presidentea: Andres Agiriano. Idazkaria: Gregorio Aranburu. Diruzaina: Fer-



ELAren zigilua.

min Bidaburu. Bokaleak: Juan Bengoa eta Eugenio Bilbao.

Euzko Langileen Alkartasuna Elkarteak gero eta bazkide gehiago zituen. 1931 urte amaierarako 500 bazkideetik gora zituen. Egunkariak, ordea, oso gutxi saltzen ziren eta Arrasateko langileak kritikak



Katiuska antzerki emaitza, Bedia antzerkian ELA-STVkoek antzeztua.



Ikastolako ikasleak eta irakasleak.

jaso zituzten egunkari hau ez erosteagatik.

Ordurako, EAJren Batzokia beste leku batean zegoen. Eusko Langileen Alkartasunaren egoitza egon zen Iturriotz kalean farmaziaren ondoko lokalean. *Solidarioetan eman nuen izena Lokala plazaren ondoan zegoen, Zaitaginean. Han egon zen gerra hasi arte.*²⁰

1933an Gasteizen egin zen kongresuan Solidaridad de Trabajadores Vascos - Euzko Langileen Alkartasuna izena hartu zen. ANVko sektore batzuk bazeuden ELAn bazkide turik, baina EAJkoak ziren bazkide gehienak. Arrasaten, bazkide sektore horrek sindikatuaren independentzia eskatu zuen alderdiaren aurrean.

1935ean zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuten. Presidentea: Romualdo Uribetxebarria. Presidenteordea: Otadui. Batzarkideak: Madinabeitia eta Joakin Atxa. Aholkularia: Jose Gorroñoitia. Garai hartako sindikatuaren oinarria zen; metalurgiako taldeaz gainera, bazeuden enplegatuen eta nekazarien taldeak ere. Enplega-

tuen idazkaria Juan Pedro Azkoaga zen 1936ko otsailean.²¹

Urte horietan, ELA eta UGT hazten ari ziren bitartean, sindikatu librea garrantzia galtzen ari zen. Gerra hasi zen garaian langile gehienak sindikatuetan bazkide turik zeuden. Arrasateko lehenengo ikastola ere



Ikastolako ikasleak eta Jose Markiegi txango batean. Argazkia Julio Galartak utzitakoa.



Eusko Gaztedikoak.

sortu genuen; 30en bat ikasle bildu ziren bertara; eta Etxebarria eta "Hilarion" ziren irakasleak.²²

Jeltzaleek inizatiba bat hartu zuten Euskal Eskola Katolikoa sortzeko. Eskola bat sortu nahi zuten, euren idealekin bat etorriko zena. Horretarako, adostasun batera iritsi ziren Jose Joaquin Arin parrokoarekin eta Jose Marquiegui eta Leonardo Guridi laguntzaileekin. Resusta kaleko 43an abade etxearen ondoko etxabea

egokitu, eta maisuak aukeratu zituzten, kideko izaera zutenak, eskola martxan jartzeko.

Karlistek, baina, ez zekiten zer egin beren seme-ala-bekin. Aukera bi zituzten: lehenengoa zen bidaltzea eskola publiko laikora edo maisuek esaten zioten bezala eskola antikristaura, eta bigarrena zen eskolatzea Euskal Eskola Katolikoan, nazionalismoaren menpe zegoena.



Udala auzoko batzokikoak.

Gauzak horrela, berehala mobilizatu eta patronatua eratu zuten, euren pentsamendura egokitutako eskola bat sortzeko. Pentsamendu karlistara hurbiltzen ziren Ignacio Chacón, Jesus Gorosabel eta Pilar Resustaren laguntzarekin eratutako patronatuaren bitartez, Eskola Katoliko berri bat eraiki zuten seme-ala-bentzat. Jesus Gorosabelek Santa Barbarako magalean, Gazteluondoko errebaletan, bere etxearen aurrean, lursail batzuk eman zizkien Eskola Katolikoa eraiki zezaten lehenbailehen. Erabaki hark konpromiso ederrean sartu zuen gure kleroa. Parrokia abade etxeko eskolaren alde zegoen. Gasteizko gotzainarekin, Mateo Mugica y Urrestarazurekin zuen adiskidetasun pertsonalari esker, lortu zuen eskola ez zabaltzea eta karlisten proiektua bertan behera geratzeko.



Batzokian San Andres egunean.



Poxpolinak.



VI. Olerti eguna 1935eko ekainaren 2an, Bedoñan Juan Arana Ezpeleta, "Loramendi"ren gorazarrean. Argazkian arrasatearrak Juan Periko Azcoaga, Txomin Arrieta, Tigre Uriarte, Adoracion Gorosabel, Victoriano Balerdi... Estepan Urkiaga Lauaxetarekin..

Gertaera hura oso erabakigarria izan zen hiru apaizak atxilotu, inoiz justifikatu ezin izango dutena, Donostiara eraman eta ondoren Oiartzunen fusilatzeke. ²³

Eusko Abertzale Ekintza

Acción Nacionalista Vasca (ANV) alderdi politikoa 1930ean sortu zen, San Andres egunean, hain zuzen, eta handik urtebetera Arrasaten bazegoen talde bat lanean, herriko lehendakaria Pablo Urrutia zelarik; berarekin batera, zuzendaritzan Jesus Leibar, Manuel Egiluz, Damian Arregi, Jose Ormaetxea eta Roman Zabarte ziren.

Arrasateko Udalak, herriko hainbat pertsona langabezian zeudela kontuan edukita, deialdi publiko bat egin zuen, diru bilketei eragiteko. ANVk modu aktiboan hartu nahi izan zuen parte eta 1932ko urtarrilaren 24an pilota partidua antolatu zuen herriko zenbait pilotariren artean, Zaldibarreko frontoian. Markaide eta Velez de Mendizabal "Vivillo" bikoteak mendean hartu zuen "Zestona" eta Vitoria, 22-12. Eta langabetuen aldeko ANVren diru ekarpena 442´30 pezetako izan zen.

Partidurako txartelen salmentaz herriko lau neska arduratu ziren, argazkian agertzen direnak. Lauetatik bat ezagutu dugu, bigarrena eskuinetik: Luisa Ugarte. (Josemari Velez de Mendizabal)

Arrasaten sortu zutenetako bat Gabriel Goitia izan zen. Arrasaten 50 bazkide izateraino iritsi zen. 1936ko ekainaren 28an ANVren Biltzar Nazionala egin zuten Bilbon; bertako idazkaria Gabriel izan zen, eta Batzorde Nazionalako bazkide hautatu zuten han.


ANVek programa politikoa prestatu zuen, eta Euskal Estatu independentea, batua, liberala eta konfesio gabea, errepublikanoa eta demokratikoa, unitarioa eta deszentralizatu sortzearen alde agertu zen; haren proiektu sozio-ekonomikoaren arabera kapitalismoa sozialismoak ordezkatu behar zuen, eta horretarako Estatu eta langileen sindikatuak indartu.

Jagi-Jagi

Une hartan zabaldu zuen berriro Jagi-Jagik bere estrategia "Euskadiko Fronte Nazionala, Euskadiren askatasunaren alde"; estrategia horren arabera euskal abertzale guztiek bat egin behar zuten ezker



Arrasateko Banco Guipuzcoanoko langileak Gernikan. Langile bi fusilatu egin zituzten. Eskumatik bigarrena Gabriel Goitia.



Arrasateko ANVko emakumeak



Arrasateko Elkarte Sozialistako partaideak, Arrasateko udalean 1936an, Frente Popularrak hauteskundeak irabazita gero.

Zutik ezkerretik eskumara: Pedro Gallastegi, Celestino Uriarte, Puyun, (?), Segundo Olazagoitia, Felipe Anduaga, (?), Ismael Diez, Pedro Ruiz de Alegria, Satur Abarrategi, Marcos Vitoria.

Eserita: Gregorio González Rubio, Jesús Uranga (Kirru), Angel Iturmendi

eta eskuin espainolisten kontra 1936ko otsailaren hauteskundeetarako. 1936ko urtarrilaren 25ean, “diputatu nazionalistak hautatu eta gero proposatu zuten Espainiako Parlamentuan esertzeari jende aurrean uko egitea, ez baitzitzaion onartzen esku-biderik Euskadin legeak ezartzeko”. Une hartan azaldu zen Arrasaten erakunde hori, eta Jagi-Jagi aldizkaria saltzen hasi ziren.

Dozena erdi arrasatearrek hartu zuten parte gerran erakunde horren Lenago-il batailoian.²⁴ Hango komisarioa izan zen Iñaki Gorospe Zabala. Beste batzuk, han sartu zirenak, Benito Echevarria, Pedro Garai Igartua, Lucio Berecibar...²⁵

4.2 Sozialismoa Arrasaten, sorrera eta bilakaera

Herri honetan sozialismoaren lehen aztarnak agertu ziren 1910ean Gorteetako diputatuen hauteskundeetako emaitzetan; izan ere, hauteskunde horietan sozialisten hautagai Sorianok 84 boto lortu zituen, eta horrenbestez ez zen hautagai izendatu.

1919ko uztailaren 13an Evaristo Arzamendi eta José Leozek baimena eskatu zioten alkateari, Metalurgiako Langileen Sindikatuaren izenean eta haren ordezkari moduan, Olarte kaleko 22ko lehen

solairuan arratsaldeko 9etan bilera bat ospatzeko, elkarte antolatutzat deklaratu eta zuzendaritza batzordea hautatzeko.

Hurrengo urtean 44 boto lortu zituen sozialisten hautagai zerrendak Gorteetarako hauteskundeetan; ikusten denez sozialismoa ez zegoen oraindik oso itsatsia herrian; 1922an, ordea, apirilaren lehenengoan udal korporazio berria eratzean, Evaristo Arzamendik ere parte hartu zuen zinegotzi moduan. Hamarkada horretan ordura arte Ferrerrias kaleko 46an Sindicato Unicoren egoitza izana zen lokala herri etxe bihurtu zen.

Primo de Riveraren diktaduraz geroztik hasi zen sozialismoa herrian indartzen eta eragin handiagoa izaten. Sozialismoaren indartze unea izan



Herriko etxea Mendiako artxiboko argazkia, Arrasate Zientzia Elkarteak utzitakoa.

zen, batez ere, Largo Caballero 1924an diktaduraren Estatu Kontseilaritzan sartu zenetik Errepublikako lehen urteetara bitarteko garaian. Indarberritze horren ondorioz, lokalak eraman zituzten Okendokuara edo Trinketera, Maalako errabalean.

Hazkunde horren oinarria eta iturburua Metalurgiako Sindikatua izan zen.

Era berean, Talde sozialista sortu zuten 1927-1928 urteetan, lehen 11 kide fundatzaileekin. Afiliatu kopuru eskasa izan zuen betik.

Hona hemen, 1934ko urtarrilaren 7an El Liberal egunkariak argitaratutakoa: “Ondorengo hauek dira Batzorde Sozialista osatzen duten pertsonak eta betetzen dituzten karguak: Lehendakaria: Jesus Uranga; Idazkaria eta diruzaina: Pedro Ruiz de Alegría; Batzordekideak: José Uribarren, Urbano Domínguez eta Pedro Gallastegui.

Bigarren Errepublikan, Arrasateko Agrupacion Socialistak ez zeukan 60 militante baino gehiago, gutxi, konparatu ezkerreko UGTko afiliazioarekin. Horren bazkide gutxi izateko arrazoia izan liteke bazkide izan nahi zutenei eskatutako lana, diziplina eta kemena zirela maila handikoak. 1932an Arrasaten banatzen ziren *Lucha de Clases-en* 75 ale, 21 ale Aretxabaletan eta Bergaran, eta 14 ale Oñatin. Egunkari hura ez omen zen igarotzen alderdiko militanteetatik harago. Langileen artean, hara iristeko bidea izan zen sindikatua, eta Juventudes Socialistas, gazteen artean. Tomas Ruiz de Alegriaren testigantziari esker, lehen zerrenda batean jaso ditugu talde sozialistaren 29 kideren izenak eta Juventudes Socialistas-eko 23 militanten izenak.²⁶ Adierazi behar dugu Agrupacioneseko eta Juventudeseko lehen militante haietatik guztira 16, hau da, % 32 hil zirela borrokatzen edo fusilatu egin zituztela 1936ko gerran.

Hala eta guztiz ere, Arrasaten lan handia egin zuen ideia sozialistak zabaldu eta finkatzeko. Zabalkunde hori lanpostuan egin zen lehendabiziko egunetan, sindikalgintzaren bidez; baina zabalkunde hori indartzeko modurik garrantzitsuena hezkuntza eta kultura zabalkunde izan ziren batez ere, hitzaldiak, mahai inguruak eta propagandazko mitinak antolatuz. Hezkuntza horri berebiziko garrantzia ematen zioten, haien ustez langileria ezjakintasunean edukitzea bere askatasun sozialerako bidea ixtea baitzen. Horrexegatik, hain zuzen, lokaletan gehien zaintzen zuten puntua liburutegia hornitzea izaten zen.

Langileen artean UGT sindikatoa zen idea horiek sartzeko baliabidea. Gazteen artean berriz Gazte Sozialistak. Sozialismoaren ideiak sartu ahala trauma handiak gertatu ziren Arrasateko gizartearen zenbait sektoretan, batez ere bertako familietan semea sozialista bihurtuta. Ideia horiek itsastean zirenean izan ere, batez ere elizaren bitartez indarrean zegoen ordenu sozialaren eusgarri ziren balore tradizionalak eztanda batean hausten baitziren. Bestalde, elizak edozein errebolturen aurrean hartu ohi zuen gai-



UGTko zigilua.

tzespenezko jarrera zapuzkeriazkoak geroago eragin zuen antiklerikalismo bortitza Estatu osoko ezkerrean, eta horixe izango zen, baita ere, Arrasateko Elkarte Sozialistaren politikaren oinarri eta zutabeetako bat. Kanposantua hilerrri zibil bihur zedila, udaletxeko bilera aretotik Jesusen Bihotzaren irudia kenaraztea, eliza jaiak kendu eta haien ordez jai laikoak antolatu (bai batzuetan, bai besteetan jaiaren alde bandoak edo jai hartzen zuen edo lanera joaten zen, eta lantegitik irteeran itxoiten zion kontrarioari irainez eta jantzirik dotoreenez jantzita), eguen eta egubakoitz santuz dantzak antolatu eta arkume afariak ospatzea; horrelako ekintzak egiten ziren elizaren kontra.

Kleroari zegokion gai honetan eta Errepublikari zegokion ideal abstraktueta: demokrazia, askatasuna, justizia... Arrasateko sozialistak printzipioz ados zetozen aldameneko lokaleko jendearekin, errepublikanoekin, hain zuzen.

Berehala ohartu ziren, ordea, bien bereizgarri zituzten oinarrizko desberdintasunez. Errepublikanoen erradikaltasuna antiklerikaltasunean zetzan, hain zuzen, eta ez gizarte antolamenduzko alorrean.



Toribi Garay Albistegui.



Errepublikanoak.

Zenbait gertakariren ondorioz geroz eta gehiago urrundu ziren bi indar horiek: sozialistek barren barrenetik sentitzen zuten zenbait errebindikaziori errepublikanoek zer jaramon gutxi egiten zioten, eta egoerak berak sozialisten politikari eragiten zion geroz eta jite erradikalagoa, adibidez.

Lehendabizi esan dugunari buruz aipatzekoa da errepublikanoek ez zutela eman nahi izan laguntzarik “Laneko Eskola” bat sortzeko. Proiektua egin zen. Gestioak egin ziren Fernando de los Rios Irakaskuntza Publikoko ministroaren aurrean eta probintziako Gestoran. Ministroak agindu zuen inbertsioaren erdia ordainduko zuela laguntza moduan, eta bigarrenak % 16. Udalak, berriz, ez zuen hartu nahi izan gainerakoaren karga. Sozialisten politika geroz eta ezkertiarra goa bihurtzeko eragiten zuten faktoreen artean, lehenengo aipatu beharko litzateke mundu osoko ekonomiaren krisia, eta bigarrenik haren ondorio bereziak Espainiako Estatuan sortuak.

UGT

UGT sindikatuak erregimena aldatu aurretik 200 bazkide inguru baldin bazuen, Errepublikan 500era iritsi zen. Sozialismoaren presentziak batez ere indarra hartu zuen 1927/28 urteetan Elkarte Sozialista sortu zenetik, eta bere izatea herrian finkatu zen garai horretatik aurrera, nahiz eta talde horrek iraun zuen bitartean oso bazkide kopuru

urria izan zuen.

Herriko sindikalismoaren lehen urte haietan, UGTk gehiengoa zuen, Elman ez ezik udaleko eta Union Cerrajerako langileen artean ere bai. Buruzagiak ziren: Lehendakaria, Segundo Azcoaga, Diruzaina, Saturnino Abarrategui, eta bokalak Felix Herrera, Gurmensindo Alvarez, Jose Maria Olazagotia, Donato Arana, Roman Uribesalgo, Jose Uranga eta Victoriano Ormaechea.²⁷ Toribia Garay Albistegui. UGT sindikatoa, eta Unión Cerrajerako langilea, estandar eramailea zen. (Mercedez Bolinaga Garay)

4.3 Errepublikanoak

Zentro Errepublikanoa zetorren. Arrasateko liberal talde batek etxe hartan hartu zuen lokala egoitza jartzeko. Beheko solairu osoa areto ederra zen eta barreneko paretan alegoriazko koadro handi bat zegoen Errepublika irudikatuz margotuta; emakume gazte bat txano frijioa jantzita, alde banatara bandera bat zuela eta errepublikaren dibisa: IGUALDAD, LIBERTAD, FRATERNIDAD. Jaiak antolatu ohi zituzten eta tronpetaz *Marseillesa* joz amaitu ohi zuten beti. Herriko serora eta eliza zuloentzat (eta ez ziren gutxi) aste osorako kritikagaia izaten ziren; eta etxearen aurretik igarotzen ziren bakoitzeko, seguru gaude asko eta askok aitaren egiten zuela.



Errepublikanoak.

Gazte horien artean, esan dugu, oso elementu onak ziren batzuk, horien artean inor aipatzekotan, Manuel Isasi “Manolo sopas” gaitzizenez ezagunagoa aipatuko genuke, gizon on eta abegikorra bera, eta olerkaria ere bai batzuetan. Ez dituzue bada ahaztuko “Fortunatxo” ekipoaren balentriak, zelan irabazi zion Atletici, Arenasi eta Errealari, makina bat garaipen izan zuena eta zorionez “Uarkapeko Portuan” lehorreratu zuena. A ze inauteriak haiek! Ekipo horren sorrera, “Sopas”ek asmatu zuen.²⁸

Garai hartan liskar handiak izaten ziren liberalen eta karlisten, edo karlisten disidente ziren jaimisten artean. Hainbestearino iritsi ziren, musika bandak plazan polka bat dantzarako jotzean, elkarri zirikatzeko, koplak hau kantatzen zioten, eta elkarren kontra abesten zuten:

Liberalek Karlistek

Gora, Gora, Gora ... Viteristak ... Karlistak

Behera, Behera, Behera...Karlistak ...Viteristak

“Behera, Behera, Behera, Gizon Onak ...

Ez Faltsuak eta Hipokritak ...

Infernuak ez ditu hartuko Karlistak ... Viteristak

Errepublikar Zentroan jarraitu zuten elkarrekin. Egoitza eraman zuten Felix Arano kaleko (Erdiko kalea) 50. zenbakiaren etxabera. “Liberal antiklerikal eta viterista” haiek isilpeko Liberal Kontserbadoreen atxikimendua zuten, elkartzten zirenak Erdiko kaleko 42. zenbakian Viteri Kasinoan.²⁹ 1929an, alderdi biak elkartu eta Alderdi Erradikala sortu

zuten. Eugenio Resusta alderdi horretako kidea zen, Arrasatek II. Errepublikan izan zuen aurreneko alkatea.

Félix Azcoaga Gordoak El Liberal egunkariko Bilboko bertako korrespondentsalak honakoa argitaratu zuen 1932ko urtarrilaren 31an: “Sozialista erradikalek 136 afiliatu dituzte Arrasaten. 1933ko urtarrilaren 15ean, bertako batzorde berria aukeratu zuten. Hona hemen batzorde berriaren osaketa: Lehendakaria: Maximiliano Embil; Lehendakariordea: Tomas Balanzategui; Idazkaria: Felipe Letona Múgica; Idazkariordea: Félix Azcoaga Gordoak; Diruzaina: Gregorio Alegria; Kontularia: Tomás Ugalde Guridi; Batzordekideak: Jesús Menchaca Aguirre, Victoriano Hormachea Ibarrondo, Jesús Pagoaga Dolara, Hilario Azpiazu, Miguel Herrarte Leibar eta Manuel Isasi Aguirre” (Azken hau 1857. urtean jaio zen eta 76 urte zituen).

Hauteskunde haietara, Alderdi Erradikala koalizioan aurkeztu zen Alderdi Sozialistarekin batera. Errepublikaren aldekoek egoitza soziala ireki zuten Monte taberna gaineko lehenengo solairuan, Madalenako errebalak eta Biteri etorbideak osatzen duten angeluan.

Ezkerreko sektoreak Errepublika-alderdia utzi zuten eta Alderdi Erradikal Sozialistaren talde independente deklaratu zen. Banaketaren ondoren, Ezkerreko Sektore honek 1934ko martxoaren 11ko batzarrean erabaki zuen Arrasateko Ezkerreko Errepublika Elkarteak sortzea.

1934ko apirilean, Alderdi Errepublikarrean gertatu zen banaketa baten ostean, Ezker Errepublikarra alderdi berria sortu zuten banatu zirenek. Felipe Letona zinegotzia alderdi berri honetan integratu zen. Hilabete batzuk geroago, irailean, Alderdi Erradikala Alderdi Errepublikarra bihurtu zen.

4.4 Karlistak

Hogeigarren hamarkadaz geroztik, hiru zinegotzi izan zituzten karlistek Arrasateko udaletxean. Círculo Carlistaren egoitza zegoen Erdiko kaleko 28an lehenengo solairuan. Ekintza Sindikalari zegokionez, karlisten gehiengoa afiliatuta zegoen Sindicato Libre Profesionalean, Ferrerías kaleko 16an. 1916n



Margaritak.



Margaritak.

lehendakaria zen Juan Miguel Garcia, eta elkarrekin ziharduten hark eta Alejandro Echevarriak, Asociación de Obreros errepublikar-liberalak biltzen zituen elkartearen burua.

Karlistak katolikoak ziren Trentoko Kontzilio osteko kleroak irakasten zuen hezkuntza erlijioso-arentzat; foralista probintzialak, espainolak. Carlos V.aren dinastiarekiko monarkiko-lejitimistak. Isabelo-Alfonsina dinastiaren kontrakoak ziren, eta haiek Koroaren usurpatzailetzat jotzen zituzten.³⁰ Haien ikurrak ziren jaungoikoa, foruak, aberria eta erregea. Erabat klerikalak ziren. Elizaren irakaskuntza itsu-itsuan obeditzeaz gain, saiatzen ziren XIX. mendeko Gerrate Karlisten txinpartak piztuta mantentzen.³¹

Askok Arrasateko langile eta nekazariak ziren. Bazen ere euren artean Ugarte y Cia. ko nagusirik.

Gazteriak-ek (La Juventud) antolaketa autonomoa



Sindikatu Libreko zigilua.

zuen. 110 bazkide zituen eta *Paramilitar* edo *Erreketeen* sail autonomo bat ere bazuen. Carlos VII.aren emaztearen omenez, taldeko emakumeek *Margarita* izeneko sail propioa sortu zuten.

Sociedad de Socorros Mutuos izeneko elkarte bat zuten. Elkarte hura asko handitu zen 1933. urtean. Aurrerago, *Zarrontzale Zintzotasuna* aseguru bihurtu zen. Lehendik aseguratzen zuen gaixotasun pentsioaz gain, aseguru berri hark aseguratzen zituen botika asistentzia eta ebakuntza kirurgikoak.³²

*ELMA*n hiru sindikatu zeuden gerra aurretik: *UGT*, *Solidaridad de Trabajadores Vascos* eta *Sindikatu Libre*. Ni *Sindikatu Libre*ko afiliatua nintzen. Urtero egiten genuen *Batzar Orokorrean*, berrizten genituen karguak. Uste dut gehiengoa *Euskaldun Solidarioek* zutela. *UGT*k ere afiliatu asko zituen. Gu ginen kopuruz txikiena.³³

Margariten Batzar Orokorra

1937ko urtarrilaren 19an, Margaritek euren Batzar Orokorra egin eta Zuzendaritza Batzordea eratu zuten: lehendakaria zen Pía Ergüin, lehendakariordea Fidela Garaizábal, idazkaria Rita Arroitia, diruzaina Isidora Beltrán, eta bokalak ziren Rita Arzamendi, María Ochandiano, Rosalia Vitoria Otaduy, Concha Arregui eta Arzamendi andereñoa.³⁴

5. Bigarren Errepublika

1930eko urtarrilaren 30ean izan zuen azken eguna Primo de Rivera jeneralaren diktadurak, eta trantsizio garai bati ekin zioten Berenguerren gobernuaren menpean; trantsizio horretan herriak zituen justizia eta askatasun nahiak printzipio horien antitesiaren isla zen sinboloa eraustea lortu zuten: Monarkiak. Arrasaten ere nahikunde horiek bizi ziren.

Horrexek eraginik, parte hartu zuten protestazko huelgan, 1930eko abenduan Estatu osoan, Galan eta García Hernández fusilatu zituztelako, Errepublikaren alde Jacan egin zuten altxamendu arrakastarik gabearen ondoren. Hiru arrasatear (Damaso Azkoaga, Julio Barandiaran eta Bizente Etxeberria) soldadutza egiten ari ziren Jacan. Errepublika iritsi



Herriaren argazkia.

zen arte Marokora eraman zituzten zigor batailo batera.

*Erregia fan dala? Orduen, etxe barruen jakinez gero norberak, segituan batzen zien emakumiak eskileretan, eta hasten zien komentetan, batzuk pozik eta beste batzuk negarrez. Batzuk egoten zien penaz urten egin euelako, beste batzuk, barrez, GORA EUSKADI LIBRE!*³⁵

Oposizioa erregimen monarkikoaren kontra batez ere bildu zen herriaren indar politiko eta sindikal aurrerakoien inguruan: errepublikanoak, sozialistak, eta UGTko Metalurgiako Sindikatuak. Horiek hazkunde bizkorra izan zuten urte haietan. Baina gauzak aldatu zitezten nahia jende askok zuen; horrela, 1931ko apirilaren 14ko udal hauteskundeetan erregimen monarkikoaren gaitzespena agertuz bigarren Errepublika aldarrikatu zenean, jendea berez eta masiboki kaleratu zen bere poza agertzera.

Arrasaten 600 pertsonatik gora ibili zen manifestazioan; Zentro Errepublikanotik irten (Txurrero etxetik) eta udaletxeraino iritsi zen. Herriko Musika Banda zuen buru, eta guztien aurrean emakume bat txano frijioaz jantzia, eta eskuetan zuela Errepublikaren bandera. Errepublikano banderadunak ziren Julia Uriarte eta Elena Echeverria.

Goguan dauket etorten ziela ikurriña handi bateaz. Han esaten hauen GO-



Erregeak Donostian, Miramarren.

*RA ERREPUBLIKA! Eta guk, androk, esaten gauen be GORA!*³⁶

Udaletxien Bernardo Gómez-ek, kontzejal sozialistia, berba batzuk esan zien hara batu zienei: *Jaun-andreok! etorri da espero genuen Errepublika, eta akabau da urria, sablia ta sotanan inperiuu; ta ekitaldixa amaitu zan gora Errepublika askotan esanda.*

Errepublikak aldaketa handiak ekarri zituen. Emakumeek bozkatzeko eskubidea lortu zuten aurrenekoz. Gai publikoetan handitu egin zen biztanleriaren parte hartzea.³⁷ Alderdi politiko zein langile sindikatuetao afiliazioek gora egin zuten. Euskara eta euskal kultura sustatu zituzten lehenengo Ikastola sortuz. 7 eguneko oporraldiak ezarri zituzten ingeles larunbatarekin (sábado ingles) batera.

Astian 6 egun lana, gero etorri zan sábado ingles, egun erdi jai, gerra aurretik ezautu gauen. Hori kostu jakuen tragetan. Guretako ondo, baina ugexabandako ezin auen hori onartu. Eta bakaziñuen dekretu etorri zan, derrigor emun behar zaiuen, Errepublika aurretik bakazinorik ez gauen euki. Horren kontura, izan zan bengantza bat, Republika triunfau auenian sartu zien

*soldauak etorri zien eta ez zittun hartu. Kinta bat eta erdi, urte terdikuek. Cerrajeran terkuek izen die, soberbiuek.*³⁸

Errepublikaren etorrerak plazaren atek zabaldu zizkien justizia gehiago eta berdintasun handiagoko gizarte bat lortu nahi zutenei. Gizarte mailarik eta talderik abantailatsuenek, berriz, militarren eta beste zenbait indar sozialen laguntzarekin beren pribilegioen defentsa temati eta zitalkeriaz egitean, liskar sozial asko sortarazi zituzten, eta estatu kolpe bati ekin zioten azkenik, Errepublikaren proiektua erabat desegiteko.

Hona hemen, 1931ko apirilaren 12an, igandean, Arrasaten egin ziren udal-hauteskundeetan aukeratuak izan ziren zinegotziak:

Bloke Anti monarkikoaren hautagaiak

Lehenengo barrutia:

Eugenio Resusta Olañeta. 209 boto. Errepublikanoa

Cecilio Garro Arriola. 202 boto. Errepublikanoa



Alcalá Zamora Errepublikako lehendakaria Arrasaten.



Bigarren Barrutia:

Luis Martínez de Ubago Milicua. 248 boto. Errepublikanoa

Bernardo Gómez Ochoa. 244 boto. Sozialista

Eustasio Marcaide Larrañaga. 243 boto. ANV

Jesús Uranga Urrutia. 181 boto. Sozialista

Felipe Letona Múgica. 244 boto. Errepublikanoa

Hautagai Monarkikoak

Lehenengo barrutia:

Isidoro Echevarria Maidagan. 207 boto. Karlista

Robustiano Zubillaga Aguirre. 205 boto. Karlista

Antonio Pagoaga Maquibar. 203 boto. Karlista

José Zulueta Aranzabal. 202 boto. Karlista

EAJko hautagaiak

Lehenengo barrutia

Patricio Osinaga Urrutia. 205 boto. EAJ

Bigarren barrutia

Nicanor Aspe Leanizbarrutia. 181 boto. EAJ

Nicolás Uriarte Ceberio. 179 boto. EAJ

Honela antolatu zen udal korporazioa Arrasaten:

- Lau errepublikano: Eugenio Resusta Olañeta, Cecilio Garro Arriola, Luis Martínez De Ubago eta Felipe Letona Mugica.
- Bi sozialista: Bernardo Gomez Ochoa eta Jesus Uranga Urrutia.
- ANVko bat.: Eustasio Marcaide Larrañaga.
- Lau karlista: Isidoro Echevarría Maidagan, Antonio Pagoaga Maquibar, Robustiano Zubillaga Agirre eta José Zulueta Aranzabal.
- Hiru EAJkoak: Patricio Osinaga Urrutia, Nicanor Axpe Leanizbarrutia eta Nicolas Uriarte Ceberio.

5.1 Lehenengo liskarrak

Lehenengo bileran bertan, apirilaren 17an, alkatetzarako Eugenio Resusta errepublikanoa hautatu ondoren -13 boto alde, eta bat kontra-, talde politikoek zer interesgune zuten erakutsi zuten;

Gómez, Markaide eta Letonak Errepublikaren aldeko agur eta onespen mozioak aurkeztu eta erregimen iraganaren kontrakoak proposatu zituzten bitartean, nazionalistek Autonomiarekin zituzten ardura guztiak; tradizionalistek, berriz, eskuinera jo zuten nabarmen, Primo de Rivera eta Martínez Anidoren erretratuak kendu zirenean, eta haiek abertzale moduan jokatu zutela aditzera eman, baina erregimen berriarekin ere ados agertu ziren, erlijiozko sinesteak errespetatuz gero.

Karlisten antierrepublikanismo ageriko hari jokoa egin zion EAJk Errepublikaren lehen urtean; tradizionalistekin bat egin zuen erlijio katolikoaren etengabeko defentsan eta haiek Lizarrako Estatutuari eman zioten babesagatik. Eskuinaren blokea osatu Errepublikanoek, Sozialistek eta ANVkoek ezkerreko blokea osatu zuten, 1933ra arte loturik iraun zuena, urte horretan errepublikanoek eskuin aldera ihes egin baizieten.

Liskarrak jarrai

Bi talde horien arteko enfrontamenduak Lizarrako Estatutuaren inguruan gauzatu ziren, karlistak eta EAJaren aldekoak baitira; eta ezkerre, berriz, kontrakoak.

Sozialistek EAJri irain egin zioten JEL, “ondo JAN, ERAN da LO” interpretatuz;

EAJkoek “zozolistuek” esaten zieten sozialistei.

Estatutuaren arabera lortu zen autonomia maila oso altua, baina immigratuak diskriminatu egiten ziren, eta erlijio gaietan ez zuten betetzen Errepublikak beretzat hartua zuen akonfesionalitatezko printzipioa Euskadi katolikotzat ematean, eta, gainera, proposatzean Euskadiren eta Vaticanoaren bitarteko harreman zuzenekoak ezartzea. Euzko Alderdi Jeltzaleak mozio bat aurkeztu zuen 1931ko maiatzaren 18an udaletxean, Arrasateko Udalak Lizarrako Estatutuari atxikimendua agertzeko, eta garrantzak izan ziren. Bozketara iritsi aurretik alkateak amaitutzat eman zuen bilera; Guardia Zibilak sartu beharra izan zuen bertaratuen protestak isilarazteko. Nazionalistak, protesta modura, ez ziren agertu hurrengo bi bileretara. Ekainaren 14an udalen biltzarrak Estatutua onartu egin zuen; baina zenbait udal falta zen, eta horien artean Arrasatekoa.

Bigarren Errepublikako lehen parlamentua osatzeko, hauteskunde orokorrak egin ziren 1931ko ekainean. Koalizio bi aurkeztu ziren hautagai: bata, Estatutuaren aldekoa, EAJk eta Karlistek osatua, eta bestea ezkerreko koalizioa, errepublikanoak, sozialistak eta ANV. Arrasaten garaile atera zen lehenengo koalizioa, Leizaola jaunak lortu zuen botorik gehien, 905 boto; ezkerreko koaliziotik Usabiaga jaunak lortu zituen boto gehienak, 597 boto. Horretara, Arrasateko herria, zinegotziek erabakiaren kontrara, Lizarrako Estatutuaren alde agertu zen. Hauteskundeon garbitasuna, hala ere, zalantzan jartzekoa da, garai horretako egunkari batek adierazi bezala. Hala eta guztiz ere, hauteskunde haien gardentasuna ez zen erabatekoa izan. Hona hemen, garaiko egunkari batek argitaratu zuena:

*Borrokak hemen ez du zailtasun handirik eskumarentzat, haren egitura Karlo-Integrasta-Monarkikoa-rengatik eta baserri jendeak egitura honekin duen konfiantzarengatik. Garagartzako eta Gesalibarko auzotar ugari: haien jarraitzaileak. Auzo bi horietako jende asko joan zen bozkatzen, inguru haietako apaiz eta fraide guztien babes eta laguntzarekin...*³⁹

Egun hartan bertan iskanbila gogorra gertatu zen Zarugaldeko hauteskunde lekuan, lekua ixteko orduan karlista batek ez zuelako gura irten, eta errepublikano batzuek hura ateratzen joan zirenean, hark pistola bat atera eta tiro egin zuen, inor zauritu barik. Gero, jipoitu egin zuten; geroxeago, jendea beroturik zegoen-eta, istilu gehiago izan ziren eskuineko eta ezkerreko jende taldeen artean, eta kolpe ugari banatu ziren alde batera eta bestera. Egun hartan bertan, Bergaran, Eibarko sozialista talde batek Aramburu karlista hil zuen.⁴⁰

5.2 Gatazka erlijiosoak

Uztailean une hartan Ezkion “*Amabirjina azaldu eta bi haurri euskaraz mintzatu zitzairen*” tokira erromes zihoazen zenbait auto igaro zirela eta, liskarrak izan ziren herriko ezkerrearen eta eskuinaren artean. Istilu horien ondorioz herriko agintariak kezkatuta zeuden, eta erabakia hartu zuten, gobernariak erabakita alkateak emandako bando batean adierazten zenez, *debekaturik geratzen zela autoak zihoazen kaleetan jendea geldirik egotea, eta baita alde bateko eta besteko oihuak eta manifestazioak egitea.*

Udaletxean abuztuan hasi ziren lehen eztabaidak, gerora liskar larriagoetarako bidea eta arrazoia izango zirenak: erlijio gaia. Erlijioa, izan ere, aspalditik ari zen eskuinaren alde agertzen, 1931ko ekaineko azkeneko hauteskundeetan agertu zen bezala, zeren Arrasaten behintzat, pulpitutik karlista eta nazionalisten arteko koalizioarentzat eskatu baitzen botoa. Erlijioak garrantzi handia zuen euskal gizartean, horixe erakusten zuen indar politiko katolikoek zuten gehiengoak. Noraino iritsiko zen hori horrela izatera, non *Jesusen Bihotzaren Errepublika librea* deitzen baitzuten batzuek Euskadi. Errepublikako sektorerik erreazionarioenak aprobetxatu zuten eraso egiteko Errepublikaren kontra-traditionalistek adibidez-, eta bide batez ahalegindu ziren Euskadi lagatzen erreforma errepublikanoetatik aparte. Hala, ezkerrearen antiklerikalismoa areagotu egin zen, zeina zetorren, beste zenbait gauzaren artean, eskuinaren eta erlijioaren artean interes batasun hura ulertzetik.

1931n eztabaidek jarraitu egin zuten, 1931ko azaroaren 28an Brigida Monje eta Gregorio González zibiletik ezkondu ziren. Hona zer zioen “Euzkadi” egunkariaren korrespontsalak ospakizun hartaz urte hartako azaroaren lean: *La civilización en cifras, orain arte Euzkadi gañetik agiri da gauza guztietan, baña erri ontan apurtu gaitue. Ebrotik arunztik etorritako bi “civil” ezkondu dira. Diñuenez, lenengoa da Arrasaten.* 1932 hasiera aldera udalaren gehiengoak ez zuen onartu Arantzazura erromes joatea, eta 1933 eta 1934an ere izan ziren zenbait eztabaida.

Arrazoiak era askotakoak ziren: Apaizgoak herrian zituen abantailak kentzea, elizako jai ziren zenbait egun lanegun deklaratzeko, eskoletatik eta udaletxetik erlijiozko sinboloak kentzea. Gai haietan guztietan, lan gehien eman zuen Jesusen Bihotzaren irudia erretiratzeak, udaletxeko bilera aretoan jarriko baitzegoen. Lehen proposamenak, irudi hori handik kentzeko, sozialistek egin zituzten abuztuan. Errepublikanoek hala proposaturik, alkateak erabaki zuen gai hura ez eztabaidatzea lege bat atera arte, gai hura arautuko zuena. Azaroan eta abenduan Bernardo Gómez zinegotzi sozialista berriro ahaleginduko zen irudia handik kentzen, baina ez zioten proposamena onartu.

1931ko irailean ospakizun bat egin zen Pablo

Iglesias eta Fermín Galán kale izenen plakak agirian jartzeko. Resustak, Gomez-ek eta Letonak hitz egin ondoren, manifestaldia egin zuten Herriko Musika Banda Riegoren himnoa joz zihoala, eta amaieran Internazionala abestu zuten. Abenduaren bukaeran neurriak hartuta zeuden arren, iskanbila gogorrak izan ziren goizean eta arratsaldean, 4 pertsonak Riegoren himnoa katolikoen kontrariotzat hartzen zutenez, txapela ez zutelako kendu (1932. urterako aitzinkontuen partidarik handiena irakaskuntza publikorako izan zen).

1932an eskoletan kendu ziren Jesusen Bihotzaren irudiak eta gurutzeak. Egun horietan, irudi horiek kendu zituztelako, zenbait haur eskolara joan barik geratu ziren. Eskuinak protesta egin zuen behin edo birritan, eta eskatu zuen irudiak berriro lehengo lekuan jartzeko. Horretan gehien ahalegindu zen Etxebarria zinegotzi tradizionalista. Martxoan zinegotzi hark, konbentziturik nonbait Jesusen Bihotzarenak erremediorik ez zuela, proposatu zuen haren lekuan Segura Kardinalaren erretratu bat jartzeko, aurreko urtean gutun pastoral bat argitaratu baitzuen, zeinetan poztu egiten zen eskuinak monarkiarekin bat egin zuelako eta katolikoei aholkua ematen zien hauteskunderetan bat egin zezaten elizaren eskubideak eta ordena soziala defenditzeko. Publikoaren artean norbaitek galdera egin zion, ea argazki hori zaldiz jarri behar zen. Alkateak eztabaida eten eta Etxebarria jaunari isiltzeko eskatu zion; hark, ordea, berbetan jarraitu zuen. Alkateak berriro agindu zion isiltzeko, baina Etxebarriak ez zuen protesta isildu. Bukatu zuenean publikotik talde batek irain egin zion eta iskanbilak izan ziren bertaratu batzuen artean.

Urte horretako garizuman ere zenbait aldaketa izan ziren, Udalak baimena eman baitzuen urte osoko beste jai guztietan ospatzen zen dantza garizumako jaietan ere ospa zedin. Baina askoz ere jende gutxiago joan zen igande horietan urteko besteetan baino. Dantza saio horiek garai hartako entretenimendurik handietakoak ziren, batez ere gazteen artean; udaletxean egin zen bileran errepublikanoek, sozialistek eta EAJk musika jotzearen alde eman zuten botoa. Egun pasarako beste entretenimendu ohiko bat pasioak ziren; zinema ere bai, Bedia edo Cinema Popular zinetokietan.

Denbora pasarako modurik ohikoena ere ez zen falta: tabernak, alegia. 1932. urtearen hasieran protestak izan ziren udaletxean eskuineko zinegotzien aldetik, urte horretako aurrekontu handia ordaindu ahal izateko zuzeneko zergak ezarri zirelako.

Horien arabera herriko jaberik aberatsenek gehiago ordaindu behar zuten, eta horregatik hartu zuten jarrera hori, zeren ordezkari politikoek ez zuten izenpetu nahi izan bilera horretako akta. Hilerriak sekularizatu zirelarik hilerri zibilean ehortzirik zegoen gorpu bakararra hilerri katolikora eraman zuten. Hilerrian iragarki berria jarri zen: *Udal Hilerria*, fatxadan zegoen oroitarrian, latinez eta gazteleraz zegoen inskripzioan idatzirik *por aquí solo pasan las obras*.

Garai hartan bazen arazo larri bat, jende askorentzat benetan larria: soldadutzara joan beharra; eta batzuek ahaleginak egiten zituzten hara ez joateko, 1932ko otsaileko aktetan agertu bezala; zenbait mutilek gaixo zirela esaten baitzuten, soldadutzatik libratzeko (Celestino Uriarte, Pedro Gastañarez, Guillermo Ruiz de Alegria).

5.3 Maiatzaren Lehena

Horretako, Maiatzaren Leheneko ospakizunetan, Metalurgia Sindikatuak lokal berri bat inauguratu zuen Maalako errabala kalean. Sindikatu horren jarraitzaileentzat Maiatzaren Lehenak jai eta errebindikazio egunak ziren egiaz; Sindikatuan bildurik manifestaldian joaten ziren plazaraino; han delegatuek eskakizunak irakurtzen zituzten, eta alkateari eman gero. Geroago, pilota partiduak izaten ziren. Eguerdian handi bat ospatzen zen, eta ilunabarrean dantza.

1931n egin zen manifestaldian kartelak zeuden gerraren kontra, kulturaren alde, UGTren alde, Pablo Iglesiasen omenezkoak eta mundu osoko langile guztien batasuna eskatzeko.

Bai, primero de mayon eiten zien. Jai, dana jai, eta orduan manifestazinoak eiten zien. Asko, obrero danak! Orduan obrero danak bat zien, manifestazinoak irteten zauenian obrero danak alde eiten zauen, orduen batzuek egoten zien: gorrixak eta bestiak klaruak. Gorri partian zienak, 1º de mayon manifestazinoak, baina beste aldekuak zienak, errege aldekuak, harek ez zien faten.

*Erdiko kalitiek denak estazinora, eta estazinotik buelta etxe txikietatik, Maalatik gora. Hori zan.*⁴¹

ELAk ere ospatzen zuen Maiatzaren Leheneko jaia, baina ez zen horren erreibindikatzaileria. Urte horretan musika eta artezko ospakizun bat egin zuten.

ELA eta UGTren artean zeuden diferentzien adierazgarri, egokiak izan litezke bi ohar hauek:

*Gure herriak merezi dituen euskal langileak zuengandik izurritea bazinaten bezala urrundu behar dira, zuen jokatibidearekin kausarik hoberenak porrotera daramatzenak baitzazuten.*⁴²

Hipocresia de los solidarios izenburupean honela dio UGTek 1933/3/23ko *Lucha de Clases* alean: *S.O.V. (Eusko Langileen Elkartasuna) aurrerapenari eta langileen libratzeari trabak jartzeko misioa betez ... patronalaren morroi hauek.*

5.4 Gatazka gehiago

Maiatzean iskanbilak izan ziren berriro kalean, Aramaion egindako ekintza batetik itzuleran tradizionalistek herrian zehar manifestaldia egin nahi izan zutelako. Kolpe ugari izan ziren plazan.

Urrian eztabaida bortitzak gertatu ziren berriro udaletxean, zuzeneko zergak zirela eta. Etxebarriak nahiko nahasirik irten zuen bilera hartatik, batzordeko kide izendatu baitzuten etxalde banaketako batzordean, zeina arduratu behar zen eskuinak onartzen ez zituen zerga berri haien administrazioaz. Azaroan arrekontu berriak aurkeztu ziren; eta Bernardo Gómez zinegotzi sozialistak honela proposatu zuen haietan:

- Armada eta Guardia Zibilen hornidurarako partida kendu, eta hori ezinezkoa baldin bada legeak agindua baita, partida hori gutxitzea 4.500 pezetatik 25 pezetara.
- Guardia Zibila ez dadila hartu familia pobretzat, eta horrenbestean dagokien kontsignazioa kendu dakiela.
- Diru partidak haur pobreentzat oinetakoetarako.
- Partida bat langile langabeei laguntzeko.

Bernardo Gómez hori arduratzen zen langabezia zeudenen egoeraz. Ez zegoen langile asko langabezian. 1932an 40 langile zegoen langabe, eta 1933an 75 langile. Udalak geroz eta ardura handiagoa

hartu zuen horiekin. Horrela, 1931n eta 1932an ongintzazko ekintzak guztientzat antolatu baziren, 1933tik aurrera banakakoentzat egin ziren.

Gauzak horrela zeudela, langabe zeuden 4 langilek -Ismael Diez, Emilio Rodriguez eta "Kaxo" ziren 4 horietatik 3-, martxa bat egin zuten oinez Madrileraino, Lan Arazoetako Ministerioaren aurrean beren egoeraz protesta egiteko.

Errepublika garai osoan Arrasaten lan gatazka garrantzitsu bakarra gertatu zen 1933ko otsailean: Unión Cerrajerako torlojugintzako sekziotik zenbait langile lanetik bota zituztelako, hango Metalurgiako Sindikatuak UGTkoa, huelga egitea erabaki zuen, eta lantegiko motoreak gelditzen hasi ziren ELAko eta Sindikatu Libreko langileek lanuzte hura eten ez zezaten.

Enpresaren erantzuna izan zen beste 7 langile lanetik botatzea. Sindikatuak, ordea, erabaki zuen lanuztea aurrera eramatea, astelehenean lanera itzultzen zenean. ELAren erantzuna izan zen lanuztearen kontra joatea, eta *mehatxu guztien gainetik lanerako eskubidea betetzea. Ez dute eskirolaren lana egingo. Bakea nahi baldin badute, bakea izango dute; eskubideak ukatzen baldin bazaizkie, ordea, berebiziko erresistentzia kementsuan topatuko dituzte.*⁴³ Idatzi horrek eta uste izatekoa zen bezala Sindikatu Libreko lanuztera ez joateko hartu zuen erabakiak sutan jarri zituzten sozialistak, eta era batera ez bada bestera prest zeuden lanuztea aurrera eramateko.

Azkenean, lanera itzuli ziren, lanetik egotzita zigortu zituzten langileak, berriro lanean hartu baitzituzten, haietako bi zigortuta 2 egunean lanera joan barik, eta gainontzekoak Bergarara eramanda. Haien artean zeuden Bernardo Gomez eta Pedro Gallastegi, herriko sozialisten buruzagiak.⁴⁴

Hona hemen zergatik gertatu zen lan gatazka bakar hura: enpresek langileak langabeziara bidali ordez, askotan lanegunak gutxitzen zizkieten; horrela, adibidez 1933ko azaroan, astean 3 egunez bakarrik egin zen lana; bestalde, UGT Metalurgiako Sindikatuak zuen indarra; zenbait enpresatan, batez ere Unión Cerrajeran eta Elman; horregatik ez zen hartu neurririk langileen kontra, eta bukatzeko eratu ziren epaimahai mistoak, non langileentzat baldintza onak lortzen ziren



Maiatzaren lehen. Bazkaria Herriko Etxeko trinketean.



Nolanahi ere, lanuztearen aurretik sortu ziren tirandurak zirela bide, liskar bortitzak izan ziren nazionalisten eta sozialisten artean batzoki inguruan. Apirilean Europako gutxiengo nazionalen kongresuko ordezkarien bisitan liskar bortitzak izan ziren berriro nazionalisten eta sozialisten artean batzoki inguruan. Biltzarkideak iritsi eta zain zegoen jende artetik Gora Euskadi baten ekin ziotenean hasi ziren iskanbilak. Beste batzuk Errepublikari Goraka hasi ziren. Mikeleteak eta Guardia zibilak azaldu beharra izan zuten manifestariak apartatu eta biltzarkideak babesteko.

1934ko urriaren 2an beste lanuzte bat izan zen Union Cerrajeran, Solidaridad de Obreros Vascosek deitua. *Ostegun goizean joan ziren euren lanpostuetara eta lan egin zuten normal Solidaridad de Obreros Vascoseko langileek, aurreko egunean Eraikuntzako 2. sailean greban egon zirenek, besoak erorita eta gel-dirik, bi lankide kanporatu izanagatik protestatzeko, uko egin ziotelako erreleboan lan egiteari eta gero uko egin zioten enpresak ezarritako zigorra betetzeari. Horrekin mugaturik geratu da liskarra bi langile horien kanporatzera, eta arazoa behin betiko konpontzeko, behar diren gestioak egingo ditu erakunde bakoitzak.*⁴⁵

Hona hemen, 1934ko urriaren 2an, El Liberal egunkariak argitaratutakoa: “Grebak goizeko berderatzi eta erdietatik arratsaldeko seirak arte iraun zuen. Hogeita hamar langile inguruk egin zuten bat deialdiarekin. Grebalariai kalera bota zituzten ordena berria izan arte, baina, hurrengo egunean lanera itzuli ziren guztiak eta behin betiko kanporatuta izan zirenak hurrengo astelehenean, urriaren 8an, itzuli ziren euren lanpostuetara”.

Sindikatuak herriko lan giroan zuten eragina garbi ikusten da bazkide kopuruak begiratzen badira: STV-ak Resusta Kaleko 19. zenbakian zuen egoitza eta 1935ean 544 bazkide zituen. Sindikatu Libre Profesional Metalurgikoa UGTkoa erakina izan zuen Madalena kaleko 21ean, eta 427 bazkide lortu zuen.

5.5 Gestoren Estatutua

Uztailean, udalak erabaki zuen ordezkari bat bidaltzea udalen biltzarrerara, zeinak erabaki zuen Gasteizen Gestoren Estatutuaren alde jartzea.

Estatutu hori prestatu zen Lizarrako Estatutua Errepublikako Gorteek gaitzetsi eta gero; lehengoak baino babes politiko gehiago zuen: EAJ, ANV, errepublikanoak eta sozialistak. Gasteizko biltzarrean batzorde bat aukeratu zuten, azaroaren 5erako Estatutuari buruzko bozketetara dei egiteko.

Arrasaten 3.624 hautesleren zentsu batetik 3.448 boto Estatutuaren alde, eta 4 kontra. Estatutu hura gehiengoak onartu bazuen ere -Gipuzkoan eta Bizkaian botoen % 90 baino gehiago Estatutuaren alde- horrek ere ezin izan zuen aurrera irten, batez ere Araban Oriol diputatu tradizionalistak estatutuaren kontra hartu zuen jarreragatik.

Eugenio Resusta alkateak dimititu egin zuen, Industrial Mondragonesako zuzendari gerente lanetan lan gehiegi pilatzen zitzaiolako. Ubago izendatu zuten alkate eta lehen alkateorde Nicolas Uriarte.

5.6 1933ko hauteskundeak Gorteetarako diputatuak aukeratzeko

Urte hartan azaroan Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren berriro: alderdiak aurkeztu ziren bakoitza bere aldetik, lehendik zituzten koalizioak etenda. Ez ziren batera joan EAJko nazionalistak eta Tradizionalistak. Eta Errepublikano, Sozialista eta ANVren koalizioa ere hautsi egin zen.

Tirandura eskuineko alderdien taldea osatzen zutenen artean: EAJren eta tradizionalisten artean 1931tik zetorren, EAJ Errepublikaren alde baitzegoen, eta Gestoren alde zegoen. Ezkerreko alderdi taldean, ez errepublikanoek, ez sozialistek, ez zuten interes berezirik koalizio bati eusten jarraitzeko, halako ideologiako diferentziak barne hartzen zituena.

Estatu osoan eskuineko partiduak nagusitu ziren. Arrasaten honako emaitza hauek izan genituen: Arrasaten EAJk iritsi zuen boto kopururik handiena: 1.059; gero, eskuineko koalizioak -karlistekin batera beste zenbait indar politiko ere bazeuden koalizio horretan-, 905 boto. Baina hauteskunde horietan interes gehien izan zuen zer banaketa gertatu zen ezkerreko alderdien blokean, sozialistek 717 boto lortu baitzuten, Alderdi Radikaleko errepublikanoek 163, eta ANVek 30.

Hauteskunde haietan garbi ikusi zen zer garrantzi gutxi zeukaten errepublikanoek, eta hutsean geratu

zen alderdi erradikalaren esperantza, hau da, boto gehien irabaziko zuen alderdia izateko. Hauteskunderen ondoren porrota aitortu zuten, baina ez zuten ezkutatu porrotak zer-nolako etsimena eragin zien. 1934ko Maiatzaren Lehenean ospatu zen manifestaldian garbi azaldu zen gertatu berria, mehatxu faxistak eragiten zuen larritasuna, eta lan eskola baten errebindikazioak. Eskola horri dagokionez, 1931tik hasiak ziren eskatzen eta urte horretan bertan onartu zuten udalean eskola hori egitea, eskola graduatu batzuekin batera. Eskola graduatuak, 1934rako bukatu ziren; Pablo Iglesias kalean zeuden. Gerra garaian berean San Viatorreko fraideek berentzat hartu zituzten; ez dakigu geroztik erabili izan dituzten urte guztien ordainez ezer eman duten. Lan eskola, berriz, ez zen inoiz eraiki.


Sustatzeko Batzordeak Euzko Nekazarien Bazkunak bidalitako idatzi baten ondorioz, proposamen hauek egin zituen:

- Etxeko kontsumorako sagardoa zerga gabe uztea, hemen bildutako sagarrarekin egina bada.
- Aldundiari Arrasaterako landa zain bat eskatzea.
- Herri honek ia batere herri mendirik ez duenez gero, dauden apurrak dauden egoeran bertan uzteko.

5.7 Ardoaren estatutua

Udan ardoaren estatutuaren arazoa izan zen. Gobernu zentralak, mahasti jabe eta ardogile handiek hartara beharturik, irtenbiderik eman ezin zioten ardo kopuru handiak baitzituzten gordeta, ardo zergagabetzea erabaki zuenean, udalek gogotik egin zioten kontra. Izan ere, Kontzertu Ekonomikoak zioenaren kontrakoa zen. Udan protesta mobilizazio handia egin zuten. Kontzertu ekonomikoa defendatzeko, kudeatzaileez aparte, udalek izendatutako probintziako organismo batzuk sortu ziren, foruen defentsan haien ordez jardun zezaten. hasieran nazionalistek eta foralistek bultzatu zuten mugimendu hori, baina ezkerak oro har alde egin zuen eta eskuinak kontra.

Abuztuaren 12an, udal bakoitzak bere batzordea izendatu behar zuen egunean, polizia, armada eta guardia zibileko indar kopuru handiak bildu zituen



Udal korporazioaren dimisioa.

gobernuak Euskal Herriko herri guztietan. Euskal Herriko 70 alkatetik gora atxilotu zuten.

Zumarragan egiteko, biltzar baterako deia egin zuten ardoaren estatutua eta kontzertu ekonomikoen aldaezintasunaz hitz egiteko, eta Gobernuak errepresioa areagotu zuen. Atxiloketa gehiago egin zituzten, eta Zumarraga asaltoko Guardiaz bete zen; ozta-ozta eutsi zieten Euskal Herri osoko zinegotzi eta alkateei. Udalletxeko ateak bota eta bilera egin zen. Indalecio Prietok ezkerren elkartasuna agertu zien udalei. Telesforo Monzonek hitzaldi bat eman zuen euskaraz, eta Kataluniako adostasun agiriak entzun ziren. Irailaren 3an, errepresiozko uhin berari jarraiki, berriro eraso zieten Gernikako Zuhaitzaren aurrean Gernikako Arbola abesten ari ziren euskal parlamentarioei. Ekintza horri erantzuteko, udal guztiek dimisioa aurkez zezatela erabaki zuen udal batzordeak. Gipuzkoan eta Bizkaian bat-batekoa da erantzuna.⁴⁶

Euskal Herriko udal korporazio gehienek dimititu egin zuten; irailean izan zen hori. Arrasateri dagokionez, irailaren 7an EAJko zinegotzi guztiek, ANVkoek, errepublikanoetako bik eta sozialistek dimititu egin zuten. Resusta eta Ubago zinegotzi errepublikanoak, eta karlista guztiak, gobernuaren jarreraren alde azaldu ziren. (Liberal aberatsek, Errepublikaren etorrera gogotik txalotu zuten berberak, Errepublikak eskutatik alde egiten diela konturatzen hasi ziren eta ikusten dute nola poliki-poliki ezkerreko erakundeen eskuetan tresna arriskutsuegia bihurtzen ari zaiela, ezkerreko erakunde horiek handitzen ari baitira bai kopuruz bai gizartean duten eraginaz, eta burgesiaren eskema errepublikanoa zalantzan jartzen ari dira). Udaletzeko bilera bukatu zenean, bertara bildurik zen jendeak -alkandora ilunez jantzitako sozialistak gehienak- manifestalditxo bat egin zuen berez sakabanatu zena. Manifestaldi hori ospatu zen moduak berak zer pentsatua ematen zuen gerora ere gertakariak izango zirela.

1934ko irailaren 7an udal korporazioa egiten ari zen bileran, ez ziren ez Ubago ez 4 karlista, eta bi idatzi irakurri ziren: lehena dimisioa aurkezteko eta bigarrena Resustak zergatik ez zuen dimititu erakusteko.

Handik bost egunera Ubago, Resusta eta lau karlistak bildurik eta Ogasun Batzordearen iritzia kontra, erabaki zuten Agirrerren alargunari 60 pezeta ordaintzea, 6 egunean 4 guardia zibili ostatu emateagatik.

El Liberal egunkariko korrespontsalak ondorengo hau argitaratu zuen: “Bertako Ezkerreko Errepublika Elkarteak Eugenio Resusta kanporatu du bere dimisioa sozialista, nazionalista eta ezkerreko errepublikanoekin batera ez aurkezteagatik.”

Irailaren 28an udalburuak protesta agertu zuen Resustaren etxearen ondoan petardo bat jarri zelako.

5.8 1934an Arrasaten alfabetatu gabe zeuden herritarren argazkia

1934ko erroldan 7.000 ziren botoa emateko eskubidea zuten herritarrak eta hauetatik %8,2a alfabetatu gabe zegoen, guztira, 573 pertsona. Estatu Espainolaren herritarren alfabetatze

portzentajearekin alderatuz gero, 1930ean %32a zuena edo Gipuzkoakoarekin alderatuz gero, %25,5 ekoa zuena, Arrasateko herritarren alfabetatze

datuak nahiko onak ziren. Litekeena da hemengo datuak hobeak izatea 1931tik aurrera, Bigarren Errepublikak alfabetatzea sustatu zuelako. (1931ko abenduaren 9an onartutako Konstituzioak eskola eredu bakarra, publikoa, laikoa eta doakoa aldarrikatzen zuen eta honek itxaropen handiak sortu zituen emakumeengan).

Hala eta guztiz ere, Estatuan zein Arrasaten, oso altua zen alfabetatu gabeko emakumeen kopurua. Arrasateko portzentajea %64,5ekoa izatera iritsi zen (370 emakume arrasatearrek ez zekiten ez irakurtzen ez idazten).

Arrasaten, alfabetatu gabe zeuden 573 pertsonetatik, %61a 50 eta 90 adin tartekoa zen eta 23 eta 50 urte arteko 222 pertsona ziren alfabetatu gabeak (hauetatik 74k 35 urte baino gutxiago zuten).

Okupazio-eremuan ere genero joera nabarmena zegoen. Emakumeen okupazio ezberdin guztiak “zereginak” ziren. Hemen kokatzen zituzten, etxeko lanak, pertsona zaharren, haurren edota mendekotasuna zuten pertsonen zaintza, gastuen kudeaketa, familiako negozioetako esku-lana, ordaintzen ez ziren eta gizarte segurantzarik ez zuten etxetik kanpoko lanak, e.a. Gizonezkoen lanbide gehienetan nekazaritza edo industria agertzen da.

Hizkuntzari dagokionez, datuek esaten digute 573 alfabetatu gabe gehienak euskal hiztunak zirela. 40 gaztelaniadun agertzen dira (beste probintzia batzuetatik etorritakoak).

5.9 Eskumaren garaipena. Gobernuaren bira eskumara. Patronalaren harrokeria

1933aren bukaerako hauteskundeetan eskuina garaile atera zenean, patronalak aukera ikusi zuen jarrera gogortzeko. Inguruetako enpresetan askotan gertatu ziren honelakoak, lanetik botatzea, langile plantilak murriztea eta lan orduak gutxitzea. 1934ko abuztuan UCEMen 51 langile bota zituzten kalera, Industrial Mondragonesan eta Elman astean 4 egunetan egiten zen lana, eta Metalurgica Cerrajeran astean 3 egunetan.

Langileen eta lantegi jabeen artean harremanak erabat aldatu ziren, zeren, enpresen zuzendaritzan jokaerak aldatu baitziren eta autoritatea bihurtu baitzen baliozko printzipio bakarra. Toribio Agirrek Cerrajeran ezarria zuen paternalismoa berekin

batera suntsitu zen. Hark erretiroa hartu zuenean, 1933an, haren suhia Marcelino Oreja Elosegik, zegoeneko aurreko urtetik Administrazio Kontseiluko lehendakaritza kargua bereturik zuenak, enpresaren gidaritza osoa bere esku hartu zuen. Lankiderik hurbilenekoe, Camilo Basterretxea eta Ignacio Chacon injineruak, hark etxetik zer agindu, huraxe betearazten zuten lantegian.

Produktibitatea jasoarazi zuten, lehen 3 langile zeuden lekuan 2 utzi; langile asko lanpostuz aldatu zuten, eta are gehiago 1916ko lanuzte garaian eskirrol lana eginez enkargatu izatera iritsitako asko ere langile berezilari izatera jaitsiak ikusi zuten beren burua, 60 urte zutela; eta azkenik, beldur gehien eragiten zuena, lanetik kanpora botatzea. Eta, gainera, lekurik izan barik eztabaidatzeko.

Jokabide politikoei zegokienez ere, ez zuen askorik zaintzen bere irudia langileriaren aurrean. UCEMko langileak lanuztean zeudela, sonatuak bihurtu behar zuten zenbait esaera jaulki zituen Elorrion egindako mitin batean. 1934ko matxinadan parte hartzeagatik atxilotutako lau arrasatearrek gogoratzen zituztenak... *Nire etxean ez dago horientzako ez ogirik ez lanik, nire fabrikan ez da sartuko UGTko bazkide den errepublikanoren semerik. Belarra jan beharko dute goseak hil nahi ez badute.*⁴⁷

José Maria Uranga Elorrioko konferentzia hartan egon zela baieztatu eta aurrekoa kalumnia bat dela esaten du. *Jarrantzen du esanez, honen jarrera kulturala eta bere izaera ezagututa, erabat aldrebesa eta zentzugabea da. Segurtasun osoz tinko, Katolikoa eta demokratizat*

definitzen zuen bere burua. Gorteetako diputatu Bizkaiko tradizionalistekin. Oso erlijioso zen eta egunero joaten zen mezetara.

Lantegira sartu zenetik, eztabaida handiak izaten zituen presentzia handia zuten UGTkoekin eta sozialistekin. Mugimendu haren ezaugarrietako bat zen antiklerikalismoa. Jesus Trincadok esaten duen bezala: *nire ustez, erlijioak dira sarrailagile izan nahi ez zuten pertsonen sortutako istorioak. Eta infernuaren beldurrean oinarritutako ipuin horiek oso ondo datorkie esplotatzaileei, azken horiek duten izena dutela, Marcelino, Ricardo, ...*

Urte berean, 1933ko maiatzaren 15ean, onartu zuten Unión Cerrajerako tailerretako araudia. Araudi hark ordutegia arautzen zuen lantegira sartu eta irteteko. UGTkoen iritziz, araudi hura zen araudi militar bat. Artikuluetan arautzen ziren, sarrera-irteera orduak, asistentzia faltak, diziplina, baimenak eta zigorrak. Arrazoa zuten. Lanera sartzeko orduaren inguruan, honakoa idatzi zuen Jesús Trincadok: *Marcelino Orejaren proiektu bikainak nork bere lursailean ereiten duenean bezalakoak dira. Arautegi militar honen aurka matxinatzen naiz esaten duenean, langileen zenbakidun txapen fitxategia lanean hasi baino hamar minutu lehenago irekiko dela. Kontramaisuaren erlojuak fitxategia irekitzeko zain dauden langileek izango duten morroi itxura imajinatzen dut. Lotsagarria iruditzen zait bere planetan eman nahi duen egitasmo demokratikoetarako.*

Hona hemen, beste batzuen artean, diziplina atalean jasota dagoena: *Gutziz debekatuta dago laneko*



Sozialistak Bedia antzokian antzerki saio baten ostean. Ezkerretik hasi eta 5. Celestino Uriarte da, 7.a Cosme Altuna (Txaparro). Ezkerretik hasita bigarrena behean, Pedro Gallastegi (Londres), erdian Brigida Monge eta Gregorio González Rubio.

gaiei buruz azalpenak jaso edo emateko ez den beste edozein gairi buruz hitz egitea. Langileek ezin izango dute euren sekzioko lan-postua utzi justifikatutako arrazoirik gabe. Debekatuta dago lan orduetan jatea edo alkoholadun edaririk edatea.

Munduko ekonomiaren krisialdiak ekarri zituen emaitzetako beste bat izan zen Europa osoan faxismoak ezagutu zuen gorakada: 1933ko urtarrilaren 30ean Alemanian Hindenburgek Hitlerren eskuetan utzi zuen agintea; handik luzera gabe Dollfuss kantzilerrak erruki gabe zanpatu zituen Austriako sozialistak eta, 1934ko otsailean Valladoliden bat egingo zuten Falange Españolak eta Juntas Ofensivas Nacional Sindicalistas-ek (JONS), eta martxoan Erromara bidaia egin zuten Antonio Goikoetxeak, Barrera jeneralak eta beste zenbait buruzagi tradizionalista ezagunek.

Mussolinirekin bildurik dokumentu bat eman zioten sinatzeko; honela zioen bigarren puntuan: *Asmo horren (Errepublika irauli, eta monarkia jarri haren lekuan) egiazkotasunaren aurretiazko froga bezala prest dagoela berehala 20 mila fusil, 20 mila esku granada, 200 metrailera, eta 1.500.000 pezeta emateko (M. Tuñón de Lara: "La España del siglo XX").* Errromatik irten zutenerako bazuten 1.500.000 pezeta eskuetan, eta handik gutxira gainerakoa iritsiko zitzaizkien. Handik aurrera gazteria tradizionalistako zenbait partaide Italiara bidali zituzten arma modernoak erabiltzen ikasteko; ofizialki praktikak egiteko bidaian zeuden Peruko ofizialak ziren.

5.10 Gazte Sozialisten erradikalizazioa

Lehen ere esan dugun bezala, horrek guztiak eragin handia zuen PSOEn baitan, eta horren ondorioz, geroz eta indar handiagoa zihoazen hartzen joera erradikalak, Francisco Largo Caballero, Araquistain eta Alvarez del Vayo gidari zituztenak. Arrasateko Elkarte Sozialistako bazkide gehienak joera horretakoak ziren. 1933ko Maiatzaren Lehenean Arrasateko sozialistek eraman zituzten pankarten edukia zen, maiatzaren 4ko "La Voz"ek zioenez: *Viva el 1 de mayo, Control obrero, Exigimos escuelas de trabajo, Por el desarme de las naciones*; hurrengo urtean, horiez gainera faxismoaren mehatxua ere aipatu zen. SESBren miresleak ziren, iraultza sozialaren alde agertzen ziren, eta Herriko Etxean Leninen erretratua ohorezko lekuan zegoen jarria.




"La Lucha de Clases" en izenburua. 1933ko irailaren 28a. Egunkari berdinaren ilustrazioa 1934ko martxoaren 22an.

Largo Caballerok 1933ko azken egunean hauek esaten zituenean: *Langileriak botere politikoa eskuratuko badu, bortxaz lortu beharko du azkenean, nik diot herri osoa armatzera joan behar dugula, eta langileriak ez duela beteko bere egitekoa horretarako prestatzen ez baldin bada, ordurako bazen Arrasaten milizia talde bat, bertako talde sozialistako elementurik gazteen eta erradikalenek osatua.*

Talde hori herriko Elkarte Sozialistaren egituratik aparte antolatu zen, nahiz eta hark bazekien taldearen existentziaren berri eta ez zuen eragozten haren funtzionamendurik. Talde hori erdi militarra zela dudarik ez dago, eta halaxe gogoratu dute hango partaide izan ziren batzuk, esanez mendian ikasten zutela armak eta lehegailuak zelan erabili, uniforme jantzirik ibiltzen zirela, eta herriko kaleetan formazioan sartzen zirela *Internazionala* abestuz.

Gazte Sozialisten ereserkia:

Trabajador no más sufrir
la explotación ha de sucumbir
¡Levántate pueblo leal,
al grito de revolución Social!



1934ko grebarako deialdia.

Juventudes Socialistas, ¡Adelante!

Juventudes socialistas, ¡Hay que armarse!

Talde horretan oinarri harturik antolatu ziren 1935ean Ondarretako kartzelan Arrasateko Gazteria Sozialista, 1936ko martxoan komunistekin bat eginik Gazteria Sozialista Bateratua osatuko zutenak. Gerra iritsi zenean erakunde horretatik sortu zen *Dragoiak batailoia*. 1934an 100en bat partaide zituen talde hark; ezin liteke esan herriko Elkarte Sozialistako partaideak askoz ere zaharragoak zirenik. Oso gutxi ziren 25 urtetik gorakoak. *Aitzindari talde* haren eta herriko beste bi erakunde sozialisten artean zeuden harremanak beren neurrian ezagutzeko, kontuan hartu behar da bertako partaideak haietako partaide ere bazirela, batez ere Metalurgiako Sindikatuari dagokionez.

1934ko apirilean Ricardo Samper, Lerrouxen iterearen Gobernu eratu zen. Gobernu horrek iraun zuen denbora laburrean, iskanbila handiak izan ziren kalean: tradizionalistek entrenamendu

militarra ematen zioten bere jendeari Nafarroan, falangistek Estatu osoan erasoka erabili zituzten ezkertiarren lokalak, enfrontamendu armatuak izan ziren faxisten eta Gazteria Sozialista eta komunisten artean, lanuzteak, arma bidaltak...Gerra egoera ezarri beharra aipatzen hasi zen.

Urriaren lehenengoan Gobernu erori zen. Alcalá Zamorak, Alejandro Lerrouxi eman zion kabinete berria antolatzeko kargua. Bistan zegoen CEDAk lekua izango zuela kabinete horretan, eta sozialisten, komunisten, eta errepublikanoen ustez Errepublikaren amaia izango zen hori. Gil Robles "Hitler espainola" zela zioten.

Prietok berak ere esana zuen: *Alderdi sozialistak hitz ematen du estatu kolperik bada iraultzari ekingo diola*. Urriaren 3an tropak kuarteleratzea agindu zuten eta urriaren 4aren arratsalde erdian gobernu berria eratu zen, CEDAko 3 ministro zirela.

Gauerdirako aginduak emanak zeuden.

6. 1934ko Urriko Iraultza

1934ko urriaren 5a

Abisua Eibartik iritsi zen, goizeko ordu batean. Lehendik prestatuak zegoen bezala, harremanetarako kargua zuen talde bat ibili zen etxez etxe esnatzen indar iraultzaileetako partaideak banan-banan, eta taldeetan banaturik herriaz jabetzen hasi ziren goizaldeko 3:00ak aldera. Gauzainak eta mikeleteak, aguazilak eta lantegi zaintzaileak harrapatu zituzten beren etxeetan edo lantokietan. Armak kendu, atxilotu eta herriko etxera eraman zituzten.

Trenbideko geltokia hartu eta pare bat trenen irteera eragotzi zuten. Trenbidean karril batzuk jaso zituzten eta lokomotorak zaindu zituzten sugile talde bat utzirik, geltokiko arduraduna, langileak eta gainerako sugileak ere preso eraman zituzten. Herriko bi arma dendetan, eta ehiztarien etxeetan, eskopetaz eta kartutxo hornitu ziren. Baserritarrei esnea kendu zieten, “casa Pio” nean ogiaz jabetu, “Napoleon” enean haragiaz, eta Unión Cerrajerako ekonomatoa asaltatu zuten, eta han hartutako janari guztiak ere Trinketera eraman zituzten.⁴⁸

Aurrezki Kutxaren telefono zentrala hartu eta desbaliatu egin zuten; mikeleteen kuartelxoaren eraikuntza berbera zen. Esan beharra dago aipatu establezimendu horietan guztietan ez zutela dirurik ezertarako ukitu, bazekitelako, ziur asko, handik ordu gutxira gidariek abolitu egin behar zutela.


Eta azkenik patruila armatuak jarri zituzten herriko leku estrategikoetan, sarrera-irteeretan, herriarrek kalean ibili ezin izan zezaten. Goizeko 5:00etarako Arrasate ia osoa harturik zegoen. Guar-



Toribio Agirrerren etxea.

dia Zibilaren kuartela falta zen, eta hura errendiaraztera joan zen sozialista taldearen gehienak.

Handik ordu laurden batera ere gabe hasi ziren lehen tiroak. Eugenio Edurra, karlista, Sindikatu Libreko bazkidea, bizikletan zihoan bere lan lekura, Bergarako Labe Garaietara; kontrol patruila batek San Frantziskoko elizaren aurrean geldiarazi zuen. Etxera itzul zedin aginduaren jaramonik egin ez, eta bideari jarraitu nahi izan zionean, patruila hartan zeudenek tiro egin zioten eta berna gainean jo zuten (lehen sendaketa Arrasaten bertan eginik, Eibarrera eraman zuten, eta han hil zen handik bizpahiru egunera). Marcelino Oreja handik metro batzuetara bizi zen, Toribio Agirrerren etxean. Goizeko 8:30ean 5 gizon joan zitzaizkion bila eskopetaz eta pistolaz armaturik.



Arrasate.- 1934ko urriaren 5eko iraultza.

Gertalekuaren deskripzioa:

- 1.- "Herri Etxea" eta trinketea. (Okendo jauregia).
 - 2.- Oreja eta Resusta jaunak hilik erori ziren lekua.
 - 3.- Toribio jaunaren etxea eta baratzea, Oreja jauna atxilotu zuten lekua.
 - 4.- Rikardo Azkoaga jaunaren jauregia eta ortua.
 - 5.- Guardia Zibilaren kuartela.
 - 6.- Behinolako Cucharerako etxea.
 - 7.- Unión Cerrajerako indar transformadoreko txabola.
 - 8.- Etxearen beheko paretan zabaldutako zuloa.
 - 9.- Sortzez Garbiaren komentua.
 - 10.- Eugenio Eduarra langilea larri zauritu zuten lekua.
 - 11.- Gipuzkoako mikeleteen kuartela eta Aurrezki Kutxa.
 - 12.- Unión Cerrajerako ataria eta goardalekua.
 - 13.- Ignacio Chacon bizi zen etxea.
 - 14.- Rikardo Azkoaga jauna, ibaiaren bestaldera igaro eta tropek hartu zuten lekua, estalia eta estali gabe.
 - 15.- San Juan Bataiatzailearen parrokia.
 - 16.- Bi soldadu zauritu zituzten lekua.
- (planoa eta argibideak Jose Letona jaunak emanak)

Lehenago izandako tiroak entzunik, familia osoa arrosarioa erreztatzen ari zen. Marcelinok erresistentziarik egin gabe amore eman zuen eta Trinketeko lehen solairuko areto batean geratu zen atxiloturik, atxilotutako gainerako guztiez aparte (20koren bat), haiek beheko solairuan baitzeuden.

Gero, Ignacio Chacon injineruaren bila joan ziren, baina hura ihes egin zen. Juanito Etxeberriaren etxean zegoen ezkutaturik. Ricardo Azkoaga UCEMeko administrari burua eta alkate ohia berehala joan zen Orejari lagun egitera, bere txaletean atxilo hartu zutelarik, Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean.

Bien bitartean kuartela inguratutik zuten. Unión Cerrajerako bulegoetatik Guardia Zibilaren kuartelera zihoan telefono haritik, errenditzeko agindu zioten postuko buruari. Hark amore ez ematean asaltoari ekin zioten. "Cucharrera" etxea hustu zuten (garai hartan kuartelaren ondokoa zen, geroztik kuartelaren zati bat bihurtu zena) etxe hartako leihotatik kuartelaren defendatzaileek tirokatu eta su bonbak jaurtitzeko. Horretarako, baita ere, zulo bat egin zuten "Zerkaosteta"ko lehenengo etxearen paretan, arku duena.

Dagoberto Resustak, probintziako diputatu eta UCEMeko aholkulariak, enpresa berean kargua hartua zuen Azurza bere suhiari zer gertatu ote zitzaion larriturik irten zuen "villa Amparo"tik. Inolako arazorik gabe iritsi zen haren etxeraino, Iturrioz kalean, "Morales" farmaziaren gainean; eta han jakin zuen, etxeko alabak esanda, eramana zutela. Gehiago pentsatu gabe, Herri Etxera joan zen haren bila, baina atean guardia egiten zeudenek ez zioten utzi sartzen Iraultza Batzordearekin hitz egitera, asmoa zuen bezala, eta agindu zioten etxera aldegiteko, kalean ibiltzea debekatua zegoela eta ez zegoela ezer bere kontra. Dagobertok lehian jarraitu zuen, lehia iskanbila bilakatu zen, eta

Resusta lehenengo solairuko aretoan zegoen, beste biekkin batera.

Ez ziguten eman inolako programarik. Guk geuk egin genuen, arazoak sortu ahala programa egiten joan ginen. Helburua argi genuen: Iraultza Sozialista. Eta bide horretatik zihoazen hartu genituen neurriak. ⁴⁹ Hala eta guztiz ere, aditzera eman zuten bandoaren edukia bat zetorrela Estatuko beste zonalde batzuetan deklaratu zuten bandoarekin, Asturiaskoa kasu. Goizerdi aldera bando bat argitaratu zen, eta Errepublikan sozialista aldarrikatu zuten; dei egin zuten berdintasun sozialaren alde, eta dirua abolitu zuten; eskatu zieten biztanleei eratu berria zen erregimenari obeditzeko; gerra legea ezarri zuten, eta jakinarazi zuten janariaren banaketa Herri Etxetik antolatuko zela. Beste bando batean jakinarazi zuten janari premian zegoena joateko aipatutako lekura.

Egun hartan Venancia Uranga, José Antonio Lezetaren emaztea bera, hilobiratzea ospatu behar zen. Haren familiartekoek baimena eskatu kalean zebilen patruila bati, eta hark Iraultza Batzordeari galdetuta prestamenak antolatu zituen gorpua hilerrira eramateko. Hiletaren buru zihoan Jose Joaquin Arin parroko jauna, eta segizio guztia osatzen zuten gorputz eramaileak eta familiarteko banaka batzuek, bai hilerrira joaterakoan, bai handik etortzerakoan, iraultzaile armatuek eskolta egiten ziotela.



Aurrean Guardia Zibilaren kuartela, eta haren ondoan “Cu-charera”ko etxea. Atzean Rikardo Azkoagaren txaleta

Eguerdian Guardia Zibilak erasoari eusten zion oraindik. Batzordeak kanpotik zituen albisteak ez ziren onak gainera. Herri sarreran azaldu zen merkatarari batek esanda, bazekiten altxamendua ez zela zinez arrakastaz egin.

Merkatari hori, taberna batean ordaindu gabe bazkaldu ondoren (dirua bahituran kendua baitzioten), askatu egin zuten bidaiari aurrera jarrai zezan, bahituran kendua zioten guztia itzuli ondoren. Azkenean kuarteletik emakumezko eta haurrei kanpora irteten utzi zieten, gero UCEMko autobonba baten bidez gasolinaz busti eta Guardia zibil guztiak barruan zirela su emateko, errenditzen ez baziren.

Horretan ari zirela dei urgente bat iritsi zen: Takolo inguruan soldaduak azaldu ziren kamioi batzuetan. Arratsaldeko ordubiak iristear ziren. Dena bertan utzirik iraultzaileak Herri Etxera joan ziren korrika; han ere larritasuna eta urduritasuna ziren nagusi. Batzuk ate aurrean kamioi bat iraultzen ari ziren bitartean barrikada moduan jartzeko, beste batzuek arduratu ziren lehenengo solairuan atxiloturik zeuzkaten hiruez. Lehenengo Madalena kalerantz eraman zituzten, baina gero buelta emanda frontoi atzealdetik ortuetara; ortutik ortura iritsi ziren “Ferixaleku”rako bide bazterreko metro bete pasatxoko hormara, zubi ondoan. Azkoaga pareta gainera igo eta jiratu zen Marcelino Orejari laguntzeko igotzen, hura zen lodiarekin dorpe samar baitzebilen gizona. Dagoberto atzetik zetorren. Orduan entzun ziren tiroak.

Dagoberto Resusta berehala hil zen, Marcelino Oreja larriki zauritua. Geroago bere etxean hil zen. Ricardo Azkoagak, oin batean zauriturik, salto egin bidera, handik ibaira, eta uretan gora joanez, Olarte kalera irten zuen “Markiegi” eta “Uriarte Sport” tartean dagoen kantoitxoan, militarren kamioiak paretik igarotzen ari ziren une-unean. Geldiarazi zituen, eta gertatuaren berri eman zien; infanteriako konpainiako agintariek erantzun zioten Gasteizik zetoze eta aginduak zituztela Eibarrera joateko. Ricardo Azkoaga kamioi batean hartu eta haiekin eraman zuten; ez zekiten ezer Arrasateko liskarren gainean, ez zen harritzekoa, telefonoa iraultzaileen esku zegoen eta. Bergarara eraman eta han medikuarenean utzi zuten.

Eguerdian Jose M^a Lasagabaster eta biok geunden Bengoa taberna ondoan, tiro batzuk entzun genituen,



Dagoberto Resusta erdikoa, ezkerrean Primo de Rivera eta Ricardo Azcoaga.



Marcelino Oreja Elosegui. Industria Museoen Fonda, Arrasateko udal artxiboa.

Ferixalekura joan ginen eta handik Txokoren albo batera, horma zati bat jausita zegoen lekura, eta horma ondoan ikusi genuen Oreja, bizirik, eta apur bat

aurrerago, frontoi ondoan, Dagoberto, hilda. Apur bat geroago, armadako konpainia bat agertu zen, Toribio Agirre kaletik zetorren; iraultzaileek pentsatu zuten Arrasate hartzen zetozela eta ihes egin zuten San Kristobal mendira, baina militarrek Eibar alderantz jarraitu zuten.⁵⁰

Oraindik bizirik zela, karlista batzuek etxera eraman zuten Oreja, Eibarrerako bidean herritik igaro ziren soldaduak zirela-eta iraultzaileen artean izandako nahasketaz baliatuta. Apur bat geroago hil zen etxean.⁵¹ Dagoberto Resustaren gorpua zegoen metro batzuk haratago, Batzokiko frontoiko hormatik gertu. Haien aurretik pasatu ziren sozialistak, erresistentzia bertan behera utzita, mendirantz ihesean, Altamirarantz. Baina konturatu zirenean soldadu taldea ez zela gelditu herrian, Eibarrerantz zihoalako, behera etorri ziren berriro. Ordurako, gainerako atxilotuak etxera itzulita zeuden.

Arratsaldeko bostetan, egoera bere onera etorrira, beste bando bat argitaratu zuten eta seietatik aurrera kalean egotea debekatu zuten. Ordu bat geroago, infanteriako bi konpainia, Flandes erregimentukoak, Camilo Alonso Vegaren agindupean, Arrasaten sartu ziren. Tiro batzuk jaurti zizkioten elkarri, eta soldadu batzuk zauritu zituzten, Erdiko kalearen goialdean.⁵²

Arratsaldeko bostetan, egoera bere onera etorrira, beste bando bat argitaratu zuten eta seietatik aurrera kalean egotea debekatu zuten. Ordu bat geroago, infanteriako bi konpainia, Flandes erregimentukoak, Camilo Alonso Vegaren agindupean, Arrasaten sartu ziren. Tiro batzuk jaurti zizkioten elkarri, eta soldadu batzuk zauritu zituzten, Erdiko kalearen goialdean.⁵²

Herriko etxea inguratu zuten gau osoan, Madalenako errebaletik, Olatxoko kantoitik eta atzealdeko ortuetatik. Urriaren 6ko egunsentian, Herriko Etxea hartu zuten, erresistentziarik gabe. Metrailadore bat jarri zuten Izquierda Republicanaren egoitzaren ertzean bertan, orain Monte taberna dagoen lekuan. Soldadu tropek tiro batzuk egin zituzten etxe horren kontra, baina ez zieten erantzun. Atea zabaldu zuten ostikoz eta zartatekoz. Ez zegoen inor.

Hartu zutenean, zer aurkitu zuten, hilaren 12ko La Voz esan zuenez: 11 botila likido erregarri, 41 granada (ELMAko tuboak polboraz edo dinamitaz eta burdin eta altzairuzko bolaz beteak, metxa azkar batez pizteko prest), 244 kaxa kartutxo, 13



Elman egindako eskuko bonbak.

zaku perdigoi, pistola bat, errebolber bat, eta ehizako 13 eskopeta.⁵³

Zehaztasun batzuk

Matxinada gertatu baino hilabete batzuk lehenago erabaki zuten Alderdi Sozialistako eta Arrasateko UGTko militanteek parte hartuko zutela bertan: *Errepublika arriskuan zegoen erregimenaren etsaiak honen jabe egin baitziren. Alderdi Sozialistak eta UGTk elkarrekin egindako bileretan, gehiengoak erabaki zuen herria konkistatzera atera beharra. Prestaketa lanak etengabeak izan ziren esku hartzea berehalako izango zelakoan, santu-zeinak jaso bezain pronto, alegia. Hilabeteak eman genituen armak eta lehergaiak nola erabili ikasten. Aurreneko xedea: Arrasate menderatzea eta arazorik izanez gero, Eibarrera joatea.*⁵⁴

Altxamenduzko mugimendu haren gidaria izan zen Iraultza Batzordea; hura arduratu zen bandoak idazteaz, eta hark hartu zuen Arrasateko agintaritzza. Bat egiten zuten borrokatzean Errepublika Sozialaren

alde, eta erabili behar zituzten bortxazko baliabideetan. Iraultzaile taldea 200 gizon inguruk osatu zuten, UGT, Gazteria Sozialista eta Elkartea Sozialistako bazkideak gehienak. Komunistek EPK) ere hartu zuten parte, Estatuko gainerako lekuetan bezala; Arrasaten, ordea, oso garrantzi txikia zeukaten; ez ziren iristen dozena erdira eta haien artean zeuden Jose Fernandez Barbero, Felix Arsuaga Astondoa eta Francisco Azkonaga Arana.⁵⁵ CNTko erakunderik ez zegoen. Eta, azkenik, babestu zituen ANVko kide batek, Gabriel Goitia Uralde.⁵⁶ ANVren jarreraren berri dakigu Gabriel Goitiak egindako deklarazioetatik: *Alderdi Sozialista bai zegoela jakinaren gainean... Gainerako indar politikook ez genekien ezer. Nik parte hartu nuen urriaren 3ko gauean Companysek Katalunian egindako deia entzun nuelako, jendeari eskatu baitzieten irteko eta aurre egiteko ezarri nahi zen diktadurari. Iruditu zitzaidan hori guri ere bazegokigula, eta ezin genuela geldirik egon... Gipuzkoan mugimenduari bat egin genuen bakarrak. Ordiziako batzuk eta ni izan ginena. Hori zela eta, atxilotu nindutenez gero hasi nintzen erakundeaz ezagunago egiten. Horren ondoren, erakundeak bat egin zuen nire jarrerarekin, espetxean egon nintzen denbora guztian laguntza eman zidaten eta.*

ANVko Batzorde Nazionalako idazkariak, Andres Pereak idatzi zuen: *Greba Orokorrean, batera azaldu ziren bi aldeetako sozialista, komunista eta jeltzaleak. Gertaera haietan, Alderdi Jeltzalearen organoak bere erantzukizuna saihesteko modua epaitu gabe, Eusko Abertzale Ekintzak (ANV) gure erakundeak, gure afiliatuen eginak eusten ditugu non, azken orduan, borroka gertatu zen lekuan beratu bertan behera utzi zuten. Hauetako asko kartzelan sa. rtu dituzte. Duela gutxi, Marcos San Esteban hil da Larrinagako kartzelan*⁵⁷

EAJ eta ELAren parte hartzeari dagokionez, *urrian Euskal Herrian izan ziren gertakarietako arazorik eztabaidagarrienetako bat da dio José Luis de la Granjak De las elecciones de noviembre 1933 a la revolución... liburuan. Ukatu egin zuten parte hartu zutenik; bai eskuinak bai ezkerak, aldiz, bestela zioten bitartean... dudarik ez dago EAJk eta ELAk ez zutela parte hartu altxamendu mugimendua prestatzen eta zuzentzen; EAJko gidariek eta buruzagiek, iraultza lehertu ondoren, nahikoa froga dira burkideei emandako aginduak:*

EAJ: Parterik ez hartu, inola ere parterik ez hartu inolako mugimendutan, eta adi egon beti

ere agintariak kasu bakoitzerako emango dituzten ordenetara. Madrilgo kongresuan parlamentuan gutxiengoa zuen EAJ-PNVko buru José Horn y Areilzak La Gaceta del Norte egunkarira gutun bat idatzi zuen bere iritziz gertatutakoa azalduz. ...Euskal ALderdi Jeltzalearen Kontseilu Gorenak parlamentuko gutxiengoaren aholkularitzarekin, entzun eta kontsultatu zuena, zurrumurru dabilen mugimendurekin bat ez egitea erabakitzeaz gain, guztiz kontrakoa adostu zuen, hau da, greba orokor iraultzaile deitutako deialdiari ez babesik ez laguntzarik ez ematea.⁵⁸

ELA: Lanera joanez gero arriskurik ez dagoen lekuetan langile guztiak beren lanera joan daitezela; baina horretarako inolako eragozpenik edo arriskurik topatzen baldin badute, doazela berriro etxera, erakundeak agindu ez duen inolako ekin-tzetan parte hartu gabe. STV-ELAk zer ildo jarraitu markatu zien Gipuzkoako afiliatuei: 1. *Jakinaraztea Gipuzkoako euskal langileen talde guztiei eta haien afiliatuei STV-ELA erabat kanpo geratzen dela mugimendutik, eta greba honetan ez dutela izango inolako parte hartze ez zuzenik, ez zeharkakorik. 2. Aurrez aurrekorik ez izateko, eta ondorioz, odol isurketarik ez izateko, greba errespetatzea lanerako askatasuna bermatua ez den tokietan, baina greban parte hartu gabe eta inolako harremanik izan gabe greba mantentzen dutenekin. 3. Afiliatu guztiak zain egon daitezela elkartasun sentimenduen kontra erasorik egonez gero, haien egileei aurre egiteko.*⁵⁹

Mugimendua hasi zenean, ELAren Gipuzkoako Probintzia Federazioak telefonoz deitu zuen herrietara, eta eskatu zuen "lanuztea jarrera baketsuan jarraitzeko."⁶⁰ Baina haien baseek bete al zituzten, ordea, zehazki alderdi eta sindikatu nazionalistaren kontsigna horiek? 1934 urtean greba egin baino hilabete gutxi aurretik, Gobernu Zentralak ardoaren zerga jasotzea debekatu zien udalei. Gertakari hark herrietako autonomia ito zuen, eta sektore nazionalistek bat egin zuten urriko mobilizazioekin, nahiz eta ezkerreko indarrak izan bultzatzaileak.


Euskal Solidarioen sindikatuko kideek (ELA) herrialde guztietan izan zuten inplikazio aktiboa. Haietatik ondorioztatzen dugu haien jarrera praktikoa zela lanuztearekin bat egitea. Nahikoa gauza segurua da parte hartu zutela Ibaizabaleko eta Nerbioi ezker aldeko jeltkideek eta ELAko bazkideek,



Arrasateko Batzorde Iraultzaileko kideak, Tours 1934

- 1.-Pedro Ruiz de Alegría Balanzategui15.10.1.907
- 2.-Victor Berecibar Ormazábal 26-02-1.906
- 3.- José Agirregomezcorta Echevarría 13-05-1.905
- 4.- Celestino Uriarte Bedia 15-05-1.909
- 5.- Francisco Azconaga Arana 24-12-1899
- 6.- Ismael Díez Fernández 21-05-1.898
- 7.- Jaime Uriarte Cestona 23-03-1.904
- 8.- Guillermo Lasagabaster Gorosabel 10-02-1.907
- 9.- Marcos Vitoria Goitia 25-04-1.906

Oharra: zerrendan agertzen ez dena (hamar dira argazkian) Celestino Uriarteren ondoan, hau da, goiko lerrotik hasita lehenengo dagoena. Iraultzaile bat, Hernanikoa edo Donostiakoa, muga Arrasatekoekin batera pasatu zuena, eta egin zuten harreman onari esker, batera pasatu zuten erbesteko denboraldi guztia.



Portugaleten batez ere... eta Donostian eta Gipuzkoako herri askotan (Tolosa, Bergara, Aretxabaleta, Zumarraga, Beasain, Errenteria, Pasaia...) ANVko kideek eta Mendigoizaleek parte hartu zuten hainbat



Marcelino Oreja Jose Antonio Agirreren lagun pertsonala zen. Argazkian, bigarren lerroan biak, Gernikan ospatu zen mitin autonomista batean. (1931)

herritako mobilizazioetan. EAJtik laguntza jaso zuten, baina militantzia bikoitza (EAJ eta ELA) zuten afiliatu bakar batzuen.

Eibarren eta Arrasaten ez zuten parte hartu, agian herri horietan mugimenduak hartu zuen jite iraultzaileagatik, eta gainera Arrasaten *EAJ* eta *ELA*ko lehendakariak idatzi zuten Oreja eta Resustari laguntzera iritsi ziren lehenengo jeltxideak eta *ELA*ko bazkideak izan zirela, eta haien izenak eman zituzten⁶¹

Eskuinak konplize salatu zituen, oinarria hartuz ELAren batzorde eragileek agindu zutela berriro lanera itzultzeko Gipuzkoan urriaren 12an eta Bizkaian 13an, UGTek agindu zuen egun beretan alegia (nahiz eta horrek ez duen ezer frogatzen, zeren lantegietako lana gelditurik baitzegoen erabat); salaketa horren ondorioz, gobernuaren errepresioa nazionalistengana ere iritsi zen neurri batean, Bizkaian batez ere, lokalak itxi baitzizkieten han, buruzagiak atxilotu eta argitalpenak debekatu. Nolanahi ere, *urriko iraultzak krisi larri bat eragin zuen EAJren barrenean*, Landaburuk José Antonio Agirreri egindako gutunean aitortzen zuen bezala: *Gure alderdiaren bizitzan... inoiz ez da ezagutu oraingoa bezalako krisialdirik.*⁶²

Liskarrak EAJren eta Tradizionalisten artean

Nazionalisten eta tradizionalisten artean polarizazioa nabarmena da. Polarizazioa eragin zuen prentsa tradizionalistak – Pensamiento Alavés eta

La Constancia - egindako kanpaina bortitz batek. Tradizionalistek matxinada saiakeran parte hartzeaz akusatu dituzte nazionalistak, eta haiak erantzun dute beren prentsa erabiliz. Kazetarien artean halako liskarrak maiz ematen dira, eta sarri Arrasaten.⁶³

Urriaren erdialdetik aurrera, *La Voz de Guipuzcoa* egunkaria hasi zen argitaratzen hainbat ohar, eta horiek adierazten dute herrian polarizazio politikoa gertatzen ari zela, matxinadaren ondorioz. Karlisten eta nazionalisten artean sortu zen enfrontamendu bortitzeko giroa baliatu zuen armadak Arrasateko zentro Tradizionalista eta centro Nazionalista ixteko, horrela bando bien artean izaten ziren liskar etengabeak ez gertatzeko. *Herrian izandako liskarren ondorioz, dozena bat lagun baino gehiago atxilotu behar izan ditugu, eta aginte militarrek erabaki du*

*Batzokia eta Zirkulu Tradizionalista ixtea. Guardia zibilek betearazi zuten agindua, astelehenean arratsaldeko zazpi eta erdietan*⁶⁴

*Urriaren 28an, igandean, Gregorio Unamuno etxera zihoala, bi karlista bidera irten zitzaizkion, eta errebolbera eskuan zutela exijitu zioten Euzkadi egunkarian agertutako idatzi bat zuzendu zezala; igaro berri zen iraultzan Arrasateko erreketean jardunari nolakoa izan zen kontatzen zuten idatzian. Mehatxatutakoaren arreba batek agintariei eman zien gertatutakoaren berri, eta haiak atxilotu egin zituzten Manuel Madinabeitia, Porru kapitain, eta Modesto Otadui, Labe, azken hori mehatxuaren egilea. Gerroagoko diligentziek ekarri zuten beste tradizionalista bat atxilotzea, Leandro Agirre, hari eman baitzioten errebolbera lehen aipatu ditugun horiek.*⁶⁵

*Azaroaren 1ean karlistek eta nazionalistek, uluka eta indarkeriaz, aurre egin zioten elkarri, eta ikuskizun lotsagarria eman zuten. Soldadu tropa eratu behar izan zuten, baina ez zuen esku hartu. Atxilotetak ere izan ziren: lau nazionalista eta hiru karlista, liskarrean gehien nabarmendu zirenetakoak, eta azken biei zurezko bi borra aurkitu zituzkieten.*⁶⁶

Abenduaren 2an, gaueko hamaika eta erdiak aldera, liskarra sortu zen Arrasateko plaza batean. Pio Bidaburu eta Esteban Zaitegui, Palmeño, jipoitzen ari ziren pertsona bat laguntzera joan ziren. Erasotzaileen kopurua handia zen. Hauen artean, Claudio Otadui Arregui (...) isildeia hamaiketan jo zuen korneta batek Bidaburu lehenengo eta ondoren Zaitegui salatu zituen eraso egin eta GORA KOMUNISMO LIBERTA-

RIOA! oihukatzeagatik. Epaiketa sumarisimoan baina, Bidaburu eta Zaitegi absolbitu egin zituzten. Arrasateko bizitza zibileko ordezkariak hala nola Alkatea, Epaile Munizipala, Cerrajerako administratzailea, enpresa berdineko Kontseilaria eta Kontramaisuak prozesatuen akatsik gabeko aurrekariak eman zituzten aditzera. Ez zituztela asaldatutzat jotzen ezta ideia aurreratuen gizonak zirenik uste ere. Oso portaera moral onekoak zirela eta euren zein herriaren iritziz hauek ez zutela inolako erasorik ezta oihu subertsiborik egin.⁶⁷ Atxilotu biek ideia nazionalistak zituzten. Abenduaren 24an eman zieten behin-behineko askatasuna.

Gobernadore Militar Carrascok adierazi zuen prest zegoela Arrasaten bakea ezartzeko, kosta ahala kosta. Agindu zuen edari establezimenduak ixteko, igandeko istiluen sustatzaileak edanean ari zirenetan egun hartan.⁶⁸

Krisialdi horren ondorioz, EAJk harreman guztiak eten zituen 1935. Urte osoan eskuinarekin, eta

Mondragón

La angustiosa situación de unos obreros

Mi humilde pluma no puede relatar la magnitud de los grandes atropellos de que somos objeto un puñado de trabajadores de la Unión Cerrajera, pertenecientes a la U. G. T. por defender nuestros derechos sociales, que únicamente consisten en querer trabajar para poder comer.

A raíz del pasado movimiento revolucionario de octubre quedamos unos 30 obreros despedidos hasta nueva orden, y llevamos 5 meses sin que tal orden llegue.

En nuestros hogares ha entrado el hambre y la miseria y tras de esto vendrán las enfermedades infecciosas.

El Ayuntamiento no nos socorre, y quienes deben preocuparse de estos problemas no se acuerdan de nosotros. Esto es la desesperación.

Luego nos llaman impíos, traidores y canallas, cuando nuestro único delito es querer trabajar para que nuestros hijos no se mueran de hambre.

Quieren paz y luego nos llaman revolucionarios, ¿es que os creéis que porque tan hipócritamente vayais todos los días a misa y los domingos a comulgar, se os perdonan vuestras fechorías y canalladas? No, porque Jesucristo jamás predicó eso.

¿Acaso creéis que porque continúa nuestro Centro clausurado dejamos de pertenecer a las filas de la Unión General de Trabajadores? Tampoco, pero día llegará que al grito de ¡Viva la Libertad!, terminemos con estas injusticias y con el boicot a que nos tienen sometidos.

¡Viva la U. G. T.!—Un cavernícola.

UGTkoen salaketa.

zentroan isolaturik geratu zen: *Bakarrik geratuko gara berriro bi blokeen kontrako borrokan: bata ezkerrekoa, berriro sektarismoz kargaturik arituko dena, eta eskuintekoa bestea, ulertzeko ezintasun suizida batez goraino betea.* (Agirrerren gutuna, 1935eko uztailaren 2an).

Oreja oso gizon ezaguna zen, eta horren ondorioz Arrasateko gertakariak entzute handia izan zuten. Gortetan bilkura nekrologiko bat ospatu zen haren omenetan, Esteban Bilbao, José María Gil Robles, Antonio Goicoetxea... eta beste zenbaiten hitzaldiekin. Estatuko prentsa guztian agertu zen gertakarien berria, idazkiak, editorialak, eta urriaren 7an, igandea, ospatu zen hilobiratze eta hiletaren kronikak argitaratu ziren.

Hona horietako zenbait:

Pensamiento Alavés, urriaren 11, Esteban Bilbao diputatu tradizionalistak sinatua: *Arima kristaua izutu egiten da ordu beldurgarri haiek oroitzean. Zigorra eta bidegabekeriaren epaiketa. Gorrotoa epailetzat, bertutea erruduntzat. Kristau zintzo baten pretoria eta kalbarioa, pasioa eta heriotza.*

La Cruz, sinadurarik gabe: *Gure lagun ona maitasun sakon, sendo, praktiko eta aldi berean erlijio katolikoa-
rekiko idealaren epelean ezagutzen zuten toki guztietan. Edozein enpresatik igarotzen zela, edozein gestio egiten zuela, han uzten zituen bere arrasto eta perfumea.*

EL SENOR
D. Marcelino Oreja Elósegui
Ingeniero de Caminos, Diputado a Cortes por Vizcaya, Presidente del Consejo de Administración de la Unión Cerrajera de Mondragón, Vocal del Consejo de Administración de Agroman y de la Compañía de Obras y Construcciones, Ex-Gerente de "EL DEBATE"
Falleció vilmente asesinado, el día 5 del corriente mes de octubre en la villa de Mondragón
— R. I. P. —
Su desconsolada esposa, doña Pureza Aguirre; su padre político, don Toribio Aguirre; sus hermanos don Benigno, doña Carmen y don Ricardo; sus hermanos políticos, tíos, sobrinos, primos, demás parientes y amigos,
SUPPLICAN a sus conocidos encomiendan su alma a Dios por lo que les quedarán eternamente agradecidos.
Domicilio, ANDIA, 2. S. S. 21 de octubre de 1934
El Emmo. Sr. Nuncio de S. S.; Los Excmos. Sres. Arzobispos de Valladolid, Burgos, Valencia; los Ilmos Sres. Obispos de Vitoria, Santander, León y Málaga han concedido indulgencias en la forma acostumbada.

Orejaren eskela.

Urriaren 26ko La Voz-ek askoz ere doinu apalago eta neurtuagoan bildu zuen herriko giroa: *Arrasateko giroan, oraindik ere, nabaria da jasotako tragediaren amesgaiztoa. Herriaren bizitza girotzen zuen berezko grazia gertaera latz haien pisuarekin hondoratu zen. Inork ezingo luke inoiz imajinatu horrelako ondorio latzak izango zituenik. Ez da erraza biktima sakrifikatuen irudipena kentzea, ezta ere, justiziaren menpe egonik epaiaren zain daudenena. Etxe batzuk betirako lutoz jantziak eta beste batzuk luzaroan apurtuta egongo direnak...*

6.1 Sei hilabete gerra egoeran: errepresioa eta torturak

Mugimenduaren aurka errepresioaren burua izan zen armada. Errepresio horretan laguntzaile izan zituen, Guardia Zibila, Guardias de Asalto, polizia, segurtasun guardiak eta eskuineko zenbait herritar. Parte hartu zuten herritarrek, monarkikoeak, tradizionalistek, falangistek edota CEDAko gazteek. Zeintzuk jaso zuten “indar biziak” izenekoen atximendu morala eta materiala: banketxeak, aurrezki kutxak, enpresa handiak, entitate ekonomikoak, ugazabak...⁶⁹ Errepublikak baliogabetutako heriotza zigorra 1934ko urriaren 17an berrezarri zuten. Gerra Egoeraren iraupena 6 hilabetekoa izan zen Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Araban urtarrilaren 23an geratu zen bertan behera gerra egoera.

Gobernuaren aginduz, baliogabetu egin zituzten lan kontratu guztiak eta langileek berriro ere bete behar izan zituzten sarrera eskabideak.

Greba hartan Euskal Herrian hildako berrogeita hamabost pertsonatik gehienak grebalariak izan ziren, edo zibilak, indar errepresiboek tirokatuak. Beste horrenbeste gertatu zen 150 lagunekin, zaurituak eta identifikatuak, gehienak tiroz zaurituak.

Euskal Herrian, grebak iraun bitartean, 55 pertsona hil ziren; haietariko 4 Arrasatekoak:

Eugenio Edurra, tradizionalista, hilik.

Marcelino Oreja Elósegui, tradizionalista, hilik.

Dagoberto Resusta Múgica, hilik.⁷⁰

Secundino Vitoria Goitia, Juventudes Socialistas-eko kidea, hilik.⁷¹


150 zaurituetatik 7 Arrasatekoak ziren. 4 Indar Errepresiboetakoak:



Secundino Vitoria Goitia.

Cleofás Martínez Cámara, soldadua. Francisco Sierra, soldadua. Teófilo Fernández, soldadua. Gregorio López Ortiz, soldadua.⁷² Eta hiru iraultzaile: Jesús Trincado, Victoriano Garcia Gonzalez *Pancorbo* eta Gerardo Ruiz de la Cuesta Gómez.

Langileen egoitza eta Ezkerreko egoitza guztiak itxi zituzten ia urtebetez. Errepresioak sindikatu nazionalista zigortu zuen, SOV sindikatua ere bai, baina apalago. Haiei ere hainbat lokal itxi zizkieten, eta ezin izan zuten adierazi ezer libreki. Itxi zituzten Herriko Etxe guztiak, Langileen Ateneo



Militarrak Arrasaten.

eta Errepublikaren aldeko zenbait zentro, EAJren Batzokiak eta ANVren Euzko Etxeak.

1934ko urriaren 5etik Gerra Egoerak iraun zuen 1935eko apirilaren 13ra arte, atxilotuak izan ziren edota erbesteratu behar izan zuten 2.207 pertsonen izenak bildu ditugu. Herrialdeka, 1.202 Bizkaian, 839 Gipuzkoan, 121 Nafarroan eta 46 Araban. Uste dugu ehunka errepresaliatu baino gehiago izan zirela, baina zoritxarrez ez dugu aurkitu informazio gehiagorik.⁷³

Gobernadoreak Udal Gestorak izendatzen zituen udaletxeetan, karlistez eta erradikalez osatuak. Gipuzkoan, mila pertsonatik gora atxilotu zuten. Lanuztea egin zuten langile guztiek eskatu behar izan zuten onartzea lanean berriro hasteko. Patronaleko zenbait sektorek betebeharrak horretaz baliatu ziren errepresalia politiko gisa langileak kaleratzeko. Alarma egoera eta herrietako okupazio militarra hainbat hilabetez luzatu zen. Langileen egunkariak debekatu zituzten, eta prentsako zentsura ezarri zuten. Atxilotuetako askok torturak eta sekulako jipoiak jasan zituzten.

Amaitzeko, bi aipamen egingo ditugu oso ondo laburtzen dutenak "Oktubre"ko atxilotuekin zer gertatu zen: José Antonio Aguirre Lecubereren hitzetan: *1934ko urria eta azaroa bitartean ziega eta prebentzioetan gertatu zen basakeria hain gogorra izan zen, derrigorrezkoa dela idazten ari den luma jasotzea, horrelako zibilizazio faltaren aurrean.* Eibarren 1934ko urriko gertakarien aurrean gutxiengo sozialistari banatutako idatziaren hasierak honela dio: *Ez da delitu larriagorik legea administratzen dutenek legez kanpo jokatzea baino.*⁷⁴

Errepresioaren ondorioak pairatu zituen lehen iraultzailea izan zen Secundino Vitoria Goitia, Marcos Vitoriaren anaia. Tomás Ruiz de Alegríak kontatu zuen: *Urriaren seian basoan ginen ihesean. Atzetik genituen indarrek Arrasateko Barrenazar baserritik hurbil, lurtean hilik utzi zuten Secundino Vitoria. Vitoria errepublikaren aldeko gurasoen semetzat jo eta Unión Cerrajeran lan egitea debekatu zioten. Gaueko serenoa zen Arrasateko udalean.*⁷⁵

Atxilotuetako askok torturak eta sekulako jipoiak jasan zituzten eta zenbait kasutan, indar errepresiboek bahitu egin zituzten ihes egindako pertsonen senitartekoak.⁷⁶

Iraultzaileek bigarrenez mendira alde egin zutenean, Eibar aldera jo zuten Elgetan zehar, zerbaitek gaizki irtetzen bazien ere aurrez prestatua zuten bezala. Hara iritsi ezin zutenez, bi taldetan banatu ziren: Mugimenduan sartuenik zeudenak Frantziara iristen saiatu ziren; itzuli eta arazo larriegirik ez zutela izango uste zutenak Arrasatera itzuli ziren berriro. Asko eta asko gau horretan bertan hartu zituzten atxilo, gaua mendian su inguruan igarotzen ari ziren bitartean. Beste batzuk etxera itzuli zirenean udaletik deitu zituzten, deklarazio ematera joateko eta hara joatean preso hartu zituzten.

*Iraultza atera zelako eta gu ere kalean geundelako iraultzailetzat hartu eta kartzelera eramanez gintuzten. Hiru anaia. Zaharrena atxilotzera etxera etorri zirenean ni ohean nengoan. - Gora! Ia ez zioten janzteko astirik eman. Nire ohera begiratu eta: - Nor da hori? - Anaiak: Nire anaia. -Ba benga. Lotu egin gintuzten. Ama guztia ikusten ari zen eta zorabiatu egin zen. Ez ziguten utzi ama laguntzen, ezin izan genuen ukitu. 6 egunetara aske geunden guk ez genuelako ezer egin. Anaia zaharrena bai, preso utzi zuten, baina gu biok askatu egin gintuzten.*⁷⁷

Gertakarien hurrengo bi asteetan 170 preso inguru, kartzela beterik zeukatenak, eramanez zituzten Hondarribira Guadalupeko gotorlekura, "La Voz de Gipuzkoa"ak esan zuenez.

Hilaren 6an eta 7an Luis Martínez de Ubago alkateak arratsaldeko 6:30etatik aurrera kalean ibiltzea debekatu zuen, eta Herri Etxea ere itxi egin zuen. Gerra egoera deklaratu zen, eta halaxe jarraitu zuen urte bukaera arte. Armadak abenduaren 14an alde egin zuen Arrasatek, Asaltoko Guardiak geratu ziren 1935eko otsailaren 24ra arte.

Unión Cerrajeran urriaren 18an hasi zen berriro lana; murrizturik, ordea, zeren Gobernuaren aginduz lan kontratu guztiak balio gabe geratu baitziren. Geroago, beste 44 langile onartu ziren, eta 92 bota zituzten lanetik. ELMA 35 langilek izan zuten zori berbera.

Ramiro Llamas instrukzioko epailea hilaren 19an Donostiara joan zen auziaren tramiteei ekiteko; Arrasateko 132 pertsona.⁷⁸

Handik denbora gutxira auziak ospatu aurretiko ikerketak hasi ziren. Zortzi auzipetu nagusiak, Oreja eta Resusta beren eskuz hil izana leporatu zietenak, Arrasateko kartzelara ekarri zituzten be-



Paben, gainerako lagunek muga noiz igaroko zain. Ezkerretik eskumara: Ismael Diez, Marcos Vitoria, (?), Pedro Alegria, Jose Agirregomezkorta; Gillermo Lasagabaster.

rriro, eskuak eta hankak loturik, gertakariak zelan izan ziren irudikatzeko. Rafael Garcia Fernandezi, Cristobal Lizarralderi, Paco *Chopitori*, Jose Agirregomezkortari eta Jose Maria Urzelairi. Herrian kontatzen zutenaren arabera, balarik gabeko pistola bat ematen zieten eta tiro eginarazten zieten Oreja eta Resusta hil zituzten leku berean.⁷⁹ Banan-banan Trinketera eraman zituzten, eskuetan kargatu gabeko pistola bat jartzen zieten, eta Guardia zibil bati tiro itxura egiteko agintzen zieten, argazkiak egiten zizkieten bitartean. Lekukoek diote deskarga



Erbesteraturik, Tours-en Paben zeudenez gainera, hauek ere ageri dira argazkian: Jaime Uriarte Zestona (eskuan zakurra duena), Bitor Berezibar; eskumatik hasita makurtuta dagoen lehenengo, Celestino Uriarte haren ondoan alkandora ilunez. Gainerako guztiak adiskide frantsesak dira, komunistak seguruenik.

bat entzun zutela. Exekuzio pelotoi antzekoa izan zen eta jarraian tiro solteak.

Ustez Komitekoak ziren beste batzuk ere atxilotu egin zituzten, hala nola, Gerardo Ruiz de la Cuesta⁸⁰ eta Pio Altuna.

Guadalupeko gotorlekutik Eibarrera eraman zituzten 1934ko abenduaren lehenean sei arrasatear, Jesus Trincado Baños, Gerardo Ruiz de la Cuesta, Cosme Altuna Sagasta, Vicente Etxebarria Larrañaga, Vicente Cubillo Grima eta Fermin Ibañez Azkoaga. Eibar inguruko Guardia

Zibilaren kapitainaren esku geratu ziren.⁸¹

Urte asko igaro eta geroago, Jesus Trincadok kontatu zuen zelan behin *agertu ziren eraso guardien kamioi bat eta automobil batzuk, horien artean Union Cerrajerako Chacon ingeniaria zegoela. Ikusi ninduen eta salatu zuen herriaren mapa bat egin nuela. Esan nion baietz, baina kaleena baino ez. Handik berehala eraman gintuzten Eibarko udaletxera, eraso guardiekin batera. Udaletxean sekulako jipoiak eman zizkieten eibartarrei eta haietako batek jauzi egin zuen balkoitik*

plaza aldera eta ospitalera eraman zuten hanka bat hautsita zuela. Niri ere hiru edo lau zartako eman zizkidaten. Hurrengo egunean, eraso guardiakoekin, guardia zibilekin eta bi mikelerekin batera, eraman gintuzten gaua igaro genuen lekuraino edo armak gordetzen genituen lekuraino. Elgetatik gertu gelditu gintuzten; halako baten, bultzatu egin balute bezala, Zubizarreta guardia zibila irten zen,⁸² eta nabarmendu ninduen matxinoen artean; kapitainak agindu zien lau eraso guardiei aparte eramateko eta merezi nuena emateko. Laurek inguratu ninduten eta egundokoak eman zizkidaten; besoa apurtu zidatela esan banien ere, jo eta jo jarraitu zuten, ahal bezain gogor, neuk ere neure burua defendatzea erabaki nuen arte, eta lau haietatik askatu nintzen indarrez eta urruntzen hasi



Arrasateko eta Eibarko erbesteratu talde bat, 1935ean Tours-en, sanjuanak elkarrekin ospatzen. Argazkiaren erdian: Indalecio Prieto.

Arrasateko eta Eibarko iraultzaileak Tours-en (1935).

Lehen argazkietan azaldu direnez aparte, mandolina jotzen duena eta Ismael Diezen artean dagoena Frantzisko Azkonaga da. Celestino Uriarte eta Marcos Vitoriaren artean dagoena Juan de los Toyos, betaurrekoak dituen eta gorbata argiz jantzita dagoena.





Guillermo Lasagabasterren Carte D' Identite.

nintzen. Probokatzailera apuntatzen neukan, uluak entzun ziren tirorik egin ez zezan, eta kapitainak esan zuen: “zer gertatzen da hor?” Taldera itzuli ginen, Kanpazarreraino ibili ginen eta Arrasatera iritsi, herriko plazara, eta herriko kartzelara eramanez ninduten.⁸³

Urriko gertakarien ondoren, Zubizarreta guardia zibilak hil zorian utzi arte jipoitu zuen Victoriano Garcia Gonzalez Pancorbo ere Arrasateko udal-letzeko lehenengo solairuan. Hilda zegoela ematen zuen.⁸⁴

Uste dugu gainerako atxilotuekiko tratua ere antzekoa izan zela, Gerardo Ruiz bere buruaz beste egiten saiatu zen-eta Arrasateko kartzelan, bihotzean jostorraz bat sartuta.

Mendiko Batailoiko medikuak adierazi zuen abisua jaso zuela, Gerardo Ruizek laguntza behar zuela, orratz bat sartu zitzaio-lako; aztertu zuen zorrotz-zorrotz, eta igarri zuen zer edo zer bitxia, ezin zehaztu zezakeena miaketa bide ohikoen bidez, eta Donostiako Ospitale Militarrena eramatea proposatu zuen.⁸⁵

Azaroan aurrez aurreko ezagutze saio bat prestatu zuten Guadalupeko gotorlekuan, Ricardo Azkoagak errudunak izendatu zitzen. Ez zuen, oster, arrakastarik izan. Epaile militarrek errieta egin zion esanez ezinezkoa zela hura, aurrez aurre ikusi zituela eta, tiro egin ziotenak. Azkoagak erantzun zion, hori baino zeregin garrantzitsuagoa zeukala. Geroztik Unión Cerrajerako administratza kontseiluan jarrera hori itsustu zioten batean honela erantzun zion: Zuek ez zarete Arrasaten bizi, ni bai.⁸⁶

Atxilotu gehienak preso egon ziren Guadalupeko gotorlekuan. Heriotza zigorra eskatzen zutenentzat, abogatuena eta Sorospen Gorrien laguntzarekin ihesa prestatu zuten.

1935eko martxoaren 11n, goizeko 08:00etan, guardiak konturatu ziren lau preso falta zirela; horietako hiru Arrasatekoak ziren: Gerardo Ruiz de la Cuesta, Pedro Gallastegi Azpitarte



Arrasateko presoak Guadalupeko gotorlekuan. Goiko ilaran ezkerretik eskumara: Santiago del Valle, “Txingolo”; Agustín Heriz (?); Gerardo Ruiz; Pedro Gallastegi “Londres”; Segundo Olazagoitia; Secundino Urionabarrenetxea “Sekun”; Jose Atxa.

Beheko ilaran, idem: Anduaga; Ibarra; beheko ilaran, idem: Alejandro Sagasta “Mane”; Rikardo Zeziaga.

eta Ventura Vega Gonzalez, *Carnera*. Ramiro Llamas komandante eta instrukzioko epailearen arabera, prozesaturik zeuden 106/1934 auzian, ustezko Errebelamendu delituagatik. Une hartan epaiketa plenario aldiaren zegoen auzi hura, eta fiskalak, behin-behineko ondorioen idatzian, eskatu zuen lehenengo bientzat eta espetxe handiko zigorra azkenarentzat.⁸⁷ Ihes egin zuen laugarrena Javier Salinas Orradren, Hernanikoa,⁸⁸ eta prozesaturik zegoen Errebelamendu delitu berberagatik 242/34 auzian, eta fiskalak eskatu zuen betiko kartzelalditik heriotza zigorrera pasatzeko.

Ihes horregatik errepresalia moduan beste 2 heriotza zigor eskatu ziren Arrasateko auzipetuen kontra, eta ihes egin zuten ziegaren ondoan zeuden beste ziegetako kartzela kideak bi egunez gotorlekuaren azpipetan sartu zituzten.

Nolanahi ere, Euskadin ez zen heriotza zigorrik bete.

Angel Iturmendi maisuak, garaiko *Socialistan*, antzekotasunak komendatzen zituen Orejaren heriotzaren eta Fuenteovejuna komendadorearen heriotzaren artean: “ Nork hil zuen Oreja?, Arrasatek, jauna.

1935eko udaberrian Sindikatu Librea Okendo-

koaren jabe egin zen. Urte bete baino denbora gehiago egon zen bertako UGT lokalik eta ordezkariarik gabe.

Hona hemen, El Liberal egunkariak argitaratu zuena:”1935eko azaroaren 28an, Ezkerreko Errepublikako Elkarteko egoitzan Batzar Orokorra bildu zen Unión General de Trabajadoreen aldekoa zen Sindikatu Metalurgikoaren osaketa erabakitzeko. Batzorde berriko lehendakaria: Segundo Azcoaga; Lehendakariordea: Gurmensindo Álvarez; Idazkaria: Félix Herrera; Idazkariordea: José María Olazagoitia; Diruzaina: Saturnino Abarrategui; Batzordekideak: Román Uribealzo, Donato Arana, Victoriano Hormaechea, José Uranga; Kontuen begirataileak: Javier Ugarte, Jesús Balanzategui eta Teodoro García”.

Arrasaten, bien bitartean, 3 aldetan banatzen zen bizitza politikoa: Oreja eta Resustaren heriotzak deitoratzen ari zirenak alde batetik, kartzelan edo erbestean zituzten lagunei zer gerta zekiekeen estuasunean bizi zirenak bestetik, eta EAJ bien tartean. Lehenengoan adierazgarri izan litezke 1934ko bukaera eta 1935eko hasieran udaletxean hartu ziren zenbait akordio.



Arrasateko presoak Guadalupeko gotorlekuan.

Lehenengo ilara makurtuta ezkerretik eskumara: bigarrena ile zuriaz Txomin Garro; azpian, bibote eta txapelaz, Pedro Uranga; Antonio Guridi; Rufino Ormaetxea

Atzean ezkerretik eskumara: Jose Ramon Azkarate; Martzelino Vitoria; Angel Iturmendi; Rodriguez; Salvador Laspiur; Ormazabal. Erdian ezkerretik eskumara: Gaztañarez; Trincado; Riviere; Rikardo Ortega.



Arrasateko presoak Guadalupeko gotorlekuan: beheko ilaran ezkerretik eskumara: Martzelo Vitoria; Tarragona; Angel Iturmendi. Martzelo Vitoriaren gainean Jose Egidazu. Erdian: Martzelino Uribesalgo. Bizartxoaz: Atilano Ramos.



Arrasateko presoak Guadalupeko gotorlekuan.

1934ko urriaren 25a: Gertakari “basati eta odolezkoak” gaitzesten ziren. Doluminak Oreja, Resusta eta Edurra familiei. Zorionak militarren buruzagiari eta Guardia Zibilari, haien heroismo aursardia eta kemenagatik. Gobernari zibilak herrira egiteko zuen bisita zela-eta erabaki zen udal korporazioko ordezkariak parte hartzea ospakizunetako oturun-tzan. Herrartek eskabidea egin zion alkateari ea lanetik kanpora egotzitako langileen egoera konpontzeko zerbait egin zezakeen.

Urriak 30: Eskabidea Kuartelean zeuden guardia zibilen kopurua 25eraino jasotzeko. Erabaki zen

1.000 pezetako saria ematea iraultza mugimendua ito zuen armadaren alde zabaldutako diru bilketarako.

Azaroak 22: Resustak proposaturik aho batez onartu zen eskerrak ematea Arrasateko herriaren izenean herrian parte hartu zuten indar armatuen komandantea Ricardo Iglesiasi, erakutsitako kemenagatik.

1935eko otsailaren 14a: Gobernaritzako ministroari eskabidea egin zioten, urrian izandako portaeragatik ohorezko omenen bat egiteko Emeterio Muga gobernari zibilari.

Bestaldetik, berriz, familia askotan gosea eta hotza. Haien ekonomia iturburuak geratu ziren laburuturik Gurutze Gorriaren eta lagunaren artean egiten ziren diru bilketetara. *La Lucha de Clasesen* artikulua bat zen 1935eko martxoaren 16an. Harritzekoa da bertan 30 despeditu besterik ez aipatzea. Seguruenik ez dira kontuan hartzen presoak eta ihesi alde eginak nahiz eta haiek ere lanpostutik bota zituzten (ikus UCEMen zerrenda); ez dira kontuan hartzen haien familiak ere, mantenu biderik gabe geratuak orobat.

1935eko udaberrian Sindikatu Librea Okendo-koaren jabe egin zen. UGTk haren ondo ondoan zabaldu zuen bulegoa, “Kimetz” tabernaren gainean, eta udaletxeko biltzar aretoan egiten zituen bilerak. Herri Etxea ez zuten berreskuratu 1936ko otsaileko hauteskundeetan Frente Popularrak garapena lortu zuen arte.

Dokumentu horietako lehenengoan aipatzen diren diru kopuruak zenbaiteraino iristen ziren aiseago ikus dadin, garai hartan Unión Cerrajeran zeuden soldatekin konparatu litezke:

- Langileak: hilabeteko 250 eta 400 pezeta bitartean, lanpostuen arabera, antzintasuna lanean eta abar...
- Bulegariak: hilabeteko 400 eta 450 pezeta bitartean.

Hemen datozen dokumentuetan garbi ikus daiteke nolako giroa zegoen Arrasaten 1935. urtean.

“1935eko udan, Azkarragak “Lurgorri” gaitzizenarekin “Euzkadi” egunkarian artikulua bat idatzi zuen eta esan zuen “Ya habrá otra vez revoluciones si dios



1935ean Ondarretako presoek bisitatzen: ezkerretik eskuinera, Pilar Berezibar Galdos, Nati Garmendia Berezibar, Maritxu Berezibar Otadui eta Antonia Isasa Galdos. Argazkia Aitor Etxarte Berezibarrek utzitakoa

no lo remedio”. *Roneo lantegian, langile premia-tsueneko moduan, aipatu behar da ekonomia maila altuena zuten pertsonen semeak sartu zirela; iskanbila eta zalaparta handia sortu zen Unión Cerrajerako nagusien artean; Asaltoko guardiei gu atxilotzeko agindu zieten, eta horrela egin zuten goizaldean; Juan Arregi eta ni Chaconengana eraman gintuzten, eta galdetu zigun Lurgorri nor zen, eta ea hark esaten*



Iheslarie Baionan 1935an bisitatzen. Roberto Uriartek utzitakoa.

RELACION DE CUENTAS QUE PRESENTA EL COMITÉ PRO-PRESOS DE GUIPUZCOA EL
DÍA 31 DE JULIO DE 1935

INGRESOS	PESETAS
Préstamos de los Sindicatos Autónomos	2.500,00
Préstamos de la Union General de Trabajadores	2.500,00
Préstamos del Partido Socialista	500,00
Recibido del Comité Nacional de Ayuda a las víctimas de Octubre	4.000,00
Recaudado en San Sebastián por suscripciones, donativos, festejos, etc., etc.	95.986,10
Recaudado en Pasajes	12.320,30
Recaudado en Irún	15.734,85
Recaudado en Zumárraga-Villarreal	900,80
Recaudado en Oría	3.229,55
Recaudado en Rentería	18.718,25
Recaudado en Mondragón	8.484,55
Recaudado en Hernani	20.651,90
Recaudado en Beasain	7.806,00
Recaudado en Andoain	2.197,55
Recaudado en Eibar	75.011,50
Recaudado en Tolosa	17.891,50
Recaudado en Zumaya	435,45
Recaudado en Arechavaleta	1.460,00
TOTAL INGRESOS	290.328,30

PAGOS	PESETAS
Socorros hechos por el Comité Provincial	36.489,05
Pagos diversos del Comité Provincial (Abogados, auxilios a transeuntes y gastos administrativos)	6.267,35
Socorros y gastos de la Comisión de Pasajes	12.712,40
Socorros hechos por la Comisión de Irún	13.646,50
Gastos diversos de la Comisión de Irún	99,50
Socorros hechos por la Comisión de Zumárraga	880,35
Gastos diversos de la Comisión de Zumárraga	41,40
Socorros hechos por la Comisión de Oría	4.756,00
Gastos diversos de la Comisión de Oría	580,90
Socorros hechos por la Comisión de Rentería	13.807,05
Socorros hechos por la Comisión de Mondragón	42.265,00
Gastos hechos por la Comisión de Mondragón	607,30
Socorros hechos por la Comisión de Hernani	30.598,35
Gastos diversos de la Comisión de Hernani	485,60
Socorros hechos por la Comisión de Beasain	7.447,55
Gastos diversos de la Comisión de Beasain	315,60
Socorros hechos por la Comisión de Andoain	5.935,00
Socorros hechos por la Comisión de Eibar	69.238,00
Gastos diversos de la Comisión de Eibar (Abogados, viajes, etc., etc.)	3.013,00
Socorros hechos por la Comisión de Tolosa	15.880,85
Gastos diversos de la Comisión de Tolosa	405,80
Socorros hechos por la Comisión de Zumaya	1.474,00
Gastos diversos de la Comisión de Zumaya	91,00
Socorros hechos por la Comisión de Arechavaleta	13.524,00
Gastos diversos de la Comisión de Arechavaleta	600,00
TOTAL PAGOS	281.161,55

RESUMEN	
Total de Ingresos	290.328,30
Total de pagos	281.161,55
	9.166,75

zuenarekin ados geunden. Erantzun genioen ez genekiela Lurgorri nor zen, baina hark esaten zituen gauza asko egiak zirela. Gero, ELAkoak galdetu zidan zer iruditzen zitzaizkidan; erantzun nion, horretarako juntan bildu behar genuela. Libre utzi gintuzten, baina lantegi nagusiek presio egin zioten parroko jaunari, ELAkoei kontu eskatzeko. Jose Gorroño goitia, Joaquín Atxa, Madinabeitia eta ni bildu ginen Arinekin; hark esan zigun ados zegoela ELAkoen jokabidearekin, eta ez zela ezertan sartuko. (Jokabide horregatik eta karlistek judaismoa, masonismoa eta nazionalismoa elkarrekin nahastuz argitaratu zuten panfleto bati publikoki egin zion kritikaren ondorioz, tradizionalistek berebiziko gorrotoa hartu zioten parroko jaunari.⁸⁹

Trini Ruiz de Alegria Balanzategiri galderak:

- Octubreko reboluzinuaz akordetan zara?

Ni akordetan naz etxe txikinetan zelan bizi gintzen, esan euskuen ez mataderixatik, ez maalarutza bez, mataderixatik ez ibiltzeko, han, etxe txikinetan ibiltzeko. Eta gu hantxe. Etxe inguruan. Eta zer pasetan zan, guk zer zan be ez gakigun. Eta gero, atsaldien “tropa datorrela”, eta, “tropa? zer tropa?”, eta, “soldauak”, eta Bittorixatik, eta horko desbandadia, horko basuetatik ihesi einda, eta ibili ziren, eta bastante...

Oktubreko reboluziñoako denboran, danak eskopetakin, eta gero esaten que estaban armados hasta los dientes, fijate, con escopetas de caza. La escopeta de Pedro allí voló, aquel también solía ir a cazar. Ha be, Pedron eskopetia orduan desagertu zan, baten batek begixa botako utsan, adios muy buenas.

Anaiak preso egon ziren. Bai, Francisco, gaztiena, etxien egon zan, harek ez euen etxetik urten be ein. Baina ha be deteniru ein euien. Eta Tomas bai, Tomas deteniruta egon zan, Guadalupen. Aitta be deteniru, baina ensegida... Aittak zortzi egun bakarrik ein zittuen... bialdu euien, Guadalupetik bialdu euen nagusi batek “Y usted qué hace aquí? Pues no sé lo que hago yo aquí...” que no había nada contra él... haber qué... eta bialdu euien etxera Aitta. Baina fabrikiak ez euen hartu lanien. Zerrajeriak ez euen hartu. Aitta bez. Klaro, hiru seme euken, bueno bi, Tomasek Eskoitzan eitten euen beharra. Eta holaxe.

- Eta gero Toursera kartak idazten ibiltzen zinen?

Bai. Ba okurrirru jaten, ... Ama ibiltzen zan, ahal dauen moduan, eginaz semiari kartak. Eta, “Ama, neuk be ein biotzat karta bat Pedrori?”, ta, “Ba einixon, pozik hartuko jon kartia” eta, ala, eskribiru ein notzan. Ensegida kontestaziñua... asko gustau jakola nire kartia eta berriro be jarraiketako, eskribiruteko. Ba holaxe, Amak eitten euenian, Amak bat eta nik beste bat... karta. Baina ez nintzen enterau eurak etorri arte, nire kartak mahaixen geraketan zirela. Danak batera. “Aquellas cartas no eran para Pedro sólo, eh?” Celestinok esan eustan. Tu creías que eran para Pedro, pero eran para todos, allí se leían en la mesa... primero en voz alta, y luego uno por uno pasabamos tu carta, era la que más nos gustaba” Menuda chismosa debí de ser, porque si no? No me explico... Herriko kontuak kontetan notziela, bai. Eta holaxe...

Talde sozialistako buruzagiak trinketean, Leninen erretratuaren azpian, argazkia ateratzeko prestatuta. Gillermo Lasagabaster, Bitor Berezibar, Celestino Uriarte, Marcos Vitoria, (?), Jose Agirregomezkorta, Pedro Alegria, Jaime Uriarte.



- Eta 36-ean, amnistiarekin, anaiak etorri ziren? Bai, Francisco be bai?

Ez Francisco, ensegida soltau euen. Tomas euen karzelan, Guadalupen. Bueno, ordurako bajatu zittuen Ondarretara. Ez... Guadalupetik etorri ziren hona. Fuerte de Guadalupe. Han be egonda nau, orduen, eh! Autobus bat faten zan astien-astien, erropia eta, hainbeste pasetan gauen han preso geuken familixiak, bakotxak eukan biaje bat, ba, toketan jakonien. Eta Ama joaten zan generalmente, eta asteren batzutan neu bialketan ninduen; hamabi urte, edo, eukiko nittuen. Eta joaten gitzen, ba autobusa faten zan, eta hantxe...

- Eta egoten zineten presoakin, ala ez?

Bai bai. Jende nausixa geraketan zan beheien, hantxe, habitaziño baten. Baina ni faten nintzen gora, han, patixo haundi bat, eta Frantzia dauela han, bestien ez dakit zer, eta holan, espliketan eustien eurak, eta han ibiltzen nintzen ni, presuekin batera. Bestela anai gaztia

*joaten zan generalmente. Frantzizko. Eta bestela neu, birritan, edo, fanda nau.*⁹⁰

Karmele Garciaren ikuspuntua gertaturikoari buruz:

Purezaren aita Unión Cerrajerako gerentea eta akzionista nagusienetarikoa bat zen. Ezinbestekoa zuten enpresa honetan jauntxo bat sartzea han ezer egitea nahi bazuten. Resusta-Azcoaga Alderdi Lberal Kontserbadoreko kideak ziren. Kontserbatzaileak eta katoliko moldaerazak. Hemendik dator harremana Orejaren eta Aguirreren artean. Madarikatua harreman hori sortu zen eguna! Batasun hori existitu izan ez balitz ez litzateke 1934ko urria existituko, eta, ezta ere, 1936ko zorigaitzoko urria.

Gauaren zati bat bere etxean igaro nuen nire aitarekin batera. Aita medikua izateaz gain, Oreja Alderdi Karlistaren buru zen une hartan fedekidea ere bazen. Gau hartan, negar egin nuen Orejaren alargunaren eta nire

familiaren ondoan. Katoliko ona zela zioten. Nik horren inguruan besterik ez dakit: Arrasaten mezetara joateko, dontzeila, belus urdineko belaualkia eta ertz urreztatudun meza liburu handi bat eramaten zituela.

Orejaren heriotzak izua sortu zidan. Eta zer esanik ez Dagoberto Resustarena. Oreja Arrasaten inoiz agertu ez eta Resusta hil ez bazuten ... Nik oso ondo ezagutzen nuen Resusta. Haren familiarekin oso harreman estua nuen. Bi alaba zaharrenekin irteerak egiten nituen. Familiarentzat eta fabrikarentzat bizi zen. Alkate erdugarria izan zen. Bere dirutik ordaintzen zituen hotelak, bidaiak, kotxeak... Oraindik ere, arrasatear guztiek gogoratzen dute Dagoberto Resusta.⁹¹

José Joaquín Arin Oiarzabal parrokoa

Arrasateko apaiz erretore Jose Joaquin Arin Oiarzabalek hau adierazi zuen eskutitz batean, Gipuzkoako Diputaziora 1934ko urriaren 15ean bidalitakoa: *Ohorea da niretzat adieraztea Diputazio probintzial agurgarri horri, nire aldetik eta Arrasateko herri osoaren izenean, eskerrak bene-benetan gure herrian hildako Resusta jaunaren oroimenez egin diren hileta elizkizunetan izateagatik; etorritako diputatuak ikusi ahal izan zuten elizkizunotan zer-nola sentitu eta gaitzetsi duen Arrasateko herriak Resusta jaunaren krimena, eta horren froga argia izan da jendetza izan dela hileta elizkizunetan, hildakoa gure herrian preziatua eta ongi ikusia zelako, gure herriko Union Cerrajera sozietatean bete izan dituen eta betetzen zituen kargu handietan erakutsi izan dituen onberatasun eta karitateko dohain eta kalitate ezin hobekak zituelako, hain zuzen ere, halako krimen beldurgarriaz bere bizia sakrifikatzeke ezin ulertuzko lotsagabekeria izan duten langile dohakabeen alde, eta korporazio probintzial horrek ondo dioen bezala, ezin da ulertu halako ekintza gorrotagarriak, ezin da justifikatu ez azaldu ere, gizonak izan dezakeen perbertsiorik lotsagarriena izan dezaketela pentsatu arren.*⁹²

Protagonista izan ziren lau pertsonen iritzia.

Protagonisten arabera, egun historiko haiek irakatsi zieten ezabatzea ezinezkoa izan zen. *Jakina da bataila hura galdu genuela, hainbat arrazoi tarteko. Uste dugu, funtsezko arrazoi moduan, PSOEko buruzagiek, orduan han baikinentez militante, espediente baina ez zutela bete; ez zuten sinistu arrakasta izateko aukeretan, eta azkenean eginahalak egin zituzten mo-*

*bilizazioa murrizteko. Horrela baino ezin dugu ulertu matxinada mugimenduak hain txikiak izatea. Borroka armatu bati ekiteko material baliabide urriak eduki izanak ere eragin zuen, baina bigarren mailan.*⁹³

*Nire ustez, porrota Alderdi Sozialistako sektore batek eragin zuen. Sektore indartsua zen, eta ez zuen guk moduan pentsatzen gizarte burgesa bota beharri buruz. Haietzat, matxinada boterea lortzeko bidea izan beharrean, presio egiteko modu bat zen Ceda gobernua ez sartzeko. Horrela ulertzen da, bada, Greba Orokorrean hain parte hartze handia lortzea langile gune garrantzitsuetan. Greba Orokor hark oso leku gutxitan hartu zuen matxinada izaera.*⁹⁴

Arrasatera iristen ziren berriak ez ziren batere itzaropentsuak. Beste herri batzuetan, Greba Orokorra ez zen izan iraultzailea eta ez ziren armarik erabiltzen ari. Hala eta guztiz ere, arrasatearrek tropei aurre egin zieten zuten arma kopuru urriarekin. Ondoren, atzera egiteko modua antolatu zuten. Egun historiko hartan borrokalariekin lanak izan ziren, beste batzuen artean, ihesa antolatzea, koartadak lotzea eta isilean gordetzeko konpromiso solidarioa hartzea. Paben 1934ko urriaren 17an egindako gutun batean, Marcos Vitoriak⁹⁵ hau aitortu zion geroago emazte izango zenari, Mercedes Jauregiri: *Esan behar dizut, han bizi nuen egoera ez zatorrela bat nire asmoekin, etorkizun iluna baineukan, eta urriaren 5ean etorkizuna jokatu genuen abantaila batekin, ezin genuen ezer galdu, ez baikenuen ezer galtzeko, baina zer edo zer irabazteko bai (...). Honekin esan nahi dizut ez zaidala inoiz garbatu egin dugun hori.*⁹⁶

*Heriotza zigorra ezarri zidaten Orejaren hilketagatik. Nik ez nuen halakorik agindu. Baina parte hartzaile aktiboa izan nintzen urriaren Seko gertaeretan, eta neure gain hartzen ditut egun hartan izandako ekintzak. Marcelino Oreja enpresaburua zen, baina ez edozein enpresaburu. Gorroto gupidagabea zien langileei, errepublikar eta sozialista guztiei. Hauteskunde kanpainak zirela-eta egiten zituen mitin askotan, ezagun egin ziren esaldi asko sortu zuen, eta erakusten zuen zer nolako-jarrera zuen gizon hark. "Edozein errepublikanok nire lantegia zapaldu baino lehen, belarra jan beharko du. Nire etxean ez dago ez ogirik ez lanik horientzat.*⁹⁷



7. Frente popularra

1936aren hasieran Kasino Republikano Radikala lekuz aldatzen da; Viteri etorbideko 12an zituen lokaletatik aldatu zen Arano kaleko 20.era.

Arrasateko Sindicato Obrero de Metalúrgicosen UGTkoa, 1936ko urtarrileko balantzearen arabera, hilean 50 alta eman dira eta 250 bazkide ditu.

1936ko urtarrilaren 15ean, negoziaketa luzeen ondoren, Frente Popularra antolatu zen, ezkerreko alderdi eta erakunde guztiek bat eginez -errepublikanoak, sozialistak, komunistak, POUM, Esquerra

Katalana, ANV-; CNTeko baseek ere, 1934ko preso politikoen askatasuna lortzeko alde batera utzirik betidanik hartu ohi zuten jarrera abstentzionista, Frente Popularraren aldekoak agertu ziren. Ezkerrearen aurrean eskuina, Gil Robles buru zuela. Eta EAJ zentroko postura bat harturik, aipatu bi multzoetatik aparte. Frente Popularraren egitarauaren oinarritzko puntua zen 1934ko iraultzaileentzako amnistia osoa eskatzea, eta lanetik botatako langile guztiak berriro hartara itzultzea.

1936ko otsailaren 16an Lege Biltzarrerako hauteskundeetan, Arrasaten hauek izan ziren emaitzak:

Tradicionalistak		Frente Popularra		EAJ-PNV	
Lojendio	1.118	Amilibia	848	T. Monzón	866
Música	1.023	Larrañaga	731	J. M ^a Lasarte	837
Pagoaga	1.093	Apraiz	855	Irujo	1.174
Ricardo Oreja	1.131	M. Anso	866	Picabea	881

Talde bakoitzak boto guztien 40% baino gutxiago lortu zuenez, bigarren buelta bat egin behar izan zuten, eta emaitzak hauek izan ziren martxoaren lean:

EAJ-PNV		Frente Popularra	
Monzón	————	Amilibia	1.338
Lasarte	1.150	Larrañaga	790
Irujo	1.159	Apraiz	827
Picabea	1.146	Anso	1.376

Lehenengo eta bigarren bozketaren artean, Estatuan garaile Frente Popularra atera zelarik, Arrasateko presoak libre geratu ziren.

Bigarren bueltarako Gazteria Sozialistak Santa Agedako gaizoen botoa eragoztearabaki zuen, aurreko bozketetan bezala parte hartu ez zezaten. Horretarako erietxearen ate aurrean jarri eta fraide eta gaixoei handik kanpora ateratzea eragotzi zieten. Hori zela eta, Guardia Zibilak zenbait sozialista atxilotu zituen, Gillermo Lasagabaster besteen artean, baina egun berean utzi zituzten libre.

Bigarren itzuli hartan Amilibia eta Ansok boto asko jaso zuten eta presoek irten zutelako izan zen, lehenengo itzulian ez zelako kontatu haien botorik, eta lehenengo itzulian Elizako sektore baten eta jende dirudunaren presioz botorik eman ez zuen jendeak bigarren honetan Frente Popularrari eman ziolako botoa. Lehenengo eta bigarren bozketaren artean, Estatuan garaile Frente Popularra atera zenez, Arrasateko presoak libre geratu ziren.

1936ko otsailean Unión Cerrajerako langileek lanuztea egin zuten; lantegira joan ziren baina

lanik egin barik, azken 20 hilabeteen izandako lan egutegia astean 5 egunetik 4ra gutxitu zirelako.

Amnistiaren dekretua sinatu aurretik, otsailaren 20an, ikusirik probintzia osoan jendeak zer presio egiten zuen, presoak libre utzi beharra izan zuen Gipuzkoako gobernari zibilak; eta Orejaren fusilamenduan parte hartu izana salatu zituzten presoak bakarrik geratu ziren kartzelan. Hori zela eta, askatu berriak ziren presoak Donostian geratu ziren haiek askatu zituzten eskatzeko eta kartzela eraso eginez hartuko zutela mehatxu egin zien. Haiek ere libre utzi zituzten hurrengo egunean.

Arrasatera itzuli eta egin zuten lehendabiziko gauza izan zen Guardia Zibilaren kuartelean sartu eta artxibategi guztiak erre.

Manifestazio jendetsuak presoan askatasuna eta zinegotziak euren karguetara itzultzea eskatzeko.

El Liberal egunkariaren bidez dakigu, otsailaren 20an, Ondarretako kartzelatik Arrasateko hirurogei preso atera zituztela. Beste hamar barruan geratu



Arrasateko presoak amnistia ospatzen. Tatxo Amilibia abokatua, hirugarren ilaran, hirugarrena eskumatik.



AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

PROVINCIA DE GUIPÚZCOA

AÑO DE 1936

Relación de los Sres Concejales de que se compone el Ayuntamiento de la villa de Mondragón, con expresión de la filiación política de cada uno de ellos y cargos que ejercen.

Nombre y apellidos	Filiación política	Cargos
Nicolás Uriarte Ceberio	Nacionalista vasco	Alcalde-Pte
Eustasio Marcaide Larrañaga	Acción Nacionalista Vasca de la República	1er Teniente
Felipe Letona Mugica		2º Id
Bernardo Gómez Ochoa	Socialista	3º Id
Luis M. de Ubago Milicua	Radical	Regidor 1º
Jesús Uranga Urrutia	Socialista	Id 2º
Eugenio Resusta Olañeta	Ninguna	Id 3º
Isidoro Echevarría Maidaga	Tradicionalista	Id 4º
Robustiano Zubillaga Aguirre	Tradicionalista	Id 5º
Patricio Osinaga Urrutia	Nacionalista vasco	Id 6º y Sind
Antonio Pagoaga Maquibar	Tradicionalista	Id 7º
José Zulueta Aranzabal	Tradicionalista	Id 8º

Conforme al artículo 39 de la Ley municipal de 31 de Octubre de 1935, á este Ayuntamiento corresponden trece Concejales, existiendo en su consecuencia una vacante.

Mondragón 15 de Mayo de 1936

El Alcalde-Pte

Arrasateko zinegotziak 1936an.



Felix Arsuaga Astondoa, komunistaren hileta zibila 1935an.

ziren. Azken hauek aske geratzean, milaka lagun bildu ziren Donostian egin zen manifestazioan. Birtartean, Arrasaten, herritarrak arratsaldeko seietatik zain zeuden hauek herrira noiz iritsiko. Kartzelatik lehenak atera zituztenak zai geratu ziren beste hamarrak aske utzi arte. Orduan ekin zioten etxerako bidaiari, guztiak kanpoan zeudenean. Atxilotuak hiru auto-karretan etorri ziren Arrasatera. Goizeko ordu bata eta erdietan iritsi ziren. Orduan, Arrasaten inoiz ikusitako errepublikaren aldeko manifestaziorik jendetsuena egin zen.

Zinegotziak euren karguetara itzuli ondoren, beste manifestazio jendetsu bat egin zen 1936ko martxoaren 11an. Manifestazioaren buruan, musika banda zihoan. Jarraian, Ezkerreko Errepublikako bandera eta UGTren bandera eta bi hauen atzetik, zinegotziak eta herritarren gehiengoa. Hona hemen, manifestazioaren ibilbidea: Arano kalea, Resusta, Pablo Iglesias eta Errepublikaren plaza. Ondorengo hauek izan ziren manifestazioaren amaieran Errepublikaren Plaza honetan hitza hartu zutenak: UGTko Uranga, Euskal Ekintzako kidea Marcaide, Uriarte nazionalista eta Letona Ezkerreko Errepublika Elkarteko kidea. Ekitaldiaren amaieran musika bandak kontzertua eskaini zien bertan bildutako guztiei.

1934ko irailean dimititu zuten zinegotziak lehengo karguetara itzuli ziren berriro, Nikanor Axpe izan ezik, 1936ko urtarrilean hil baitzen.

1936ko otsailaren 23an, dimititu ez zuten zinegotziak Nikolas Uriarte,



Antonio Lopez Diezen hileta zibila, Leovigilda Diez Fernández eta Irineo Lopez Lorenzoren semea.



1936ko maiatzaren leheneko manifestazioa.



Arrasateko Bedia antzokiaren ondoan, 1936ko maiatzaren batean sozialistak. Ezkerretik lehena, Segundo Olazagoitia, jarraian, Salvador Laspiur, José Uribarren, Celestino Uriarte, Marcos Vitoria, Florencio Iracheta Quilez, (Irunen sozialista zinegotzia, faxistek eraila 1940an) Tatxo Amibilia (1934ko atxilotuen abokatua) eta Pedro Ruiz de Alegría. Trini Ruiz de Alegría utzitakoa.

Felipe Letona, Eustasio Markaide eta Jesús Uranga bildu ziren. Karguetarako ezintasunezko zigorra zuten zinegotzientzat gobernari zibilaren amnistia komunikatua irakurri zuten. Letonak esan zuen berriro eskuratua zela Errepublika, Errepublika monarkiazale izatetik apirilaren 14ko Errepublika bihurtu zela.

Ubagori konfiantza ukatu zioten eta batzorde bat sortu zen 1934ko irailaren 7tik 1936ko otsailaren 23ra bitartean udaleko gestora egindako jarduera ikertzeko; eta batzorde horrek hau erabaki zuen:

1.- Udal batzordearen lehendakaritzak gehiegizko esku zabaltasunez jokatu zuela herri honetara etorritako armadako indarrei 14.198,25 pezeta emanez, kopuru hori gehiegizkoa baitzen zeuzkan helburuetarako.

2.- Bitarte horretan hartutako erabaki guztiak baliogabetzat hartzea proposatu zuen, lege behar zen zinegotzi kopurua bertan ez zegoelako.

Martxoaren 11n Nicolas Uriarte izendatu zuten alkate.



8. Emakumeak Historian zehar

8.1 Errepublikak eta emakumeak

Emakume askoren bizitza anonimo zein eroikoak ahaztu egin dira.

Bigarren Errepublikaren herritarren garaipena ematean, finkatzeko zailtasun handiak izan arren, aurrerago erabakigarriak izango ziren gai garrantzitsuak hasi ziren gorpuzten; hala nola, hezkuntza, lana, aurrerapen soziala eta berdintasuna. Ordura arte, emakumearen kondizioa gizonaren gehigarri huts bat besterik ez zen izan. Mendetan egon da emakumea bizitza publikotik marjinatuta, formaziorik gabe, erabakiak hartzeko eskubiderik gabe, ...

II Errepublikak sortu zuen emakume eta gizonen arteko parekotasuna sustatuko zuen legeria: Gizonentzako soilik ziren pribilejio eskusiboak kendu zituzten eta familia zein senar emazteen arteko harremanetarako emakumeen eskubideak zehaztu zituzten. Seme-alaben guraso-agintea amek edukitzea lortu zuten. Emakumeari bakarrik aplikatzen zitzaion adulterio delitua legeriatik kendu eta elkarren arteko adostasuna egonez gero dibortzioa legeztatu zuten. Emakumeen lan baldintzak arautu eta amatasuna babestu zuten. Ezkondu edo amatasunagatik lanetik kanporatzeko klausulak debekatu eta Amatasunaren Derrigorrezko Asegurua ezarri zuten. Baterako hezkuntza sustatu eta emakumeek botoa emateko eskubidea lortu zuten, azken hau izan daiteke, lorpen guztietatik sinbolikoena. Masifikatu egin zen emakumeen parte hartzea sindikatu eta alderdi politikoetan hala ere, eta gizon emakumeen

arteko soldatak parekatzea onartu arren, praktikan, oso nabarmena zen gizon emakumeen arteko desberdintasun: lan berdina egin arren, soldatetan desberdintasun handia zegoen eta lan kontratu bat izateko, senarraren baimena behar zuten. Emakumeek zailtasun handiak zituzten goi mailako ikasketak burutu edo kargu publikoak betetzeko, eta hau guztia gutxi balitz, hor izan da betik, emakumea etxetik atera behar ez duenaren ikusmolde tradizionala.

Ez zen lan erreza izango egoera berriari egokitzea eta ordura arte betoa zuten espazio berriak bereganatzea, baina, Euskal Herriko txoko guztietako emakumeak altxatu egin ziren honen aldeko borrokan. Arrasaten eredu ona dugu Maurina Velasco Alonso. Aktibista, militante eta errerepublikaren defendatzailea zen Maurina. Hitz hauekin zuzendu zen Zentro Errepublikanoko areto nagusian zeuden pertsonengana:

“1931ko abenduak 14. Egun ospetsua, poztasun eguna. Izan ere, egun handi honi esker, espainolak Errepublika, handi, bikain eta oparoa dugu. Historia unibertsalak inoiz ezagutu duen konstituziorik onena duen Errepublika. Langileen Errepublika da gurea eta langileak dauden lekuan zintzotasuna eta eskuzabaltasuna dago. Era berean, egun tristea ere bada.

Gaur urtebete, traizioak, militar batzuen saldukeriak eta historiak ezagutu duen erregerik traidorearen odolerako grinak, mendeko Eroiarik handienak erail zituzten. Fermín Galán eta Ángel

García de Hernández. Errege katolikoak eman zuen biak fusilatzeke agindua. fusilatu zituen. Anbizia eta gorrotoa besterik ez zuen errege katoliko hark igandea ere ez zuen errespetatu. Ordurako monarkia zegoen. Odola nahi zuen eta odola izuri zuen. Ez zuen nahikoa bere baldartasunak eta txar lotsagarriek eragiten zuten odol izuriarekin. Gehiago nahi zuen, askoz ere gehiago. Ez zen konturatzen jarrera horrekin zuzen-zuzenean amildegira zihoala. Ze garrantzi zuten bizitza batzuk? Zer inporta zuen ama askok negar egiteak? Bere nahia herriaren protesta oihuak itotzea besterik ez zen.



Viteri eskola.

“¡Galán, García Hernández Arrasateko emakume demokraten izenean, ospe handiz zin dagizu aberriaren alde lan egingo dugula zuk erautsi bezala, Espainiak merezi duen handitasuna izan dezan, horretarako, zuk egin bezala, bizitza bere alde eman behar badugu ere!” (Jose Maria Velez de

Mendizabalek idatzitakoa.)

Maurina Palentziako Villaviudas herrian jaioa izan arren, oso ondo hitz egiten zuen euskaraz, hogeigarren hamarkadako immigrante gehienak bezala.



Viteri eskoletako ikasleak, 1931-1932 inguruan. Pilar Berezibar da burua azpimarratuz dagoena.



Viteri eskoletako ikasleak Debako hondartzan.

Ez da harritzekoa 36ko kolpe militarren ondoren Maurina erbestera joatera derrigortua izatea. Ordurako hiru alaba zituen. Semea, Jose Luis, urriaren 37an jaio zan Bartzelonan.

Itzultzean, ez zen erreza izan frankismoaren zama jasatea, baina, bere etxean askatasun grina zen nagusi. Eta horrela hezi zituen alabak Juanita “Olga”, Margarita eta Amparo. Hirurak raketistak. Zaldibarreko frontoian entrenatzen zuten. Kirola lanbidetzat hartu eta bi alaba nagusienek bizimodua aurrera atera zuten hainbat urtetan kirol honi esker.

8.2 Eskolan. Mojetatik, eskola laikoetara

Bederatzi, zortzi-bederatzi urte arte, monjetan ibili nintzen, gero Errepublikan Eskola laikoetara.

Orduan esan nauena, ez eustiela ezer erakusten monjek, bai, ta nik ikastia gura nauela

Nik etxien emun nauen kontestaziñua horixe izan zan

Etxien, klaro, tia bat euen, aman ahizta bat, monja euen monjetan, hemen Mondrauen gainera, eta, bueno... sekulako disgustua... eta egon nintzen egunetan ezebe esan barik etxien. Baina monjek abisau auien Ama... eta ailegau nintzenian etxera bazkal orduen, bueno... holakotxe muturrekin. Eta, ze pasauko ote zan, da, bazkaiten hasi gitzenien, familixa dana, orduantxe Amak:

- Oin, gauza bat esan biotzuet zuei - Anaiei, eh... hiru anai dauzkat nik baino zaharrauak, eta...

- zer pasetan da?- ta

- gaur tia monjiak keja bat bialdu jostek

- keja? Zeaittik ba?- honen kontu.

- zer ein ddon? Zer ein ddon? - hasi ziren anaiok.

- Nik? Ezebez

- Baina... zerbait derrigor

- ta

- ba... eskolarixik ez, alde ein juat eskolatik

- alde eskolatik? Baina zelan ba?

- Ba... ez eustien ezer erakusten eta pasau nok escuelas laicas

Orduan holan esaten zan, escuelas laicas, nacionales tampoco, laicas, escuelas laicas.

- Eskola laiketara pasau nok. Monjek ez eustien ezer erakusten, bai, ta nik ikastia gura juat.

Eta anai nausixak,

- ño, arrazoi faltaik ez daukan, hori hola badon. Ama ez eiozu hasarreik ein, ikusikou zer eitten dauen. Ama, la prueba ein deixela, aber monjak ala señoritak, nok erakusten dauen gehixau.⁹⁸

Viteriko eskolan. Pilar Berezibar Galdosen testigantza.⁹⁹:

Zortzi urte neukela hasi nitzen Viterin sarrerako azterketatxue eindde, erozein ez zala bertan sartzen, derri gorrien zan atariko proga antzeko bat eittie. Aurretik izendako eskolako kontuek ez dittut oso onak, triste samarrak zien jeneralien: mojak, toki tristie, jarduera grisak...

Lelengotan Angelita Aranori “madre” esaten nutzen, mojekin izendako ohiturie-edo. Angelitak zuzendu eitten eusten, “madre no, señorita”. Miresmen haundixe nutzen maistriai: eitten euen dana zan ona niretako.

Zigorren barri ez euen emun sekule be, rarue bada be. Ikaslien artien hartuemuene zan sendue besteko laguntzailie. Neuk, adibidez, beste lankide batzuei laguntzie emuten nutzien josteko lanetan, ta matematiketan zarrarek zienak niri emuten eustien. “Don Felixen” izen ona mitifikateu geuken familixa ta ezaunek zien gizonzkuen kontuengaittik. Gaitasune euken mutil bihurrixenak zuzenketako, ta bere izen ona zan zalantza bakue inguruko herritarren artien.

Eskolako lanak zien askotaikuek. Klasien batez be gustuko nituen aritmetika lanak ta josketa. Zaletasun ta gaitasun horreik bixok betiko euki dittut on-onak. Aritmetikan eitten gauen estilo askotako ariketak: eskribirute baño gehixau ahoz, guztien aurrien, abixera azkarrekuek, esan ta ikusi bakuek, arbelan di-da baten ikusi, buelta emun ta buruz osatzekuek... Oñarrizko eragiketak, hiruko erregelak, zenbaki lehenak, multipluak, zatitzailiek, geometria laue, bolumenak... Beti be buru kalkulua tuki nagusixe eindde, eskribiru barik.

Josteko lanetan ikasi nauen orduen denboran langile

klaseko emakume batek jakin biher euen: oihalak prestau, josi, bordauek ein. Eitten gauen be herriko jauntxuen ezkontzako arreue: izenak bordau izaratan, ekarri mahai-zapixek ta eskuzapixek. Ez zan gogokue niretako, debaldeko lana zan-da.

Goguen dauket zer egiten gauen gelan ta gelaz kanpo. Gogoraketan dittut zelako txanguen egiten gauen Debara ta Zarautzera, beti be Angelita Aranorekin. “Mendire” be faten gitzen aldian behin pasiue ein ta orrixek jasoteko asmuaz. Ebalten gauen bueltan arbolak identifikau ta botanika lantzeko.

Maixu-maistrek ikasgelan sortu euien begirune handixe animalixekin. Etxe inguruko animalixekin (txakur, katu, idi, txori...) tratu duiñe erakusten euien, ta hori zan gelakidien ezaugarrix. Holan, akorduen dauket zelan elaixek sartzen zien afixetan, sartu-irten klasien bertan. Angelitak eskaketan euskun ixilik egoteko txorixek trankilketako, ta ziriñe botateko... maitasunez garbiketako, koaderno ero bordauen gañien eindde be. Kasualdadie izen edo ez, etxien txorixek izen dittut, sukaldien aske batzuetan, beti kontu kontari, familixakuek izen die.

Pilarren semeak, Aitor Etxartek, askotan entzun ditu pasadizo hauek eta ama ez dagoenez jada berak gehitzen du: Zaharzarroan Viteriko kontuak zoriontasunaren parekoak ziren. Agian, Gerra segituan etorri zelako eta ondorengo guztia. Agian, Iruñera ezkondu zelako eta erbesteko moduan bizi izan zuelako. Agian, zahartzarokoan memoria bereziki moldagarria egiten dugulako. Kontua da etxeko sukaldean bi argazki zituela begi bistan: Arrasateko herria eta Udalaitez handi eta harroa eta Viteriko eskolako txuri-beltza. Ez zuen inoiz ulertu herriak nola onar zezakeen eskolak eraistea eta bertan ziren maisu-maistrak ahaztea.

8.3 Emakumeen boto eskubidea

Emakumeak botoa emateko eskubidea jasotzen duen legea 1931ko urriaren lein onartu bazen ere, haiek ezin izan zuten euren eskubidea bete 1933ra arte. Clara Campoamorren tesiak garaipena lortu zuen. Parlamentuan, orduan, bi emakume besterik ez ziren: Victoria Kent eta Campoamor bera. Bozketan, aldeko 161 boto eta kontrako 121 boto zenbatu ziren. Ezkerreko diputatu askok botoa eman zuten tesi haren kontra, emakumearen botoa errepublikaren aurkakoa zelakoan eta mesedegarria alderdi konterbadorentzat.

Gizartearentzat emakumea ez zen gai bere bizitza propioa eraikitzeko, eta, horren ondorioz, arrisku-tsutzat jotzen zuen bizitzaren arlo ezberdinetarako.

Orokorrean, euskal emakumeak izan ziren boto eskubidea betetzeko aurrenekoak, 1933ko azaroan, Autonomia Estatutuaren Erreferenduma ospatu zenean. Ardura handia sortu zuen, oro har, emakumeek ba ote zuten edo ez gaitasunik erantzukizuna betetzeko. Botoa eskatzen zutenek propaganda eta aldarrikapenak erabili zituzten emakumeen bihotz eta sentimenduengan eragina izateko. Botoa eman bai, baina boto femeninoa. Hura izan zen aurreneko aldia alderdiek emakumeengana zuzenean jo zutena botoa eskatzeko.

Ez zen erraza izan praktikan jartzea eskubidea emakumeek botoa eman ahal izateko. Ez dakigu zenbakitan zenbat emakume izan ziren hautesle 1933ko azaroaren 19an. Zalantzarik gabe, asko abestenitu egin ziren jarduera politikotik baztertzen zituen pentsamolde sozialaren inertziarengatik. Baina hautesle kopuru altuak eta ideologia ezberdinetako prentsan hedatutako berriek pentsarazten digute emakumeen portzentaje on bat joan zela egun horretan hauteslekuetara, haien bizitzan aurreneko aldiz botoa ematera.

Karmele Garciak hauteskundeetan zergatik ez zuen parte hartu azaltzen digu ondorengo hitzetan:

Estatutua botatu zen, ta ni, nire horretan, ez nintzen joan botoa ematera. Ama, goizean goiz, mezetara joan zen oso monarkikoa zen lehengusina batekin eta handik, zuzenean, botoa ematera joan ziren. Gaur iritsi orduko oso atsekabetuta zeuden biak "Botoa eman dugu baina derrigortuta, hau iruzurra da ...". Nire gizona eta biok lasaitasuna adierazi nahian ginen, baina, azkenean, ezin gehiago eta amari esan nion: "Begira ama, zuk nahi izan duzulako eman duzu botoa. Hemen naukazu ni, Venancio Gastañarezen emaztea, eta ez dut botorik eman. Betidanik pentsatu izan dut emakumeak etxean egon behar dutela, nahikoa direla gizonak herriak gobernatzeko. Ez al duzu entzun parrokoak zer esan duen, ala? Obispoak baimena eman du Estatutua botatzeko."

Ni "Emakume" en lerroetan egondakoa nintzen. Hain polita zen "Emakume" izatea! Gaztetxoei erakutsi, poxpolinak prestatu, gaixorik zegoen langilea laguntzeko antzezlanak prestatu edota haurrentzako tonbola bat

antolatu. Nik ez nuen ulertzen botoa ematearena. Nahi duzuen eskatu ta nik egingo dut, girlandak egingo ditut, eliza atonduko dut, antzezlanerako jantziak josiko ditut, alderdiarentzako bandera berri bat josiko dut, nahi duzuen guztia egingo dut, baina botorik ez dut emango. Entzutearekin bakarrik gaixotu egiten nintzen.

1936ko otsaileko hauteskundeak iritsi ziren eta Venanciok lan handia izan zuen. Nazionalista peto petoa, Propaganda Batzordeko kidea zen. Botoa emateko igandea iritsi zenean, a zer-nolako sorpresa hartu zuen ikustean ni gabe joan behar zuela. - Ez zaitez tematu Venancio. Zure Karmelek ez du botoa emango. Lege horiek ez dira niretzat. Politika gizonentzat da. Alderdia gizonentzat da. Emakumeok nahikoa lan dugu etxea gobernatzen, etortzearen arropatxoak prestatzen, ama onak izaten alegia! Eta gure senarrak zaintzen! Botoa ematea zuen gizonon gauza da-. Erantzuten zidan; - Arrazoi duzu Karmele, horrela da. Baina, gaur, emakume guztiak joango dira botatzera, eta zure botoa beharrezko du alderdiak. Legeak aldatu dira, orain haiek markatzen duten bidetik joan behar dugu. Gaur emakumeen botoa legea da, gaur, zuk duzu eskubidea botoa emateko. - Ni, lege horien guztien gainetik, emakumea naiz, eta senak esaten dit ez joateko. Nik ez nuen botorik eman eta bera isildu egin zen.

Afal ondoren jarraitu genuen egunerokotasunarekin. Nik etortzekoa zenaren arropak prestatzen nituen bitartean, era guztietako artikuluak irakurtzen zizkidan: Prentsa, Lauaxeta, Jose Antonio eta Navarro de Irujoren artikuluak, eta abar. Aizu eta horretaz ari garela, uztailearen hamazortzia hurbil zegoela, "Frantses Iraultza. Biktimak eta Borreroak" liburua irakurtzen ari ginen. Nik orduan uste nuen, idazleek idazten zituzten gauza ikaragarri haiek euren sormena zirela ...

Gure etxean aitak "Euzkadi" irakurtzen zuen eta Venanciok "El debate" irakurtzen zuen berean.¹⁰⁰

Aipatzekoa da EAJk zer-nolako indarra hartu zuen Arrasaten Bigarren Errepublikan. Bultzada harekin, alderdiaren eta gizartearen artean lotura organismoek ordura arte ezagutzen ez zen garapena izan zuten. Haien artean zen Emakume Abertzaleen Batza. 1922an sortu zen, Karmele Errazti lehendakari zuela. Baina Primo de Riveraren diktadurak isilarazi egin zuen. Errepublika hastean, berriro ekin zion bere jarduerari. Mugimenduaren arrakasta izugarria izan zen. Errepublikaren lehenengo biurtekoan,

20.000 emakume baino gehiago biltzen zuen. Emakume Abertzaleen Batzak ahalegin berezia egin zuen, gizarte-laguntzan, kulturean, ideia nazionalistak zabaltzen eta, batez ere, formazioa sustatzen. Formazioaren esparruan izandako lorpen handiena izan zen ikastolak inplementatzea, horrela lortu baitzuten euskara hezkuntzan murgiltzea. Aurre-rapen haiek guztiek lortu ez bazuten ere emakumea ateratzea bigarren planotik, BAI lortu zuten area-gotzea emakumeen kontzientzia.

Arrasaten, 1932an sortu zen lehenengo Ikastola. Herriko abade-etxean hasi ziren eskolak ematen, baina, geroago, lekuz aldatu zuten Batzokira. Sorreran, ikasle guztiak mutilak ziren.

Kutsu kontserbadore sendoa eta familia tradizionalaren defentsa askatasun gosearekin batera nahasten ziren egunerokotasunean. Guztia egiteke zegoen sasoi hartan, eta zalantza eta zailtasun guztien gaineratik, etorkizun justuagoa izateko ametsak forma hartzen zihoazen.

Emakumezkoentzako erakundeak baina, ez ziren emakume nazionalistez osatutakoak soilik izan. Emakume tradizionalistak ere, euren baloreen defentsa egiteko antolatu ziren. Ordezkaritza handiena izan zuen taldea Agrupación Femenina Tradicionalista edo “Margaritas” izan zen. M^a Rosa Urraca izan zen taldeko burua. Arrasaten, emakume asko zeuden Agrupación Femenina Tradicionalistan afiliatuta, eta agerikoak izan ziren haiek Emakume Abertzaleen Batzarekin izandako desadostasunak.

1934. urtean sortu zuten “Sección Femenina”. Erakundearen arduraduna izan zen Pilar Primo de Rivera, Espainiako Falangearen sortzaile José Antonio Primo de Riveraren arreba. “Sección Femenina”ren lema zen “Emakumearen xedea da gizonaren osagarri bat izatea besterik ez”, argi erakusten digu zein zen helburu nagusia. Erakunde haren ideia politikoei sustatzen dute amaren eta esaneko emaztearen rola, emakumearen prototipo gisa.

Jarraian dituzue ezkerreko tendentzian sortu ziren emakumezkoen talderik aipagarrienak: Emakume Sozialistak (1934an sortua), Círculo Femenino, Mujeres Libres, Mujeres del Puum eta Emakume Antifaxistak. Arrasaten, ez zuten garrantzi handirik izan baina, kontestu orokorrean, borrokatu ziren

genero berdintasunarengatik, laizismoarengatik eta lana zein soldaten parekatzeagatik. Aipagarria da ere Emakumezkoen afiliazio sindikala. ELMA, Union Cerrajera eta Industrial Mondragonesan, UGTko emakume afiliatu asko zeuden lanean. Parte hartu zuten antzezlanetan eta abarretan. 1934ko urriko iraultzaren ondoren, ehunka pertsona atxilotu zituzten herrian, eta emakume haiek izan ziren egoera hartako protagonista anonimoak. Aldiz, errealitateak diosku emakume haiek han egon zirela, eta gertaeren eta haien ondorioen biktima zuzenak izan zirela. Bidelagun izango zuten, gosea, hotza eta senitartekoen egoerak sortutako larritasuna. Kartzeletara joaten ziren, eta ematen zizkieten laguntza guztiak onartzen zituzten. Epai-keten ziurgabetasuna biziko zuten, eta etxera elikagaiak eraman ahal izateko, prest zeuden edozein lan egiteko. Ordura arte, etxe askotako bizi baldintzak oso eskasak izan ziren baina, ordutik aurrera, emakumeek bakarrik eraman behar izan zuten etxeko zama guztia. Sakrifizio handiz eta isilean beti, baina antolatuta.

Aldarrikapen eta aldaketa giro hartan, tentsioak oso nabarmenak ziren plano politiko zein sozialean. Langile familia xumeetan, soldata txikiek eragozten zuten bizitza duina izatea.

Kolpe faxistaren aurka erresistentziak iraun zuen bitartean, emakumearen parte hartze politikoa mugatu zen arlo pertsonal-familiarrera eta zaintza lanetara. Baina baditugu prest agertu ziren emakumeak ere hainbat lan egiteko. Ezkerreko pentsamendudun emakume batzuek izena eman zuten miliziana izateko.

Estatu Kolpearen hasierako egunetan, emakume batek eragotzi zuen zenbait lider sozialista eta nazionalista atxilotzea. Emakume hura zen Unión Cerrajerako telefonista. Hark jakinarazi zuen Arrasateko karlista talde batek herria ilunpean utzi nahi zuela lider batzuk atxilotzeko. Luis Balanzategi Zuluetak lantegiko zaintzaileak, uko egin zion argiak itzaltzeari. Horrela, 150 erreketek ekintza aurrera eramatea galarazi zuen. Balanzategi atxilotu egin zuten eta gero Oiartzunen fusilatu.

Estatutuaren plebiszitua egin eta egun gutxira, 1933ko azaroaren 19an, II Errepublikaren Gortetarako bigarren hauteskundeetarako deia egin zuten. Hauteskunde haietan bi berrikuntza izan

zituzten: emakumeak botoa emateko eskubidea zuten, eta botoa emateko gutxieneko adina aldatu zuten 25 urte izatetik 23ra. Bi erabaki haiek ikamika handiak sortu zituen ezkerreko zein eskumako politikarien artean. Guztiak bat zetozen esatean emakumea ez zegoela prestatuta botoa emateko. Batzuen ustez, emakumeak oso manipulagarriak ziren, elizak haiengan izan zezakeen eraginarengatik eta besteen ustez, emakume izatean ez zeuden gaituta botoa emateko, haien jarduera esparrua mugatuta zegoelako eremu pribatura, etxera.

Baina emakumearen botoa emateko eskubidea onartu zuten, eta alderdi guztiek lanari ekin zioten emakumeek ahalik eta boto "egokiena" eman zezaten. Orduan hasi ziren lehenbizikoz sortzen, eliza lehenengo¹⁰¹ eta alderdi politikoak eta sindikatuak geroago, haien erakundeetan emakumezkoen taldeak.¹⁰²

Hauteskundeak iritsi zirenean, emakume batzuek kanpainan hartu zuten parte botoa eskatzen: baserrietara joan, lekuz mugitzeko zailtasunak zituzten hautesleei lagundu, mitinetan parte hartu, hauteslekuetara hautagaitzak banatzera joan, eta beste hainbat lan egin zituzten. Hauteskundeetan emakumeak hartu zuen garrantziarengatik, arreta berezia jarri zitzaion eta hauteskunde kanpainako mezu asko eta asko izan zen haien botoa eskuratzeko.¹⁰³ Gainera, bada emakumea zirikatzen duena semearen edota senarraren botoan eragina izateko. Politikari batzuek etxean egindako lana hauteskundeetako parte hartzearekin konparatu zuten hitz hauek erabiliz: "Emakumeak botoa ematen duenean, etxeko lanekin bete besterik ez du egiten. Aberriari oldar marxistak sortu dizkion urratuak pasaratzen ditu; Legearen haria erabiliz, Espainiako eskualde guztiak lotzen ditu; eta arrastaka ibili ondoren, mendi gailur altuenetara iristen diren barraskiloak erditik kentzen ditu".¹⁰⁴

Gizartea konturatzen hasita zegoen emakumeak beharrezkoak zirela haien helburuak aurrera ateratzeko. Emakumeak berdintasunerako lehen urratsak ematen hasiak ziren, gizartea banatuta egon arren. Tradizioak eta erlijioak ere pisu handia zuten: emakumeek presio handia jasotzen zuten, txukun jantzitako etxeoandre eta ama zintzoak izan zitezten.¹⁰⁵

8.4 Emakumea lan-munduan

1933. urtean herrian 1.828 langile zeuden eta haietatik 321, % 17, emakumeak ziren. Union Cerrajeran, 1.233 langiletik 212 emakumeak ziren. Industrial Mondragonesan, 91 langiletik 51 emakumeak ziren.¹⁰⁶

ELMAN, 295 langiletik 42 emakumeak ziren. UGTk 106 afiliatu zituen enpresan, eta haietatik 21 emakumeak.¹⁰⁷ STVko 64 afiliatutik 3 bakarrik ziren emakumeak.¹⁰⁸ Sindicato Libreko 37 afiliatutik 7.¹⁰⁹ Ez dakigu beste 13 emakumeen afiliazioa. 5 zeuden afiliatu gabe.

Roneo-Unión Cerrajera. 86 langile. 7 emakume.
Metalurgica Cerrajera. 61 langile. 6 emakume.
Arzamendi Berecibar y Cia. 25 gizon eta 3 emakume.
Osinaga e Iriondo, 12 langile.
Bibaburu y Uribechevarria, 6 langile.
Uribe, Echevarria y Heriz, 12 langile.
Osinaga e Iriondo, 12 langile.
Pagalday y Bengoa, 4 langile.
Madina Trojaola y Yarza, 3 langile.
Isidoro Ezcurra, 2 langile.

1941ean, Altuna, Mendizabal eta Cia.n lan egiten zuten emakumeak

Acha Ugalde, Martina	16 urte
Altuna Lizarralde, Emeteria	30 urte
Arabaolaza Arriola, Marcela	26 urte
Echaguibel Otaduy, Gregoria	28 urte
Madinabeitia Arbulu, Sabina	19 urte
Perez Galvan, Carmen	19 urte
Sagasta Aguirre, Sabina	20 urte
Sanchez Garcia, Ludivina	32 urte
Urcelay Elguea, Isabel	18 urte
Uriarte Gallastegui, Juana	19 urte
Uribe Goitia, Elisa	26 urte

(Enpresak 1941eko irailaren 24an bere langileei ogi errazio estra emateko zerrendatik ateratako datuak).

Lanuztearen eragina 1934ko maiatzaren 4an: 55 lagun zeuden lanuzte totala egiten eta 1.653 lanuzte partzialean. Azkenok asteen bi egun gutxiago egiten zuten lan. Lanuztearen eragina 1936ko apirilaren

15ean: 116 lagun lanuzte totalen eta 1.495 lanuzte patzialean. Guztira: 1.611.

1933. urtean, gizonen eta emakumeen arteko soldata ezberdintasuna oso handia zen. Hona hemen Unión Cerrajerako soldatak:

Gizonezkoen soldata minimoa: 12 pezeta eguneko lehen mailako ofizialentzat eta 8 pezeta eguneko peioi arruntentzat. Emakumezkoak: 4 pezeta lanean hasteko, 4,75 sei hilera eta 5,75 pezeta margotzen, nikelatzen eta tornu birakarian. 14 urteko laguntzaileek (mutilak) 4 pezeta, 18 urtekoek 7 pezeta eta 20 urtetik gorakoek 8 pezeta lehenengo urtean, eta bigarren urtetik aurrea 8,25 pezeta.

Emakumeek gizonak bezala batailoietako laguntza



Emakumeak Cerrajeran, bonbak egiten.

zerbitzuetan parte hartzen zuten gerra hasierako nominetan ikusi ahal izan dugu, nola gizonezkoek eguneko 10 pezeta kobratzen zuten eta emakumezkoek 6.

Emakumeen lana ez zen behar beste baloratzen. Eskuko trebetasuna eskatzen zuten lanak egitera mugatzen ziren eta gainera lan ordu berdina egin arren gutxiago irabazten zuten. Batzuetan lan berdina egin arren be gutxiago irabazten zuten eta hau bai gizonentzat eta bai emakumeentzat normala zen. Larriena ez zen hori, larriena zera zen: onartua zeukatela azpiko garrantzia lan munduan. Garai

hontako emekumeen elkarriketetan ugari eman den hitza honako hau izan da: “konformidadia”. Emakumeak ezkontzen zirenean lana uzten zuten, bere eginkuzuna argi zeukaten, etxeko andrea izatea zela:

Gure etxian klaro aukien eskolia emakumiak behar auela, ez zaukien klaru zertarako, hori konturaketan naz ez zaukiela oso klaru zertarako behar zan eskolia. Mutilentzako bai, oso klaru auen, baina neskientzako...nik pentsetan dot nire aita oso modernua zala eta berak pentsetan auela: emakumiak jakin behar dauela gizonen aldamenian pareketako berbetan eta punto. Baina lanerako preparau behar zanik, ondion ez zaukien hori... bueno, ofizinarako eta preparentan zien, ni be bai preparau nintzen ofizinarako... baina ofizinan sartzeko be behar zozun entxufia... guk ez gauken entxuferik ezetako be.¹¹⁰

Apuntau, etorri nauen Zerrajerara eta ez zala ikusten dirurik etxian, ezer ez, 17 urte edo nauken eta: “Ama, fabrikara apuntau behar naz”, “Ene! Fabrikara”, orduan fabrikia andrentzako, bueno...!, “Bueno ama, ze inporta da ba, alde baten edo bestian ein”, “Baina ume, zer esango dau jendiak!”, “Ama, jendiai begira zaz jateko ala? Banoie apuntetan. Joan nintzen apuntetan eta Añibarro, ha zelan Santa Agedan... Añibarro zan horko jefia orduan, eta aitan laguna zan, aitakin jolasian ibiltzen zan Santa Agedan. Joan nintzen Añibarrona eta: “Kornelion alabia naz”, “Kornelion alabia?”, “Bai”, “Etorri zaitez bixar lanera. Eskolarik badaukozu? Bestela ofizinarara, e?”, “Ke ba”, “Bueno ba, bixar bueltan etorri lanera. Egun batetik bestera esan zuzten, eta gero, ene! Fabrikan sartu ninduela! Ez dakit zer, badakit zer danak... Bueno, behintzet amai kintzena eramaten notzan ta. Lehenengo kintzenan, ama koitae, han drogerixia dauena Portaloian, haraxe urtenda kapasotxuaz. Orduan astian kobretan zan ta... ez dakit 8 pezeta edo zer kobrauko nauen. “Ama, zer eiten dozu hamen?”, “Kobrau dozu?”, “Bai”, “Ba errekauek eiteko dirutan”. Maja! Errekauek eiteko dirutan ama! Emon amai sobretxua eta pozixau... bueno! Ama zestua betebete ein eta etxera!. “Ikusten dozu ama! Ikusten dozu, zelan irabazten dan dirua eta honradamente fabrikan be”. Pentsetan zan orduan fabrika zala... bueno!¹¹¹

Apuntatu eiten zan, gu apuntatu gintzen. Gure amak ez zauen gure, klaro orduen ez zauen akostumbrata, txarto ikusita auen neska gaztiak eta fabrikara joatia. Osea que krieria eta fan behar zan. gu sartu ginan batera 17 neska gazte.¹¹²

Nik ez dakit, fabrikara sartu nintzen, zeatik pobre akaberakua gintzen koiatauok, gerra denboriak hartu ginduen eta nagusia Asamera joan zan eta ni fan nintzen Zerrajerara. Zerrajeran, hantxe lehenengo proiektilak eiten. Lehenengo erakutsi guzkuen estañetan, eta gero ikesi gauenian proiektilak eiten gerrarako. Gero gerria akabau zan eta gero ibili nintzen perniak eiten. Perniak eiten makinan....Hantxe urtiak ein nituen, eta gero atzamarrak harrapau nituen. Zerak jo ninduen, trokelak, atzamarrak fastidixau zuzten. Orduentxe holan adelantorik ezta ezer ez... eta hamen daukat atzamartxua (baina gutxi da)¹¹³

Gerra denboria zan eta ni ninguen lanian, orduen auen halako toki bat morteruak eta eiten zienak gerrarako, mortero asko.(...) Morteruak esaten otzauen, hareik eiten, tokau jaten kontroletia be eta...gerria akabau arte haretxeik eiten ibili nintzen. Gehixenak neska ginen, halako sala bat auken (bere etxeko sala karratua), bueno, doblia izengo zan. Inguruetan abitzen gizakumiak, hareik eiten auien preparau, morteruak ein, gero pasetan guzkun guri montau eiteko.Gero kontrolau hareik... gero gerria akabau zanian, pasau ginen beste sezino batera, la sección 1-2. Nire kontramaistrua zan Modesto Zulueta, bueno eta han beste lan batzuk eiten, zerrailak eiten ibiltzen ginen. Hurrengo, ha akabetan zanian, emuten guzkun beste... "otra klase de trabajos" eta hantxe luzaruen.¹¹⁴

Guk igual eiten gauen 10 ordu 100 pezeta irabazteko fabrikan, eta han ez zauen kalifazinorik eta han ez zauen ezer ere ez. Eta ni egonda nau militarizauta be bonbak eiten, eta gabez lana. Eta ez zauen ezer ere ez, gabien hotzak, estufa handi bat egur zahar bat sartuta.... Gabez, eta ez gauken esne apur bat edateko bez. Hantxe, lana ta lana, gainera urakin ein behar izeten gauen lana... Morteruak bueltaka ibiltzen zien eta ura bota behar jakon. Gero ein auien halako zerrau bat, eta han egon zan Markaide. Julio Markaide auen orduan, como capitán eta guk geuken txapa bat zerena...soldaena.

Makinetan, eta gainera ni ibilita nau makinak gizonak ibiltzen dien makina haundi batzuetan. Eurak irabazten auien guk baino doble, eurei pagetan otzien

100 pieza hainbeste eta guri, erdixa. Lan berdina einda. Ba andriak beti gutxiau daukolako. Baina nik beti gizonak baino gehiago eiten nauen, porque eurak zien gu baino nagusixuauak be bai, baina, gu lana eiten gauen eurak beste, baina pagau eiten guzkuen gutxiau.¹¹⁵

Fabriketan ez zabitzenak zien las señoritas, eta fabriketan gabitzenok ginen las pobretonas, las bajas. Eta jentiak eiten zauen asko, fabrikara joan baino lehenau, joaten zien krieria, asko. Fabrikia azkena zan. Han gizakumiakin, makinak!... Fabrikara joatia deshorrta zeatik? Han lana eiten dozu. Gizakumiak zazela? Bien, gizakumiak bere zerien eta emakumiak bere zerien. Gizakumiak eta emakumiak alkarrez eiten gauen, makinetan gizakumiak egoten zien eta emakumiak be bai. Goien be emakumiak eta gizakumiak egoten zien, lanian junto. Orduan fabrikara joatia zan! Asko joaten zien krieria, eta niretako ez zan hobiaua. Neu beste batzui aguantetia? Hoba dozu fabrikan zeure orduak ein eta gero etxera joan, eta gero libretako bazaukotzun. Eta krieria zer? Bestien zikinak garbiketara? Orduen ez zazen oin moduan, orduan esklabak zien... hemendik kanpora joaten zien. Bilbora, Donostiara eta holan faten zien. Hareik aguantau baino... esklaba! Orduak urteteko, domekan urtetan bazenun 9tarako etxera eta holan joateko fabrikan lana eitia hoba zan. Behintzet fabrikan 6tan urtetan zozun.

Gizakumiak beti gehitxuau...Betiko legia, beti emakumiak gutxitxuau. Nahiz eta lana iguala ein emakumiak gutxiago...Bai, zoiatz kejetan! Nora? Keba! Irabazten zanan konformauta.¹¹⁶

Etorri eta esan nuen: Baietz, ni apuntatuta nengoela, "Baina, nola apuntatu?", "Zergatik ez. Mikaela eta beste batzuk ere apuntatu ziela..." Koadrila bateko emakume guztiak apuntatu ziren. Ba, hurrengo egunean, denak lanera. Ez zegoen lanerako inor. Gerran hilda ez zeuden gazteak soldaduskan zeuden. Nagusiagoak zirenak asko hilda, eta kintetatik deitzen zituztenak, ba, hara. Nire amak ez zuen nahi, baina, zer: Ama koltxoiak egitera hona eta hara, aita baratzean, eta ni etxean, lapiko artean. Beti berdina.¹¹⁷

Aita 41 urterekin zendu zen kontzentrazio-eremu batean gaixotuta. Ama? Gogor! Gogor!. Lehenengo zortzi egunetan nobenarixora joan behar zela, Mezaren irteerara joan behar zela, igandea bukatu eta astelehen goizean lanera zereginean erne ta tinko. ELMA n sartu eta tornu errebolber automatiko baten jarri zuten lanean, gizonak bezala. Goizeko seietan jaikitzen zen eta gaueko



Leonor Rodríguez Sadornil

hamarretan iristen zen etxera. Nagusien eskailerak garbitu behar bazituen, garbitu egiten zituen, dutxak garbitu behar baziren, garbitu egiten zituen, bulegoak garbitu behar baziren, garbitu egiten zituen, hori bai, alabekin. Bulegoak alabekin, dutxak alabekin, dena alabekin. Guk eduki dugu... Lan eta lan egitea besterik ez digute irakatsi. Niri ez didate beste ezer irakatsi, lan egitera, obeditzera eta isilik egotera.¹¹⁸

Kalera irtetea kanpai-joaldiak entzuten genituen: "Teruel hartu dute", "Emakume gorriak Perragordara"... 1947an sartu nintzen ELMAn lanera. Senarra hango langilea izan zenez, deitu egin ninduten. (...) "Ahal duzunean, joan zaitetz lantegira, atezaintzara, eta han apuntatu lanean hasi nahi duzunean". Baina denbora haietan! Nobenarixua bete behar zenuen, ezin zenuen irten etxetik, mezetara mantua jantzita eraman behar zenuen eta ezin zenuen lanera joan. Ez zenuen zer jan, baina, horrek ez zuen inporta! Senarra hiltzean, bederatzi egunez, egunero joan behar zenuen mezetara mantelina batekin. Nobenarixua pasatu arte ezin zenuen ezer jan, baina nobenarixua bete bai. Eta igandero,

mantuarekin noski, Meza Nagusia entzutea

Hil eta hamar egunera itzuli nintzen lanera. Nire zain zeuden, aurretik jakin bazekitelako, senarra hiltzean nuela. Lehenengo egunetik hasi nintzen tornu birakarian lanean eta han izan nintzen, 22 urtez, postu berdinean.¹¹⁹

Lan berdinian be gizonai gehixau pagetan eutsien. Ni lanian nebillen eta harek lanak euken prisa haundixa. Eta klaro, esan euzten enkargauak: "Ene Miren, prixia daukot eta beste bat ipini biher dotzut aldemenian" Eta esan notzan: "Oh, ederto, ba ondo" esan notzen bien. Eta klaro, ibili gizen gu...gizakumia zan bestia, mutil gazte bat zan ipini auiena eta ez dakit nik. Nik pentsetan dot konfundiru egin zala eskribientie, emun biherrian nire papela, emun euzten bestian papela. Zeaittik egunero emuten guzkuen papela, ze irabazten gauen. Hari emun zotzien niria. Eta ha akordau zan zeinei emun zotzien, baña, harek ikusi zauen deskubriru zala pekatua. Klaro, ni egun guztia berena. Bueno, ni ikusi nauen nire aldan askoz ere gehixau eta bixok lan iguala eta kantidade igualak egin da. Eta ni fan eta protestau egin nutzen enkargauai.¹²⁰

8.5 Lanik ez burla artean

Gerra barruen, klaro, zelan ba egingo gauen. Fabrikan sartu behar eta horrek, Juan Perikok, gure ninduen fabrikan sartu Cerrajeran, eta esan zuzten joateko lanera Cerrajerara. Ez auien inor hartzen gainera. "Fan zaitetz Cerrajerara, neuk egin dot berba, errezebiruko zaut...", fan nitzen ta ez ninduen errezebiru. Klaro esan zuztien ez nindutela hartu biher lanian, arrebiak galdetu zuzten: "Zer esan dotzue Benita?", "Ez noie gehiago, e?", "Ez zaittuela errezebiru!". Esan nutzen Juan Perikori, Juan Perikok barriro berba ein auen ta falteko ta fateko, barriro errezebiruko nauela, fan nitzen ta ez ninduen errezebiru. Etorri nitzen ta: "zer esan dotzue?", "Ez naue errezebiru! Ez noia gehixau eta ez zaittez nigana etorri gehixau"

Barriro etorri zan egun batzuetara, ta esan zuzten: "Fateko, baietz, ya ez dauela bestia, beste bat dauela ta harek errezebiruko nauela". Fan nitzen ta esan zuzten: "Pues mire, Benita, no tenemos orden de coger a las mujeres de los hombres fusilados, no tenemos orden de coger, así es que..." Gero esan zuzten: "Le meteremos al chaval", "Como si no quieren meter, con dos miserables pesetas que le van a dar, somos siete de familia y no tenemos nada". Fan naz etxera ta gero Robertokin topo ein. "Roberto, niretako ez daukazu lanik?" Baina, in-terinak be ez gintuen hartzen, krieria be ez ginduen

hartzen, ez ginduen begiraketan. Danak pentsetan auen gu monstreak edo ez dakit zer gitzela. Gauza raro batzuk moduan begiraketan guzkuen. Esan zuzten: “Bai, fan bixarko Cucharerixara”. Fan nintzen Cucharerixara ta Cucharerixan hartu ginduen, geratu nitzten han ta lan ein. Han ibili nitzten han lanian, kristoren lanak eiten, andrak eta edozein neure moduan geratu zienak.nigana etorri gehixau”

Cuchareran, kristoren lanak eiten: tanborretan, aziduetan, makinetan, bazterra guztietan, esku guztiak, dana odola darixola, esku dana. Trapurik be ez bendetako, ezebez, jo! Okela bizixan hantxe, lanian, 4 pezeta miserable jornala eta lau egun lana, 16 pezeta, eta 16 pezetakin pezeta bat kentzen guzkuen, 15 pezeta, eta 15 pezetakin faten gintzen etxera eta bat ez baino txarrago.

Amakin juntetan nitzten askotan sukaldian, 15 pezetok ailegeten nitzenian etxera ta esaten notzan: “Ez noia gehixau lanera, bihe dot goziez hiltzia holan ibiltzia baino”. Konzideraziñua ezta ezer be, lanian. Buf! Zenbat burla! Zenbat burla fabrikara goiezela be! Lehenengo unian, buzua jarri nauenien, zenbat burla! Esaten eustien: “Gizona bizirik eta butrua jantzita! Gizona bizirik eta butrua jantzita! Ja, ja, ja! Lehenengo etxetik urten nauenian fabrikarako, neska zahar bat oien elizatik etxera, hasten da barrez, zelako barrie ein zuzten!”¹²¹

Echaurre Hermanas
Eli sa Garay
Leonor Berrecibar
Carmen y Ampara Balardi
Carmen Garcia
Maria Castañares
Catalina Azcarate
Felipa Arrieta
María Echevarría
Adoración Gorosábel
Iturbe Hermanas
Julia Paparabats
Prudencia Chapas
Andresa Tigre
Mujer de José Tigre
Teresa Mendizábal
Fany Garay
Zaitegui Hermanas

Estas se encargan de fregar y preparar la iglesia parroquial para el próximo domingo

Estas también se encargan de traer todo lo que haga falta para dichos trabajos.

Todas las cortinas se hallan rotas y algunos pequeños arreglos de albañilería

Jolin, gorriak ginenez ez gintuzten lanerako hartzen. “Gorriak zarie. Ezer bez. Zergatik hartu duzue bide hori”. Gero, Industrial Mondragonesa nahiko ondo portatu zen. Hortik zehar ibilitakoak hartu zituen lanerako.... ELMAAn ere jende dexente hartu zuten. Baina Cerrajerak ez. Cerrajerakoak oso katolikoak ziren, erabat ezberdinak. Eta horrela geratu zen Cerrajera. Ez zuten inbertsiorik egiten, ondasun guztiak, urtean produzitutako guztia akziodunek jasotzen zuten eta ez zuten lantegirako txikitarik uzten, ezta erratzak erosteko lain ere. Horrela joan zen Cerrajera beheranzka. Plan-teamendua egin zenerako...¹²²

Cerrajeran.... Nire senarra Cerrajerakoa zen, baina, ez zuten hartu. Baina Elma... ELMAk gerrarako kañoiak egin behar zituenez, ELMAk Cerrajerak nahi ez zituen behargin guztiak hartzen zituen. Behin honela esan zuen Orejaren aitonak: “langileak belarra jaterra behartuko zaituztet. Ez dakit belarrrik jan genuen edo ez, baina....”

Bai, Errepublikan hasi zen lanik ez ematen. Astean hiru lan egun jarri zituzten tartekatuta, jendea beste inora joan ahal ez izateko.

Gerra amaitu aurretik egon nintzen hemen. Gizona Santoñatik etorri zenean ELMAra etorri zen (...) ni deitzeko exijitu zioten eta ni ere bertara etortzeko eskatu. Etorri nintzen bai eta Arrasatera etorri nintzenean (...). Eta esan zidan: “Hain ondo zeundela jakin izan banu ez zintuzkedan deituko, hemen ez daukagulako ezer.” Arratsaldeko seieta iritsi nintzen Arrasatera. Goizeko zortzietan Goardia Zibil bikote bat hurbildu zitzaidan. Zorita eta Zubizarreta ziren. Bien artean hartu eta koartelera eraman ninduten. Galderak: Leonor Rodriguez?”, “Ni neu!”, “Zuk ez al zenekien ba, Goardia Zibilaren aurrean presentatu behar zinela? Ni kaletik preso banengo bezala, koartelera iritsi eta galdera pila bat: “Zergatik joan zinen hemendik?” (...) “Ba, zu espioia izan zaitezke. Hemendik ateratzeko ibiltzeko bamen bat beharko duzu”(…). Horrela joan nintzen etxera...¹²³

Hain zaila zen gerratik itzultzean lana aurkitzea?... Gertatzen zena zen ezin zinela zuk nahi zenuen lekura joan. Jendea, Cerrajera eta abar. Cerrajeran gutxi batzuk sartzen ziren lanera. Eurak zioten bezala, hortik zehar ibilitakoak ziren, “gorriekin” ibilitakoak.Orduan, ba, beste lantegi batzuetara. Orduan bai, lan handia zegoen, baina guk lana falta genuen.¹²⁴

8.6. Emakumeak gerran

8.6.1. Eraildako emakume errepresaliatuak

Francisca Ojanguren Iribekanos: 36 urtekoa, ezkondua. Angiozarko Zuazketa baserrikoa. Oiarzunen erail zuten 1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean. Honen senarra ere gudan hila.

Maria Areitio Arana: 56 urtekoa, 9 seme-alaben ama. Galarra baserrira igoterakoan, faszistek tirokatu zuten, eta hanka baten zaurituta suertatu zen. Ospitalean sendatu eta gero, Ondarretako kartzelara eramán zuten, eta Oiarzunen erail.

Florencia Olazagoitia Ceciaga: 40 urtekoa, 3 seme alaben ama, 5 hilabeteko haurdun erahil zutenean. Zelataria izatea leporatu zioten. Oiarzunen fusilatu zuten 1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean.

Paula Mujika Arregi: 49 urtekoa, ezkondua. Emakume Abertzaleen Batzako kidea

Ondarretara eramán eta Oiarzunen fusilatu zuten 1936ko azaroaren 11tik 12rako gauean.

8.6.2. Emakume presoak: 20

Felisa Murguzur Yarza eta bere ama Josepa Yarza Abalia, Julia Abarrategui Abarrategui, Mercedes Heriz Abarrategui, Juana Isasi Erguin, Teresa Herrarte Sologaitoa, Gasteizen, Dolores Mondragon, Maria Mondragon, Mauricia Alvarez, Dionisia Vega, Genoveva Garay Albistegui, Toribia Garay Albistegui. Benita Fernandez Abarrateguiren kontrako salaketa 1937ko martxoaren 2an jarri zuten. Eulalia Altuna, Paulina Bengoa, Antonia Balanzategui, Juana Arana, Juanita Salinas, Catalina Sologaitoa, Juana Aguirre.¹²⁵

Eruen ginduen ayuntamientora eta handik kartzelara, beste batzuk be baauzen, ama ni eta beste hiru andrakin. 14 de abril de 37 zelebrau gauen kartzelan.

Zure senargaia frontean dago.... Mutil azkarra da... nik, esaidazu ba bere izena, a zer nolako poztasuna.” Hurrengo egunien esan notzan, ama orain bai benetan eruen biher gaittuela kartzelara Herri guztixa etorri zan banan banan etxera etorri zare... zenbat negar egin gauen besakarkatuta.¹²⁶

8.6.3. Ilea moztu eta kaskamotz utzi zituzten

Borrokalari errepublikar baten alarguna edo emaztea izatea nahiko arrazoa zen umilazio publikoa sufri-



Modesta Bidaburu.

tzeko. Emakume haiek zigortzeko, Europa guztian praktikatzen zituzten metodoak praktikatzen zituzten hemen ere, emakumeen feminitate barne-barnekoeanean eraginez: Kaskamotz utzi eta errizino olioia edatera behartzea tortura gehigarri bat izan zen. Emakumea nola iraindu bazekiten. Aukerarik gabe komunera joateko, danborraren erritmopean kaletik desfilatzera behartzen zituzten. Arrasaten, praktika haiekin gutxienez lau emakume iraindu zituzten: Modesta Bidaburu eta María Mondragón, Felix Elorza Mondragonen(morico) ama.¹²⁷

Julene Iturbe bere izeba Euxebi Aguirreri buruz mintzatu zaigu. Kaskamotz utzi eta errizino olioia edatera derrigortu ondoren, kalera atera zuten pasiatzera tripetako gaitza ezin kontrolatu zela. Antonina Zubizarreta beste horrenbeste egin zioten. Eitzien ulea ebai eta aceite de ricino eman otzien eta kalei kale ibili zittuen bera bakarrik ez beste batzuk pe bai.¹²⁸ Eitten zauien manifestazioa herribat

edo baserri bat hartzen ba auen eta atara zotzie horreik kaskete motz einda kalera.¹²⁹ Modesta Juanito pintoria, haren amai ebai einotzien ulea motz motz eina. Terriblea izen zan.¹³⁰

Egun baten etorri zan guardia zibila etxera galdetzen Modesta Bidaburu, bai han bizi dala neuk urten nauen, gañera, atera, aitak pase pase, igerri eutzen zein zan eta ardaa eman zotzen. Ama eruen hauen. Ni bittartien fan nitzen atxaldien Bakuera, eta etxera honuntza natorrela bidian, Maritxu Krisisek esan euzten, Leandro badakizu zer pasau dan, zer pasau da ba, ez dakit ezer, negarrez hasi jaten, ba amari ulia ebagi dotzie, etxera fan nintzen takarraran eta ama topau nauen negarrez ohe gañian jarrita, bezina bat egon zan berakin, mesedetzarra eittia amari, orduen bezinoak be ez zien atrebiruten gure etxera sartzen. Barberuak euki auen merito tremendua haundixa ez zauen gura ulia ebaittia amari, guardia zibilak obligau ein auen, kalez kalez bialdu zauien barberuenetik etxera Zarugalderaño ulia moztuta al cero.¹³¹

Juli Berezibar, elkarrizketatua 102 urte egin baino

egun batzuk lehenago, gogoan dauak zelan egin zuen tril Modesta "Manga"rekin kantoian. *Kantoi*en noiela: agur Juli esan eusten Modesta "Manga" k. Juli harrituta zegoen, ez zuen ezagutu eta, eta zioen: *a zeako itxurie, ulia moztuta, kalba, kalba...* Aittaketan dau be Valentina, Zarraoakua: *emun eutsien rizino olixua. Eta goguan dauko soldadu bat, esaten eutsien Pin; behin baten, plazan dantzan ebillela esan eutson dantzan ez baeuen eitten berakin bialduko nindduela ilua mozten. Zelako bildurra gutzen! Ez zan Mondrauekua. Julik dixo soldadu italiarrak zirela kastigadore hutsak, eta kontetan dau barre gaiztuaz zer esaten auien orduen: los italianos se marcharán y como recuerdo un bebé te dejarán.* (italianuak fango die eta umia utziko dutzue).¹³²

8.6.4. Espedientea irekita zuten maistrak

Isabel Balbas Garcia, Maria Gregoria Echevarria Echegaray, Catalina Garcia Michelena, Maria Rosa Echenique Aguirre, Coronacion Ramirez Veras eta Angelita Arano Garcia.



Ursitina eta Fuencisla Andrés Carmona andreak, Cerrajeratik kanporatuak, kapak josten ibili ziren milizianoentzat, Bilbon, Arrasatetik irten eta gero.

Bai, bai, kurtsua hasi barri... lehenengo egunetan ba, maistrak be kanpokuak ziren... bueno, nik neukena Donostiarra zan. Nik harekin eukin nauen amistadia hil arte. Eta bera hil eta gero be, fanda nau bere familixiana Donostiara. Catalina... Ai, zelan eukan izena, ... ez naz akordetan bere apelliduaz... ha egon zan desterrauta, Burgosko herri txiki txiki baten. Eruen euien hurrengoko egunien preguntien... "la señorita Catalina?"... "la señorita Catalina, que había bastantes, esto..." Badakizu zer akusaziño? Ba hamengo maistra batek gorroto eutsen, bera baino gehixau zalako... "que en el sextogrado - gu gützen del sexto grado - estaba implantau el comunismo" imagináte, no sabía ni lo que quería decir comunismo y... Fajajaja. A mi la Maricruz Mendicute me tiene contaudo todo eso... Mendikuten gaztiena, alkarreaz ibiltakuak, eta harek kontau eustan kontu horreik gerra ostien. Bueno bueno... edozer gauza.


Han galdu euen osasuna eta dana, delikautxua zan, eta galdu guztiz. Eta ni Donostian kriada egon nintzen eta osabak baekixan nun bizi zan maistría, eta gabon batzuetan "estará en casa y le voy a, esto..." orduan telefonoik eta ez euen, eta fan nintzen bere etxera, eta efektibamente, etxien topau nauen... Enee enee... haren ilusinua bere aitta amak... "- Baina, igaro diren urte guztiekin, nola gogora dezakezu? - Nola ez dut gogoratuko ba! Nik ez ditut eskola urteak ahaztu eta are gutxiago oraindik Catalina andereñoa.

Eta bueno, zelan... Eta gero, ba, holaxen, gero hil zan. Donostian sarritan egonda nau ni haren etxien. Oin ya danak hil ziren. Eta ointxe, hiru urte, edo, dala, Madrilera fan gützen, eta bueltan gatzela, esan neuen, hor Burgos inguruan, zan uda partia, y que había mucho atasco y no sé qué, eta Santosek, "- voy a coger aquí una carretera que se va por unos pueblecitos, y saldremos atrás de Miranda". No suele haber apenas... auzoko jendia ibiltzen zan bakarrik, bide txarra, eh!... sartu gintzen, eta geratu zan eskina baten, eta nun ikusten dot holako aldazgora bat, mendirutzá, eta letrerotxuak GUMIEL DE IZAN. Eta, neure artien, -Gumiel de Izan- "- Si ahí estuvo la señorita mía, algunas cartas le he escrito yo ahí, a mi maestra". Gerra ostien, sí. - Ah, pues tengo que ver cómo es." Gizon bat atorren, dana atxak, dana atxak... negargarrixa. Eta esan eutsan... "- Aizu, hau Gumiel de Izan da?— Hor aurrean erortzearen duden etxe horiek díra Gumiel de Izan- "Esan eustan, -está usted buscando a alguien, porque no va a encontrar a nadie, la gente ya se marchó, el pueblo está vacío, únicamente pues como se retirán las cabras a las casas todavía, los que tienen

animales suelen venir de vez en cuando a dar una vuelta- "-Santos, ni igoten noia. Nik gurot jakin gutxi gora behera nun egon zan maistría-. Igo nauen, eta herri txiki txiki, hesiek jausitte... Etxe bat euen atia zabalik, eta sartu gintzen barrura, eta... Eneee, zelan bialdu leike maistra bat holako herri batera... Auzo bat, baina, punta baten... Osasuna galdu euen hantxe, han egon zan denboran.

Maistra egon zan, bai, kastigauta... Ba... Gerra ostien ni kriada joan nintzenien egon nintzen berakin, ni kriada egon nintzela Donostian baneukan 18-19 urte... Ixa 20 be bai... Eta bera hantxe herrixen... Ni familixiaz egoten nintzen, aitta-ama eta ahiztia, eta anai bat euken... Eta egoten nintzen eurekin, baina eskribiru be, beti beraz...

Horregaitxik, ha herrixen izena ez jat sekula ahaztu, Gumiel de Izan... Eta ikusi nauenien, negarguria... Eta maistriakin egon nintzen hil baino lehentxuau. Donostiara joan nintzen baten, joan nintzen etxera eta... Gabonak ziren, eta etxien euen... Ilusiño bat ein eutsen... "- Te acuerdas de mi? - No me voy a acordar? Si los mejores años de mi vida pasé en la escuela. ¹³³



Catalina García maistraren ikasleen txostena

8.6.5. Deportatuak

Deportatuak kanporatu egin zituzten Euskal Autonomia Erkidegotik:

Romana Eraña Iribekanos, Iruñara
Demetri Arriola, Solotzarkua
Inocencia de Garaizabal.¹³⁴

8.6.6. Konfiskazioen biktimak

Inozentzia Arriola Badilla
Josefina Luko Gastañarez

8.6.7. Garbitasun-lanetara behartuak: 21

Elisa Garai, Leonor Berezibar Errasti, Carmen Balerdi, Amparo Balerdi, Carmen Garcia Gorosabel, Maria Gastañarez, Catalina Azkarate, Felipa Arriola, Maria Etxebarria, Adoracion Gorosabel, Teresa Mendizabal, Fani Garai Igartua, Isabel eta Trini Zaitegi Aizpak, Etxaurre Aizpak, Hermanas Iturbe, Andresa "Tigre" (Uriarte), Prudencia Gonzalez, Julia Arenaza.

8.6.8. Union Cerrajeratik kaleratutako emakumeak

Faxistak 1936ko irailaren 26an sartu ziren Arrasaten. Sartu baino lehen, herritar asko ihesean joan ziren Bizkai aldera, egun batzuk geroago. 1936ko urriaren batean, Union Cerrajerako enpresaburuek deia kaleratu, eta esan zuten lantegira aurkezten ez zirenak lan barik geldituko zirela. Horrela izan zen, gutxienez 581 langile kaleratu zituzten, langileen %65. Horietatik 101 ziren emakumeak:

Abechuco Barrecheguren, Paulina; Aguirre Elorza, Benita; Aguirre Oteiza, Eusebia; Albistegui Leceta, Catalina; Albistegui Leceta, Florentina; Alvarez Gaston, Maura; Andres Carmona, Aurora; Andres Carmona, Fuencisla; Andres Carmona, Maria; Andres Carmona, Ursitina; Andres Gonzalez, Esperanza¹³⁵; Arana Maiztegui, Maria Luz; Arana Querejeta, Victoriana; Aranzabal Cacicedo, Irene; Arejola Exposito, Magdalena; Arizmendi Aranzabal, Maria; Arregui Cruceta, Maria; Azpitarte Uribarri, Sabina; Azula Leceta, Angela; Balanzategui Garay, Magdalena; Barandiaran Larrañaga, Bonifacia; Basoa Zaitegi, Petra; Bereciartua Barrutia, Maria; Berecibar Ormazabal, Maria; Berecibar Ormazabal, Maria Juana;



Eugeni Langaran, ama Leonor Rodriguezekin.

Berecibar Ormazabal, Cecilia; Berecibar Ormazabal, Gabriela; Bolinaga Uribesalgo, Josefa; Cacho Gamazo, Claudia; Cacho Gamazo, Manuela; Cacho Gamazo, Maria; Camara Martinez de Luco, Catalina; Castelo Fernandez, Polonia¹³⁶; Celemín Vicente, Mercedes; Deblas Carranza, Juliana; Del Pozo Riesgo, Rufina¹³⁷; Del Pozo Rubio, Luisa¹³⁸; Diaz Gomez, Emilia; Dominguez Gamazo, Emerenciana; Dominguez Gutierrez, Concepción; Eguidon Vitoria, Cristina; Elizburu Cruceta, Cecilia; Elorza Aristegui, Martina; Elorza Azcoaga, Jacinta; Escudero Pinacho, Basilisa; Ezquibel Elorza, Gregoria; Fernandez Barbero, Victoriana; Galdos Oñativia, Luisa¹³⁹; Gallastegui Azpitarte, Maria Cruz; Gallastegui Azpitarte, Francisca; Gamazo Delcanto, Benedicta; Garay Albistegui Esperanza; Garay Albistegu, Genoveva; Garay Albistegui, Toribia; Garay Zubizarreta, Rufina¹⁴⁰; Garcia Orte, Paula¹⁴¹; Garcia Lorenzo, Laureana; Gaztelurrutia Gorroño, Rafaela; Gonzalez Azcarate, Lucia; Gonzalez Castellano, Emilia; Gonzalez Castellanos, Bernardina¹⁴²; Goronaeta Mendizabal, Maria; Gutierrez Vicente, Dionisia; Isasa Olascoaga, Clara; Jimenez Sanchez, Demetria¹⁴³; Ladreda Garcia, Bibiana; Laguna Gonzalez, Eulogia; Letamendi Ojea, Salome; Llanos Gonzalez, Maximiniana; Lopez Murua, Victoriana; Madina Martinez, Amparo; Martin Aguiriano, Francisca¹⁴⁴; Mendizabal Esnaola, Juana; Men-

dizabal Unamuno, Marian Luisa; Monje Garcia, Brigida¹⁴⁵; Mugica Arregui, Paula¹⁴⁶; Paul Pinedo, Francisca; Pinto Lentijo, Concepción; Ramos Gamazo, Isolina; Ramos Gamazo, Luisa; Raposo Pinto, Amalia; Robles Zalama, Damiana; Rodriguez Rodriguez, Presentación; Rodriguez Zamora, Eugenia; Sagasta Altuna, María¹⁴⁷; Sologaistoa Guerra, María; Ugalde Guridi, Angeles; Unamuno Jauregui, Victoriana; Unamuno Ladreda, Josefa; Uribesalgo Marcaide, Josefa; Urreta Garcia, Josefa; Vega Bilbao, Benedicta; Vicente Perez, María; Vizcarguenaga Bilbao, Benigna; Zamora Santos, Gregoria; Zuazua Mondragon, Josefa; Zubialdea Eguidon, María; Zubiate Ibarrondo, Margarita; Zubiate Ibarrondo, Paula; Zubillaga Eizaguirre, Petra; Zubizarreta Ariza, Tomasa

Urteetara, haiek guztietatik 11 emakume besterik ez zituzten hartu.

Bibiana Zabalok baieztatzen digu hori: *Nik Cerrajeran egiten nuen lan. Emakume asko zeuden han, erdaldunak ere bai, baina gerra amaitzean, guztiak desagertu ziren. Joan egin ziren. Gerra bukatutakoan ba, danak joan ziren. Beldurrak eta izango zituzten ... Eta gero, Frantzia, Alemania, Amerika, ... auskalo zein lekutara baina danak joan ziren. Orduetik ez da emakumerik handik azaldu.*¹⁴⁸

8.6.9. Eraso sexualak

Jarraian agertzen diren bi kasu hauek betetzera iritsi ez baziren ere, asmoa agerikoa zen.

*Deitu euzten barrero kanpoko atia zabalik eukituko gabian ordubiak inguru arte, Faxistekin zebilen batek. Gero senide bati bidali juen, esateko, esateko koinetari atia zabalik euki daixela gabian gizona bialduko euela etxera. Baina denbora guztian burutik ezin kendu, atia zerrain, atia zerrain eta zerrau nauen. Neu ninguen 5 umekin, seigarrena Luis, Zabaleta baserrixen, Isabelekin zelan bakarrik euen, bestiek gorrixetan eukien.*¹⁴⁹

Ama fan zan persona batengana, ibiltzen zana presoekin da holan, haber aita zeatik eruen dauen preso, eztaile preokupau ke, bidaliko dauela orduan etxera gaueko 12xetan, baina klaro gabeko 12xetan atia ezin zabalik euki, eta berak esaten eutzen atia zabalik eukituko, eta 12xetan bialduko dauela. Zauen toke de queda. Orduan amak euki zauen 11k arte zabalik atia, baina 11etan sustau ein zan, eta esan auen itxi egin biok, itxi auen atia, gelditu zan ate ondoko leioan itxoitten, gure aita ez zan etorri,

baña abade etxetik bera bai erreketek bi atea bultzaka.

*Etxean, gure ama Benita zegoen hiru alaba eta bi semerekin. Zer ari ziren bilatzen bi erreketek horiek gaueko ordu txiki haietan etxean sartzeko? Kristona izan zen Benitak hartu zuen sustoa egun hartan. Gau guztia eman zuen leihoaren ondoan.*¹⁵⁰

*Frantziatik Arrasatera iritsi ginenean, ama Goardia Zibilaren koartelean presentatu behar zen. Aita kontzentrazio-eremu batean zegoen. Hemengo Goardia Zibilek esan zioten espioi gorri bat zela, espioi errusiarra, eta eurekin gaua pasatuz gero, ez litzaiokeela ezer gertatuko..... Orduan berak esan zien: hobe hilik zuekin lo baino.*¹⁵¹

8.7. Hezkuntza eta Emaku-meentzako Orden Berria


Frankismoaren kulturen ez zegoen lekurik emakumeen ikuspegia aldarrikatzen zuen pentsamolderako, kulturaren adiezpenerako edo askatasunerako. Gerraosteko miseriak emakumeen hezkuntzan bereziki eragingo zuen: gehiegizkoa jotzen zen emakumezkoek lehen hezkuntzatik aurrerako ikasketekin jarraitzea, etxeko andre eta ama izatea baitziren intelektualki eta espiritualki gizonezkoen azpiko kategoriako pertsona haien eginkizun egoki bakarrak. Gailendutako kultura katolikoaren baitan, emakumearen lekua familiarren eremura mugatuta zegoen. Emakume eredugarriaren prototipoa diseinatu zen, komunikabideen, eskolen eta Eliza beraren bitartez plazaratuko zena.

Aipatu behar da ere emakumearen gorputza beraren aurkako errepresioa: abortuaren jazarpena, antisorgailuen debekua, eta sexualitateari buruz edozelako informazioa ezkatatzea.

Hezkuntza

Normaltasunera" itzultzean, umeak eskolara bueltatu ziren. Gogoz berraztertutako eskola zen, irakasle susmagarriak kanpoan utzi eta jardunean jarraitu zutenak kontrolpean izan zituzten 1950eko hamarkadara arte.


Haurrak behartu zituzten hitz egitera menperatzen ez zuten hizkuntza batean. Debekatuta zuten euren ama hizkuntza erabiltzea. Errepublikaren lorpenak hezkuntza publikoa, doakoa eta laikoa izateko, as-



Jaione Bengoaren idatziak, Mesedetako eskolan eginak.

tindu handia jasan zuten diktadura frankistarekin. Berrero ere, hezkuntza eliza katolikoaren menpe geratu zen eta klasismoa eta ezberdina zenari mespretxua berrero ezarri zuten, arrazoia albo batera utziz. **Urgentziazko kirurgia** baten aldi berri baten hasiera izan zen, faxista izaera zuen erregimen berria ezartzeko, **akatsak erauzi** eta eraikin berria eraikiko zuten **orubea garbi uzteko**.

Berrero ere, umeak sexuaren arabera banatu zituzten, su eta gar aritu ziren erlijioa eta mugimendu faxistaren kantu guztiak irakasten, laiktasuna desagerrarazi zuten eta hizkuntza bakarra ezarri zuten. Neskak eta mutilak gela ezberdinetan banatu zituzten eta formazio bereziak inplementatu zituzten. Mutilak "Espiritu Nazionalaren formazioan" hezi zituzten eta neskak "Emakumezkoen lanetan" trebatzen zituzten. Erregimen faxistaren helburuak izan ziren espainiar jaun kristauak, eta nola ez, etxeokandre bikainak, zintzoak, arduratsuak, etxezaleak, ...izango ziren emakumeak trebatzea.



Jaione Bengoaren idatziak, Mesedetako eskolan eginak.



De Kristau ikasbidetik en euskera – a el Catecismo en castellano



Klaseak hasi aurretik, ohiko hiru banderen aurrean, Espainiakoa, Falangearena eta Erreketeena, militarrek balira bezala formatu behar ziren jolastokian edo eskolako atean, eta Cara al Sol edo Espainiako himnoa abestera derrigortzen zituzten umeak.

Hasierako urteetan, eguerdian Angelusa edo errosarioa errezatzen zen, eta igandeetan irakasleek mezetara eraman behar zituzten ikasleak. Erlijioak guztiarengan eragiten zuen, eta urteurren erlijioso eta politikoak etengabeak ziren.

Eskolak hotzak ziren eta oso baliabide material eta pertsonal eskasak zituzten. Gelak umez gainezka zeuden, gaur egun ulertzina izango litzaigukuen haur kopuruak betzen zituzten gelako. ...; Ez zegoen metodologia pedagogikorik, *Hitza odolarekin sartzen da* entzutea zen ohikoena. “Historia de España” eta “Historia Sagrada” dira orduko ikasleek gogoratzen dituzten liburu bakarrak.

Esther Goikolea Zabalaren testigantza:

Esther Goikolea Zabala 1943an jaio zen Koruetan, Aretxabaletako auzoan, halabeharrez. Ama Benita Zabala “Cuatrovientoskoa” eta aita Valentin Goikolea Arrasaten bizi ziren. Gerra garaian aita, Zerajerako langilea eta taxi-gidaria, boluntario joan zen borrokatzera, amak Patxi eta Lupe seme-alabarekin alde egin zuen herritik; bueltan Erdiko kalean (Maisu Arano) 54 zenbakian zuten etxea huts-hutsik topau zuenez Koruetara joan behar izan zuen, amaginarrebarengana.

Aita Diman hartu aaien preso, lehenengo Santoñara, eta handik Puerto de Santamariara, eta gero Plazentziko lantegi batera preso lanak egiten. Mondragoen ez auen lanik berendako beste askondako moduen, Eibarrera joan zan lanien, ta gero taller bat montau auen ‘Balanzas Mondragonesas’.

Gure amak, Koruetan 18 urte ein auen eta neuk 11 urte ta erdi. Koruetan maisu eskolan bizi gitzen, lehenengo eskola etxien bertan. Gerra ostie izeteko suerte haundixe, eskolie zan bilingüe eta mixtue, auzoko eta Areintzako neska-mutikuekin, ta maisue abadie zan. Dotrina euskeraz, berba euskeraz, erderaz matematika eta geografía, bañe... ¿zer ulertzen gauen guk? Ezebez; ‘hijito mio’, guretako ijittue zan... bañe esplikaziñoik ez euen, zazta, kaskarrakue... bañe han zoriontsu izan nitzen.



Esther eta Felix Goikolea Zabala.

Handik etorri gitzen Arrasatera 1954en, Grupo San Juaneko etxiek ein zienien. Eskolara Merzedarixetara kalistrotan, euzen ume asko... pasau gitzen Viteri eskoletara mojekin. Eraikiñe espazio haundikue zan, komunek kanpuen, eraikin ona. Baina guk 50 neskatilla moja batekin. 9:30xetan sartzen gitzen, estufa bat euen erdixen, berotu baño lehen keiaz beteten gitzen, errekreue gero, eta 11:30xetan etxera, Cerrajerakuek urten baño lehenau. Atsaldien, barrez, 2:30xetatik 4:30ek arte, labor... ihorixe zan nire penitentziaik haundixena! Dauket frustraziñue, ez gauen ezer ikesi, monjiek ez euken astirik gugana allegetako, naiko lana euken ixilik eukitten neskatilak. Euen protokolo bat, errezau hasixeran: Madre mia... gero ematen euskuen enziklopedia bat, hantxe euzen gai danak, bañe monjie ez zan allegetan.

Monjak ez euskuen 'Cara al sol' kantau eraitten edo aniloak jartzen, debeku hori ez nauen ezautu, bañe han dan-dana erderaz zan. Gure hizkuntzan, euskeraz, berba bat be ez zan eitten. Labor ematen euuzkuna Sor Angeles Lasa, uste dot euskaldune zala, bañe dana erderaz ematen euuskun, eta guk erderaz ingo gauen txarto. Ezauketan nauen neskatilta batekin juntetan nitzen patixuen bañe ez guntzen alkarri berba eitten, erderaz ez eittearren. Gero urtietara konturatu nitzen askok ekixela euskeraz bañe eskolan danak gitzen erdaldunak.

"Espiritu Nacional" ematen euskuen monjak doktrina moduen, ta astien behin etorten zan abade bat. Dena zen pekatu eta sexualitatea reprimiduta, honetaz ezer ez zuzkuen erakusten.

Eskola gutxi, 14 urtekin hor bukatu zan nire karrerie. Gero, 18 urte ein arte krieda etxe bitten egon nitzen.

Emakumeentzako Orden Berria

Erregimen frankistak ikusi zuen gizartearen berrikuntza eta ordena berri bat ezartzea oinarrietatik egin beharreko lan bat zela. Horrela, erabaki zuen emakumea pribatutasunaren, moralaren eta ohituren esferako ideologiaren ugaltzaile nagusia zela". Ordena berriak agintzen zuen eredu berria oso zehatza zen.

Emakumeak izan behar zuen ama, emaztea eta etxeoandrea, eta bere lehentasun bakarrak ziren familia, etxea eta eliza.

Sexuen araberako banaketa geletan ez ezik, beste zentro guztietara ere hedatu zen. Zentroak ezberdinak behar zuten izan neskontzat eta mutilentzat. Emakumearen hezkuntza osoa oinarritu zen bere independentzian eta gizonarekiko babesean. Haren misioa zen laguntzea bizitza publikoan nabarmen-



Mesedetakoak 1940ko hamarkadan. Eskumatik ezkerrera. Lehen ilaran: Miren Ayastuy, M^a Carmen Elorza, Mari Gorosabel, Julia Diaz, Jaione Bengoa, Zuriñe Osinaga, Mari Aguirregomezorta, Maite Urrutia, Jaione Urrutia, Conchita Roa, Nieves Goitia, Carmen Galdos, Asun Madina, Lorea Uribesalgo, Isabel Barrena, Begoña Zubiaga, Rosarito Altube. Bigarren ilaran: Merche Uranga, Aintzane Gorroñogoitia, Pili Martin, Arantxa Arregui, Nieves Madinabeitia, Arantxa Otaduy, Trini Ayestaran, Arantxa Urrutia, Estibaliz Landa, Valentina Lete, Loreto del Valle, Carmen Elcorobarrutia, Teresa Berecibar, Romana Altube, Iciar Mugica. Hirugarren ilaran: Pilar Mendiarrach, Arantxa Usatorre, Maribel Sagasta, Aguedita Pérez, Jaione Uribe, Merche Vitoria, Maribel Lazcano, M^a Asun González, Asun Roa, Rosita Ugarte, Miren Yarza, Libe Iñarra, Amaia Juldain, Antoni Gómez, Gloria Maza, Nieves Goitia, Carmen Ubago, Garbiñe Zubiaga, Miren Bedia, Mari Tere Zarraoa, Iciar Mujica, Miren Balerdi, Eguzkiñe Landaluce, Begoña Landa.

Maistrak, behean eskuman: Sor Angeles Lasa; ezkerrean Sor Mari Cruz. Goian eskuman: Sor Mariana Portela, ezkerrean. Sor Pilar. Argazkia Jaione Bengoak utzitakoa

tzeko, etxearen kargu bera eginez. Beraz, emakumearen formazioa matrimonioan etxeko lanetara bideratuta zegoen, eta ezkongabea izanez gero, emakumei zuzendutako lanbideetara bideratzen zuten, erizainarena kasu.

La única misión que tienen asignadas las mujeres en la tarea de la patria es el hogar...por eso, ahora, con la paz, ampliaremos la labor iniciada en nuestras escuelas de formación para hacerles a los hombres tan agradable la vida de familia, que dentro de casa encuentren todo aquello que antes les faltaba, y así no tendrán que ir a pasar en la taberna o en el casino los ratos de expansión.¹⁵²

...Emakumea etxean geratu dadila, ez dezala borrokatu existentziarengatik, eta bere nahirik handiena da ezkontzea eta ondoren senarra eta seme-alabak zaintzea. Ezkondu zein ezkongabe, emakumea ez dadila geratu inoiz familiaren zirkulutik kanpo.

Sección Femenina instituzioa arduratuko zen baloreen zabalkundea zaintzeaz. Eliza eta hezkuntza sistemak babesten zuten Sección Femenina, eta gizarte zerbitzuen bidez zabaltzen zituen baloreak. Zerbitzu hura ezinbestekoa zen lana aurkitzeko, eta titulazio bat lortzeko edo goi mailako ikasketak egiteko, 17 urtetik 35 urte bitarteko emakume ezkongabeek edo seme-alabarik gabeko alargunek parte hartu nahi bazuten oposioetan eta lehiaketetan.¹⁵³



Jone Barrutia mendiko domina hartzen




Jone Barrutia dominaren xehetasunak



9. Gerra Arrasaten, 1936-1939


Nº 22




1936an Arrasateko ikuspegia, Udalatxetik ataratako argazkia.



Arrasateko plano, 1936an.



- 1 - Alberca de San Agustín. (1906)
- 2 - Convento de San Agustín.
- 3 - Panadería de Konkón.
- 4 - Matadero viejo. (Materiales)
- 5 - Alberca de Ferrerías, alimentada por el excedente del depósito (6).
- 6 - Depósito regulador, agua potable.
- 7 - Balcón. Sobre planta de la ermita.
- 8 - Caserío de Intxaurreondo.
- 9 - "Goiko - eche.- (Salinas).
- 10 - Arco-Portal de Gasteluondo.
- 11 - Registros red de aguas. [1896].
- 12 - Arco-Portal de Zurgiñkantoí.
- 13 - Palacio de la familia Hierro.
- 14 - Arco-Portal de Olarte. (Lugar).
- 15 - Arco-Portal de Abajo.
- 16 - Iglesia de San Francisco.
- 17 - Hospital.
- 18 - Escola zar.
- 19 - Plaza de Abastos. (1900).
- 20 - Palacio de Adán de Yarsa.
- 21 - Palacio "Guerra'ena" (Mugaibe).
- 22 - Hotel Du'Palais.
- 23 - Café Universal (Andicano-Joyola)
- 24 - Iglesia Parroquial San Juan Bte..
- 25 - Palacio Consistorial.
- 26.- Casa "Mayzor". (Palacio en 1916)
- 27 - Arco-Portal Zercoeteta. (Lugar).
- 27 bis.- Antiguo Ayuntamiento (Lugar).
- 28 - Arco-Portal Iturrios o Concepción.
- 29 - Palacio de Artazubiaga. (Menor).
- 30 - Casa Capellán de la Concepción.
- 31 - Convento y Capilla de la Concepción.
- 32 - Fuente de Iturrios o Concepción.
- 33 - Palacio de la familia Barrena.
- 34 - Jardines de "Fundación Viteri".
- 35 - Escuelas "Fundación Viteri" (1902).
- 36 - Palacio Oquendo. (Barrutia-Zabala).
- 37 - Palacio de Zamperio.
- 38 - Palacio y jardines de Sola.
- 39 - Plaza de Toros en Maala.
- 40 - Caserío Popillo.
- 41 - Caserío Ortueta.
- 42 - Frontón Municipal de pelota. (1900).
- 43 - Prado Zalguibar.
- 44 - Taberna de "Bueno".
- 45 - Matadero Municipal. (1902).
- 46 - San Antonio'ps.
- 47 - Molino y panadería de "Arrasate".
- 48 - Molino. (Arrixan).
- 49 - Puente y caserío "Uribarsubi".
- 50 - Mojoste. Río Aramayona.
- 51 - Caserío "Labe".
- 52 - Casado "Gazibay".
- 53 - Casa-Torre "Bañer-Artazubiaga".
- 54 - " "Oquendo-Azcofrate-Nerddo".
- 55 - " "Abendaño".
- 56 - " "Barrutia-Umendia" (Mendia).
- 60 - Nuevo depósito regulador de agua potable. (1929).
- 61 - Casa cural. (1927)
- 62 - Inchaurreondo (nuevo) [1930]
- 63 - Finca de la familia Luco.
- 64 - Finca de Dn. Toribio Aguirre.
- 65 - Finca de la familia Adán de Yarsa.
- (65)65 - Frontón Gurea [1.932]
- 66 - Carpintería Lino Iturbe. (Solar Barrena).
- 67 - Nuevas escuelas nacionales en los Jardines de Viteri.
- 68 - Estatua a Dn. Pedro Viteri (1911)
- 69 - Lavadero del ferial.
- 70 - Cine "BEDIA" (1926)
- 71 - Cine "POPULAR" (1929)
- 72 - Estación del Ferrocarril.
- 73 - Almacén pequeña velocidad, id.
- 74 - "Metalúrgica Cerrajera" S.A.
- 75 - "Unión Cerrajera " S.A.
- 76 - Central eléctrica del Ferrocarril.
- 77 - Finca de Dn. Ricardo Azcoaga.
- 78 - Cuartel de la Guardia Civil.
- 79 - "Industrial cucharera".




Matxinatuen bandoa.

9.1. Kolpe Militararen ondorioak Arrasaten


Guztira gutxienez 940 mondrautar ibili ziren gerrako lehen lerroan borrokan, batzuekin edo besteekin.

Erresistenteak: 537. Dragones 195, Amayur 158, beste batailoiak 184

Matxinatuen bandokoak: 403, Erreketeak 137, Kintak 250. Falangistak 4. Jose Maria Armengou Marro, Francisco Armengou Marro, Antonio Armengou Marro, Ángel Susunaga Martitegui eta Jose Abarrategui, “Jose Igitto”



Jose Maria Armengou Marro.



Francisco Armengou Marro.

Jose Abarrategui, Jose Ijitto gaitzizenaz eza-gutua

Jose Ijitto ha, “Martin bizitzena”, gerra aurrien herritik alde eindikua zan. Gerra denboran etorri zan Falangisten kapitaiñ. Gizon haundixa izan zan, Mondrauetar asko salbau zittuen.

Ejenplu bi:

Luis be gure jonen eruetia gerrara, etorri zien Jose Ijitto ta komandante bat etxera, ta preguntau euskuen: cuantos años tiene? 14, Pues con esa edad no se va a la guerra”, esan auen Jose Ijittok. Reketiak aurretik gerrara beste fusilatu baten semia eruen auien, Roana.¹⁵⁴

15
Revisado el 14 de Agosto 1942
por el Sr. [signature]
Oficio E: 319
6-8-42

Falange Española Tradicionalista y de las J. O. N.
DIVISION AZUL

FICHA FOTO

Del voluntario Heriz Azcoaga Eustaquio hijo de Jacinto
y de Petra natural de Mondragón Parroquia de San Juan
Ayuntamiento de Mondragón Concejo de Mondragón Provincia de Guipúzcoa
avcedindo en Santa Agueda de Mondragón nació en 14 de Septiembre
de mil novecientos catorce de oficio fabril su estado soltero
número de hijos _____ su estatura: un metro _____ milímetros; sus señas: pelo _____
cejas _____ ojos _____ nariz _____ barba _____ boca _____
color _____ frente _____ aire _____ señas particulares _____

Resultado en reconocimiento médico _____
Ingresó en este voluntariado (a rellenar el día de admisión definitiva) _____

Queda filiado en virtud de la presente comprometiéndose a servir voluntariamente por el tiempo de duración de la Campaña con arreglo a las instrucciones y órdenes vigentes desde el momento en que se le comunique su admisión definitiva. Se le leyeron las Leyes Penales y demás órdenes e instrucciones y quedó advertido que no le servirá de justificación en ningún caso alegar ignorancia de dichas órdenes.

Se le prevee de carnet núm. _____ a _____ de 1941.

En mi presencia: EL JEFE PROVINCIAL MILICIAS Eustaquio Heriz Conforme: El interesado,



Eustaquio Heriz Azcoaga.

HOGAR del VOLUNTARIO "DIVISION A" ORGANIZADO POR LA JEFATURA PROVINCIAL DEL F.E.T. Y DE LAS J. O. N. DE GUIPUZCOA

TARJETA PERSONAL E INTRANSFERIBLE A FAVOR DEL VOLUNTARIO

D. Maximo Gonzalez Garmendia
la Jefatura Provincial de la Milicia Nacional de Guipúzcoa
Motivo de su permanencia en esta Plaza licenciado
Pasaporte Militar o licencia Militar alemana N.º 56
de fecha 3 de Septiembre 1942
Valedera por 12 meses 1.º de Agosto
San Sebastián 21 de Septiembre de 1942
El Jefe Provincial de la Milicia _____

NOTA-Esta tarjeta no tendrá validez alguna sino se presenta unida a la documentación militar arriba citada

Maximo Gonzalez Garmendia.

15
Revisado el 14 de Agosto 1942
por el Sr. [signature]
Oficio E: 319
10-8-42

Falange Española Tradicionalista y de las J. O. N.
DIVISION AZUL

FICHA FOTO

Del voluntario Felipe Loidi Argarate hijo de Felipe
y de Maria natural de Mondragón Parroquia de San Juan
Ayuntamiento de Mondragón Concejo de Mondragón Provincia de Guipúzcoa
avcedindo en Mondragón de Guipúzcoa nació en 23 de Agosto
de mil 1913 de oficio fabril su estado soltero
número de hijos _____ su estatura: un metro _____ milímetros; sus señas: pelo _____
cejas _____ ojos _____ nariz _____ barba _____ boca _____
color _____ frente _____ aire _____ señas particulares _____

Resultado en reconocimiento médico _____
Ingresó en este voluntariado (a rellenar el día de admisión definitiva) _____

Queda filiado en virtud de la presente comprometiéndose a servir voluntariamente por el tiempo de duración de la Campaña con arreglo a las instrucciones y órdenes vigentes desde el momento en que se le comunique su admisión definitiva. Se le leyeron las Leyes Penales y demás órdenes e instrucciones y quedó advertido que no le servirá de justificación en ningún caso alegar ignorancia de dichas órdenes.

Se le prevee de carnet núm. _____ a _____ de 1941.

En mi presencia: EL JEFE PROVINCIAL MILICIAS Felipe Loidi Conforme: El interesado,



Felipe Loidi Argarate.

15
Revisado el 14 de Agosto 1942
por el Sr. [signature]
Oficio E: 319
2-12-42

Falange Española Tradicionalista y de las J. O. N.
DIVISION AZUL

FICHA FOTO

Del voluntario Daniel Aramburu Blanco hijo de Antonio
y de Dominica natural de Mondragón Parroquia de San Juan
Ayuntamiento de Mondragón Concejo de Mondragón Provincia de Guipúzcoa
avcedindo en Mondragón de Guipúzcoa nació en 10 de Diciembre
de mil novecientos quince de oficio fabril su estado soltero
número de hijos _____ su estatura: un metro 779 milímetros; sus señas: pelo castaño
cejas castañas ojos azules nariz recta barba poblaña boca pequeña
color sano frente pequeña aire marcial señas particulares pequeña cicatriz en la frente.

Resultado en reconocimiento médico _____
Ingresó en este voluntariado (a rellenar el día de admisión definitiva) _____

Queda filiado en virtud de la presente comprometiéndose a servir voluntariamente por el tiempo de duración de la Campaña con arreglo a las instrucciones y órdenes vigentes desde el momento en que se le comunique su admisión definitiva. Se le leyeron las Leyes Penales y demás órdenes e instrucciones y quedó advertido que no le servirá de justificación en ningún caso alegar ignorancia de dichas órdenes.

Se le prevee de carnet núm. _____ a _____ de 1941.

En mi presencia: EL JEFE PROVINCIAL MILICIAS Daniel Aramburu Conforme: El interesado,

Daniel Aramburu Blanco.

Santanderren geratu, ta eruen ginttuen zezen plazara. Han bisita bat izan genduan, ustekabian, Jose Abarrategi, Mondrauetarra, kapitain falangistie; emun euskun animuek ta 100 pezeta. Diru horrekin janarixe erosi gauen ihesaldixan.¹⁵⁵

“2º Tercio de la Legion” Guillermo Zubiaga Parrazar.

“Division Española de Voluntarios” Dibisio Urdina 10: Daniel Aramburu Blanco, Manuel Garate Umerez, Máximo Gonzalez Garmendia, Eustaquio Heriz Azcoaga, Felipe Loidi Argarate, Eusebio Mondragon Bidaburu, Rusian hil zen 1943ko abuztuaren 7an.¹⁵⁶ Joaquin Zabaleta Galdos, Pedro Pinacho de Blas.¹⁵⁷ Pablo Alcelay Guridi.¹⁵⁸ Falange Tradicionalista eta JONSeko milizietako buruzagitzaren txosten batek dioenez, Joaquín Zabaleta Galdos 1941eko uztailaren 2an eman zuen izena Dibisio Urdinean boluntario sartzeko. 19

urte zituen orduan. Uztailaren 13an, Irundik muga pasatu zuen. Errelebo erregularraren bidez aberriratu zuten 1942ko uztailaren 12an. 1943ko urtarrilaren 15ean, berriro ere eman zuen izena banderari honetan. Calatayudeko Depositura pasaportatu eta baja eman zioten dibisioarentzako baliogarri ez izateagatik, urte bereko otsailaren 5ean.¹⁵⁹

9.2. Gerraren kontakizuna

Aurreneko egunak

Gerrak Euskadin ondo bereizitako bi fase izan zituen: Lehenengoa 1936ko uztailaren 18tik urte bereko urriaren 7ra. Lehenengo fase horretan, erresistentziaren ahalegin guztia egin zuten batez ere ezkerreko indarrek langileen eta errepublikaren alde. Bigarren fasea, aldiz, eman zen Eusko Jaurlaritzan sortu eta Bilbo erori zenean. Bigarren horretan, erresistentziaren pisu guztia EAJk hartu zuen.

Gertaera anekdotiko gisa kontatuko dugu, gerraren ondorioz hil zen lehenengo arrasatearra Juan José Rodríguez izan zela. Gazte hark Urriko Gertaeretan hartu zuen parte eta une horretan Gasteizen zegoen soldaduska egiten. Pentsaera iraultzailea zuen eta soldaduak hitzez adoretu zituen sediziozileak babes ez zitzaten. Berehala erail zuten.

José M^a Arriaranen arabera, “uztailaren 17ko egunsentia udako egun bateko egunsentia zirudien. Guztiok genekien eskumako indarrek babestutako altxamendu militarra gertatu behar zuela. Frente Popularreko indar zibilei jakinarazi zieten, altxamenduaren inguruko lehenengo berria ematean, bakoitzak bere alderdi edo sindikatuko lokaletara joan behar zuela erantzuna prestatzera. Uztailaren 17an zabaldu zuten irratiz, Marokoko Indar Militarrak matxinatu egin zirela. Berria entzun ondoren, langile asko herriko etxean azaldu ziren batzuk errebolbera aldean zutela. Urduritasuna nabarmena zen egun hartan, baina normaltasunez igaro zuen egunak. Hurrengo egunean hasi zen Altxamendu Militarra. Hiru edo lau egun igaro ziren. Gure misioa zen errepideetako kontrola gordetzea, Eibarrekin kontaktu estua mantendu. Brigada baten agindupean zegoen Guardia Zibilarren postua dijon que estaban a disposición

Bien bitartean, Arrasaten, miliziano taldeak erresistentziarako prestatzen hasi ziren.

Uztailaren 18ko gaua herriko irteeran pasatu genuen Arabarako (Gasteiz) errepideko bidegurutzeetan zaintza

lan zorrotza egiten. 19an, Gerra Batzordeak konferentzia bat izan zuen Guardi Zibilarren brigadarekin. Haiek adierazi zioten euren beldurrik ez izateko, beti defendatuko zutela gobernu legitimoa eta ez matxinatuena. Hilaren 20an, Gerra Batzordeak (herritarrez osatutakoa) honako bandoa egin zuen: “Bizi genituen gertaeren aurrean, eta gobernu legitimoaren, libertateen eta Errepublikaren defentsan fusilarekin boluntario borrokatzeko prest zeuden guztiak udaletxera joan zitezela izena ematera. Gazte guztiak batera agertu ziren udaletxean baina, guztientzako armarik ez zegoenez, 100 lagun bantatu zizkieten armak eta gainontzeko guztiak noiz deituko zain geratu ziren.”¹⁶⁰

Hilaren 18an, larunbata, 23:30ean, guardia zibilek herritar batzuen laguntzarekin Zirkulu Karlista itxi zuten eta gauza berbera egin zuten hilaren 19ko eguerdian, Iturriotz kaleko Sindikatu Libreko egoitza itxi.¹⁶¹



Juan José Rodríguez, 22 urte zituen eta Juventudes Socialistas Unificadas-eko kidea zen.

EAJk egun horretarako Intxortan mendigoizaleei dominak banatzeko ekitaldia zuen prestatuta eta han izan zuten altxamenduaren berri.

Aurreneko egunetako zenbait testigantza

Uztailaren 18an, nire aitaren eguna zen, San Federico y Santa Sinforosa Mártires. Familia guztia elkartu zen bazkalordurako eta gurekin batera zegoen Dagoberto Resustaren alarguna (nire nebaren amaginarreba). Neba etxetik atera eta itzultzean esan zigun: "Altxamendu militarraz hitz egiten da kalean. Afrikako tropak matxinatu dira.

Hurrengo egunean, Elgetan, mendigoizaleen batzarra zegoen Elgetan. Intxortara igo behar zuten. Venancio hara joan zen.

Hilaren 20an esan zidan senarrak alderdia (EAF) gobernuaren alde zegoela, hau da, matxinatuen aurka zegoela. Ordu batzuk igaro nituen ezin harridura gainetik kendu. Alderdi Jeltzalea ezkerrekin". Nik orduan nire buruari esan nion, ezkerrekoak zein eskumakoak espainolak badira etsaiak dira, baina norbaitekin joan behar. Zelako disgustua nire aitaren etxean! Nazionalistak ziren guztiaren errudun.

24an, Santiago bezperan, nire etxetik hurbil hondeaketa baten gordeta zuten bolborak eztanda egin zuen. Sekulako sustoa hartu nuen. Hilaren 30era arte, umea jaio zen arte, ez nintzen atera susto hartatik. Mutikoa izan nuen eta bataiatzea erabaki genuen. Parrokia gurtzeko itxita zegoenez eta mezak San Frantzizkoko elizan ospatzen zirenez, Jose Joaquín Arin parrokoak erabaki zuen bataioa etxean ospatzea. San Iñaxio eguna zen. Parrokoak senarrari galdetzean, hark Iñaki erantzun zion, baina nire amak, ama-puntakoa zena, Ignacio esan zuen; orduan senarrak berriro ere Iñaki, eta horrela bizpahiru aldiz errepikatu ziren. Hura ikusita, Jose Joaquín parrokoak zuen lasaitasun patriarkal harekin eta diplomazia handiz esan zuen: - Begira, nik Iñigo jarriko diot izena eta gero zuek nahi bezala deitu dezakezue. Iñaki gizajoa, gau hartan zendu zen. Lur jota geratu nintzen. Ez nintzen nire onera etortzen, makal nengoan. Senarrari Loiolara joateko kargu bat eman zioten, baina nik ez nion postua onartzen utzi.¹⁶²

- Gerria hasi eta gero, anaiak boluntario fan ziren?

- Bai, klaro. Francisco soldau euen. Santoñan. Baina tokau jakon hemen permisuakin. Eta, ba ya etxian

gelditu zan. Esan eutsien ba, que no importaba, itxuria hango ofizialen batek, kapitain baten ayudantia zan, eta harek hanka ein behar izan euen. Eta deittu euien hona ayuntamentura aber hamen euen, eta Uriarte euen orduan hamen alkate, eta harek esan eutsen, - Bai, bai, ezagutzen dut. Ondo ezagutzen dut haren familia- Guk jakin nahi genuen, zuk esaten duzun mutil hori etxean dagoen. Bai hemen dago eta bere eginbeharra betetzen. Fabrikan ebilen, eta ha be ofizinara faten zan. Eta hilabeteko bakaziñuekin etorri zan, da, diru puxka bat ateraten. Jajaja. "Bueno ba conforme." Eta Pedro, berriz?, Pedro lehenengoko egunetik, zer pistola, metralleta, edo, bizkarrien erueten euen, danak ez, bik edo hiruk erueten euien bakarrik, danak ez. Kazako eskopetakin, zer pentsetan dozu, ba? Orduan, gerra denboran, hasieran eskopetakin ibiltzen ziren? Bai, bai, ahal dauenakin. Guardixak, hemen han, eta... kamiño eskiñetan, da.¹⁶³

Gabriel Goitia, Arrasateko ANVko Batzorde Munitzipaleko lehendakariaren hitzetan, Altxamendu Militarrek ezustean eta inolako prestakuntzarik gabe harrapatu zituen. Hurrengo egunean sortu zen Defentsa Batzordea Arrasaten.

Errepublikaren Defentsarako Arrasateko Batzordea

Nicolas Uriarte eta Juan Arregi, EAJkoak.

Celestino Uriarte eta Jesus Uranga, Alderdi Sozialistakoak.

Salvador Laspiur eta Marcos Vitoria, UGTkoak.

Gabriel Goitia eta Eustasio Markaide, ANVkoak.

Felipe Letona, Ezker Errepublikanokoa.

Gregorio Uriarte eta Romualdo Uribetxebarria, ELAkoak.

Nicolas Uriartek, EAJko alkatea, kontatzen digu zer gertatu zen Arrasaten hasierako egun haietan, altxamendua eman zenean:

Ez genuen altxamendua egiteko asmoen berri. Haren aurrean, grebarako deialdia egin zuten langileak mugimenduaren aurka zeudela adierazteko, baina hiru edo lau egunera, berriro ere ekin zioten lanari. Uztailaren 18an, Zirkulu Karlistan 20 pistola banatu zituzten eta gerraren hasierako egun haietan, Unión Cerrajeran egindako 9 bomba aurkitu zituzten elizako dorrean.

Uztailaren 22an, bando bat atera zuten eskatzeko arma guztiak udaletxera eramateko eskatuz. Bizilagunek etxean zituzten eskopeta eta pistola guztiak eraman zituzten. Bando hori izan zen Defentsa Batzordearen lehenengo jarduera. Herriko auto guztiak ere konfiskatu zituzten. Herriko Defentsa Batzordeak hala aginduta, 80 pertsona atxilotu zituzten. Batzuk kartzelan eta beste batzuk herriko eskola batean sartu zituzten preso. Segurtasuna bermatzeko, aurrerago atxilotuak Bergarako Seminaria eraman zituzten.

Herriko Defentsa Batzordeak bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera isunak ezarri zizkien matxinatuen jarraitzaileei eta altxamenduan parte hartu zuten alderdi eta sindikatueta zaleei. Guztira, 160.000 pezeta bildu zituzten. Ebakuazioa eman zen arte, 60.000 pezeta gas-tatuta zituzten Arlabango frontean zeuden milizianoen sostenguan. Kurutzeta eta Izuzkitza gure kontu ziren eta Arrasateko udalak hala eskatuta, herriko errefuxiatuen artean 8.000 pezeta banatu genituen: 30 pezeta 14 urtetik gorakoei eta 20 pezeta 14 urte baino gutxiago zutenei. Gainontzeko diru guztia bideratu genuen Ogasun Sailera Euskadiko Gobernua eratu zenean.

Mugimendua hasi eta berehala, aurreneko hiru edo lau egunetan, jakin genuen Gasteizko nazionalistak matxinatuen jazarpena pairatzen zutela. Uztailaren 19an, igandea, pistolak eta metrailadoreak ekarri zituzten Eibartik. Armak euskal sozialisten eta nazionalisten artean banatu zituzten portzentaje berdinean eta herrian guardiak egiteko antolatu ziren.

Uztailaren 21eko gauean, mutiko bat udaletxera etorri zen, eta esan zidan Guardia Zibilaren Arrasateko postuko tenienteak herriko agindua eman ziola Unión Cerrajerako serenoari argiak itzaltzeko. Orduan, herriko argietako argindarra Unión Cerrajeratik zetorren. Serenoa deitu nuen telefonoz mutikoak esandakoa egia ote zen edo ez jakiteko, eta hark baietz erantzun zidan. Orduan, herriko argiak itzaltzeko agindua eman zuen ofizialari galdetu nion, baina hark ukatu egin zuen berak horrelakorik agindu izana. Berrero deitu nuen serenoa eta hark aurretik esandakoa baieztatu zidan. Gertatzen ari zenaren berri eman nien une hartan Eibarren kontzentratuta zeuden probintzia agintariei. Hurrengo goizean, kuarteleko bidea zeramaten laurehun gizon armatu inguru agertu ziren herrian aurretik auto blindatuak zituztela.

Kuarteleko agindua izan arren, nik esandakoari kasu egin eta herriko argiak itzaltzera uko egin zion Unión

Cerrajerako serenoa frankistak herrian sartu zirenenan atxilotu zuten eta handik gutxira fusilatu egin zuten.

Uztailaren 25aren bueltan, parrokia egokitu zuten munizio biltegi moduan erabiltzeko. Hala ere, ez zuten eragozpenik jarri herriko gainontzeko elizetan kultu erlijiosoak ospatzeko. Parrokian sartzen zen pertsona bakarra munizioen arduraduna zen.¹⁶⁴

Gabriel Goitiak esandakoaren arabera, Araba eta Errioxatik ihesi zetozenek matxinatuen basakeria ikaragarriak kontatzen zituzten. Orduan, 40ko taldea osatu eta erabaki zuten kontrol bat jartzea Arlaban gainean. Egun haietako batean, borrokaldi bat izan zen militarren kotxe bat eta kontrolaren artean. Enfrentamenduetan, militar bat zauritu zuten. Ordutik aurrera hasi ziren herri inguruko mendietan posizioak hartu eta gauetan Arrasatera itzultzen.

Egun haietan ere, 1931. urtetik aurrera dekurietan (10 laguneko taldeetan) antolatzen ziren erreketek saiatu ziren ustekabeko kolpe bat ematen. Unión Cerrajerako zaintzaileari herriko argiak itzaltzeko eskatu ondoren, ekintzaren helburua zen buruzagi sozialistak eta nazionalistak etxean ezustean harrrapatzea. Baina, halabeharrez, telefonistak elkarriketa entzun eta udaletxera abisu eman zuen, eta, horrela, lortu zen saiakera eragoztekoa.

Domingo Arzamendik zioen 1939ko uztailaren 24ko "La Voz de España" egunkarian sinatutako artikulu batean: *Mugimendua sortzean eta Arabarekin komunikazioa izatea lortzean, gure helburua zen Leintz gureganatzea. Zehaztuko ez ditugun hainbat arrazoik gure asmoak aurrera eramatea galarazi zuten. Litekeena da, arrazoi horiek izatea Guardia Zibilak eurekin bat ez egitea eta Cerrajerako zaintzaileak argia ez itzaltzea izatea. Izan ere, behar besteko arma, fusil eta pistola baitzuten planak aurrera eramateko.*¹⁶⁵ "Konprometitutako 150 erreketek gorri separatisten menpe geratu ziren. 40 inguruk lortu zuten nazionalen aldera pasatzea, beste 20 ezkutatu egin ziren eta gainontzeko 91 atxilotu eta Bizkaira eraman zituzten"¹⁶⁶


9.3. Karlisten Atxilotetak

Herriko enpresa nagusienetan (Unión Cerrajera, Elma, Industrial Mondragonesa, Roneo, Asam ...) lan-gileraren gehiengoa ordezkatzeko genuen bi erakunde demokratikoak UGT eta STV ziren. Herriaren jabe



MONDRAGONESES CAUTIVOS POR ESPAÑA

FINAZZI, VENEZIA (ITALIA)



PANA - 21 JULIO DE 1936 AL 5 DE JULIO



egin eta kartzelaratu egin genituen matxinatuekin bat zetozen Sindicato Católico Libreko kideak, karlistak eta erreketekak.¹⁶⁷

Lehenengo egunian sartu gintuen kartzelan, han ez auen ez komunik eta ezebez. Handik eruen ginduen escuelas Viterira. Handik Bergarara, eta Bilbora, Arratetik pasauta, han piketien aurrean egonda nau. Bilbo hartu auenian Francok, desbandandia egon zan eta etorri nitzen Mondraura. Guardia Zibilak aguro etorri zien, ta fan nitzen frentera, Arrigoriagara bertan euzen lagunok. Gero Asturiasera fan nitzen, ta gero Terueleraino. Mondrautik kartia boletin ofizialean agertu zan, tornerua behar zela, militarizau zanian empresa. Obusak egiten.¹⁶⁸

Karlistak atxilotu genituenean, (50 inguru atxilotu, besteak Gasteizera ihes egitea lortu zuten) urriko gertaerak errepikatuko ote zirenen beldur, pentsatu genuen onena izango zela Bergarara joatea, nazionalismoak pisu handiagoa baitzuen han. Atxilotuta zituztela, Arrasateko batzuk, Azurza, Antonio Pagoaga eta Alsola (apaiza) kanpora atera, Arrasatera eraman, eta egundoko jipoia eman zieten. Jipoi haren erantzuleak izan ziren Errepublikaren Defentsarako Eskualdeko Batzordekoak. Orduan egoitza soziala Eibarren zeukaten.¹⁶⁹

Eibarko sozialista batzuek zenbait preso hartu, Arratera eraman eta jipoitu egin zituzten. Hurrengo egunean izan genuen honen berri. Orduan, Arrasate eta Bergarako agintariak Bergarako udaletxean elkartu eta Eibarko sozialistei eskatu genien azalpenak emateko. Esan ziguten egin zutela altxamenduaren arrazoien berri jakiteko. Guk haien portaera gaitzetsi genuen. Euren burua zuritu nahian, erantzun ziguten urriko iraultzaren ondoren izan zen errepresioan sozialistak askoz ere krudelkeria handiagoz tratatu zituztela. Gure haserrea ikusirik, hitza eman zuten berriro ere ez zutela egingo horrelako ekintza gogoangarririk. Nazionalistek berarekiko interesa erakutsi zuten eta niri esan zidatenagatik, Begoñan egon zen.¹⁷⁰

1936ko abuztu-iraila bitartean atxilotutako karlisten zerrenda:

Amozarraín Félix
Amozarraín Pedro
Amozarraín Fidel
Agirreurreta José

Agirreurreta Miguel
Altube Jesús
Ayani José Maria
Arregui Esteban Tomás
Arregui Agustín
Arregui José
Arzamendi Domingo
Arzamendi Félix
Agirre Leandro
Azurza Felipe José
Agirre Luís
Agirre Domingo
Azcárate Azcarraga Pedro
Azcárraga Angel
Astaburuaga Leandro
Asua Jaime
Abarrategui Maria
Arzamendi Felix
Bidaburu Andrés
Balanzategui Mariano
Berecibar Lázaro
Berecibar Marcelino
Berecibar Antonio
Beltrán Guevara Teófilo
Beitia José Andrés
Barrena Juan
Barrena Nicasio
Barrena Bartolomé
Castilla Leoncio
Dolara Luís (Coadjutor)
Elorza Francisco
Elorza Angel
Elorza Jacinto
Eguren Pedro
Echevarría Joaquín
Eizagirre Antonio
Garay Nicolás
Garay Bonifacio
Gorosabel Juan José
Gorosabel Eugenio

Gorosabel Miguel
García Modesto
González Hilario
González Guillermo
Guridi Mendizabal Pedro
Guridi Jacinto
Huertas Regino
Iriondo Santos
Iriarte Juan
Iriarte Prudencio
Llanos Hilario
Lete Galo
Leceta José Antonio
Larrea Antonio
Marcaide Vicente
Veléz Mendizábal Angel
Madinabeitia José
Madinabeitia Juan M^a
Madinabeitia Faustino
Mendarozqueta Pablo
Mondragón Victor
Ochandiano Luís
Olave Francisco
Otaduy Celestino
Otaduy Pablo
Otaduy Juan M^a
Olazabal Leonardo
Pagalday Nicasio
Pagoaga Antonio
Pagoaga Esteban
Sagasta Valentín
San Pedro Juan M^a
Uranga Angel
Uranga José M^a
Uriarte Facundo
Uriarte Felipe
Uriarte Hipólito
Uribe Castor
Uribechevarría Alejandro
Uribechevarría Juan

Uribechevarría Lorenzo
Zabaleta Félix
Urrea Luís
Zabarte Agustina
Zubialdea Bonifacio
Zubillaga José
Zubillaga Ignacio
Zubillaga Robustiano
Zubillaga José Ramón
Zubizarreta Manuel
Zulueta José

Lorenzo Uribechevarría Arrasateko ospitalean utzi zuten bere osasun egoera larriarengatik.

*Ezkertiarrek eta nazionalistek menderatu zuten denboraldian, 96 karlista atxilotu zituzten. Hasieran, udal ziegetan eduki zituzten. Gero, Biteriko Eskolak egokitu eta hara eraman zituzten eta, handik, espetxe izateko prestatu zuten Bergarako Seminarioko etxabera. Arrasateko batzordearen eraginaren menpe izan ziren atxiloteten lehenengo aldian, Pablo Otaduy parrokiako sakristaia behin baino gehiagotan eraman zuten Kanpanzarrera, gauez, tratu txarrak ematera. Behin, fusilamendu simulazio bat ere egin zioten.*¹⁷¹

José Maria Arriaranek diosku, preso karlistak Biteriko Eskolan izan ziren bitartean, tratu zuzena izan zutela guztiek, Pablo Otaduy Jauregibarriak izan ezik. Hark elizan armak gordetzen zituenaren ustean, jipoitu egin zuten armak non gordetzen zuten esan zezan.¹⁷²

Jose M. Urangaren esanetan *abuztuaren 15etik 16rako gauean, presoetatik 14 Bergaratik Arratera (Eibar) eraman zituzten. 13k oso tratu txarrak eta torturak sufritu zituzten. Batzuek egunetan izan zituzten zauriak.*

Felix Amozarrain Guribechevarria, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Domingo Arzamendi, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Antonio Pagoaga, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Robustiano Zubillaga, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.



Simon Ansola Churruca Areintzako abadea.

Prudencio Iraeta, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Regino Huertas Aspe, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Juan José Gorosabel Aranguren, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Nicasio Barrena, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Felipe José Azurza, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Jaime Azua, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

REQUETE AUXILIAR DE GUIPUZCOA

PUEBLO	Nº DE REQUETES	Nº DE ARMAS	CLASE DE ARMAMENTO	MUNICIONES
Mendragón	120	75	Fusil mauser; sin bayoneta.	1.000 cartuchos en total.
Arechavaleta	30	21	Fusil mauser; sin bayoneta.	0
Escerizaga	74	0		
Salinas	13	13	Fusil mauser; sin bayoneta.	0

(1) 1 pistola de 9 m/m sin municiones el Capitán.
1 pistola " 7'65 " " " Teniente.

Erreketek Leintz bailaran gerra aurretik.

Jose Maria Ayani Brioso, Arraten 1936ko abuztuaren 15ean.

Simón Ansola. Areantzako abadea (Aretxabaleta), arrasatear batzuk atxilotu zuten eta hark ere besteen zoria izan zuen. Hark ere tratatu txarrak hartu zituen eta torturatu egin zuten Arraten.

Arrasatekoen berdina bizi izan zuten Aramaio eta Eskoriatzako beste karlista batzuek ere. Arrasatera ekarri zituzten gero Bergarara eramateko. Guztiak bat izan ezik, Basilio Lasaga. Arrasateko kartzelan ziega baten bakartuta eduki ondoren, maiatzaren 17an Bergarara eraman zuten beste arrasatear batzuekin batera. Hara iristean, bestee-gandik banatu eta seminarioko arkupean eduki zuten Arrasateko zaintzaileek. Handik

eraman eta ordutik ez genuen inoiz haren inguruko berririk izan.

Aramaioko Defentsa Batzordea, Maximo Cruzelaegui Arana, Melchor Nafarrate Unzueta, Julian eta Hermenegildo Bengoa Urrutia, Mario Loiti Irasuegui eta Jesus Ruiz maisu gasteizarrak osatzen zuten. 1936ko abuztuaren amaieran, Gerardo Ruiz eta Celestino Uriarte herriko hainbat lagun atxilotzeko agindua eman zuten.¹⁷³

1936ko abuztuaren amaieran, Aramaion atxilotu eta Arrasatera eraman zuten. Deklaratzeko eramaten zutela esan zuten. Arrasateko bi buruzagi gorriek berehala banatu zuten beste presoengandik (30 aramaioar inguru). Inork ez daki ziur zertaz akusatu zuten, baina susmoa dago armak pasatu izana leporatu ziotela, Arrasatetik Aramaiora, Kontzepzionisten komentuko kopiak, kalizak, eta abar zeramatzan maleta batekin joaten ikusi baitzuten. Baina, hura aitzakia besterik ez zen izan, bestela zergatik ez ziren inoiz etxea miaztera joan?. Benetako arrazoiak, dirudienek, urte batzuk lehenago eta Basiliok hala aginduta orduan bera baitzen teniente alkatea, isun bat jarri zion biraoak esateagatik.

Gutxi dakigu Arrasaten egindako egonaldiaz. Hil baino bizpahiru egun lehenago, alabak, ... (Maria) ... ikustea lortu zuen ...

Irailaren 7an Bergarara eraman zuten beste presoengandik banatuta. Gau hartan, kar-

tzelatik eraman eta ez genuen gehiago haren berririk izan. Jasandako torturen egileak eta haren heriotza eragin zutenak Bizkaiko frontean hil zituztela uste da. Batzuek diote San Prudentzioko hilerrian hil zutela entzun izana ...¹⁷⁴

Irailaren 19an, larunbata, iluntzean Bergaran preso ginenok Bilbora eraman gintuzten tren berezi batean eta, handik, Larrinagako kartzelara. Gorabehera asko izan bagenituen ere, arrasatear guztiak bizirik itzuli ginen etxera, gurekin batera joan ziren Oñati eta Aramaiokoak ez bezala. Nazionalak Bilbo eta Bizkaia hartu ondoren, 1937ko ekainaren 16 eta uztaila hasiera artean itzuli ginen.¹⁷⁵

1949ko uztailan, Celestino Uriarteren kontrako kausaren barruan, deklaratzera deitu zituzten jipoitutako 5 pertsona:

Juan José Gorosabelen arabera, hainbat agente ezezagunek jipoitu zituzten lekura eraman zituzten baina ezin duela zehaztu nor eman zuen agindua”. Era berean, Felix Amozarrainek dio, “ez dakiela agindua nor eman zuen, baina, kanpotarrak zirela kamioi baten jipoia eman zieten lekuraino eraman zituztenak eta jipoia eman zietenak ere kanpotarrak ei zirela, ez baitzuen ezagutu haietako inor. José Maria Ayani eta Pablo Otadui diote, uste dutela agindua eman zuela Celestino Uriarte buru zuen herriko Gerra Batzordeak, jipoia pertsona ezezagunek eman arren. Guztiak bat datoz esatean, ezin dutela zehatz-mehatz esan Celestino Uriarte jipoitzen ari zirenen artean ote zegoen edo ez gaua zelako. Regino Huertasek baieztatzen du Uriarte ez zegoela jipoia eman zieten lekuan.

José María Arriaranek onartzen du egurra eman zietela, *armak non gordetzen zituzten esatea nahi genuen*. Beraz, badirudi arrasatearrek ez zutela jipoi haietan parte hartzerik izan, baina bai jakinaren gainean zeudela.

9.4. Erreketeak, guda ekintzak eta hildakoen zerrenda. Kintak harrapatu-takoak eta hildakoen zerrenda

Erreketeak, gerrarako prestatzen

Galdetzen badigute: - Geldi! Nor da hor?

Ozen erantzungo dugu:

“Carlos erregearen boluntarioak gara. Gora foruak eta erlijioa!”

(Erreketearen araudia)

*Jainkoarengatik, aberriarengatik eta erregearengatik borrokatu zuten gure gurasoek,
Jainkoarengatik, aberriarengatik eta erregearengatik
Borrokatuko dugu guk ere.*

Zumalakarregi Tertzioa

Karlistak Guda Frontean.

Zumalakarregi Tertzioa erreketete tertzio bat izan zen, 1936ko uztailaren 18an mugimendu nazionalarekin bat egin zuena. Tertzio hark garrantzi handia izan zuen frontean eta hura osatzen zuten kide gehienak Gipuzkoarrak ziren. Gehien bat ziren Oñati, Bergara, Arrasate, Zarautz eta Zegamako boluntarioak, baina harien lerroetan baziren Gipuzkoako beste hainbat herritako gizonak ere. Zumalakarregik gure gurutzadaren kanpaina hasieratik amaierara egin zuen eta Nafarroako Lehenengo Dibisioaren baitan egon zen. Hura izan daiteke tertzio bakarra kanpainaren bukaera arte, Errepublikaren garaiko aurre-militar karlisten antolatetarik zetozen konpainia agintariekin iraun zuena.¹⁷⁶

Gure patua: Mundua salbatu Jainkoa eta Espainia zerbitzatuz.

Daniel Mugarza (Gerran, Zumalakarregi Tertzioko kapitaina lehenengo eta Montejurra Tertziokoa gero) 4. Errekete buruaren esanetan, 1935. urte amaierarako, Gipuzkoan, lau erreketete unitate zeuden antolatuta. Bulego nagusiak Donostia, Tolosa, Azpeitia eta Oñatin zeuden. Unitate haietako ikuskatzailea zen Ignacio Sabater, Valcabrako Kondea. Sabater komandante erretiratua zen eta Erreketeen Ikuskatzaile Nazionala zen Alejandro Utrillaren aginduetara zegoena. Zonalde horretan, erreketeteen agintari nagusia zen Herrero de Tejada. Baina Mugarzak bere adierazpenetan esan bezala: 1936ko otsailan izan ziren hauteskundeen ondoren, *tradizionalista eszeptikoenek ere aitortu zuten erantzuteko premia zegoela*.¹⁷⁷

1936ko ekainaren 8an, Agustin Telleria atxilotu zuten, Antzuolan. Poliziak Zaragozan erreketeteen-tzako 400 uniforme uhaleriarekin egiteko materiala atzeman zuen kontrabandoan.¹⁷⁸

Errekete bakoitza 210 gizonen osatuta zegoen. Arrasaten, 92 gizon zeuden lau “taldetan” banatuta, Aretxabaletan, 30, Eskoriatzan 74 eta Gatzagan 13. Oñatin, karlismoak zuen indarraren ondorioz,

Arrasatek beste erreketek edo gehiago zeuden taldeetan antolatuta. Milatik gora izan daitezke Gipuzkoan altxamendu militarrekin bat egin zuten erreketek. -.¹⁷⁹

Miguel Etxagibelen baserrian, hark eta Pedro Zumelagak, egun haietan Iruñean soldaduska egiten ari zena, kontatu digute nola ikusi zituzten Somosierran Arrasatetik ihes egindakoak.

Geria urten eben eta familixan gabitsen orduan garixa ebaitten Kobateko kanteraren kontran, etorri zan koadrilla bat Arrasatetik oinez, hamarren bat izango zien, eta gelditu zien aitakin berbetan, ze barri jak Mondragoen? ba geria...hareik oizen Vitorixara ihesi karlistak zien, ezagutu neban "Paiko" eta "Porru".¹⁸⁰

Somosierrara, gitzen julioan Santiago egunian 25ian. Soldauak pasau ziten eta bat Jesus Amozarrain, mondrauetar bat, ha Burgostik urtendakoa. Hor agerketan da Requetien autobusa, pasau eta pasau gorutza, hori zan 26an. Autobus ba mondrauetarraz beteta, requetiak. Oso ezagunak. Bata neurekin soldau egondakua Joño. Añiketan jarraitu nauen eta berriketan egon gitzen. "Etxian zer moduz? Etxian ondo." Ziren mondrautarrak ihes egindakuak Vitorixara eta han requeté eginda. Hil ziren 3 edo, heriduak be bai gehiago.¹⁸¹

Hona hemen, Somosierrara joan ziren karlistak: Claudio Otaduy Arregui eta Manuel Aguirre Larzanguren, bi horiek bertan hil zituzten; zauri larrien ondorioz gerrako mutilatuak izan ziren, Modesto Otaduy Arregui eta Victor Beitia Aldecoa; Gerra fronte ezberdinetan eroritakoak, ostera, Juan Jose Zabarte Abarrategui, Vicente Gonzalez Vergara eta Luciano Oñate Vitoria; Candido Beitia Aldecoa, Esteban Echevarria Axpe, Gonzalo Echevarria Axpe, Máximo Arana, Juanito Arana, Agustin Garcia Aguirre, Felix Zabalo Uribesalgo, Jose M^a Ezcurra Vitoria, Guillermo Zubiaga, Daniel Aranburu Blanco eta Jose Mondragon Zubia, izan ziren, azken hau Nuestra Señora del Camino tertzio naurreko kidea zen.¹⁸²

Arrasateko, Oñatiko, Bergarako eta Aretxabaletako erreketek 1936ko urriaren hasieran eratu ziren. Hiru konpainia osatu zituzten. Lehenengoa Oñatin, bigarrena Arrasatekoa izan zen eta bertan Altxabaltar batzuk ere sartu ziren eta hirugarrena Bergaran. Azken horretan, Zegama, Segura eta Zarautzeko kideak ere sartu ziren. Debagoienean sortutako

unitate bat zen eta Nafarroako III. Brigadaren baitan kokatu zuten.

Arrasateko konpainian, aurreneko kapitaina Ezkurra, "uva capitán", izan zen. Madinabeitia "porru" eta Sotero Acha tenienteak ziren eta Aramburuzabala alferesa. Egoitza ireki zuten konfiskatuta zegoen Batzokian.

Tertzioan gure izena eman genuenean, lehendabizi, Tolosa eta Oñatira eraman gintuzten maniobretara. Gero, frontean, Maitena eta Olanen egon ginen, han hartu genituen posizioak. Felipe Elorza Picabea otsailaren 4an hil zuten eta Santiago Dolara otsailaren 16an.¹⁸³

Rafael Latorre Roca Arrasaten

Rafal Latorre Roca Teniente Koronela 1936ko urriaren 11an iritsi zen Arrasatera eta hasiera batean, erdialdean finkatu zuen Kuartel Nagusia, Erdiko Kaleko Mendia Jauregian. Geroago, Etxezarretan (Sagastietxea) kokatu zuen kuartela. Latorrerekin batera zegoen Migel Ganuza de Hierro alferes laguntzaile, ingeniari eta mendiburua. Latorrek Carlos Arroyo infanteria komandanteari eman zion agintea.

Deba Goieneko zentro militarra Arrasaten zegoen Latorrek sektore honetaz arduratzeko agindu urgentea jaso zuenean. "Feudo gorri separatista garrantzitsua" omen zen Arrasate militarrentzat. Era berean, Camilo Alonso Vega Teniente Koronelaren gestio taktiko eta estrategiko txararen ondorioz Armadak jasandako suntsipenaren berrantolaketa ere, Latorreren ardurapean geratu zen.

Urriaren 8an izendatutako Gestora Munizipalak hilaren 15ean bere dimisioa aurkeztu zuen José Añiubarro alkate zela. Urriaren 16an eratu zuten Gestora Munizipal berria Jesús Gorosabel Mendia lehendakari izendatuz.

Aurretik, hilaren 5ean, hogeita lau zibil atxilotu zituzten Arrasaten. Urriaren 9an aske geratu ziren, baina, urriaren 18an, berriro ere atxilotu zituzten. Hona hemen, gertakari hauen inguruan Miguel Vara del Rey Armadako Kapitanak Beni Pagolari egindako adierazpenak: "Atxilotuak aske utzi bagenituen, gure ustez, deliturik egin ez zutelako izan zen. Guk ez dugu zerikusirik bigarren atxilotetekin. Herriaren kargu daude orain. Beraz, gaia zibila da".

Zerikusirik izan al zuen Latorre agintariak bigarren

atxiloketa hauekin? Bere egunkarian jasotako aipamen hauek pistaren bat eman diezagukete.

Bitartean, errepublikarrei mesedea handia egiten zien errepublikaren aldekoen kontrolpean zegoen zonaldean senitartekoekin harremanak izatea. Honekin batera, oso lagungarria zitzaien ere, parrokoak eta koadjutore batek ematen zieten laguntza zuzena. Bi hauek separatistak ziren eta Espainia amorrus gorrotatzen zuten.

José Marquiegui apaizari, Joseba Ceciaga jeltzaleari eta bi erlijiosoei Gerra Kontseilua egin zieten Donostian. Epaitu ondoren, fusilatu egin zituzten (goian beude). Nik ez nekien ezer, gertatu eta denbora luzera izan nuen honen berri.

Partehartze zuzena izan ez bazuen ere, deklarazio hauekin, berak baimendutako gertaera haietaz aldentu nahi ote zuen? Aipatzen duen gerra kontseilua ez zen inoiz existitu. Are gehiago, apaizak ofizialki kaleratuak izan ziren fusilatuak izan aurretik. Bera zen agintari militar maximoa hauek atxilotu zituztenean. Akusazio guztiak faltsuak ziren. Herri guztiek zekien bi hauek ez zirela espioiak eta ez zutela inor ez ezer gorrotatzen. Ez da sinesgarria Latorrek hauen guztien berri “denbora luzera izatea”. Eta, frogak egon badaude. Lekuko zuzena izan zen, Maria Rosa Urraca Pastor karlistak apaizei, urriaren 12an, jendaurrean herio-mehatxua egin zienean.

Hona hemen, errepublikaren aldekoek Bilbon atxilotu zuten Jose Mari Uranga karlistak idatzi zuena: “Apaizekin harremana oso txarra zen, euren Euskal Eskolaren erengatik”.

Jakin badakigu, 1936ko urriaren 21 eta azaroaren 11 bitartean Hernanin eta Oiartzunen fusilatuak izan ziren 42 zibilen salatzaileak Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako herritarrek zirela. Zenbait kasutan, euren izenak ere ezagutzen ditugu, hiltzerian zeudela damutu eta euren partehartzea aitortu egin zutelako. Baina, tamaina horretako akusazio batek aurrera egin ahal izateko, herriko agintari zibil eta militarrek berretsi behar zuten. Arrasaten, Jesús Mendia zen alkatea eta Rafael Latorre militarren buru. Latorre makurtu egin zen, atxiloketa, akusazio eta epaiketarik gabeko fusilamendu hauek bultzatu zituzten karlista-erreketeen aurrean. Arrazoiak: karlista-errekete hauen laguntza ezinbestekoa zuen “sahurtasunez abantaila hartu eta modu miresgarrian azken une arte bere lurra defendatu zuen etsaiari aurre egiteko”.

1936ko abenduaren 10ean, koronel izendatu zuten Latorre. Abendu hartan, honakoa idatzi zuen bere operazio koadernoan:

Etsaiek Arrasaten presioa areagotzen zuten heinean, gero eta gehiago ziren militarren bajak eta bizimodua arriskutsua eta ez eroso bilakatu zen han kantonatuta geunden indar militarrentzat eta kuartel nagusiarentzat berarentzat ere. Era berean, gero eta gehiago zelatatzen zituzten gure lerroak. Honen guztiaren aurrean, ondorengo neurri erradikalak hartu genituen :

- 1^a – Brigadaren Kuartel Nagusia Arrasatek Bergararako bidean dagoen Sagastiechea baserrian kokatzea.
- 2^o – Arrasaten kantonatutako tropak ebakuatzea.
- 3^o – Espioitzarekin behin betiko bukatzeko, gure lerroetan eta hauen abangoardian dauden baserrietako zibilak inoren lurretara ebakuatzea. Atzeraguardiara joan beharko dute, finkatutako distantzietara, Oñatira iritsi arte. Abereak eta etxeko altzariak eramango dituzte, baina, egunez, euren lurak landu ditzakete.
- 4^a – Gure tropek Ebakuatutako baserriak okupatu eta hauen defentsibarako antolaketarik eraginkorrena egitea.
- 5^a – Arrasaten, guardia zibikoa indartzea. Hasieratik izan dugu bere laguntza. Guardia Zibikoa, Guardia Zibila eta Komandante Militarren esku uztea, Plazako defentsa eta barruko ordena. Ardura txikia duen eta egingarria den defentsa da hau. Gainera, baserrien okupazioak infiltrazio posibleak eragozten ditu. (Claret Miranda, Jaime. Ganar la Guerra, perder la Paz: memorias del general Latorre Roca (Crítica, 2019))

1937ko urtarrilaren 7an, Zabaleta eta Altzibar baserriak okupatu ondoren, lubakiak eraikitzen hasi ziren Anporretan. Hona hemen, Zabaleta baserriko Clara Gorosabel Etxagibelek kontatutakoa: 1937ko errege bezperan, gu Bergarara bidali eta baserria okupatu ziguten. Baserriari eurek eman zioten sua nazionalak. San Prudentzio egunean erre zuten, baserria utzi zuten egun berean.

Latorre etorri zan Etxezarretara, eta egun baten Zeleta gure baserriko atia jo auen, tia Eusebik etxian, zabaldu zotzan atea, sartu zan “Quiero ver esta casa”

igo auen, eta “Casa muy ventilada” esan eta irten zan. Urrango egunean errege bizperan, Oxinakoak eta guk bidali ginduen etxetik, kamara dana artoaz beteta han utzi behar. Oñatira Ipintza Zañartuko baserrira joan gitzen. Maiatararte ez euskuen utzi Zeletara etortzen. (Ángeles Garai Arregi, Ahotsak.eus)

Arrasateko Altzibar baserriko Pedro Agirianok ondo gogoratzen du baserritik nola bota zituzten: errege bizperan etorri zittuan karlista-errekete batzuk, hurrengo egunerako goizeko zortziretarako baserria hutsik uzteko. San Prudentziotik behera, Oñati edo Bergara aldera joateko. Isasi baserrian hantxe egon gittuan lau hilabete. Ez zaiuen uzten hona etortzen. Apirila edo Maiatzian Altzibarrera etortzerakuan, dana desastre bat einda. Kaka ugari, aitak eta amak esaten zaiuen moduan. Gu bezela Zabaleta, Barrenazahar... Saburdi baserrietan antzerakoa izan zan.

Agirianok dio Erreketeek Anporretan lubaki asko egin zituztela. “gure basotik gora igo ta bajau eitten zaiuen; oiñ pistak einda dagoz, orduan ez. Astuarekin eta bihorrarekin ibiltteko reketien bidia deketan zotziena egin zauein, Zeleta baserritik gora. Mendixak kartu-txuekin beteta utzi zittuen”¹⁸⁴

1937ko otsailaren 14an, Zumalakarregi Tertzioa Murugainetik hurbil posizioak betetzen ari zela, Aretxabaletan kuartereratuta zegoen Nuestra Señora del Camino erreketek konpainia elkartu zitzaion. Bateratze horrekin, 4. konpainia osatu eta Apotzagako posizioak sendotzea lortu zuten. Handik gutxira hasi zen aurreneko konbate serioa, martxoaren 31ko ofentsiba handia, alegia. Ezquiroz komandantearen esanetara zegoen 2. konpainiak parte hartu zuen Untzilla eta Murugainen kontrako erasoan Oriamendi tertzioari atxikita. Han aurkitu zituzten, parez pare, Dragones batailoiko gudariak. Haietariko asko eta asko euren lagun edota senitartekoak ziren. Orduantxe eman zioten hasiera Gerra Zibileko fronte beroenak igaroko zituen ibilbideari.

Gure benetako lehen guda 1937ko martxoaren 31n izan zen Bizkaiko erasoaren hasieran. Egun bat lehenago, soldadu batailoiei batek, uste dut Amerika erregimentua izan zela, Untzilla hartu nahi izan zuen Gellaotik eraso eginez, baina sekulako deskalabrua jasan zuen.

Martxoaren 31n, ezkerreko aldetik eraso eginez eta borrokaldi bortitzen ondoren, Untzillaz jabetzea lortu

genuen. Han hil zen Leon Uribarren. Apirilaren 1ean, Dragoiek Murugain mendian zituzten posizioetatik alde egin zutenean, gailurra hartu genuen.

Apirilaren 6an Anbotosteko gaina hartu genuen; egun hartan aukera izan genuen Amayurren konpainia bat inguratzeke, Etxaguengo haitzetan baitzegoen, baina, haien beldur zirenez, agindu ziguten joaten uzteko. Anbotosten Lorentzo Inza eta Jose Zabaleta hil ziren.

Apirilaren 10ean, Bizkaia eta Gipuzkoa arteko frontea Kanpanzar - Elgeta aldetik etetea proiektatu zen. Horretarako, Udalatx mendiaren hegoaldeetik eta mendebaldeetik, frontea inguratu behar zen gero Elorrio gainetik martxa kontzentriko bat egiteko. Asmo hori, ostera, ezin izan zen abiarazi hilaren 20ra arte, egun haietan eurite ikaragarri handiak izan zirelako. Egun horretan, Nafarroako Brigadetak soldaduek Anbotosteko gainetik eraso egin eta Tellamendiko muinoak hartu zituzten. Zumalakarregi Tertzioa brigada honen baitan zegoen. Beste unitate batzuk hilaren 21ean, Untzillatik sartu eta Barajuendik Aramaio okupatu zuten. 22an, Gesalibar okupatu zuten.

Hilaren 23an, Udalatx eta bere gotorlekuak atzera utzi eta aurrera egitea erabaki genuen. Asko aurreratu genuen; Memaiatik igaroz Udalatxen atzeguardiara iritsi ginen, (Santa Luziako ermita eta Errota txikiko errota), eta Arrasatetik Elorriorako errepidea moztu genuen.

Hilaren 24an, Elorriora sartu ginen; egunean bertan, Intxorta defenditzen ari zirenek, horien artean Dragoiak zeuden, alde egin zutenean, haien lekua hartu genuen eta gure helburuak betetzea lortu.

Egun batzuetan atseden hartu ondoren, Ibarrurira eramán gintuzten, han posizioak hartzeko; apirilaren 26a zen; Trimotoreak (Funkerrak) igarotzen ikusten genituen, Gasteiztik Udalatxera etortzen ziren, eta hura erreferentzia puntu harturik, buelta ematen zuten. Konpainian, Gernika bonbardatzen ari zirela komentatzen zuten; inork ez zuen, ordea, inolako iritzirik ematen; denak isilik zeuden.¹⁸⁵

1937ko apirilaren 30ean, Nafarroako Brigaden berregituraketaren ondoren, Zumalakarregi Tertzioa lehen brigadaren baitan zegoen kokatuta. Hona hemen, orduko gertaera aipagarrienak: Bizkargi hartu zutenekoa; Burdinazko ingurabidearen apurketan izandako parte-hartzea; Malmasin mendiko borrokak; Arrigorriagan atseden hartu ondoren,

San Cebrián de Mudára (Palentzia) joan zirenekoa Santanderreko frontea apurtzeko asmoz; Valdecebollas eta Cuetoko posizioen eraso non Reinosaraino iristea lortu zuten; eta azkenik, Gijonera iritsi zirenekoa iparraldeko gerrari amaiera emanaz.

Malmasin gainean, Pagasarri mendiaren ondoan, beste gudaldi gogor bat izan genuen. Goizean, Lacar tertzioak eraso egin zuen, baina, ezin izan zuen mendia hartu; arratsaldean, Zumalakarregi Tertzioko kideok lortu genuen hura hartzea. Baja asko izan genituen. Hirugarren konpainian, (gehienak Bergararrak) hogeitik gora zauritu izan zituzten. Ekainaren 16a zen.

Bilbon, Ezkurra kapitaina salatu zuten dirua bidegabe erabiltzeagatik eta beste konpainia batera bidali zuten sarjentura degradaturik. Gerra amaitzean teniente kargua betetzen zuen. Madinabeitia kapitain izendatu zuten,;harrez gero, "Porru Capitán" gaitzizenarekin ezagutuko zena.

Ardizanan, Juan Ercilla hil zen. Asturiasen, Mazucon, enfrentamendu bortitz askoren ondoren, Montejurrako tertzioak hura hartzea lortu zuenean, posizioak hartzeko



Domingo Arzamendi, erreketen baten hilobiratzean. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

jarri gintuzten eta bi egun eta hiru gauetan, 18 kontraeraso bota zizkiguten.

Gijonen bati baino gehiagori ilea lastu zigun gertakari bat ikusi genuen. Oñatiko karlista batek taberna batean Arrasate eta Oñatiko zenbait sozialista ikusi zituen, haiek konturatu gabe. Parte eman zuen, atxilotu zituzten, eta Oñati eta Arrasateko bertako karlistek fusilatu zituzten. Rogelio eta Felipe Garcia Lumbreras anaiak, Anjel Iturmendi eta Bizente Oregi ziren.¹⁸⁶

Asturiasen Roman Berecibar ere hil zuten.¹⁸⁷

Urriaren 25ean, itsasontziz Bilbora eraman gintuzten eta handik Iruñera berriro. Han, izandako baja guztiengatik, tertzioa desegin eta Montejurrako bigarren eta hirugarren konpainietan banatu gintuzten. Atsedanaren ondoren, Guadalajarara joan ziren. Handik, Teruelera, Alfambrako operazioetan parte hartzeko. Berriro ere, Levanterako bidea hartu zuten, Sierra de Espadán, eta azkenik Ebroko Batailan eta Kataluniako frontean hartu zuten parte.

Handik, Iruñera eraman gintuzten; eta han, harainoko bidean izan genituen baja guztiengatik, tertzioa desegin eta banatu gintuzten Montejurrako laugarren eta hirugarren konpainietan

Handik Teruelera. 1938ko urtarrilaren hasieran, 18 gradu zero azpiko tenperaturak izan genituen, 1.072 metroko altueran; La Muelaren ondoan, urtarrilaren 6an hil ziren: Bizente Markaide, Esteban Elorza, Anjel Vélez de Mendizabal, Mateo Murua. Uztailaren 10ean, Castellon-go Espadan mendikatean, hirugarren konpainiak gidoia galdu zuen, eta errefortzuko bigarreneko sekzio batera bidali gintuzten; haiekin, 9 arrasatear eta hirugarreneko bandera eramailea bakarrik iritsi ginen alambretara; esku bonbak geure buruen gainetik igarotzen zitzaizkigun. Han hil ziren, Pedro Otadui Echaniz, Jose Zabalo Lizarralde eta Juan Zabalo Urtecano.

1937ko abuztuan, Katalunian, Gandesa hegoaldean dagoen Bot herrira eraman gintuzten, irailaren hasieran, Ebroko Batailan borrokatu genezan. Cavalls eta Pandols mendilerroak eta Bot eta Xerta herriak eraso behar genituen. Nafarroako lehen dibisioko kideok bidali gintuzten Cavallseko mendilerroko frontea apurtzera, baina oso poliki egiten genuen aurrera. Guk egun argiz erasotzen genuen, eta gaua iristean, etsaiak kontraerasoa hasten zuen. Horrela, egunero hile amaierara arte, euri erauntsi bortitz batek geldiarazi gintuen arte.



- | | | | | | | | |
|----------------|--------------------|-----------------------|----------------------|------------------|---------------------------|--------------------|---------------------|
| ALFONSO ALZOLA | ESTEBAN AZCARRA | JOSUÉ AZCARRA | JUAN PARRA | RODOLFO PARRA | JOSE M. AZCARRA | CRISTOBAL OCHOA | JOAQUIN MURRIETA |
| JOSUÉ ACHA | FEARO ACHA | CASO CARRASCO BELTRIN | ARABELLA ARBELAZUBEN | FELIPE AMENDARAN | SAN FRANCISCO ARRIARTEGUI | SAN AGUSTIN ALTUNA | SANTALIX BELTRIN |
| HUGO BILABURU | LEONARDO BENEZUELA | VICTOR BELTRIN | ESTEBAN ADELAR | FRANCISCO ELONZA | ANGEL ELONZA | JUAN ARRIETA | MATEO ALTUNA |
| JOSE EXPOSITO | MANUEL ESCUELA | JUAN GAND | JOSE ANTONIO GARCIA | MANUEL GARCIA | FRANCISCO GARRAZES | LUIS GINART | VICTORIANO GILBARTO |
| FELIPE GILLOS | BLANCA HERRATE | JACINTO HERRATE | GREGORIO DEIBELCEN | LEON URIBARRI | FRANCISCO URIBARRI | ANGEL VELEZ ALONSO | JUAN JOSE ZIBARTE |
| DOMINGO IZA | SEBASTIAN LLORENTE | ANGEL LLORENTE | JOSE M. MADRIBERTIA | BLAS MADRIBERTIA | CASO LUCIANO GARCIA | ESTEBAN OTAZU | RODOLFO OTAZU |
| IGNACIO ALARIN | SATURNINO PROENZA | ESTEBAN PROENZA | EQUARDO ROS | CASTOR URIBE | JAIPE ZUBELZA | | |

HEROES CAIDOS EN EL

REQVETES DE MONDRAGON DE CAIDOS Y EX



CAMPO DE HONOR



EL TERCIO ZUMALACARREGUI COMBATIENTES



Hiru hilabete iraun zuen borrokak. 20.000 hildako eta 50.000 zauritu izan ziren bertan. Montejurra Tertzioa eta Nafarroako lehen dibisioa oso nabarmendu ziren. Baja asko zeuden eta 1941eko kintoen deialdikoak, Salamanca, Andaluzia, eta beste herrialde batzuetakoak ziren. Teniente koronelak Vara del Rey, Vicario, Tutor eta Perez Salas ziren. Cavalls-ko mendilerroaren azken erasoari hasiera eman zitzaion urriaren 31n. Estaldura bonbardaketa gogor baten ondoren, infanteriakoak eraso genituen. Mendilerroa konkistatzea lortu genuen eta preso asko egin genituen. Atxilotuak erabat hunkituta zeuden bonbardaketen biolentziarengatik. Azaroaren erdialdera, Ebroko Bataila amaitzean, errepublikaren aldekoak Ebro ibairaino egin zuten atzera. Berriro ere borrokak hasi ziren. Borroka hark luze iraun zuen, hiru hilabete eta hogeitun egun.

Azaroaren erdialdera amaitu zen borroka hura. Errepublikaren aldekoak berriro ere Ebroren beste aldera egin zuten atzera. Borroka hark iraun zuen hiru hilabete eta hogeitun egun. 100.000 gizon ibaiaren albo bakoitzean. Gerra zibileko borroka odoltsuenak eman ziren han. 1938ko azaroaren 18an, arratsaldeko hirurretan, Domina Militar Kolektiboa eman ziguten Gandesan. Domina emateko arrazoiak hiru izan ziren: Cavalls-ko mendilerroan egindako operazio militarra, Aguila mendilerroan burututako maniobrak eta Ascó eta Flixeko okupazioak.¹⁸⁸

1938ko urrian, Luis Ginart eta Francisco Urribarren Ebroko frontean, hil ziren BOTen, 1939ko urtarrilean, José Zubillaga Eguiluz hil zen. Valentziatik Kataluniarako bidea mozten ere hartu genuen parte. "Laureada de San Fernando" eman ziguten.¹⁸⁹

Zumalakarregi Tertzioko 137 kide ziren hildako arrasatearrak eta erreketek ohiak:

Joaquin Urrutia, Teniente Koronela.

Manuel Madinabeitia, Kapitaina.

Sotero Acha, Tenientea.

José Ezcurra, Tenientea.

Alberto Aranburuzabala, Alfereza.

Sarjentuak: José Aranburuzabala, Felipe Amozarrain, Francisco Abarrategui Oquina, Agustin Altuna, Felix Bengoa, Mariano Azcarate Berecibar, Avelino Beltran, Miguel Laspiur, Pio Aristegui, eta Segundo Sanz.

Kabokak: Candido Beitia, Luciano Oñate, Ignacio Bedia, Daniel Barrutia eta Jesus Aspe.

Tropa: Asencio Altuna, Esteban Azcoaga Madinabeitia, Joaquin Azcoaga, Juan Arana, Rosario Arana, Joaquin Acha, Pedro Acha, José M^a Ayani, Felix Arzamendi, Roque Arregui, Segundo Amozarrain, Jesus Barandiaran, Luis Barandiaran, Luis Balanzategui, Andres Bidaburu, Lazaro Berecibar, Victor Beitia, Juan Castillo, Esteban Dolara, Francisco Elorza, Angel Elorza, Joaquin Echevarria, Gonzalo Echevarria, José Exposito, José Ezcurra, Manuel Ercilla, Felipe Galdos, Juan Garro, Pedro Guridi, Juan José Gorosabel, Prudencio Gorosabel, Agustin Garcia, Bernardo Herrarte Aguirre, Jacinto Herrarte, Domingo Iza, Sabino Llodio, Angel Llodio, José Madinabeitia, Blas Madinabeitia, Francisco Larrea, José Larrañaga, José Mondragón, Esteban Otaduy, Modesto Otaduy, Ignacio Pildain, Saturnino Pagoaga Guridi, Esteban Pagoaga, Eduardo Roa, Sotero Sagasta, Vicente Sagasta, Juan Sanabria, José Sodupe, Mateo Urizar, Luis Urra, Ildefonso Urra, Joaquin Urriategui, Juan M^a Urribarren, Castor Uribe, Ambrosio Ugarte Zabaleta, Jaime Zubialdea Zabala, Sebastian Zuazubiscar, Eugenio Zubizarreta eta Luis Barandiaran Eguinoa, Eusebio Arregui Larrañaga, Agustín García Arregui, Juan Urribarren Altuna, Mariano Azcarate Berecibar, Mariano Arcauz Eraña, Luciano Oñate Vitoria eta José M^a Madinabeitia Arregui.

Zerrenda honi gehitu behar zaizkio: "Heroes caidos en el campo de honor" Zumalakarregi Tertzioaren argazkian azaltzen dira: Pedro José Bergareche, Esteban Elorza, Juan Ercilla, Angel Echevarria, Lorenzo Iza, Vicente Marcaide, Felipe Otaduy, (Kapuchinoa) Claudio Otaduy, Pedro Otaduy Echaniz, Juan Zabalo, José Zabalo, José Zubillaga, Florencio Zubillaga, José Zabaleta, Juan Arrese, Mateo Altuna, (hildakoen zerrendan jasota dago Mateo Murua) Manuel Agirre, Santiago Dolara, Antonio Garcia, Manuel Garcia, (Guardia Zibilaren brigada) Francisco Gastañarez, Luis Ginart, Victoriano Gallastegui, Gregorio Or Bengoa, Leon Urribarren, Francisco Urribarren, Angel Velez de Mendizabal eta Juan José Zabarte (hau soldadu zela hil zen).

Jainkoa, Aberria, Foruak eta Erregea lematzat ziztuztela gerran borrokatzen hasi ziren karlistek gerran bertan ikusi ahal izan zuten nola desagertzen ziren



Eduardo Roa Olazagoitia.
Bere ama, Florencia Olazagoitia Cenciaga, atxilotu eta hil zuten berberak eraman zuten “boluntario” frontera..

Gipuzkoa eta Bizkaiko Foruak (herrialde traidoreak ei zirelako desagerrarazi zituzten). Erreketeak gerran zeuden bitartean, erretagoardian karlista batzuekin egon ziren faxistek, zirkulu karlistak Espainiako Falangearen eta JONSen gune bilakatu zituzten. Zuzendaritza Batzordeak Donostian izendatzen ziren, inori konturik eman gabe. Horrek atsekabe handia eragin zien karlistei.¹⁹⁰

Domingo Arzamendik 1939ko ekainaren 24an, La Voz de España egunkarian idatzi zuen: *Tertzioan, adin eta gizarte maila guztietako beren borondatezko soldaduak izan ziren. Gazteen artean, aipamen berezia merezi luke Eduardito Roak; mutil hori 11 urte zituela sartu baitzen erreketen konpainian, eta gerra osoa egin zuen.*

Domingok esaten ez zuena da, ordea, Eduardoren ama Florencia tertzio horretan bertan egon ziren karlistek salatu zutelako fusilatu zutela eta, aita gorrien aldean zuela.

Artikulu horretan bertan horrela jarraitzen du: *24 erreketen eta 23 soldadu dira konpainian hildakoak.* Ez du esaten ordea horietako zenbait, Franzisko Gastañarez Elorza (30 urte, 1938ko uztailaren 5ean hil zen Castellonen), Gregorio Orobengoa Zeziaga (25 urte, Boten hil zen Ebron), Sabino Ortiz de Guzman (Castellonen hil zen) eta beste zenbait beren borondatez batailoietan egon zirela gudari, Amayurren,

eta Laredon preso hartu ondoren, Francoren soldaduekin batera borrokatzera behartu zituztela. Beste batzuek, Esteban Elorza edo Olalde, faxistek fusilatuaren anaia kasu, ideia nazionalistak zituzten.

Juanita Okina: *Juan Arrese Orbegozo (Arretxe baserrikoa), 17 urte zittuen, baina ez zuela juzgauen apuntauta, eta abisau eutsien soldadu joateko, eruen eta segiduen handi 15 egunera edo hilda balazo batekin ekarri zaiuen, bere arreba batek eliza parien, kriston mitina bota zuen “le han llevado para matarle”, Arretxe baserrikoak errepublikanoak ziren.*



Esan beharra dago, beraz, ez zirela denak borrokan hil faxismoaren idealen alde. Arrasatera ekarri zituztenean, gorpuren gainean jarri zieten bandera faxista, eta beren izena parrokiako plakan sartzea, gizon horiei egin zitzaien azkeneko iraina izan zen.

Frontean hil ziren erreketek

Felipe Elorza Picavea, 1937ko otsailaren 4an, Arrasaten. (1908 Casa Mina – Veneras).

León Uribarren Altuna, 1937ko martxoaren 31an, Untzilan. (1914 Antena baserria. Garagartza).

Juan Ercilla Pagalday (1910 Arteta baserria-Garagartza).



Basilio Lasaga

Vicente Marcaide Gallastegui, 1938ko urtarrilaren 6an, Teruelen. (1916 Zarugalde 26 – Arrasate)

Santiago Dolara Mendizábal. (1914 Biziola baserria – Gesalibar)

Lorenzo Iza Dolara, 1937 apirilaren 6an, Anbotosten. (1915 Zarugalde 5 – Arrasate)

Mateo Murua Ezcurra, 1938ko urtarrilaren 6an, Teruelen. (1916 Sagastiveche baserria-Musakola)

Manuel Agirre Larzanguren, 1938ko abuztuan, Somosierran. (1912 Arruaga baserria – Gesalibar).

Claudio Otaduy Arregui, 1938ko abuztuan, Somosierran. (1910 Resusta 35 – Arrasate).

José Zabaleta Galdós, 1937ko apirilaren 6an, Anbotosten. (1919 Erdiko kale 28 – Arrasate).

Angel Vélez De Mendizábal Arana, 1938ko urtarrilaren 6an, Teruelen. (1916 Garibay 2 – Arrasate).

Florencio Zubillaga Ugalde, Castellónen. (1911 Zarugalde 19 – Arrasate).

Angel Echeverría Bercibar, 1938 apirilaren 1ean, Teruelen. (1911 Monzón baserria – Veneras)). Hau behartuta joan zen San Miguel Tertziara, eta ez boluntario.

Pedro Otaduy Echaniz, 1938ko uztailearen 10ean, Espadan. (1916 Palacio baserria – Udala auzoa – Arrasate)

José Zabalo Lizarralde, 1938ko uztailearen 10ean, Espadan. (1909 Bidekurtze baserria – Musakola – Arrasate)

Juan Zabalo Urtecabo 1938ko uztailearen 10ean, Espadan. (1908 Erdiko kale 10 – Arrasate).

Luis Guinart Arzamendi, 1938ko urrian, Ebroko Batailan. (1918 Erdiko kale 4 – Arrasate).

Francisco Uribarren, 1938ko urrian, Ebroko Batailan.

José Zubillaga Eguiluz, 1939ko urtarrilean, Katalunian.

Antonio García

Miguel Urcelay¹⁹¹

Luciano Oñate Vitoria. Donostiako Ospitalean hil zen frontean izandako zauri larrien ondorioz.¹⁹²

Jarraian agertzen direnak ez ziren erreketak: Esteban Elorza Olalde. 1938ko urtarrilaren 6an, Teruelen. Francisco Gastañarez Elorza. 30 urte. 1938ko uztailaren 5ean hil zen Castellonen. Gregorio Or Bengoa Ceciaga. 25 urte. 1938ko urriaren 5ean hil zen Boten, Ebroko Batailan. Juan Arrese Orbegozo, 1921. Udala Sacristauna

Ideologia karlista zuten hainbat Arrasatear modu bortitzean hil ziren gerraren ondorioz.¹⁹³ Haietariko hiru Arrasate aldean: Lino Mardaras Eleustondo, Lucio de la Cruz Basaldua eta Basilio Lasaga. Hirurek desagertuta jarraitzen dute. (Basilio Lasaga, Aramaiokoa zen. Kontzepzionisten kapilau Hilario jaunaren anaia. Arrasatear batzuek atxilotu eta Bergarara eraman ondoren, han desagertu zen). Felipe Otaduy Arregui. Arrasateko Diakono kaputxinoa. Hijarren (Teruel) hil zuten bere kondizio erlijiosoarengatik. Manuel Garcia del Corral¹⁹⁴ Arrasateko guardia zibilaren brigada Donostian fusilatu zuten. Andrés Carmelo de Gorriño. Unión Cerrajerako langilea. Ezagutua, atxilotua eta Bizkaian hildakoa.¹⁹⁵

Hildakoak izan zituzten familiei “Oinazeari domina” eman zieten eta gerra pentsioak ordaintzen hasi ziren alargun eta umezurtz geratu zirenei.

Gerrako elbarrien ezintasun mailak zehazteko, balorazio medikuak egin zituzten. Errekonozimendu gisa, biziarteko pentsioa eta baimenak eman zizkieten estatuaren emakidak ustiatzeko: estankoak, gasolindegia, udaleetako funtzioak eta abar.¹⁹⁶

Arrasate aldean hildako matxinatuak. 116

Arrasateko Epaitegiaren heriotza liburutan jasota daudenak 37:

Jesús Velasco Munain, 24 urte. 1937/02/02 hil zen, Larraga, Navarra, Rgto. Infanteria América nº 23

Salvador Casado Verano

German Ferreiro Calviño

Antonio Calde Castelo

Cecilio Gil Amat. 23 urte. 1936 abenduaren 8an hilda, Monteagudo, Navarra, Rgto. Infanteria América nº 23

Laureano Ibarrola Aranguren

Juan Cincunegui Galarraga, 21 urte, Regil, Rgto. Infanteria América nº 23

Silvano López Prieto, Corrales, Leon, Montaña nº 8

Miguel Saez de Cortazar, Alava, Requeté Cia Alava

Cipriano Marcos Garcia, Burgos, Rgto. Infanteria América nº 23

Angel Armada Quiroga, Lugo, Infanteria San Marcial nº 22

Costantino Moraza Chacon, Saleiros, Pontevedra, Rgto. Infanteria América nº 23

Jose Osa Aristondo. 1937ko urtarrilaren 7an hil zen. Deba, Infanteria 19.

Francisco Cornejo Garcia, San Miguel, Avila, Rgto. Infanteria América nº 23

Jesús Pozo Arroyo, 16 urte, Palacio de Benaver, Burgos, Infanteria San Marcial nº 22. 1937ko urtarrilaren 17an hil zen.

Jesus Ugarte Goñi

Jesus Royo Alonso, 16 urte, Palacio de Benaver, Burgos, Infanteria San Marcial nº 22

Santiago Dolara Mendizabal, 22 urte, Arrasatekoa, Erreketea Tercio Zumalacarregui

Felipe Elorza Picabea, 28 años, Tolosa, Requete Tercio Zumalacarregui

Ignacio Maria Besne Blach, 20 años, San Sebastian, Tercio Oriamendi

Pedro Ugarte Musue, Leache, Ingenieros

Martin Biain Seguinolaza, Oñati, Tercio Zumalacarrengui

Enrique Moran Andía. 1937ko martxoaren 20an hil zen. San Andres posizioa. Era de Castro, Lugo, Rgto. Infantería América nº 23

Joaquin Ares Castañeira, Arosa, 1937ko martxoaren 20an hil zen. San Andres posizioa Coruña, América 23zk. Infanteria errejimendua.

Manuel Alonso Gonzalez, 1937ko martxoaren 20an hil zen. San Andres posizioa, Castro Candelas, Orense, , América 23zk. Infanteria Errejimendua.

Luis Suberbiola, Mendavia, Navarra, Falangista

Arcadio Garcia Argarate, Valtierra, Navarra, 1ª Centuria Falange

Anastasio Diez Santamaria, 17 urte, Valtierra, Nafarroa, 1ª Centuria Falange

Jesus Lavega, 1ª Centuria Falange

Antonio Velasco, 1ª Centuria Falange

Nicolas Porras Montero, Ametralladoras 7

Valeriano Carbajanos, soldadua

Santiago Gonzalez Gañedo, soldadua

Jose Gutierrez, soldadua

Pedro Vicente, soldadua

Florencio Poblador Nieves, soldadua

Máximo Muñoz, soldadua

Ignacio Sanz Fuerte, Infanteria San Marcial nº 22 ¹⁹⁷

Matias Arbeloa Pérez. 27 urte. Erreketea. 1937ko martxoaren 31an hil zen. Eibarkoa.

Roque Aramendia Gorritxo. 23 urte. Erreketea. 1937ko apirilaren 22an hil zen Aramaion. Aramendiakoa.

Antonio Rodríguez Gurria. 1937ko apirilaren 5ean hil zen. América Erregimentua 23zk. Arguedasekoa.

Martin Echeverría Alonso 1937ko apirilaren 4ean hil zen martxoaren 31an zauritua izan ondoren. Falangeko kidea. Arronitzekoa.

Ángel Munarriz Escondrillas. 1937ko apirilaren 18an hil zen. Erreketea.

Alfonso Romano Muñoz. 28 urte. 1939ko apirilaren 1ean hil zen. Alfereza. Corellakoa.

Basilio Garcia Ergui. 1937ko apirilaren 1ean hil zen Asensiomendin. América Erregimentua 23zk. Errokoa.

Luis Martínez Muro. 24 urte. 1937ko apirilaren 7an hil zen Eskoriatzan. Militarra. Fiterokoa.

Félix Lecuona Irrisarri. 22 urte. 1937ko urtarrilaren 12an hil zen. Falangeko kidea. Azketakoa.

Teodoro Rodríguez Nieto. 23 urte. 1937ko otsailaren 17an hil zen. América Erregimentua 23zk. Larragakoa.

Pedro Ugarte Unzué. 23 urte. 1937ko otsailaren 12an hil zen. Zulatzaile eta minatzailea.

Esteban Zabaleta Cestau. 22 urte. 1937ko urtarrilaren 3an hil zen. Leitzako Metrailadorea.

Mateo Arbeloa Egues. 27 urte. 1937ko apirilaren 20an hil zen. Aramaio hartu zenekoa. Mañerukoa.

Juan Nicolay Munarriz. 27 urte. 1937ko apirilaren 2an hil zen Eskoriatzan. 2. Falangeko kidea.

José Urrutia Bariain. 52 urte. 1937ko urtarrilaren 9an hil zen Aretxabaletan. Nuestra Señora del Camino Tertzioko erreketea. Murillo del Frutoakoa.

Alfredo Inda Gómez. 28 urte. 1937ko apirilaren 21ean hil zen. Oteitzako Falangeko kidea.

Juan Anton Sancho. 24 urte. 1937ko martxoaren 31an hil zen. América Erregimentua 23zk. Iruñeakoa.

Salvador Casado Verano. 36 urte. 1936ko abenduaren 9an hil zen. América Erregimentua 23zk. Behin-behineko alfereza. Guardiako. Araba.

Jesús Cemborain Mainz. 23 urte. 1937ko apirilaren 2an hil zen Asensiomendin. Erreketea. Iruñeakoa.

Jesús Crespo López de Alda. 29 urte. 1937ko apirilaren 4an hil zen Asensiomendin. Alfereza.

Iruñeakoa.

Julio Gómez Marinelarena. 25 urte. 1937ko apirilaren 18an hil zen. Falangeko kidea. Iruñeakoa.

Jesús Ugarte Goñi. 26 urte. 1937urtarrilaren 13an hil zen. América Erregimentua 23zk. Iruñeakoa.

Cruz Osés Casado. 5 urte. Eskoriatzan zauritu zuten 1936ko abenduaren 19an. 1937ko urtarrilaren 10ean hil zen. Lesmako falangea.

Sebastián Lerga Armendariz. 20 urte. 1937ko urtarrilaren 1ean hil zen. Arrasaten zauritu zuten eta Bergarako ospitalean hil zen. Tafallako falangea.

Simeón Garatea Olave. 33 urte. 1937ko apirilaren 20an hil zen Aramaion. Utergako erreketea.

Manuel Velázquez Fernández. 45 urte. Arrasaten zauritu zuten. Bergaran hil zen 1936ko abenduaren 6an. Uztarrozeko karabineroen alfereza.

1937ko martxoaren 31n Untzillan hilak, Aretxabaletako hilerrian lurperatu zituzten 28

Lucio Justo Aguado Baza, Beasain, Tercio Oriamendi. Alferez

Alberto Aguirre Mencia, Ibarra, Tercio Zumalacarrengui

Pablo Álvarez Gómez, Dueñas, Palencia, Rgto. Infantería San Marcial nº 22

Miguel Andueza Ergoinena, Nafarroa, Rgto. Infantería San Marcial nº 22

Miguel Aparicio Aldanondo, Zumarraga, Tercio Oriamendi

Antonio Arrieta Echarri, Etxarri Aranatz, Nafarroa, Rgto. Infantería San Marcial nº 22

Juan Arzuaga Zubeldia, Asteasu, Tercio Oriamendi

Zoilo Barcaiztegui Echevarria, Urrestilla, Tercio Oriamendi

Nicanor Berrio San Martín, 26 urte, , Yarnoz, Nafarroa,

Toribio de la Cruz Vals, Tordesillas, Valladolid, Rgto. Infantería América nº 23

Luciano Cuaresma Valverde, Valladolid, Rgto. Artillería Pesada nº 3

Agustín de la Encina Garrán, Villelga, Palencia, Bon. Zapadores Minadores nº 6

Esteban Eugui Zubiri, 25 urte, Esteribar, Nafarroa, Rgto. Infantería América nº 23

Raimundo Fábregas Jacas, Barcelona, Rgto. Infantería América nº 23, Alferez

Bernandino Lacarra Calavia, 25 urte. 1937ko martxoaren 31an hil zen Aretxabaletan. Tudelako San Marcial 22zk. Tudela, Nafarroa

José Mendizabal Alustiza, Ordizia, Tercio Oriamendi

Pedro Noain Paternain, 29 urte, Esteribar, Arleta, Nafarroa, Rgto. Infantería América nº 23

Avelino Obanos Elcarte, Berrioplano, Nafarroa

José Miguel Otegui Recalde, Ordizia, Tercio Oriamendi

Francisco Parla López, Otero del Rey, Lugo

Lorenzo del Pozo García, Abases, Segovia, Rgto. Infantería América nº 23

Ramon Raposo Vázquez, Sobrado, Coruña, Rgto. Infantería América nº 23

Domingo Retegui Sagastibeltza, Leiza, Nafarroa
Victorino Río Borobia, Cortes, Nafarroa

Victorino Rubio Hernández, Villaban, Logroño, Rgto. Infantería América nº 23

Leon Uribarren Altuna, Arrasate, Tercio Zumalacarrengui

Lucio Vargas Serrano, Pinillos de los Mazos, Burgos, Rgto, Artilleria Ligera n^o 12

Juan Zabaleta Cetán Leitza, Nafarroa, Rgto. Infanteria América n^o 23.¹⁹⁸

Cecilio Arnal San Marcialeko tenientea, Bedoñan hil zen eta Luis Guijosa Leguia, Oriamendiko komandante, Untzillan zauritua, Bergarako ospitalean hil zen.

Kintak harrapatutako gazteak

Berrehun eta berrogeita hamarretik gora arrasatear behartu zituzten matxinatuen bandoan borrokatzera, nahiz eta haietariko askok ideia politiko desberdinak izan. Soldaduska egitera deitu zituzten beste ehun eta hogeit lagun ez ziren aurkeztu ihes eginda zeudelako. 1916 eta 1920 artean jaiotakoak ziren, hau da, 16 eta 20 urte bitartean zituzten gerra hasi zenean.

1914. urtean jaiotakoak. Matxinada hasi zenean, soldadutsan zeuden:

Jose Maria Ansoategui Iregui, Albino Arabaolaza Alcelay, Victor Arana Berasategui, Jose Arana Ibarquen, Eduardo Ariztimuño Ayerbe, Victoriano Arizabaleta Zabaleta. Jose Antonio Arregui Echabe, Juan Jose Arsuaga Astondoa, David Arzamendi Empananza, Cornelio Beitia Unamuno, Fortunato Bedia Arregui, David Ceciaga Olalde, Santiago Dolara Mendizabal, Pedro Echevarria Arregui, Francisco Elorza Arenaza, Lorenzo Escudero Pinacho, Angel Espinosa Morales, Saturnino Ezcurra Areitio, Manuel Garate Umerez, Modesto Garcia Abarrategui, Tomas Garro Uribarren, Eustaquio Heriz Azcoaga, Vicente Langaran Madinabeitia, Antonio Larrea Azcarraga, Eustaquio Lizarralde Amicola, Andres Maiztegui Macazaga, Jose Marichalar Iñurrategui, Leonardo Mondragon Herrasti, Facundo Mondragon Sologaistoa, Luis Olivar Fernandez, Andres Oquina Ceciaga, Domingo Oyanguren Otaduy, Jose del Pozo Riesgo, Juan Ruiz Perez, Julian Sagasta Galdos, Pablo Antonio Sanabria Martinez, Alfredo Sanz Gonzalez, Cirilo Tarragona Calvo, Eusebio Unamuno Jauregui, Hipolito Uriarte Barrutiabengoa, Angel Uribechevarria Osinaga, Pedro Vitoria Albistegui, Martin Zubizarreta Arzamendi, Pedro Zumelaga Ozaeta.

1915. urtean jaiotakoak:

Francisco Abarrategui Aguirre, Jose Alzola Ayes-

taran, Jose Amozarrain Oyanguren, Esteban Arana Aranceta, Angel Arana Aguirre, Jose Arana Ingidua, Juan Arechabaleta Aguirrebengoa, Agustin Arregui Zubizarreta, Vicente Balanzategui Uriarte, Sebastian Echevarria Urcelay. Alejandro Echevarria Uribechevarria, Jacinto Elorza Cortabarria, Ricardo Erguin Barquin, Valentin Gonzalez Bedia, Ricardo Gorosabel Amozarrain, Ignacio Herrera Gonzalez, Luis Herrero Idigoras, Pablo Iñarra Mendizabal, Felix Jauregui Leibar, Marcelino Madinabeitia Lamarain, Jesus Montiano Gallego, Juan Jose Murua Echevarria, Vicente Orobengoa Ceciaga, Pedro Otaduy Arregui, Luciano Ozaeta Olañeta, Saturnino Pagoaga Guridi, Mariano Usobiaga Arcay, Higinio Uzarraga Alberdi, Angel Zabalo Urtecabo, Vicente Zubia Zumelaga, Ignacio Zubillaga Zubia

1937ko urtarrilaren 14ko izen-ematea. 1916an jaiotakoak:

Felix Gallastegui Marcaide, Vicente Iturbe Uribe, Sabino Llodio Bengoa, Carmelo Madinabeitia Lopez, Esteban Otaduy Ezpeleta, Sotero Sagasta Elorza, Eloy Urcelay Heriz, Miguel Sanchez Landa, Vicente Uribechevarria Alberdi, Angel Arregui Loidi, Vicente Zubia Uribe, Manuel Aguirre Elorza, Jesus Inda Herrasti, Fernando Uribesalgo Icaran, Anatolio Rodriguez Zamora, Bernardo Herrasti Aguirre, Evaristo Vitoria Zangitu, Angel Azcarate Sologaistoa, Roque Mendizabal Gorosabel, Patricio Heriz Aguirre, Salvador Badiola Garechea, Roman Garitano Jauregui.

1937ko maiatzaren 9ko izen-emateak. 1917an jaiotakoak:

Miguel Andres Narvaiza, Antonio Murua Idigoras, Angel Ramon Erguin Echevarria, Vicente Bengoechea Viciola, Tomas Alzola Ayestaran, Luciano Arambarri Guridi, Miguel Arana Ingidua, Tadeo Azcarate Murgoitio, Faustino Balanzategui Echevarria, Eusebio Balanzategui Uriarte, Cristobal Bedia Arregui, Francisco Bengoa Berecibar, Julio Bartolome Galarta Berabe, Cosme Gallastegui Uriarte, Luis Heriz Aguirre, Anastasio Marcaide Pildain, Facundo Sampetro Azpiazu, Ramon Ugalde Lizarralde, Felix Uribechevarria Mondragon, Juan Agueda Juanaz, Antonio Andia Andia, Bernardo Mendez Mendez, Jesus Iribecampos Oquina.

1937ko uztailaren 22ko izen-emateak. 1939ko

deialdia. 1918an jaiotakoak:

Jose Abarrategui Aguirre, Carmelo Aizcorbe Garro, Jose Aguiriano Astola, Julio Aramburuzabala Mugica, Domingo Aranburu Basurto, Vicente Arana Arregui, Eugenio Barrutia Guridi, Joaquin Evaristo Echevarria, Pedro Elorza Olalde, Eugenio Garay Lizarralde, Alberto Idigoras Zubia, Justo Iribecampos Uribe, Miguel Laspiur Azcarate, Andres Lizarralde Aguirrebalzategui, Pedro Jose Lizarralde Vicuña, Jose M^a Madinabitia Arregui, Jose M^a Murua Querejeta, Jose M^a Orobengoa Olave, Sebastian Sagasta Elorza, Jose Sodupe Guridi, Rufino Ugarte Balanzategui, Castor Uribe Goitia, Francisco Uribarren Altuna, Lucio Velez de Mendizabal Arana. Florencio Zubillaga Ugalde, Vicente Zubizarreta Arzamendi, Pedro Zubizarreta Urcelay, Francisco Ercilla Pagalday.

1938ko otsailaren 3ko izen-emateak. 1940ko deialdia. 1919an jaiotakoak:

Francisco Alzola Ayestaran, Jesus Aquizu Astola, Jose Aranburu Bidaburu, Alberto Arregui Eguidazu, Miguel Arrieta Arregui, Eugenio Balanzategui Furrundarena, Jose Barrena Garitano, Bernardino Barrutia Heriz, Modesto Barrutiabengoa Gallastegui, Ramon Bolinaga Ortubay, Mariano Echagibel Otaduy, Patricio Eguidazu Altuna, Santiago Echevarria Arabaolaza, Gonzalo Echevarria Aspe, Andres Garay Arregui, Epifanio Garcia Gamazo, Gerardo Garmendia Alava, Basilio Gomez Sanz, Jose Gonzalez Ruiz de Azua, Agapito Herrasti Ozaeta, Vicente Ibarrodo Otaduy, Juan Iturbe Urrutia, Mateo Iturbe Uribe, Marcos Iza Dolara, Santos Landaluce Goicoelea, Juan Jose Larrañaga Abarrategui, Jose Maria Lasagabaster Arriola, Antonio Lobo Fernandez, Agustin Llodio Bengoa, Sabino Maiztegui Gastañarez, Esteban Mondragon Altuna, Valentin Moreno de Lucas, Silvestre Pildain Murgotio, Francisco Uribarren Erguin, Antonio Uribechevarria Alberdi, Serafin Vitoria Amozarrain, Daniel Zuazubiscar Aranburuzabala.

1941ko deialdia:

Jose Agirre Larzanguren. Fernando Aranburu Guridi, Eduardo Aranburuzabala Iñarra, Manuel Arizaga Echevarria, Gregorio Guridi Loidi, Martin Arregui Murua, Ricardo Arriaran Ortueta, Antonio Bedia Arregui, Felix Beitia Guridi, Alejandro



Esku bonba ELMAko ukondoekin eginda. Hau bera Jon Etxezarragak aurkitutakoa da Illordon mendian, Maltzaga gainean; hortaz, erabilitakoak ere 1936ko erresistentzian.



Rufino Ormaetxea Ibarrodo.

Beltran de Guevara Palacios, Manuel Ceciaga Ari-
zaga, Pablo Ceciaga Laspiur, Marcos Echevarria
Urcelay, Faustino Elcoro Idigoras, Hilario Elorza
Garcia, Pablo Ezcurra Zubizarreta, Pedro Fernandez
Prieto, Antonio Garate Umerez, Jose M^a Garay
Arregui, Vicente Garay Goenaga, Felix Garay Igar-
tua, Carlos Ginart Arzamendi, Jose M^a Guridi
Mendizabal, Jose Herrasti Ercilla, Modesto Heriz
Abarrategui, Roman M^a Heriz Aramburu, Lorenzo
Iria Eguiluz, Jose Luis Isasa Mercedo, Juan Isasi
Erguin, Juan Larrañaga Uribechevarria, Julio
Laspiur Azcarate, Tomas Leceta Aguirre, Jose Mar-
caide Gallastegui, Jose M^a Mercader Echevarria,
Francisco Mugica Madinabeitia, Felipe Murguzu
Yarza, Antonio Murua Iñurrigarro, Francisco Na-
farrete Mendizabal, Vicente Nafarrete Muñoa, Ga-
briel Oquina Ceciaga, Felix Ormaechea Letona,
Jesus Otaduy Belastegui, Jenaro Otaduy Uribesalgo,
Juan Oruna Balanzategui, Matias Sagasta Elorza,
Vicente Sagasta Unzurrunzaga, Pedro Sologaistoa
Iriarte, Florentino Ugarte Ayastuy, Tomas Uranga
Ormaechea, Juan Bautista Uribechevarria Osinaga,
Ildefonso Urra Arenaza, Roman Urquizu Murua,
Pedro Zubia Elizburu, Felipe Zuazubiscar Larra-
ñaga, Jose Zubillaga Eguiluz, Ignacio Arregui Al-
bizua, Domingo Astola Astola, Cipriano Bengoa
Gondra.

Mondrautar bat, Pedro Zumelaga, soldadutza
Iruñean egiten ari zen Cuerpo Montado de Inge-
nierosen, kontatzen du, lehenengo egun haiek
nola bizi izan zituzten: *Uztaila 18an esan ziguten:
Bueno, ustedes desde mañana acuartelados. 30 lagunetik
gitzen euskaldunak bi, bat ondarrukua eta beste bat
neu, naparrak kuotakuak, 10 hareik requetiak ziren,
hareik bazekiten nora goiezen. Denak kuotakoak ziren,
karrerak ikasten zaudenak eta gero importantiak izan
ziren. Beste 5 edo 6 asturianoak, baina mineroak, di-
namita manejetan zekixenak, beste 3 edo 4 reengantxuak.
Gero preguntau notzan nire lagunei, Hi galdetu zergaitik
gu sartu gauen. Gu mezetara joaten gintzelako eta ni
sanitarioa nintzelako. Emun zuztien motxila haundi
bat heriduak osatzeko, baina pentsau bez gerria egongo
zela. Esan guzkuen guri Madrilera joan behar gitzela,
huelguia euela Madrilen eta tranbiak eskoltetan eta
erabiltzen. Horixe zan esan guzkuena, bai zera! Fusilakin
jantzita eta korreak eta 150 kartutxo bizkarrian zelan
pixaketan zauen. Lo egiteko soltau egiten gauen, soltau
bakarrik e! Baina erantzi ez, zapatutik domekara egin*

gauen lo kuartelien, patixuan formau ginduen aparte.

*Etorri zan beste koartel batetik Mola Generala, gure
komandantia, ofizial mordo bat, pistolak eta ondo
armauta etorri zien. Dozena erdi bat falangista, pistola
ametralladorekin, eskuetan zituztela. Igo tabloi baten
gainera, bota euen diskurtso bat Republika ez zabilela
behar den moduan portetan eta irten egin behar gauela,
geratu ginen zur eta lur.*

*Hori pasau eta geldi-geldi danak, eta hasi zien
sartzen requetiak, jantzita kaki uniformauta soldautzan
moduan, eta ez dakit nondik urten auen be, kajak, fu-
silen kajak, barri-barrinak, emoten zotzien banan
banan, baina morduak! Eta gu bixen bitartian eguzkixan
danak han "Quieto paraus". Azkenengo sartu zirenak
izan ziren falangistak, berrehun bat edo sartuko ziren,
pistola ametralladoriaz. Elegantiak, denak zaulak
jantzita.*

*Gero eman guzkuen zaino batzuk, lata sardina, txo-
kolatia, ogixa, ardoa pote baten eta autobusera. Geldiketan
gitzen bakarrik txixa egiteko. Gaua ailegau egin zan
be, eta gu autobus barruan. Gure aurretik ikusi gauen
automobil baten gizon bat, eta entzun gauen: hori
afusilau egin behar daue. Eta 'efectivamente', hortik
aurrerau ikusi gauen gizona lurrian. Ezkertixaren bat
zala eta han utzi auen, lurrian botata.*

*Alfaron frentea zauela. Arbolak bide erdixan botata
asko. Gu orduantxe atera ginen autobusetik eta asturianoak
trilita paketetxoak ipini sua emon, arbolak erditik
ebakitzen zituen eta guk atera kamino basterrera. Ze
samur apurketan zien arbolak, galantak ziren eta asko
zazen. Calahorran kañoi batzuk ipini genitun, eta tiroka
Alfaren kontra. Gero Alfarora fan gitzen eta zezen
plazia, han auen Frente Popularreko jentia. Esan
guzkuen: Plaza torosa bota egin behar da eta etxe ahu be
bai. Plaza torosa dena ezin gaiken apurtu, etxia bai zus-
tarretik apurtu gauen. Goziak amorraketan, sartu gitzen
restaurante baten, jentia negarrez zauen han.¹⁹⁹*

Errioxan ez zen izan borrokarik bi bandoen
artean. Alfaro izan zen sabuespen bakarra bertako
bizilagunek erresistentzia txiki bat antolatu zutelako.
125 herritar erail zituzten.²⁰⁰

Gerrak aurrera egin ahala, 17 urte betetzen
zituzten gazteak soldadutza egitera deitzen zituzten
eta egun batzuk kuartelean eman ondoren, frontera
eramaten zituzten:

Ni 19 urtekin joan nintzen, gerra denboran, kinta aurrerratuak. Gero hantxe, gerria akabau arte. Bai, frentian. Lehenengo kuarteletik eruen ginttuen Bizkaiko frentera, Balmasedara. Hortik, gero frentia aurrera oiela, Santander, Asturias, Oviedoraino. Gero ha akabau zanian, Alto de Aragon egon gitzen, Jaka, Pirineosetan. Mobiru zan Aragoitik eta gero handik aurreraka-aurreraka, Kataluniara. Han beste egonaldi bat ein gauen, azkenengo ofensibia ein zanian handik aurrera, Geronara.

Gero, gerria akabau eta beste urtebete gehixau ein nauen soldau. Denbora gehixena destakamentuan ein gauen, Elizondon parte bat, Irun, Fuenterrabia... hortxe egonaldi bat, Burgosen beste egonaldi bat... azkenian Burgosen egon nitzen.²⁰¹

Soldauak barrez kantetan auen: “Las chicas de este pueblo a las chicas de este pueblo se le han llevado los rojos, y las pocas que han quedado no las queremos nosotros, no las queremos nosotros, y las pocas que han quedado no las queremos nosotros. Beti kantuan ibiltzen, han gure etxe aurrian etorten zien, beti kantuan egoten zien... a las que se quedaron, a las que se llevaron, a aquellas querían. Neska zaharrok, ez zituen gura. Gero pasetan zienian: “¡España!, ¡Una!, ¡España!” grande esan beharrian: “¡Dos!”, soldauak hirugarren aldiz: “¡España!, ¡Tres!”, eta aurrera... Así decían, gure etxetik pasetan zienian beti, gu planta bajan, begira.²⁰²

Florentino Gonzalez Beitia. Zauritua. 1937-01-07

Victor Balanzategui. Zauritua. 1937-01-21

Balbino Guridi Belategui. Zauritua

Tomas Cano Uribarren, Pedro Vitoria Albistegui eta Eugenio Barrutia Bengoa. Zaurituak 1937-05-11

Eusebio Barrutiabengoa eta Florencio Zubillaga Ugalde. Zaurituak 1937-05-11

Jose Maria Uranga, Teofilo Beltran, Angel Elorza Arenaza. Gaixorik.

Jesus Mondragon Zubia. Zauritua. Elbarria

Bernardo Balanzategui. Zauritua eta gero hila.

Nahitaezko soldadu

36ko gerrako arazo mingarri bat derrigorrezko soldaduak izan ziren, gerrara joatera behartuak,

armadara deitu zietelako. Horietako bat Ramon Ugalde Lizarralde izan zen, 1917ko urtarrilaren 28an Arrasaten jaioa. Harakin ikasle zela, 21 urte bete zituenean, soldaduska egitea egokitu zitzaion. Frontera joateko prest ez zegoenez, etxetik ihes egin eta hilabete eman zuen ezkutuan. Etxera itzuli zen eta hautatu behar izan zuen fusilamendua ala gerraren artean. Gerrara kinto gisa joatea erabaki zuen. Mosqueruelan (Teruel) hil zuten 1938ko maiatzaren 18an. (Anabel Ugalde Gorostiza)

Frontean hildako soldaduak

Jesus Amozarrain Unzueta 1914 Estación 1 – Arrasate

Vicente González Vergara (Errekete eta legionario) 1917 Ferrerías – Arrasate

Mariano Rubio

Pedro Echevarría Arregui Legution. 1914. Aranguren baserria – Musakola

León Echevarría Arregui Legution 1912. Aranguren baserria – Musakola

Antero Abarrategui Agirre 1912. Akixo baserria – Garagartza. 59 Infanteria Erregimendua, Melilla. Marokoko Armada.

Pablo Arregui Amilleta Bruneten. 1911. Casconategui baserria – Musakola

José Marichalar Iñurrategui 1914. Medio – Ataun

Lorenzo Escudero Pinacho 1914. Ferrerías 48 – Arrasate

Modesto Jaúregui Leibar 1914. Garagartzako Eskola

José Javier Goenaga Bastarrica 1913. Kataide baserria – Musakola

Leandro Guridi Idigoras 1912. Goiru baserria – Uribarri

Julian Abarrategui Abarrategui 1913. Ibarlucea baserria – Garagartza

Pedro Lizarralde Agirre 1911. Zaldibar. Antzarigartu

Ramón Ugalde Lizarralde Teruelen 1917. Azube-azpi baserria – San Andres

Pascasio Aperribay Oquina. 1911. Agirre 36 – Arrasate

José Barrena Amilibia Arrasate

Juan José Zabarte Abarrategui 1916 Argi-errota baserria – Gesalibar

Eugenio Balanzategui Furundarena (Lleida) 1919 Ferrerías 48 – Arrasate.²⁰³

Jarraian datozen bietatik lehenengoa euskal nacionalista zen eta bigarrena sozialista.

Sabino Ortiz de Guzman Castellonen Garibay 2 - Arrasate

Carmelo Balanzategui Zubizarreta Getxon 1919 Erdiko kale 5 – Arrasate

José Maria Urangak jaso zuen, Vicente Gonzalez, Leon Echevarria, Pablo Arregui, Lorenzo Escudero, Leandro Guridi eta Juan José Zabarte armadaren baitan zauden karlistak ziren.

Soldadutza egiteari uko egin ziotenak.

Beste 122 lagun iheslaritzat jo zituzten.

1915ean jaiotakoak:

Leon Aguiriano Arana, Felix Cortabarría Larzanguren.

1937/02/14:

Maximo Garate Umerez, Miguel Eguidazu Pagalday, Vicente Eguidazu Lizarralde, Justo Echevarria Ugalde, Jose M^a Echevarria Garay, Angel Cortabarría Basauri, Lucio Berecibar Ormazabal, Alejo Beitia Guridi, Victoriano Bedia Arregui, Felix Barrutia Guridi, Francisco Azcoaga Bidaburu, Jose M^a Arriaran Ortueta, Gregorio Arregui Amilleta, Esteban Altuna Narvaiza, Agapito Arana Velar, Juan Mondragon Uribarren,²⁰⁴ Emilio Inda Loza, Santiago Larrañaga Riviere, Tiburcio Marichalar Inurrategui, Felipe Murgoitio Madariaga, Felix Olave Arregui, Francisco Orobengoa Gonzalez, Juan M^a Otaduy Astola, Benjamin Pereira Juldain, Jose Ruiz de Escudero Beitia, Francisco Salaberri Urcelay, Gregorio Sampedro Azpiazu (faxistak eraila), Cruz Ugarte Azcauz, Cruz Villar Igartua, Jose M^a Zubia Alquibar, Pablo Zumelaga Ozaeta (Gasteizko espetxean).

1937/05/09:

Jose Aguirrebengoa Gallastegui, Manuel Amozarrain Oyanguren, Antonio Ansoategui Iregui, Luis Badiola Garechea, Luis Ramon Balanzategui Zubizarreta,

Jose Echagibel Otaduy, Jose Luis Ezcurra Areitio, Rafael Garcia Ibañez, Maximo Gonzalez Armentia, Gullermo Juldain Sainz, Ignacio Larrañaga Riviere, Martin Abarrategui Amirola, Miguel Menchaca Mancebo, Florenciano Mugica Madinabeitia, Valentin Olano Marzana, Lucio Otaduy Echaniz, Jesus Faustino Otaduy Heriz, Agustin Perez Balbas, Pablo Uribarren Altuna, Domingo Uribechevarria Aguirre, Jose Urquia Murua, Juan Vega Alvarez, Jose Villares Izaguirre, Alejandro Zubia Zumelaga.

1937ko uztailearen 22a:

Lazaro Aguirregomezcorta Echevarria, Luis Arana Maiztegui, Jose Benito Arriaran Ortueta, Francisco Azcoaga Dolara, Amos Azconaga Zubieta, Francisco Berezibar Otadui, Joaquin Campos Ramos, Andres Castello Fernandez, Fortunato Ceciaga Laspiur, Javier Cillaurren Cillaurren, Jesus Cortabarría Larzanguren, Felix Justo Gurruchaga Baños, Mauricio Echaburu Echevarria, Miguel Echaguibel Urizar, Pablo Echevarria Larrañaga, Raimundo Echevarria Ugalde, Jose Blas Fernandez de Arroyabe Olalde, Pedro Garay Igartua, Angel Basilio Garay Arregui, Epifanio Garcia Gamazo, Luis Garcia España, Ermogenes Gonzalez Escudero, Eusebio Goronaeta Mendizabal, Eugenio Guridi Balzategui, Alberto Herrera Delgado, Jesus Herrera Gonzalez, Manuel Ibarra Iriondo, Jose Ibarrondo Otadui, Carlos Igartua Azcuna, Domingo Marichalar Inurrategui, Candido Martin Fernandez, Aurelio Moya Moran, Luis Martinez Acha, Lucio Murgoitio Madariaga, Juan Oquina Ceciaga, Santos Urcelai Zarraoa, Emilio Vitoria Vitoria, Juan Cruz Zubia Garay, Jesus Mondragon Aranzabal.

1940ko deialdia:

Jose Maria Agirre Urreta, Benedicto Arregui Bringas, Felipe Ayastui Ugarte, Carmelo Balanzategui Zubizarreta, Miguel Cortabarría Basauri, Felix Epelde Dolara, Galberto Erguin Barquin, Miguel Garagarza, Ignacio Herrera Ruiz, Manuel Iturriaga Murua, Antonio Jimenez Valdes, Carlos Mercader Echaburu, Miguel Perez Murua, Julian Casanova Gomez.

1941ko deialdia:


Fermin Balanzategui Zubizarreta, Balbino Castello Fernandez, Joaquin Domingo Errarte, Ramon Gurruchaga Baños, Luis Mendizabal Altube, Jose



Donostian Maria Cristina hotela hartu zuen lehenengo taldea. Argazkian, etsaiari kendutako kanoi bat ikusi daiteke. Celestino Uriarte, Segundo Olazagoitia, Ibarra, Sagasta, Lucio, Uriona... arrasatearrak, Ibañez Hernanikoa, ...



Pedro Olmedo Paunero.



Arrasateko gerra partea.

Menchaca Mancebo, Mariano Monje Sanz, Jesus Ortiz de Guzman Gallastegui, Candido Ruiz de la Cuesta Gomez, Jose Santagueda Ugartemendia, Vicente Uranga Mendizabal, Felipe Vitoria Zabarte.

9.5.Gerraren Hastapena

Lehenengo Mugimenduak, Arrasate, Gasteiz eta Donostia

Lehen une horietan egoera oso nahasia zegoen, Arlaban aldera joan Gasteizen sartzeko, beste leku batzuetara joan, inork zer egin ez zekiela. Donostian Gobernu

Militarrak ez zuen definitzen bere jarrerarik, ez Errepublikarekiko leialen alde ez altxatuen alde, bien bitartean bazen Errepublikaren defentsarako batzorde bat, aginduak betetzen zituena, batez ere, jende susmagarria atxilotzen zuena; handik egun batzuetara gobernari zibilak esan zuen Errepublikarekiko leialekin zegoela bera.

Arrasaten, arma falta ikaragarria ikusirik, San Juan Bautista parrokia elizan tutu bihurguneak kargatzea antolatu zuten, esku bonbak bezala erabil ahal izateko. Dinamita multzo handia ekarri zuten eta mermelada moduko bat ere bai, lehertzeko gaia zen. Elizara eroan genuen, bonbak egiteko zen. Elmara joan ginen Eugenio Ortueta, Andres Castelo, Elias Olmedo eta neu. Ukondoak hartu, alde batetik itxi, burdinazko kanikak sartu, lehergaia eta detonadorea... Itxi, zulotxo bat egin tapakian eta metxa laburtxo bat sartzen genion.²⁰⁵

Zalantzazko une horietan Trintxerpetik CNTko jende multzoa iritsi zen Arrasatera Frente Popularrari armak eskatzeko, eta iskanbila bat sortu zen horregatik; azkenean Arrasaten arma gutxi zegoela konturaturik konpondu zen arte.²⁰⁶

E, ba, gu kalien gazela "gerriek urten dau, gerriek urten dau" eta en segida etorri zien zeretik, Donostiatik, Trintxerpe, Trint... zelan da? Trintxerpe?

Bai. Handik emakumiek eta danak, miliziano jantzitze ta eskopetakin ta. Gu sustautu. Emakumiek eta.

Baiña emakumiek soldauek?

Emakumiek pistolakin, eskopetakin! Hortik Donostiatik etorri zien.

Horrek milizianuak izengo zien. Ba milizianuak, orduen ez gekixen guk zertzuk zien milizianuok be ta.

Eta gero horreik, zu hamen kalian geratu ziñan edo etxera fan ziñan? Ez, ez, hemen, hemen. Gero, hau euen militarakin, ta Santa Ageda euen gorrixekin. Orduen gorrixek esaten jakuen. Ta ezin juan. (Inazia Llodio Bengoa, Ahotsak.eus)

Jose Mentxakaren testigantza: Gerra hasi zenean 15 urte neukan. Juventudes Socialistas Unificadas-ekoa nintzen; Herri Etxean agertu nintzen boluntario. Ikusi nuen lehen ekintzetako bat izan zen guardia zibilaren desarma; ez zuten kontra egin. Gero, Celestinok agiri bat eman zigun, Arrasateko Gerra komisarioak

sinaturik, Carlos Mercader, Andres Castelo eta niri, Udala eta Bedoña auzoetako baserri guztietara joateko eskopetak batzen, eta asko batu genituen. Regminton eta Mauser fusil zahar batzuk ziren; hainbat zauritu ziren, tiroak alderantziz jotzen zutelako. Gero, Santiago del Valle-ren (Txingolo) agindu pean jarri gintuzten, ogitartekoak gertatu eta eroateko guardia egiten ziharduten boluntarioei; talde txikietan, urdaiazpikotan joaten ginen baleez, Arkauzenera, Zarugalde kalean. Bizikletan joaten ginen Landaraino, mikeleteen etxera, eta Kurtzetarantz, ia Otxandioraino.

Azkenik, Gasteiz aldera abiatzeko agindua iritsi zen Donostiatik, han zaldizko erregimentu bat altxatu baitzen; kolumnetan banatu zen, militarren trenbidez joan ziren, eta milizianoak errepidez Arrasatetik Gasteiza. Esan zieten Arrasaten armamentua emango zietela; horregatik izan zen iskanbila hori, ikusi zutenean herri horretan ere ezin zietela eman armarik.

Uztailaren 20an Arrasaten guardia egiten zebilela, istripu batean zauritu zen Eugenio Bolinaga Velar. Uztailaren 29an Donostian hil zen, San Antonio Abad.²⁰⁷

Egun haietan, PNVkoak neutral agertu ziren, non nahiz eta ez egon errepublikaren aurka, ez zuten argi eta garbi egiten errepublikaren alde.²⁰⁸

9.6. Arrasateko Zutabea

Egun haietan, Arrasatearrek oso harreman estua mantentzen zuten Eibartarrekin. Hainbat eztabaidaren ondoren, Gasteiz askatzeko asmoz, erabaki zuten zutabe bat eratzea, Arrasate, Eibar eta Bergaratik etorritako langileen indarrez osatutakoa. Alde handia zegoen armamenduan batzuen eta besteen artean. Guk pistolak eta errebolberrak besterik ez genuen. Eta gainera, munizio falta. Bitartean, Bilbok lortu zuen mugimendu faxista geldiaraztea eta, Eraso Guardiaren pelotoi batek gure zutabearekin bat egin zuen. Pelotoiaren buru zen Cecilio Gomez tenientea, Celestino Uriartek eta Pedro Ruiz de Alegriak lagundu zutena. Ordurako, EAĴkoek erabaki zuten euren neutraltasun hura alde batera uztea eta, hauek ere, gure zutabearekin elkartu ziren.²⁰⁹

Hiriburua, Gasteiz erasotzera atera aurretik, Arrasateko plazan elkartu ginen indar guztiak. Celestino Uriartek balkoitik hitz egin zigun. Gasteizera iristeko kilometro gutxi falta zirenean, militarrek Donostian egindako altxamenduaren berri izan genuen. Orduan, erabaki

genuen berriro ere itzultzea. Zutabea Arrasatetik atera eta Landan gelditu zen, Gasteiztik 15 kilometrora erasoaren aurretik azken detaileak zehazteko. Ordu gutxira, Eibartik zetorren motozikleta batean ekarri zuten Gerra Batzordearen agindua, non, itzuli eta Eibarrera joan behar genuen, handik, Donostiarantz abiatzeko, Loiolan kuarteratutako Ingeniari Errejimendua matxinatu egin zelako indar faxisten laguntzarekin.²¹⁰

Guillermo Lasagabasterrek zehatz-mehatz azaldu zigun zer egin zuen Gipuzkoako zutabea: Gipuzkoako zutabea: 20ko gauean bertan automobil ilara bat etorri zen Eibartik, Cecilio Gómez asaltoko gardien tenientearen aginduetara, eta gazte eibartar haiek Arrasatekoekin elkartu ziren. Gure helburua zen goizaldeko lehen orduan Gasteiz aldera hurbiltzea, ez baikenekien etsaiak non aurkituko genituen. Abiatu ginen hilaren 20an goizeko bostetan [akatsa da, 21ean izan baitzen], Cecilio Gómezen esanera, batzuk autobusez errepidean zehar eta beste batzuk, bitartekariak, oinez mendian barrena. Inolako gorabeherarik izan gabe, Landara iritsi eta gure posizioetan kokatu ginen, Gerra Batzordearekin ados jarrita. Izan ere, aginduak Batzordeak ematen zizkigun.

Gerra Batzordeari Gasteiztik jakinarazi zioten errepublikanoz beteta tren berezi batek irten zuela eta Arrasatera zihoala, telefono dei baten bidez. Batzordekoek ez zuten sinetsi, Gasteiz faxisten mende egonik errepublikanoak handik tren batean ateratzea zeharo burugabea iruditu baitzitzaien. Gauzak horrela, prestatu egin ginen. Cecilio Gómez tenienteak oso agindu zorrotzak eman zizkigun: trena etorri gero, argi zegoen barruan Errepublikaren kontra altxatutako militar traidoreak aurkituko genituela, eta ez errepublikanoak. Beraz, esan zigun Landako geltokitik hurbil zegoen trenbide bihurgunean harriz eta hondar zakuz betetako auto bat jartzeko, trenak talka egin zezan.

Trenari bidea mozteko zuhaitz batzuk ezarri eta gero, harri eta zur geratu ginen errepidetik automóvil bat hurbiltzen ikusi genuenean. Bertan, buruzagi militar eta falangista batzuk zetozen bazterrak arakatzerako. Cecilio Gómezek esan zigun tirokatzeko, baina, deskarga itxi bat jaurti genien arren, gidariak azkar-azkar biratu eta ihes egitea lortu zuen. Gidariaren erreakzio lasai, kementsu eta adoretuari esker, barruko inor ere ez zen hil. Dena den, tiroketaren ondorioz, autoak kristalak hautsita eta gurpilak zulatuta zituen. Orduan, Gasteiztik alde egindako gure kide batzuk iritsi ziren. Hiriburuan

gauzak zertan ziren azaldu eta azkar erasotzeko esan ziguten, erraz menderatuko genuelakoan.

Guk tirokatutako autoa errepidean ikusi zuten: barrukoak bendatuta zeuden, baina itxuraz zauri arinak zituzten. Gero, kontserba hotzak jan eta ardo pixkat edan genuen. Halako batean, autobusak hasi ziren iristen, denak milizianoz gainezka. Eibartik eta beste toki batzuetatik zetozen Gasteizko eraso prestatzera. Bat-batean, Gasteizko propaganda hegazkin txiki bat azaldu zen zeruan. In-guruak miatu eta bueltan joan zen.

Bitartean, Arrasaten kuarter nagusia sortu zuten, Errepublikaren aldeko indarrak eta alde guztietatik iristen ari ziren milaka miliziano boluntarioak bertan elkartzeko. Carrasco koronelak Fronte Popularreko buruei hitzeman zien arren euren esanak beteko zituela, matxinatzea erabaki zuen, legezko gobernuarekin leialak izaten jarraitzen zuten agintariak Donostiatik Arrasatera abiatu zirela jakin zuenean. Arratsaldeko bostetan, Gasteiz konkistatzeko irrikan eta zeharo kementsu geundela, agindu desatsegina iritsi zitzaigun Arrasateko kuarter nagusitik: gure asmoak bertan behera uzteko eta Arrasatera itzultzeko, Carrasco koronela Donostian matxinatu zelako.

Arrasatera iritsitakoan, une hunkigarriak izan genituen biztanle zibilekin eta, bereziki, emazte eta emaztegaiekin, baina azkar agurtu genituen, presaka genbiltzalako. Iluntzeko zazpitan iritsi ginen Eibarrera. Ezin konta ahala karabana zeuden bertan, eta afari hotza jan genuen. Zortzietan, albiste txarra eman ziguten telefonoz: Arrasateko guardia zibilen kuartela matxinatu egin zela, gazte guztiak herritik joan eta gero. Gipuzkoako mugimendua geldiarazteak lehenetsua zuenez, aurrera jarraitu genuen, berriari jaramonik egin gabe. Zortzi eta erdietan, milizianoz betetako autobusak banan-banan abiatu ziren. Goizaldeko bostetan Donostiatik hurbil geunden jadanik. Badaezpada ere, etsaiak gure iritsieraz ez konturatzeko, autobus guztiek farolak itzalita zeramatzen. Goizeko zazpitan hirirako bidea hartu eta lehen kaleetan sartu ginen, Garmendia komandantearen eta beste buru batzuen agindupean. Iltaran gindoazen denok, banan-banan.

Marcos Vitoriak kontatzen digu zehatz-mehatz zelan atxiki zitzaizkion Arrasateko guardia zibilak errepublikari:

Gasteizera joatea erabaki zuten, baina 17 kilometro egin eta Gasteizera iritsi baino lehen, kontrako agindua eman zieten, buelta erdi eman eta Donostiarantz egin zuten; une hartan Defentsa Batzordea Eibarren zegoen

eta telefonoz abisu bat jaso zuten, Arrasateko guardia zibilen kuartelean inguruko guardia zibil guztiak batzen ari zirela; une hartan, Bilbotik iritsi zen Eibarrera zutabe militar bat, Zubizarreta asalto tenientea buru zuela –hura, egun batzuk geroago, Donostia hartzerakoan hil zen– eta zutabe militar hura, gelditzen ziren Arrasateko hiru edo laurekin eta blindatuekin, Arrasatera joan zen. Jende dezente zihoan, ondo armaturik metrailadoreez, 81eko morteroz zihoazen Garibai kaletik, eta bide erdian gelditu ziren.

Zubizarreta asalto tenientea, nirekin, kuartelera joan zen; bitartean tropak posizioak hartu zituen, eta mugimendu horiek guztiak ikusi zituzten kuarteletik; tenientea iritsi zen atera eta seguru deitu zuen: “Zabaldu atea”. Barrukoek erantzun zuten ez zeudela ez batzuen alde ez besteen alde, telefonoz deitu zieten-eta bando bietatik, eta ez zekiten zer egin; tenienteak berriro esan zien eta guardia zibilek erantzun zuten ez zutela gura zibilik barruan; hortaz, tenientea sartu zen eta ni kanpoan geratu nintzen. Minutu batzuk igaro ziren eta handik apur batera irten zen tenientea postuko brigadarekin, eta dena erabaki zen borrokan egin barik. Egoera lasaitu zen asaltoko tenientearen zutabearen zetozelako guardia zibilak. Armak kendu zizkien kuartelekoei eta kamioi batean sartu ziren Donostiarantz; gero, horietako batzuek desertatu egin zuten eta beste batzuk hil egin ziren. Arrasateko postuan geratu ziren Bilboko zutabe militarrean zetozen guardiak.²¹¹

Berriro ere abiatu zen zutabea, baina, oraingo honetan, kontrako norabidean. Arrasateko EAJko kide batzuk Gasteizera joandako zutabearekin batera joan ziren, baina, itzuli zirenean Arrasatera, haiekin ez jarraitzea erabaki zuten. Eibarrera iristean izan zuten Arrasatearrek euren lehenengo baja. Gabino Arano arma garbitzen ari zen kide batek zauritu zuen nahigabe berna batean. Erren geratu zen betirako. Ismael Diez ere zauritu zuten.

Eibarren ordu batzuk igaro ondoren abiatu ginen Donostiarantz. Egunsentian iritsi ginen. Ordurako, matxinatuek indar handia zuten, Loiolako Kuartela, Casino, Gobernu Militarra eta Maria Cristina Hotela okupatuta baitzituzten.²¹²

Egun haietan, 1936ko uztailaren 28an, erail zuten Atondon (Nafarroa) Rufino Ormaetxea Ibarrondo, Arrasateko karlista batzuk salatu zuten Etxarri-Aranatzen. 30 urte zituen eta Unión Cerrajerako doitzaila zen, ezkondua eta alaba batekin, Juventudes Socialistas Unificadas eta UGTko kidea.

Donostiaren birkonkistatzea

Borroka oso gogorra izan zen. Pasaia, Errenteria, Irun eta Hernanitik etorritako jendea ere bazegoen Donostian. Arrasatek joandako indar armatuek parte hartu zuen Kasinoa, Gobernu militarra eta Maria Cristina hotela hartzeko ahaleginetan.

Lucio Goronaeta Mendizabal-ek dioenaren arabera: “Uztailaren 22an-edo joan ginen Arrasatek Donostiara, borrokan parte hartzen; agintean geneukan asaltoko gardien teniente bat, Cecilio Gómez; Lasartera iritsitakoan indar guztien arduradun egin zuten Pérez Garmendia, Estatu Nagusiaren komandantea. Donostiara iritsitakoan, Gobernu Zibilarren eta Maria Kristina hotelaren aurrean, asalto guardia batzuek ziria sartu ziguten; haiek zeuden Leoz abizena zeukan artilleria teniente baten agindupean; lurrean utzi genituen aldean geneuzkan arma apurrak, haiek bere armak entregatu behar zizkiguten, eta atxilotu gintuzten eta jarri gintuzten Maria Kristina hoteleko burdin hesietan gatibu edo luebaki moduan, eta halaxe egon ginen sei edo zortzi orduan, borrokaldia bukatu zen arte. Haietako bat zen Celestino, kideetako batzuk halaxe hil ziren.”²¹³

Hona nola kontatzen duen Celestino Uriartek: Gu, dio, Eibarko kolumnarekin batu ginen, eta Donostia ingurura iritsi eta indar armatuak banatu zirenean, Cecilio Gomez asaltoko tenientearen agindupean jarri gintuzten. Hura bai zela elementua! -komentatzen du. Nik ikusi dudana gizonik ausartena baizen! Pozik gindoazen gu!... Perez Garmendiak agindua eman zion Cecilio tenienteari Donostian errepide jeneraletik sartzeko. Eta halaxe egin genuen, egin ere. Baina Antiguako tuneletik irten bezain laster hasi zitzaizkigun tiro eta tiro Kontxako etxeetatik. Hala eta guztiz ere mendi kontrako paretari estu-estu erantsirik La Perlaraino iritsi ginen gure bidetik, eta handik aurrera San Martin kaletik barrena sartu ginen hirian.

Buen Pastorreko plazara iritsi ginenean kontu handiz ibili behar izan genuen. Etsaiak metraileta bat zeukan jarria, eta pasadizo guztia harrapatzen zuen bere iris-

ptidean. *Banan-banan, ahal bezain azkar arineketan eginez, oztopo hura gainditu eta Foruetako ibilbideraino iritsi ginen. Ibilbide hartako zuhaitzen azpian Guardia Zibil eta asaltoko Guardiaz osatutako patruila handi bat ikusi genuen. Beraiek ere ikusi gintuzten. "Viva la República! UHP! (Unión de Hermanos Proletarios) -egin ziguten oihu. Guk ere era berean erantzun genien, eta elkarrengana hurbildu ginen. Gurekin zetozen asaltoko Guardia batzuei poza nabari zitzaien, gorputz bereko kideen leialtasuna frogatzean... Gutxi irauan zigan ordea ilusioak. Elkartu ginenean galdetu ziguten: "Ze arma dakarzu?" Gure pistolak erakutsi genizkien. "Horrek ez du ezertarako balio -esan zigiten-. Laga itzazue lurrean eta gureak emango dizkizuegu".*

Gure jendea fidaturik, eta arma luzeak hartzeko irrikaz, haien eskabidea betetzera plantatu zen. Baina Guardia haien poz itxurak gauza bereziren bat susmaarazi zidan, eta oihuka hasi nintzaien: "Kontuz! Ez utzi armak!..." Beranduegi zen ordurako, ordea. Haien armen kanoiak guri begira geneuzkan, eta artean armak utzi gabe geneuzkan guztiak desarmatu gintuzten. "Bandidoak! -egiten ziguten oihu guardiek-. UHP orduan ezta? Unión de Hijos de ...!" Asmatzen zituzten irainik handienak jasan behar izan genituen. Lotsagarritzko modu horretan Zurriolako ibilbidera eraman gintuzten Cristina hotela eta Gobernu Zibil bitartera. Gobernuko eraikuntzan ez zegoen inor. Cristinan, berriz, sartu eta irten zebiltzan guardiak eta ofizialak; ikusten gintuztenean zaparradan jaurtikitzen zizkiguten irainak. Leoz tenientea nabarmentzen zen horretan, neurri gabeko sadismoarekin; lehen ere nabarmendua zen hura urriko gertakarien errepresioan; geroago Ondarretako espetxean fusilatu zuten.

Ibilbideko zuhaizpean pilan jarririk bertatik bertara tirokatu gintuzten; gutako asko han geratu ziren. Lurrean etzan ginen denak, eta han ere tiroka aritu zitzaizkigun. Pixka batera, ostera, iritzia aldatu zuten nonbait, eta agindu zuten: "Zaurituta ez daudenak, jarri zutik!" Asko ginen oraindik, eta hotelaren lorategira eraman gintuzten. Ordurako kolumna popularreko beste talde batzuk tiroka hasiak ziren gertuko beste zenbait lekutatik. Horrexek pentsarazirik nonbait, gure zaintzaileek ez zuten ideia hoberik asmatu geu itxurako burdinetan parapeto moduan jartzea baino.

Maria Cristina hotela hartzeak lan asko eta bizitza ugari eraman zuen. Eraikuntza handi hura defen-

ditzen ari zirenak tiraleku ederrak zituzten, eta aise ehizatzen zuten gauzez nahiz egunez hara hurbiltzen zen edonor.

Urriaren 28rako Donostiako altxamedua porrot egina zen.

Hildako eta zauritu asko egon ziren eta gerra krudel haren lehenengo bost hildakoak Arrasatekoak izan ziren.

Eusebio Berecibar Otadui.

Benito Uranga.

Camilo Ibañez.

Pedro Olmedo Paunero

Pedro Zorita. Goardia Zibila.

Gero gerra hasi zen. Nire anaia Pedrok Cerrajeran egiten zuen lan. Hemendik Donostia hartzera abiatu eta hurrengo egunean hil zuten. Autobus asko jendez bete ziren Donostia berreskuratzera. Arrasatetik bertatik, Eibartik, herri askotatik.... Hurrengo egunean hil zuten, Maria Cristina hotelaren ondoan.²¹⁴

Hura izan zen Euskal Herriko borrokan atal hunkigarrietariko bat. Gure milizianoek, gure gudariak, ezkerreko gudariak, gudari sozialistek, komunistek, anarkistek eta gudari errepublikarrek batera hiria berreskuratu zutenekoa. Gudari nazionalistek ez zuten oraindik parte hartzen. Ez gatazkatik at sentitzen zelako, baizik eta, zain mantentzeko jarrera izatea erabaki zuelako.²¹⁵

Donostia hartzeko erasoetan parte hartu genuen Arrasateko milizianoak ordezkatu gintuzten beste miliziano batzuek eta, autobusetan, Arrasatera etorri ginen. Asko izan ziren borrokan hil edo zauritutakoak. Lasarte defendatzera joatekoak ginela, agindua iritsi zen esanez, etxean fusilik zuenak hara eraman behar zuela. Arrasaten 10 fusil besterik ez zegoen eta hamarrak eraman zituzten. Han hil zuten Cecilio Gomez, Eraso Guardiaren tenientea, milizien buruzagi adoretua. Armamentu eta munizio eskasiaren ondorioz ia Gipuzkoa osoa galdu genuen.²¹⁶

Gertakari haietan gehien nabarmendu zen erakundeetako bat CNT izan zen. Erakunde horretako buruzagietako bat arrasatearra zen. Felix Liquiniano. Arrasaten jaioa, hemen bizi izan zen soldadutzara joan zen arte. Soldadutzan zegoela iritsi zen Errepublikaren ezartzea; 15 urteko kartzela zigorra eman zioten janariagatik protesta bat antolatu zue-

lako. 1933an amnistiatu zutenean, CNTko kide egin zen. Gerrak iraun zuen bitartean, Euskadiz gainera, Madrilen, Aragoian eta Katalunian egon zen. Frantziara ihes eginik, Frantziako erresistentzian parte hartu zuen, eta Europako gerra amaitu ondoren makien artean aritu zen.

Langileen Jarraipenerako Neurriak

Arrasate kolpe militarren kontra borrokatu zuten erresistenteen kontrolpean egon zen bi hilabetez, lantegietako produkzioan eta garraiobideetan lan egiten zuten langileen jarraipena egin zuten, honetarako, beharrezko neurriak jarri.

Abuztuaren 3an, Donostia berriz konkistatu eta hara joandako ehunka arrasatearrak herrira itzuli ondoren, Unión Cerrajera bezalako lantegiek euren jarduera industrialari ekin zioten jaurtigaiak fabrikatzen. Lantegi haiek guztiak Defentsa Batzordeak kontrolatzen zituen.²¹⁷ Abuztuaren 3tik arrera, egunero joan zen Unión Cerrajerara lanera, enpresa gorri separatisten menpe egon zen bitartean.²¹⁸

1936ko irailaren 9an, UGTko Sindicato Ferroviarioko agenteak Arrasaten bildu eta erabaki haiek hartu zituzten: Ferrokarril Vasco-Navarroko Langileen Jarraipenerako Batzordea eratzea Gatzagatik Mekolaldeko sekzioan eta San Prudentziotik Oñatirako trenbidearen adarrean lan egiten zutenak kontrolatzeko. Hautatu zituzten: Enrique Perez, Nicolas Aranburu, Cayetano Chavarria, Evasio Pedrejon eta Emiliano Pinto. Batzorde hura arduratu zen zerbitzuak kontrolatzeaz, betiere Arrasateko Errepublikaren Defentsa Batzordearekin ados jarrita. Langileei soldatak ordaintzeaz arduratu zen, eta gainontzeko Tren Batzordeekin harremanetan egon zen.²¹⁹ Ebakuatu aurretik, batzorde haietan erabaki zuten, trenbideetako zubiak lehertu, trenbideak altxatu, ELMA eta Unión Cerrajerako galdategiak lehertu eta piezak kenduz makina asko matxuratzea handik eramanez ez zituzten.

9.7. EAJ eta Altxamendua

1931-36 bitarteko EAJ hura katoliko izateaz gainera, euskalduna, herritarra, autonomista eta demokrata ere bazen, gauza guztien gainetik. Bazekien ezer itzaroterik ez zuela, José Calvo Sotelo, Espai-

niako eskuinaren liderrak artean aspaldi ez zela eta hain zuzen euskal nazionalismoari buruz ari zela esan zuen bezalaxe, Espainia hautsia baino Espainia gorria nahiago zukeen Espainia nazional batean. Horregatik, EAJk uztailaren 18ari eman zion erantzuna bere izatearekin koherentea izan zen: demokraziarekiko atxikimendu agiri eta zinezkoa, eta ezker iraultzailearekiko urruntasun kontuzkoa. Egia da Nafarroan eta Araban neutraltasunerako tentaldiak izan zituela. Napar Buru Batzarrak, adibidez, Nafarroan nazionalismoak zuen organorik gorenak, ohar bat argitaratu ere egin zuen, eta Errepublikaren Gobernuarekiko harremanak etentzat eman zituen. Araban EAJk ez zuen sinatu ezkerak uztailaren 18rako lanuzte orokorrerako egina zuen deia; are gehiago, EAJko bi buruzagiren idatzi bat -Landaburu eta Ibarrolarena argitaratu ere egin zen, eskatzeko altxamenduen arrakasta “ez eragotzi eta laguntzeko”. Donostian eta Bilbon, berriz, EAJk aukera egin zuen argi eta garbi Errepublikaren alde. Donostian, legezkoa zen gobernuarekiko atxikimenduzko agiri bat argitaratu zuen lehenengo alderdia izan zen (nahiz eta egia den alderdi errepublikano eta ezkertiarrek horrelakorik zertan eginik ez zutela). Uztailaren 19an, Euskadi Buru Batzarrak, alderdiaren organo gorenak, agiria argitaratu zuen herritarren eta Errepublikaren alde, “faxismoaren eta monarkiaren kontra”.²²⁰

Uztailaren 29an irabaziak zituzten Loiolako Kuartelak. Gipuzkoako Medigoizale Batzak ohar bat argitaratu zuen Frente Popular egunkarian, zeinetan esan zuen Frente Popularrarekin harremanetan zeudela eta eskatu zuen Errepublikaren alde mirespena eta euskal kausa sentitzen zuten guztiek Frente Popularrean izena emateko. Egun batzuk aurrerago, abuztuaren 15ean, Euzko Gudarosteak honako oharra argitaratu zuen egunkari berdinean: *Euskal Miliziak sortu dira. Kuartel Nagusiak daude Loiolan (Azpeitia). Milizien lema da Jainkoa eta Askatasuna Aberria. Gure kontsigna demokrazia eta errepublikaren alde eta diktaduraren eta faxismoaren aurka borrokatzea. Biharko zeregina dugu aberriaren hurraldetasunaren subirotasuna aldarrikatzea. Etorri Euskal Milizietara. Haiei esker lortuko dugu altxamendu militarra garaitzea eta Euskadi aske bat izatea. Gora Askatasuna! Gora Errepublika! Gora Euzkadi!*²²¹

Euzko Gudarostearen sorrera

EAJ berandu hasi zen milizia armatuak sortzen. *Uztaila bukaeran, EAJko ordezkariak bat etorri zen, Bergaran Azkarate, Bergaran sendagilea Mugika eta Arrasaten Gorroñogoitiak osatutakoa, eta azaldu ziguten altxamendu militarra euskal nazionalistek zuzendutakoa zela, bai Nafarroan, bai Araban. Gasteiztik ihesi zetozenek kontatzen zuten euskal nazionalistak hirian sufritzen ari ziren jazarpena, nazionalisten guneen eta Solidaridad de Trabajadores Vascosen guneen itxierak, ... Hari aurre egin eta gure bizitzaren eta lurraldearen defentsan, ezinbestekoa zen boluntariok erreklutatzea. Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaioko Nazionalisten Junta Munizipalek erabaki zuten kuartel bat jartzea herri haietako euskal milizianoentzat. Hura iraila hasieran izan zen. Eskoriatzako Marianisten eraikinean jarri zuten kuartela, eta "Cuartel de milicias vascas de Leniz" izena jarri zioten.*²²²

Euzko Gudarostearen sorrera abuztuaren 6an hasi zen Azpeitian. Hilabete hartan 1.500 boluntario joan ziren Azpeitira, haietariko 33 Arrasatekoak. Faxismoari eutsi zion lehenengo frontea izan zen Bidania eta Ventas de Zarate. Gero, gehiengoa Amayurren (EAJ) sartu zen, eta besteak ANV, San Andres (STV-ELA) eta Itxarkundian.(EAJ)

Jose Gorroñogoitia Sein, 43, Amayur
 Joaquin Garmendia Alava, 1344, Amayur
 Juan Azcarate Isasmendi 1184, Amayur
 Vicente Egidazu Lizarralde 1325, Amayur
 Pablo Bolinaga Arregi 1342, Amayur
 Segundo Ceciaga Uriarte 1315, Amayur
 Gregorio Ceciaga Laspiur, 1206, Itxarkundia
 Juan Barrutia Gallastegi, 1314, Amayur
 Joseba Uribechevarria Osinaga, 1346, Amayur
 Santos Ceciaga, 1334, Amayur
 Jesus Mendizabal Urtubai, 1343, Amayur
 Jose Etxagibel Otadui, 1333, Amayur
 Ramon Bidaburu Aranburuzabala, 1338, Amayur
 Sabin Iturriaga Murua, 1208, Amayur
 Vicente Juldain Sainz, 1190, Amayur
 Gregorio Yarza Abalia, 671, San Andres

Jose Miguel Egidazu, 1319, Amayur
 Cruz Villar Igartua, 622, Amayur
 Jose Barrutia Gallastegi, 1322, Amayur
 Sabino Arrieta Arregi, 623, Amayur
 Sabin Garai Arregi, 1331, Amayur
 Jose Jauregi Pagoaga, 296, ANV
 Alberto Arabaolaza Abarrategi, 727, Amayur
 Maximo Gallastegi Elejalde, 1311, Amayur
 Telesforo Galdos Ugalde, 1205, Amayur
 Juan Azcoaga Bidaburu, 1209, Amayur
 Juan Axpe Zubia, 1200, Amayur
 Esteban Zaitegi Ceciaga, 1191, Amayur
 Pablo Uribarren Altuna, 1328, Amayur
 Jesus Narvaiza Larrañaga, 1323, Amayur
 Lorenzo Urrutia Arregi 1318, Amayur
 Gabino Vitoria Albistegi, 1186, Amayur²²³
 Felix Iraola Otadui, Amayur

*Gerrara boluntarixoa, Batzokitik deitu Loyolara, kuartelera, eta "Ez fateko, ez dauela armarik". Hurrengo egunien rekisau kamioneta zahar bat eta han presentau gizen. Loyolan. Loyolan ez zauen ez armarik eta ez ezebe, egun batzuk han egon gizen, eta azkenian eskopeta zahar bat emon guzkuen, hemendik hara, hor-maraino botatzen zauena tiroa eta harexekin mendira. Lenengo egunian, lenengo hildakua, mikelate bat.*²²⁴

Euskal kleroaren banaketa.

Abuztuaren 6an Iruñeko eta Gasteizko gotzainek, Olaetxea eta Mujika, gutun pastoral bateratu bat izenpetu zuten altxamenduaren zilegitasuna defenditzeko, erlijioaren defentsako gerra zen heinean. Dei egiten zieten Euskadiko eta Nafarroako katoliko guztiei komunismoaren kontra borroka egin zezaten, eta gogor salatzen eta gaitzesten zuten katoliko horietako batzuk Errepublikari eskaintzen zioten laguntza (EAJ nabarmen aipatu zuten). Gurutzadaren teoria bermatzen zen beraz.

Jakina da Espainiako gerran eliza katolikoak, oro har, joera garbia izan zuela matxinatuen alde. Salbuespenik nabarmenenak gertatu ziren Euskal Herrian eta, maila apalagoan, Katalunian.



EAJkoak Erroman 1936ko urtarrilean. Zutik: Jose Antonio Agirre, Manu Robles-Arangiz, Francisco Basterretxea, Doroteo Ciaurriz, Heliodoro de la Torre, Jose Eizagirre, Juanon Kareaga. Eserita: Manuel Irujo, Pablo Eguileor, Evaristo de Etxebarrieta, Xabier Landaburu.

Euskal Herriko kleroaren zati handi batek, oster, jarrera hartu zuen agintaritza konstituzionalaren alde, eta beste multzo handi batek erbesteratu egin behar izan zuen.

Jose Joaquin Arin eta Leonardo Guridi, parrokoa eta apaiza, akusatu zituzten dokumentu bat sinatu izanaz, lehen aipatu pastoral, abuztuaren 6koa, eta erail egin zituzten.

114 elizgizon milizianoen kapilau izan ziren. Isaak Uribesalgo Unzueta 27 urteko kapilau arrasatearra atxilotu zuten, Arana y Goñi batailoikoa. 1937ko irailaren 9an epaitu eta absolbitu egin zuten. Tiburcio Sagasta Unzurrunzaga 24 urteko arrasatearraren kasuan, nazionalista zela argudiatuz, Lauzirika gotzaina bere ordenazioaren kontra jarri zen, eta Bizkaira desterratu zuten, Gatika eta Lujuara

Faxistek 17 apaiz erail zituzten, haietariko hiru nafarrak. Debagoienean lau. Beste bat kartzelan hil zen. 132 prozesatu eta 3 heriotza zigorrera kondenatu bazituzten ere ez zituzten exekutatu (1944tik aurrera prozesuak ireki zituzten apaiz gehiagoren kontra). Beste 20ri ezarri zieten bizi arteko kartzela zigorra, 57 zigortu zituzten kartzela zigor ezberdinetara, kondenak ziren betetzea hilabete gutxi batzuk edo hogeit urtera artekoak, ... eta prozesatu

ondoren absolbitutako ia apaiz guztiak desterratu egin zituzten, eta haien jarduera Euskaditik egitera derrigortu zituzten. Nazionalismoarekiko edota Eusko Jaurlaritzarekiko sinpatia izatea edo "Euzkadi" egunkariaren irakurle izatea arrazoi nahikoa zen euskal parroketan haien jarduera egitea debekatzeko. Beste asko, 800dik gora, atzerrira joan ziren faxisten atzaparretatik ihesi.

Mujika gotzainak, ordea, errebeldeen zonan zer gertatzen zen konturatu zenean, atzera egin zuen eta 1936ko urriaren 21ean gutun bat bidali zuen Erromara, hau esateko: *Euskal abertzaletasunak dituen zilegizko nahikundeekin bat zetozen apaizak jazarriak direla, frogarik gabe zigortzen dituztela, ez dela eliz gizonen fuerorik errespetatzen, eta ez direla ezertan aintzakotzat hartzen eliz agintariak.*

1936ko urtarrilean EAJ Erromara joan zen, Elizako agintaritza gorenaren aurrera. EAJk Monsignore Pizardoren aurrean bere katolikotasuna aitortu zuenean, Gil Roblesen CEDArekin bat egiteko proposatu zien hark, *Jainkoa dela lehendabizi, eta gero datorrela aberria eta.* EAJk ezkerren alde egin zuen apustua; eskuina autonomia ororen etsaia zen eta.

Arrasateko kasura gatozela, esan dezagun gerraren hasieran Frente Popularrak agintea bere eskuetan izan zuen bi hilabete (1936ko uztailetik irailera),

Arrasateko abade, fraide eta mojek ez zutela aparteko arazorik eduki, egoera berezi hark mundu guztiari ekarri zizkion murrizketetatik aparte.

1936ko abuztuaren 4an, Arrasateko Udalbatzak aho batez onartu zuen Nicolas Uriarte alkatearen proposamena:

Militarrek eta faxistek Erregimen Errepublikarraren aurka sortutako mugimendu subertsiboaren aurrean, ondorengo erabakiak hartzea proposatzen du:

Bat. Herri honetako udalak erabateko gaitzespena adierazten du sedizio mugimendu honen sustatzaileentzat.

Bi. Gure atxikimendurik sutsuena adierazten diogu Estatu Espainoleko gobernu legitimoari

Hiru. Fronte Popularraren milizien alde harpidetza publikoa irekitzea diru laguntza jasotzeko. Udalak hasiko du zerrenda hau 5.000 pezetako diru laguntza jarritz.

Lau. Aktan jasota gera dadila korporazio honek saminik sentikorrena adierazten duela jarraian agertzen diren herritarren heriotzarengatik: Camilo Ibañez, Benito Uranga, Pedro Olmedo, Eusebio Berecibar, Pedro Zorita guardia zibila eta zorigaiztoko istripu hartan bizia galdu zuen Eugenio Bolinaga Velar milizianoa.

Bost. Errepublikaren Defentsarako Komite Lokala zoriontzea, herri honetako Milizia Popularrak izan duen portaera eredugarriarengatik.

9.8.Funtzionarioen depurazioa

Arrasateko Defentsa Batzordeak 1936ko azaroaren 7an hartutako erabakia

Probintziako Gobernadore Zibilak aurreko abuztuaren 8an igorritako zirkularra irakurri ondoren, hau da, mugimendu subertsiboan parte hartu duten edo erregimenaren etsaiak diren probintzia zein udal langileen kargugabetzeak eskatzen dituen abuztuaren 4ko Ministro Kontseiluaren Lehendakari-tzaren dekretua betetzeko eskaeraren inguruan Defentsa Batzorde honek honako erabakia hartu du: - *Abuztuaren 2ko dekretuak agindutakoa betetzeko, probintzia honetako gobernadore zibilar informazio hau helaraztea: Miguel Mendieta, gaueko udaltzaina, Bonifazio Zubialdea, eguneko udaltzaina, Cruz Medinabeitia, Alondegi Munizipaleko administratzailea, Carmelo Madinabeitia, Alondegiko laguntzailea, Prudencio Iraeta, Korporazioko idazkaria, Gregorio Juldain, funtsen kontu*

*hartzailea eta Jose M^o Ayani idazkaritza laguntzailea, dekretuan jasotako kasuetan aurkitzen direla. - Era berean, batzorde honek erabakia hartu du jarrarian agertzen diren zinegotziak beren karguetatik kentzeko: Resusta, independentea, Luis M^o de Ubago, erradikala, Antonio Pagoaga, Isidoro Echevarría, José Zulueta eta Robustiano Zubillaga, tradizionalista. Patricio Osinagaren kargugabetzea, aldiz, berak militatzen duen Eusko Alderdi Jeltzalearen esku uzten dugu eta erakunde politiko horrek hartu beharko du behin betiko erabakia. - Eta, azkenik, gobernadoreak kargugabetzeen inguruan txostena den aurreko akordioa onartzen badu, adostu da Unión Cerrajera lantegiari eskaera egitea Miguel Mendieta bere langile ohia berriro ere bertan lanean hasteko.*²²⁵

9.9.Arlabango frontearen hasiera


Lehen egun horietan ez zegoen ez frontierik ez antzeko gauzarik, inorena ez zen lurra zen, frontea Irunen zegoen. Arrasateko jendea Isuskitzara igotzen hasi zen taldeka, ez buruzagirik ez ofizialik gabe. Handik ez zen ikusten mugimendurik, eta gauerako Arrasatera itzultzen ziren berriro lo egiten. Igo zuten egun horietako batean Juan Olazagoitia sozialista hil zuten.

Jelkide batzuk Isuskitzaren ezker aldera zeuden, San Bernabe aldean, Kataide buruzagi zutela. Egun horietan koordinaziorik indarren artean ez zegoen, Frente Popularraren eta Jelkideen artean, behintzat. Jelkideen artean bazegoen hierarkia bat goitik behera antolatua, zonako egoitza zentrala Eskoriatzako Marianistetan zeukana. Lezeta zen buruzagia. Jelkideak zazpinako taldeetan zeuden antolatuta, buruzagi banarekin, eskudrak bezala.

Frente Popularreko milizianoen artean ez zegoen koordinazio orokorrik, eta sindikatuen araberako sekzioka egin zen antolamendua. Garai horretan batailoiek ez zuten izenik, beren borondatez eta kabuz elkartzen ziren, erregimen konstituzionalaren defentsan elkarturik.

Arlabanan leku hartu zuen beste talde bat zen ANVko jende multzo handia, Arrasatetik igarotzean haren egoitza Zirkulu Karlistan jarri zuena, buruzagi Castañares zutela. Talde hori oso ondo zegoen antolaturik eta eraturik.

Gasteiz aldeko altxatuak, beren aldetik, Uribarri Ganboaraino iritsi ziren, maniobra batzuk egin,



Baimena armak erabiltzeko.

Eskumatik ezkerrera Tatxo Amilibia, Ricardo Ceciaga eta Pedro Gallastegi.

kanoikada batzuk bota eta Gasteiza itzultzen ziren berriro.

Bizkaiko zonarekin koordinazio ahalegin serio batzuk egiten hasi ziren. Arlabandik hasi eta Jarindo eta Kurtzetan zehar Otxandiorainoko fronte moduko bat eratu nahi izan zuten, tarteko lerro guztia hutsik baitzegoen. Garellanoko erregimentuko Vidal koronelak Arrasatekoekin harremanak egin, eta aldian behin asaltoko 30 guardia osatutako talde bat bidaltzen zuen, Reola sargentoaren agindupean. Arrasatekoek zituzten armak bestalde lehen esandako berberak ziren oraindik, eskopetak, pistolak mainguentzat, kanoi arraiadurazko dozena erdi bat arma, eta eskuzko granadak jaurtikitzen zituen bailesta bitxi bat, Jesús Trincadok asmatua, ki-

lometro bateraino jaurtikitzen zituena. Isuskizara joaten ginen goardiak egitera. 1936ko irailaren 17an, Arrasateko frontean, Kruzeta (Kurtzeta) gainan, Arlaban gainan eta Elgean, 839 miliziano ari ziren errepublikaren alde borrokatzen. Hainbeste lagun izateko, 333 arma besterik ez zuten. Informazio hau, irakurri daiteke Arrasateko gerrarako komisarioak 1936ko irailaren 17an idatzitako oharrean.

Bestalde, errepublikanoen defentsa-lerroak Elgea mendizerrako blokaetan eta Isuskitza, Jarindo, Maroto eta Kurtzeta mendietako tontorretan zeuden finkatuta, besteak beste. Irailaren 17an, Arrasateko Gerra Komisarriotzak, Celestino Uriarteren aginduetara, milizianoak honela banatzea erabaki zuen:



Pedro Ruiz de Alegria Balanzategi.



Blindatua..

- Lizargarate 50 gizon, 25eko txandak eginez.
- Irazabal 60 gizon, 20ko txandak eginez.
- Isuskitza 62 gizon, 31ko txandak eginez.
- San Bernabe 93 gizon, 31ko txandak eginez.
- Arlaban 62 gizon, 31ko txandak eginez.
- Kurtzeta 42 gizon, 21eko txandak eginez.
- Jarindo 104 gizon, 52ko txandak eginez.
- Maroto 90 gizon, 45eko txandak eginez.
- Zulatzaileak 20.

Bezperan Bilboko 116 miliziano eta Eibarko 44 gehitu zitzaizkien.

Arma eta munizio gutxiegi zituzten, zer zetorkien kontuan hartuta:


- Errifleak 136
- kartutxoak 9.200
- Mosketoiak eta fusilak 170
- kartutxoak 20.000
- Karabinak 8
- kartutxoak 360
- Pistola metrailatzaileak 11
- kartutxoak 2.900
- Subfusilak 4
- kartutxoak 560
- Morteroak 4
- kartutxoak 300²²⁶

9.10. Arrasateko gertakariak


Irailaren lehenengoan Donostia erori zen; probintzia osoan beldur zirrara sentitu zen. Irungo sutea bezalako gertakariak beldurra eragin zuten, oraindik Errepublikarekiko leialak ziren herrietan edozer gauza gertatu zitekeelako. Arrasateko nazionalistek zaindu zuten Etxezarreta, Felix Arano maisuaren lagun mina zen Rafael Arizaren baserria. Astebetez egon ziren bost lagun baserria zaintzen, arpilatzeen arriskua desagertu zen arte.

Mondragoera fan nitzen, hiru bat egun lenau nazionalak sartu aurretik, han euen rebuelua, Portaloian jende asko jantzitta buzoekin. Asturianuak etorri zien koadrilla bat ELMAko fundizioa apurketako. Batzokira sartu nitzen, hartu nauen karabina bat palankakin kargetan zana, eta fan gitzen Elmara. Asturianuak saldia urten zauen lekutik dinamita azpitik kargetan eta gero kokarekin bete zan kubilota. Handik erretirau Portaloira, han zan "Kuartel Jenerala". Handik etxera eta egun batzuetara egunien oinez Durangoraino, Arrazolatik pasau gitzenien abioiak bonbak botatzen Durangora, han hil zan Aperribay sastia Arrasatekoa. Intxorta hartu auen egunien izan zan, eta gabien besteak gorrixak jo eta kendu. Bilbon Elman egon zan bateaz juntau nitzen, galdetu nutzan zerein juan kubilotiak? Airien bota zan, erantzun zoztan.²²⁷

Herria defenditu edo utzi erabaki behar zen herri bakoitzean. Errepublikaren Defentsarako Kontseilua bildurik, Arrasateren arazoa eztabaidatu zen, defenditu bai edo ez. EAJ eta ANV ez ziren izan defenditzearen aldekoak, eta erabaki zuten alde egitea.



Tomada de la Casa Biqueletes de Udala.



Ebakuazioa eta tropa matxinatuen etorrera.

Arrasaten ebakuazioaz hitz egiten zen. Kotxe eta kamioi asko pasatu ziren egunetan matxinatuengandik ihesi zihoazen herritarrak kanpora eramaten. Nire senarrak ere maleta eta ibiltzeko baimena prestatu zituen ospa egiteko. Pentsatze hutsak gaixotzen ninduen, ezin nuen joaten utzi. “- Ez al duzu ikusten nola doazen mutilak armarik gabe? Donostiatik hona zortzi egun behar dituzte, ba, hemendik Bilbora bi. Zorigaiztoan! Nire bizitzaren unerik txarrena izan da. Herria hutsik ikusi nuen, Uriarte, Batzordeko Lehendakaria, Uriarte, alkate jeltzalea, eta Amilibia, Donostiako kudeatzaile bat besterik ez zen bertan geratu. Kurtzetxikiko azken gudariak lurrean zeuden, guztiz etsituta, asko zaurituta, oinutsik eta oinak minduta zituztela. Galdakaoko mutiltzar batzuk ziren Acción Vascako kideak. Adorea eman guran, azukrea, ura eta zigarro batzuk eraman nizkien. Lehen aipatutako hirurak agertu ziren eta Olarte kalean zegoen ambulanzia batean, plazako kantoitik aurrera joan ziren. Erabateko isiltasuna, egin zen, heriozkoa. Nire senarrak alde egitea nahi zuen. Nire gurasoek aholkatu zioten geratzeko eta geratu egin zen. A zer nolako poztasuna hartu nuen nik. Bigarren solairuan zegoen nire nebaren gelan giltzapetu genuen. Kurtzetxikiko aldera jotzen duen etxeko galeriatik ikusi genituen soldadu batzuk poliki poliki aurrera egiten, baina haiek ere ezin ibili zeuden. Aurrekoak bezala, neka neka eta apurtuta iritsi ziren plazara.”²²⁸

Arrasateren erortzea. Arabatik eraso hasi zen.

Irailean frankistek alde guztietatik erasoari ekin aurretik ere, Isuskitza behin baino gehiagotan aldatu zen jabez. Batzuetan indarrez eta beste batzuetan eraso gabe utzirik. Frankisten eraso zabala hasi zenean, irailean 21ean, UGTek utzi egin zuen leku hori, eta EAJk alde egin zuen San Bernabetik. Vidalek telefonoz deitu, eta gomendatu zuen Bizkai aldeko hegalaren ezker alde hori ixteko, baina erantzun zioten halako materialarekin ezin zutela ezer egin ongi hornituta zetorren armada baten kontra, erantzun zioten. Vidalek berriro egin zuen eskaera berbera eta Reolarekin laguntza bidali zuen, baina ordurako Bernardo Gómez zinegotzi sozialistak emana zuen leku hori utzi behar zelako berria.

Irailaren 20an, etsaiak bere ofentsiba martxan jarri zuen Arrasateko norabidean. Egun batzuk lehenago, genuen Garellanoko ofizial bakarra etsaien ondora pasatu eta gure posizioen berri eman zien. Gatzagan,

Reola eraso tenienteak aurre egin zien.”²²⁹

Egoera nahasi hori ikusirik, Marcos Vitoria estatu nagusira joan zen, Marianistetara; lehen aldiz azaldu zen handik, eta hutsik aurkitu zuen.

Isuskitzatik aldegitean, maldan behera hartu eta Eskoriatzara bildu ziren. Egun horretako gaua udaletxean igaro zuen EAJko jendeak.

UGTek Atxorrotz utzi eta Arrasateraino iritsi zen. Herri hartan, Marcos Vitoriak Guardia Zibileko Ibarrola kapitaina topatu zuen, eta faxistak Arlabandik sartzen ari zirela jakinik, auto bat hartu zuten albiste hori egiaztatzeko. Marcos Vitoriak momentu larriak igaroko zituen ez baitzegoen batere ziur kapitainak errebeldeak ikustean, ez ote zuen momentua aprobetxatuko eta bestaldera igaroko. Ez zen halakorik gertatu, ordea. Ibarrolak, azkenik, faxistek fusilaturik utzi zuen bizia.

Guillermo Lasagabasterrek, Arrasateko Gerra Komisariotzako milizianoak, okupatzaileen lehen erasoan eta defendatzeko ahaleginen xehetasunak eman zituen:

Lehen posizioen kontra egindako lehen erasoetan emaitza onak lortu zituzten etsaiak, alde sekulakoa zelako haien eta gure indarren artetan. Ondorioz, gure indarrek atzera egin behar izaten zuten, gutxika, momentuan bertan prestatzen genituen lerroetaraino.

Etsaiak hain kementsu zebiltzanez, Reola asaltoko tenienteak kontraerasoa antolatu zuen Eskoriatzan, Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorritako eta Arabatik ihes egindako milizianoekin, baina emaitzak ez ziren izan uste bezain onak. Ez zuten lortu Isuskitza berreskuratzetik eta Galindo (sic) mendian posizioak finkatzera mugatu ziren.

Etsaiak, askoz ere arma gehiago eta hobeak zituzten arren, oso astiro egiten zuten aurrera, eta geldotasun horrek miliziak sutan jartzen zituen. Halako batean, Leintz herritik hurbil zegoen etxe batean aurre egiten hasi zitzaizkien. Orduan, Reola asaltoko tenienteak eta bere agindupeko asaltoko guardia batzuek hamar eta erdiko bateria arin bat hartu eta etxea momentuan bertan lurreratu zuten. Harrizko eraikinaren horma zaharretatik fusil metrailadore batekin erantzun zieten. Etxea erortzerakoan, asaltoko guardia batzuk hil egin ziren harrien azpian, eta onik irten zirenek fusil gutxi batzuk eta fusil metrailadorea eraman zituzten.

Une hartan San Prudentziotik Bergarako Labe

Garaietara bitartean defentsa lerro bat antolatzen ari zen, EAJko talde handi batekin, buruzagi Ignacio de Goikoetxea osagarriko ofiziala zutela (abokatua).

Irailaren 22 edo 23an Kanpanzarko mikeleteen etxetik abisua bidali zuten altxatuek, Angiozar aldetik gora igozten ari zirela (Intxorta inguruko lehen topaketak ziren), eta mikeleteen etxean zegoen gizonari agindu zioten tiro egiteko, bertarantz zetozenek pentsatu zezaten bazela jende armatua.

Guillermo Lasagabasterrek defenda-tzaileen ikuspegia azaldu zigun: etsaia etengabe erasotzen ari zitzaigunez, gure Gerra Batzordeak eskatu zien Bilboko buruzagiei gizonak eta, batik bat, gerra materialak lehenbailehen bidaltzeko; bestela, jai genuen. Etsaien ekinaldi bortitzei ezingo genien inondik inora erantzun, bi bandoen armen artean aldea izugarria



Flandes erregimentuko 4. eta 6. konpainiak Arrasatera sartzen.

zelako. Hamabost eta erdiko bi kanoi, atzerritik orduantxe ekarritako fusil berri batzuk eta miliziano boluntarioak bidali zizkiguten, berehala. Horrek adorea eman zigun hasieran, baina beranduegi zen kontraerasoari ekiteko. Etsaiak egunero erasotzen gintuen, eta ez genuen antolatzeko astirik. Jasotako armak ere urriegiak ziren, etsaienekin alderatuta.


Ibarrola komandanteak, milizien indar guztien buru zela, oso erresistentzia gogorra antolatu zuen Aretxabaletatik gertu, arerioa behingoz menderatzeko itxaropenaz.²³⁰

Tatxo Amilibiak Bilbotik ekarriak zituen armak, Txekiako fusilak gehienak, Viteriko eskoletan zeuden eta banatu ziren Aretxabaleta eta Aramaio bitartean kokatu ziren indar armatuen artean.

Tropak Aretxabaletan sartu zirenean, Arrasatetik zertorren kamioi blindatu bat Santutxo aldera iritsi zen, eta Kalebarrenera abiatu zenean BOOM! Mantxue etxean ezarritako kanoiekin leherrarazi zuten. Gogoratzen dut kamioian Mane izeneko bat zihoala. Azkenean, blindatua lortu genuen handik eramatea.²³¹

Horrela bada, 1936ko irailaren 24an, Aretxabaletan, egon zeuden ibilgailu blindatuen obus batek jota hil ziren Pedro Ruiz de Alegria, Domingo Abarrategi, 22urtekoa Timoteo Zubizarreta hil ziren, eta beste batzuk larri zauritu ziren; horien artean Cruz Ugarte, bizi guztirako elbarri eta Alejandro Sagasta Azcoaga, "Mane".

Azken horrek kontatzen digu: Juan Ibarrola komandantearen aginduetara, blindatu batera bidali ninduten. Portaloiaaren aurretik abiatu ginen, Monte



1936ko ikuspegia, Murugain, Udala eta Santa Agueda. Avilako Artxibo Militarra.

taberna dagoen lekutik. Emakume batek kafea eman zigun eta Aretxabaletako bidea hartu genuen. Faxistak ikusi genituen. Orduan nik txoferrari esan nion, Goazen erasora!. Une hartan, kristoren kanoikada eman ziguten eta kamioian gindoazenetatik bost hil egin ziren eta beste lau zauritu. Uste dut buruko kaskoak salbatu ninduela. Atzamar bat galdu nuen eta, bekokian, metraila sartu zitzaidan. Buelta eman eta Arrasatera itzuli ginen. Durangoko ospitalera eraman gintuzten.

Eta zeukien tanke antzeko bat...eta Pedro han geratu zan, koittaua, kamioi blindatua: Olixak, kamiño eskiñetan, da...skopetakin ibiltzen ziren? s muy buenas. gero esaten que estaban armados hasta los dientes, Bai, barruko bonbak errebentau, eta... hiru-lau bonba, ez ziren besteik, haretzek errebentau... kañonazo bat que... kamioi azpira jausi zala eta haren estruenduakin barruko bonbak esplotau... lau hil ziren. Atxabaltako entradan. Al lado del cementerio de Aretxabaleta. Eta Francisco be eurekin euen, zeren asmuaz, Arenasetara fan ziren, hango tian etxera, han Aman ahizta bat bizi zan, da gu gingozen danok han, eta Francisco geratu zan, ba, lanien ebilen eta lanien, baina berriro mobilizau zienien danak, ba, permisuaikin euen hona etorritta, eta bera Pedron atzien ibiltzen zan, hantxe suertau... Eta bertan zauen? Bertan ez, aldamenian, eurak errekarra salto ein auiela, berak eta beste hiru-lauk errekarra salto, ...

-Zer ziren, abioittik botata bonbak?

-Keba... Tropak bazetozen Gasteiztik, honuntza zetozen, hemengo mendi inguruetan ziren, ... Eta hauek Aretxabaletako sarreraraino egoten zirenez, han guardiak eitten... badirudi urrutitik ikusi ... eta kañonazuak, eta kañonazuak mobidu zienian, ba... batzuk, gaztiak, como Francisco, erreka eskiñara salto ein, eta Arrasatera. Baina, Pedro eta besteak kotxean sartu, furgonetatxo bat zuten, eta barruan eukien eskuko bonbak, ezebez... ganorabako batzuk... eta haretzek esplotau...

-Eta gorputza Arrasatera ekarri auien?

-Bai, hona ekarri gauen, bai, hamen enterrautu geratu zan.

-Kanposantuan?

-Bai. Bera eta beste... beste bat zan Erreterixakua, eta bestiak ez dakit nunguak... lau behintzat hil zien. Bat, Erreterixakua, haren familixiakin bastante amistadia euki gauen, urtero etorten ziren kanposantura.²³²

Blindatua gidatzen zihoan txoferra ere hil egin zen; Celedonio Murua Contrasta, donostierra.

Sabino Lasaga ere fronte horretan bertan hil zen.

Hamen blindauak (etxe inguruan), hortxe kamioiak sartu zien, proiektil bat eta bi edo hiru hil zittuen. Ipinten auen: UHP, Unidos Hermanos Proletarios, auken blindauak.²³³

Guillermo Lasagabasterrek berretsi zigun Aretxabaleta erori aurreko borrokak oso gogorrak izan zirela. Jo eta su borrokatu genuen, dena eman ez. Aretxabaletako kaleetan ere eginahalak egin genituen, hormetan babestu eta etxe batzuetan ezkutatu. Ibarrola komandanteak kalean bertan ematen zituen aginduak. Baina etsaien armen nagusitasun ikaragarriaren ondorioz, alde egin behar izan genuen. Lagun batzuen gorpuak hantxe geratu ziren, eta zauri larriak zituzten zenbait kide ospitaletara eraman genituen.

Dena den, lehen egunean, gure bi kanoiekin oso ondo moldatu ginen eta etsai asko hil genituen, baina biharramunean gure artilleroek Arrasatera alde egin behar izan zuten, etsaien infanteria ia bertan zegoelako. Haien artilleroek gure bi kanoiak ikusi eta erasotzen hasi ziren. Gure artillero batzuk zauritu eta kanoiak hondatu egin zituzten.²³⁴

Hurrengo urratsak, jakina, Arrasatera eramango gaitu. Hilaren 25ean, ostirala, eguneko borroka gogorrak bukatu ostean, San Martzial erregimentuko konpainia bat Aretxabaletara iritsi zen egunsentian, Alonso Vegaren zutabea babestera eta indartzera. Teniente koronelak erabaki zuen Saletaren taldea Aretxabaletan uztea, herria eta ezkerreko hegala defendatzeko, azken eremu hori arrisku larrian baitzegoen. Goizeko lehen orduan, Koregainera abiatu ziren, bateriarekin eta San Martzialeko konpainiarekin batera, eraso prestatzera eta Kurtzetxiki mendia menderatzera. Kurtzetxiki, izan ere, giltzarria zen Arrasatera heltzeko.

Calbachoren taldea eta bateriak Koregainen zeuden. Bertatik, Koruagaineko baserriak eta Bedoñako baserriak eta ermita arakutzen hasi ziren, eta, azkenean, borrokaldi gogorren ondoren, 3. eta 6. Konpainiek bazter guztiak okupatu zituzten. Gero, Urkemendigainera joan ziren. Egunkariaren arabera, egun hura ere gogorra izan zen. Gauean, 3. eta 6. konpainiak Urkemendigaineko posizioetan geratu ziren, 4. konpainia eta metrailladoreena Bedoñan, zutabeko buruzagiak Koruagainen, eta bateria eta San Martzialeko konpainia Koregainen. Milizianoek ezkerreko hegaletik erasotu zituzten, baina porrot egin zuten. Bajen ko-

puruak argi erakusten du izugarri gogor borrokatu zutela: 3 hildako (horietako bat 6. konpainiako burua, Cecilio Arnal tenientea) eta 48 zauritu. Calbacho komandanteak, 2. taldeko buruak, oso zauri larriak izan zituen. ²³⁵

Erresistenten bajen artean, hiru hauek zeuden: Antonio Martinez Masos, 20 urte zituen eta Sestaoko Bakunin batailoiko kidea zen. Raul Ortiz de Urbina, ²³⁶ Gasteiztik ihes egindako bat eta Vitorico Tellechea Iturralde, harek ere 20 urte zituen eta Bilboko Garelano batailoiko soldadua zen. ²³⁷

Irailaren 25ean, faxistak Bedoñan sartu ziren egunean bertan, Carlos Mercaderrek, Andres Castelok y hirurok jatekoa igo genion hiru astotan Garelano Batailoiko soldadu konpainia bati eta bat-batean ikusi genituen gure inguruan balak dantza baten, erretiradan. Gero, frontea Kanpanzarren egon zen, geneuzkan arma gutxi batzuekin. ²³⁸

Egun hartan, Kurtzetxikin izan zen borrokaldia, miliziek okupatzen zuten azkeneko mendian. Borroka basatia izan zen, batez ere guretzat, lubakirik gabe eta askoz ere arma eta gutxiago baikenuen. Baja asko izan genituen kanpoan inolako babesik gabe borrokatzeagatik baina etsaiaren erasoari eutsi genion. Bitartean, etsaia Kanpanzar gaineko mendietatik barrena sartzen zitzaigun geratzen zen errepede bakarra, Bizkaikoa, ixteko.

Francisco Alvarez Garagarza, La Habanako (Kuba) 22 urteko gaztea eta MAOC leko kidea eta Angel Iglesias Santos, 42 urteko bilbotarra, irailaren 26an hil zituzten, biak milizianoak. Haiek izan daitezke Bedoñatik hurbil atzera egiten ari zirenean hil zituzten bi milizianoak. Haien gorpuak hobi batera bota zituzten, Kurtzetxikitik hurbil dagoena. ²³⁹

Irailaren 26an, larunbata, defendatzen ari ziren milizianoen egoera oso larria zenean, Gerra Batzordeak agindua eman zuen indarrak Kurtzetxikitik erretiratzeko. Atzera egin ezean, milizianorik gabe geratuko ginateke. Elorrioko gerra komisaria eratu zuten Elorrioren; han zeuden Amilibiatarrak (Miguel eta Joaquín), Cosme Altuna, Marcelo Vitoria, Celestino Uriarte, Marcos Vitoria... eta buruzagi militar batzuk ere bai, hala nola, Ibarrola, karabineroen teniente bat Ricardo Gómez, Martín Herrarte, Jose Aranburu (estatu nagusiko gerra parte guztiak idazten zituen makinaz), Jesus Herrera,

Eugenio Ortueta, Ricardo Arriaran, Elias Olmedo, Ricardo Ceciaga, Ricardo Adarraga eta ni neu. ²⁴⁰

Bien bitartean Arrasaten autobuskada jendea bildu zen Donostiako eta Pasaiako errepublikanoekin, eta Kanpanzar aldera igo ziren. Lehen tiroketak hasiak ziren. Ahalik eta azkarrena Ibarrola kapitainari deitu zioten eta egoeraren berri eman. Kapitainak herria husteko agindu zuen eta Santa Barbara atzean zeuden 15 eta erdiko bi artilleria pieza, oraindik erabili gabe zeudenak, Kanpanzar aldera eramateko. ²⁴¹

Romualdo Uribetxebarria, herriko Defentsa Batzordeko partaideak zioenez: *Arrasaten eman genituen azkeneko egunetan, batzordeko udaletxean egiten genuen ia gure bizimodu guztia; lo eta guzti han egiten genuen eta. Irailaren 25ean, Udaletxean Nikolas Uriarte, Benito Urkiola eta ni neu besterik ez geundela, telefonoz deitu ziguten, Bergaratik lehendabizi, eta gero Angiozartik, eta esan ziguten errebeldeak sartzen ari zirela. Udaletxetik irten, eta Celestino eta Tatxo Amilibia zeuden taberna batera joan nintzen; ohartxo hau besterik ez nuen topatu: "itzuri ezineko betebeharragatik Elorriora joan behar izan dugu". Nikolasi kontatu nion; hark esan zidan Bedoñan ere sartuak zirela, eta zerbait egin beharra zegoela; Elorrioraino joan nintzen ni oinez.* ²⁴²

2.000 pertsona inguru egin genuen alde herritik. Eba-kuatu aurretik, Unión Cerrajerako eta Elma SAko galdetegietako kubilote labeak dinamitarekin lehertu zituzten, inbasoreari baliabide belikoak fabrikatzea galarazteko. ²⁴³

Azken milizianoak, Kanpanzar gainetik ihesean zihoazela, etsaien aitzineko talde bat aurkitu zuten, eta, tiroketa gogor baten ondoren, funtsezko gune hartaz jabetzea lortu zuten. Guillermo Lasagabasterrek horretaz guztiaz hitz egin zigun. Gure miliziek kontraerasoa burutu ondoren, buruzagiek Elorrioko egoitza kuartel nagusitzat hartu zuten, eta berehala jakinarazi ziguten non kokatu behar genuen. Miliziak posizio berrietan ezarri eta gero, buruzagiak lehen batailoiak zehatz eta zorrotz antolatzen hasi ziren, buru-belarri. Izan ere, milizianoek ordura arte borroka guztietan hartu zuten parte, jokabide eredugarria izanik beti. Gizon zakar haiek dena ematen zuten. Etsaiek prestakuntza militarra zuten lehendik; gu, berriz, zibilak ginen eta soldadutzarik egin gabeko buruzagiak genituen.

Garmendia (Rere) zegoen jeltxide taldeak, 30 edo 40 gizonen osatua, Aretxabaletako Galarza auzoan zegoena, herriko kanpai hotsa entzun zuen irailaren 26ko arratsaldeko 16:00ak inguruan. Altxatuak herrian sartu ziren seinale. Harrapatuta ez geratzeko Gesalibartik gora, Karraskaindik, Arrazolara abiatu ziren. Gallastegik, Muzibartik kanpaiak entzun eta Udalatik Arrazolara joan ziren. Era berean, Egidazuk Hirutontorreta azpiko Saburdi baseritik, matxinatuak ikusi zituen Bedoñatik eta Kurtzetxikitik sartzen.

Arrasate eroririk eta Elgetan defentsa lerroa finaturik, fronte tinko bat eratu zen, Elgetatik, Intxorta, Kanpanzarko baserriak, Udalako auzogaina, Karraskain, Murugain, Asensiomendi, Aramaio, Kurtzeta, Otxandiotik Ubidearaino (begiralekua zegoen haietan) iritsi zena (ikus. I. mapa).

Durangoko bonbarkaketan, 1936ko urrian, arrasatear bat hil zuten, frontoian jokatzeko ari zena, Aperribay. Arbolapeta inguruan jostundegi bat zuen.²⁴⁴ Ramon Aperribai Oquina, zan nere aiten anaia. Zeuken 24 urte eta euskeraz erakusteko titulua, ematen zauen klasiak gabien debalde. Arrasatetik joan zan Durangora ihesean. Pelotaria be ba zan, astelen baten partido bat zauen Durangon, Ezkurdiko frontoian, berak bigarren partidoa zeuken eta jauzi zan bomba bat eta arrapau zauen oso osorik buru guztia apurtuta. (Ibon Aperribai Larrañaga)

Gauzak horrela, Alonso Vegaren zutabeak azken urratsak eman zituen. Jakinekoa denez, hasierako helburua zen Arrasate hartzea. Flandes erregimentuko 4. eta 6. konpainiak Kurtzetxikira abiatu ziren, eta, bitartean Koregainen ezarritako 8. bateriak eta Bedoñako metrailadoreek defentsa lerroak hustu zituzten, aipatutako gune estrategikora zihoazen tropek bidean arazorik ez izateko. Era berean, 9. bateria eta Flandesko 1. konpainiako bi sekzio Koregainera joan ziren, lehenengoa Gasteiztik eta beste biak Aretxabaletatik. Frontea hautsia zegoenez, milizianoek Kanpanzar mendatera ihes egin behar izan zuten, eta Arrasate babesik gabe utzi zuten. Alonso Vegaren tropek Kurtzetxiki hartu bezain laster, 2. taldea Arrasatera abiatu zen, Gutiérrez komandantearen agindupean. 16:30ean okupatu zuten. 4. konpainia hegoaldeetik sartu zen bi metrailadoreekin, eta 3. eta 6. konpainiak ipar-ekialdeetik, beste bi metrailadoreekin. Elizako kan-

paiak jo zituzten, okupazioaren berri emateko.²⁴⁵

“Gobernuaren” nagusitasunaren azken egunetan, gerraren nondik-norakoen inguruko adierazpenak egiteagatik, bi karlista atxilotu zituzten, Lino Mardaras Eleustondo Osinagaerrota baserrikoa eta 27 urtekoa, eta, Lucio de la Cruz Basaldua, Roneoko langilea. Kanpanzarrera eraman eta han desagertu ziren betirako. Bi haiekin batera, beste bi karlista ere atxilotu zituzten: Metalúrgica Cerrajerako langilea, Felix Sagasta, eta, Angel Echave, Elmako langilea. Senitarteko batzuek bi haiek askatzea lortu zutenean, biak sartu ziren Amayur batailoi jeltzalean. Sagasta desagertutzat jo zuten Asturiasko frontean izan zen gerra ekintza batean. Etxabek azken era arte jarraitu zuen, Santoñan atxilotu zuten arte. Gorriño jauna ere, Unión Cerrajera de Mondragónko langile bizkaitarra, arrasatearrek Bizkaian atxilotu eta betirako desagertu zen.²⁴⁶

Honela dio Felix Sagastaren heriotza ziurtagiriak: 1937ko otsailaren 23an desagertu zen. Fronte Popularreko buruzagiek bi aldiz, jarraian, atxilotu eta kartzelaratu zuten. Asturiasko frontera eraman zuten kamilero zerbitzua emateko. Uneoro zelatatzen zuten, lerro nazionalistetara pasatu nahi zuten susmoa zutelako. 1937ko otsailaren 23an, saiatu zen España Nazionalera pasatzeko zuen nahia betetzen. Badirudi ez zuela lortu, egun hartatik aurrera inork ez baitzuen gehiago ikusi.²⁴⁷ Arecesen zauritu zutela Cruz Villarek kontatu zigun, Felix Sagasta tropa matxinatuak sartu zirenean erail zutela.

Lucio de la Cruz Basaldua. Bilbo. 23 urte. Helbidea: Biteri etorbidea 9, Arrasate. Elorrioren zendu zen 1936ko urriaren 1ean, suzko armek eragindako zauri larriengatik.²⁴⁸

Honela dio, Guardia Zibilaren txostenak, 1949ko otsailaren 12koa: *Kanpanzarko erailketak direla eta, hauek atxilotzeko agindua Uriartek eman zuenaren ustea dago. Eta berak agindu ez bazuen, gertatutakoaren jakinaren gainean zegoela, une hartan bera baitzen herriko arduraduna. Momentuz, ezin dugu zehaztu non erail zituzten eta nortzuk izan ziren egileak.*²⁴⁹ Udaltzaingoaren langile José Acha Iturbek dio, batailoi komunista bat izan zela Kanpanzarko erailketak burutu zituen, eta momentu hartan Celestino Uriarte frontean zegoela borrokatzen.

Egunerokotasuna herrian gerra denboran.

Falangistak Arrasaten.

Etorri nintzenian, auen Zarugalde dana alanbradakin josita. Eta zelan ibili nintzen kanpuan, ez nakixen zer esan behar zan, eta: “¡Alto!, ¡Alto!”, nik ez nakixen neuri esaten uzten, nondik pasau behar ez nekixen, eta Gorosabelena esan uztan: “Esan España, esan España. Ostera esan gotzue eta zuk España esan”. Hori zan orduko eguneko kontraseña, eta neuk esan nauen: “¡España!”, pentsaizu zenbat urte eukiko nituen orduen, 17 urte... Bertan gabian bonbak, bota ta bota: “Ama, hemen ezin geike bizi, goazen norabait”, esaten notzen. “Ez, horreik urrin doiaz”. Badakizu nora fan zien? Kontzezinoko elizara, dana jota puskatuta hurrengo egunian. Joaten gintzen azpi batera eta ikusten gauen pasetan, eta damba, Santa Barbarara. Santa Barbaran aukien bestiek be kanoiak ipinita eta guk esaten gauen: “A ver noraino faten dan”

Orduan heriduak egoten zien, oin Caja de Ahorros badau, “la Kutxa”, han etxe handi bat auen lehen, gero barrixak ein zituen, han bajuan auen ospitala. Hainbeste bonba botatzen zituen han kalien, joten auena hara erueten auen. Horrek be zati handixa kenduta dauko.²⁵⁰

Cerrajerako zerrategiak armadako koartela zirudien. Erreketek, soldaduak, apaizak,... hau, egurren patioa, kainoi eta artillería arinez Beteta zegoen. Erreketeen buru zen Quijosa komandantea Murun aurrera egiten ari zirela hil zuten. Militarren aldetik, Unibaso kapitaina, Nafarroako apaiz bat, ... haiek ohean egiten zuten lo. Guk, ordea, lurrean egiten genuen lo.²⁵¹

1920an jaio nintzen. 16 urtekin gerria hasi zanean, guardiak egiten ibili nintzen Batzokitik, baina ez ziguten utzi frentera gudariek faten. Faxistak sartu zirenean behartuta egon giñen falangista sartzen. Jose Mari Lasagabaster nere laguna eta biok. Kalian ibiltzen nintzen lan ostian, pasiuan, Carlistan familiak euren semiak batzuk soldau eta beste batzuk boluntarixo joandakuak zazen, bat hil be ein zan gure edadekua gainera, frentian. Presionau eiten gintuen gu: “Zueik apuntetako reketietan”. Reketietan apuntetan bazitzien, joaten zinen frentera, esaten uzkuen: “Falanjistik etorten dienian afusilauko zaue!”. Holan aguantetan, falanjistik ia zazen, Eskoriatzan, baina hona etorri barik zazen ondiokan.

Azaroaren lehenengoko eguna, jaixa, agertu zan.

Etorri zien. Ipini zauien “Banderín de enganche” ofizinia, Monten aurrien, aizkora dendian gainian, lehenengo pisuan ipini zauien ofizinia. Zabaldu zauien “Banderín de enganche” esaten dana erderaz, joan gintzen 5-6 edo, baina frenterako ez, bigarren mailarako: zerbitzioak eiteko, komunidaden tokixan. Joan gintzen eta emon guzkun: gorrua falanjistana, bestela... al-kondara azula, korreaia, salbokonduktua. Hori eiten gauen frentien, udala bidien dauen konbentua zan gorrixena eta zurixok, edo militarrok, han dau muraiatxo bat 200 metrotara edo, militarrok. Lehenengo egon zan, batzuk Mondrauen eta beste batzuk Elorrixon. Ekin gintzen guardiak eiten... Nik jarraiketan nauen lanian igual igual.²⁵²

Gero sartu zien Falanjiok eta problema asuntuak, politika ez dela ta baziela..., jentia bildurrez zan, eta bueno, gu nun apuntauko ginen Reketietan edo Falanjian. Gu ezagunak ginen, ordun sasoiaren gaztetan Batzokira faten ginen... eta herriko jentia esanak ze tendentzia-koa... eta euki genuen batzarra eta geratu ginen Falanjian apuntetako. Falanjian apuntatu ginen eta han ibili nintzen, desfiletan ta ala.²⁵³

Zarugaldeko okindegia. Meritu Militarren Gurutzea Bereizgarri Gorriarekin.

Arrasateko okindegia herriaren irteeran dago, Arrasate, Elorrio, Gasteiz eta Gesalibarrerako errepedeen elkar-gunean, Deba ibaia zeharkatzen duen zubiaren gainean. Arrasaten egon ginen denbora guztian, eraikin honetan bizi izan zen Brigadaren aldekoa zen Zapadoreen Taldeko Ingeniari Sarjentu bat. Errepideen elkargunean lortzen zituen etsaiak garaipen gehienak fusil eta metrailadoreekin, Larratxu eta Larragaineo posizio menderatzaileetatik. Posizio hauek gure posizioen homologoak ziren, gu Udala inguruko mendietan baikeunden. Autoek eta gainontzeko ibilgailuek Termopila hauetatik igarotzean, ahalik eta gehien handitu behar zuten abiadura etsaiaren suaren jomuga ez izateko. Hala eta guztiz ere, baja asko izan genituen bertan. Okindegiak etengabe tiroak jasan arren, martxan jarraitzen zuen. Honen jabeak aberriarekiko mirespen handia zuten. Honen adibide, aipatutako Ingeniari Sarjentuaren benetako estizismoa izanik. Bera eta etsaiaren arteko borroka tazitua zen, azken honek industria haren funtzionamendua eragozteko zuelako helburu. Behin eta berriro errepikatzen ziren heroismoen ondorioz, eraikina

suntsituta baitzegoen, etsaiaren bala batek lore haren bizitza eten zuen (G.B.). Okindegiko jabeai, eta nire proposamenari men eginez, Bereizgarri Gorridun Meritu Militarren Gurutzea eman zitzaien.


Hona hemen, buruzagi militarrek La Torren ardurapean utzi zituzten indarrak militarrek “fronte zabal” hau defendatzeko.

2.325 gizon. 150 gizon América 23zk.ko hiru konpainia, Vara de Rey (Miguel), Ochoa eta Compte kapitainen aginduetara. Zuloaga Komandanteak agintzen zuen San Martzial Batailo bat, fusilen 4 konpainia eta metrailadore beste konpainia batez osaturik. Lehenengoa 190 gizonez osatua, eta bigarrena, 70ekin, azken hau Aizpuru Kapitainaren aginduetara. 150 gizonez osatutako Begoñako Tertioko Erreketeen 2 konpainia Romero Infanteria Kapitainaren eta Unibaso Zalditeriako Tenientearen aginduetara. Oinezko eskuadro bat 170 gizonez osatuta eta Juan Jimenez Kapitainaren aginduetara. Generoso Huarte Erreketeen Kapitainaren aginduetara, 200 gizonez osatutako Nuestra Señora del Camino Tertioko konpainia bat. 125 gizonez osatutako Falangeko bi Zenturia Kapitain baten eta karabineroen Arcos tenientearen aginduetara. Mendiko 2. Erregimentuko Manuel de Melini Tenientearen aginduetara, Mendiko Artilleria Sekzio bat 10,5 zentimetroko piezekin osatua. Gainera, hilaren 25ean, Karabineroen Alferez baten aginduetara zegoen Falangeko beste Zenturia bat jaso nuen.

Azaroaren 11an, Luis Guijosa Infanteriako Komandantearen aginduetara zegoen Oriamendiko Erreketeen Tertzioa elkartu zitzaien.

Urtarrilean zehar, Zumalakarregi Tertzioa osatzen zuten konpainia ezberdinak elkartu zitzaizkien. Haue-tariko bat Zalditeria Osagarriko Kapitaina zen Sergio Scofetek agintzen zuen.

Otsailean, Jiménez Castellanos Artilleria Kapitainaren aginduetara zegoen 150 mmko kanoi bi piezarekin osatutako sekzio bat gehitu zitzaien. (Rafael Latorre Roca)



Sociedad Española de Repelería BLOK NEREFO - Núm. 301

MANDO	SITUACION	COMPOSICION	Cajopos	Hortera	Antres	Fusiles Antres	EFECTIVOS				
							Jefes	Oficiales	Tropa	Caballos	Mulos
	Reservas Plana y Guardia de carreteras	3ª Cia. 5ª Bon. America 10ª Centuria Falange de Navarra 1ª Cia. de Comandacarragui Ametralladoras San Marcial				2		3	131		4
		<u>2ª Media Brigada</u>						1			14
Tte. Coronel Guel	Escoriaza	Plana Mayor					1	1			
Conte. Zuloaga	Arechavaleta	Plana Mayor del 22 Bon. San Marcial					1		10		
Cap. Camarero	id					1		2	69		3
	Apocia-Chavarri	2ª Cia. 2ª Bon. San Marcial		1				1	34		
	San Blas								33		
	San Bernabé					1			40		
	Apozaga								43		
Oficial Muerte	Isurieta								24		
	Galarza	Cia. Regates 1ª 3ª del Camino				1		1	40		4
	Eguileor								15		
	Arechavaleta						4	61			
MANDO	SITUACION	COMPOSICION	Canones	30. Tiro	Antres.	Fusiles Antres.	EFECTIVOS				
							Jefes	Oficiales	Tropa	Caballos	Mulos
Cap. Salazar	Escoriaza					2		1	30		3
	Salinas	3ª Cia. 2ª Bon. San Marcial							42		
Cap. Racionero	Aldey			1		1		1	70		
	Caserio Troveak								15		
	Latagain	1ª Cia. 6ª Bon. Amos. F. intra y norte-ño.		1		1		3	117		
Cap. Romero	Caserio Mordevist							3	30		
	id Achorrospe Peña de Aichorros	10ª Cia. Regates de alava						1	50		
Alferez Sádora	Escoriaza	2ª Cia. 6ª Bon. America						1	37		
Cap. Martin	pagoda	1ª Cia. 2ª Bon. San Marcial		1				3	133		4
	Arleba			1	2			1	95		
Alferez Abajo	Salinas y pos. próximas	4ª Cia. 2ª Bon. San Marcial		1		1		2	105		6
		<u>Tercio de Oriasendi</u>							103		4
Conte. Guijosa	Cigarola	Plana Mayor					1	3			
	Amporreta	1ª Cia.						2	101		4
	Caserio Celeta	Fusiles Antres. 6ª Bon. America				2		1	10		
Mondragon	id	1 Sec. 3ª Cia. del Bon. Zapadores Mondragon nº 6						2	43		
	Escoriaza	Un grupo Transiciones							9		
		1 Sección 4ª Ma. Grupo Mixto Zapadores Minadores						3	53		3

Landa	2	secc. Regto. Bailen.....	116	2 (9)
Venta Barri	1	secc. Regto. Bailen.....	51	
Ullibarri	2	comps. Regto. Bailen.....	300	
Gamboa	1	secc. an. Regto. Bailen.....	53	
	1	" art. 2º Montaña.....	60	
			<u>TOTAL.....</u>	966
<u>Otros destacamentos y columnas.....</u>			1.425.	Hombres
Arlaban	1	esc. del Regto. Numancia.....	126	
	5	an. del Bon. de Flandes.....	13	
	1	comp. Requetos.....	131	
Salinas de Leniz	1	comp. Requetos.....	130	
Berberana		Requetos.....	93	
aña Orduña		Requetos.....	30	
entelarra...		Requetos.....	135	
		Guardia Civil.....	11	
resca				
tesada	1	centuria de Falange.....	100	
starrona				
			<u>TOTAL.....</u>	1.425
<i>—Frente de Guipuzcoa—</i>				
<u>Columna del Coronel Iruretagoyena.....</u>			3.022	Hombres
len-dara	1	bat. obuses 10'5.....	90	
Dondarrea	4	comps. Requetos.....	400	
	3	centurias Falange.....	308	
erliatua	1	comp. Regto. Sicilia.....	200	
a. Sta. Cruz	3	centurias Falange.....	386	
o. Usarregui	1	comp. Bon. Arapiles.....	98	
	1	secc. obuses 10'5.....	53	
	1	" art.	30	
Alto Acarregui	3	comps. Bon. Arapiles.....)	
		Requetos.....)1.100	
		Falange.....)	
errios Iturrino	3	cent. Falange.....	357	
			<u>TOTAL.</u>	3.022
<u>Columna del Coronel Los Arcos.....</u>			4.241.	Hombres
Vergara	4	comps. Requetos.....)	
	1	comp. Montaña.....) 544	
Arrate	1	cent. Falange.....)	
Arreguia	3	comps. Zapadores.....)	
	3	" Requetos.....)	
Ararate	1	cent. Falange.....) 951	
	1	bta. 15'5.....)	
	1	bta. 10'5.....)	
errios Anguloza	6	comps. Regto. América.....) 300	
	1	bta. 10'5.....)	

(sigue)

Plasencia	2 comps. Montaña.....)	738	(10)
	4 " Requetes.....)		
Elgoibar	2 comps. Regto. América.....)	563	
	4 " Requetes.....)		
Vergara	1 comp. Regto. América.....)	425	
	1 " Montaña.....)		
	1 " Requetes.....)		
	1 centuria Falange.....)		
San Prudencio	2 centurias Falange.....)	220	
TOTAL....		4.241	
<u>Agrupación del T. Coronel Latorre.....</u>		1.856. Hombres	
Mondragón	3 comps. Regto. San Marcial...)	1.856	
	3 " " América.....)		
	3 " Requetes.....)		
	2 centurias Falange.....)		
	1 esc. Regto. Numancia.....)		
	2 ametralladoras.....)		
	4 bta\$ del 2º Regto. Montaña(656 h)		
<u>RESERVAS</u>			
Zumaya	2 comps. Regto. América.....)	200	
Azcoitia	2 " " " ".....)	220	
Aspeitia	1 " Bon. Montaña.....)	250	
	1 centuria Falange.....)		
Entre las reservas deben incluirse las dos baterías que figuran en Uze- rreguía de 15'5 y 10'5.			
<u>—Frente de Burgos—</u>			
<u>Agrupación del T. Coronel Bolinier.....</u>		4.013. Hombres	
Aguilar del Campos (exclusive) hasta Soncillo	1 comp. Regto. 22.....)	150	
	Falange.....)	700	
	Guardia Civil.....)	98	
Desde Soncillo hasta Espinosa Exclusive	Falange.....)	633	
	Requetes.....)	4	
	Regto. Art. 11º ligº.....)	11	
	Guardia Civil y Asalto.....)	30	
Espinosa al crucero (exclusive)	1 comp. del Regto. 22.....)	150	
	Falange.....)	639	
	Acc. Pop. y Legión Española...)	78	
	Regto. Art. 11º ligº.....)	46	
	Zapadores.....)	36	
	Guardia Civil.....)	82	
El crucero Peña Orduña	Falange.....)	517	
	Requetes.....)	410	
	Regto Art, 11º ligº.....)	7	
	Guardia Civil.....)	75	
			(sigue)

10. Frontea 7 hilabetez egonkortu zen

Saiakera San Andres egunean Arrasate erasotzeko. Azaroaren 30ean, Legutioko ofentsiba hasi zen egun berean, erabaki zuten gudariak Arrasaterantz bidaltzea. Horrela iritsi ziren Arrasatera, Kanpanzar eta Aramaiotik blindatuekin eta Udala eta Murutik oinez iritsi ziren.

*San Andres egunien atakien blindauak sartu zien Urribarraño, Aramaixotik. Kurtzetan “gorrixen bidia” einda zegoen ordurako. Udalatik barrero ixa Zarugalderaño bajau zien. Orduan kontsolidau zan frentia. Urribarrin Iberduero transformadorien onduen nazionalak zangak tremenduak ein zauien barrero blindauak ez sartzeko, eta trintxerak Urribarrin. Udalako bidean, barrez, gorrixak trintxerak egin zauien Arrixan baserriaren gañien, handik ametralladorakin hartzen zauien Zarugalde kalia. Bestiak nazionalak, barrez, Larratxo baserrixan onduan.*²⁵⁴

*Azaroaren 30ean, San Andres egunean, Madril arindu nahian, Legutiotik Gasteizera joatea erabaki genuen. Murugainetik Arrasatera jaisteko saiakera egin genuen eta Olandixo baserriraino jaitsi ginen. Handik ikusi genituen erreketete eta soldaduak Zigarrolatik aurrera herritik alde egiten.*²⁵⁵

*Domeketan bandiak musikia jotzen auen plazan nahiz eta bonbak bota. San Andres egunian musika jotzen eta bonbak. Orduan egunian Kanpanzarartik blindaua etorri zan Villatranquilaraño, eta hemendik be bai bertaraño, hor egon zen tiroteua, baña ez zien sartu. Ramon Aranbarri “baranda” zetorren gorrixakin eta beste aldetik nazionalekin Justo Uribarrena gero alkatia izango zana. Gerra ostien Justo auen apopilo Ramon Aranbarrin etxian eta orduan jakin auien bata bestian aurrian borrokan ibili ziela.*²⁵⁶

10.1. 1936ko urriak 4. Elgeta-Kanpanzar aldean matxinatuak garaitu zituztenean

Irailaren 25ean, egunsentian, Grupo de Tejeroko matxinatuak, Bergaratik atera eta posizioak hartu zituzten Asunción, Pagomendi eta Angiozarren, baina Kanpanzartik tirokatu egin zituzten.

Urriaren 4an, matxinatuek ofentsiba jarri zuten martxan Intxorta-Kanpanzar lerroaren aurka. Baina erresistenteez eraso geldiaraztea lortu zuten egun batzuk lehenago jasotako arma berriei esker.

Bi aldeek nola bizi izan zuten borroka hura.

Erresistenteez:

Indar leialek garaipean handia lortu zuten Elgetako sektorean. Kanpanzar, urriak 4, igandea. Elgeta eta Kanpanzar artean bi gain daude: Gaztelugatxe eta Zabaleta. Bi horiek babesik gabe ziren ezinbestekotzat jotzen ez zituztelako eta beste tontor altuago batzuetatik oso ondo zaintzen zituztelako.

Etsaiak eraso konbinatu bat prestatu zuen. Gaztelugatxe eta Zabaleta artean frantsesestearen lubaki batzuetan bere indarrak jartzea lortu zuen. Hiru leku ezberdinetatik egin zuten eraso: Gaztelugatxe eta Zabaleta, Elgeta eta Kanpanzartik. Orduak iraun zituen; borroka basatia izan zen.

Matxinatuek atzera egin zuten eguerdian. Arratseko lehen orduetan, leialen ofentsiba zela medio, Gaztelugatxe eta Zabaletagaingo posizioak utzi behar izan zituzten. Sakabanaketa itzela izan zen. Gipuzkoan ez zen eman horrelako beste kasurik gerrak iraun zuen bitartean. Kalkuluek diote etsaiak 300 hildakotik gora izan

Nº 12

Inchorta

Inchorta-chiqui

Montes de Sibar

Harabieta (carr
a Sibar)

Elgueta

Arkonbieta


Ermita Ascension


Posicion Real
(encima Santiago)

Santa Marga
Xaracaldetras Elgoibar

Eslexa Ibendi
Monte Ascension (finar)

Ungurozar





1936ko ikuspegia, Intxortatik, Bergarako Labe Garaietaraino. Avilako Artxibo Militarra.

zituela. Hiru pertsona atxilotu zituzten, Olaberriako bi erreketek eta Ataungo soldadu bat, gerrara joateko derri-gorreetan erreklutatutakoa.

Indar leialen erasoak iraun zuen arratsaldeko bost eta erdiak arte. Lan bikaina egin zuten Kanpanzar aldean Ibarrola komandantearen aginduetara zeuden indarrek: CNTko miliziak, nazionalistak, Iñaki San Miguel Konpainiakoak, Zabalbidetako Errepublikarrak, Sozialistak, UHPko Gallastegui Konpainiako komunistak, Hernaniko Cuarta compañía de Dragones-ek, Aretxabaleako eta Gasteizko Segunda Compañía de Dragones-ek eta Batallón de Montaña Garellanok.

Gure indarrek Intxorta Aunditik hasi zuten euren ofentsiba Kanpanzarko eta Elorriko miliziek batera.

1936ko urriaren 4an Kanpanzarren hil zituzten hamabost erresistenteetatik sei Dragones Batailoikoak ziren eta bat UHPkoa. Ez dakigu gainontzekoak zein batailoitakoak ziren.

Pasaiako soldadu bat eta Altzako beste bat baserri batean babestu ziren hurrengo egunean indar leialak agertu ziren arte. Bi iheslariak esan uzten eurak aurkitzen iren Gaztelugatxeko posizioan zeuden ehun eta hogeitaz gizonetatik, hogeita hamar inguru hil zirela, haien artean, alferrez bat, brigada bat eta sarjentu bat.²⁵⁷

Kanpanzar Operazioa

Bere bertsioa ematen du Camilo Alonso Vega zutabeak, Kanpanzar erasotzeko operazioaren buru zena:


Urriaren 3tik 4rako gauean, Alonso Vega Teniente Koronelaren zutabearen konpainiek Grupo Tejeroren indarrak ordezkatu zituzten. Gaua Angiozarren igaro genuen eta goizeko zazpitan abiapuntuko posizioetan elkartu ginen Kanpanzar mendatea inguratzen duten gainak menderatzeko. Grupo Tejero Zabaleta eta Intxortako gaintara heldu behar da. Zutabe horretako Grupo Saletak Falangeko Centuria bidali zuen Zabaletarekin batera helburua lortzera. Bitartean, Flandesko 2. Konpainia, erreketek eta lehen konpainiaren laguntzarekin, saiatu zen Kanpanzarko hego-ekialdean dagoen gainera iristen. Horrela, Zabaleta eta Intxortatik, bi aldeetatik batera, fronte osoari (2 km) egin zioten eraso. Ez zuten artilleriaren laguntzarik izan.

Bestalde, Udalako leku bat baino gehiagotik tiro egiten hasi ziren, neutralizatu ezin zituzten arma auto-

matikoekin. Gauza bera gertatu zen Zabaletan eta Intxortan. Hegalaren tiroak gero eta gehiago ziren eta etsaiaren presioa gero eta handiagoa zen fronte osoan. Flandesko 3. eta 6. konpainiek bost orduz etsaiaren tiro hiltzaileei eutsi ondoren, baimena eskatu zuten baionetak erabiltzeko. Saiakerak porrot egingo balu erasotzaileak jasoko zituen erreserbarik ez egotean, eta Udalatik datozen tiroek posizioetan mantentzeko eragindako zailtasunarengatik, atzera egin eta baja guztiak Angiozarrera eramane zituzten. Etsaiak baja asko izan zituen. Guk hildako hauek izan genituen: Antonio Sanchez Diaz alferreza eta tropako 13 gizon zaurituta, 2. Konpainia ofizialik gabe geratu zenean haren agintea hartu zuten Rafael Oliver Urbiola kapitainak, Esteban Martinez de Luna tenienteak, Falangeko buru zen Ramon Millan tenienteak, Babil Areizaga alferrezak eta tropetako berrogeita hamazortzi gizonak. Beste bi desagertu egin ziren. Hilaren Sean, agindua jaso zuen falangeak okupatuta zituen baserriak husteko. Tropako bi kide hil ziren eta zortzi zauritu izan ziren. 7tik 20ra bitartean, etsaiek fusileria eta morteroekin egin zuten eraso. Tropako hiru gizon hil, Julio Lahidalga, Pedro García Aguilu y Antonio Sánchez Sáez de Jáuregui beste zazpi zauritu eta Antonio Acha Aguirre kapitaina oso larri zauritu zuten, Gasteizko Hospital Militarrean hil zen. Urriaren 21etik 31ra, fusil eta metrailadoreetako tiroak, 50 eta 81eko morteroak eta 7,5eko kanoikadak izan ziren. 22an, hiru hegazkinek 40 bomba jaurti zituzten. 23an, 60 bomba eta 24 eta 25ean, bi egunetan, 80 bomba jaurti zituzten egun bakoitzean. 26, 27, 28 eta 29an, fusileria eta metrailadore eta morteroekin egin zuten eraso. 30ean, 40 bomba eta likido sukioiez betetako kaxa bat jaurti zuen abiazioak. Tropako hildako bat eta hamabi zauritu izan genituen, haietariko bat, Angel Garcia Orive brigada, oso larri zauritu zuten.

Azaroan, egunero eraso zituzten gure posizioak, fusil eta metrailadore sua, eta, 50 eta 81eko morteroak erabiliz. Hilaren Sean, etsaien hiru hegazkinek herria bonbardatu zuten. Hilabete hartan, 12 hildako eta 18 zauritu izan genituen. Haien artean ziren Francisco Izar brigada, oso larri zauritua, Enrique Chas de la Cruz tenientea eta Francisco Borja Lauzurica sarjentua.²⁵⁸

Guztira, 1936ko urriaren eta azaroaren, Alonso Vegaren zutabeak 31 hildako, bi desagertu eta 108 zauritu izan zituen.



1936ko ikuspegia,
Kanpazarko bidea, Ziorla eta
Arrasate.
Avilako Artxibo Militarra.

Ondorengo hauek dira, 1936ko urriaren 4an, Angiozarren hildako America 23. Infanteria Errejimentuko kideak: Martin Beunza Aragon, Luis Junqueres Suarez, Maximo Lopez Oyon, Arturo Llamas eta Francisco Macias Villar. Guztira 44 zauritu izan ziren. Urrian, Santos Vega Carrera, Jose Monta Benito, Lorenzo Bellos Reguera, Florencio Martinez Gabin eta Anastasio Zubizarreta Azcarate eta azaroan, Angiozarren, Ramon Gil Vazquez, Eduardo Gonzalez Bordillo, Manuel Lamigueiro Fragala, Fidel Llamazares Alvarez, Francisco Ferreira Suarez, Luis Zalacain Arrue, Antonio Mangada Vila eta Amalio Arbonies Arbizu. Abenduan, Elias Marchite Jimenez eta Teodoro Larrañaga Tellechea.

Porrotaren ondoren, matxinatuek ofentsiba gelditu zuten. Egun batzuk geroago, urriaren 7an, aurreneko Eusko Jaurlaritza eratu zen eta Elgetako Estatutua deitzen zioten Euskal Estatutua onartu zen.

Borroka berriak urriaren 16an. .

Urriaren 17ko El Liberal egunkarian azaltzen da Elgeta -Kanpazar aldean izandako borrokak 15

eta 16a bitartean. Bederatzi eta erdiak aldera, matxinoek eraso gogorra egin dute gure posizioen aurka. Zortzi ordu eta erdiko eraso luzea. Goizaldeko ordu bi eta hirurak artean izan zuen intentsitaterik handiena. Erasoaldiak iraun zuen tartean izandako euri itxiak gure helburuak bistaratzeari galarazten zigun. Borroka basatia benetan. Indar leialek erreketean saiakera guztiak atzera bota zituzten, baja askorekin etsaia atzera egitera derrigortuz. Tiroketa eguna argitzean amaitu zen.

Kanpazar irratia eta iheslariak

Egunkariak dioenez, 1936ko urriaren amaieran, irradi instalazio bat jarri zuten Kanpazarren. Eraitza onak ematen ari zen. Egunean ordu betez emititzen zuen, arratsaldeko seietatik zazpietara. Albisteak irakurri, Arrasateko maisu baten interbentzioak eta Aretxabaletako gudari baten testigantzak euskaraz bere anaiak txistua jotzen duen bitartean beste batzuen artean, etsaiaren eremutik etengabean ihes egindako derrigorrezko soldaduak beste aldera pasatzera laguntzen zuen.

3.ª Brigada de Navarra

E. M.

13

~~DON~~

EXCMO. SR.

- 22-3-1937-

al General 6.ª División
Burgos.

El Coronel de la 3.ª
Brigada me da cuenta
de haberse parado al
avanzar los soldados
del 8.º Batallón de Ame-
nicie nº 28-3.ª Compañía
Amadeo ~~García~~^{Gacio} Delgado,
José Pérez Vega, Ramon
Prado Fernandez y Jesus
Añon Santullo.

Manda la Compañía
al Capitán Sr. José Moreno.
Lo dejo a V.E. para su
conocimiento.

Para su superior conocimiento,
remito a V.E. parte e información
sobre la desaparición de la posi-
ción de San Andrés de los solda-
dos del 8º Bon. de America Amadeo
Gacio Delgado, Jose Perez Vega, Ra-
mon Prado Fernandez y Jesus Añon
Santullo, ocurrido en el dia de
ayer.

Dios guarde a V.E. muchos años
Mondragon 19 de marzo de 1937
El Coronel

Rafael Latorre Rocaren txostena

EXCMO. SR. GENERAL JEFE DE LAS BRIGADAS DE NAVARRA VITORIA.

Kanpazarrera etorritako etsaiaren iheslariak. 1936ko azaroa.

Azaroak 23: Dionisio Pita Urman, Joaquín Mateos Ferrer (Sestao), Francisco Fajarnes Erce, Ángel Muniain Manero eta Ceferino Baquedano Churio (Irurzun).

Azaroak 24: Luis García Fernández, Demetrio García Martínez, Samuel González eta José García Fernández de Mieres, Sama eta Oviedo.

Azaroak 27: Saturnino García Galán (Gijón). Flan-deseko Errejimentuko kidea.

Azaroak 29: José Lamas González (Llanes).

Iheslari gehiago

Rafael Latorre koronelak esan bezala, kezka handia zegoen gure lerroetatik etsaiaren eremura joandako iheslari kopuru altuarengatik. Egunero gertatzen ziren horrelakoak. Kopuru hau guretik etsaiaren eremura joandakoen kopurua baino askoz handiagoa zen. Espioitza ahalik eta gehien murrizteko, ordu zehatz batean, etsaiaren aldean senideak zituzten zibilen joan-etorriak baimendu zituzten.

Otsailean América Batailoi bat elkartu zitzairen. Gehienak galziarrak ziren eta hauetariko asko eta asko etsaiaren lerroetara joan ziren. Bertan ostatu hartuta egon nintzen Oñatiko eskola batzuetan, moralari eta abertzaletasunari buruzko hainbat konferentzia eman zituen. Nirekin batera zegoen bizitoki-mahai hartan, nire lagun min, errespetagarri eta karlista amorratua zen On Miguel Satrustegui Errazkineko (Nafarroa) apaiza (G.B.). Honek hainbat artikulua idatzi zituen El Pensamiento de Navarra Iruñeako egunkari karlistan. Oso iritzi onak idatzi zituen Brigadaren eta nire pertsonaren inguruan, nahiz eta, gu biok ezberdin pentsatu. Sarritan, genituen ideia ezberdin hauen inguruko eztabaidak izaten genituen.

Eman nuen konferentzia batean, batailoi honi zuzendu nintzaion, frontera joan behar zirenean, gure idealekin bat ez zetozenak etsaiaren lerroetara joateko askatasuna izango zutela esateko. Aurrerago ikusi zen bezala, ondo ikasi zuten ikasgaia.

Horrela izan zen. Hona hemen errepublikaren aldeko bandora martxoan joandakoen zerrendak.

Aurrenekoa El Liberal egunkaritik ateratakoa da eta bigarrena Latorreren txosten batean jasota dago.

1937ko martxoak 7: Jose Ramón Rivas (Villalva-Lugo), José Martínez López (Freijo-Oviedo), Fernando Martínez López (S.Tomé-Pontevedra), Manuel Villanenin Castineira (Santiago-A Coruña), Venancio Requengo Carballo (Castro-Pontevedra), Francisco Rodríguez Otezo (Lavadores-Pontevedra), Rodrigo Grosas Alonso (Santa María de Castedos-Pontevedra). Hauek Anporretatik egin zuten ihes.

1937ko martxoak 18: Amadeo García Delgado (Orense), Jose Pérez Vega (Manzanera-Orense), Ramón Prado Fernández (Rubiana-Orense), Jesús Añón Santrillo (Carballo-A Coruña). Lau hauek América 23z. batailoikoak ziren eta San Andreseko posizioetatik egin zuten ihes.

Hegazkin faxista lurreratua.

“El Liberal” egunkaria. 1936ko abenduak 29: Hegazkin errepublikano batek beste hegazkin faxista bat bistaratu zuen, atzo, goizeko hamaika eta erdiak aldera, Arrasate inguruan. Etsaiaren “Dragon” markako bi motorreko hegazkina zen. Txuriz margotuta zegoen eta svastika zeraman. Hiru ametrailadora zituen. Errepublikaren aldekoa honengana hurbildu eta tiro egin zuen.

Hegazkina Arrasate eta San Prudentzio artean erori zen etsaiaren posizioetatik oso hurbil.

Sebastian Arexolaleiba Zabala, Gatzikarro baserrikoa zortzi urtekin Marinen gerrako lekukoa izan zen:

Uruburu mendian, Zarimutz, Marin, (Azaña eta UGTko batailoikoak) Jarindon (Accion Vasca) eta Maroton milizianoak ebitzen bitartean, Nazionalak, Gatzagan, Aitzorrotzen, eta Izuzkizan.

Milizianoak Zarimutzeko kanpantorretik mortero bateaz Gatzagara botatzen euen eta Aramaixotik Kruzetaruntz doan bidean errebuelta haundixen aurretik Kanoinekin Aitzorrotzera

Abioia Uruburutik fusilakin bota zittuen, handik hiru egunera Zarimutzera joan gitzen ikustera, zapata barri barrixak bakarrik ikusi neuen

Gurekin egoten zan Hipolito Azaña batailoikoa urrezko agiña jauzkan. Abanzia egon zanienean, 31 de marzo, Marinen zeuden milizianoak etzaukien informazioz hamarratekoa arto taloa jaten zeuden trankil trankil, Gatzagatik etorri zirenak Moroak lepoa ebai eta motxilan jaukien Hipoliton burua, Juan Aranburuzabala Asensiko baserrikuak ikusi euen.

Felisa Villar Beloki, Agerre baserrikoak esaten du: Gorrizen Komandantea gure baserrian sei hilebetez egon zan abantzia egon arte. Bilbora joaten zan Kruzetatik bueltan.

Enfrentamenduko bi indarren egoera.

Hona hemen nondik hasi ziren erresistenteen posizioak Arrasateko frontean, hau egonkortuta egon zen bitartean: Angiozarreko San Miguel Mendi ermitatik hasi eta, Angiozar, Kanpazar, Egomendi, Lurgorri, Udala, Larragain, Larratxo gaina, Euskitza, Arrexan, Besaide, Karraskain, Santa Agueda, Telleria baserriaren gainetik, Basterazpi, Bastergain, Naparrena gaina, Muru, Untzilla, Asencio Mendi, Azqueta, San Adrian, Zarimutz, Oroburu, Marin, Jarindo eta Maroto.

Bitartean, hauek ziren matxinatuen posizioak: San Prudentziotik hasita, Irutontorreta, Goltzarri baserriaren gainetik, Anporreta, Zeleta, "San Andrés", Lorogain, Loroko tontorra, San Cristobal, Santa Bárbara, Maitena, Olan, Larratxu, Miravallés-Olandixo, Mandogain edo Santa Luciako posizioa, Beko Mandogain, Txilibito Arrua eta Pagogainerainoko lautada osoa Naparrena baserri-runtz, Muxibar, Kurtzetxiki-Bedoña, Eguilior, Izurieta, Galarza, Apozaga, Aozaraza, Apotzaetxebarri, Aitzorrotz, Eskoriatza, Lategain, Aldain, Gatzaga, Arlaban, Isuzkiza

Victoriano Etxagibel, 1936an Garagazako Iturralde baserrian jaio zen. Egon gara 2019ko urriaren 29an berekin

Berak ezautu dituen trintxerak daude Larragainen, hau da Besaideko monumento berritik, Aramaioiko bide hartuta ezkerrean dagoen mendian. Tontoretik 20 metrora Garagarza eta Udalara begira. Zuzenak eta metro bateko zabalera eta metro bat baino gehiago sakonera.

Gerra ostien trintxerak ardixak keizpean egoteko erabiltzen ziren



Trintxeran San Miguel ermitaren aurrean

Lau Larragain, daude gutxienez, Arrasate inguruan: Kurtzetxikin, Matiena auzotik Udalaruntz, Mandoain eta Pagogaineko lautadan, eta Besaide monumentoaren aurrean (Tellamendirutz) dagoen mendian

Matxinatuek Santa Barbara gotortu zuten, mui-nean, alemanek emandako *hornigoizko metrailadore habi eta kanoiekin*. Lukoko horma dagoen lekuan zeuden. Habi bat Udalara begira, eta, bestea, kanoiarena, *Murura begira*.²⁵⁹

Udalako Larratxo baserrian hartu zuten posizioa. Uribarrin, zanga handiak eta lubakiak eraiki zituzten.²⁶⁰

Lubakien lerro bat eraiki zuten Lorogaindik Anporretaraino, eta, lubaki gehiago Hidalgo mendiaren eta Arbeko tontorraren atzetik. Horrez gain, Kurtzetxikin, kanoiak zituzten. Bestalde, faxismoaren kontrako erresistenteek lubakiak egin zituzten Murguingo mendi magalean. Txiribitonen aurreratutako postu bat zuten eta bi kanoi Gesalibarren.

Udalan, Arretxan baserrian zeuden. Hango lubakietatik Zarugalde kalea bistaratzen zuten. Udalatzen magalean, Lurgorri azpian, morteroak zituzten. Anporreta parean, Epeleren beste aldean, San Miguel ermita eta Kanpazar inguruan, lubakiak eraiki zituzten.



San Miguel ermitaren aurreko trintxerak



Ametralladorearen kokapena Lurgorrin

1937ko urtarrillien 20 lagun fan gitzen Garagartzatik trintxerak egiten Murugañera. Arrasatera begira, baserrien gañien, basuen hasieran, burdi bide txar bat euen, han hasi gitzen ilunkaran atxurrakin eta pikatxoiaz, gerriraño zuloa eta gero bertatik ataratako lurrakin beste metro erdi trintxeran aurrian. Beste hiru lagun gugandik 10 edo 15 metrora alanbradak jartzen zauien. Pertsona bi roilluaz eta beste bat postetan koloketan. Dragoneseko mondragoetarrak euzen bertan Gregorio Laspiur, Altuna baserrikua, fusil ametralladoriaz. 81eko morteruak, eta ametralladoriak be baeukien. Morterazoak botatzen zauien Olan baserri ingurura eta Erguingo trintxeretara, bertan hil zan nire primua Biziola baserrikua Santiago Dolara Mendizabal. Kuartela Aramaixon euen, janarixak Muru eta Udalara erueteko bertan eitten zien.²⁶¹

Fabián Echebarria Berecibar, Montzon baserrikua, gerra hasieran bederatzi urte zituen, Kanpazar aldeko borrokaren lekukoa izan zen.

Egomendin bi ametralladora, sako terreroekin... Izen batzuk aipatzen ditu: Angel Pico, Bilbao, Gionardo Garcia...” la primera donde está el pinar debajo de Egomendi y la segunda arriba en la zona que esta sin árboles, a la derecha de Egomendi. Morteruak be egon zan han Lurgorriko zerien... hau klaru dau joan ezke-

ro...hori atxa haundixa hasten dan pareien beraxuau ... garbi bat bedarrakin gainekaldian...Saran parien goratxoago karreteran zanjia metro eta erdikoa zabalera eta metro bateko saskonarekin. Kamino Zaharrien hormakin einda parapetoa. Saratik Kanpazarrera metal iturria baino gorago, hiru blindatuko kamioiak 10 mmko txapiaz, zuloak zeukien mendian gordeteko. Uno de estos blindados bajo el día de San Andres hasta el caserío Txosa... y que en un monte entre Lorogain y Altzaurruti (San Andres posizioan) que pusieron un cañon del 7,5 y que tres disparos pegaron en el caserío. Montzoneko terrenoetan be trintxera luze bat egon zela, eta 5 metrora tiradorentzako zuloa aurrekaldera... San Miguel de Monten gorrixak eta Goltzarri baserriaren gaienan nazionalak, 200 metrora borrokatzen...

1936ko urriaren borroketan Kanpazarren “bayoneta caladako borrokak egon ziela”.

Bertako baserritarrak: Urtarrilaren 4ean, inguruko baserri guztietara eramán zituzten Elorriora (Sara, Monzon,..) euren abereekin eta apirilaren 28aren bueltan itzuli zirela Intxortako erretretaren ondoren.

Bere familian be sufrimendua jaso zuten, bere anaia Angel Echevarria 27 urtekin hil zan Teruelen Tercio San Miguelen ...Arrasatera joan zan 30 ardiekin eta behartu zuten apuntatzera...Aitagin arreba Daniel



Anporretako trintxerak

Berecibar Berecibar hiru hilebete preso egon zela Ondarretan Bizkaitik etorri zenean...

Joxe Bizente Etxabe, Degurixako artzaina, el-karrizketatu genuen 2019ko uztailearen 31n.

Degurixan zegoen ardiekin kolpe militar faxista hasi zenean. 14 urte zituen, “Gorrixak eta milizianoak kamioen gora eta behera, Degurixan Arabako mendixetan ein auien trintxerak, ta egunez juen eta gauez alde. Handik Peñakulora ardixekin juen nitzen”.

“Gero San Miguel egunien militarrek Atxorroztik behera sartu zien” “Bedoñan Larragainen frentie egon zuan, (Kurtzetxiki) borrokak a tope egon zittuan Mondragoen sartzeko, hildakuak egon zittuan”.

“San Andres egunien gorrixak hasi zien Mondrauen sartzeko, kamiñoraño allegau zittuan. Gero, Mandoainen gelditu zittuann. Gabez etxera natorrela alto! requeté batek euskeraz, nungue haz?, Muzibar baserrikue, ezin haz fan gorrixak hartu dauielako kamiñue. Coge a este chaval y llévale donde el Capitán al ayuntamiento, Kapitanak, tienes algún pariente? Si un tío, osaba etorri zuan, ya le conoce, es mi sobrino, libre utzi nind-

duten, gaba osaban etxien pasau ta barriro mendire”.

“Santa Luzia egunien matxinatuen atakie egon zuan, ta gorrixak Mandoaindik bertatik alde egin juen Bastergain eta Basterrazpira”.

“Udalara bidetik Larragaindik tirokatzen zuten, balak etorten jatan... Euzkitzan gorrixak euzen, ta Olanen ta Larratxon besteak”.

“Erreka barrenien, Meka Gasolinera dagoen lekuen, hiru kañoi 15 y mediokuak jarri zituzten, kapitana andaluza zan”.

“Gero aprillien abanzie egon zanien, Gellatik gora atakie Untzillara, jende asko hil zan”.

Antxon Etxabe, Baster Gaineko baserritararekin 2019ko urriaren 26an: Heurak baserrira etorri zirenien 1975ean, zelaian obusak aurkitu zituzten, baserrian bonbabatek egindakoak, trabesaño bat zulotuta.

Santa Barbaratik, botatzen zituzten kañonatzokak bertara, eta baserria gaindututa atzeko zelaira jausten zien

Trintxerak berriz, gorrixenak Aramaioko bidean



Larratzuko bunkerra

gaineke Telleria baserriaren pinuditik hasita zijoazen jarraian Untzilaraino. Napparrena baserriaren gainetik.

Besteenak, matxinatuenak, Mandogainetik, Posición Santa Lucia erreketentzat). Beko Mandogain, Txilibito Arrua, eta lautada guztia hartuta Pagogainerano zijoazen. Napparrena baserriaren aurreraino.

Txilibito arruan matxinatuek zulotu zuten mendia eta bertan gorde lekua zeukaten

Telleriako tontorrean, aurkitu ditugu, bala asko, máuser eta lebel, metralleroen kanikak, pala bat, lapikoa, obusen zatiak eta baita ere bi poste burdinazkoak bat osorik, alanbrea artean jartzen zirenak. Trintxerak eta babes tokiak (refugios pasivos). Ikusten dira oraindik.

Juan Luis Otxandiano y Román Otxandiano bere aitak dioskue lehenengoaren osaba eta bigarrenaren koinatua izan zen Santiago Arana Elcorobarrutiak, Larratxu baserriko semeak, 13 urte zituela gerra hasi zenean. Santiagok senideei kontatu zien *matxinoak bere baserrian zeudela eta parez-pare, oso hurbil, erresistenteak eta nola suntsitu zuten eztanda*

handi batekin baserria. Gauetan, lerro batetik bestera, elkarri bertsoak kantatzen zizkiotela. Erresistenteak gauez fronte horretatik joan ziren. Goizean goiz, matxinatuek bandera bat ikusi zutela eta orduan konturatu zirela horixe zela utzi zieten bakarra bandera.

Arrasateko Udalaren bilkura Elorrion.

Arrasateko Udala 1936ko urriaren 19an eratu zen Elorrion. Bertan izan ziren: Nicolas Uriarte, Eustasio Markaide, Felipe Letona, Bernardo Gomez eta Jesus Uranga. Eusko Jaurlaritzari zorion-gutun bat igorri zioten eta eraketaren berri eman. Josefa Urreta Garcia, Feliciano Garcia eta haren alaba bi Eibarko ospitalera eraman zituzten. Markaideren eta Urangaren deskargua, zeintzuk Santander probintzian errefuxiatuta zeuden senide arrasatearrak bizitatu zituzten: Defentsa Batzordeko funtsetatik banatu den dirua: 30 pezetako diru laguntza 14 urtetik gorakoei eta 20 pezeta 14 urtetik beherakoei. Ez dute jaso diru laguntzarik 18 eta 45 urte bitarteko gizonezkoek, edo soldatarik edo milizianoen bat duten familiek.



Arrasate Lurgorritik



Kurtzetxiki



Aterpe pasiboa Lurgorri



Lebel balak Lurgorri



Loroko tontorra



San Andres posizioa



Jarindo



Naparrena baserriaren gaineko trintxerak



Grandena



Lorogain



Parapettoa Lurgorri eta Egomendi artean Udaltaxen.

10.2. Autonomia Estatutua eta Eusko Jaurlaritzza

Autonomia Estatutua onartzea

Gauza frogatua eta agerikoa da Errepublikak garaiaren lehen partean errepublikanoen eta sozialisten artean koalizioa atzeratzen joan zela Espainiako Estatuko nazionalitatearen arazoaren konponbidea, Euskal Herriko mugimendu nazionalista erreakzionarioa zela aitzakia harturik. Jokabide hori zela-eta periferian sozialistak “Inperialista espainolizat” hartu zituzten. Honela zioen Agirrek Lizarrako Estatutuari buruz: “Ezin dira inola ere onartu Gobernuko ezkerreko alderdiek jartzen dituzten oztopoak”.

Alderdi sozialistak garai hartan nolako jarrera zuen hobeto ulertu dadin Miguel de Amilibiak, 1936an Frente Popularren aldetik Gorteetan diputatu izan zenak eta garai hartan Alderdi Sozialistako bazkide zenak egindako deklarazio batzuk bihurtu ditugu hona zuzenean. (Deklarazio haiek, bistan da, geroztik eginak dira).

Euskal autonomiaren arazoa Errepublikaren sarreratik bertatik planteatua zegoen, eta ezkerreko alderdi guztiak horren aldekoak ziren. Nolanahi ere, Euzko Alderdi Feltzaleak bazuen joera bat euskaldunen abertzaletasun sentimen guztiak monopolizatzeke, eta joko hori erraztu

besterik ez zuen egiten euskal ezkerreko alderdiek arazo horretaz zuten oinarri-oinarrizko ezjakintasunak. Euskal kontzientzia nazionala urrats handiz ari zen hedatzen Gazteria Sozialistaren baitan. Garai hartako Alderdi Sozialista abanguardiarikoa alderdi bat zen, arazo sozialetan oso gogorra, nahiz eta Euskal Naziotasunari dagokionez, gure arazoak ez zituen ulertzen zehatz eta argi. PSOEek zioenez “Euskal Herriak badu eskubidea autonomoa izateko, baina Espainiako Estatuaren baitan”. Herri baten autodeterminazioaren kontzeptua, beraz, (giltzarria dena nazio bezala aske izateko, alegia) ez dute inoiz onartu.

Nik neure baitan planteaturik nuen bi zioen berdintasunaren arazo hori. Herri batek ezin du inola ere aske izan opresiozko erregimen klasista baten mendean, eta are gutxiago izan liteke aske beste herri bat zanpatzen ari den bitartean. Horregatik nuen nik joera, eta daukat oraindik, bi arazo horiek bat egiteko, Euskal Herriaren arazo nazionala, eta sozialismoaren helburua.²⁶²

Altxamendu militarrek bere Autonomia Estatutua Parlamentuko batzordeak onartu berria zuenean harrapatu zuen ustekabea Euskal Herria, oraindik Parlamentuak onartzeko tramitea bete gabe zegoela. Urriaren 7an Gernikan sortu zen lehendabiziz Eusko Jaurlaritzza, onartu zen Estatutua, Elgetako Estatutua bezela ezaguna onartuta gero Madrilen.

11. Arrasateko Batailoiak

1936ko Urria. Batailoien eratzea

1936ko urria. Frontea Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan zegoen gelditurik -Eibar eta Elgeta, Gipuzkoako herriak direnak, gure eskuetan genituen, Ondarroa, ostera, Bizkaiko portua, etsaiaren eskuetan geratu zen, eta bakean zegoen. Egiazko gerra beste leku batzuetara joan zen. Denbora bazegoenez gero, eta plantilla eta instrukzio zehatzak eman zirenez, miliziano taldeak batailoi bihurtzen ari ziren berehala, kuartel bezala eskolak, komentuak eta bestelako eraikuntza publikoak zituztela. Alderdikako batailoiak ziren haiek, "hurrengo bueltaren" ideia ez baitzen oraindik erabat baztertua. Indarra behar zen atzean, inor nor izango bazen. Horregatik esaten ziren batailoi nazionalistak, batailoi sozialistak, batailoi komunistak, batailoi anarkistak, batailoi errepublikanoak. Alde batetik, Iparreko Armadaren Estatu Gorenak antolatu zituen eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak.²⁶³

11.1. Dragoien Batailoia

Dragoien 22. borroka-batailoia Arrasateko eta Aretxabaletako JSUko gazteek, Donostia, Hernani, Pasaia eta Errenteria aldeko milizianoek eta Arabatik ihes egindako lagun batzuek osatzen zuten. Honako egitura hau zeukaten: buruzagitza (Gerardo Ruiz komandantearen aginduetara) eta bitartekarien sekzioa; lau infanteria-konpainia eta metrailadore konpainia bat; sekzio mistoa; gizarte zerbitzuen eta kuartelarien sekzioa; txoferrak eta armazainak. 1. konpainiako guztiak Arrasatekoak ziren, 2. konpainiakoak Aretxabaletakoak eta Arabatik alde



Estado Mayorrekoak Elorrioren 1937ko martxoaren 12an.

egindako gazteak, 3. konpainiakoak donostiarrak, eta 4. konpainiakoak hernaniarrak. Horiei guztiei gehitu zitzaion Pasaiaiko metrailadoreen konpainia.

Denboraren poderioz, batailoia Meabe zutabearen sartu zen, eta, gerran zehar, Intxorta mendien okupazioan (1936ko urrian), Untzilla eta Murugain mendien defentsan (1937ko martxoaren 31ko erasora arte) eta Karraskaingo eta Barazar mendateko borroketan hartu zuten parte. Era berean, Eusko Gudarostearekin batera, Euban eta Lemoako Haitzeko borrokaldietan jardun zuen, baita Burdinazko Ge-



Gregorio Gonzalez Rubiok udaletxean egiten zuen lan; herriko serenoa zen. UGTko afiliatua. Atxilotu eta Kanpazarren fusilatu zuten.

rrikoaren ingurukoetan ere, El Gallo izeneko eremuan. Gero, Santanderren, batailoiko kide batzuk sartu ziren Larrañaga brigadan eta beste Rosa Luxemburgon. Brigada komunistak ziren biak. Bizirik ateratzea lortu zutenek borrokatu zuten Larrañagarekin Reinosa eta Cabezón de la Sal udalen arteko poltsan, eta Mazuco mendian (Asturias) ere bai, 1937ko irailean. Azkenean, El Musel portuan (Gijón) atxilotu zituzten.²⁶⁴

Batailo horien 195 arrasatearrek osatu zuten Elorriko, 1936ko iraila bukaeran. Ordurako beste hamaika borrokan hilik ziren. Pedro Ruiz de Alegria Balanzategui, Domingo Abarrategui, Timoteo Zubizarreta, Sabino Lasaga, Juan Olazagotia, Eusebio Berecibar, Benito Uranga, Pedro Olmedo, Gregorio Gonzalez, Camilo Ibañez eta Eugenio Bolinaga Velar. Zauritua, Gabino Aranburu Garro. Elorriko Estado Mayorrean zeuden, Celestino Uriarte, Martín Errarte Sologaistua, Eugenio Ortueta, Cosme Altuna, Marcos Vitoria, Marcelo Vitoria Zabarte, Pedro Gallastegui, Salvador Laspiur, José Aranburu Garro,

Ricardo Ceciaga Lasagabaster eta Amos Azconaga Zubiare.

Jarraian beste 171 gudariren izenak.

Gerardo Ruiz de La Cuesta Gomez, Komandantea

Segundo Olazagoitia Garcia, Kapitaina

Bernardo Gomez Otxoa, Tenientea

Felipe Anduaga Lopez, Tenientea

Francisco Guridi Arrieta, Tenientea

Francisco Azconaga Arana, Tenientea

Antonio Guridi Garai. Komisario Políticoa

Jose Aranburuzabala Azcoaga, Suboficiala

Agustin Zabaleta Orbiso, Suboficiala

Martin Alberdi Juldain, Rufino Azcoaga Azurmendi Francisco Letamendi Ojea, Luis Ormaechea Galdos eta Gregorio Gorosabel Amozarrain Sargentoak

Lucio Goronaeta Mendizabal, Vicente Echevarria Larrañaga, Tomas Zabarte Iturriaga, Roman Zabarte Garay, Victor Berecibar Ormazabal, Jesus Balanzategui Zubizarreta, Pedro Urbina Ortiz, Urbano Dominguez Camazo, Ventura Vega Alvarez, Guillermo Lasagabaster Gorosabel eta Sotero Moreno Perez, Kaboak

Jose Maria Arriaran Ortueta, Benito Arriaran Ortueta, Santiago del Valle Arcada, Luis Balanzategui Zubizarreta, Jesus Herrera, Victoriano Fernandez Garcia, Francisco Gonzalez Gonzalez, Francisco Goronaeta Mendizabal, Pedro Ibañez Azcoaga, Alejandro Sagasta Azcoaga, Jaime Uriarte Cestona, Pablo Tarragona Calvo, Daniel Heriz Arizmendi, Gregorio Azconaga Arana, Jacinto Olazagoitia Ceciaga, Tomas Ruiz de Alegria Balanzategui, Roman Arenaza Jainaga, Cruz Ugarte Arcauz, Jose Acha Zubia, Ismael Diez Fernandez, Esteban Ibarra Iriondo, Atilano Ramos Gamazo, Gurmensindo Alvarez del Rio, Felipe Elorza Heriz, Jesus Otaduy Heriz, Roman Berecibar Otaduy, Fernando Aguirre Cortabarria, Jose Aguirrebengoa Gabilondo, Francisco Arabaolaza Alcelay, Mateo Abarrategui Abarrategui, Felix Garay Albistegui, Sabino Ugalde Basoa, Jose Aperribay Oquina, Marcos Altuna Sagasta, Gregorio Laspiur Urrutia, Zozimo Olmedo Paunero, Jose Ceciaga

Aguiriano *Ponponio*, Jose Lizarralde Otaduy, Benito Herrarte Sologaistoa, Francisco del Rio Fernandez, Bernardo Gomez Garcia, Jesus Oyanguren Arana, Arsenio Rodriguez Zamora, Jose M^a Echevarria Chinchurreta, Felipe Ormazabal Arregui, Juan Garcia Orte, Francisco Zabaleta Axpe, Patricio Garcia Jimenez, Juan Garro Uribarren, Carlos Eguidazu Lizarralde, Emilio Vitoria Vitoria, Angel Cortabarria Basauri, Manuel Eguiluz Lasa, Angel Zubillaga Arregui, Juan Ugalde Basoa, Jose Fernandez Barbero, Jesus Inda Errasti, Benjamin Pereira Juldain, Jesus Ceciaga Aguiriano, Agustin Salaverria Echaniz, Victorio Castelo Fernandez, Vicente Uranga Mendizabal, Felix Zarate Uribe, Jose M^a Lecumberri, Pio Leibar Cortabarria, Salustiano Ormazabal Arregui, Andres Matute, Celestino Heriz Arizmendi, Joaquin Mendieta Egaña, Nicéforo Andres Carmona, Eutiquiano Sanchez Lopez, Cristobal Lizarralde Otaduy, Francisco Orobengoa Gonzalez, Constantino del Pozo Riesco, Victoriano Ormaechea Ibarondo, Matias Arabalaza Alcelay, Enrique Murga Iraio, Jose Bengoa Gondra, Jesus Zuazua Mondragon, Olegario Llanos Gonzalez, Bernardo Lopez Alceaga, Alvaro Ibañez Azcoaga Luis Fernandez Barbero, Eladio Abadiano Barrencoa, Angel Abasolo Mondragon, Felipe Arenaza Jainaga, Victor Bolinaga Arregui, Joaquin Pereira Juldain, Francisco Ruiz de Alegria Balanzategui, Serapio Urrucha Lecuona, Agustin Zabala Aguirrebeitia, Clementino Ramos Gamazo, Victorino Bedia Arregui, Irineo Lopez Lorenzo, Vicente Uribechevarria Ruiz de Azua, Miguel Cortabarria Basauri, Miguel Menchaca Mancebo, Gregorio Azcoaga Azurmendi, Carmelo Balanzategui, Marcelo Tarragona Calvo, Jesus Zabala Lizarralde, Emilio Rodriguez Rodriguez, Fausto Iturri Alcaraz, Miguel Zubia Zumelaga, Francisco Garay Albistegui, Angel Acha Iturbe, Jose Ortuoste Altuna, Juan Elorza Heriz, Fermin Arabalaza Arriola, Federico Zarraola Aislodi, Jose Riviere Ormaechea, Ramon Alvarez Acuña, Valentin Gonzalez Gonzalez, Genaro Ibarra Treviño, Martin Heriz Arizmendi, Arturo Murias Rico, Domingo San Vicente Mugica, Carlos Regodebeces de Lucas, Fermin Ibañez Azcoaga, Adrian Pinto Lorenzo, Andres Fernandez Bilbao, Tomas Uribe Echevarria, Lorenzo Blazquez Navarro, Jose M^a Echevarria Larrañaga, Candido Ruiz de la Cuesta Gomez,

Jose Zaya Zabala, Jesus Balanzategui Furundarena, Segismundo Gonzalez Gonzalez, Isidro Uriarte, Jacinto Zabala Aguirrebeitia, Felipe Vitoria Zabarte, Jose Menchaca Mancebo, Elias Olmedo Paunero, Jose Aranburu Bidaburu. Teodoro Garcia, Primitivo Sanchez, Avelino Abarrategui, Antonio Castelo, Jesus Martinez, Andres Castelo. Rogelio García Lumbreras, Felipe García Lumbreras, Francisco Mondragón Altuna, Ismael Casado Fernandez, Atanasio Casado Fernandez, eta Ignacio Ezkurra Areitio.

Dragones batailoia

Arrasateko “Dragoiak” batailoia izan zen Eusko Gudarostearen batailoi tipiko bat. Lehen osagunea Arrasateko gazte jendez eratu zuten. Geroztik, elkartu zitzaion, Donostia, Hernani, Errenteria eta Gipuzkoako zenbait herritako jendea ere.

Hasierako borrokak

Batailoi horretarako ofizialak, gerra hasi aurretik zenbait sindikatutan egindako lanaren edo izandako karguen arabera aukeratu ziren batez ere. Arrasate erori ondoren, Gazteria Sozialista Bateratuko zenbait bazkidek izena eman zuten ordurako Elorrioren eratu zen batailoi horretan, eta banderarako aukeratu zuten kolore gorria. 150na gizonen inguruko 4 konpainia eta metrailetako beste konpainia batek osatu zuten. Lehenengo konpainiako gudari guztiak arrasatearrak ziren; gerra hasieran Segundo Olazagoitia izan zuten kapitain eta Martin Alberdi, Antonio Guridi eta Felipe Andoaga teniente. Komandante karguaren lehena izan zen Gerardo Ruiz de la Cuesta. Gerora, Ebroko batailan hil zen.

*1936ko urriaren 4an, Kanpanzar-Elgetan, Dragones batailoiko bi konpainiatako kideok beste batailoi batzuetako konpainien laguntzarekin, frankisten erasoaren aurka egin genuen. Etsaiak hildako asko izan zituen eta hainbat preso egin genituen. Borroka honetan garaitua izan ondoren, etsaiak bere ofentsiba geratu zuen.*²⁶⁵

San Valerion, batailoiko beste kide batzuk erori ziren: Jose Bengoa, Gregorio González eta Francisco Etxebarria, hura Elmako langilea zen eta irailaren 26an hil zuten.



Dragones batailoiko zapadoreak

Jose M^a Arriaranek eta Santiago del Vallek ere euren testigantzak eman zituzten: *Hiru edo lau aste igaro genituen Elorrion eta Axpe Marzanan, hantxe kokatu baitzen frontea, eta geroztik guk lekua hartu genuen Murugainen eta mendi horren Arrasate eta Aretxabaleta aldean hegaleko posizioetan; han eraiki genituen gure gotorlekuak. Garai hartan etorri zitzaizkigun - 1936ko urri aldean gaude- fusil eta metraileta txekoak. Bagenuen posizio aurreratu bat; gauero uzten genuen lotara Naparrena baserrira joateko, eta hurrengo egunean hartu egiten genuen berriro. Horietako batean etsaia konaturatu egin zen nonbait, eta segada bat antolatu zigun; hartan hil zen Victor Bolinaga. Hurrengo egunean asaltoan hartu genuen. 266 Bitor Bolinaga, zelan enlazier eitten zauen. Eurak azela Aramaixon, ta pasetan zala, a ver ze mobimiento auen Atxabaltan, hartuta jauan Frankok, eta orduan obatu ein eutzien ta hil juen orman kontran Atxabaltako kanposantuan, ta gero egun bi errastadan ibili ein juen tarras zaldi batekin Atxabaltan gora ta bera, jendia bildurketako.*²⁶⁷

Azaroaren 2an, Dragoien lau konpainiak Karraskainen elkartu ziren. Posizioei eustea lortu zuten, etsaiekin tiroketa gutxi batzuk izan ondoren. Batailoia azaroaren 26an hasi zen ekinean, Guillermo Lasagabasterrek azaldu zigun moduan:

Azaroaren 26an, gure Estatu Nagusiak agindu zigun etsaien bi lerro erasotzeko. Bata Arrasatetik bi kilometrora zeukaten ezarrita, "Maitena" etxea dagoen mendian, eta bestea Olandixotik gertu. Etsaiak ustekabean harrrapatzea zen gure helburua, euren indar guztiak Arrasatera bidaltzera behartzeko, gure beste batailoiek Legutio errazago har zezaten.

San Andres eguneko eraso

Azaroaren 30eko eraso San Andresen, goizeko zortzietan hasi zen Latorreren hitzetan: Bat-bateko etsaiaren eraso zakarra, baina, ez ustekabeakoaren ondorioz, eta etsaiaren asmoak zeintzuk ziren ikusi ondoren, agintariak zutabeak betetzen zuen hamabost kilometroko frontean zutabe indar guztiak mobilizatzen deitu zuen. Gasteiz eta Bergararekin genituen komunikazio lerroak moztu nahi zizkiguten zutabea inguratzeko. Une berean, Larratxu eta Larragaingo posizioetatik, aurrez-aurreko eraso bati ekin zioten.

Sua erabiliz, honako errepideak moztu zituzten: Bergararako errepideak, Arrasate eta Musakola arteko lehenengoa eta Eskoriatza eta Leintz Gatzaga arteko bigarrena. Aurreneko errepide mozketaren egoera leheneratzeko, Arabako 10. eta 13. Erreketek Konpainiei agindu nien San Andreseko posizioetako pinudia okupatzeko, bertatik, aipatutako tarteko errepidea kontrolatzen delako. Bi konpainia hauek Romero kapitainaren eta Unibaso tenientearen aginduetara zeuden. Etsaia pinuditik botatzea lortu ondoren, bidea zirkulatzeko libre geratu zen zibilentzat zein militarrentzat. (San Andreseko posizioa Lorogain eta Anporreta artean dagoen mendi bati deitzen diote eta izen hori jarri zioten apostolu honen egunean okupatu zutelako).

Jarraian, agintariak ahalegin guztiak egin zituen Larratxu eta Larragaingo posizioetatik Arrasateren aurkako eraso eutsi eta bere aurka egiteko. Lehenengo puntuari dagokionez, agintariak ez zuen ezer agindu. Posizio hauek babesten zituzten indarrek, Santa Barbarako artilleria su bortitzaren laguntzarekin, azkartasun eta kemen handiz eutsi zioten. Arrasatetik Oriamendi bi konpainia bidali zizkieten, 1go eta 2. Konpainiak, hain zuzen ere. Biak zeuden Guijosa komandantearen eta Ponce de León kapitainaren aginduetara. Hauekin batera, Compte kapitainak zuzendutako América Batailoiko beste konpainia bat ere bidali zieten. Aurka egiteko erasoan, baja asko egon ziren. Guk hildako bat, hamar zauritu eta hiru odoluritu izan genituen. (Rafael Latorre Roca)

Hona hemen, azaroaren 30ean bertan, gaixo zegoen José de Artetxek idatzi zuena: Hainbat egun daramazkit ospitalean. Gaur eraso handi bat egon da herriaren aurka. Leihotik ikusi dut aurreko posizioeko soldaduak nola hasi diren korrika ihesean. Tertzioa oso ondo portatu dela diote.

Jose Jose M^a Arriaranek eta Santiago del Vallek

Agindua zorrotz bete genuen. Dragoien bi konpainia Karraskaindik abiatu eta, lau ordutan oinez egin ondoren, Aramaiora iritsi ginen. Hilaren 27ko goizaldeko ordu bietan, Murugaineko bidea hartu genuen. Bitartean, Udalan geratutako bi konpainiak kokatu ziren gauez "Maitena" etxearen inguruan, goizaldeko 08:00etan erasoari ekiteko asmoz.

Goizeko 05:00etarako bi konpainiek Murugain hartuta zeukaten, inolako gorabeherarik izan gabe. 10 gizon utzi zituzten bertan, sarjentu batekin, eta besteak Arrasate aldera joan ziren, eta bidean gutxika aurrera egin zuten. Goizeko 08:00etan, gure buruzagiak aginduta, denok batera tiroka hasi eta iritsi ginen etsaien jatorrizko posizioetara. Ustekabean harrapatu arren, ezin izan genituen zeharkatu alanbrezko hesiak, okupatutako azalera izugarri hartan ezarrita zeuzkatena. Gainera, gune estrategiko guztiak menderatzeko, eskudra bat behar genuen gutxienez. Ez genuenez behar beste gizon fusil metrailadoreen eskudra bakarra iritsi zen etsaien posizioetaraino. Ni ere tartean nintzen. Baina erasotzen hasi ziren, eta, tiroketa ikaragarri baten ondoren, 300 bat metro atzera egin eta zuhaitz batzuen atzean babestu ginen, adore handiz.

Posizio haiek okupatzea sekulako arrakasta izan zen guretzat, Aretxabaletan eta Arrasaten fusilekin eta morteroekin borrokatu eta gero. Gainera, Gasteizko errepide nagusia moztea lortu genuen.

Posizio horiek finkatzea eta lubaki egonkorrak egitea eragozteko, etsaiak trebe jokatu eta egunero eraso gintuen.

Bi konpainiarekin terreno asko okupatzen genuenez, iluntzean lehenengo lerrotik erretiratu eta atzera egiten genuen jende nahiko ez genuelako gune estrategikoetan guardiak egin ahal izateko.

Etsaia gure operazioaz jabetzean, Santa Luzia egunean, guk lehenengo lerroko lubakiak hartu aurretik, gauez hartu zituzten. Eguna argitzean lubakietara iritsi ginenean, bertan aurkitu genuen etsaia. Borroka latza izan zen, aurrez aurrekoa. Guk hainbat baja izan ondoren, laurehun metro inguru egin behar izan genuen atzera, Baztergaineraino.

Etsaiak Udako posizioei egin zien eraso, baina, hildako askorekin, atzera egin behar izan zuen. Borroka



Benito Arriaran Ortueta



Jesus Zuazua Mondragon.

horren ondoren, Malatesta batailoiak txandakatu zituen Udalako posizioetan zeuden Dragones batailoiko bi konpainiak. Horrela, Dragones batailoiko konpainia guztiak elkartu ziren Untzilla, Murumendi, Baztergain eta Baztergainazpiko posizioetan. Murugainen gerra zegoenik ere ia ahaztuta igaro genuen negua, Santa Barbara eta Otalazelatik jaurtikitzen zizkiguten kanoikada batzuegatik ez bazen, han etsaiak bateria batzuk jarriak baitzituen, soldadu alemanekin.²⁶⁸


1936ko abenduko borrokak

1936ko abenduaren 31an, ordurako koronel izendatuta zuten Rafael Latorrek idatzitako txostenean azaltzen da abenduan zehar borrokek iraun zutela.


Hau da, San Andres eguneko errepublikanoen ofentsibak Arrasaten jarraipena izan zuela ondorengo egunetan:

Agintariak azkar bidali zizkidan errefortzuak. Fusilen bi konpainia eta beste bat fusil metrailadorez osatua. Guztiak Gual Komandantearen aginduetara. América Batailoiko fusilen bi konpainiak Aretxabaleta, Eskoriatza Gatzaga eta Arlabango posizioak indartzera joan ziren eta fusil metrailadoreen konpainia agintariaren esanetara geratu zen.

ABENDUAK 1.- Etsaia aktibo mantendu zen fronte guztian, San Andresetik Arlabaneraino. Aktibitatea aurreko eguneko baino txikiagoa izan zen. Aldiz, Muru inguruko mendietatik ikusi zuten nola etsaia




Murugaineko defentsak. Avilako Artxibo Militarra.



Planoa, matxinatuen artilleria kokapenak. Avilako Artxibo Militarra.



Erresistenten defentsa lerroak, Balmasedatik Markinaraino.




poliki gure lerroetara sartzen saiatzen ari zen lubakietan babestuz. Gauza bera egin zuen Larratxu Larragain aldean. 75 zentimetroko Krupp bateria bat etsaia lubakietan babestea galarazten aritu zen hauek bertan hedatu eta sendotu ez zitezten. Agintariak bateria hau bidali zuen zutabeak 10,5eko bi obus besterik ez zituelako.

Etsaiak Elorrioko errepidean zeuden blindatuekin, gauean, aurreko bi egunetako bajak jaso zituen. Hau zen libre zuten errepide bakarra.

ABENDUAK 2.- Etsaiak bere atzeragoardiarekin errepidez zuen komunikazio bakarra oztopatzeko asmoarekin, El Loroko posizioetara artilleria pieza bat

eramatea agindu zuen. Iluntzean, zutabe blindatua errelebo aldaketa eta horniketa lanak egiteko errepidean agertu zenean, artilleria pieza honek tiro egin zuen zutabearen aurka. Eraso honen ondoren, eta egun hartatik aurrera, etsaiak lehenago geratzen zituen bere ibilgailuak gure sua saihesteko.

Etsaiaren ekintzak aurreko egunekoak baino gogoragoak izan ziren egun honetan. Intentsitaterik handiena zortzi eta erdietan izan zen gure kontrako eraso abiaturatu zenean Larratxu-Larragain sektorean. Guk Kemen handiz aurka egin eta eutsi genuen erasoak. Etsaiaren presioa gero eta handiagoa zen. Hala ere, Kontzentrazioak (25) eta 7,5eko piezek garaitu arren, lan berriak agertzen



Matxinoen marrazkia, Asensiomenditik Santa Luziaraino. Avilako Artxibo Militarra.

ziren Aramaioko ibarreko mendi-magal guztietan. Etsaiaren presioa etengabe goranzka zihoala ikustean, agintariak fusilen konpainia bi bidali zizkidan errefor-tzurako.

ABENDUAK 3.- Etsaia Muru inguruko mendietatik jaisten hasi zen. Pinudi trinkoen babesean, arma auto-matikoak erabiliz, gure lerroetara sartzea eta lubakiak egitea lortu zuten. Hau ikusirik, Olandixoko posizioak indartu genituen. Egun osoan, 75 eta 10,5eko piezak metrailadore lekuak eta 81eko morteroak menderatzen aritu ziren (hauek ziren etsaiak Arrasaten erabiltzen zituenak). Eraso hauek honaino iristen diren bideen zirkulazioa oztopatu zuten, argi eta garbi ikusi genuen

zirkulazioa guztiz eragozteka zela euren asmoa.

ABENDUAK 4.- Etsaiak aurreko egunetako taktikarekin jarraitu zuen. Gero eta presio handiagoa egiten zuen, bai Larratxu-Larragain sektoretik, bai eta Olandixoko aldetik ere. Errepidea erabilera zibilarentzat ere moztu zuten, ikuspegi militarretik, blindatuen suarekin erasotzen baitzen Arrasate-Aretxabaleta errepidea.

Egun haietako gertaera aipagarria da Matías Zaragoza Artilleria Komandantea brigadara bidali zutenekoa. 7,5eko beste lau piezaz osatutako bateria bat ekarri zuen honek. Abenduaren Sean izan zela uste dut. Ordurako gure egoera oso larria zen. Zaragoza Brigadaren Artilleria Komandante lanetan aritu zen. Eguerdia



Gudariak Santa Agedan, 1937ko otsailaren 5ean. Santa Ageda eguna. Juli Berezibarrek utzitako argazkia.

baino piska bat lehenago aurkeztu zuen bere burua nire aurrean, eta denborarik galdu gabe, ia agurtu gabe, bateria berriaren kokapenak zein izan behar zuen azaldu nion: Arrasateko Santa Barbara muina.

Egoeraren larritasuna ikusirik, operazio bortitza prestatu genuen etsaiaren kontra. Larratxu-Larragain sektorea izango zen lehenengo erasotu beharrekoa. Santa Barbarako muinoan zeuden 75eko piezek aurrez erasotu behar zuten etsaia. Olandixoko piezek, 10,5ekoak, ezkerreko hegala. 7ko piezak, EL Loroko posizioan zeudenak, eskumako hegala erasotu behar zuten eta San Kristobal eta Larratxuko inguruko mendietan ezkutatuta zegoen fusilen konpainia baten misioa etsaiak Elorriora doan errepidetik ihes egiterakoan beratu erasotzea zen. Operazio militar hau abenduaren 5eko egunsentian egitea erabaki zen.

ABENDUAK 5.-10, 5eko piezak izan ziren lehenak tiroka hasten, eta hauen atzetik artilleria osoa hasi zen. Materialari ahalik eta intentsitaterik handiena eskatu zitzaion. Etsaia etsita zegoen hiru leku ezberdinetatik erasotzen zutela ikustean. Orduan, infanteriari agindu zitzaion lubakiak erasotzea. Erasoa hau erabakitasun eta kemen handiz burutu zuen Ponce de León Artilleria Kapitainak agintzen zuen Oriamendi Tertzioak. Kapitain hau zauritua izan zen gorputzez-gorputz borroka batean etsaiari metrailadore bat indarrez kendu ostean. Ezkutatuta zegoen fusilen konpainiak atzetik jarraitu zuen etsaia bere ihesaldian. Hauek 28 hildako eta gerra material ugari utzi zuten lubakietan. Operazio militararen helburua zen, etsaiari zigor gogor hura ezartzea, eta hau lortu ondoren, gure posizioak aurreratu eta gotortu genituen.

ABENDUAK 6.- Etsaiaren aktibitateak gainbehera handia izan zuen Larratxu-Larragain aldean, baina, goranzka egin uzten Miavalles-Olandixo aldean. Etsaia alde honetara sartzen saiatu zen Gesalibar eta Gasteizerako errepideetarantz eta azkenean bi hauek menderatzea lortu zuen. Gure artilleriak eta arma automatikoez etsaiaren hainbat mortero eta metrailadorea lokalizatu eta menderatzea lortu zuten. Erasoa ez zen oso eraginkorra izan, etsaia zonalde guzti hau betetzen duten Basoetaz baliatuta, etengabe aldatzen baitzituen mortero eta metrailadoreak lekuz.

ABENDUAK 7-8-9-10-11-12.- Etsaiaren jarduera gero eta intentsitate handiago hartzen hari zen Miravalles-Olandixo aldean. Honek baja batzuk sortu zitzaizkion, batez ere 81eko morteroarekin. Era berean, gero eta babestuagoak eta egoera hobean zituazten lubakiak, honela, Arrasatera hurbiltzea eta presioa areagotzea lortuz. (Intxausti baserrian Oriamendi Tertzioako lau erreketek larri zauritu ziren: Juan Irazu Igartua, Isidro Ugartemendia Errendosoro, José Argaya Goicoechea eta Miguel Iturrioz Garmendia).

Egoera ikusirik, mendigunea okupatzea agindu nuen, Muru inguruko mendiak alegia. Gesalibar eta Gasteizerako errepideek mugatzen zuten mendigunea. Talde batek mendigunearen mendi-magalaren erditik egin behar zuen aurrera, Gesalibarreko errepidetik, eta beste batek, baldintza berdinetan, Gasteizeko errepidetik. Biak 13. posizioan (Santa Luzian) elkartu behar zuten. Bi taldeak goizeko bostetan irten behar zuten eta zazpiretan elkartu, egunak argitu aurretik.

ABENDUAK 13 DICIEMBRE.- Santa Luzia posizioa.

Etsaiak gudan egiten zuen presio handiak eta Aretxabaletako errepidea moztuta egoteak arrisku eta menpekotasun egoera handia sortzen zigan, adorerik gabe uzteaz batera. Egoera konpondu behar genuen nahi ala nahi ez.

Operazio konbinatu operazio konbinatu batekin burutu genuen. Gual Komandantearen aginduetara zegoen zutabe txiki batek Aretxabaletatik abiatu behar zuen Muru inguruko mendietarantz eta Carlos Arroyo Infanteria Komandantearen aginduetara zegoen zutabea Arrasatetik abiatu behar zuen lehenarekin elkartzera.

Operazio honekin, Arrasate-Aretxabaleta errepidearen eta Muru mendiaren mendigunea okupatzen zuten etsaiek errenditzea edota ihes egitea beste aukerarik ez zuten izango, azken hau, ahal izan ezker.

Operazio militarra abenduaren 13an hasi zen goizeko Setan (betidanik izan naiz goiztiar amorratua) eta goizeko 7etarako bi zutabeak elkartuta egon behar zuten, hau da, egunak argitu aurretik. Mendigunea okupatzeko helburua agindu bezala bete zen, baina ez bertan zeuden guztiak atxilotzeko agindua. Gual Komandanteak puntualtasun osoz bete uzten bere zeregina baina Arroyo Komandantea ez zen garaiz iritsi eta honek etsaiak Aramaiorako errepiderantz ihes egitea ahalbidetu zuen.

Santa Luzia edo 13. Posizio aurreratua zehaztu zen. Posizio honetako arduradun geratu zen Miguel Vara de Rey Infanteriako Kapitaina..

ABENDUAK 14 ETA 31.- Ordura arte, eta gure harridurarako, ez genuen etsaiaren artilleria erasorik izan. Baina, egun hartan, Kanpazar gainean zeuden 15,5eko artilleria piezak bortizki tiroka hasi ziren Santa Barbarako artilleriaren posizioaren eta Arrasateren aurka. Intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, Arrasatek eta bere arrabalek etsaiaren artilleria erasoak jasan zituzten. Eraso hauek abiazioak lagunduta izan

ziren hainbat egunetan, batez ere hilaren 25ean, egun hartan bortizkeria handiz aritu baitziren zazpi hegazkinen laguntzarekin. Hala ere, erasoak iraun zuen denbora guzti horretan bi baja besterik ez genituen izan, biak Larratxuko posizioan. Etsaiaren artilleria eta hegazkinak agertu bezain laster, Arrasateko indar guztiak mendira erretiratu ziren, baina, honek ez zuen ezertarako plazako segurtasuna eta posizioak ahuldu. Era berean, herritar gehienei ibitzeko baimenak minimoetara mugatu zitzaizkien biztanleria zibilararen aurkako zigorra ezarriz.

Denbora tarte hau indarrek posizio ezberdinetan lubakietan sendo babesteko eta gotortzeko, instrukzio teoriko eta praktikoetarako eta etsaiaren arma automatikoen aurka egiteko aprobetxatu zuten. Honez gain, aipatzekoa da 81eko morteroen doitasuna eta efektuak, baina, brigadak ez du horrelako armarik.

Hona hemen, Solchaga jeneralak bere operazio koardernoan jasotakoa: Azaroaren 30ean hasi zuten ofentsiba. Eraso nagusia Legutioren aurka izan zen eta beste bat ez funtsezkoa Arrasateren aurka (azken hau erraza izango zela uste zuten). Egoera eskasa izan zen gurea. Egunero pairatu genituen erasoak eta baja asko izan genituen. Arrasate Kanpazarretik erasotu zuten 155eko armekin. Hilaren 31an, adibidez, 11 hildako eta 18 zauritu izan genituen.

REF. Relación de heridos y enfermos ingresados en el día 1 de Enero en el Hospital Militar de Mondragón

Apellidos	Nombre	NATURALEZA Localidad y Provincia	Dirección postal de la familia	Cuerpo a que pertenece	DIAGNÓSTICO	Pronóstico	Procedencia del herido
Abraham Murguier	Julio	Sau Sebastian	-	Regulo de Artilleria	H. metralleta cara ant. muñeta derecha	baja	
Larga Arribas	Sebastian	Tafalla Navarra	Navarra	Falange 10º cent.	H. metralleta cara ant. perforada de pecho y ohan en rodilla y mano izquier.	muy grave	Sac. E. Ariz Navarra
Marincha Hardeya	Pedro	Araya Colava	-	batallón avanzado de Navarra	H. metralleta, cara pecho y pierna	baja	Sac. IIº Regio
Isman Guinea	Luis	Arcin Navarra	-	Falange 10º cent.	H. metral. cara derecha la parte y avata por el ojo - herida en frontal tam. 2da mano d. fractura pulgar	muy grave	Sac. E. Ariz Navarra
García Lorente	Eustaquio	Tafalla Navarra	-	Falange 10º cent.	H. metral. que se recibí en la nuca a poca de la cabeza	Fallecido	
Laportera	Candido	Vallitorra Navarra	-	Falange 10º cent.	Herido de corazón	Fallecido	
Armada Ansoaga	Angel	Lugo	-	Solomos destacado de Navarra	muerto en el frente	Fallecido	
Larga Zabala	Justo	Tafalla Navarra	-	Falange 10º cent.	muerto en el frente	Fallecido	
Marcos García	Epifanio	Lugo	-	batallón avanzado de Navarra	muerto en el frente	Fallecido	


NOTA. Las altas y fallecidos se relacionarán en estas mismas impresos anotando en la casilla del Diagnóstico: Alta o Fallecido—con los datos correspondientes. (Ratífase letra bien clara e inteligible para estas confusiones en pro del buen servicio).

Mondragón - 1 Enero - 1937 (Fecha, firma y sello.)
El capitán médico
Antonio Noriega

Sr. Jefe de la Oficina Navarra de Información y Socorro de Guerra. - COMANDANCIA MILITAR. - Pamplona

SERVICIO HISTÓRICO MILITAR
ARCHIVO DE LA GUERRA DE ESPAÑA
INFORMACIÓN NACIONAL
ARMARIO LEGAJOS CARPETA DOCUMENTO
44 / 357

Loron hildakoak



Artilleriako objektiboak

111 Brigada de Navarra Comandancia de Artillería 17


INDICE DE OBJETIVOS

Número	Nombre	Unidades Actuantes	Jefes
1	Trinchera Larrachu	1ª Piesas Batª Sª Bárbara	Alferas Moreno
2	Nido Ante. Dcha. Mura	2ª id. id. id.	id. id.
3	id. id. id.	2ª id. id. id.	id. id.
4	Trinchera Barragain	2ª id. id. id.	id. id.
5	Monte Mura Trinchera Alta	3ª Batª 2º Regº Mha.	cap. Iñiguez
6	Monte Mura Cresta	id. id. id.	id. id.
7	Nido Ante. Alto Inqª Monte Mura	id. id. id. <i>4ª Batª Mura</i>	id. id. <i>id. Iñiguez</i>
8	Nido Ante. Media ladera Inqª Mura	<i>6ª Batª Regº Pº nº 3</i> <i>4ª Batª Mura</i>	id. Sans Cruzado <i>id. Iñiguez</i>
9	{ Nido Antre. Dcha. Uncilla	{ <i>5ª Batª Regº Pº nº 3 (2P)</i> <i>9ª Batª Regº Pº nº 3</i>	id. Jimenez <i>id. Iñiguez</i>
10	Iglesia Uncilla	<i>5ª Batª Regº Pº nº 3 (1P)</i> <i>4ª Batª Mura</i>	id. Jimenez <i>id. Iñiguez</i>
11	Caserios Inqª Uncilla	Batª Regº Ligº nº 12 <i>Batª Regº Ligº nº 11</i>	id. Tovar <i>id. Iñiguez</i>
12	Nidos Antre. Haysales	id. id. id.	id. id.
11	Caserios Inqª Uncilla	Batª Regº Ligº nº 11	id. Cantero
13	San Asensio	{ <i>11ª Batª Regº Mha. nº 2</i> { Batª id. id.	id. Mendizabal id. Sans
14	Asqueta	{ <i>11ª Batª Regº Mha. nº 2</i> { Batª id. id.	id. Mendizabal id. Sans
15	San Adrian	{ <i>11ª Batª Regº Mha. nº 2</i> { Batª id. id.	id. Mendizabal id. Sans

6ª / 2ª Mha.

E O P A . El Capitan Rodríguez Vite posiblemente podrá cooperar sobre los objetivos 13 - 14 y 15.

Artilleriako objektiboak



Von Richthofen, Condor Legioko burua

Alderdi Sozialistatik Alderdi Komunistara

Une honetan 1937ko martxoan, alderdi sozialista eta gazteria sozialisten buruzagiak sartu ziren Euzkadiko alderdi komunistan. *Murugaingo frontean zeudela Dragoiak, iritsi zen Euzkadi Roja, eta han izenburu handietan esaten zuten Celestino Uriarte eta Tatxo Amilibia eta beste batzuk sartu zirela Euzkadiko alderdi komunistan. Une hartan, "txoroka"k (Paco Azkonaga) esan zion Paco Goronaeta-ri "banekien nik gure alderdira pasatu beharko zirela".*²⁶⁹

Eustasio Amilibiak Tatxo, aurrean ibili zena preso politikoen abokatu moduan, batez ere Arrasateko gazteria sozialistaren artean, eta 1934ko urriko prozesuan Arrasateko eta Aretxabaletako presoan defendatzailea izan zena eta euskal milizien Estatu Nagusiko kidea, Celestino Uriarterekin batera gutun bat bidali zioten Elorriotik Euzkadiko alderdi komunistako idazkariari, eta han egin zuten alderdian sartzeko eskaera. Eskutitza argitaratu zuten Euzkadi Roja egunkarian, 1937ko martxoan.²⁷⁰

Eta 1937ko martxoaren 31n, gerora Bilboko erasoaren izenarekin ezagutu zenari ekin zitzaion; gudu hartan, fronte guztietan erakutsi zen aparteko kemen eta heroismoagatik ere ezin izan zen hiriaren erortzea eragotzi eta horrekin batera Eusko Gudarostearen zati handi baten desagitea.

Ofentsiba frankista eta Murugainen menderatzea

1936ko urriaren 4an, Bizkaia okupatzeko saiakerak huts egin ondoren eta frontea zazpi hilabetez egonkor zenean, Mola jeneralak ofentsiba handia prestatu zuen egun 1937ko martxoaren 31 egun seinalaturako.

Gure interes antzekoak izateaz gain Arabako frontean integratuta zeuden sektoreak hiru ziren: Ubidea sektorea, Otxandio-Aramaio sektorea eta Mekoletako sektorea. Tropa faxistek salbatu beharreko barrera zen Albertia-Murugain mendiguneak sortzen zuen lerro defentsiboa. Nafarroako Brigadak posizioak hartzen joan ziren ofentsiba handirako. Nafarroako IV Brigada Legutiotik hurbil posizionatu zen, Albertiaren azpian. Lehen Brigada kontzentratzen hasi zen Leintz-Gatzagako eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako mugaren artean, eta III. Brigada Murugain hartzeaz arduratu zen.

Hona hemen, lerro horretan, errepublikaren defentsan borrokatu zuten batailoiak: Albertia mendian, Stalin batailoia (Meabe 2zk) eta, hari laguntzen, Ariztimuño metrailadore batailoiko Pizkundia 2.konpainia eta Largo Caballero (Meabe 1.) batailoia. Maroto mendian, Abellana batailoiko bi konpainia eta metrailadore sekzio bat; Jarindon, konpainia bat eta erdi eta metrailadore sekzio bat; Asensio mendian, Azaña batailoia; Untzilla eta Murugainen



Francisco Ruiz de Alegria Balanzategi, (hila Intxortan) Jose Maria Ansoategi eta Gregorio Ceciaga (hau ere hila Amayur batailoikoa)



Juan Berezibar Ormazabal, Intxortan hil zuten Dragones Batailoiko gudaria. JSUko (Juventudes Socialistas Unificadas) kidea

Dragones batailoiko 1. eta 2. konpainiak; Hauen atzean, Aramaion, Octubre batailoia zegoen eta Aramaio eta Gesalibar artean Dragoneseko beste bi konpainiak; eta azkenik, San Adrianen, Rebelión de la Sal batailoiko 2. konpainia.²⁷¹

Martxoaren 31n eta apirilaren lehen hildakoei erreparatuz gero, bi bataloi ziren Aramaion baja gehien zituztenak: Dragonesek 10 eta Octubre 8. Arraroa da oso Octubre batailoia lehenengo lerroan ez egotea.

Hona hemen eraso handia hasi aurretik Molak egin zuen iragarpena: *Bizkaiko operazioak datorren asteazkenean, martxoaren 31n, hasiko dira eguraldiak uzten badu abiazioa erabiltzen*. Mezu labur hori bidali zien tropa faxisten agintariei. 1936ko urriaren 4ko porrotaren ondoren, agintari faxista kontziente zen euskal armadaren erresistentzia gelarazteko ezinbestekoa zuela abiazioa eta artilleriaren laguntza.

Legion Condor eta Aviazione Legionarik eraso hasi zuten

Solchaga jeneralak idatzi zuen: 1937ko martxoaren 29an, Latorreren (Aozarazako Bernabena baserria, Arechavaleta) aginte eta behatoki postura igo ginenerako, Condor Legioko Estatu Nagusiko burua bertan zegoen (Von Richthofen teniente koronela), oharrak hartzen eta maniobrak aztertzen.

1937ko martxoaren 29an, Condor legioak aireko indarren ordena, laguntza eta babesa jaso zuen, eta martxoaren 31n Nafarroako Brigadana. Misioa: Aramaio sektorean dagoen etsaiaren frontea apurtu eta Bizkaian sartu. Eraso plana zen Albertia-Murumendiko mendiguneko etsaiaren frontea apurtzea. Asensiomendi eta Murugaineko lerroetatik abiatu zen Nafarroako III. Brigada babestea aurrera zihoan heinean, alegia. Brigada hark eraso egin zituen Murugain 776 kota, Asensiomendi 776 kota eta San Adrian 813 kota.

Erasoaren gauzatzea: H ordua iristean, Infanteria posizioan egon zen abiatzeko baseetan. Artilleria bi taldetan prestatu zen. Zuzenketa eta trantsizio epeak gero bortitzagoak izango ziren. Segidan, isilune bat eta ondoren, kadentzia efikazia handiago bat. Infanteriak azken denbora tarte hura aprobetxatu beharko zuen artilleriak eta abiazioak ahalbidetzen zioten guztia aurrera

egiteko. Hirugarren denbora tartea amaitzean, artilleria eta abiazioak zaintza lanak eginez lagundu zuten Infanteriaren erasoak. Erasoaren egunean, abiazioak eta lurreko indarrek elkarlan estuan aritu ziren, eta K/88 eta VV/88k babeslekuetako erreserba lokalei eraso zieten artilleria tiro egiten hasi aurretik.

K/88 eskoadrilaren erasoak ostatu eta ondorengo lekuei:

- a) Otxandiano (helburu oso garrantzitsua)
- b) Ubidea (Olabetxaga)
- c) Murugain (argazkiaren gainetik, Josebaso)

“a” eta “b” helburuetara 50 eta 250 kiloko bonbak jaurti ziren. C helburuaren gainera 50 kiloko bonbak.

Erasoa, beranduenez ere, goizeko 7:45ean hasi beharko zen. Erasoaren ondoren, metrailadore su handienari ekin behar zitzaion. Eskoadrila irteera aerodromora itzuli ondoren, 50 kiloko bonbak hartu eta ahalik eta azkarren prestatu behar zen berriro ere eraso egiteko.

A/88 bonbardatzailea Burgostik abiatu eta bomba arinekin goizeko 8:00etan erasotu zituen Albertia-Maroto-Jarindoko posizio gorriak, eta Josebaso eta Murugaingo posizio errekonozituak. Denbora luzez posizioen gainetik hegaz egiten egon zen etsaiaren depresio morala luzatzeko.

J/88ren zeregina Leintz-Gatzaga-Legutio eta Murugaineko sektoreetan H51 eta cadena Heinkel eskudrillekin batera borrokatzea da. Infanteria gailurretako posizio gorrietara iritsi arte, bomba eta metrailadorak erabili zituzten haien aurrerapenean laguntzeko.

Soria/Logroño italiar bonbardaketa taldea. Arren eskatzen dizuegu operazio egunean bomba astunak erabiliz Elorrio eta Durangoko herriak eraso ditzazuela. Lehenengo aldiz goizeko 8etan egin eraso eta, ahalik eta gehien errepikatu bonbardaketak erasoaren lekura indar gorriak joatea saihesteko.²⁷²

Matias Zaragoza Artilleria Komandantearen aginduetara, kolpistek 23 artilleria pieza zituzten Untzilla, Murugain Asensiomendi eta Udala erasotzeko, honela kokatuta: Santa Barbaran, 7,5 kalibreko artilleria 6 pieza, Kurtzetxikin, 10,5 kalibreko artilleria 2 pieza, Muzibarren, 155 kalibreko artilleria 3 pieza, San Bernaben, 105 kalibreko artilleria 2 pieza, Goronaetan, Lecumberri baserrian, 105 kalibreko artilleria 3 pieza, Aozarazan, Iturriotz ba-



serrian 155 kalibreko artilleria 2 pieza, Atxorrotzen, 105 kalibreko bateria bat eta 2 obus, Agiriano baserrian, 105 kalibreko 2 obus, Gatzagan, 105 kalibreko beste 2 obus.

Gatzagan obusak izan zituzten Zelaikua baserriaren ondoan (gaur Aterbe). Eta hortik Gure Ametsaraino faxistak egon ziren. Hortik Zarimuzera botatzen zituzten obusak, bertan gudariak zeudelako.²⁷³

Esan den bezala, beraz, martxoaren 31n faxistek erasoari ekin zioten, haiek zeukaten inork pentsatu ere ezingo zukeen gudu materialezko ugaritasun batez, eta tamalez egunetik egunera ugaltzen ari zenaz, gainera. Dozenaka eta dozenaka hegazkin igarotzen zitzaizkigun egunero gure buruen gainetik, eta bomba mordo ikaragarriak jaurtikitzen zizkiguten, gero berriro Gasteiz aldera aldegitiko; haien ondoren berehalaxe etortzen ziren beste batzuk; eta haiei laguntzeko dozenaka kainoi bateria, kalibre guztietakoak ari zitzaizkigun gure posizioak bonbardatzen. Gu, berriz, geure fusilak besterik ez genuela hantxe, etsaiaren horrenbeste armamenturi kontra eusteko.²⁷⁴

Udalatxetik abisua bidali zuten, esateko Arrasaten etsaiaren tropa mugimendu handia ikusten zela. Infanteria eta kamioi mugimendu etengabekoa ari zen han, eta garbi-garbi entzuten zen soldaduen zarata. Artilleria ugari ari zen iristen gainera. Gainerako begiraleku guztietatik ere antzeko berriak ari ziren iristen, eta bestaldetik etsaiaren erasoak hastera zihoan guztietan bezala -gauza tristea baita sentitzen ez den arrazoi batengatik bizia ematea-, soldadu asko hasi zen igarotzen leialen aldera, eta interes handiko datuak ekartzen zituzten bestaldetik, denak bat zetozen datuak gainera. Dударik ez zegoen, garrantzi

handiko erasoren bat ari zirela prestatzen faxistak, eta Legutiotik etorriko zela eraso hori. Berri horixe baitzekarten etsaien aldetik gurera zetozen guztiak, eta horretxan seinale zen ere etsaiaren tropa gehienak Arrasaten ez gelditzea, Aretxabaleta eta Eskoriatza aldera, hego mendebalerago jarraitzea baizik.²⁷⁵

Eusko Gudarosteak guardian plantatu zituen bere indar guztiak. Etsaiak, berriz, bazirudien ez zuela asmorik gordean ezkutatzeko; eraso indar handikoa izango zen seinale. Gudaroste leialaren artilleriak gau eta egun bonbardatu zituen Arrasateko interes militarreko guneak, eta alde guztietan lanak azkartu ziren gotorlekuak eraikitzeko. Hormigoizko habiak, tankeentzako zangak, trintxeretan.²⁷⁶

Martxoaren 31n, ofentsibak porrot egin zuten eta, apirilaren 1ean, Asensiomendi erori zen.

Eguraldi onak eraso ahalbidetu zuten. Dragones batailoiko gudariak Untzillako eta Muruko lubakietan zeuden, eta Azaña batailoikoak Asensiomendikoetan.



Ismael Casado Fernandez.



Mateo eta Domingo Abarrategi.

Egunsentiko isiltasuna, lubakiko lasaitasun urduria, hautsi zen urrutiko abiazioaren motoren soinuarekin. Condor legioko hegazkinak hasi ziren errepublikazaleen posizioak bonbardatzen. Hiruki bat osatzen zuten formazio etengabeak ziren. Haien ostean Otalazelain eta Goroetan zeuden kanoiek eta obusek zigortu zituzten gudariak eta milizianoak. Isiltasuna sortu zen. Tropa faxistak Gellaoraino igo ziren, errepublikaren defentsa lerroa erasotzeko, baina hain izan zen indartsua erresistentzia, ezin izan zuten pasatu San Antonio ermitatik. Infanteriako beste talde batzuek, erreketez osatuak, Untzillako posizioak eraso zituzten. Ezin zuten helburua lortu eta, bertan hildako eta zauridun asko utzita, atzera egin zuten.

Apirilaren lehenean faxistek euren indar militar guztia batu eta Asensiomendi eraso zuten. Legion kordorreko hegazkin bat Heinkel 51a bota zutena Zarimutzen eta aleman tenientea August Blangenagel hil zuten.



Alipio Moya eta Irineo López Lorenzo, jarrita.



Segundo Olazagoitia Garcia.

Gregorio Laspiurrek ametralladoriaz egazkiña bota auen, aitak esa eustan, non eztzakiak, Murun edo Intxortan-edo.²⁷⁷ Gregorio Untzillako kanpantorrean ametralladoriaz egon zen.²⁷⁸

Orduetan bonbardaketa etengabeak izan eta gero, mendia birrinduta geratu zen. Milizianoek posizioak utzi behar izan zituzten. Errekete eta soldadu faxistek bidea libre zuten Unzillara eta Murura jozteko. Frontea hautsita Dragonesco gudariak alde egitera behartuta, Santa Agedara jaitsi eta gero Karraskaingo trintxeretara.

Gure narratzaile berezia, José de Arteche, Oriamendiko erreketea zen, eta San Bernabe ermitan zegoen, Apotzaga inguruan, hori guztia gertatu zenean. Orain, izan ere, José de Artecheren “El abrazo de los muertos” lanean oinarrituko gara, bere egunerokoan jasotako xehetasunen bidez, faxistek Murugain nola erasotu eta hartu zuten azaltzeko.

Hilaren 31n, goizeko ordu biak aldera, bitartekariaren ohar bat iritsi zen, zeinak agindu zuen denak Apotzagaetxebarrira biltzeko. Han azken argibideak jaso zituzten, eta gero abian jarri ziren. Soldaduek, Salluentetik Aretxabaletara, Lausitako bide zaharretik jaitsi eta ezkerretara biratu zuten berehala, Untzilla aldera, Gellaotik behera zetorren errekastoa inguratuz. Presaka zebiltzan, gutxi falta zuen eguna argitzeko, eta inork ez zituen ikusi behar, etsaia ezustean harrapatuko bazuten. Konpainia bidegurutze batera iritsi zen, eta sailetan banatu; eskuinaldetik, muino batean zegoen metrailadore batek egin zien harrera. Tiro jasak lehenengo zaurituak eta hildakoak eragin zituen. Metrailadorearen kokagunea zela eta —muinoaren goiko aldetik begipean zuela inguru guztia—, San Antonio basilizaren atarian babesa hartu behar zuen sailak. Artilleria frankista tiroka hasi zen. Komandanteak berehala agindu zuen muinoari eraso egiteko, ezkerraldetik beste sail batek aurrera egitea lortu zuela ikusteak adoreturik. Izan ere, ezkerreko sail horrek, ausardia handia erakutsiz, lortu zuen Untzillako lehenengo baserrietara hurbiltzea. Baina aurrera egiteko lehenengo saioak huts egin zuen: metrailadoreak behartu zituen basilizaren barruan babestua egotera. Bederatziak aldera, eskuinaldetik arrastaka, soldadu sail bat iritsi zen, metrailadore eta guzti, hiru metrailadore, haiek ermitan kokatzeko aginduarekin. Hala, imajina aldaretik kendu, eta hiru kuku-leiho egoki zituzten, metrailadoreak bertan kokatzeko: bat basilizaren



Martin Alberdi bigarrena eskumatik, senideekin.



Luis Berezibar Ormazabal.

hondoan eta beste bi alboetan. Tiroak hasi ziren, edozein gortuta uzteko moduko zarata.

Goizak aurrera egin zuen, laino zegoen, gudua oso gogorra izan zen fronte lerro osoan, Murutik hasi eta Asensiomendiraino. Artilleriak lubaki errepublikanoak zafratzen zituen eta hegazkinak joan-etorrika zebiltzan, bonba pila jaurtita. Arratsalde erdian, Asensiomendin, borroka zen odoltsua. Mendi gailurrak ematen zuen sumendi bat erupzioan, eta hegazkinek atertu gabe husten beren karga tontor gainean.

Aurrera egin ezinik, soldaduak baselizan geratu ziren. Han aurrean, ohatilariak ikusi zituzten, Asensiomendiko maldetan joan-etorrika, laguntza beharrean zeuden guztiengana heldu ezinik. Arratsaldean, bost aldiz ekin zioten gailurrari, gure zenbaketaren arabera. Hura zen kanoi guztien eta hegazkin guztien jomuga. Gailurrerik ematen zuen sumendi bat, bere suzko gaia botaka ari zen.

Arratsaldeak aurrera egin ahala, baseliza aldean barretzera egin zuen suak, Asensiomendi gainean zeuden bilduta begirada guztiak. Erasotzaileak malda erdiraino iritsi ziren, defendatzaile errepublikanoek atzera egin zuten suzko infernu horren erdian, baina beren posizio-etara itzuli ziren berehala. Azkenean, ilunabarrean, ez zen entzun garaipen oihurik. Lehen euri tantak erortzen hasi ziren. Baselizan dena prest zegoen gaua bertan igarotzeko, baina erne egon beharra zegoen, etsaien lubakiak handik gertu baitzeuden.

Apirilaren 1ean, goizeko laurak aldera, kapitainaren

bitartekari bat iritsi zen, agindua batekin baseliza bertan behera utzi eta konpainiako gainerako kideekin bat egiteko. Euripean eta lokatz artean, errefortzuzko posizio berrietara abiatu ziren. Konpainiako gainerako kideak bilduta zeuden muino batean Asensiomendiren ondoan, maldaren tolestura bat aprobetxatuz egindako lubaki batean. Aurreko eguneko estrategia bera errepikatu zen behin eta berriro: artilleria desarrak eta hegazkinen bonba erasoak bata bestearen ondotik. Geroago, agindua eman zuten ezkerretik gerrillari taldetan aurrera egiteko eta hedatzeko. Halako batean, entzun ziren gailurrera iritsi ziren lehenengo soldaduen oihuak.

Soldaduek eta erreketek, Asensiomendi hartu ondoren, Untzillako auzorantz jo zuten, bidean inolako eragozpenik aurkitu gabe. Errepublikanoek, berriz, atzerantz egin eta Murugain aldera jo zuten. Azkenik, Santa Agedara bildu ziren, faxisten erasoaldi gogorrari aurre egin ezinik.²⁷⁹

Kontua da, Murugain defendatzen ari zirenen aurka bonba asko jaurti bazituzten ere, Molak porrot egin zuela martxoaren 31an Untzilla eta Murugain hartzeko saiakeran. Honela kontatzen du gertatutakoa Dragones batailoiko 2. konpainiako Clemente del Tesok: Untzillan gure posizioei eraso egin zieten. Ni metrailadorearekin nengoen. Etsaia gure posizioetara behar beste hurbildu zenean hasi ginen tiro egiten. Asko jausi ziren. Hildakoz beteta zegoen dena. Gertaera haren ondoren, etsaiak birritan pentsatu zuen guri eraso egin aurretik.



Eutiquiano Sanchez López.



Alejandro Díez y Antonio Domínguez Gutiérrez.

Hona hemen Luis Balanzategi Zubizarretak zer dioskun: *Murun igaro genituen gauak 1937ko urriaren 31ra arte, orduan hasi baitzen eraso frankista. Hurrengo egunean, Kaskarrain aldean zeuden trintxeretara joan ginen eta handik, Elorrioren genituen kuarteletara jaitsi ginen. Apirilaren 6an edo 7an, Dima gainera eraman gintuzten. Handik, eta zenbait kontra erasoren ondoren, Elorriora erretiratu gintuzten. Kontraeraso haietan, abiazioak baja asko eragin zizkigun, eta ez genuen atera ezer positiborik.*

Kurtzetako errepidea moztea lortu zuten eta batailoian ginenok modurik gabe geratu ginenean errepidez irteteko, Murutik alde egin beharra izan genuen, eta Garagartzan bi blindatu erre ziren. Hori baino lehenago, Antonio Domínguez Untzillan hil zuten, eta Miguel Zubia Murun. Geroago, Zabalainen eta Barazarren egon ginen eta han galdu zuen bizia Manuel Egiluzek? ²⁸⁰ Gerardo Ruiz de La Cuesta komandantea zauritu zuten. ²⁸¹

Martxoaren 31n, 28 soldadu eta erreketek lurperatu zituzten Aretxabaletako hilerrian. Datu hori egun hartako borroka basatiaren adierazgarria da. Luis Guijosa Leguía, Oriamendi Tertzioko komandantea, eliza ondoan zegoela bala galdu batek oso larri zauritu zuen. Bergarako ospitale militarrean zendu zen.

Guk dakigula 46 izan ziren borroka hartan errepublikaren aldeko indarrek izan zituzten bajak:

Dragones Batailoiko hamar miliziano: José María Etxebarrieta Urbistondo, Francisco Holgado Mateos, Juan Mariño Pérez, Victor Carlos Uzquiano Ruiz, Antonio Domínguez Gutiérrez, Jose Becerra Aizpurua, Jose Luis Torre Echevarria, Jose López Villanueva, José Carasa Camacho eta Miguel Zubia Zumelaga.

Azaña Batailoiko hamaika miliziano: Ángel Corres Guinea, Celedonio García Alonso, Marcelino Gracia Alonso, Rafael Oliveros Lastra, Ceferino

Pérez Saavedra, Domingo Romero Moreno, Ricardo Uriarte Monge, Cándido Yeboles Quiroga, Ángel Bolumburu Aztorquiza, Pedro Gas Gotanegra, Crescencio Gómez Alonso, Felix Munuaurren San Juan eta Jose Anton Rodriguez.

Octubre Batailoiko hamar miliziano: Sebastián Seoane Macías, Benito Gordon Villamon, Jose Hierro Llano, Candido Angulo Angulo, Vicente Aguinaco Escalante, Ignacio Cubillos Lopez, Dimas Gutiérrez Arsuaga, Felix Cordero Bodego eta Vicente Velasco Ribacoba. Estalisho Ramirez batailoio honetako milizianoa apirilaren 1ean, goizeko hamaiketan, hil zuten Gesalibarreko hilerrian.²⁸²

Meabe 1. Batailoiko lau miliziano: Felipe Arregui Larisgoitia Mariano Crespo Sotres, Agustin Solas Rivas eta Venancio Barquin Ruiz.

Mateos Batailoiko hiru miliziano: Jose Eusebio Azcueta Elezcano, Eduardo Blanco Ramos eta Marcelino Mateos Blanco.

Zer batailoikoak diren ez dakigula sei miliziano: Estanislao Rámila San Román, Ramón Vivanco Llarena, Eulogio Baranda López, Amador Casado Arimo, Félix Cordero Bodega eta Raimundo Sánchez Mellido.²⁸³

*Apirilaren 6an edo 7an, Dimako Gainera eraman gintuzten. Han, abiazioaren kontra eraso asko izan ginen eta hildako asko utzi zizkiguten. Handik, Elorriora eraman gintuzten. Hainbat egunez izan ginen Elorrion, egunsenti batean presaka eta korrika autobusez Elgetara eraman gintuzten arte. Egunak argitu orduko, Intxortako tontorrean geunden. Gainera, zulatzaileek amaitu gabe zituzten lubakiak.*²⁸⁴

Intxortan

Intxorta ahalik eta azkarren igotzeko, Ibañez komisario politikoak eta Gerardo komandanteak eman ziguten erretolikan esan ziguten, gau hartan, ofizial "espioi" bat pasatu zela fronte nazionaletik gurera. Espioi hura infiltraturik zegoen Bergaran nazionalen Estatu Nagusian. Hark esan zigun, eguna argitzean Intxortak erasotu behar zituztela. Eta egia esan zuen, izan ere, egunak argitu bezain laster abiazioaren eta artilleriaren erasoak hasi baitziren, eta egun osoan etengabeak izan ziren

Handik Intxortara joan ginen. Mendiko kokalekuetara igo aurretik, batailoio guztia Elorrioko elizan bildu gin-

tuzten, eta han Ibañez komisario politikoak garbi esan zigun pulpitura igota, mendian zer genuen zain: 40ren bat kanoi bateria eta 100dik gora abioi zituela etsaiak, eta hegazkinak denbora guztian gure gainean izango genituela, ez hegan egiteagatik bakarrik, bonbak jaurtitzeko ere bai; bateriak ere gelditu gabe arituko zitzaizkigula tiroka, falangistaz, italiarrez, moroz eta armadako soldaduz osatuta zegoen infanteriak gure lekuak hartzeko.

Eraso zuten lehenengo gauean, ordura arteko eraso ekinaldi guztiei esti eragin ondoren, zenbait soldadu frankista gure aldera etorri zitzaizkigun; haiek esan ziguten, bonbardaketa haiekin gure estimazioak maila asko irabazi zituela; ofizialek erasoaren porrota estaltzeko gure trintxeretan kateaz loturik ginduzkatela sinestarazi nahi zietela, edo koñakez drogatzen gintuztela, edo ofizial errusiarrak geneuzkala pistolez mehatxuka trintxeretan gelditu gintezen; eta seguruenik hala sinistuko zuten sinistu ere, gure artean egin zituzten lehenengo une haietan, modu arraro batean begiratzen baitziguten, harik eta konturatu ginen arte ez zutela entenditzen guk esaten genuena, euskaraz hitz egiten baikenuen, gure artean ohitura genuen bezala; horrek harritu ere egin zituen nonbait, zeren beraien artean, zona nazionala deitzen zenean, debekatuta ez ezik zigortuta ere bazegoen gure betiko hizkuntzaz mintzatzea.

*Esandako horrekin aski izango duzue Intxortako egun haiek zein gogorak izan ziren kontu egiteko; Dragoien batailoiak Bizkaiko fronte guztian parte hartu zuen gudaldi guztietan, gogortasunagatik eta izan zituen ondorioengatik garrantzi gehien izan zuena izango da Intxortakoa, seguruenik.*²⁸⁵

Intxortako gertaeren kronologia eta ezau-garriak

Matxinatu asko elkartu ziren Intxortan, borrokarako: Erreketeak, Falangistak, Militarrak, Flechas Negras eta Abiazione Legionari italiarrak, Mairuak, alemaniarren Condor legioa... 10.000 inguru denara erresistentzian, berriz, 3.000 bat lagun ziren. Intxortatik batailoio gehienak pasatu ziren zazpi hila-betean, baina azken egunetan milizianoen eta gudarien bataloiak honakoak ziren: Martiartu, Kiri-kiño, Dragones, UHP, Saseta Ametrailadoreak, Mai Irrintzi, Larrañaga....

Hiru eraso nagusiak izan ziren apirilaren 20tik apirilaren 23 bitarte: hegazkinen eta artilleriaren



Malatesta batailoikoak Udalan. Anselmo Lorenzo Fundazioak utzitakoa.



Celestino Uriarte eta Luis Bermejo, JSUko Gipuzkoako buruzagiak. Avilako Artxibo Militarra.



Andres Fernandez Bilbao.

bonbardaketekin hasten ziren matxinatuak, eta gero infanteriak jarraitzen zuen erasoarekin. Baina hiru porrot izan zituzten jarraian. Milizianoak eta gudariak ez ziren berehalakoan erretiratuko, ez horixe.

Elorriko elizan izandako bileraren biharamun arratsaldean batailoia Intxorta aldera igo zen autobusetan; gertura hurbildurik haietatik jaitsi eta ordura arte beste indar armatu batzuk egondako lekuetara igo zen, seguru asko Martiartu batailoiko bi konpainia eta Rusia batailoiko bat egondakoetara. Gau aldera iritsi ginen haiengana; euria gogotik ari zuen eta nahikoa hotz zegoen; gaua kanpoan igaro beharra izan genuen, non gorde ez genuen babesik eta. Biharamun goizean eguraldia aldatu eta ona egiten hasi zuen. Goiz-goizetik hasi zen erasoka etsaiaren abiazioa eta artilleria, eta Intxortan eta Intxortatxikin genituen posizioak etengabe bonbardatu zituzten. Lehenengo saialdietan ez ziren asko lehiatu, baina apirilaren 24aren goizean goizik, bi ordu baino gehiagoz eraso zuen etsaiaren infanteriak; horrez gainera ikaragarritzko bonbardaketa jasan zuten gure posizioek artilleriaren eta abiazioaren aldetik; abiazioari dagokionez, hegazkinak bata bestearen ondoren txandakatzen ziren eta denbora guztian gainean

genituen: dozenaka eta dozenaka hegazkin gure posizioak bonbardatu eta metrailatzeko; berdin egiten zuten Intxortara zeramaten errepideekin eta mendi bideekin ere, munizioz hornitu ezin gintzaten, eta geneuzkan zauritu ugariak handik atera ezin genitzan. Horrelako batean dena kolpetik isildu zen, eta berehalaxe antzeman genion etsaiaren eraso erabatekoa izango zela.

Isiltasun hura, bonbardaketak eragiten zuten zarata infernuzkoaren ondoren, borrokaldiko eztanda eta zarata bera baino beldurgarriagoa zen isiltasuna, esan ahal baliteke...!

Guk hartuta geneuzkan lekuetatik ikusten genuen nola irteten zuten etsaien soldaduek trintxeretatik, eta nola hurbiltzen zitzaizkigun gureak hartzeko. Agindu zorrotzak geneuzkan tiro bat bera ere ez botatzeko, haien indar armatuak distantzia egokira jartzen ziren arte; era horretara baja asko eragitea gauza erreza izango genuelako. Esku granada batzuk leherraraziz emango ziguten seinalea, eta Saseta batailoia izango zen, zeuden leku garaietatik, tiroka erasoko zien lehenengoa; eta gero, gainontzekoa talde guztiek bota ahala erasoko zieten. Etsaia agerian ari zen hurbiltzen ustez nonbait, aurreko egunean eta, batez ere, erasoaren aurretik, izandako bonbardaketa guztien haiekin guk genituen posizioetan bizirik ezin zuela inor eta. Seinalea entzun zenean eta Sasetak (metriletak) tiroka ekin zionean, gainontzeko guztiek ere bonbardaketa denboran metaturik genuen ikaragarritzko amorru eta kemenez eraso genien tiroka: poz oihuka ekiten genion etsaia dozenaka erortzen zela ikusi genuenean, gure trintxerak babesten zituzten lehenengo alanbradataraino hurbildu baitziren, eta gero ikusi genuenean zalapartaka ekiten ziotela ihesi babeslekuetara, une horretan, izuaren eraginez ihesi zihoazen artean aprobetxatzen genuela ahalik eta baja gehien egiteko.

Handik egun batzuetara jakin ahal izan genuenez, etsaiaren estatu gorenak zenbait ofizial fusilarazi zuen, etsaiaren aurrean ihes egin zutelako. Soldadu faxistak babeslekuetan gorde zirenean, dena isiltasun bihurtu zen; ez zen luzea izan, ordea, geldialdi hori, handik ordubete ingurura berriro hasi baitzen gure posizioen kontra, eta lehen baino ere bortitzago beharbada, artilleriaren eta abiazioaren bonbardaketa; hiru egun amai-gabetan iraun zuen eraso hark. Une hartaz gero gogoratzekoa da, eta omentzekoa, Intxortako gudaldiak iraun zuen guztian inoiz eskertu ezingo dugun laguntza eman zigun errepublikanoen kanoi bateria bat. Faxisten abiazioak eta irispide luzeko kanoiek etengabe zigortu

eta bonbardatu zuten arren, ezin aski mirets litekeen kemen batez eutsi baitzien bonbardaketa guztiei, eta guretzako laguntza militarraz gainera, laguntza morala eta kemena ere ematen baitzigun, ikusten baikenuen baliabide gutxi eta eskasak bagenituen ere, artilleria errepublikano txiki baino adorez beteak babesten gintuela.

Berriro diogu bonbardaketa errukigabekoa izan genuela, eta ordubete inguru iraun zuela. Ordu batzuk lehenago jasan behar izan genuen eszena bera ari zen errepikatzen, amaierarik ez zuela iruditzen zitzaigun guri. Berriro zertorren arerioaren infanteria gure aldera; oraingo honetan, ordea, ez zetozen lehen erasoan bezain fidaturik; geure begiez ikusten genuen ofizialak nola ari zitzaizkien keinuka, pistolak eskuetan zituztela, seinale haien tropak ez zutela aurrera egiten eurek nahiko zuketean bezala. Aurreko aldi bezala, oraingoan ere guri komeni zitzaigun distantziaraino hurbiltzen utzi genien, eta ikaragarritzko tiroketaz eraso genien, geneukan armamentu guztia erabiliz; egoera horretan ez zuten bi bider pentsatu, eta itsumustuko ihesian joan ziren berriro, irtenak ziren leku berebean ezkutatzera, atzean haien ekintzaren frogagiri bezala, Asentsioko zelaietan makina bat zauritu eta hildako utzirik. beren ahaleginetan metro bat bera ere irabazi gabe, nahiz eta arratsa gautzeko zorian zegoen eta berriro ahalegindu ziren aurrekoetan bezala artilleria eta abiazioa lagun zituztela.

Apirilaren 23an bi bider ahalegindu ziren berriro eskuratzen bezperan lortu ez zutena, nahiz eta esan beharra dagoen berriro bonbardaketa bortitzak izan zirela egun guztian. Hirugarren egunean ere apirilaren 24an egun horretan bertan ordura arte hainbesteko kemenez eta arrakastaz defenditu izan genuena utzi beharrean egon ginen, frontea Udala eta Karraskaindik eten eta apirilaren 24an Elorrión sartu ziren indarrek setiatu gu harrapatzeko geneukan arriskuagatik, Intxortaren atzeguardian zeuden posizioak hartuak baitzituzten ordurako. Ordenan egin genuen erretiratze hura; ondo samina izan zen, ordea, abiazio alemana lagun izan baikenuen denbora guztian, eta gure indarrak ikusten zituen bakoitzeko beren ehizatze hegazkinek errukigabe metrailatzen gintuzten, ez guda material egokirik ez jakinduria militarrik gabe, kemena eta adorea eta askatasunaren idealak defenditzeko borondate finkoa sobera zuen giza taldetxo batek armada frankistari eta haren aliatuei eragindako umilazioaren mendekua hartu nahi zuten, nonbait.



Anastasio García Lumbreras.



Luis Arrieta Etxebarria, eskuman dagoena.

Han geratu ziren Arrasateko zenbait gizon: Juan Berezibar, Benito Arriaran, Matías Arabaolaza, Jose Lizarralde, Frantzisko Ruiz de Alegría, Felix Garai, Jesus Zuazua, Federiko Zarraola. ²⁸⁶. Bertan hil zen baita ere Pedro Ibañez Azcoaga.²⁸⁷

Agirre lehendakariak Indalecio Prietori bidalitako telegrametan oso ondo azaltzen da gertatutakoa:

Apirilak 20: etsaiak Elgetarako bidea hasi. Ofentsiba Anboton. Lurreko indarren eta abiazioaren biolentzia basatia. Borroka odoltsua. Tropak etenik gabeko aireko eraso beldurgarria erresistitu.

Apirilak 22: etsaiaren abiazioak asko gozatu du in-punitate osoz egun guztia posizioak bonbardatzen, tropak metrailatzen, ...

Apirilak 23: atzo, aireko sei eraso. Gaur, momentuz lau. Etsaien 53 aparailu oso baxu hegaz egiten etengabe metrailatzen.

Faxistek ezin izan zuten Intxorta eta Elgeta aurrez aurre hartu. "Intxorta izan zen kokagune bakarra fran-

kistek, gehiago eta indartsuago izan arren, hartu ezin izan zutena, hiru egunean lau aldiz eraso eginda. Atzetik sartu ziren, Karraskaindik. ²⁸⁸

1937ko apirilaren 24an utzi behar izan zituzten lubakiak milizianoek eta gudariak, Elorrio erori eta gero. Hemen berriro ekarri liteke Pablo Beldarrain Martiartu batailoiren komandanteak zer esan zuen Dragoien batailoieri buruz: *Murugainen oso ondo defenditzen jakin zuten bi konpainia egon ziren Intxortatxikin; lana hobeto egiteko, etsaiaren bistan zeuden trintxeretan hartu zuten lekua, aurreko egunetan hutsik egon ziren lekuetan, eta etsaiaren xede zirenetan. Denbora gutxiren buruan galera handiak izan zituzten etsaiaren tiroketa bortitzagatik*

1937ko apirilaren 26an, Arbatzegi Gerrikaitzen nengoen, Gernikatik kilometro batzuetara. Goizeko 7ak aldera, kakahuetea deitzen genuen hegazkina pasatu zen, eta haren ondoren ehundik gora hegazkin. Handik ordu erdira, hegazkin gehiago. Oso distantzia gutxira pasatu ziren, gidariak ikusteko aukera ere bagenuen horrelako



Ulpiano Rubio Miguel.

*distantzia eskasetik. Estolderia baten sartu nintzen eta han egon nintzen arratsalde osoa, abioien metrailadoreak tirokatzen ari zirelako. Gaua iritsi zenean hasi nintzen ibiltzen. Argitasun handia zegoen eta Gernikara iritsi nintzenean, ikusi nuen dena sutan zegoela.*²⁸⁹

Bitartean, Gipuzkoako frontea erabat hautsita zegoen. Berehala agertu ziren haustura haren ondorio politiko erabakigarriak. Apirilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak, azkenean, onartu zuen bere tropak brigada eta dibisioetan antolatzea. Maiatzean Agirrek bere gain hartu zuen euskal tropen agintea.

Intxortan atzera egin ondoren. 333 kota.

Batailoi hartatik geratzen zirenak (gainontzeko konpainietan ere galerak handiak izan baitzituzten, hildako eta zaurituen artean) Ermuan bildu ziren; handik Bilbora joan, eta han bi egunetan atsedean hartu eta izandako bajak osatu ondoren, bidali zituzten Euba, Amorebieta eta Zornotza bitartean zegoen frontera.

*Egun batzuk lehenago, Mateo Abarrategi eta Mariano Altuna Durangon hil zituzten, eta Ismael Casado Eibarko bombardaketan. Aipatu den fronte hori 333 deitu zen posizioaren aurrez aurre zegoen; gau batez inolako artilleriazko prestamenik egin gabe, ez baikenekuan artilleriarik, hartu nahi izan genuen, baina ez genuen lortu; eraso horren ondorio bezala, batailoian beste zenbait hildako izan ziren: Ireneo Lopez eta Segundo Olazagoitia, Intxortaz gero Dragoiak batailoiko komandante kargua zuena.*²⁹⁰

Haren heriotza izugarritzko kolpea izan zen batailoiairen kemenarentzat, zinez: Segundo Olazagoitia aparteko komandantea izan zen, bai agintaritzan bai tratuan; frontean eredu ematen jakin zuen, etengabe eta egiaz. Bai gudariek bai ofizialek konfiantza osoa zuten harenengan, errespetua, miresmena eta adiskidetasunez osatzen zen jarrera bat; eta berak bere aldetik, noski, ez zuen inoiz arrazoirik eman, errespetua galtzeko, harrokeria gabe bere karguan aginduak betearazteko laguntzen zion aginterako dohain berezia baitzuen; ez miresmena galtzeko ere; arriskurik handiena non zegoen, han baitzegoen bera ere bere ereduarekin gu denok anima gintezten; eta ezta adiskidetasuna galtzeko ere, zeren haren apaltasun eta umiltasunarekin, Dragoietan sartu ziren arte ezagutzen ez zutenek ere haren adiskide egin nahi izaten baitzuten, egiazko gizona ikusten baitzuten zela hura. Seguru asko bera izan zen, Aretxabaleako frontean goizegi hil zen Pedro Alegriarekin batera, agintea izateko eta batez ere gizon bezala zituzten dohainengatik, miresmen gehien merezi izan zuten gizonak.

Eubatik aterata, geroztik tristurazko oroitzapena meheziko zuen Lemoa Haitzera bidali gintuzten. Hiruzpalau egunetan egoera erabat normala izan genuen, eta trintxerak gotortzeko aprobetxatu genituen; aldian behin, hala ere, etsaiaren abiazioaren deskargak jasan behar izan genituen. Egun horiek igarota, EAfren batailoi bat etorri zitzaigun gure ordez, Simon Bolívar Batailoia. Bitartean Eusko Gudarostearen antolamendua egiten joan zen, eta oraindik ere batailoiek funtzionatzen bazuten ere, handik gutxira brigadetan antolatu ziren: brigada bakoitzak lau batailoi zituen, eta lau brigadaren artean dibisio bat osatzen zen.

Gure brigada 11.a zen, eta 3. dibisioko partea zen; Ibarrola komandantea eta Pérez Prieto brigadierra ziren agintari gorenak. Batailoi haiek osatzen genuen brigada: Dragoiak, Larrañaga, Sabino Arana eta Itxar-

kundia, eta oso gutxitan izan genuen denak batera gudan aritzeko okasiorik. Ospe gehien irabazi zuena, egiazko txokeko batailoi bat bezala mugitzen zelako, Larrañaga batailoia izan zen; gainontzekoek ere ez zuten gudarako kemen eta heroismo gutxiago, eta Dragoiei dagokienez, behintzat, harrotzeko aski arrazoi zuten parte hartzen zuten guztian bere eginbeharra nahikoa eta gehiago ere betetzen zutelako, eta guztien miresmena irabazten zutelako.²⁹¹

Lemoaitzen

Lemoaitz gogora ekarri dugunez gero, gauzak honela gertatu ziren: etsaiaren indarrek hasieratik eraso zioten, baina erasotzailea indar aurreratu bat besterik ez zen, eta gordetzen ari zen batailoiak utzi egin zuen. Baina leku hura Bilbo defenditzeko beharrezkoa zenez gero, hurrengo egunean berriro eraso eta Eusko Jaurlaritzaren indar armatuek berriro eskuratu zuten.²⁹²

Cristobal Errandonearen laguntzaile Jaime Urkijok,²⁹³ kontatzen digu Dragonesez zein jokabide izan zuen Lemoaitz berriz konkistatu zutenean:

Nire eginbeharra zen espartinak lortzea milizianoentzat. Horretarako, Queridokoei kendu behar nizkien (Martin Echeverria Aranberri, Amuategui Batailoiko komandantea), santu bat janzteko beste bat biluztu behar nuen. Nire asmoa zen Dragonesez harrobitik gora igotzea, espartinak jantzita, zaratarik egin gabe eta erreketek erasotzeko eskuko bonbak bakarrik eramanez. Erreketek San Ignacio Tertziokoak ziren eta hegaletik babesten zuten euren posizioa. Inoiz ez zuten pentsatuko inor hura erasotzera ausartuko zenik. Nik esan nion: Artilleriako sua hasi bezain laster hasi behar duzue igotzen. Ordu erdi besterik ez duzue izango goraino igotzeko. Egin al dezakezue? Bai erraz gainera. Ondo. Lehenago iristen bazarete, makurtuta egon artilleriako sua geratu arte. Tankearen eta fusileriaren zarata entzuten hasi bezain laster bonbak jaurtitzen hasi zen hegaletik. Ondo da. Espartinak ekar diezazkigutela.

Kaserok (Cristobal Errandonea) esandakoaren arabera, erreketek lur jota utzi zituen Dragonesez Batailoiko mutilak harrobietatik gora agertzen ikusteak. Eskuko bonbekin eraso zituzten erreketak. Hura haientzat gehiegizkoa izan zen. Agian, uste zuten eraso aurretik etorriko zitzaizela, baina inoiz ez zuten pentsatuko infanteriarekin batera tankeak etorriko zirenik. Eta are gutxiago ere, inor harrobietatik gora igotzera ausartuko zenik, gainera gauzez!!! Eta eurak ezertaz ohartu gabe.

Kaserok esaten zidan: Seguru ezetz! Erreketek oso seguru sentitzen ziren euren posizio menderatzaileetan. Abiazio eta artilleriaren indar handia zuten. Inondik inora ez zuten espero ordu erdiko lapsus batean egoera horrela aldatuko zenik. Baina, ondo apuntatu zuten. Betiere Kaserok esandakoaren arabera, 30 baja izan genituen haien artean, hiru hildako, Arrosa eta Amuategui batailoietako komandanteak, eta Dragonesez batailoiko komisario politikoa.²⁹⁴

Ekintza horretan ez zuen parterik izan Dragoien lehen konpainiak, bai ordea hirugarrenak eta laugarrenak Amuategui eta Larrañaga batailoiekin batera. Lemoako Haitza berreskuratu zenean, toki hura defenditzeko Dragoien batailoia izendatu zen, eta posizioen lehenengo lerroa lehenengo konpainiak izan zuen.

Leku horretan harrapatu zuten atzetik erreketen batailoi bat (San Ignacio de Loyola izenekoa); itsumustuan egin zuten ihes eta hiru hartu zituzten preso.

Intxorta eta inguruko posizioak ez bezala, Lemoako Haitza zen posizio bat Bilbora zihoazen bi errepederen artean zegoena: Durango aldetik zetorrena bata eta Lemoatik zetorrena bestea. Posizio bakar bat zen beraz, menditxo bat, muinoa esateko. Uste izatekoa zen erasoko gintuztela, eta halaxe uste genuen guk ere, etsiak derrigor hartu beharra baitzuen Bilborantz hurbilduz jarraitu nahi bazuen. Eraso aurreko egunetan, Lemoako Haitza berreskuratu zenez geroztikoetan alegia, trintxera berriak egiten ahalegindu ginen; zehatzago esateko: zangak egiten, ezer sendorik egiteko inolako materialik ez baitzegoen, pentsatzen baikenuen, pentsatu ere, eraso oso bortitza izango zela.

Eta halaxe, ekainaren 3ko arratsaldean hasi zen eraso. Lehendik esana dago posizio hori bakana nola zen, muino bat zela alegia, eta era horretara etsiak bombardaketa guztiak puntu bakar batera bildu zituen: gailurrera, eta Zornotza eta Lemoara zeramaten errepedetarako maldetara. Gauzak hobeto ulertu daitezten eman dugu datu hori: zeren Intxortan, gutxi gorabehera material berbera erabiliz, bombardaketak posizio bat baino gehiagora zuzendu behar baziren; pentsatzekoa da zer gertatu zen Lemoako Haitzean, abiazioa eta etsaiaren artilleria guztia puntu bakar batera zuzendu zenean. Gauza ikaragarria izan zen hura: bonbek aireratzen zuten hauts guztiarekin alde batetik, eta haien botatzen zuten kearekin, metro betera ere osta-osta ikusten bazen. Txarrena, hala ere, posizio haren txikitasunagatik egin zizkiguten baja ugariak izan ziren, eta eskerrak gudaldi haren hasieran izan ziren

*zaurituak behintzat kanpora atera ahal izan genituena, zeren ia eutsi ezin zitzaionean erretiratzeko agindua iritsi zenean, elbarri ez egotea baitzen alde egin ahal izateko. Han hil ziren Martin Alberdi tenientea, Rufino Azkoaga sarjentua, Gumersindo Alvarez, Lorenzo Blázquez, Eutiquiano Sánchez, José Egidazu, Donato Arana, Felipe Elorza eta Marcelo Tarragona.*²⁹⁵

*Bizkaiko frentean izan zen azken gudu aldietako bat, ikaragarria eta beldurgarria hura ere, Artxandakoa izan zen; han, ostera, Dragoien batailoiak ez zuen parte hartu. Bilboko burdinazko itxituran, bai, egon zen; burdinazko eta itxitura, zerbait esateagatik, zeren apenas horrelakorik batere izan zen, eta alde egin beharra izan genuen besteak alde bietatik zetozkigulako eta guretatik moztuta geratzeko arriskua genuelako. Arrigorriagatik Pagasarrira igotzen ari ginela Francoren tropek ikusten ari ginen Bilbo nola hartzen zuten. Erretiratze horretan galdu zuten bizia Arrasateko Luis Berzibarrek eta Migel Kortabariak (Pilatos) Balmasedan eta Isidro Uriartek Bilbon.*²⁹⁶

Alferrik izango da, honez gero, Eusko Gudarosteak armamentuari zegokion guztian zer-nolako desabantaila ikaragarria izan zuen. Abiaziorik batere gabe, eta artilleria gutxirekin, tropa italiar, moro eta armadako hainbeste talderi, eta armada nazional deitzen zena osatzen zuten bestelako erreketek eta falangistari aurre egin eta inoiz esti eragin ere egin zieten, ahaztu gabe gainera abiazioan jardun zutenak alemanak izan zirela batez ere. Ez da harritzekoa, beraz, bai Dragoien batailoiak eta Eusko Gudarostearen gainerako guztiek atzera egin beharra, baina zalantzan jarri ezin litekeen errealitatea honela gertatu zen: Kanpanzartik Bilbora dauden 46 kilometro inguruak eskuetan hartzeko, 80 egun behar izan zituen Francoren armadak.

Erresistentziaren amaiera Udala aldean.

Udala eta Udalatx inguruan egon ziren indar erresistenteei buruz entzun ditugun kontakizun guztiek diote Malatesta eta Isaac Puente (milizia antifaxistek CNT) batailoia izenarekin ezagutzen zuten Isaac Puente batailoia) batailoiek borrokatu zutela han. Guk, baina, uste dugu Isaac Puente batailoien kasuan oker dabiltzala. Uste dugu Malatestarekin batera borrokatu zuena Celta batailoia izan zela. Hura ere CNTkoa zen. Batailoi hartan dozenatik gora hildako izan ziren inguru hauek, eta Isaac

Puente batailoian, aldiz, bat ere ez. Malatesta batailoia 1936ko azaroan joan zen inguru haietara Dragones batailoiko bi konpainia ordezkatzera.

Udala - Kanpanzar- Intxorta frontearen erorketa Udalan hasi zen, abenduaren 22ko gauean, bi batailoi haiek erabaki zutenean frontea utzi eta Bilbora joatea. Apirilaren 20an hasi zen ofentsiba faxistak oso gogor zigortu zituen inguru haiek, fronte guztia bezala. Ofentsiba gogor hari Intxorta aldeko erresistenteek aurre egin zioten bitartean, Malatesta eta Celta batailoiek atzera egin zuten. Zergatik utzi zuten baina, frontea?

Pablo Beldarrainek honela kontatzen du “Historia Crítica de la Guerra en Euskadi” liburuan: *Kontatzen dutenez, arrazoi politikoak (gubernuan ordezkariarik ez izatea) argudiatu zituzten frontea uzteko. Baina, benetako arrazoi nagusiak bi izan izan ziren: batetik, Elorrioko Sektoreak haiek inolako babesik gabe utzi zituela eta, bestetik, atzeguardian aukerarik gabe geratu zirela ihes egiteko. Egoera horren aurrean, CNT beldurtu egin zen bere gizonak sufritzen ari ziren aire erasoarengatik eta Portillo de Olazubieta etsaiaren zutabe mehatxatzailea menditik, Urkiola, Zabalandi, Tellamendi eta Besaidetik, bere erretagoardiara hurbiltzen ari zelako.*²⁹⁷

Ez dugu ukatzen arrazoi horiek ere erabakigarriak izango zirenik frontea uzteko erabakia hartzeko, baina uste dugu benetako zergatia arrazoi politikoak izan zirela. Ez, ordea, Beldarrainek dioen moduan, Gubernuan ordezkariarik ez zutelako, baizik eta, Eusko Jaurlaritzak “CNT del Norte” egiteko erabiltzen zuten lokala euren zelako, erosi egin zutelako, Euzkadiko alderdi komunistaren esku uzteko, hark “Euzkadi Roja” bertan argitaratu zezan.

1937ko martxoaren 25ean, Santanderren, CNT-FAI eta Euskal Herriko, Asturiasko eta Santanderko Juventudes Libertariasetako eskualdearteko osoko bilkurak erabaki zuen telegrama hau bidaltzea Euzkadiko gobernuburuari: *Zuzendaritza Erregionaleko eta CNT del Norteko erredakzioko kideak atxilotzeagatik eta CNTren jabetza duen eta legala den inprenta editorialaren konfiskatze onartezinarenengatik, gobernuari eskaera egiten diogu berehala bidegabekeria hori guztia erreparatzeko. Eskaera egiten dugu Euzkadiko gobernuburuarekin elkarriketa bat izateko. Honekin, eta legezko hainbat arrazoiketa dela medio, erakunde honek, zainak borrokatzen duen odolarekin eta diziplinaz faxismoaren aurka, azaldu nahi du zer eraso jasan dituen. Agurtu ezazu*

Era berean, komunikatu bat kaleratu zuten iritzi publikora zuzendutakoa, gertatutakoren inguruan iritzia emateko: *Bilbon egin zen CNTren mintegian, adostu genuen CNTrena izango zen egunkari bat argitaratzea. El Noticiero Bilbaino enpresarekin hitzarmena sinatu ondoren, abenduan hasi zen CNT del Norte egunkariaren argitalpena enpresa horretako tailerrean. Gero eta tirada handiagoa zuen. 17.000 egunkari argitaratzen zituzten egunean, eta gorakada hura geldiarazi nahi zuten. El Noticiero Bilbainoren tailerraren salerosketa hitzartu eta dokumentu pribatua zena pasatu zen eskritura publikoa izatera. Orduan, Gobernua tartean sartu eta egoskorkeria onartezin eta ahalmenen ezjakintasun handiarekin, agindu zuen CNT "Nervión" en lokaletara eramatea. CNTk erantzun zion, bera zela tailer haren jabea eta ez zuela inolako asmorik handik joateko. Autoritate printzipioa salbatu beharra zela medio, Zuzendaritza Erregionaleko eta egunkariaren erredakzioko kideak beren etxeetan atxilotu zituzten eta komisaldegira eraman.*

Lehenengoak gara autoritate printzipioa aitortzen, baina, printzipio hori justizian oinarritutakoa beharko du izan eta ez indarrean eta biolentzian. Eskuetan dugun Gobernuko Lehendakaritzaren dokumentuak honela dio: "El Noticiero Bilbaino egunkariaren salerosketa dela eta, lehendakaritza honetako aholkularitza juridikoak emandako instrukzioak jarraitu eta Batzorde Kalifikatzaile Zentralera igortzen dugu hark aztertu dezan". Gauzak horrela, konfiskazio hau geldiaraztea eskatzen dizuegu, Batzorde Kalifikatzaile Orokorrek bere informea aurkeztu arte. Euskal Gobernu Errejonalek bidegabekeria eta justizia iraindu ditu erakunde antifaxista baten aurka. Zuen gobernuak ardurari buruz duen kontzeptu koldarra. Batzorde Erregionala.

Haiek dira, hain zuzen ere, CNTk, apirilean, frontea uzteko izan zituen arrazoi politiko nagusiak. Atzera egite haren ondorioz, apirilaren 20tik 24ra, Francoren eta Molaren tropek garaitu zituzten Intxortako erresistenteak hurrengo egunean, arratsaldean, eta Elorrio faxisten esku zegoela, frontea utzi behar izan zuten. Frontea utzi beste aukerarik ez zuten, hori egin ezean, inolako biderik gabe geratuko zirelako atzeguardian ihes egiteko.

Euskaditik Santander eta Asturiasera laguntzera

Batailoian geratu zen jende apurra kontzentratu zuten Santanderren, Soto de Yruzen, eta han bat egin zuten

Larrañaga batailoiarekin. Abuztuaren 14an lehen euskal brigada eratu zen Santanderren Reinosan, batailoiei hark bertan parte hartzen zuela, eta handik egun batzuetara hilabete horren 24an beste bi batailoiei, Arana-Goiri eta Ibaizabal, jakinarazi zieten agindua zutela Santanderra joateko. Eta horrela Eusko Gudarosteko batailoiei sozialistek eta komunistek gudu jarraitzen zuten bitartean, batailoiei nazionalistak Santoñara erretiratu ziren.²⁹⁸

Guillermo Lasgabasterrek kontatzen digu batailoien parte bat Asturiasera joan bazen ere, beste kide batzuk Santanderren atxilotu zituztela.

1937ko abuztuaren 23an Ampueron geunden. Agindua jaso genuen Asturiasera oinez joateko, baina, Solaresera iristean, ikusi genuen milizianoak atzera egiten ari zirela. Torrelavegan etsaiak errepidea moztu zuen. Gerardo Ruiz eta Felipe Andoagak besarkada bat eman eta esan zidan egin genezakeen gauza bakarra zela handik bizirik ateratzen saiatzea. Hilaren 25ean, goizeko lauretan, iritsi nintzen azkenean Santanderrera. Portura joan nintzen, baina itsasontzi guztiak bezperan itsasoratu ziren. Hilaren 26an, goizeko 11:00etan, Francoren tropa nazionalak hiriburuan sartu ziren. Desfilea bukatu zenean, Eusebio Arregi Larrañagarekin elkartu nintzen. Arregi nazionalista zen eta herria nazionalen esku erortzean haiekin geratu zen. Luis Balanzateguik eta biok esan genion gure aukera bakarra zela handik ihes egitea. Laguntza materiala eskatu genion, baina dirurik irabazten ez zuenez, 10 pezeta besterik ezin izan zizkigun eman. Mendira joan ginen eta Maliaño parera iritsi ginenean, ezustean alto eman eta esan ziguten eskuak jasotzeko. Italiarrak ziren. Hurrengo egunean, Santanderrera joaten utzi ziguten. Han elkartu nintzen Angeles nire neskalagunarekin. Angeles haurdun zegoen. Hark uste zuen Frantziarako bidean geundela. Zezen plazara eraman gintuzten. Han, Jose Abarrategi Arrasateko kapitain falangistaren ustekabeko bisita izan genuen. Hark animoak eta 100 pezeta eman zigun. Gero, Corbaneko seminariora eraman gintuzten.²⁹⁹

Santoñatik ontzi bat bera ere ez zen irten Frantziarantz, eta Euskal Gobernuaren menpeko gudarosteak Italiarrek zer nahi, hartaraxe beharturik geratu zen, esana dugun bezala.

Bitartean, Larrañaga batailoiek agindua jaso zuen Cabezón de la Sal babesteko. Eguneko gai zerrendan aipatu zuten eta askatasunaren dominarekin kondekoratu zuten. (Posada de Llanes).

Aurrerago, Mazucoren defentsan hartu zuten parte. Bi eta hiru motorreko hegazkinak, ehiza hegazkinak, ... milizianoek ondotxo zekiten inpunitate osoa zuten erakustaldi basati hark zer esan nahi zuen. Baina, gal-

dutako berrogeita zortzi orduak ordurako laurogeita hamasei ordu zirenean, euren postuetan jarraitu zuten. Euskadin bezala tiroz josiko zituzten!.³⁰⁰

Asturiasko bataila haietan, Dragoneseko gudariek duintasun handienarekin borrokatu zuten. Han, Peñas Blancasetan hil zituzten Olegario Llanos González eta Andres Fernandez Bilbao, 1937ko irailaren 20an.

Jose Mentxakaren testigantzak, erabat etsigarria zen egoera batean, erresistentzia izpiritu hori bizibizi agertzen du. *Peñas Blancastik eta Potestik atzera egin eta gero, Oviedoko setiora eraman gintuzten atsedean hartzen, eta handik berriro ekialdeko fronte alderantz, Villaviciosarantz. Urriaren 19a zen eta eutsi egin behar genion etsaiari, Gijonera behar baino lehen ez etortzeko. Gauean iritsi ginen eta tanke hotsaren artean, patruila bat herrirantz hurbildu zen. Dinamita prestatu zuten eta herriko zubia leherrarazi. Galdetu genuen sagardotegi batean, esateko zer-nola zegoen frontea; esan ziguten bertan behera utzia zutela orain hiru egun, eta esan genuen, “beno, leku ederrean sartu gara”. Gaua igaro genuen bidearen arekan; hurrengo egunean frontierik ez zegoenez, binan-binan jarri ginen 15 metrotik 15 metrora, frontearen hainbat kilometro babesteko; egun osoa eman genuen, gautu zuenean sentiitu genuen faxistek aurrera egiten zutela. Ni Tomas de Mondragonekin, Ponponiorekin, nengoan; trebe-trebea zen metrailadorearekin, eta Jesus Herrerarekin, batailoiko tronpeta jolea bera. Fusil bat eta metrailadore bat geneuzkan, eta metrailadoreaz tiro egin gura izan genuenean, kateatu egin zen; esan ziguten atzera egin behar genuela, eta jaisten ari nintzela tril egin nuen faxistekin, pare bat bomba bota nituen eta arineketan irten nuen handik.*

Gau hartan faxistekin nahastu ginen; alde batera joan, eta entzuten zenuen gure kontsigna: “Posadas”; beste batera joan, eta haien kontsigna: “Gora Espainia!”. Herrerarekin elkartu nintzen, herrenka zihoan, eta gure anaia Miguelekin, oinez zihoan hura errepidean; 60 bat lagun elkartu ginen, eta aurrean ikusi genituen baten batzuk iluntasunean, andariak ziren; Atilano Ramos eta Jesus Balanzategi zeuden han; horrela elkartu ginen berrehun edo hirurehun bat. Ia egunsentian, Pola de Sierora iritsi baino lehen, brigadaburu Jesus Larrañagak geratu gintuen eta esan zigun, “kamarada lagunok, eutsi egin behar diogu”, eta guk erantzun genion zer-nola aurkitu genuen sektorea, hiru egun zela frontea bertan behera utzita zegoela, eta horrela ezin ziotela eutsi. Larrañagak esan zuen: “Bai? Beno, ahal duzuen bezala, joan zaitezte Aviles aldera, han daude-eta brigadarentzat prest dauden itsasontziak.

Oinez abiatu eta El Berronera iritsi ginen; dena txikituta zegoen, tren geltoki batean hiru autobus hartu genituen eta Aviles aldera jo genuen, baina milizianoak zetozen bueltan. Haiek esan ziguten ezin zela igaro handik, izan ere, Oviedoko setioko faxistek errepidea itxi zuten; atzerantz itzuli ginen, Gijonerantz; Gijondik kilometro batzuetara utzi genituen autobusak, eta bakoitza alde batetik joan zen; gu Gijonera hurbildu ginen. Gijon osoa bandera zuriz josia zegoela ikusi genuen, eta gain batean bandera monarkiko bat; ke handia zetorren Muselgo kaitik.

*Hernaniko komisario batek, tenientea bera, Aretxabaletako Urkiak, gure anaia Miguelek eta bostok erabaki genuen Gijonera jaistea, eta plaza txiki batean inguratu gintuen bosgarren zutabeak; hamabost bat gizonek armak kendu eta Maximo Gorki plazara eraman gintuzten, esan ziguten zezen plazara joango ginela, eta kalean behera gindoazela emakume baten etxean gorde ginen. Hark esan zigun: “Nongoak zarete?”. Erantzun genion: “Euskaldunak”; “bada, gorde zaitezte nire etxean”. Baina han ez zegoen jatekorik, eta handik lau egunera ni bidali ninduten kalera, eta hara non ikusten dudan Elorriotik gurekin Estatu Nagusian zegoen polizia bat falangistaz jantzita.. Neure burua gorde nuen ez ikusteko, eta gogora etorri zitzaidan etsaiak beti zekitela non geunden. Jakina! Infiltratu bat genuen gure artean! Hala gertatu zitzaigun Begoñan, Bilbo gainean, hatetako bat zen, bonbak jaurtiki zizkiguten eta UHPko komandante Casero hil zuten, Amilibiatar bat zauritu zuten eta gainerakook hondakinen azpitik irten genuen. Gijonen nahi zutena eta gehiago hiltzen zuten. Anaiarengana itzuli eta esan nion gurago nuela zezen plazara joatea babeslekuan hilda jaustea baino, eta anaia eta biok joan egin ginen. Arrasatekoak eta ingurukoak 60 bat inguru batu ginen.*³⁰¹

Asturiasen izan ziren gudaldi haietan, ohorez bete ziren Dragoietako gudariak, eta hantxe, Peñas Blancasen hil zituzten Olegario Llanos Gonzalez eta Andres Fernandez Bilbao, 1937ko irailaren 20an.

Handik gutxira Avileseraino erretiratu beharra izan zuten, eta handik abiatu zen hiru ontzitan batailoia zati bat 1937ko urriaren 21ean; ontzi horietako bi italiarrek harrapatu, eta Cudilleron indar nazionaleri eman zizkieten (hiru ontzi horietako batean Euskadiko Alderdi Komunistaren artxibategi bat zihoan; itsasora bota zuten).

Batailoia gainerakoa, Frantziaraino iristea lortu zuena, Kataluniara joan zen berriro guduari ekiteko.

*Urriaren amaiera aldera, untziratu ahal izan zutenak, Bordeleraino eraman zituzten, eta han tren batean sarturik, gelditu gabe, Frantziako lurra ukitzen utzi gabe, Kataluniaraino eraman zituzten zuzenean.*³⁰²

Ebroko Batailan

Kataluniara iritsi ziren arrasatearrak 1939ko otsailera arte borrokatu zuten, atzera egin eta Frantziarantz joan ziren arte. Guk dakigula lau milizianok galdu zuten han bizia: Bernardo Gomez Otxoa, Unión Cerrajerako langilea, eta udaletxeko zinegotzi sozialistak, Dragonesekeo laugarren konpainiako kapitain ohia, Mazucoko batailoietako baten komisarioa eta Gandesa inguruan, frontean hil zuten brigada baten buru.

Bartzelonan argitaratutako Euzkadi Roja-n honako hau idatzi zuten: Ebroko frontean jasotako zaurien ondorioz, 1938ko irailaren 14an, Bernardo Gómez de Segura Otxoa Milizietako kapitaina hil zen, Arrasateko Udaleko zinegotzia.

Gipuzkoako herri langile horrek eman duen borrokalari antifaxisten plantel bikainekoa zen. Dragones batailoian borrokatu zuen, sekulako ausardiaz, eta egun heroiko eta gogoangarrietan nabarmendu zen, hala nola Intxortan eta Lemoako haitzan Euzkadin, Cabezón de la Salen Santanderren eta Mazucon Asturiasen. Bi aldiz zauritu zuten matxinatuen balek, eta une batez ez zen horregatik haren gogo saiatua ahuldu.

Aldi baterako, Torelloko funtzio zibiletan sartu zan, bertako euskal errefuxiatuak eta ingurukoek beti gogoraziko dute haien interesen alde egindako lana.

Milizietara itzulita, El Campesino izeneko dibisio ospetsuan sartu zen, Ebroko frontean sutuki borrokatuz heriotza aurkitu arte. Arrasatek askatasunaren heroien herriak beste bat du irailaren 14tik.

Gerardo Ruiz de la Cuesta Dragoietako lehen komandantea izandakoa, Hiltzean maior kargua betetzen zuen.

Alvaro Ibañez Azkoaga eta Bernardo López Alzaga ere Katalunian hil zituzten. Lehena Ebroko batailan hil zuten. Alvaro Ibañez Segren hil zuten. Bernardo Lopez Arbizun jaioa zen eta 34 urte zituen Lleidan berriz, Seo de Urgelen Piedras del Holon 1938ko maiatzak 30ean hil zutenean. Maria

Rubio Miguelekin zegoen ezkontuta eta hiru seme-alaba zituzten: Agueda, Roman eta Jose Maria.³⁰³ Pedro Gallastegui Azpitarte Arrasatearrak ere maior kargua izan zuen. 1938ko maiatzean, Bruch Batailoiko komandante burua zen Francisco Macía kuartelean eta J.S.U.ko Soldaduen Batzorde Nazionaleko kide.

Beste arrasatear bat, Celestino Uriarte, Ebroko batailan zauritu zuten. Celestinok 27. Dibisioaren 123. Brigada zuzendu zuen Bartzelonan, PSUCEko militanteek osatutako unitate katalana Ebroko borrokaldian parte hartzen ari zena. Ebroko borrokaldian armada errepublikarra babestea zen unitate haren egitekoa, eta hartarako, bukaera arte eutsi behar zion borrokaldiari. Lau hilean, 1938ko uztailaren 25etik azaroaren 16 arte, Gandesatik hurbil, Terra Alta inguruan, armada errepublikarra eta armada frankista bete-betean murgildu ziren 1936ko gerran izan zen ahultze borrokaldi gogorrenetako batean. Maior karguaz, Celestino zen 123. Brigada mistoaren burua; bere agindura zituen 4 batailoi, eta hango *komandanteak ziren Vila lleidarra, Becquer eta Walter alemaniarrek eta Robachol katalana.*³⁰⁴

Abuztuaren 17an, indar faxistek bigarren erasoaldiari ekin ziotenean, errepublikarrek ustekabeko eraso egin zuten Gandesaren kontra: *eutsi eta eutsi ari zen armada baten kontra ari ziren jeneral frankistek ez zuten espero eraso erreakzioa (...). Eraso hasi zuten 123. Brigadako gizonak, eta haien atzetik berehala jarraitu zuten Dibisioaren beste bi brigadek.*³⁰⁵

*Erabat kaltetuta egon arren, 27. Dibisioak aurre egin behar izan zion frankisten hirugarren erasoari, eta beste eraso bati ere bai. Marokoko Armadako gorputzen Dibisioek eta Maestrazgoko Dibisioek, horien artean Nafarroako lehen dibisioa zegoen, non parte hartu zuten Bergarako, Oñatiko eta Arrasateko hainbat karlistak, laugarren eraso hasi zuten; Venta de Camposines hartzeko helburuz.*³⁰⁶

Eraso horretako berritasuna izan zen 6 ordu eman zutela artilleria prestatzen. Artilleriako 300 piezatik gorakoei gehitu behar zaizkie bateriak, Condor Legioaren hegazkinen kontrakoak (...). Sei ordu bonbak jaurtikitzen, eta Lavall de la Torre mendilerroko mendi inguruak hartzen dituen 27. Dibisioa ia-ia guztiz txikituta geratu zen; haren posizioak ahulak ziren, eta alboan frankisten 74. Dibisioa zuen. 23. Brigadako hirugarren batailoia

«lurperatuta» geratu zen. 442. kotan, gizonen erdiak galdu zituen, Corbera del Ebroren iparraldean. Sarraski horretan, entre los muertos está el comisario Alejandro Bustillo, un comunista, Celestino Uriarte komandantea zauritu egin zuten.³⁰⁷

Dibisioaren indarrek baja asko izan zituzten, indarren ehuneko 70-80 inguru.³⁰⁸

Anastasio García Lumbreras Santanderren desagertu zen.

Luis Arrieta Etxebarria Roneoko langilea zen eta Madrilen zegoen gerra hasi zenean. Han desagertu zen.

Gerra aurretik faten zan jentia hilabeterako Madrilera. Roneok zaukan hartuta kajak eta urriak gordeteko estanteriak eta Banco de Españan. Biri gerriak ebatu zotzan han. Luis Arrieta desapareziruta. Inork be ez daki zer pasau jakon hari.³⁰⁹


Ulpiano Rubio Miguel. 36 urte. Unión Cerrajerako langilea. Useran (Madril) hil zuten 1938ko irailaren 8an.

Dragonesen Lehenengo Konpainiaren herena, 54 miliziano, borrokan hil ziren.³¹⁰

Dragones batailoian guduan hildako arrasatearren zerrenda

Abarrategui Abarrategui Domingo	Aretxabaleta
Abarrategui Abarrategui Mateo	Durango
Alberdi Juldain Martín	Peña Lemona
Altuna Luarijisti Mariano	Eibar
Arana Ibenzuaga Donato	Peña Lemona
Arriaran Ortueta Benito	Intxorta
Arabaolaza Alcelay Matías	Intxorta

Azcoaga Azurmendi Rufino	Peña Lemona
Alvarez del Río Gumersindo	Peña Lemona
Bengoa Gondra José	Kanpazar
Berecibar Ormazabal Juan	Intxorta
Berecibar Ormazabal Luis	Balmaseda
Berecibar Otaduy Eusebio	Donosti
Berecibar Otaduy Roman	Peña Lemona
Blazquez Navarro Lorenzo	Peña Lemona
Bolinaga Arregui Victor	Murugain
Bolinaga Velar Eugenio	Arrasate
Cortabarría Basauri Miguel	Balmaseda
Casado Fernández Ismael	Eibar
Dominguez Gutierrez Antonio	Untzilla
Eguiluz Lasa Manuel	Zeanuri
Elorza Heriz Felipe	Peña Lemona
Egidazu Lizarralde José	Peña Lemona
Echevarría Bizcargüenaga Francisco	Kanpazar
Fernandez Bilbao Andres	Peñas Blancas-Asturias
Garay Albistegui Felix	Intxorta
Gomez Ochoa Bernardo	Ebro
González Rubio Gregorio	Kanpazar
Ibañez Azcoaga Alvaro	Segre-Cataluña
Ibañez Azcoaga Camilo	Donostia
Ibañez Azcoaga Pedro	Intxorta
Lasaga Zuazubiscar Sabino	Aretxabaleta
Lizarralde Otaduy José	Intxorta
Lopez Alceaga Bernardo	Ebro
Lopez Lorenzo Irineo	Euba
Llanos Gonzalez Olegario	Peñas Blancas




Kanpazar Udala frontea

RELACION DE OBJETIVOS (NUMERADOS CON ROJO EN LAS PANORAMICAS)						
<i>(Toda designacion ulterior de objetivos se referirá a estos, o a los comprendidos en el cuaderno-registro, especificándose a cuales se refiere la designacion)</i>						
COORDENADAS UTM						
NUMERO	DEFINICION	PANORAMICAS	COORDENADAS			
			X	Y	Z	
1	CASA MIQUELETES CON TRINCHERA EN ZG-ZAG	6	53.8925.108	4.771.623.038	447.00	
2	BOSQUE CANTERA (EMPLAZAMIENTO)	6	53.9635.446	4.771.652.425	511.00	
3	TRINCHERA	6	53.9635.240	4.771.624.444	447.00	
4	PORTE CENTRAL DEL PINAR DE CAMPANZAR	6	53.9635.240	4.771.624.444	447.00	
5	EXTREMO SUPERIOR DEL PINAR DE CAMPANZAR	1	54.0053.613	4.772.663.676	648.94	
6	CASERIOS CON AMETRALLADORAS	6	54.1031.647	4.772.073.816	549.00	
7	TRINCHERA PROXIMA A LA ERMITA DE S.MIGUEL	6	54.1031.647	4.772.073.816	549.00	
8	TRINCHERA DELANTE DE LA ERMITA DE S.MIGUEL	6	54.1031.647	4.772.073.816	549.00	
9	PICO CON AMETRALLADORA EN PINAR JOVEN	1	54.0175.364	4.772.912.613	645.39	
10	PICO EN PINAR JOVEN CON AMETRALLADORA	1	54.0161.035	4.773.002.660	646.24	
11	OLLITURRI (PICO CON AMETRALLADORA)	1	54.0287.782	4.773.251.559	614.00	
12	TRINCHERA CORRIDA POR LA LOMA	1	54.0287.782	4.773.251.559	614.00	
13	TRINCHERA CON RAMALES Y CASAMATAS	1	54.0287.782	4.773.251.559	614.00	
14	ZABALETA (CASERIO)	1	54.1387.672	4.774.287.738	590.00	
15	ZABALETA (PICO)	1	54.0984.159	4.774.317.702	669.00	
16	PUESTOS EN LA LADERA DE INCHORTA S.	1	54.0984.159	4.774.317.702	669.00	
17	TRINCHERA INMEDIATA A INCHORTA S.	1	54.0984.159	4.774.317.702	669.00	
18	INCHORTA S.	1,2	54.1014.042	4.773.985.036	708.00	
19	INCHORTA N.	2	54.0871.898	4.775.360.834	744.00	
20	TRINCHERA EN INCHORTA E.	2	54.0871.898	4.775.360.834	744.00	
21	PICO DE INCHORTA E.	2	54.1284.558	4.775.079.972	732.00	
22	LOMA DE LOS PARAPETOS	2	54.1648.913	4.775.025.316	620.00	
23	AMETRALLADORA EN LA TRINCHERA DE LOS TOLDOS	2	54.1485.036	4.774.754.708	497.00	
24	AMETRALLADORA EN LA TRINCHERA DE LOS TOLDOS	2	54.1494.051	4.774.757.639	497.00	
25	PICO DE ARCOZANA (AMETRALLADORA)	1	54.1494.051	4.774.757.639	497.00	
26	TRINCHERA, OBRA RECIENTE	2	54.2881.605	4.756.808.822	584.00	
27	AMETRALLADORA EN INCHORTA-CHIQUI	2	54.1296.409	4.775.071.889	729.00	
28	TRINCHERA CON AMETRALLADORA EN INCHORTA-CHIQU	2	54.1288.511	4.775.073.947	730.00	
28-BIS	CASA CON AMETRALLADORA	2	54.1846.691	4.775.285.680	408.00	
29	CASA FORTIFICADA	2	54.1948.306	4.776.060.406	459.00	
30	CASERIO AL TUBE	2	54.2552.600	4.776.292.785	356.54	
31	CASERIO FORTIFICADO AGUIRREGOICOA	2	54.4258.480	4.776.571.014	330.18	
32	CASERIO FORTIFICADO AGUIRRECEAGA	2	54.4500.956	4.776.248.446	291.70	
33	OBSERVATORIO EN LA LOMA DE LAS CHAVOLAS	2	54.3191.682	4.777.182.461	637.00	
34	AZCONAVIETA	2	54.3250.146	4.778.207.321	725.81	
35	AZULAGOGAÑA (AMETRALLADORA)	2	54.4667.638	4.777.451.399	631.00	
36	AMETRALLADORA EXTREMO TRINCHERA	2	54.5334.999	4.777.426.504	537.00	
37	AMETRALLADORA EN BOSQUE HAYAS	2	54.5588.929	4.777.029.907	451.00	
38	EXTREMO DERECHO BOSQUE	2	54.5274.715	4.777.381.978	537.00	
39	AMETRALLADORA FALDA BASALGO	2	54.5598.053	4.777.184.734	447.25	
40	GARBE S.	2	54.5914.289	4.776.972.553	481.00	
41	GARCE CENTRAL	2	54.5887.599	4.777.149.629	496.00	
42	GARBE N.	2	54.5901.082	4.776.258.134	495.00	
43	ELGUETA (TORRE)	2	54.1702.395	4.776.186.137	473.00	
44	ELORRIO (TORRE)	2	53.7299.402	4.775.237.393	150.00	
45	ASENTAMIENTO ARTILLERIA LEPASOLO	2	54.2366.135	4.777.303.470	529.00	



Nafarroako hiru Brigaden posizioak

Kanpazar Udala frontea





San Pedron, Orduñan Amaiurrekoak. Jose Maria Etxebarria Larrañagak utzitakoa.



Amaiur batailoa Gernikan.

Olazagoitia Ceciaga Juan	San Bernabe
Olazagoitia Garcia Segundo	Euba
Olmedo Paunero Pedro	Donostia
Pinto Lorenzo Adrián	Miranda de Ebroko kontzentrazio eremua.
Rodriguez Zamora Arsenio	Campo de Concentracion en Canarias
Ruiz de Alegría Balanzategui Francisco	Intxorta
Ruiz de Alegría Balanzategui Pedro	Aretxabaleta
Ruiz de La Cuesta Gomez Gerardo	Ebro
Rubio Miguel Ulpiano	Usera-Madrid
Sanchez Lopez Eutiquiano	Peña Lemona
Tarragona Calvo Marcelo	Peña Lemona
Uranga Balanzategui Benito	Donostia
Uriarte Martinez Isidro	Bilbao
Vitoria Zanguitu Evaristo	Aretxabaleta
Zuazua Mondragón Jesús	Intxorta
Zubia Zumelaga Miguel	Murugain
Zubizarreta Barrena Timoteo	Aretxabaleta
Zarraola Aislodi Federico	Intxorta

11.2. Amayur batailoia.

Amayur izan zen Napar pirineoetako azken gotorlekua. 1522.urtean, Errege Katolikoa zen Fermandoren erasoetatik babestu zen. Nafarroako autonomia osoaren azken babesa izan zen hau.

Azaroa hasieran Amayur batailoia antolatu zen Gernikan, eta Rufino Rezola izendatu zuten komandante. Lau konpainiak osatzen zuten batailo hori: lehenengoa Arrasate konpainia; bigarrena Arturo Kanpion konpainia; hirugarrena Aitzorrotz konpainia; eta laugarrena San Martzial konpainia. Aitzorrotz konpainian Eskoriatzako 15 gudari ziren eta Arrasate konpainian Arrasatekoak denak. Jose Gorroñoigoitia izendatu zuten kapitain, eta Joakin Garmendia, Jose M. Gallastegi eta Juan Azkarate teniente. Geroago, gerra aurrerago zihola, Jose Miguel Egidazu, Vicente Fuldain, Roman Bidaburu, Pablo Bolinaga eta Segundo Zeziaga izendatu zituzten teniente.

Elorriotik, EAJko kideak eta Eusko Gaztedikoak, Gernikara joan ziren. Han osatu zen batailoia, Euskal Milizien buru zen Felipe Lizasoren esanetara. Batalooi honetako lehenengo konpainiko kide guztiak Arrasatekoak ziren (150 gizon). Denak ez ziren EAJkoak.³¹¹

Ondorengo hauek dira batailoiko kideak egon ziren leku ezberdinak: Loiola, Ernio, Bidania, Azkarate eta San Prudentzio. San Bernaben, Landan. Irailaren 23an, Untzillan eta 26an Galartza eta Arrazolan. Kalamuan 24 egun. Abenduaren 5ean, San Pedro de Orduñan. 1937ko urtarrilaren 10ean, Aramaio-Kruzeta. Otsailaren 12an, Asturias, Areces eta Pandora, guztira 43 egun. Martxoaren 27an Bilbora. Apirilaren 1ean, Olaeta- Otxandiano. Apirilaren 5ean Urkiolan eta atsedena Mundakan eta Lekeitio. Maiatzaren 2an Solluben eta 10ean Bizkargin. Bilbo erori ondoren, Laredora joan ziren. Han entregatu zizkieten armak italiarrei.



Amaiurrekoak Asturiasen.



Martin Iturbe.



Joaquin Garmendia, José Barrutiabengoa (Arbe), Juanito Azkarate, José Gorroñoigoitia. Argazkia Pilar Garmendiak utzitakoa.-



Jesús Mendizabal

Amayur Batailoiko 158 arrasatear

Jose Gorroñoigoitia Sein, kapitaina
Joaquin Garmendia Alava, kapitaina
Juan Azcarate Isasmendi, kapitaina
Jose Barrutiabengoa Gallastegi, kapitaina
Roman Bidaburu Aranburuzabala, Tenientea
Vicente Juldain Sainz, Tenientea
Jose Maria Gallastegi, Tenientea
Segundo Ceciaga Uriarte, Tenientea
Jose Miguel Egidazu Pagaldy, Tenientea
Gregorio Ariztimuño Ayerbe, Brigada
Pablo Bolinaga Arregi, Komisario Politikoa
Victor Murguzur Yarza, Sarjentua
Juan Arizabaleta Zabaleta

Kaboak: Vicente Barrutiabengoa Gastañarez, Santos Sologaistoa Uriarte, Manuel Gallastegi Elejalde, Victoriano Arizabaleta Zabaleta, Sabin Iturriaga Murua, Gabino Vitoria Albistegi, Jose Luis Sodupe Azkarraga, Francisco Uribechevarria Barandiaran, Paul Galdos Garcia, Felix Iraola Otaduy, Felix Ceciaga Olalde, Jesusu Arregi Garai.

Gudariak: Vicente Orobengoa Ceciaga, Florencio Mugica Madinabeitia, Felipe Aguirre Zubia, Ramon Aranbarri Goñi, Pedro Arriola Arabaolaza, Javier Gorosabel Burguiña, Esteban Echevarria Arabaolaza, Francisco Gastañarez Elorza, Roman Fernandez Palacios, Felix Ceciaga Laspiur, Jose Azcarate Isasmendi, Martin Echevarria Errasti, Luis Altuna Lizarralde, Juan Jose Echevarria Herrasti, Francisco Mendicute Arregui, Juan Echevarria Arabaolaza, Jose Amozarrain Oyanguren, Alberto Arabaolaza Ceciaga, Felix Eraña Mugica, Santos Ceciaga Uriarte, Jesus Mendizabal Urtubai, Jose Etxagibel Otadui, Jose Miguel Egidazu Pagaldai, Cruz Villar Igartua, Imanol Iturriaga Murua, Sabino Arrieta Arregi, Sabin Garai Arregi, Alberto Arabaolaza Abarrategi, Telesforo Galdos Ugalde, Juan Azcoaga Bidaburu, Juan Axpe Zubia, Simon Axpe Zubia, Esteban Zaitegi Zeziaga, Pablo Urizarren Altuna, Jesus Narvaiza Larrañaga, Lorenzo Urrutia Arregi, Felix Garay Lizarralde, Juan Yarza Abalia, Vicente Egidazu Lizarralde, Gregorio Orobengoa Zeziaga, Angel Etxabe Unamuno, Juan Gorosabel Gorosabel, Jose

Zabalo Lizarralde, Cecilio Altuna Sagasta, Ambrosio Leibar Balanzategi, Felix Garro Maortua, Gregorio Arregui Amilleta, Andres Barrutia Zuazubiskar, Faustino Velez Mendizabal, Pablo Uribarren Altuna, Ricardo Pereira Juldain, Jabier Zelaiaundi Tokieder, Esteban Etxebarria Arabaolaza, Jose Agirre Balanzategi, Leoncio Ortiz de Guzman Gallastegui, Jose Barrutiabengoa, Alejandro Etxebarria Uribechevarria, Jose M^a Etxebarria Garay, Agustin Etxebarria, Felipe Barrutiabengoa Gastañaga, Angel Uribeetxebarria Osinaga, Pablo Ortiz de Guzman Gallastegui, Gregorio Yarza Abalia, Patxi Gorosabel Burginez, Potxotxo?, Pablo Uribarria, Alejandro Saburde Urrutia, Angel Arana, Eduardo Urrutia Arregui, Victor Murgia Villarán, Juan Eraña, Esteban Altuna Narvaiza, Ramón Aperribay Oquina, Alberto Arabaolaza Abarrategui, Gregorio Belarrain Larbide, Pedro Bolinaga Arregui, Eugenio Bolinaga Villar, Gregorio Ceciaga Laspiur, Andrés Cortabarría Barrutia, Martín Echeverría Herrasti, Juan Eraña Múgica, José Fernández Palacio, Máximo Gallastegi Elejalde, Gerardo Gastañarez Villar, Vicente Inda Loza, Martín Iturbe Uribe, Julian Leibar Uribarri, Félix Sagasta Elorza, Joseba Sampedro Mendia, Gregorio Abarrategui Abarrategui, Pablo Aguirre Ugalde, Adrian Iturbe Sanpedro, Antonio Zubizarreta Urcelai, Pedro Murgoitio Alberdi, Eugenio Uranga Olabe, Angel Garai Arregi, Emeterio Oyanguren Zubia, Victorino Ruiz de Azua Montalban, Segundo Barandiaran Egurrola, Ambrosio Leibar Balanzategi, Roque Garay Uribe-salgo, Luis Barrutiabengoa Gastañaga, Felix Cortabarría Larzanguren, Leon Aguiriano Arana, Manuel Amozarrain Oyanguren, Domingo Gastañaga Guridi, Demetrio Balanzategui Arizmendi, Paul Galdos Garcia, Agustin Etxebarria Uribetxebarria, Basilio Guridi Belategui, Eusebio Lizarralde Amicola, Benito Markaide Gallastegi, Felix Eraña Mugika, Angel Arregui Loidi, Esteban Arana Aranceta, Jose Gorosabel Burguiña, Sabino Amozarrain Unzueta, Gregorio Armentia Berrio, Gregorio Eguidazu Lizarralde, Joaquin Mugika Almandoz, Sabin Arrieta Arregui, Jose Amilibia Larrañaga, Ramon Izurrategui Zubia, Angel Eizaguirre Azkoaga, Jesus Leibar Aginagalde, Victoriano Zelaya Arregi, Leandro Ibañez Azkue, Vicente Barrutia Zuazubiskar.

Azaro hasieran egin genuen lehenengo irteera Kalamuako maldetara. Kalamua mendia faxistek hartu



Amaiurrekoak Asturiasen. Argazkia Pilar Garmendiak utzitakoa.



Maximo Gallastegi



Alberto Arabaolaza Abarrategi.



Preso alemanei Urkiolan aurkitutako argazkia.

zutenean, gu Markina-Etxeberritik hurbil egon ginen. Bake dezente egon zen; han zakur bat topatu genuen, "gudari" izena jarri genion, eta kanpaina osoan ibili genuen lagun.

Azaroaren 30ean Legutioko erasoan, Durangon ginen; bigarren lerroan genuen posizio hori erreserbakoa zen; eta Gasteiz eta Miranda hartuko genituen ustez geunden prestatuta. Abenduaren 5ean Urduñako San Pedrorra iritsi ginen; sartu ginen herrian UGTren batailoia baten lekua hartzeko; bien bitartean etsaiak Amabirjinaren gaina hartu zuen, eta gu herrian geratu ginen. Lehenengo



Atsedean eguna, Mundakako kuartelean, Jose Amozarrain, Esteban Altuna, Jose Angel Egidazu, Juan Azkoaga, Manolo Amozarrain, Sabin Arrieta, Felix Eraña.

erasoa Azaroaren 11n egin genuen, agerian. Etsaiaren alanbradataraino iritsi ginen faxisten tiroen mendean; galera handiak egin zizkiguten, eta aurrera jarraitzea eragotzi ziguten. Beste zenbait eraso ere egin genuen, horietakoren batek egun osoa ere iraun zuen. Etsaiak artilleriaren laguntzarekin egiten zigun frente; gureak, berriz, Amurriotik ari baitzen tiroka, inoiz ez zuen helmugarik jo, eta batzuetan geure gainean ere bota zuen. Taktika aldatu eta Izarratik Mirandara saiatu ginen aurreratzen. Harkaitz batzuk topatu genituen ordea, eta etsaiak handik gogor eraso zigun. Gabon ostean, herrian jai bat ospatzen ari ginen batean, faxistak tren geltokiraino sartu zitzaizkigun. Hala moduz eraso egin genien, ordea, eta beldurrak jota alde egin behar izan zuten. Une hartan artilleriarik izan bagenu, aise hartuko genuen haiek zuten gaina. Gregorio Zeziaga eta José Fernández, gure konpainiakoak biak, eraso haietako batzuetan erori ziren.³¹²

Han igaro genituen etxetik kanpora tokatu zitzaizkigun lehenengo Gabonak, berriro Arrasatera itzuli aurretik modu berean beste zenbat igaro behar genituen ez genekiela. 1937ko urtarrilaren 6an gure ordeztu beste batzuk ekarri zituzten, eta Mundakara eramanez gintuzten gu, hango udaletxean baitzeukan batailoia kuartela. Urtarrilaren 10ean Aramaiora bidali gintuzten; beldurtu ere egiteko moduko lasaitasuna zegoen, nahiz eta aldi behin etsaiaren kanoikadaren bat entzuten zen, inguruan zela esan nahiko balute bezala. San Blas egunean akordeo eta panderoz ospatu genituen jaiak.

("Bizargin"ek Egunan zioenez: "Aramaiona hiri polit honetan pozarik pozaz aurkitzen gara San Blas jaiak ospatu ditugu; Aramaioko herri guztia harriturik utzi genduan").

Asturiasera

"Rebelión de la Sal" batailoia gure lekua hartzera etorri zitzaigun arte han geratu ginen. Orduan eskatu zuen Jose A. Agirrek Euskal Brigada bat Asturiasa joateko. Horren xedea zen frankistei hornidura bidea moztea, Galiziatik Oviedoraino zetorkiena. Garai horretan asturiar asko joanak ziren Madril defenditzera.



Félix Iraola, Jose Miguel Egidazu, Cruz Villar, Angel Arregi, Vicente Uribetxebarria eta Juan Azkoaga.

Garai horretan asturiar asko Madril defenditzera. Alderdi bakoitzetik batailo bana bidaltzea erabaki zuten, eta EAĴk gu aukeratu gintuen; formatu gintuzten, eta gure borondatez gindoazela esan ziguten. Hemen edo han hil, berdín zela iruditu zitzaigun, azkenean Euskadi defendatzea baitzen guztia.

Brigada hori batailo hauek osatzen zuten: Perezagua, Eusko Indarra, Rusia, CNT, UGT 2 eta Amayur, Saseta komandantea zela, ordurako Legution esku



Jose Maria Gallastegi, Sabino Amozarrain (Sabin Txiki), Ignacio Olazabal (Quinque), Alberto Abarrategi, Sabin Arrieta eta Sabin Iturriaga.

batean zauritua.

Bilbotik hilaren 12an atera ginen Eskolapioetako kuartelean afaldu ondoren. Basurtoko geltokira joan ginen Asturiasera eramango gintuen tren berezia hartzeko. Despedida oso hunkigarria izan zen. Eusko Jaurlaritzako agintari asko etorri ziren lehendakariarekin batera. Jende ugari etorri zen gu agurtzera.³¹³

Bilbotik irten genuen; Agirrek egin zigun agurra. Trenez egin genuen bidaia; hilaren 13an Arriondasen geratu ginen atsedean hartzeko, eta geure artean euskaraz nola hitz egiten genuen, komentarioak entzuten genituen: Begira! Horiek ingelesak dira!³¹⁴

Eguzki, Amayur-ko Atxorrotz 3. konpainiako gudariak, artikulu hau idatzi zuen Egunan:

Agur, Euzko-Gudariok!

Agintzen digutena betetzeko prestu gaude. Atzerri alderuntz bagoaz, eta biotza samindua daukat. Hemen nere lur maite ontan odola emateko aspalditik gagoz, bañon, zer ote da bearra? Bear orrek dei egin die euzko gudariei. Nora goaz? Beintzat Euzkadi'tik urrun. An erailtzen ba-naute azken arnasa ondo mindua izango zait.

Guziok areriyo bat daukagu, ta orren aurka juan bear ixkin guzita. Ikusiko ote ditugu Irun aldietan bezala moriak?... Len aiek naiko etzirala, orain ordea beste laterrietako pixtiak daude, ta gu orren guzien aurka!... Orain artean Jaungoikua'ren laguntza izan ba det, orainguan zer ikusi bear ote degu?

Atzerria! Izen orren gorroto-zale izandu naiz beti.

Orain... ixildu egin bearko det. Emen gere aberria artu nai badegu naiko lan ba dago. Eta, au utzi, ta atzerrira... bañon tira, agintarien menpekuok ixil ta xeriyo ebili bear. Erregalu polita eskeñi digute. Illabete osoan mendian igaro degu, ta atsedetik artzeko betarik gabe! Ba goazela aruntz... Nora ordea? Komeni bada esatia egunerokuan irakurriko dituzte berriak, ta saildi honen berri ere bai.

Beaz, oraingoz pixka batean ez det idatziko,



Arrasate eta Ezkoriazako Amaiurreko gudariak.

betarik ez degu esango-ta. Etortxen ba naiz bertako berriak bialiko ditut edo aleginduko naiz al detana egiten.

Agur, euzko-gudariok! Gogoz irakurri gure ebilerak!

(...)

Lehenengo egunak atsedeen egun izan ziren eta tokiak ezagutzeko aprobeztatu genituen, Eguzkik komentatzen duen bezala:

Euzkotarron ikurriñak Asturiasen pisto-ematen du

Oraindik atsedentxoia igarotzen gaude Amayurko gudariok eta egon aldi ontan zerbait berri zeori emaita nai. Inguruko mendien berri ikasi degu, ta ondo dakigu areriyua nundik apurtu...

Kañoi ta tiro otsa da nagusi inguru onetan, ta orrek ezan nai du bi alderdiak gogor daudela. Aurki gera gu ere zerbait egin bearrian, eta zuek anai maiteok gutzaz une naigabetzu auetan arren oroitu. Terzioak jakin dute eusko-gudariok onuntz etorri generala, zergatik eranun gabeen parapeto batetik bestera deadar egiñak dira adieraziaz onela:

“Ya sabemos que van venido esos católicos vascos de Basilio Alvarez...” eta orrelaxe alajaña!

Oviedo naiko itxia dago. Mutur bat besterik ez dauka igez egiteko, eta urrengo idazkio orduko urrean zearo itxi ez...

Emen elizak erriak zaudela ezaten zuten or geundenian. Eta ezin gizurtatuko degu egi ori. Gu gauden ballaran bat zearo apurtua dago, ta bertako apaiza ere erail omen zuten. Ala ere denak ez dira egiak. Apaiz jatorrak bizirik daude, eta eraildakoak zerbaiten errua izango zuten...

Beste erri batean andere batzuk galdetu ziraten ia egiz gu katolikuak giñan? Baietz ezan nion. Gure gudate ontako lenengo ezaugarri Jaungoikua dala, eta beste guzien gain bera degula buru. AArrituak gelditu ziran gaxoak! Eurak pozik egongo omen lirake Bilbo'n.

Gure ikurriñak zabalik daude geren lekutan, eta bertako biztanleak ingurutik igarotzen diran guzitan Viva Bizkaya! deadar egiten dute.

Gure umore ona ere ez da palta alde auetan. Erritxo batean (Arriondas da bera ta aurreko idazkian beonen berri eman nuan), dantrariya atera zuten gudariak, eta erri guzia txoro biran enparantzaz zan txaloka.

Inguru guzi au esan leike abertzale degula, euzkera

da nagusi, eta beste mintzaerarik ez da entzuten. Onela Agirre jaunaren geltokiko hitza betetzen da. Bere itzak ziran: “Agur eta euzkeraz itz-egin” Ze itz ederrak guzian buru degun zaindariaarena! Euzkaldunak nagusi Asturias’en...! Zerbait ezaugarri eramango ote degu’-ba...?

Izparringiak ere eldu dira, ta portatzen dira baten batzuk. Gure janari goxoena orixe bait-da! Jarrai orrelaxe.

Oviedo oso ongi ikusten degu unero. Naranko mendia dauka ezaugarri, ta bere muturrian oso labarmen ageri dira parapetuak. Egun auetan berebil asko dabil atzeurrean, eta dirudienez igezteko prestu daude. Irureun omen daude illaran. Nolabaita ere bildur dira aurki guretzat izango dala edo... Utikan pizti maltzurak!

Betor lenbailen garaitza! Orrela gure Aberri kutunera lenbeilen jua gaitezen. Bizi bagera gure poza, ta erailtzen ba’naute... betiko Donokia. Ontan ziur-ziur nago. Agur. Eguzki

Erasorako plangintza bat prestatu zen, eta hilaren 20an hasi zen eraso hori. Euskaldunen aldetiko laguntza 6

batailoi ginen; horietatik hiruk, Eusko Indarra, UGT 2. eta Amayurrek brigada bat osatzen zuten, gudaiburu Saseta komandantea zutela. horretarako Nalon ibaiaren bestaldera igaro beharra zegoen. Plangintzaren arabera otsailaren 19tik 20ra bitarteko gauean zubigile asturiarrek zubi bat egingo zuten ibaiaren gainean, gudarientzako bidea izan zedin eta beste aldean zubi buru bat prestatzeko. Haiak zubia egin zuten, baina bukatu zutenean bestaldera igaro ziren zubia puskatzeko; eta gauean bestaldera igaro nahi izan genuenean, ikusi genuen ezinezkoa zela. Zubi hartatik gauza bakarra geratu zen, ibaiertz batetik besteraino zihuan soka bat besterik ez, eta txalupa bat, aldiko 12 gudari bakarrik hartzen zuena; horrela bada, zozketa egin eta Eusko Indarra batailoari tokatu zitzaion lehenengo igarotzea. Hurrengo egunean ibaia igarotzen hasi ginen, baina gertatu zen faxistek tiroka hartzen zutela ibai guztia 200 metroko tontor batetik; eta horregatik joan etori bakoitzean galeraren bat izaten genuen txalupan; bizirik abiatzen ziren eta zauriturik itzultzen. Ibaia igaro ondoren beste hogeita hamarren bat metro geratzen ziren oraindik, zoru garbia, faxisten metrailaren mendean. Baina azkenean tiroka ari zitzaizkigun tontorra hartzea lortu genuen, eta erasoaren lehenengo egun horretan,



Itxarkundiakoak Pago Txikin, belaunikatuta ezkerretik lehena Iñaki Arrieta Arregi. Juan Luis Arrietak utzitakoa.

hilak 20 igandea, Valduno eta Premaño herriak ere hartu genituen, galera handiak eginez izan bazen ere. Otsailaren 21ean Amayur-ko konpainia batek eta Eusko Indarreko beste batek aurreramendua aurrerago eraman genuen. Hilaren 22an, erasoaren hirugarrenean, berriro ekin zitzaion erasoari, eta ilunabarrean Araces herria hartu genuen; horrekin eraso haren xedea betetzat eman zitekeen, herri hori hartu ondoren Gradotik Oviedorako errepidea gertuan geratzen zen eta. Gudariak nekaturik eta deneaturik geunden, hiru egunean ez baikenuen, ez jan, ez apenas lo egin. Estaltzeko indarrak ere ez zegoen, infanteria babestuko zuen artilleria edo abiaziorik.³¹⁵

Jokin Garmendia: Hilaren 21ean hasi zen ofentsiba. Gure batailoiak parte hartu zuen ofentsiba honetan. Valdunon, Arecesen, jasandako neke eta sufrikario handiak gogoratu beharra dugu. Arecesen zauritu zituzten gure lagun Gerardo Gastañarez, Cruz Villar, Maximo Gallastegi eta Felix Sagasta- Ezin izan genituen handik ebakatu. Bestalde, Asturiaseko ospitale batean hil zen Martin Iturberen eta gogoratzen ez dudan Garagartzako beste gazte baten heriotzak ere deitoratu genituen. (Gregorio Abarrategi) Konpainiako hainbat kide zauritu zituzten, hauen artean, Jose Cortabarría eta Jesus Mendizabal. Lehenengoa sendatu egin zen, bigarrena, ostera, Frantziara ebakatu zuten abuztuan, sendatzeko denbora luzea behar zuelako. Fronte honetatik, Oviedotik hurbil dagoen Pando herrira eraman gintuzten. Ondoko gain batera igota Oviedo ikus genezakeen. Hainbat egun pasa genituen fronte honetan eta zauritu dezente izan genituen bertan, nahiz eta zauriak oso larriak ez izan.³¹⁶

Ausardia handiz abiatu ziren posizio faxistak hartzera eta kide asko galdu zituzten. Baina, horrek ez zuen lortu indar sutsu hura gelditzea eta, bi ordu baino gutxiagotan lortu zuten euren helburua konkistatzea, hasiera batean pentsatzen zutena baino askoz denbora gutxiagotan.³¹⁷

Etsaiak hurrengo egunetik, hilak 23, asteazkenetik ekin zion kontraerasoari. Eliteko tropak ziren: Guardia Zibilak, Legioko Tertzioa eta moroak, zuzenean tiro eginez hilketa handiak egiten zituen artilleriak ederto babesturik. Narancotik tirokatzen gintuzten; haien obusen zu-



Loiolako gudariak Gernikan, eskumakoa Fermin Garai Etxabe



Itxarkundiako gudariak, eserita dagoena Iñaki Arrieta Arregi. Juan Luis Arrietak utzitakoa.



Gabriel Goitia Uralde.


zeneko tiroekin jende asko hil zen trintxeretan, eta sabotajeren bat izan zutelako behar bada, horri esker obus haietako bat ere ez zen lehertu. Araces utzi beharra izan zen, eta zauritu asko geratu ziren han, geurekin ezin eramanetz; haien berri ez da gehiagorik jakin tamalez; seguru asko bertan hilko zituzten faxistek, gehienetan egin ohi zuten bezala. Han hil zen eusko brigadaren gudalburua, Saseta komandantea, denok hainbeste estimatzen genuena... Saseta azkenengo aldis ikusi nuen, frankistak Araces-en sartu zirenean. Bonba bana zeraman esku banatan, nik ezponda batetik behera jauzi egin nuen, eta bi bala sartu zizkidaten; gure gudarien lerroetaraino iristea lortu nuen. Han zauritu gintuzten, Jose Agirre, Cruz Villar eta neu Jesús Mendizabal.³¹⁸

Otsailaren 23an, goizeko 8ak inguru ziren, Aracesen tirokatu nindutenean. Bala bularretik sartu eta gerritik irten zitzaidan. Jokin Garmendiak sukalde baten sartu eta lurrean etzan ninduen. Beste hamabi lagun ukuiluan gelditu ziren, euren artean, Felix Sagasta arrasatearra. Han nengoela bi moro sartu ziran esanaz, “tu ser rojo cabeza cortar”. Baina berehala tenientea etorri zen ea nongoak eta zein familiatakoak ginen galdezka. Felixek mondragokoa zela informatzeko eta bere berri jakingo zuela esan zion. (bere aita karlista

sutsua izan arren, bera ere karlista zen baina ez zen asko sartzen). Arratsaldeko 3etan hiru mororen artean kamioneta baten ospitalera eraman ninduten. Baina, neu eraman eta ordu laurdenera beste hamabi lagunak fusilatu zituzten, Felix Sagasta ere bai. beste bost lagun Zegamakoak ziran. Ospitalean konturatu ziren San Kristobalen eskapularioa nuela, eta hasi ziren esaten “rojo con escapulario”. Beste asturiar itsu batekin nengoen eta sartu ziren beste batzuk, gorriak ginela eta kanposantura likidatzera eramateko esanez, baina kapitaina kontra jarri zen eta gaixorik ez zuela entregatuko esan zuen.³¹⁹

Toki hartan gertatu zen Jerardo Gastañarezen gorpua ere (Miguel eta Venancio, urrian Hernanin fusilatu zituztenen anaiarik gazteena). Erretiratu orde, etxe batean babestu eta esku bonbaz frankistak hiltzen eman zuen bizia, era horretara anaien mendekua hartzeko. Jerardoz gainera Maximo Gallastegi, Martin Iturbe, Felix Sagasta eta Gregorio Abarrategi ere han geratu ziren.

Bai Eusko Indarrakoe, bai Amayurrekoek uste genuen haren ondoren Bilbora eramango gintuztela atsedean hartzera, baina ez zen horrela gertatu. Perezagua batailoia (komunista), momentu larriak ari ziren igarotzen Naranco maldetan, eta haiei laguntzera



Planoa ANV Asturiasen,
Jose Letona Arrietak egindako plano



Felipe García Lumbreras.

eraman gintuzten; esan ziguten bi egun besterik ez zirela izango, baina bost baino gehiago izan ziren elurrez, gosez eta hotzez.

Oviedotik Pando-Narancopean Oviedori begira

Han, Pandoko Haitzean, Perezagua batailoiak posizioaren erdia hartzen zuen bitartean, gure konpainiak, ezkerreko hegalaren ardura hartu zuen. Faxistak erasotzen hasi ziren, kendua zieten lekua berriro beren eskutara itzuli nahiz (Pandoko Haitza eta herri txiki bat Olivares). Gorroñok agindua eman zigun berak lehenengo tiroa egiten zuenean gainontzeko guztiek ere tiroka ekiteko. Moroak gure aldera zetozkigun, eta gure lekua libre egongo zela usteko zuten, inork ez zuen tirorik egiten eta. Nahikoa hurbileraino gerturatu zirenean Gorroñok tiro egin zuen eta gainontzeko guztiek jarraitu genion, eta era horretara 600dik gora moro eta soldadu erori ziren hantxe bertan, alanbre aurrean. Geroztik Caldasera alde egin genuen,



Isabel García.



Rogelio Garcia Lumbreras.



Fuencisla Andres Carmona eta Isidro Monge Alonso.



Catalina Albistegi Leceta eta Domingo Garro Altube.



Cándido Garay Uribesalgo, hirugarren Ierroan Bigarrena Eskumatik.



ANVkoak.

atseden hartzera; lotan geundela berriro egin behar izan genion frente arerioari, berriro erasoan ekin baitzigun.

Sasetaren azken unea

Naranko mendi aundi ta nabarmen orretan paxistar asko daude. Gu beste leku batetik onera "Perezagua"ri laguntzera ekarri ginduzen. Leku latza degu. Tiro otsa da ezaugarri unero ta noiz beinka ikusten ditugu moro maltzurak...Euron antziak beldur ematen dit. Areces erria artu genduanian deadarka gau guzian ixildu gabe aritu ziran "Hijos de la Pasionaria", "Vascos caseros"... ta orrelaxe.

Falangetar bat atxitu genduan lengo egunean. Galduta zebillen eta gugana etorri zanian galdetu zigun: "Son de Falange?" Guk... baietz, eta gixajoa etorri zan. Eldu genion ta... bere kontuak eman zizkieten "Perezagua"ko gudariak.

Oviedo kilometro batera daukagu. Kamiñoa itxia daukagu ta paxistarrak larri dira. Zearo nekatuak gaude. Lan asko egin degu aspaldion. Ogei egun daroaguz emen jo ta ke geratu barik. Saildi barriren bat laster etorriko dalakoan gera. Saseta il zaigu. Asken unean berakin itz egin nuan. Besarkatu nuan esanaz: "Saseta, galduak

gera". Bera beti bezala irmo zegon eta erantzun ziran: "Ez kikildu, artu bonbak eta aurrera". Ekin genion bideari, berak ere bai, baina eriotza aurkitu zuan.

Euzko Gudariak Asturiasen

Gure jokaeraren berri emateko onduen norbeak ikusitakuak dira. Itz parrak gure saildietzaz ixil egon arren: egin ditugun lan onurakariak oroigarri zaizkigu benetan. Lan egin zigutela berriro. Atseder uzte au joan giñan Las Caldas erritxora, ta gañeko amaketan deadar ta otsa bazan "Arriba todo el batallón", "Urgen" eta bigunki jaiki bearra izan genduan. Nora? Bandora. Gabaz areriyuak atakau zuten kamiñua irekitzeko asmoz. Alperrikakoa ordea. Julapa ederra eman, eta urren arte... Albu

zegin menditxo edo parapetotan gure lagundi Aitz-Zorrotz jar giñan. Leke berezi ontatik ederki ikusten da areriyuen ebillera guzia.

Ontan beste egun bat, eta... goizeko lehen orduetan berriro Kañoi ta danbara bazan ugari! Ondoren moro tertzio ta militar maltzurak irugarren aldiz ekin diote aurrera. Pando ta Olivares artu nayan... Eguerdi aldia zan ta ederki ikusten genduzan nola zijoazten. Ekin diogu tiroka. Ura otsa! Aisa atseratu bearra izan zuten al-zuanak! Illotzik Berreun gelditu ziran eta...!

Urrengo egunean euren gudari bat guregana etorri zan, eta berak zion gure alderdiko tiro ots izugarriak galdu zituztela. Gañera komandante bat eta tenientea ere erail omen geniegun. Posesiyo ontan "Arrasate" lagundikoak eta gu Aitz-Zorrotz'kuak giñan. Beste aldetatik bereala Pando aldera igo bearra izan zuten Apalategi ta Jaizkibel lagundikoak. Jaizkibel'ek ildako bat eta bi zauritu ditu. Beste guziok ondo.

Zaingo onek atsegin osoz auxe adirazi nai dautso Euzko-Erriari igande eguerdian. Euzko Jaurlaritzako Lendakari jaunari otsegin eutsan Asturias eta Leon'go ordezkari Belarmino Tomas jaunak, eta "gure gudarien" jokaera bikain, sendo eta azarria zala-ta pozez egozala

eta zorion-eskerrak agertuten eutsazala.

1937-03-01/ Asturiasen eguraldi txarra eta aiz gogorra

Gijon.- Atzoko egunez ainbat gorpu illotz batu ziran. Illotz arerioak bere igesaldiak lagatakuak dira. Geyenok Pando - San Claudio aldean egiñiko joaldian illak dira. Atzo berreun eta iru ildako baño geyago batu ziran eta oraindik eundaka ugari dagoz batzeko su biren erdian dagozalako.

Bukatu zen gure Asturiako ibilera; 43 egun eman genituen han.

Jose Korta, kaperauen gorputzeko komandantea 1937ko martxoaren 17an hil zen, Arrasateko Amayurreko gudariekin hizketan ari zela Trubiako errepidean bala batek jota (Asturiasen).

Berriro Bilbora iritsi ginen, eta Agirreren aurren desfilean igaro ginen. Martxo bukaera zen, hilaren 28 ingurua.

Batailoiaaren galera balantzea 150 ingurukoa zen, hildako eta zaurituen artean. Eusko Indarra batailoiak 200dik gora izan zituen galduan.

Hilabeteko atsedena eman ziguten, baina Francoren armadak Bizkaiaren kontra erasoari ekin zionean, martxoaren 31n, Olaetako posizioa hartzera bidali gintuzten, Otxandio ondoan, urte horretako apirilaren lean.

Handik bi egunera etsaiak eraso zuen; 100dik gora abioi kontatu genituen gure gainetik igaro eta su bonbak jaurtikitzen; mendi osoa erre zuten; ikaragarria izan zen hura, ez geneukan ez antiaereorik, ez fronte egingo zieten hegazkinik. Han hil ziren Gregorio Beldarrain (Angelillo) eta Joseba San Pedro. Urkiola aldera erretiratu beharra izan genuen. Apirilaren 5ean, Urkiola gainean errepide ondoan geundela, non ikusten dugun armadaren jeep bat datorrela, eta zein ez zen izango gure harrimena, ikusten dugunean lau soldadu aleman zihozela bertan, ustez lurralde hura faxisten lurraldea zelakoan. Alto eman genien eta ihesean alde egin zuten, orduan tiro egin genien eta hurbildu egin ginen; ustekabe hura ustekabeago izan zen hala ere, haietako bat ezagutu egiten baikenuen, Zarautzen fabrika bat eraikia zuen aleman bat, gerra aurretik Arrasatera sarritan etorri ohi zena "Asam" lantegia eta Erdiko kaleko imprimategi bat bisitatzen.³²⁰

Apirilaren hasieran, Otxandiora eramán gintuzten, Olaetara. Etsaiaren metrailak une oso latzak biziarazi

zizkigun. Fronte honetan, Joseba San Pedro desagertu eta Gregorio Belarrain hil zuten.³²¹

Koldo San Sebastianen "Cronicas de postguerra" 1937-1951 liburuan XXXIII eranskinean honela dio:

1937ko apirilaren 5ean, araketako patruila euskaldun batek etsaiaren berebil bat harrapatu zuen Otxandio inguruetan; nazionalitate alemana zuten bi kapitain eta bi teniente zihozzen bertan. Haiak zeramatzaten dokumentuetatik ondorioztatu zen lau atxilotuak Alemaniako abiaziokoak zirela. Preso horiek honako hauek ziren: Karsten Von Harling, eskudrila kapitaina, autoaren gidari zihozana eta Euskal patruilarekin izandako topaketan hilik gertatu zena. Paul Freese, ehiza abiazioko eskudrillako kapitaina.

Dokumentuak, planoak, hegaldi oharrezko koadernoak, eta ekintza egunkaria aurkitu zitzaizen aldean. Dokumentazio horren gehiena alemana zen.

Gertakari hori Nuremberg-eko auzian ere aipatu zen, 2. Mundu Gerraren amaieran.

Gernikako bonbardaketa faxista

Geroago Mundakara joan ginen eta lau edo bost egun egin genituen han, handik gero Berriatura joateko. Handik Gernikako bonbardaketa entzun genuen, Berriatun Sabino-Arana batailoiaaren lekua hartu baikenuen; haiak Sabigainera joan ziren; han gauez posizioak hartu eta egunez galdu egiten zituzten. Galera handiak izan zituzten, bonbardaketek eraginda.

Hegazkinak hirunaka igarotzen ziren gure gainetik, triangeluan, trimotoreak ziren; ez ziren gelditzen; bonben distira ere ikusten genuen eta nora botatzen zituzten ez bagenekien ere berehalaxe jakin genuen zer ari zen gertatzen.

Apirilaren 29an Gernikara jaitsi ginen, ibaiaren bestaldera igaro, eta dena erreta zegoela aurkitu genuen; haragi erre usain hura... Aurpegia estali beharra izaten genuen usainarengatik eta beroarengatik.

Faxistek hori zioten bitartean, nazioarteko prentsa guztiak Gernikako bonbardaketa salatzen zuen... "Le Petit Parisien": Hegazkin alemanek hiru ordu eta erdian jardun zuten, lasai eta erraz emakumeak eta umeak hiltzen... "L'Humanite": Gernika, katolikoetan katolikoena, Atila batzuen mendean jausi da...

Berriro Mundakara joan ginen, triste eta ilun.

Maiatzaren 2an Solluben ginen, non babestu ia lekurik ez genuela, etsaiak berriz trintxera leku egokian babesturik zegoela. Infernua zen hura; inondik azaltzen ginen orduko zauritu egiten gintuzten. Une hartan ekin zion erasoari Joakin Garmendiak, beste batzuk ere atzetik jarraitu genion, eta etsaiak pinudian zeukan lekua uztera behartu genuen. Baina hegazkinen erasoaz gainera faxisten barkuetatik ere tiroka ari zitzaizkigun; han ezin zen ezta burua atera ere.

Julian Leibar, Martin Etxeberria eta Pedro Bolinaga hil zituzten eta Andres Barrutia, Ramon Bidaburu eta Pablo Bolinaga zauritu egin zituzten. Maiatzaren 10ean Bizkargira joan ginen, gure hegazkinak noiz iritsiko zain. (Txuen izeneko Aramaioko batek honela esan ohi zuen: Iritsiko dira gure hegazkinak, geu bonbardatzeko!).

Leku horretan ginela, geure fusilen tiroz hegazkin aleman bat bota genuen; sutan erori zen lurrera.³²²

Hilaren 11n etsaiari eraso genion, eta maiatzaren 15ean berriro ekin genion erasoari. Gu aurrean gindoazen, eta gure atzeguardian Eusko Indarrakoak zetozen. Bonbardaketa hasi zen, eta zelai batean etzan beharra izan genuen. Eusko Indarrako komandanteak galdetzen zigun ea nork agindu zigun erasotzea, itxoiteko agindua baitzegoen. Ez dakigu zergatik izan zen, baina han geratu ziren Alberto Arabaolaza (Itxasondo), Balentin Azkarate eta Juan Eraña (Kaxo); Esteban Altuna zauritu egin zuten, eta gero hil egin zen hartatik. Joakin Garmendia, Joseba Uribetxebarria, Ibañez eta Eguzki (Egunaren korresponentsala Amayurren) ere zauritu egin zituzten.

Jokin Garmendia: Bizkargin nire ondoan eztanda egin zuen abiazioaren bonba batek oso larri zauritu ninduen. Maiatzaren 13an izan zen, San Isidro egunean. Lehenengo Lujuako ospitalera eraman ninduten eta han urgentziatzeko sendaketa bat egin ondoren, Basurtoko Ospitale Zibilera. Hara iritsi eta berehala, ebakuntza egin zidaten. 20 egun igaro zirenean, eta hobetzen ari nintzela ikusirik, Las Arenasera Arteche ospitalera eraman ninduten. Han zegon Luisa Blanco arrasatearra. Hark oso ondo zaintzen ninduen. Ekainaren 15ean, Karrantzako ospitalera eraman ninduten eta, jarraian, Santanderrera Valdecilla ospitalera. Ohean bi hilabetez egon ondoren, zutitzen hasi nintzenean, bertako ospital cantabrora eraman ninduten.³²³

Gero, burdinazko hesitik joan ginen, (baina burdinarena izena besterik ez zuen, oso gaizki zegoen eginda) eta maiatzaren bukaerarako Getxora iritsi ginen, Urkijoren jauregira. Artxandako jauregi batean bilera bat egin zen orduan; Eusko Jaurlaritzako zenbait ministro, enpresariak, eta Eusko Gudarosteko ofizialak zeuden bildurik; eztabaidatu zen Madrildik egindako proposamena, industria guztiak erretzeko. Ez erretzea erabaki zen, jende askok geratu behar izan baitzuen nori jaten eman. Eibarko teniente bat, eta Arrasateko kabu bat (Amayurrekoa) egon ginen guardia egiten.

Ekainaren 17ko ilunabarrean, faxisten beste eraso batek Artxandako kasinoa defenditzen ari ziren euskal batailoi apur nekatuak atzera eragin zituen. Bi aldiz galdu zen egunez eta beste bi bider hartu gauez. Gure batailoia Deustutik zehar erretiratu zen, ibaia txalupazko zubi batetik igaro zuten eta Basurtoko koartelera joan ginen ordu batzuetan atsedean hartzera.

Eguerdi aldea izango zen etsaiaren tiroak Santa Agueda eta Alontsotegi artean errepidera iritsi zirenean; era horretara Bilborekiko komunikazioa moztu egin zen. Kadagua ibaiatz bestaldera igaro eta Somorrostrora San Juan egunez iritsi ginen; agindu ziguten Muskesko San Julianera joateko eta handik Balmasedara, Koltzaren maldetan. Lerroa zuzendu egin zen, eta ia Karrantzako haranetik Galdames zehar Castro Urdiales-eraino iristen zen frontetzat hartu zitekeen. Gu Oriñongo hondartzara bidali gintuzten atsedean hartzera, Castro Urdiales eta Laredo artean.

Uztailaren 14an agindu ziguten Castrora joateko, eta abuztuaren 24an euskal batailoi guztiak Limpias, Laredo eta Santoña bitartean kontzentratzen ari ziren. Gure batailoien komandantea bilera batera joan zen, egun horretan Santoñako dukeen jauregian egin zena, eta borroka modu eraginkor batean aurrera ezin eramana ikusirik, fronte guztiak eroriak zirelako, jakinarazi zitzaion italiarrekin hitzarmen bat izenpetu zela Eusko Gudarostea italiarrei errenditzeko; hitzarmen horren arabera, gure eskuetan genituen herrietan ordena publikoa garantizatu behar genuen, eta haien aldetik garantia guztia ematen ziguten euskal batailoietako ofizialeria eta gudalburuak eta estatu espainoleko lurretatik alde egin nahi zuten pertsona zibil eta gudari guztiek izango zutela nola alde egin, Eusko Gudarosteak Santoñan kontrolatzen zituen ontzietan.

Gure batailoia Laredora joan zen eta abuztuaren

26an armak utzi genituen. Gertakari horren ondoren espetxe eta kontzentrazio zelaietan urte luzeak igaro beharko genituen. Hitzarmena ez zen bete.

Komenigarria izango da gogoratzea, Bizkaiko kanpainak iraun zuen hiru hilabete horietan Euzko Gudarosteak izan zuen arazorik larriena, bataila haren akabera nolakoa izan zen erabakiko zuten bi armada moduetan zeukan desabantaila ikaragarria: artilleria eta abiazioa, alegia. Euzko Gudarostean artilleria osoa 80 piezatik gorakoa ez zen izango martxo horretan; geroztik, 130 edo 140raino ere iritsi zen, baina armada nazionalaren artilleria baino askoz ere urriagoa izan zen beti ere. Antiaererei dagokionez, hala ere, barregarria izan zen kopurua. Horixe izan zen beharbada arazorik larriena: aireko defentsari dagokionez, Euskadi oso egoera txarrean egon zen denbora guztian etsaiaren aldean; esan liteke ia ez zuela defentsarik izan kasu askotan. Eraso hasi zenean Euskadiren abiazio guztiak bi eskudrila besterik ez zituen, kontuan hartzeko modukoak, hogeita hamarren bat hegazkin baino gehiago ez, nolahi ere; eta bonbardatzeko hegazkinik ere, ez zuen batere izan. Horregatik aritu zitzaion Agirre denbora guztian protestan eta eskean Errepublikako Gobernuari.

Borrokan hildako Amayur batailoiko kideak

Altuna Narvaiza Esteban	Bizkargi
Aperribay Oquina Ramón ...	Durango - Frontoian
Arabaolaza Abarrategui Alberto	Durango
Belarrain Larbide Gragorio .	Olaeta - Otxandiano
Bolinaga Arregui Pedr	Sollube
Bolinaga Velar Eugenio	Sollube
Ceciaga Laspiur Gregorio	San Pedro – Orduña
Cortabarría Barrutia Andrés ..	San Pedro – Orduña
Echeverría Herrasti Martín	Sollube
Eraña Múgica Juan	Bizkargi
Fernández Palacio José	San Pedro – Orduña
Galdos Ugalde Telesforo	Durango
Gallastegui Elejalde Maximo	Asturias
Gastañarez Villar Gerardo	Asturias
Inda Loza Vicente	Jarindo

Iturbe Uribe Martín	Asturias
Leibar Uribarri Julian	Sollube
Sagasta Elorza Félix	Asturias
Sampedro Mendia Joseba	Olaeta-Otxandiano
Abarrategui Abarrategui Gregorio	Areces
.....	(Asturias)
Azkarate Balentin	

11.3. Beste batailo batzuk: 184

Lehenago hil: Imanol Gorospe Zabala, Benito Etxebarria Arabaolaza, Pedro Garai Igartua, Lucio Berecibar Galdos. **Itxarkundia:** Gregorio Ceciaga Laspiur, Iñaki Arrieta Arregi, Cristobal Zabaleta Axpe. **Euzko Indarra:** Gabriel Goitia Uralde, Jose Jauregi Pagoaga, Olegario Goitia Uralde, Saturnino Goitia Uralde, Jose Letona Arrieta. **Loyola:** Fermin Garai Etxabe. **Ertzaina:** Marcelo Barrutia Guridi, Pablo Kerexeta Urrutia, Miguel Etxagibel Urizar, Lucio Otaduy Barrutia, Ricardo Gorosabel Etxagibel, Ricardo Gorosabel Amozarrain. **San Andres:** Gregorio Yarza Abalia, **UHP:** Pedro Gallastegui Azpitarte, Higinio Uribechevarria Uribechevarria “Narru”, Ignacio Ormazabal Arregui eta Juanito Mancebo. **Batallon nº 8 de Ingenieros:** Eustasio Markaide Larrañaga. **Kirikiño:** Gabino Yarza Abalia, Elias Uribe Arregui, Luis Badiola Gastañaga, Felix Garai Igartua, Jesus Kortabarria Lasarguren, Raimundo Etxebarria “Troko”. Hiru azken hauek Pedro Zubizarreta eta Eugenio Guridi Belategui “Munar”rekin batera, **Sukarrieta** Batailoian eman zuten izena 1937ko ekainean. **Zabalbide:** Lucio Urionabarrenechea Aguirre. **Padura:** Andres Garate Umerez, Komisarioa. Euzkadi egunkariko kronikagilea. **Sukarrieta:** Pablo Arizabaleta Zabaleta. **Araba:** Imanol Ormaetxea, **Batallon nº 2 de Ingenieros:** Francisco Vitoria Errasti, Juan Juaristi Unamuno, Jesus Errasti Uribe, Eusebio Arregi Lizarralde, Jesus Leibar Guridi eta Angel Labajos Salvadores. **Rusia:** Isidro Gomez Ortiz de Urbina. Juan Madinabeitia Zuazubiscar, Antonio Urrejola Errekalde **Irrintzi:** Jose Cortabarria Larzarguren, **Saseta:** Manuel Arizaga, Candido Garay Uribesalgo, **Aralar:** Angel Galdos Elorza eta Pedro Mendizabal Ceciaga. **Baracaldo, Izquierda Republicana:** Julio Goronaeta Mendizabal, UGTko Laugarrena; Felipe Murgoitio Madariaga. **Gogorki Zapadorean:**

Lucio Murgoitio Madariaga. Lorenzo Aguirregomezkorta Etxebarria, UGT. Katalunian: Komisarioa. Ignacio Aranzabal Cacedo. Alderdi Sozialista, UGT. Euskadin: Garraio-sarjentua. Katalunian: **Disziplina Batailoiko Soldadua**: José Luis Ezkurra Areitio, Katalunian: Karabineroa. Rafael García Fernández, Alderdi Sozialista. UGT. Katalunian: Soldadua. José Gimeno París, UGT. Euskadin: Gudaria. Katalunian: karabineroen Sarjentua. Amadeo Labajos Salvadores, Ezker Errepublikarra. Katalunia: Praktikantea. Luis Tarrasa Elorza, STV. Katalunian: Espetxeetako Ofiziala. Jesús Trincado Baños, JSU. Euskadin: Tenientea. Katalunian: Tenientea. Vicente Uranga Mendizabal, UGT. Katalunian: Karabineroa. Saturnino Vitoria Zabarte, JSU. Euskadin: **48 Dibisioko soldadua**. Katalunian: soldadua. Francisco Zabaleta Axpe, UGT. Katalunian: Soldadua. Jose Zuazua Mondragón, UGT. Katalunian: Sanitarioa. Pedro Zubia Eibar, Ezker Errepublikarra. UGT. Katalunian: STE gidaria. Ignacio Zugazubiskar Arrizabalaga, EAJ. Katalunian: **142 Brigada mixta Vasco-Pirenaicako** soldadua. Ignacio Olazabal Larreategui eta Guillermo Juldain Sainz, euskal milizietan. Jose Inda Herrasti. Zapadoreak Vicente Vallona Anzuategui, Saturnino Abarrategui Arkauz.

Salustiano Marichalar Echevarria, eta Miguel Goicoechea Tolosa, mikeleteak; José Luis Ezcurra Areitio, karabineroa; Faustino Andrés González, Fernando Uribesalgo Icaran, Leandro Ibañez Axpe, Jesús Inda González, José Álvarez Eizaguirre, ANV; Rogelio Izarra Ijalba, Hilario Ramos Gamazo, JSU; Ángel Balenciaga Goñi, Jesús Herrera González, Agustín Abarrategui Arcauz, Jose Ortuoste Leturia, PSE, gudariak; Luis Mendizabal Altube, Angel Ruiz Legarreta, ANV, artilerokoak; Aralar Batailoia, José Uriarte Ceberio, komandantea; Amadeo Labajos Salvador, praktikantea.

Emakume hauek berriz miliziano ibili ziren, Catalina Vega, Oliva Herrera, Eladia Urbietta, Mercedes Jauregi, Esperanza Sagasta, Marcela Arabolaza, Merina Iza, Hipolita Baranda, Luisa Galdos, Maria Querejeta, Presentacion Rodriguez, Felisa Arcauz, Tomasa eta Maria Angeles Olazagoitia Garcia Batailoiekin zerikusia zuten hainbat lan egiten aritu ziren: Intendentzia, Sukaldari, erizain, miliziana, eta abar. Juana Barrutia Mugica Jose Antonio Agirrerren idazkaria izan zen Eusko Jaurlaritzan.³²⁴

43 arrasatearrek hartu zuten parte Arrasateko eta Elorrioko zaintza zerbitzuan gehienak armekin. Ezker Errepublikarra, UGT, STV, JSU eta ANVko militanteak ziren: Trinitario Azconaga Arana, Ezker Errepublikarra, IR, Juan Vega Alvarez, quinto. IR, Cecilio Garro Arriola, IR, Jose Acha Iturbe, IR, Agapito Arana Velar quinto, STV, Lorenzo Abarrategui Cortabarria, IR, Victor Elorza Heriz, UGT, Damaso Orobengoa Garro, UGT, Julian Altuna Beitia, IR, Francisco Zuazua Mondragon, UGT, Eugenio Andonegui Arrillaga, UGT, Eugenio Larreategui Garay, UGT, Angel Balzategui Iregui, UGT, Rafael Elizburu Guruceta, UGT, Tomas Sanchez Cuadrado, UGT, Martin Unamuno Jauregui, ANV, Cabo vigilante, Jose Zaldúa Beitia, STV, Tomas Uranga Urrutia, UGT, Eduardo Olazagoitia Ceciaga, IR, Pedro Uranga Urrutia, UGT, Roman Echevarria Altuna, IR, Cabo vigilante, Demetrio Garcia Lumbreras. UGT, Gabino Aranburu Cano. UGT, Juan Arana Iburguen, IR, Felix Herrera Aguirrebeitia, UGT, Cabo vigilante, Francisco Uranga Balanzategui, IR, Gregorio Gorosabel Amozarrain, UGT, Cabo vigilante, Segundo Azcoaga Leibar, IR, Cabo vigilante, Santiago Garcia Garcia, IR, Francisco Rodriguez Rodriguez, JSU, Salvador Rodriguez Rodriguez, UGT, Manuel Aguirre Elorza, UGT, Prudencio Bengoa Arregui, IR, Damian Uribesalgo Balanzategui, IR, Carlos Andres Carmona, UGT, Benito Uriarte Martinez, IR, Toribio Elorza Heriz, UGT, Pablo Gonzalez Gonzalez, JSU, Juan Eguidon Eguidon, UGT, Ricardo Lizarralde Otaduy, UGT, Gregorio Azconaga Arana, UGT, Andres Maizategui Macazaga, STV

EAJko 25 gudariak, haien batailoia ez dugu aurkitu

Ramon Gorosabel, Alejandro Urrutia Arregui, Feliciano Aranzabal Laspiur, Fortunato Bedia Arregui, Modesto Leibar Balanzategui, Eustaquio Guridi, Vicente Barrutia Sologaistoa, Domingo Martiartu,³²⁵ Domingo Querejeta Urrutia, Pablo Ceciaga Laspiur, Pedro Garay, Francisco Mendizabal, Gregorio Uranga, Ignacio Gorostiza, Pablo Echevarria Larrañaga, Francisco Unamuno Ladreda, Perico Uribechevarria Arenaza, Pablo Jauregui Echave, Juan Iraola, Felipe Yarza Abalia, Gregorio Arregui, Fortunato Ceciaga Laspiur, Andres Cortabarria, Paulo Echevarria Herrasti.³²⁶

Gabriel Goitia, ANVren 1. batailoiko eta 2. brigadako komandantea.

ANVren lehen batailoia 1936ko urrian sortu zen. Begoñatik Bilborako bidean dagoen Adoratzaielen komentua hartu zuen kuarteltzat. Batailoia atera zen lehenengo aldiz azaroaren 26an Legutioko frontera joateko. Azaroaren 29an, Legutioko pinudiko batailan esku hartu genuen eta baja asko izan genuen, 150 inguru.

Handik Asturiasera bidali ninduten Euzko Indarra batailoia kargu egitera, batailoia komandantea frontean zauritu zutelako. Iritsi nintzenerako frontea jarrita zegoen, Nalón ibaia zeharkatu eta hurrengo egunean jarri zuten. Ibaia gabarretan zeharkatu behar izan zuten. Etsaia ibaiaren beste aldean zegoen eta baja asko izan genituen. Bitartean, Euzko Indarraren zultzaileen batailoiak zubi bat eraiki zuen. Isidro Olaizola arduratu zen zubia eraikitzeaz, eta horretarako hainbat ordu behar izan zituen.

Bizkaiaren kontrako ofentsiba hasi zenean ebakuatu egin genuen. Gorbeiatik Kanpanzarko frontera jaitsi eta handik Anbotoko haitzen behe aldera joan ginen posizioak hartzera. Han, antolaketa faltarengatik, baja asko izan genituen.

Atzera egin genuen, Durangora eta han zauritu egin ninduten. Gure batailoia San Pedrora, Orduñara, bidali zuten. Fronte horretan hil zuten Egurrola kapitaina, zaurituta nengoela ni ordezkatzera joana.

Batailoia Castroren sektorera joan zenean, 2. Brigadaren buru izendatu ninduten. Lau batailoik borrokatu zuten han: Capitán Casero, Carlos Marx, Otxandiano eta Castilla.

Batailoia Castroren sektorera joan zenean, 2. Brigadaren buru izendatu ninduten. Lau batailoik borrokatu zuten han: Capitán Casero, Carlos Marx, Otxandiano eta Castilla. Etsaiak Escudo mendateari egin zion eraso eta guk nahiko ondo egin genien aurre.

Galtzean, Luis Ruiz de Aguirre nire bila etorri zen, eta esan zidan agindua zegoela euskal batailoik guztiak Santoñara joateko. Santoñara iristean, Defentsa Batzorde antzeko baten sartu nintzen. Bi itsasontzi ingeles zeuden Santoñan. Hirugarren bat iritsi zen eta han zetozen Jose Maria de Leizaola eta Gonzalo Nardiz. Gonzalok ontziratu behar nuenaren abisua zekarren niretzat. Itsasontzira igo behar nuen momentuan, nire anai zaharrena Olegario agertu zen. Euzko Indarra Batailoiko

komandante intendentea zen. Emaztea eta hiru seme-alabak Frantzia zituen. Nire ordeztasontzira berak igotzea proposatu nion, baina ez zitoten utzi. Donibane Lohitzunen lehorreratu ginen.³²⁷

Gerran hildako erresistente gehiago: 16

Juan Jose Rodriguez Rodriguez. JSUko militantea, Juan Jose Rodriguez Rodriguez. JSUko militantea. 23 urteko soldadua. Tiroka erail zuten 1936ko abuztuaren 12an. Gasteizko Santa Isabel hilerrian lurperatua.

Rufino Ormaetxea Ibarrondo. UGTko militantea. 29 urte. Faustina Aranbururekin ezkondua. Etxarri-Aranatzen erail zuten 1936ko irailaren 4an. Heriotza agirian agertzen da gerraren gorabeheren ondorioz hil zela.³²⁸

Eugenio Guridi Belategui, "Munar". 19 urte. Kiriñoko batailoiko kidea. Munar baserria

Higinio Uribechevarria Uribechevarria. "Narru". 42 urte. Eibarren. UHPko kidea

Eugenio Larreategui Garay. 41 urte. Asturiasen. Gosamendi baserria

Luis Arrieta Echevarria "Piston". 27 urte. Madrilen. Gazteluondo

Anastasio Garcia Lumbreras, 22 urte. Santanderren. Casa Hierro

Rogelio Garcia Lumbreras, 25 urte. Gijonen eraila.

Felipe Garcia Lumbreras, 32 urte. Gijonen eraila

Máximo Bolinaga Ormaechea. 37 urte. Canariasen, kontzentrazio esparruan. Arrabal 14 zk.

Domingo Garro Altube. 68 urte. Cerveran, Katalunian. 1939ko urtarrilaren 14an, metrailaz. Catalina Albistegi Lecetarekin ezkondua. Alaba bat Estefania.³²⁹

Cándido Garay Uribesalgo. 25 urte. Saseta batailoiko, hila Santanderren. Erdiko kale 54.³³⁰

Ignacio Ormazabal Arregui. 27 urte. UHPko militantea. Eibarren 1937ko apirilaren 22an.

Isidro Gomez Ortiz de Urbina. 24 urte. Rusia. Otxandion, 1937 apirilaren 4an.

Juan Madinabeitia Zuazubiscar. 23 urte. Otxandion, 1936ko abenduaren 4an.

Isidro Monge Alonso, UGTkoa, desagertua.

Beste hildako bi:

Andres Zabaleta Ormazabal. 50 urte. Garagartza auzokoa. Amorebietan, 1937ko apirilaren 2an. Metrailaz. Maria Concepcion Abarrategui Azkoagarekin ezkondua.³³¹ Jose Murua Querejeta. 35 urte. Erdiko kale 42. San Martin de Levezen, Valderrediblen, 1937ko abuztuaren 25ean. Borrokan suzko amek eragindako zaurien ondorioz hila. Purificacion Diazekin ezkondua.³³²

11.4. Arrasate aldean hildako gudari eta milizianoak

Arrasateko frontea hasten zen Anporreta aurrean San Miguel ermitan, jarraitzen zuen Kanpazar, Udaltx, Udala, Karraskain, Murugain, Untzilla eta Asensiomendiraino.

Guztira 128 dira Arrasate aldean faxismoaren kontrako borrokan hildakoak: 27 Dragones batailoikoak, 11 Azaña batailoikoak, 10 Octubre batailoikoak, 8 Celta batailoikoak, 7 Malatesta batailoikoak, eta abar.

Hona hemen Arrasate aldean borrokan erresistente gehien hil zituzten lekuak eta datak: 1936ko irailaren 24tik 36ra, faxistak Arrasaten sartu aurretik 10 miliziano hil zituzten. 1936ko urriaren 4an Kanpazarren faxisten ofentsiba garaitu zenean, 15 miliziano. 1937ko martxoaren 31an eta apirilaren 1ean, Murugain eta Asensiomendin, 43 miliziano. Apirilaren 20tik 24ra, Udala eta Kanpazarren 26 miliziano.

Clara Moran Miguel. Gallarta. 19 urte. 1936ko urriaren 4an Kanpazarren.

Anacleto Aranguren Armendariz. Beriain. 1937ko apirilaren 20an Kanpazarren. Dragones batailoikoa.

Martin Ayala de la Parte. 20 urte. Tolosa. 1937ko apirilaren 22an, Udalan. Celta batailoia.

Andres Briongos Molero. 37 urte. 1937ko apirilaren 22an Dos Caminosen. Celta batailoia.

Eugenio Bolinaga Velar, Arrasate, uztaila 29an. Dragones batailoikoa.

Jesus Fernandez Porras. 18 urte. Bilbo. 1937ko martxoaren 20an, Kanpazarren. Larrañaga batailoia.

Jose Antonio Garcia Fernandez. 19 urte. Barakaldo. 1937ko apirilaren 25ean. UGT 3.

Fabian Lopez Gallego. 24 urte. Beasain. 1937ko martxoaren 3an, Udalan. Malatesta batailoia.

Mario Lorenzo Vega. 33 urte. San S. del Valle. Ezkondua. 1937ko apirilak 2. Malatesta batailoia.

Roque Gutierrez Peña. 36 urte. Bilbo. 1937ko martxoaren 15ean, Udalan. Malatesta batailoia.


Miguel Iburguren Berrosteguieta. 25 urte. Donostia. 1937ko apirilaren 23an, Elorrion. UGT.

Jose Ignacio Iraundegui Ibarra. 27 urte. Donostia. 1937ko apirilak 24an, Kanpazarren. UGT 3

Francisco Gonzalez Arevalo. 25 urte. Gasteiz. 1936ko urriaren 8an, Kanpazarren. Dragones batailoia.

Agustin Orbegoza Larrumbide. 36 urte. Donostia. 1937ko apirilaren 20an, Kanpazarren. UHP

Osambela Muneta. 42 urte. Miravalles, (Etxauri, Nafarroa). 1937ko apirilaren 20an, Kanpazarren.



Clara Moranen heriotzaren ziurtagiria

Dragones batailoa.

Miguel Perez Fernandez. 31 urte. Laredo. 1937ko apirilaren 17an, Kanpanzarren. Larrañaga batailoia.

Mariano Ruiz Azcarate. 18 urte. Bilbo. 1937ko apirilaren 23an, Kanpanzarren. UHP

Jacinto Sabardo Calzada. 28 urte. Miranda de Ebro. 1937ko apirilaren 23an, Kanpanzarren. UHP.

Lazaro Sota Ruiz. 30 urte. Sestao. 1937ko martxoaren 3an, Udalan. Malatesta batailoia.

Jaime Teles Camara. 31 urte. Bilbo. 1937ko apirilaren 22an, Udalan. Celta batailoia.

Leandro Tellechea Garcia. 28 urte. San Julian Musques. 1937ko irailaren 19an, Udalan. Celta batailoia.

Francisco Urondo Escurechea. 17 urte. Donostia. 1937ko otsailaren 22an, Udalan. Maoc batailoia.

Emeterio Zenon Gonzalez. 24 urte. Somorostro. 1936ko urriaren 13an, Kanpanzarren. Rosa Luxemburgo batailoia.

Jose Maria Aguirre Fernandez. Bilbo. 1937ko apirilaren 24an, Udalan. Celta batailoia.

Marcelino Alaiz Mayordomo. 1937ko maiatzaren 24an, Udalan. Celta batailoia.

Delfin Alvarez Rodriguez. 23 urte. 1937ko apirilaren 16an, Kanpanzarren. Asturias 2 zk. batailoia.

Marino Amurrio Martinez. 33 urte. Gasteiz. 1937ko apirilaren 22an, Udalan. Celta batailoia.

Jose Ayerza Orbegozo. Hernani. 1937ko apirilaren 20an, Kanpanzarren. Dragones batailoia.

Esteban Azkueta Elezcano. 26 urte. Galdakao. 1937ko martxoaren 25ean, Kanpanzarren. Kirikiño batailoia.

Domingo Barral Campos. 35 urte. 1937ko apirilaren 22an, Udalan.

Andres Briongos Basauri. 35 urte. 1937ko apirilaren 22an, Udalan.

Angel Sauquillo Etxebarria. 20 urte. Aretxabaleta. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren. Dragones batailoia.

Obdulio Rodriguez Lentijo. 22 urte. Aretxabaleta.

1936ko irailaren 25ean, Kanpanzarren. Dragones batailoia.

Jose Bengoa Gondra. 23 urte. Aretxabaleta. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren. Dragones batailoia.

Vicente Aranbarri Villa. 33 urte. Aretxabaleta. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren. Dragones batailoia.

Francisco Echevarria Bizcarguenaga. 21 urte. Arrasate. 1936ko irailaren 26an, Kanpanzarren. Dragones batailoia.

Gregorio Gonzalez Rubio. Arrasate. 1936ko urriaren, Kanpanzarren. 1936ko urriaren. Dragones batailoia.

Blas Unamuno Amutxastegi. Bergara. 1937ko apirilaren 24an, Kanpanzarren. UHP

Eduardo Diaz Lobato. 25 urte. Torron. 1937ko apirilaren 22an, Udalan. Celta batailoia.

Victor Elorriaga Jauregui. 21 urte. Erandio. 1937ko apirilaren 30ean, Kanpanzarren.

Fernando Escudero. 22 urte. Donostia. 1937ko apirilaren 23an, Udalan.

Emiliano Fernandez Rodriguez. 20 urte. 1937ko apirilaren 22an, Udalan.

Jose Fernandez Sieira. 27 urte. Cabo de la Cruz. 1937ko apirilaren 22an, Udalan.

Manuel Villasonal Castineiras. Santiago. 1937ko apirilaren 25ean, Kanpanzarren.

Juan Etxezarraga Bilbao. Eibar. 1937ko otsailaren 22an, Kanpanzarren. Saseta batailoia.

Vicente Catediano Fernandez. Logroño. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren. UHP.

Jose Echarri Illarreta. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren.

Felix Alvarez Suso. Hernani. 17 urte. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren. Dragones batailoia.

Luis Arechabaleta Eguia Gordejuela. 22 urte. 1936ko abenduaren 15ean, Kanpanzarren

Antonio Azpiroz Arrati. 33 urte. Aia. 1936ko irailaren 25ean, Kanpanzarren.

Luciano de la Rosa Martinez. Pasaia. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren.

Angel Gamboa Zuazo. 25 urte. Bilbo. 1936ko

azaroaren 4an, Kanpanzarren.

Juan Gomez Bajo. 27 urte. Sodupe. 1937ko apirilaren 22an, Kanpanzarren. UGT3.

Luis Hernandez Puentes. 29 urte. Donostia. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren.

Sabin Isusi Petralanda. 24 urte. Etxano Amorebieta. 1936ko azaroaren 11an, Kanpanzarren. Milicias Vascas.

Mariano Lacarra Virto. 27 urte. Bilbo. 1937ko martxoaren 17an, Kanpanzarren. Euzko Gudaroztea.

Clemente Llorente Velasco. 36 urte. Getxo. 1936ko irailaren 26an, Kanpanzarren.

Ezequiel Ortigosa Cadenilla. 23 urte. Nafarroa. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren.

Ignacio Oyarzabal Olano. 38 urte. Olabarria. 1936ko urriaren 4an, Kanpanzarren.

Jacinto Sabando Calzada. 23 urte. Miranda de Ebro. 1924ko apirilaren 23an Kanpanzarren. UHP.

Pedro Santillan Malquerrain. 24 urte. Getxo. Artilleriako tenientea. Kanpanzarren.

Justo Cerrada Garcia, 27 urte. Erandio. 1937ko apirilaren 1ean, Udalan. Malatesta batailoia

Fabian Lopez Gallego. 24 urte. Beasain. 1937ko martxoaren 3an, Udalan. Malatesta batailoia.

Aniceto Fernandez Ochoa. 38 urte. 1937ko apirilaren 29an, Udalan. Malatesta batailoia.

Jose Minguez Banganaler. 22 urte. Donostia. 1936ko abenduaren 1ean, Udalan.

Valentin Odriozola Ogara. 23 urte. Durango. 1936ko abenduaren 31n, Udalan.

Gerardo Peso Nestares. 33 urte. Donostia. 1937ko otsailaren 3an, Udalan.

Antonio Zumelaga Iraola. 1937ko urtarrilaren 23an, Udalan. Malatesta batailoia.

Francisco Garcia Gutierrez. 27 urte, Bilbao, 22/04/37, CNT 4, Karraskain

Eladio Negro Rodriguez, 35 urte. 1937ko apirilaren 6an, Karraskainen. CNT 4

Jacinto Uribarri Armendariz. 23 urte. Dos Caminos, Artajona. 1937ko apirilaren 6an, Karraskainen. CNT4

Francisco Alvarez Garagarza. 22 urte. La Habana (Kuba). 1936ko irailaren 26an, Arrasaten. MAOC 1

Angel Iglesias Santos. 42 ute. Bilbo. 1936ko irailaren 26an, Arrasaten.

Antonio Martinez Mason 20 urte. Sestao. 1936ko irailaren 28an, Arrasaten. Bakunin batailoia.

Celedonio Murua Contrasta. 30 urte. Donostia. 1936ko irailaren 24an, Aretxabaletan. Dragones batailoia.

Pedro Ruiz de Alegria Balanzategi. 29 urte. Arrasate. 1936ko irailaren 24an, Aretxabaletan. Dragones batailoia.

Raul Ortiz de Urbina. Arrasate.

Vitorico Tellechea Iturralde. 20 urte. 1936ko irailaren 25ean, Arrasaten. Bilboko Garellano batailoia.

José María Etxebarrieta Urbistondo. Aretxabaleta. 1937ko apirilaren 1ean, Murugainen. Dragones batailoia.

Francisco Holgado Mateos. 20 urte. Beasain. 1937ko apirilaren 1ean, Aramaion. Dragones batailoia.

Juan Mariño Pérez. Dragones batailoia.

Victor Carlos Uzquiano Ruiz. 26 urte. Bilbo. 1937ko apirilaren 31an, Aramaion. Dragones batailoia.

Antonio Dominguez Gutierrez. Arrasate. 1937ko apirilaren 5ean, Untzillan. Dragones batailoia.

Jose Becerra Aizpurua. 19 urte. Donostia. 1937ko apirilaren 31an, Murugainen. Dragones batailoia.

Jose Luis Torre Echevarria. 23 urte. Bilbo. 1937ko apirilaren 31an, Aramaion. Dragones batailoia.

Jose Lopez Villanueva. 24 urte. Galdames. 1937ko apirilaren 31an, Aramaion. Dragones batailoia.

José Carasa Camacho. 36 urte. Castro Urdiales. 1937ko apirilaren 1ean, Aramaion. Dragones batailoia.

Miguel Zubia Zumelaga. 23 urte. Arrasate. 1937ko apirilaren 31n, Murugainen. Dragones batailoia.

Jose Anton Rodriguez. Bilbo. Asensiomendin hil zuten. Azaña batailoia.

Angel Corres Guinea. 19 urte. Dos Caminos. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Celedonio Garcia Alonso. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Marcelino Gracia Alonso. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Rafael Oliveros Lastra, . 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Ceferino Perez Saavedra. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Domingo Romero Moreno. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Ricardo Uriarte Monge. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Candido Yeboles Quiroga. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Angel Bolumburu Aztorquiza. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Felix Munuaurren San Juan. 1937ko apirilaren leian, Asensiomendin. Azaña batailoia.

Juan Cruz de las Heras Perez. Abanto y Ciervana. 1937ko apirilaren 4an, Aramaion. UGT1

Vicente Velasco Ribacoba, Valle de Mena. 26 urte. 1936ko apirilaren 20an, Aramaion. Octubre batailoia.

Sebastian Seoane Macias. 33 urte. Balmaseda. 1937ko apirilaren leian, Aramaion. Octubre batailoia.

Benito Gordon Villamon. 34 urte. Valle de Mena. 1937ko apirilaren 31an, Aramaion, Octubre batailoia.

Jose Hierro Llano, 40 urte. Villasena de Mena. 1937ko apirilaren 31an, Aramaion, Octubre batai-

loia.

Candido Angulo Angulo. Aramaion hil zuten. Octubre batailoia.

Vicente Aguinaco Escalante, Balmaseda, 17 urte, 31/04/1937, Aramaiona, Octubre

Ignacio Cubillos Lopez, Vivancos, 29 urte, 31/04/1937, Aramaiona Octubre

Dimas Gutiérrez Arsuaga, Balmaseda, 20 urte, 31/04/1937, Aramaiona, Octubre

Felix Cordero Bodego. Santecilla de Mena, 27 urte, 31/04/1937, Aramaiona Octubre

Felipe Arregui Larisgoitia, Miravalles, 19 urte, Mariano Crespo Sotres, Aramaiona, Meabe nº1

Agustin Solas Rivas. Castro Urdiales, 21 urte, 02/04/1937, Aramaiona, Meabe nº1

Venancio Barquin Ruiz. San Salvador del Valle, 26 urte, 03/04/1937, Meabe nº1 Aramaiona

Jose Eusebio Azcueta Elezcano, Gatica, 29 urte, 04/04/1937, Aramaiona, Mateos.

Eduardo Blanco Ramos, Erandio, 20 urte, 04/04/1937, Aramaiona, Mateos

Marcelino Mateos Blanco, Ortuella, 18 urte, 04/04/1937, Aramaiona, Mateos

Estalisnao Ramila San Roman,

Ramon Vivanco Llarena,

Eulogio Baranda Lopez, Campillo de Mena, 24 urte, 31/04/1937, Octubre

Amador Casado Arimo,

Felix Cordero Bodega,

Raimundo Sánchez Mellido

Juan Jose Domingo Busto, 05/04/1937, Aramaiona

Juan Fernandez Otaola, 05/04/1937, Aramaiona

12. Errugabeak hiltzen

ERRUDUNAK behar zituzten, nahiz eta gehienetan *ERRUGABEAK* izan heuren *JUSTIZIA* egiteko. Dokumentatutako lehenengo bi erailketak bi baserritarrenak dira. Cesario Aginagalde Lezeta eta Manuel Elorza Lupierro; Untzilla auzokoak ziren, eta erahil zituzten Legargainen, ibiltzeko baimenik ez izateagatik.

Horren ondoren, 28 zibil erail zituzten Hernanin eta Oiartzunen.

Urriaren 21ean Ondarretan, ziegetatik atera zituzten, eta esan zieten libre geratzen zirela, dokumentu bat sinarazi zieten; handik irteteen kamioitxo bat topatu zuten; haren aurrean jesuita batek, Lacoumek, konfesatzen zituen. Hernaniko kanposantu inguruan, kamioitik jaitsi eta ostikada eta kulatazo tartean kanposantu aterainoko azkeneko metroak eginarazi zituzten; hantxe fusilatu zituzten; besteen artean, Bizente Madina, Norberto Mondragon, Isidoro Iturbe, Raimundo Galdos, Lorenzo Aranbarri, Juan Bengoa, Benanzio Gastañarez, Migel Gastañarez eta Pedro Agiriano arrasatearrak. Denak nazionalistak ziren, eta gehienak EAJko afiliatuak. Harrez gero, 9 pertsona daude desagerturik. Senideek inoiz ere ez dituzte berreskuratu haien gorpuak.

Hilaren 21 horretan bertan, Arin erretore jauna, eta Jose Markiegi eta Leonardo Guridi apaizak Ondarretako kartzelara eramane zituzten. Victor Bastidak eramane zituen auto txiki batean. Sinarazi zieten hiru horiek eta Joseba Zeziaga, lehenago eramane baina 21ean fusilatu ez zutena, libre uzten zituztela. Oiartzuna eramane zituzten, eta kanposantu

barrenean tiro eman zieten buruan atzetik. Urriaren 25etik 26ra bitarteko gaua zen. Gero, fusilamendu pelotoiaren agintari zegoen kapitainak errematea eman zien (hiru apaizak apaiz jantzita zeuden).

Azaroaren 2an Arrasateko beste preso talde bat, oraingo honetan 14 guztira, kamioi batera igoarazi zituzten udaletxeko espetxetik; bien bitartean ahizpa margarita batzuk oihuka ari zitzaizkien *ez ezazue galdu gasolarik alferrik, hil itzazue hementxe bertan*. Horiek ere *libre utzi zituzten*; autobus batean Oiartzungo beheko plazara eramane zituzten. Azaroaren 5etik 6rako gaua zen. Hiru emakume ere bai, bat haurdun 5 hilebetakoa:

Florencia Olazagoitia Ceciaga, Maria Areitio Arana, Francisca Ojanguren Iribecampos, Vicente Irazola Urrutia, Dionisio Uribealgo Otadui, Manuel Madinabeitia Zubizarreta, Agustín Aramburu Zabaleta, Gregorio Sampedro Azpiazu, Jose Antonio Urionabarrenetxea Isasmendi, Luis Balanzategi Zulueta, Marcelino Ugalde Landa, Sabin Etxabe Guruzeta, Faustino Garitano Askazibar, Felix Elorza Olalde. Maria, Florentzia eta Frantziska militante sozialisten ama, arreba eta emaztea ziren. Kasu horretan familiar-tekoak hiltzeko egin zuten mehatxua bete egin zuten. Gainerakoak nazionalistak ziren.

Egun bat geroago, azaroaren 11an, Paula Mugika Arregi erail zuten. Hau ere, Oiartzunen.

Ihes legea

Irailaren 30a edo izango zen; Manuel Elorza *Txakur*, Untzillako Untzillena baserrikoa, Arrasatera



Ihesi legea, horma honen ondoan hil zituzten.

etorri zen, errementariarenean golde nabarra aldatzera. Gutxien uste zuela, ibiltzeko salbokonduktua eskatu zioten; eta halakorik ez zuenez, ez zioten utzi aurrera joaten. Handik gutxira, Arrasateko ibilbidean, Zesario Aginagalde topatu zuen, Centro Obrero Katolikora zihoala; Manuelek gertatua kontatu zionean, Zesariok bizikletan ibiltzeko zeukan “ibiltzeko baimena” utzi zion (Aretxabaletan egiten baitzuen lana). Manuelek, beraz, “ibiltzeko baimen” hori harturik, kontrol aldera jo zuen berriro. Kontrolera iritsirik, “ibiltzeko baimen” hura bizikletan ibiltzeko zela ikusi zuten soldaduek, eta Manuel asto batekin zihoan. Horregatik atxilo eraman zuten.

Geroxeago, Guardia Zibilak eta Erreketeak, Casa Bolero ostatura azaldu ziren, han baitzegoen ostatuz Zesario, Aramaioarra izaki. Bere berri galdetu zuten, eta han ez zegoela ikusirik kalera irten zuten haren bila. Atxilotu, eta udaletxeko espetxera eraman zuten. Biharamunean, Casa Bolero ostatuko jabea, espetxera joan zitzaion, Zesariori koltxoi bat eramateko; baina ez zioten bisitatzen utzi. Zaintzen zutenek, ihesi legea ezarri behar zietela deliberaturik, “libre” utzi zituzten, eta Bergarara joan zitezela agindu. Legarreko kontrolera hurbildu zirenean, Manuel eta Zesarioren kontra tiro egiteko agindua eman zieten soldaduei. Soldaduek hasieran ez zituzten agindu haiek bete nahi izan (Zesario ezaguna baitzuten); baina tiro egitera behartu zituzten agintariek, bestela beraiek hilko zituztela mehatxatu zituzten.

Manuel eta Zesarioren gorpuk hil zituzten leku berean geratu ziren bi egunez. Jendeak ikusi eta eskarmentu hartu zezan, esaten zuten. Handik ge-

rozтик hantxe bertan hilobiratu zituzten, zulo batean. Eta han geratu ziren gorpuk, harik eta handik urte batzuetara Legarren maisuen etxeak egiterakoan atera zituzten arte.

Geroztik militarrek mitin bat antolatu zuten zinema areto batean; esan zuten ez zirela etorri errebantxa hartzera. Batzuek, Manuel eta Zesariori gertatua ikusi arren, “hemen ez da besterik gertatuko” pentsatu bide zuten. Herriko karlistak, ordea, buruzagietako batzuk Gasteiztik itzuliak ziren berriro (uztailaren 21ean Arrasateetik ihes egin zuten 40etatik batzuk Arrasate erortzean sartu ziren berriro) ez zeuden konforme ezer egin gabe egoteko. Arrasatearren zerrenda luze bat zuten prestatua bakoitzaren ondoan *jendilajea* hitza jarririk. Urriaren lehen egunetan 8 arrasatear atxilotu zituzten, eta Gasteiza eraman. EAJren propaganda egitea salatu zieten; haietako bat, Hipolito Uriarte, beste bat, Pablo Zumelaga eta azkenik, Felix Zulueta, Arrasateko Gazteria Katolikoaren lehendakariorde izana, espetxean gaixotu eta hil aurretikoan libre utzi zuten.

Gero, Arrasateko lantegi handienetako zuzendaritzek, Unión Cerrajera, Elma eta Roneo, dei bat egin zieten ezkutaturik zeuden guztiei, lanera azaldu zitezela, bestela lanpostuak galduko zituztela eta. Batzuek haiek agindu bezala egin zuten, eta atxilotu egin zituzten, eta militarrek deklarazioa hartu zieten. Beren berriz iritziak ukatzen ez zituzten guztiei, txapel gorria jantzi eta aukera ematen zieten erreketean artean izena emateko. Batzuek onartu egin zuten. Hori egin nahi izan ez zutenak errepresioaren mendean geratu ziren.

Urriaren 5ean bi dozena arrasatear zeuden udaletxeko espetxean atxiloturik. Urriaren 9an libre utzi zituzten.

Lehen Batzorde Gestorea

Urriaren 8an udaletxearen Batzorde Gestorea eratu zen; Jose Anibarro Resusta izendatu zuten alkate. Pozarren hartu zuen kargu berri hori; esan zuenez: *Espainiako armada askatzaile gloriakoaren ordezkari jatorrena den agintaritzaren militarren akordioz, Udaleko Gestio Batzordearen gainerako bokalak izendatzea erabaki da*. Nicasio González Etxebarria, Eugenio Ugarte Guridi, Felix Berga Garro izan ziren bokal horiek; aditzera eman zutenenez *gustura*

onartu zituzten karguak, eta pozez adierazi atxikimendua Espainia berria, Espainia handi eta ondratua, Espainia bakar eta hautsiezinarekin, eta Espainiako Armada sufrituarekin, haren ordezkari dena eta Espainia guztia marxisten samalden eskuetatik askatzen ari dena

Gestio Batzorde horrek erabaki bakar bat hartu zuen urriaren 13an. Erabaki zuten hilerrian “udal hilerria” zioen plaka kentzea eta azpian zeukan lehenagoko latinezko inskripzioa agerian uztea.

*Jose Añibarro, alkatea, oso ondo portatu zen. Arroyo komandantea ere ez zen kriminal bat, baina batzorde karlista ez zegoen harekin pozik.*³³³

*Pasau zien militarrek, hareikin karlistak eta reketiek, eta hareikin pasau zaniengatik, Urraca Pastor-ek esan auen: ¡Egin ulu Viva España! Eta justu karlista konbentzitu batek esan auen ¡Viva siempre España!*³³⁴

Urriaren 12an, Espainiako arrazaren egunez, manifestaldia egin zen; han zen beste askoren artean, Maria Rosa Urraca Pastor. San Frantziskoko elizatik irtetean, Arin erretore jaunari irainka hasi zitzaion, separatista esanez, eta aginduka: “*egizu oihu Viva España*” Arinek agindua bete zuen, “*ozenago*”; Arinek berriro “*Viva España*” oihu egin zuen lehengo doinu berean, eta lehenengo aldiko ozentasun berean; “*esan dizut ozenago egiteko oihu*” agindu zion berriro Urraca Pastorrek, erretoreak hirugarren aldi horretan ere aurreko bietan bezala esan zuen “*Viva España*”. Urraca Pastorrek orduan irain egin zion separatista eta espainiar txarra deituz.³³⁵

*Gero, ostien, esan auiengatik: oin ospatu biher da Te Deum bat, eskertzeko ekintza bat dana, eta fjyate, habían entrado las gloriosas tropas (irabazlien tropak sartu zielako). Batek esan auen, datozela horreik abariok Te Deum-rako. Hasi zien etortzen abariekin ospakizunerako, bañe han hauen emakume karlistak eta Urraca Pastor, eta esan auiengatik ezetz, ze pentsetan auiengatik abariekin ziela nazionalistak. Etorri zienien Urraca Pastor-ek esan eutzien: zuek bat egin dozue euskal eskolekin ta afusilaute egon bikeko zaunkie, ta etxauzie guri esker, guk eztogulako gure izan.*³³⁶

Egun horietako batean bilera bat egin zuten Udaletxean, Urraca aipatuak



Maria Rosa Urraca Pastor.

eta herriko beste zenbait karlistak; hartan egondako batek esaten zuenez: *karlista horrek jarraitu zuen esanez: ongi dakite horiek guda arazoetan ibili diren guztiek alde egin dutela, hemen ez tala jende baketsu, umil eta on-ona baizik.*³³⁷ Bilera horren ondoren, urriaren 15ean, Udal Gestio Batzordeak, ikusirik nonbait, zer zetorren, dimisioa aurkeztu zion Gobernari Zibilari.

Bigarren Batzorde Gestorea

Urriaren 16an, biltzar berezi batean, Udal Gestora berri bat izendatu zen, Jesus Gorosabel Mendia, Donostiako paper fabrika bateko zuzendaria zena lehendakari zuela. Jesus Gorosabel Mendia hura



Jesús Gorosabel alkatea, Arano kalean irakurtzen.



Udaletxeko balkoitik mitina.

ez zen bilera hartan. Isidoro Etxebarria, alkateorde izan zen, eta Jose Migel Azkarate eta Jose A. Bere-zibar bokalak.

Egun horietan bertan, Arroyo komandantearen orde, Latorre koronelak hartu zuen agintaritzza militarra. Abuztuaren 11n, Pikoketa harturik, 16 irundar fusilatu zituen berbera zen Latorre koronel hori: *Odolzale hutsa zen. Hain zen odolzalea, non San Andres egunez gudariak Arrasateren kontrako erasoari ekin ziotenean, kalean topatzen gintuen haur guztiak munizio parkera eramaten baikituen, bina kaxa balaz kargatzen gintuzten, eta gudu lerroetara eroanarazten zizkigun.*³³⁸



Vara del Rey kapitaina.

Portaera bandalikoak zutenak egunero joaten ziren mezetara eta San Josepeko ermitarako bideko gurutzebidea egiten zuten. Funtzio erlijioso asko egiten ziren eta ondoren, Margarita, Flecha eta Pelaioen desfileak antolatzen zituzten guztiak faxisten eran agurtzen zutela (haurrak behartzen zituzten talde haietan sartzeraz).

Urriaren 9an askatu zituzten presoek herriko karlisten amorrua jasan behar izan zuten. Heriotzarekin mehatxatzen zituzten. Esaten zieten ihes eginez gero euren emazte eta seme-alabek heriotzarekin ordainduko zutela. Horregatik gelditu ziren herrian, nahiz eta jakin bazakiten geratuz gero zer gertatuko zitzairen. Horrela, urriaren 18an, hilaren 9an askatutako gehienak

berrito atxilotu eta herriko kartzelan sartu zituzten.

Alde batetik Vara del Rey, armadako kapitainak egindako deklarazioak Beni Pagolari ezaguturik: *Atxilotuak libre utzi ditugu ez ditugulako aurkitu ezerean errudun; berriro atxilotu badituzte, guk horretan ez dugu zer ikusirik. Haien eskuetan geratu da herria, zibilen gauza da hori; bestetik, karlisten bilera ezaguturik, atxilotuei egiten zitzaizkien mehatxuak, eta Latorreren izendatzea; horrela azaltzen da gero etorri zena, eta oso argi geratu zen nortzuk izan ziren horren guztiaren errudunak.*³³⁹

Urriaren 18an Klaudio Otaduiren aldeko hiletak ospatu ziren parrokan; karlista hori Somosierran hil zen guduan, Manuel Agirrerekin batera. (Uztailaren 19an Arrasaten hartu nahi eta porrot egin zuenean, Klaudiok besteekin batera Gasteiza egin zuen alde, eta handik boluntario joan zen Somosierrara).

Hurrengo egunean herriko zenbait karlista Gasteiza joan ziren autoz; Arrasateko jende zerrenda bat zeramatan, eta zerrenda hartan salatzen zituzten Orejaren heriotzan parte hartu zutela, heriotza zigorra zuten. (Zerrenda horretako inork ez zuen parterik izan 1934ko urriko iraultzan; oso ondo zekiten hori karlistek, eta baita idatziaren bi sinatzaileek ere, Jesus Mendiak eta Latorrek). Gasteizko gerrako auditoreak oniritzia eman zion epaiari. Egun horretan bertan, hilaren 18an, festa handia antolatu zuten he-

rrian, Francoren armadak Oviedo-ekin kontaktua hartu zuelako. Guardia zibil bat, milizianoz jantzia, sartu zuten atxilotuen artean, ea zer asmo zuten ikusteko; segituan antzeman zuten.

Jose M^a Urangak honakoa idatzi zuen Arrasaten geratutakoari buruz:

Amorruz betetako portaera sutsu haiek justifikatu nahi gabe, agian, komenigarria izango litzateke orduan gertatutako aztertzea. 1936ko irailaren 26an, Gasteiztik karlistak eta erreketek batzuk Arrasatera itzultzean aurkitu zuten egoera aztertuko dugu. Herrira iristean, jarraitzaile ziren Armada Nazionalak herria okupatuta zuela aurkitu zuten, nahiz eta, karlistentzako, okupazioa beharrean herriaren liberazioa izan.

1^o.- *Karlistek presio gogor baten menpe bizi behar izan zuten bost urtean ezkerreko hegemonia "Errepublikar-sozialista"ren amaiera.*

2^o.- *Hor zegoen baita ere, Oreja, Resusta eta Edurraren heriotzekin 1934ko urriaren 5eko "Iraultza Sozialistak" izan zuen eragina.*

3^o.- *Círculo Catolicoaren aurrean jasan zituzten hainbat eraso-probokazio eta mehatxu, bortizki baztertuak batzuetan, indar adierazpen jarrera harroekin.*

4^o.- *Apaizei dagokienez, tira bira handiko harremanak zituzten Euskal Eskola eta Gazteluondon eraikitako Eskola Katolikoa irekitzeko baimen ezaren ondorioz.*

5^o.- *1936ko uztailearen 18ko gauean, Círculo Catolicoa itxi zuten. Egoitza profanatu, banderak, liburuak eta bestelako enblemak erre zituzten gero bertan Eusko Abertzale Ekintzako (ANV) egoitza zabaltzeko.*

6^o.- *"Gorrien" menderatzearen hasierako egunetatik, uztailearen 18tik irailaren 26ra bitartean, 24 karlistek Gasteiz eta Araba aldera ihes egin behar izan zuten eta beste asko ezkutatu egin behar izan ziren. Gutxi batzuk itzuli egin ziren, baina, gehienak Somosierrako fronteetan borrokatzen geratu ziren.*

7^o.- *Beste 93 karlista atxilotu eta Bergarara eraman zituzten. Handik, Bilbora, baina, inork ez zuen haien berri.*



Kapitalistak, militarrek, erreketak, apaizak, ...

8^o.- *Pablo Otaduy birritan torturatu zuten Kanpazarren eta, behin, fusilatuko zutenaren itxura egin zuten. Beste gau batean, Bergaran preso zeuden hamahiru gizon Arratera (Eibar) eraman zituzten. Han, torturatu ondoren, heriotzarekin mehatxatu zituzten.*

9^o.- *Hilda eta desagertuta zeuden Basilio Lasaga, Lino Mardaraz eta Lucio de la Cruz. Donostian, Manuel García del Corral Guardia Zibilen brigada fusilatu zuten. Hajarren, Felipe Otaduy Arrasateko diakono kaputxinoa fusilatu zuten.*

10^o.- *Claudio Otaduy eta Manuel Aguirre Somosierran hil zituzten. Modesto Otaduy eta Victor Beitia oso larri zauriturik zeuden.*

11^o.- *Eta, hori guztia gutxi izango balitz, preso zein Somosierran zeuden borrokalari karlisten bloke handi eta garrantzitsuena herritik falta zen. Haren eraginak norabide bikoitza zuen.*

a) *Animoak gogogabetu.*

b) *Haiek eragin zezaketen eta horrelako egoeratan hain beharrezkoak diren sosegu eta lasaitasunaren ga-bezia.*

Herritik 24 karlistek egin zuten alde. Haietatik 18 Somosierrara joan ziren borrokatzera eta jarraian ageri diren 6 hauek Gasteizen geratu ziren. Isidoro Echevarría Maidagán, Avelino Feltrán De Guevara Palacios, José Aramburuzabala Uribechevarría, Nicomedes Zubillaga Agirre, Manuel Medinabeitia Elejalde, eta Sotero Acha Iturbe. Gasteizen geratu ziren karlistak Arrasatera



NEURE BEGIAK ETA KIDEENAK,
ITXI ZITUZTEN, LEKU HONETAN,
EZ GAITZAZUE AHAZTU.

Hernaniko hilerriaren sarreran hiltzen zituzten.

*itzuli ziren tropa frankistak hirira sartu zirenean. Haie-
tako batzuk tropekin batera itzuli ziren.*

Egia da karlista gehienak herritik kanpo zeudela. Hona hemen, errepublikarrek atxilotu ez eta herrian geratu ziren zenbait erreketaren izenak: Timoteo Echevarria, Mariano Azcarate, Segundo Amozarrain, Felipe Amozarrain, Ignacio Pildain, Norberto Jauregibarria, Prudencio Gorosabel, Jesús Mondragón, Jose Zabaleta, Inocencio Garaizabal, Estalino Zabalo, Jose M^a Iribecampos, Roman Mugica, Agustín Garcia Arregui, Cristóbal Lasaga, Fernando Bergareche, Jose Gaztañaga, Agustín Echebarrieta, Ceferino Aguirre, Vicente Gonzalez, Felipe Galdos, Lorenzo Inza, eta Félix Uribechevarria. 29 haien artean, pisuzko karlistak zeuden: Alkateordeko bat, kapitain izandako bat, teniente izandako beste bat eta Zumalakarregi Tertzioko alferez bat. Preso guztiak Arrasatera aske itzuli zirenean egiaztatu zen moduan, herritik epaitegi militarretara iritsi ziren txostenen ondorioz, arrasatear asko fusilatu zituzten.

Margariten presidentek ohar hau bidali zidan: Carmen García Gorosabel Circulo Carlistara etorri zaitetz aginduak jasotzeko. Balde bat, amantal bat, lixiba botila bat, xaboi bat eta zapi bat ekar itzazu ... Hara joan eta parrokiara eraman ninduten beste emakume batzuekin batera elizako zorua garbitzeko.

Hurrengo egunean, Guardia Zibilararen kuartela eta Batzokia garbitzera behartu zituzten. Uneoro margarita eta Nafarroako Erriberako erreketen irainak entzun

behar zituzten. Margaritek bultzaturik erreketek haiek emakumeei iseka egin eta gorroak botatzen zizkieten. ³⁴⁰

Pertsona zibilen erailketak

Carmen García Gorosabelek, Venancio Gastañarezen emaztea eta Sebero Altube eta Gregori Gorosabelen iloba, osaba-izeben eskaerari erantzunez, 1953ko abuztuaren 13an, Gasteizen, bere senarraren atxiloketa eta erailketaren zirkunstantziak idatzi zituen. Aurrerago, 1957. urtean, Sebero Altubek *Laztantxu eta Betargi* nobelan kontatu zuen historiaren zati hau. Lehen aldiz *Alderdi* aldizkarian publikatu zuen. ³⁴¹

Gertatutakoaren lekuko zuzena izanik berak kontatu bezala transkribatzen dugu jarraian, 1936ko urria eta azaroa bitartean, Hernani eta Oiartzunen erail zituzten Arrasateko 28 pertsonen gertatu zitzaizenaren testigantza:

Egun batean, erreketek bat etxera etorri zen Venantziorekin hitz egitera. Esan zion txapel gorria jantzi eta izena emateko erreketetan, baina hark ezetz erantzun zion, ezin zuela borrokatu anaien aurka. Urriaren 18an hileta zegoen parrokiaren Somosierran hilda amaren senitarteko baten hileta zen, Arrasatekoa bera. Nire senarra kristau ona zenez eta hildakoa familia artekoa, hiletara joan zen. Handik gutxira etorri ziren etxera abisatzera Venantzio elizako korutik atera eta kartzelara eraman zutela. Lehenengo nire gurasoen etxera joan ziren han zegoen ikusteko. Zer nolako amorrua izango zuten, "Uva" izeneko guardia zibil batek nire aitaren argazki bat hartu eta txiki-txiki egin eta gero, lurrera bota zuen Sabino Aranaren argazki bat zelakoan. Herriko kartzelara eraman zuten beste pertsona batzuekin batera. Haien artean, bere anaia Miguel zegoen lehenengo zerrendako guztiekin. Zarimuzko apaiz bat ere kartzelaratu zuten

Hilaren 20a iritsi zenean, neskatak deitu eta esan zidan presoak kartzelatik kamioneta batean eramaten ari zirela. Zer gertatzen ari zen ondo ikusi nezakeen lekuraino joan nintzen. Bakarrik gogoratzen dut jende asko zegoela, presoak iraintzen ari zirela eta kamionetak Gasteizko matrikula zuela. Furgonetaren barrualdea txapazkoa zen. Kartzelatik binaka ateratzen zituzten, ukondoak espartuzko zintekin lotuta zituztela. Kamionetara igo ondoren, txapan eserarazi eta bata bestearekin guztiak lotu zituzten. ³⁴²

Horretan urriaren 20ko goiza iritsi zen; goiz erdi aldera presoak espetxetik ateratzen hasi ziren; zinema aretora ematen duen atetik, sokaz loturik; farmaziako andreak aulki bat jarri zien, Gasteizko Carbones Vallejoren kamioi batera igo ahal izan zitezten. 22 preso igo ziren kamioira, herriko margaritak bitartean irainka ari zitzaizkiela; arrasatearrak 10 ziren, eta gainerakoak Gatzaga, Marin eta Aretxabaletakoak; kamioi gainera igo eta elkarri sokaz lotu, eta Donostia aldera eramane zituzten; guardia zibil bat “Espi” armaturik zihoan kamioaren atzealdean.

Nik aitari kotxea eskatu nion eta haien atzetik joan nintzen. Ibiltzeko baimena eman zidaten. Zelako bidaia!! Ez nuen kamioneta bistatik galdu Donostiara iritsi arte. Han, Sucharren, kontrola zegoen. Kamionetari berehala eman zioten baimena aurrera jarraitzeko, baina ni ilaran geratu behar izan nintzen.

Ondarretara joan ginen, eta esan ziguten han ez zuelde; handik Kursaalera, Kursaaletik Prim kaleko Sera, haren behe barruan kartzela bat zegoen eta; gero handik Gobernu Militarerra eta azkenik Diputazioan militar bati galdegin genion ea Arrasatetik inor ekarri zuten; hark beste bati galdetzen zion bitartean, mahai gainean zegoen blok batean jende zerrenda bat ikusi genuen; lehenengoa Venancio Gastañarez zetorren, eta haren ondoren Arrasateko atxilotu guztiena. Militarra berriro etorri zenean, berriro galdegin genion: hauxe da bila ari garena. Ea nork eman zigun baimena bila airtzeko, esan zigun militarrek; mehatxuka hasi zitzaigun, eta kontuz ibiltzeko agindu zigun, legezkoa ez zen gauzarik ez egiteko inola ere presoak ikusteko.

Militarra agurtu eta Ondarretara joan nintzen. Ordurako, gaueko bederatziak ziren eta kotxea eta mutila euren airera utzi nituen. Diputaziotik Ondarretara oinez joan nintzen, ez zegoen, ez taxirik, ez tranbiarik, gaueko 9ak ziren, han Errioxako erreketek bat topatu genuen, Arrasaten bizi zena. Esan genion Diputaziotik Llamas komandantearen partetik gentozela (gezurra zen) eta presoek karta bat nahi genuela; puska batean pentsatzen egon ondoren erantzun zigun 500 pezeta kostatuko zitzaigula (“gerrarako dirua bildu behar zela eta”); esan genion ekartzeko eskutitza eta orduan emango genizkiola 500 pezeta haiek. Eta halaxe egin ere genion. Denbora puska batean han egonda, hamar eta erdiak inguru horretan eskutitz bat ekarri zigun; honela zioen:

Querida Karmele:

Me alegro nos hayas seguido, hemos hecho un mal viaje estoy molido, pero he tenido la suerte de que me hayan colocado en esta celda nº 32, junto con mi hermano y el cangrejero, y nos hemos encontrado en ella con Perico Zabala de Bergara y alguno otro más de Bergara, conocidos. Como no habíamos probado bocado en todo el día nos han repartido con su buena voluntad lo que ellos tenían.

Tú procura hacer todo lo que puedas, no solo por mí, sino por todos los demás, ya te arreglaras con sus mujeres, pero compra unas colchonetas de corcho que venden por aquí cerca y encarga comida para todos en una taberna de aquí cerca, que ya traen comida a otros.

Vete a la Diputación mañana las 10 de la mañana y saca un pase para venir a visitarme de doce a una y mañana hablaremos.

Estate con Pureza Agirre, viuda de Oreja o con Jesús Gorosábel, alcalde de Mondragón, y haz lo que puedas por nosotros.

Ha empezado el calvario Karmele.

Queréndote más que nunca.

Venancio

Ez nekien asko nik une hartan handik ordu gutxira fusilatu behar zituztenik. Handik Laspiur izeneko apaiz baten etxera abiatu nintzen. Jatorri karlistakoa zen. Afaltzen ari zen ni iritsi nintzenean. Kontatu nion zer gertatzen zitzaidan, baina ez zuen txintik esan. Ni han nengoela deitu zuten telefonoz (aurrerago jakin nuen dei harekin apaiz bat eskatzen ari zirela fusilatu behar zituztenak konfesatzeko. Zer tuntu izan nintzen orduan, ez nintzen ohartzeko zer gertatzen ari zen).

Handik Restaurante Victorerra joan nintzen. Oso berandu zen, baina bertakoak Arrasatekoak zirenez, afaria emateaz gain, logela on bat ere aurkitu zidaten. Jatetxeko jangelan afaldu nuen. Militar batzuk zeuden han bilduta eta haien artean, Llamas komandantea zegoen.

Hurrengo egunean, eguerdian, enkarguak egin ondoren, Ondarretako ilaran jarri nintzenean, Bergarako Erreileno kaxa bat zeraman emakume bat ikusi nuen. Hau gurea da! Pentsatu eta harengana hurbildu nintzen. Eta bai, gurea zen, Periko Zabalaren arreba zen. Egiten ari ziren basakeriak kontatu zizkidan “Gauero fusilamen-

duak daude. Gaur izan da apaiz bat eraman duten lehenengo aldia, aurreko egunetan ezta hori ere. Atzo arte kartzelako patioan fusilatu dituzte. Beldurgarria da. “Barrura sartzea tokatu zitzaion orduan, eta ni, berriro ere, bakarrik geratu nintzen. Iritsi zitzaigun txanda, erakutsi genion baimen idatzia, begiratu zuten liburu handi batean, eta esan ziguten -” Venancio Gastañarez Villar libre utzi dituzte, inolako gaiztakeria politikoren errudun aurkitu ez dituztelako”. -Nola baina?, bart hementxe egon ginen eta-. -“Goizean aterako zituzten orduan”- erantzun zuten.

Irteterakoan, nire aurretik sartu zen neska ikusi eta korrika harengana joan nintzen. -Barkatu. Esan nion, - Zer esan dizute? Nik ere preso dut senarra. Orduan, erantzun zidan: “Barkatu, baina, ezin dut hitz egin. Oraintxe bertan jakinarazi didate nire senargaiaren sententzia bete dutela. Hartu txartel hau. Nire etxeko ateak zabalik dituzu nahi duzunerako.”

Ez nuen etsi. Ondarretara itzuli nintzen. Zaindari bat etorri zitzaidan. Pazientzia handiz esaten ari nintzaion guztia entzun ondoren, esan zidan: “Aske dagoela esan badizute aske dagoelako da. Ziurrenik, ibiltzeko baimen berezi bat emango zieten Donostiatik guztiak batera joan zitezten. Hori izango da zuk ez aurkitzearen arrazoia”. Erabat konbentzitu ninduen eman zidan arrazonamendu harekin. Gainera, zergatik egin behar zieten ba ezer txarrik horrelako pertsona txintxoei?. San Martin kalera iritsi nintzen eta han Ines Abarrategi nire lagunarekin egin nuen topo. Jerez kopatxo bat eta artozko pasta batzuk jatera gonbidatu nuen. Honek bazekien gau hartan 22 pertsona hil zituztela, baina, ez zidan ezer esan.

Txferrari - Goazen Arrasatera! -esan nion. Kontrolean, esan ziguten pasatu ahal izateko idatzizko baimena eskatu behar genuela.

Handik, Karliten Gerra Batzordekoengana joan nintzen. Lagun bat nuen han, Ignacio Baleztena, nire lagun baten senarra, baina kanpoan zegoen, Sevillarako bidean. Orduan, adineko gizon batekin hizketan hasi eta hari kontatu nion Ondarretan zer esan zidaten, senarra libre zegoela eta Arrasatera itzuli nahi nuela, baina, horretarako, kotxerako baimena behar nuela. Gizona, ezin atseginago, ibiltzeko baimenarena konpondu zidan, eta etxera itzuli nintzen.

Herrira itzuli eta herriko plazan geratu nintzen kotxean, nire etxe aurrean. Luis anaia ikusi nuen falangearen

uniformearekin jantzita. Hark galdetu zidan ea zer berri nekarren. - Nola? Baina ez dira gureak hona etorri?. - Harri eta zur geratu nintzen eta etxe barrura sartu nintzen. Hainbat militarburu zeuden han, Campomas kapitaina, Molini, Aguinaga ... Haiek - Kaixo Karmen! - Esan beharrean, ez zuten txintik esan. Berehala jabetu nintzen gertatzen ari zenaz, hil egin zuten. Iseka egin nien. Hiltzaille eta kriminal hutsak zirela esan nien, eta erru guztia haiena zela esan ondoren, kolapso bat izan eta zerraldo lurrera erori nintzen.

Gero aita iritsi zen. Ez ninduen ondo aurkitu. Haurra izan behar zuen Koinatarengana joan behar nuen. Erditzeko minekin hasita zegoen eta bere senarraren berri jakin nahi zuen. Aitak prestatu ninduen haren aurrean plantak egiteko.

Hurrengo egunean, Donostiara joan nintzen senarraren anaia batekin eta Cruz nire amaren lehengusuarekin. Bakarrik utzi ninduten ea nik ezer jakiterik lortzen nuen. Kartzelako ilaran ezagutu nuen neskaren etxera joan nintzen. Esan zidan Teresa Gaitán de Ayalaren besoetako zela. Nahigabean sendotasun handia erakutsiz kontatu zidan bere nobioa bere familiak zuen panteoira eraman nahi zuela. Galernakoa zen, baina ez dut abizena gogoratzen.³⁴³

Baina nik ez nuen inor aurkitu. Inork ez zidan entzuten, ezta lagunek ere. Ezta alkateak ere gure aitari, ez Venantzioren lagunek, ez nire gurasoen lagunak ziren militarrek, inork ez zidan entzun nahi. Meza bat egiteko dirurik ere ez zidaten eman. “Ez zekitela hil ote zuten”, agian bizirik agertuko zela.

Tira. Senargaiaren gorpua berreskuratzea lortu zuen neskak esan zidan: “Hernanin erail zituzten. Aske zeudela esan eta ziegetatik atera zituzten. Kanpora ateratzean han zegoen kamioneta batera igo eta Hernaniko hilerri ingurura eraman zituzten. Kamionetaren aurrealdean jarri zuten konfesatokia.

Handik hiru urtetara, Loiolan egin nituen gogojarduera batzuetan, Laukome aitak kontatu zidan, Venantzio oso ausarta izan zela azken momentura arte. Esan zidan haiekin batera Pasaiako 16 urteko gazte bat hil zutela. Hark ez zuen konfesatu nahi izan. Ez zen deskargekin hil eta tiroak botaz hil zuten berak Gora nire ama! eta Gora Iraultza Soziala! Oihukatzen zuen bitartean. Arrasateko beste gazte batek lortu zuen askatzea eta kamionetatik salto egitea, baina salto egitean orkatila apurtu zitzaion. Arrastaka lortu zuen

baserri batera iristea. Zorigaitzeko baserria hura. Etxekoak karlistak ziren, eta hurrengo egunean salatu zuten. Guardia Zibilaren biktima izaten amaitu zuen.

Egoera hartan geratu nintzen Arrasaten bizitzen. Kotsolamendurik gabe, bihotzik gabe. Amak esaten zidan: “ Hil badute zerbait egingo zuelako izango da, hauek ez dute besterik gabe inor hiltzen” beste batzuk, aldiz, esaten zidaten: “Venantzio oso nazionalista zen”. Ni isilik geratzen nintzen. Eta gaur eraman dituztenak? eta lau apaizak? ... Ezin nuen Arrasaten bizi. ³⁴⁴



13. Gerrako izenak eta ahotsak



Venancio Gaztañarez Villar. Argazkia: Karmele Garciak utzitakoa.

13.1. Gerrako testigantzak

Venancio Gastañarez Villar

Bere emaztea, Carmen Garcia Gorosabel. Resusta kalea 17. Anaiekin batera fusilatu zuten Hernanin; *Gora Euskadi Askatuta* oihukatuz hil zen; nazionalista zen; Gipuzku Buru Batzarrak hizlari izendatua, ELAko elkartasuneko bazkideei hitzaldiak ematen zizkien; Unión Cerrajerako langilea zen, ezkondua; Carmen Garciarekin ezkondua, semea jaio zen egun berean erail zuten, 1936ko uztailaren 30ean.



Karmele Garcia.



Fusilamenduen aztarnak Hernaniko kanposantuan.

Orduan, 29 urte zituen. Heriotza ziurtagirian agerida: Heriotzaren arrazoiak ezezagunak.³⁴⁵

Ondarretan, gau hartan bertan, ziegetatik atera zituzten, eta esan zieten aske geratzen zirela. Dokumentu bat sinatzeko eskatu eta kanpora ateratzean kamioneta bat zuten zain. Laucome jesuita kamioneta haren aurrealdean zegoen, nahi zuenak konfesatzeko. Hernaniko hilerritik hurbil, kamiotik jaitsiarazi eta ostikada eta kulata-kolpeka hilerriko aterainoko azken metroak ibiliarazten zieten. Han fusilatu zituzten.

Bien bitartean Arrasaten urriaren 21 hartan bertan Udal Gestora berriak suskripzio bat ireki zuen *Armada Nazionalaren alde*; Udala bera zen zerrrendaburua, 5.000 pezetarekin; gero, Jesus Goro-sabel, 4.800 pezeta emana libra esterlinetan, eta gero, herriko dendari ia guztiak.

Udaletxeko bitarteko idazkari Valentin Arana Eriz izendatu zuten. Eta Mendieta gauzainari 100 pezetako sari bat eman zioten *azken irailaren 26az geroztik egiten ari den zerbitzu bereziengatik*. Era berean “erabaki zuten urriaren 25, igandez, Kristo Erregeren jaiez, Udal Korporazio moduan meza nagusian eta bezperetan parte hartzea, eta udaletxeko bilera aretoan Jesusen Bihotzaren irudia jartzea. Era berean, erabaki zuten kanposantutik disidentearen gorpua kentzea (hileta zibirez hilobiratua zen hildako bat esan nahi zuten, beren iritzian ezin baitzuen “*lur sakratuan*” egon.)

Urriko 24tik 25erako gauean, hiru apaiz eta zibil bat fusilatu zituzten Oiartzunen. Jainkoari eskerrak emateko Tedeuma, mezak, gurutze bideak, prozesioak, arrosario errezoak. Gerrak iraun zuen denbora guztian ez zen amaituko.

Juan Bengoa Agiriano

*Ni Mondragoetik erueten banaue ez nauzu ikusiko barrero.*³⁴⁶

*Etorri zan andra bat eta amari esan zion: "Benita beti akordetan naz zuek ikusten zaittuenien zelan Donostiara allegau zienien kamioiak Mondragoetik presoekin, han lintxetia gura auela jendiak, oietzela esaten eutziela heurak hil haviela Dagoberto ta ez dakit zer, berak esaten zauen baina hauek ez dira izan, ez dira izan, jendiak ez hauen entzuten, han oso txarto pasau zauziela presoak kamioian doizenak jendia insulto baten ibili ziela.*³⁴⁷

Hernanin fusilatu zuten 1936ko urriaren 22tik 23ko gauean. Jeltzalea, 38 urte zituen; STVko bokala izandakoa. Resusta kalea 41, Unión Cerrajerako langilea. Herriko karlista batek salatu zuen. Emazteak, Benita Eraña Iribekanos, 6 seme-alaba zituen Luis, Begoña, Joseba, Jon, Libe



Romana, Benita, Bizenta Eraña aizpak, Juan Bengoa, Begoña Bengoa eta Luis Bengoa. Argazkia: Begoña Bengoak utzitakoa.

eta Jaione. Epaitegiko heriotza erregistroa 1944ko apirilaren 12koa da: Oiartzunen hil zen su armek eragindako zaurien ondorioz. Inskripzio hau Bergarako Lehen Instrukzioko Epaitegian instruitutako espedienteari jarraikiz egiten da. Epaitegi honetako artxiboko testigantzaren arabera, autoa hilaren zortzian eman zen.³⁴⁸ Bilbon preso egon zen karlista bat etorri zenean, galdetu zion herrian gelditutako beste bateri: *Zergatik hil dozu orren gizona?* Erantzuna: *Kulpa zaukienak eta kulpa gabekoak.* (Jaione Bengoa)

Pedro Agiriano Arana

*Ni eneroan jaio nintzen eta bera nobrienbien 36an hiltzala. Deitu otzien Arrasateko kartzelara etortzeko armozua ekartzen eta berak esan otzela bueno ointxe ereuen eta hil einbier naue.*³⁴⁹ Bere emaztea Francisca Cillaurren zan. Alaba Mari Tere, Irubiden bizi zen.

Urriaren erdi aldera atxilotu zuten; eta urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernaniko kanposantuan; 32 urte zituen. ELMAko langilea, ezkondua zen; alaba hil eta 3 hilera jaio zitzaion;



Pedro Agiriano Arana eta Franziska Zillaurren. Argazkia Mari Tere Agirianok utzitakoa.

pentsaeraz nazionalista zen.

Heriotza erregistroan ageri da: Herritik 1936ko azaroaren 2an joan zen eta ordutik, inork ez daki non dagoen. Uste dute gerraren ondorioz desagertu zela.³⁵⁰

Raimundo Galdos Azkarretazabal

1936ko urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernanin. Arrasateko ELAko lehendakaria zen. Nazionalista, 38 urtekoa, ezkondua Guadalupe Ocaranza Lizarraldekin, 2 haurren aita-ama, Miren



Raimundo Galdos Azkarretazabal eta Guadalupe Ocaranza Lizarralde. Argazkia Jabier Galdosek utzitakoa.

eta Jabier, lau eta bi urtekoak; Arrasate pasealekuan bizi ziren. Unión Cerrajerako langilea. Heriotza erregistroan ageri da: Su armek eragindako zaurien ondorioz hil zen, Hernanin, 1936ko urriaren 24an³⁵¹

Norberto Mondragón Herrasti

1936ko urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernanin. Nazionalista 25 urtekoa; seme bat zuen; Resusta kalea 15. Banco Guipuzcoanoko langilea. Faxistak herrian sartu aurretik guardia bat egin izana salatzen zioten. Bere emaztea, Maria Echevarria Ceciaga, seme bat Norberto. Epaitegiko heriotza erregistroa da 1945eko uztailaren 28koa: Hernanin hil zen, 1936ko urriaren 20an, liberazio gerra zela medio, frontean, bala eta metrailak eragindako zaurien ondorioz. Inskripzio hau Bergarako Lehen Instrukzioko Epaitegian instruitutako espedienteari jarraikiz egiten da.³⁵²



Norberto Mondragón Herrasti eta Maria Echevarria. Argazkia Maria Etxebarriak utzitakoa.

Isidoro Iturbe Elcorobarrutia

*Guardia Zibila etorri zen etxera, Isidoro Iturbe behar zutela, etxean da?; ez, ez dago, taberna horretan dago; fan zien ta atera auen handik, gu parien bizi gitzen Agirre kalea 26an, esan eitzen Basili izten buzte etorriko naz, gero arrexexanen etxien panederixan euskeraz etzelako andriari tremendoak eman eutzien.*³⁵³

1936ko urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernanin. Nazionalista, 33 urtekoa. Emaztea Basili Muñoa eta 2 alabaren aita-ama, Julene eta



Isidoro Iturbe Elcorobarrutia eta Basilisa Muñoa. Argazkia Basilisa Muñoak utzitakoa.

Karmele, 3 urte batek eta hilebeteak besteak; Unión Cerrajerako langilea. Bi guardia zibilek atxilotu zuten, eta kalean bertan ikaragarritzko jipoia eman zioten emazteari euskaraz hitz egiteagatik. Epaitegian ez dago heriotza agiririk, baina badago bere fitxa Ondarretako espetxetako, non jartzen duen sarrera eta irteera.

Bizente Madina Irizar

1936ko urriaren 21etik 22rako gauean erail zuten Hernanin. Nazionalista, 30 urtekoa, seme baten aita; Zorgin kalea 42. Banco Gipuzkoanoko langilea. Karlistek salatu zuten. Haren emaztea Melchora Orueta Madina, semea Jesus.

Epaitegiko heriotza erregistroa da 1945eko uztailaren 28koa da: Hernanin hil zen, 1936ko urriaren 20an, liberazio gerra zela medio, frontean, bala eta metrailak eragindako zaurien ondorioz. Inskripzio hau Bergarako Lehen Instrukzioko Epaitegian inbuitutako espedienteari jarraikiz egiten da. Autoa hilaren 26an eman zen.³⁵⁴

Juzgado <i>Militer</i>		Núm. de la caga
Delito	Natural de <i>Mondragón</i>	Provincia de
Hijo de <i>Josef</i>	y de <i>Josef</i>	
Fecha de nacimiento		<i>23/11/1903</i>
Otras responsabilidades		
Observaciones	<i>20.11.36. Valde 22.11.36</i>	

Ondarretako espetxeko fitxa, sarrera eta irteera.



Bizente Madina Irizar. Argazkia Beni Pagola Madinak utzitakoa.



Miguel Gaztañarez Villar. Argazkia Miren Gastañarezek utzitakoa.

Miguel Gastañarez Villar

1936ko urriaren 21etik 22rako gauean erail zuten Hernanin. 26 urtekoa, Arrasate pasealekua, ezkondua. Haren emaztea Josefina Luco Madina; bere semea Miguel bi egunera jaio zitzaion, alabaren izena Miren zen. Nazionalista; Banco Guipuzcoanoko langilea. Heriotza erregistroan ageri da: Hernanin hil zen, 1936ko urriaren 23ean, gerraren ondorioz.³⁵⁵

Lorentzo Aranbarri Goñi

1936ko urriaren 21etik 22rako gauean erail zuten Hernanin. Magdalena kalea 31, Unión Cerrajerako langilea. Botoa EAJri ematen zion. Karlista batek salatu zuen.

Ondarretatik Hernanirako bidean, arrasatear batek lortu zuen kamioitik salto egitea. Saltoaren ondorioz, orkatila hautsi zitzaion. Arrastaka, baserri bateraino iristea lortu zuen. Baserrikoak karlistak ziren. Iheslaria salatu zuten eta, hurrengo egunean, guardia zibilek hil egin zuten.³⁵⁶



Lorentzo Aranbarri Goñi. Maria Aranbarri Guridik utzitakoa.



Apaizak fusilatuak izan ziren Oíartzungo hilerriko aurrealdea.



Jose Markiegi, Joaquin Arin, Leonardo Guridi. Argazkia Romana Erañak utzitakoa.

Jose Markiegi, Joaquin Arin, Leonardo Guridi

1936ko urriaren 21ean etxean atxilotu, Abade etxean. eta Ondarretako kartzelara eraman zituzten. Urriaren 21ean bertan, Ondarretako kartzelara eraman zituzten Arin parrokoa eta Jose Markiegi eta Leonardo Guridi apaizak. Victor Bastidak eraman zituen kotxe txiki baten. Aurretik eraman zuten, baina hilaren 21ean erail ez zuten Joseba Ceciagarekin batera, aske geratzen zirenaren dokumentu bat sinatuarazi zieten hirurei. Handik, lau gizonak Oíartzungo hilerriera eraman, eta hilerri barruan bizkarra ematen jarri eta gero, ondo-ondotik egin zieten tiro buruan. Urriaren 25etik 26rako gaua zen ... Jarraian, pelotoiaren kapitainak grazia tiroa eman zien. (Hiru apaizek abitua zuten jantzita).

Jose Joaquin Arin Oyarzabal, 61 urte. Billabonakoa. Epaitetik heriotza erregistroa 1941eko otsailaren 9koa da: Oíartzunen hil zen, 1936ko urriaren 25ean, gerraren ondorioz.³⁵⁷

Jose Markiegiri dagokionez, Debakoa bera, badaude bi dokumentu, non ofizialki argi eta garbi agertzen den kartzelara nola sartu zuten, eta nola irten zuten libre, nahiz eta egiaz bere heriotzara bidean irten zuten; hiru horiek, Joseba Zeziagarekin batera Oíartzungo kanposantuan hil zituzten

urriaren 24tik 25erako gauean. Epaitetik heriotza erregistroa 1941eko otsailaren 9koa da: Oíartzunen hil zen, 1936ko urriaren 25ean, gerraren ondorioz. Gorpua errekonozitua eta indentifikatua izan arren, heriotza ziurtagirian ez da ageri heriotza gertatu zen lekua, jaiotze data eta helbidea. 40 urte zituen. Inskripzio hau 1936ko azaroaren 8ko lege dekretuari jarraikiz egiten da, hile eta urte bereko 10ean.

Markiegiren kontrako salaketa izan zen ez eskatu izana 1936ko otsaileko hauteskundeetan katoliko batek derrigor eskumako batasuneko hautagai zerrrendari botoa eman behar zionik. Markiegik ikas-

Urein Oyarzabal Jose Joa		1936
Juzgado	Militar orden d. Buit	61 años
Delito	Núm. de la causa	
Natural de	Provincia de	
Hijo de	de	
Fecha de nacimiento		61 años
Otras responsabilidades		
Observaciones	Progresó en 20. 10. 1936	

Ondarretako espetxean Arinen fitxan, sarrera eta irteera.



Jose Markiegiren oroigarria. Inñaki Markiegik utzitakoa.

tolaren eta euskararen alde jardun zuen lanean buru belarri.

Leonardo Guridi: 41 urte, Oñatiarra. Eskoletan postulatze lanari emana. Gerraren ondorioz hil zen.³⁵⁸

Oiartzunen

Erreketek eta falangistek izua eragin zuten inbadiutako lurralde osoan. Ezin konta ahala eraiketa egon zen. Azken igandean, beste hogeitaz lagun atera zituzten udaletxetik. Haien artean zeuden udaletxeko gordetzailea eta Balerdi doktorea, Gesalibarko osasun etxean.

Arrasaten, hileta elizkizunak ospatzea eta lutoa gordetzen zutenek beltzez jantzea debekatuta zuten. Neurri horiekin, eragotzi nahi zuten jakitea zenbat biktima izan ziren frontean edo faxisten gorrotoaren ondorioz:³⁵⁹

Hilaren 2an, beste 15 arrasatear herriko kartzelatik atera eta kamioi batera igo zituzten. Kamioira igozen zituzten bitartean, margarita batzuek oihukatzen zuten: *Ez gasolarik alperrik galdu, hil itzazue hemen bertan*. Haiek ere *aske utzi zituzten*. Autobus batean, Oiartzungo beheko plazara eraman eta han nesken eskola batean sartu zituzten. Eskolan konfesatu ondoren, oin hutsik, hilerriraino eraman zituzten (kilometro bat inguru).

Joseba Zeziaga Arizaga

Oiartzunen erail zuten 1936ko urriaren 24tik 25erako gauean. EAJko Gipuzku Buru Batzar eta Euskadi Buru Batzarreko partaidea zen. 25 urte zituen. Magdalena kalea 36. EAJren propagandagile



Joseba Zeziaga Arizaga. Argazkia Imanol Zeziagak utzitakoa.



Francisca Ojanguren Iribekampos eta Roman Berezibar Ormazabal senar-emazteak


zela salatu zuten. Heriotza ziurtagirian ageri da: Su armek eragindako zaurien ondorioz hil zen.

Francisca Ojanguren Iribecampos

36 urtekoa, ezkondua. Angiozarkoa, Zuazketa baserrikoa. Oiartzunen erail zuten 1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean. Senarra Roman Berezibar Ormazabal ere hil zuten; bizi ziren Agirre kalean 32an. Ez dago heriotza agiririk.

Maria Areitio Arana

1936ko urriaren 5etik 6rako gauean erail zuten Oiartzunen. 56 urte zituen. 9 seme-alabaren ama. Bere senarra Angel Ezcurra Sasiain. Galarra baserrian bizi zen, eta behin etxera bueltan zihoala faxistek tiroa bota eta hankan zauritu zuten. Ospitalean sendatu ondoren, kartzelara eraman, eta handik



Maria Areitio Arana eta Ondarretako espetxeko fitxa, sarrera eta irteera

Oiartzuna; han fusilatu zuten. Atxilotu zuten seme zaharrenak Ignacio Ezkurra Areitio, urriko iraultzan parte hartu zuelako, eta gero Dragoien Batailoian zegoen guduan. Beste 3 seme ere nazionalisten ba-



Felix Elorza Olalde. Argazkia Ignacio Elorzak utzitakoa.



Gregorio Sampedro Azpiazu. M^a Teresa Marcaide Sampedrok utzitakoa.



Agustin Aranburu Zabaleta. Argazkia Rita Aranburuk utzitakoa



Faustino Garitano Askasibar. Argazkia Juan Garitanok utzitakoa

tailoietan zituen gudari. Beste seme-alabak Barbara, Julia, M^a Asunción, Rita, Saturnino, Pedro, Jose Luis eta Carlos. (Jose Luis Ezkurra). Epaitegian ez dago heriotza agiririk.

Felix Elorza Olalde

Oiartzunen erail zuten 1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean. 28 urte zituen. Roneoko langilea, nazionalista, EAJko eta ELAko bazkidea; herrian guardiak egiten aritu izana salatu zioten. Irubiden bizi zen. Epaitegian ez dago heriotza agiririk

Gregorio Sampedro Azpiazu

19 urte zituen 1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean erail zuten Oiartzunen. Euzko Gaztediko partaidea zen. Erdiko kalea 58. Epaitegiko heriotza agiriaren arabera: 1936ko urriko lehen hamabostaldian bere etxetik desagertu zela.³⁶⁰

Agustin Aranburu Zabaleta

1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean erail zuten Oiartzunen. Pentsaeraz nazionalista zen. Sei seme-alabaren aita, udaletxeko diruzaina zen. 54 urte. Zorgin kale 2. Heriotza agirian ageri da azaroaren

Sean hil zela heriotzaren kausak argitu gabe. Emaztea Encarnacion Basurto Leibar, seme-alabak, Domingo, Ignacio, Jose M^a, Rita, Victoriano eta Mercedes.³⁶¹

Erailda gero, frankistek nola ez zuten onartzen erail zutela, 1937an funtzionario munizipalekin batera depuratua izan zen.

Faustino Garitano Askasibar

Urriaren hasiera aldean atxilotu, berriro askatu, eta bigarren zuten. Oiartzunen erail zuten azaroaren 5etik 6rako gauean; Roneoko langilea; 32 urtekoa, 2 seme-alabaren aita; nazionalista, ELAko partaidea. Emaztea Anastasia Berasategui Arrieta, seme-alabak Juan eta Maria del Pilar. Heriotza agirian jartzen du: Oiartzunen hil zen, 1936ko azaroaren 6an, suzko armek eragindako zaurien ondorioz hil zen.³⁶²

Martzelino Ugalde Landa

1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean erail zuten. Magdalena kalea 28. Jelkidea; emaztea Maria Ortuoste Altuna, 5 seme-alabaren aita, Gurmensindo, Jose, Maria, Esperanza eta Marcelino seigarrena bera hil ondoren jaio zitzaion. Unión Cerrajerako langilea,

37 urte. Epaitegiko erregistroan ageri da: 1936ko urriaren 6an hil zen, su armen ondorioz.³⁶³




Martzelino Ugalde Landa eta Maria Ortuoste Altuna. Argazkia Marcelino Ugaldek utzitakoa.

Manuel Madinabeitia Zubizarreta

1936ko azaroaren 5etik 6rako gauen erail zuten Oiartzunen. Aita jeltkidea zuen. 20 urteko mutila zen, Etxetxikietan bizi zen, 16. Zenbakian, eta ez zuen etxetik irten ere egiten; egun batean arratsaldeko 2etan margarita batek ikusi, eta ordubiak eta hogeietarako Guardia Zibila joan zitzaion etxera bila atxilotzeko. Epaitegian ez dago heriotza ageririk.

Bizente Irazola Urrutia

1936ko urriaren 5etik 6rako gauean erail zuten Oiartzunen. Jeltzalea, 35 urtekoa, 3 seme-alabaren aita. Hierro etxean bizi zen, Musakola auzoan. ELMAko langilea. Arrasateko karlista batek salatu zuen. Emaztea Josefa Eguren Larrañaga, semeak, Jesus, Jose eta Manuel. Heriotza agirian jarzen du: Oiartzunen hil zen 1936ko azaroaren 5ean, suzko armek eragindako zaurien ondorioz. Inskripzio hau egiten da Bergarako Lehen Instrukzioko Epaitegian instruitutako espedienteari jarraikiz. Autoa hilaren 26an eman zen.³⁶⁴



Manuel Madinabeitia Zubizarreta. Argazkia Pepi Gorosabelek utzitakoa.



Bizente Irazola Urrutia eta Josefa Eguren Larrañaga. Argazkia Josu Irazolak utzitakoa.



Jose Antonio Urionabarrenetxea Isasmendiren senideak



Jose Antonio Urionabarrenetxea Isasmendi.
Argazkia Isabel Urionabarrenetxeak utzitakoa.

Jose Antonio Urionabarrenetxea Isasmendi

1936ko azaroaren 5 eta 6 bitarteko gauean eraila. Nazionalista. 36 urte. Unión Cerrajerako langilea. Solidarioa. Karlistek salatu zuten, baina, inork ez daki zertaz akusatu zuten. Resusta kaleko 19. zenbakian bizi zen. Francisca Zaitegi Ceciagarekin ezkondua hiru alaba eta semea zituen: M^a Concepcion, 11 urte, Isabel, 9 urte, M^a Natividad 6 urte eta Ignacio 4 urte. Honakoa irakur daiteke erail eta lau urtetara sinatutako heriotza ziurtagirian: 1936ko azaroaren 6an hil zen Oiartzunen. Ez dakigu zeren ondorioz hil zen. Gorpua zalantzarik gabe ezagutu zuten. Heriotza hau ez da gertatu zen lekuan idatziz ageri ezta bere jaioleku edo bizilekuan ere.

Bere gorpuzkiak ez dira oraindik agertu, baina, bilobek jo ta su jarraitzen dute hauen bila memoria eta justizia exijituz..³⁶⁵

Luis Balantzategi Zulueta

34 urtekoa. Osiñaga baserrikoa. Unión Cerrajerako langilea (Sebero deitzen zioten). Faxistek herria hartu nahi izan zutenean herriko argiak itzali ez

zituena izan zen; horregatik erail zuten Oiartzunen. Epaitegian ez dago heriotza agiririk

Florentzia Olazagoitia Ceciaga

1897ko azaroaren 2an jaio zen. Resusta kaleko 11. Zenbakian bizi zen. 1936ko irailaren 26an atxilotu zuten, faxistak Arrasaten sartu ziren egun berean. Tomás Roa Moralesekin ezkondua 3 seme-alaba zituen: Eduardo (10 urte), Juan María (5 urte) eta M^a Asunción (2 urte). 5 HILABETEKO HAURDUNALDIAN ZEGOEN.

Oiartzunen erail zuten 1936ko azaroaren 5 eta 6 bitarteko gauean. 39 urte zituen. Espioia izateaz akusatu zuten. Baina, hiketa honen benetako arrazoia beste bat izan zitekeen. Bere lau anaietatik bi faxismoaren aurkako erresistenteak ziren: Jacinto Olazagoitia Ceciaga U.G.T.ko militantea eta Juan Olazagoitia Ceciaga. Bigarren hau Gatzagan hil zen frontean borrokan 34 urte zituela. Gainera, Euban hil zen Segundo Olazagoitia Dragones Batailoiko Komandantea bere lehengusua zen.

1936ko irailaren 28an, Erreketeek Eduardo semea frontera eramane zuten "boluntario" gisa Zumalakarregi Tertzioarekin borrokatzera. (Nati Roa Olazagoitia)



Florentzia Olazagoitia Ceciaga, bere seme-alabekin. Argazkia M^a Asuncion Roak utzitakoa.



Florentzia Olazagoitiaren heriotz ziurtagiria

Sabino Etxabe Guruzeta

1936ko 5etik 6rako gauean erail zuten Oiartzunen. Jelkidea, 33 urtekoa; Urin baserria Bedoña auzoan, emaztea Luisa Aginaga bi alaba eta seme baten aita, Angeli. Irene eta Juan Antonio, sei urte, hiru urte eta urtebete. Karlista batzuek guardia bat egin izanagatik salatu eta atxilotu zuten. Arrasaten bizi zen, oraingo Iturriotz kalean. Epaitegian ez dago heriotza ageririk.

Dionisio Uribesalgo Otadui

1936ko azaroaren 5etik 6ra bitarteko gauean erail zuten. Baserritarra; Bedoñako Elorrixa baserrian bizi zen, 40 urtekoa. Emaztea Serapia, 9 seme-alabaren ama; Candida, Aurelia, Soledad, Tere, M^aLuisa, Josefa, Jose, Jesus, Luis y Florencio, hamargarrenaren haurdun zegoen. Euskal Solidarioa. Politika



Sabino Etxabe Guruzeta eta Luisa Aginaga. Argazkia Irene Etxabe Aginagak utzitakoa.



Dionisio Uribesalgo Otadui.
Argazkia Candida Uribesalgok utzitakoa.



Serapia (Serafina) Irazola seme-alabekin.

gauzetan ez zen sartzen. Etxean pistola zahar bat zuelako salatu zuten. Epaitegian ez dago heriotza ageririk. Semearen testigantza bai.

Jose Uribesalgoren testigantza:

Bedoñako semea naiz eta 9 seme-alaba ginen. 1936an 4 urte t'erdia nuen. Frankistak Kurtzetxikin zeuden eta hortik gure baserrira kilometro bat dago. Nire aita joan zen idiekin basora ira ekartzan. Etxera etorri zenean, Arrasatera eramane zuten, ezer esan gabe kartzelara.

Nire arreba Kandik, 13 urte zituen, eta esnea eramane zuten Arrasatera. Hurrengo egunean, esnearekin zihola, Timotea zentrokoak esan zion kartzelatik atera behar zituztela presoak.

Aita, gure baserrian pistola zahar bat izatearren eramane zuten atxilotuta. Hark, esan zion, pistola ez zela berea, bere anaiarena zela, Joxena. Joxek ELMA n egiten zuen lan. Orduan polizia ELMAra joan zen Joxen bila, eta hango zuzendariak, Julio Eperrak (J. Aguirrebeña), esan zion ez eramateko Joxe, langile ona zela eta falta egiten ziola lantegian. Orduan, polizia Joxe han utzi eta bere anaia, Dionisio gure aita zena eramane zuten inolako errurik gabe, pistola ez zelako berea.

Arreba joan zen kartzela ondora, jende asko zegoen negarrez. Atera zituzten presoak bata besteari lotuta. Aitak arreba agurtu zuen buruarekin eta denak sartu zituzten kamioneta handi batean. Neskatila etxera itzuli zen negarrez. Amari esan zion aita eramane egin zutela. Amak ez zuen pentsatzen halakorik, ezta gutxiagorik ere. Amak ezagunak zeuzkan Donostian eta horren bidez joan ziren Gobernu Zibilera, eta esan zioten libre utzi zutela.

Gu oso pozik geunden aita baserrira etorriko zelakoan. Ordurako aita Oiartzunen zegoen fusilaturik. Aita fusilatu eta gero, oso gaizki pasatu genuen. Tropa frankista gehiago etorri ziren Kurtzetxikira, baita agintariak ere. Gure baserria hartu zuten eurentzat. 5 edo 6 logela genituen, eta bat utzi ziguten guri, eta besteak eurentzat. Gure arrebak beste baserri batera joan behar izan zuen. Frankistek hartu zuten haren logela. Eta hala egunak joan, egunak etorri, gero eta okerrago. Guk lokal ederra geneukan egurrez eta bestelakoez beteta. Hori ere hartu egin zuten eurentzat, eta han egiten zuten sua janaria egiteko. Eta sua oso handia. Ama beldurtu egin zen arrisku handia zegoelako baserriari su emateko. Lastoa zegoen han ondoan. Ofizial bat oso haserre etorri zen eta amari esan zion

Folio 97

ACTA DE DEFUNCIÓN

Registro Civil de Mondragon

Número 100 Distrito de Terzera





En la villa de Mondragon, provincia de Guipúzcoa, a las once y veinte minutos del día veinte de setiembre de mil novecientos veinte y cinco; ante D. Victor Berrío Alcega, Juez municipal, y D. Valentín Arana Lizarra, Secretario, se procede a inscribir la defunción de D. Gregorio San Pedro Apizasu de 17 años de edad, natural de Mondragon, provincia de Guipúzcoa, hijo de D. Lorenzo y de D. Juana, domiciliado en la calle de San Francisco, número 28, piso —, de profesión — y de estado (1) soltero.

Falleció en (2) Mondragon día veinte de setiembre del año 1936 a las — y — minutos, a consecuencia de (3) —, según resulta de (4) — y reconocimiento practicado, y su cadaver habrá de recibir sepultura en el cementerio de —.

Esta inscripción se practica en virtud de (5) expediente instruido al efecto, y consta en el original efectuado al margen de este folio consignándose además (6) —.

habiéndola presenciado como testigos D. José Murrasari y D. Negual Mendate mayores de edad y vecinos de esta villa.

Leída esta acta, se sella con el del Juzgado y la firman el Sr. Juez, los testigos — y —, de que certifico.

③

Heriotza agiria: "desaparecido de su domicilio"

isilik egoteko. Aizkora hartu, ama bultzatu eta jausi egin zen. Haren ondoan Audeli zegoen. Hori ikusita, neskatilak 11 urte zeukan, nahastu egin zen eta bizi guztirako izan zen gaixoa. Gure familiarentzat karga ikaragarria izan da, eta beretzat txarrago.

Gure baserritik joan ziren eliza ondora. Apaiza, Don

Fermin frankista handi bat zen eta bere negozioetarako bihotz oso gogorra zuen. Gero, frankistak handik beste leku batera joan joan ziren eta horrela bukatu ziren garai bateko problemak Bedoñan.

Nik 11 urte nituela, amak esan zidan Astigarragako gizon batekin egon zela eta Txomin San Sebastian

Mugika Arregui Paula	
Natural de Mondragon (Gipuzkoa)	
Hija de Pedro y Felipa	
6 años	14 años
a disposicion de Gobierno Civil	
Orden	
Suplicacion de la Comandancia de la Guardia Civil de Mondragon	
ingresa el 11 de Noviembre 1936	
D.O.C. de 17-11-36	

Ondarretako espetxeko fitxa, sarrera eta irteera.



Paula Mugika Arregui, "Paula Txiki". Argazkia Pilar Mugicak utzitakoa.

zeukala izena. Gure aitarekin egon zela kartzelan eta ez zidan besterik esan. Handik urte batzuetara, 24 urte nituela, Astigarragara joan nintzen gizon horrekin hitz

Gobierno Civil
 Provincia de Guipúzcoa
 Núm. 538

El Sr. Director de la Cárcel Provincial se servirá admitir a Jose Marquiegui Olazabal

a disposicion del Ilmo. Señor Juez Militar de esta Plaza

Dios guarde a Vd. muchos años.

San Sebastian 21 de Octubre de 1936

El Gobernador Civil

Director de la Cárcel Provincial

Historia General de la Guerra Civil en Euskadi V. liburukitik ateratako dokumentazioa.

Existen dos documentos referentes a uno de ellos, José Marquiegui, en los que se detallan oficialmente su ingreso en la cárcel y su salida en libertad, que, en realidad, era su salida para la ejecución.

1
 GOBIERNO CIVIL de la PROVINCIA DE GUIPUZCOA Num. 538

El Sr. Director de la Cárcel Provincial se servirá admitir a Jose Marquiegui Olazabal a disposicion del Ilmo. Señor Juez Militar de esta Plaza. Dios guarde a Vd. muchos años. San Sebastian 21 de Octubre de 1936. El Gobernador Civil (ilegible). (Un sello) Comandancia de Vigilancia Secretaria (San Sebastian (fotro sello) Prision Provincial de San Sebastian. 21 (borrosa la cifra 1) 1936 Año 1936. N.º 295. ENTRADA. Sr. Director de la Cárcel Provincial.

2
 EXPEDIENTE PROCESAL de Jose Marquiegui Olazabal

(En el margen de la fotocopia y por encima de EXPEDIENTE PROCESAL se lee: "18-b" escrito a lápiz; J.G.A. con doble subrayado a lápiz. "Apólicado 325". Parece referirse a algún detenido inmediatamente antes rescatado en el libro).

Natural de Deva, provincia de G., vecino de Mondragon, provincia de G., edad 40 años, profesion sacerdote, instruccion al, estado soltero,

ingresa (incl por 22 Octubre 1936. Domiciliado: Basuta, 47 - 2º.

CAUSA (nada)

Registro del Individuo al ingresar. Numero general 265. De orden 536. De libro 3

FECHAS 22 Octubre 1936. VICISITUDES Ingresó en esta Prision, procedente de la Capital entregado por fuerza Publica en concepto de detenido a disposicion del Ilmo. Sr. Juez de la Plaza con orden del Excmo. Sr. Gobernador Civil de la Provincia, dese cuenta. V.º B.º El Director interino (ilegible) El Oficial (no firma). (Hay un sello) Prision de San Sebastian.

(Al dorso dice): FECHA 23 Octubre 1936. VICISITUDES En libertad por orden del Comandante Juez Instructor Don Ramiro Llamas. Se une al expediente de Jose Olan. Muguelz. Se da cuenta. El Director (ilegible) (Hay un sello; Prision de San Sebastian. 107)

Hona hemen dokumentu ofizialen transkripzio osoa.

egitera, igande baten, baina Txomin ez zegoen herrian. Baina egon nintzen haren lagun batekin, Alejandro izenekoa. Eta geratu nintzen berriro joango nintzela handik 15 egunera, Txominekin hitz egiteko. Pentsatzen nuen oso inportantea izango zela gure familiarentzat jakitea zer gertatu zen. Txominek esan zidan Donostiako kartzelan, zigor gela batean 3 zeudela eta leiho bat 4 metro gora. Pentsatu zuten aita behean jartzea eta besteak gainean ikusteko leihotik. Halako batean, denak jausi ziren lurrera eta zituen kolpe handi haiek ikusita, ea zer gertatu zitzaion galdetu zioten. Hark esan zien, hematoma handi haiek Arrasaten jasan behar izan zuen jipoiaren ondorio zirela. Horregatik ezin zion pisuari eutsi.

Gaueko 9ak inguruan argia itzali egiten zuten eta 9 t'erditan isildu egin behar ziren. Orduan atera zuten jendea ondoko gela batetik fusilatzeke. Ez zituzten ikusten, entzun bakarrik. Gero, tiroak entzuten ziren. Handik etorri ziren gero gure aitaren gelara. Hirurak zeuden beldurrak jota, eta pentsatzen zuten nori deituko ote zioten. Halako batean esan zuten: - Dionisio Uribesalgo.- Ni naiz, esan zuen. Esan zioten libre zegoela. Esku-burdinak jarri nahi zizkioten handik ateratzeko, eta aita haserretu egin zen eta saltsa handia eragin zuen. Azkenean, ez zizkioten esku-burdinak jarri. Gero, kapitain bat etorri zen, beste 4 soldadurekin, eta aitak esan zuen konfesatu gura zuela. Esan zioten han ez zegoela apaizik eta beste egun batean konfesatuko zela. Orduan, gure aita konfesatu egin zen Txomin San Sebastianekin eta gero, Txomin, handik ateratzean apaiz batekin konfesatu zen. Bi lagunak agurtu zituen eta gelatik atera zuten. Gero, tiroak entzun ziren, eta horrela bukatu zen gure aitaren heriotza eta gu berarekin pentsatzen bizi guztian.³⁶⁶

Paula Mugika Arregi, Paula txiki

49 urtekoa, ezkondua. Erdiko kalea 58, Emakume Abertzaleen Batzako kidea. Bi apaizen eta parrokoaren atxiloketaren harira, lanean Union Cerrajeran, ondoko komentarioak egin ei zituen: “ez zaie ba bururatuko, aurrekoei bezala, apaizak erailtzen hastea, ala?” Margarita batek salatu zuen, eta ondoren, Guardia Zibilak atxilotu zuen; Ondarretara eraman zuten, Oiartzunen erail zuten 1936ko azaroaren 11tik 12rako gauean.

Epaitegian ez dago heriotza agiririk, baina badago haren fitxa Ondarretako espetxetakoa, non jartzen



Paco Bidaburu Aranburuzabala. Argazkia Ramon Bidaburu “Txarrak” utzitakoa.



Bitoriano Balerdi. Argazkia Vda de Balerdik utzitakoa.

dituen sarrera eta irteera.

María Areitio, Florencia Olazagoitia eta Francisca Ojanguren, militante sozialisten ama, arreba eta emaztea ziren hurrenez hurren. Hiru kasu haietan senideak hilko zituzten mehatxua bete zuten. Gainontze-koak euskal nazionalistak ziren.

Fusilatuen senideek urte askoan ez zuten esaterik ere izan hil zituztela. Izan ere, epaitegiko lehen hil agiriak 1942-1945ekoak dira, zortzi urte geroagokoak. Heriotza agirietan, gainera, ez da azaltzen benetan zer gertatu zen: Heriotza agirietan, gainera, ez da azaltzen benetan gertatutakoa: *Etxetik desagertuak, Liberazio gerra medio, frontean balaz zaurituak, Gerrako inzidentziak. Suzko armek eragindako zaurien ondorioz, Ez dira kausak ezagutzen...* Arrazoi haiek argudiatu zituzten fusilatutako arrasatearren heriotzak erregistratzerakoan. Gaur egun, oraindik



Oiartzunen 1977an fusilatutako batzuen senideak. Luis Bengoak utzitakoa.



Oiartzun 1977. Gorpuzkien ehorzketa hilerri barruan. Luis Bengoak utzitakoa.

ere, horrela ageri dira epaitegietan. Eraildako beste pertsona batzuek ez daukate heriotza ageririk.

Preso baten espediente prozesalak beste guztientzat balio zuen, denek antzeko gorabeherak jasan baizituzten. Jarraian Jose Markiegirena.

Paco Bidaburu Aranburuzabala

22 urtekoa, Garibai kalea 2, taxilaria. Legazpiko kanposantu inguruan azaldu zen hilik. Goizean beste pertsona bati esan zionez, arratsalderako Sotero Atxarekin bidaia bat egitekoa zen.

Bitoriano Balerdi

1936ko urriaren bukaera aldera, Santa Agedako erietxeko sendagile zela atxilotu zuten lehenengoz. Handik Ondarretara eraman zuten eta Gregorio San Pedro eta Agustin Aranbururekin gela berean egon zen. Salaketak zioen gudarrien sendagile ibili zela, baina Santa Agedako erizain nagusiak ukatu egin zuen salaketa hori. 1936ko azaroaren 9an libre utzi zuten. Lazkaora desterraturik, 1938ko azaroaren 13an hil zuten. Seme-alabaren aita zen.

Azaroaren 5etik 6rako gauean Ondarretako espetxean gelditu zen arrasatear bakarra Bitoriano Balerdi izan zen. Azaroaren 9an libre utzi zuten. Herriko karlistek jakin zutenean hartatik libratu zela, esan zioten hurrengotik ez zela libratuko. Handik bi urtera, Beasaingo CAFen mediku zegoela desterratua, Lazkaora, etxera zihoala hil zuten. 1938ko azaroaren 13a zen; karlistek beren mehatxua betea zuten, nahiz eta hiltzailea, Jose Garmendia, beasaindarra izan zen. CAFeko atezain batek salaturik, Garmendia hori atxilotu eta Tolosako espetxera eraman zuten; Arrasateko presoak ere baziren han. Haien aurrean afan handiz harrotzen zen Garmendia Bitoriano hil izanaz.

Ramiro Llamas komandanteak, faxistek Donostian jarria zuten epaile bereziak deklarazio batzuetan esan zuenez, Arrasateetik espetxera zetozen guztiek



Eraildakoen senideak 1987ko apirilean. Ezkerretik eskumara: Luis Bengoa, Bene Pagola, Jaione Bengoa, Beatriz Uranga, Elias Uranga, Luis Azconaga, Juan Mari Roa, Jon Bengoa, Juana Uranga, Miren Balerdi, Isabel Urionabarrenetxea, Joxe Uribesalgo.

espedientea eginik zuten. Fusilatu besterik ez zen geratzen. Espediente horiek prestatu zituzten agintaritzak militarra zuen teniente koronelak eta alkateak.³⁶⁷ Presoak zeramatzan kamioia Donostiara iristean, lintxatu egin nahi zituzten; esaten zuten Resusta eta Oreja hil zituztenak zirela. Akusazioen nondik-norakoak argitzen dituzte, inplikatu guztiek, karlista, militar eta alkatea, jakin bazekitelako akusazio faltsuak egin zituztela.

Ramiro Llamas del Toro. Matxinatu frankisten Komandante Epaile Berezia Donostian 1936ko



Melchora Orueta eta bere semea Jesus Madina, haur hau ez ezik, beste 60 ume geratu ziren umezurtz aita edo ama hil izanaren ondorioz. Beni Pagolak utzitakoa.

urria-azaroa bitartean. Gipuzkoar askoren exekutatzeko aginduak sinatu zituen. Castellóko frontera eraman zuten San Marcial batailoiarekin eta han hil zen 1938ko uztailearen 4an. Batailoi hau Galiziako Armada Gorputzeko Navarra IV Dibisioaren menpe zegoen. Rafael Cavanillas Estatu Nagusiko Komandante buruak sinatu zuen bere heriotza.

Fusilatuen senitartekoei ere libre utzi zituztelako historia hori kontatu zieten. Baina herrira ez zirela itzuli ikusi eta berriro Donostiara itzuli zirenean egia kontatu zieten: *Arrasateko mutilak, atzo egun-sentian Donostiatik kanpora atera, eta fusilatu egin dituzte; kartzelako liburuetan, libre utzitzat agertzen dira, hori egiten baita izendatu gabe hil eta lurperatzen duten jendearekin.*

Eraildakoen gauzetatik itzuli zituzten bakarrik haiek eraman zituzten mantak.

Bitartean, eta egindako basakeria guztiak estali nahian, azaroaren 20an, bando bat jarri zuten udaltxeko iragarki balkoian; mehatxua zen atxilotuen heriotzaren inguruan zurrumurru alarmistak zabaltzen zituztenek zigor gogorak izango.³⁶⁸

Hona hemen, 1936ko azaroaren 8an El Liberal egunkariak argitaratutakoa: Atzean geratu eta euren baserrietan gordetako bi milizianoek jakinarazi digutenez, Arrasaten hiletak eta senideren batengatik dolu jantziak eramatea debekatu dituzte frontean izandako bajak eta faxisten gorrotoak eragindako biktima kopurua ezagutzea galarazi nahian.

Eraildakoen senideek salatarien ondoan bizi behar izan zuten, haiek kalean ikusten egunero. Minduta baina isil-isilik. Errepresioak luze iraun zuen. Ez zen fusilamenduekin amaitu. Eraildakoen senideei ez zieten lanik ematen, hildakoen seme-alabei ikasketa bekak ukatu zizkieten... une larri asko igaro zituzten. Eta ez eraildakoen senitartekoei bakarrik. Familian gudari edo milizianoaren bat zutenak gorriak ziren, eta, baita ere, gerra aurretik joan ohi zirenak Batzokira edo zentro errepublikarrena.


Isiltasuna. Gatazkan galtzaile atera zirenek era askotako zigorrak pairatu zituzten, baina, dudarik gabe, mingarriena izan zen isilik egotera behartuak izatea. Beldurraren eraginez, isilik egoten ikasi zuten, eta egoera horrek iraun du duela denbora gutxira arte. Hala ere, aipatzekoa da elkarrizketatu

ditugun eta adinean aurrera doazen pertsona asko oraindik ere ondorioen beldur direla, kontatzen dituzten bizipenek izan ditzaketan ondorioez.

Familia askok ezin izan dute inoiz gainditu gertatutakoa, eta bakoitzak ahal izan duen moduan egin behar izan du aurrera bizitzan, orduko gertaerak etengabe gogoan hartuta.

Mari Nati Urionabarrenetxea Zaitegi, Jose Antonio Urionabarretxea Isasmendiren alabak, 2021eko irailaren 26an Arrasaten egindako omenaldian esandakoa da jarraian datorren testigantza: *Egun on guztioi; pena handiz esan behar dut erdaraz hitz egin behar dudala, ezin baitut euskaraz ondo hitz egin. Jose Antonio Urionabarrenetxea Isasmendiren alabak gara. 1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean hil zuten tropa frankistek, eta 11, 9, 6 eta 4 urterekin utzi gintuzten ama eta anai- arrebak.*

Gertatu zenean Ugastegin nengoen, nire aitaren lagun batzuen baserrian, Fermin eta Mariarekin, baina amak ni itzultzea nahi izan zuen, nahiz eta anaia 4 urterekin baserrian geratu. Resusta kaleko 19. zenbakian nire etxera iritsi nintzenean, ez nuen ezer esan beharrik izan, zeren tristura eta atsekabe aurpegi haiekin berehala konturatu bainintzen zerbait potoloa gertatu zela. Eta sartu bezain laster galdetu nuen: "Berri Txarrak"? Eta nire ahizpa Isabelek azaldu zidan espero genuen tragedia guztia. Nire amak ez zuen oztoporik izan, nahiz eta bere bizitza aldatu, aurrean zuen guztia gainditzeko, nire ahizpa Conchitarekin batera, zein, 11 urterekin zahartu egin behar izan baitzuen garaia baino lehen, eta heldutasun horrek hilobiraino lagundu zion. Tragedia asko pasatu genituen, gogoan dut nire ama gaixoa, Bedoñatik ekartzen ziguten garia ehotzen, orduan ez baitzegoen ezer, dena estraperloa zen, eta nire ama gaixoa dendako lurpean, errotari buruan zapi bat eta irinaren zipriztinetatik zurizko txabusina bat emanaz; gogoan ditut aitona Eusebio gaixoa eta izebak, etxeko galerian halako tailer txiki bat egiten, zerrailak eta kandadoak egiteko. Gogoan dut nire amona gaixoa patatak zuritzen ari zela patatak zeudenean, eta paperean bildu ondoren, Labekora bidaltzen ninduen, txerriak izan ohi zituzten eta txanpon batzuk ematen zizkidaten truke, eta ni pozik itzultzen nintzen, eta amonari ematen nizkion, familiarentzako zerbait ematen nuela pentsatuz. Tristuraz gogoratzen dut Arrasateko mojen ikastetxean, frankistak beti, eskolara sartu aurretik Cara al Sol abestu behar izaten genuela, eta klasera



Ekitaldi faxista herriko plazan.

sartzean otoitz egiten genuen frontean hil zen Maldiviatarren aitaren alde. Inoiz ez , Uriona ahizpen aitaren alde otoitz egiten. Eta horrela hainbat eta hainbat umiliazio, hura pasatu behar zen eta guk bezala hainbat eta hainbat familia.

Gogoan dut nire anaia Ignaciok, San Viator ikastetxean euskaraz hitz egiten zuela, eta orduan zigor gisa pisu batzuk eramaten zizkiotela, beste ikaskide bati euskaraz ere hitz egiten entzun eta berari pasatu arte. Ahal zuten guztia kendu ziguten. Aitak gutun bat utzi zuen, "Nire seme-alaba gaixo gaixoak zaintzeko" eskatuz, eta ama gaixoa hil zen arte hainbeste zaindu gintuen, ama ikusgarria izan zen. Orain eskatzen dugun gauza bakarra justizia da, duela 85 urtetik leku eta bide bazterretatik atera ahal izatea eta otoitz egitera eta eskuetan dudak krabelin hau eramatera joateko leku duin bat izatea.



Erdiko kalean, izena aldatu eta "Calle del General Franco" izena jarri zioten egunean.

Umertzuz gelditu zirenak aita edo ama eraildakoak Hernanin eta Oiartzunen

Luis Bengoa Eraña, Begoña Bengoa Eraña, Joseba Bengoa Eraña, Libe Bengoa Eraña, Jon Bengoa Eraña, Jaione Bengoa Eraña. Mari Tere Agiriano Zillaurren, Miren Galdos Ocaranza, Jabier Galdos Ocaranza, Norberto Mondragon Etxebarria, Julene Iturbe Muñoa, Karmele Iturbe Muñoa, Angeli Etxabe Aginaga, Irene Etxabe Aginaga, Juan Antonio Etxabe Aginaga, Candida Uribesalgo Irazola, Aurelia Uribesalgo Irazola, Soledad Uribesalgo Irazola, Tere Uribesalgo Irazola, M^aLuisa Uribesalgo Irazola, Josefa Uribesalgo Irazola, Jose Uribesalgo Irazola, Jesus Uribesalgo Irazola, Luis Uribesalgo Irazola, Florencio Uribesalgo Irazola, Domingo Aranburu Basurto, Ignacio Aranburu Basurto, Jose M^a Aranburu Basurto, Rita Aranburu Basurto, Victoriano Aranburu Basurto, Mercedes Aranburu Basurto, Jesus Madina Orueta, Miren Gastañarez Luco, Miguel Gastañarez Luco, Juan Garitano Berasategi, Maria del Pilar Garitano Berasategi, Gurmensindo Ugalde Ortuoste, Jose Ugalde Ortuoste, Maria Ugalde Ortuoste, Esperanza Ugalde Ortuoste, Marcelino Ugalde Ortuoste, XXX, Jesus Irazola Eguren, Jose Irazola Eguren eta Manuel Irazola Eguren, M^aConcepcion Urionabarrenetxea Zaitegi, Isabel Urionabarrenetxea Zaitegi, M^a Natividad Urionabarrenetxea Zaitegi, Ignacio Urionabarrenetxea Zaitegi, Eduardo Roa Olazagoitia, M^a Asunción Roa Olazagoitia, Juan Maria Roa Olazagoitia, Ignacio Ezcurra Areitio, Saturnino Ezcurra Areitio, Jose Luis Ezcurra Areitio, Carlos Ezcurra Areitio, Pedro Ezcurra Areitio, Barbara Ezcurra Areitio, Julia Ezcurra Areitio, M^a Asunción Ezcurra Areitio eta Rita Ezcurra Areitio,...

EAJko emakume baten iritzia, eta ezkerreko beste batena.

EAJko emakume batek eta ezkerreko beste batek iritzia ematen dute gertaeren inguruan EAJko emakume bat eta ezkerreko beste baten iritzia:



Banketea Arrasateko osoko bilkurako aretoan.

*Errepublikara garaietan, sozialistak gorri amorratuak ziren, antikatolikoak. Baina apaizei inoiz zerbait egin bazieten ere, beti errespetatu zituzten. Gainera, urriko iraultza gertatu zenean, Biderakoa eramaten zen, eta sozialistek begirune osoz utzi zuten pasatzen apaiza zerbitzatu behar zutenak zerbitzatu zezan. Antiklerikalak ziren, baina beti errespetatu zituzten apaizak. Apaizak errespetatzen zituzten. Beste aldekoak katolikotzat jotzen zuten euren burua, egunero hartzen zuten komunioa, eta egin zuten lehenengo gauza jendea fusilatzea izan zen.*³⁶⁹

*Batzuetan, jendearekin eztabaidatzen genuen: gorriak gaiztoak zirela. "gaiztoak ginen bai, baina, guk ez genuen inor hiltzen, zuek onak zintatenok egin zenuten bezala" ... Komunistak zirelako. Apaizak ere komunistak ziren ... jende koitadu haiek, familiako aitak ... emakumeak. Lau emakume ere erail zituzten. Gerraren ostean eztabaidatzen genuen horri buruz.: ea nortzuk ziren onak eta nortzuk gaiztoak. Besteak gorriak, ateoak, zuk nahi duzun guztia izango ziren, baina bazekiten jendea errespetatzen. Besteek egiten jakin ez zutena. Hori da egia. Parrokia eta bi apaiz. Ondo eza gutzen nuen On Jose Joakin, amak harreman handia zuelako harekin. Baita nik ere. Bizi osoan gogoratuko ditudan oroitzapenak dira. Negar asko egitea tokatu zaigu. Hori da egia.*³⁷⁰

Beste batzuek bizitza diruaz erosi zuten

Nire aitta Tiburcio, Batzokiko presidentea izandakoa, eta anaiak Andres eta Eusebio, hirurak PVNkoak, bizitza

erosi auien diruarekin. Etxien baeukien neikua diru, aitta ELMAko sozioa zan, ba, diru guztiak kendu arte ez zittuan geratu. Eusebio, gañera, frentera eruen auien. Aitta ta beste anaia guardiak eitten. Tio Anselmo, barrez, gordeta euen karlista batzuen etxien, baña kalera urten auen eta Isidoro Echevarriak ikusi, eta barrura ayuntamentora. Pleno aretuan euela Mendiak alkateak ikusi eta esan eutzien, hori tuertuoi fan dailla etxera. Txapel gorrixa jantzi derrigorrien mordo batek, askok bieko jantzi orduen. Hareik egunak zien bildurgarriak, egun guztien bildurrakin, hazurretaraño sartuta.³⁷¹

Beste batzuek zuloetan edo kobetan aurkitu zuten gordelekua

Frontea Grandenan egon zen bitartean, Francisco Muñoa Vitoria lagun batekin batera ezkutatu zen bere aitak Gomestio baserriko kortan egindako zulo batean. 18 urte zituen. Zoan pasatutako denboraren ondorioz, gaixotu eta hil egin zen. (Julene Iturbe).

Joseba Zeziaga Arizaga eta Antonio Balerdi Arabaolaza Arrogoi kobazuloko zulo batean ezkutatu ziren (Zarugaldetik Maitena baserriko bidean). Leonor Berecibarrek (Konkonekua) eramaten zien janaria. Joseba kalera irten zenean, atxilotu eta hiru apaizekin batera fusilatu zuten. (Angel Balzategi).

1939ko apirilaren 19an, Pio XII.ak irratiz eman zuen diskurtsoa:

Poz handiz zuengana zuzentzen gara, Espainia katolikoaren seme kuttunok, bake eta garaipenarengatik aitaren zorionak emateko. Jaunak, lorpen hauen bidez, koroatu nahi izan du gure fedearen eta karitatearen heroismo kristaia, hainbeste sufrimenduren bidez frogatua.

Memoria santuaren zuen aurrekoak pozik eta sineskor itxoiten zuen bake probintzial hau, zeina lortu den, zalantzarik gabe, bedeinkapen handiari esker, gatazkaren hasieran eman ziena lan zail eta arriskutsu hau burutu zutuei Jaunaren eta erlijioaren eskubideak eta ohorea defendatu eta berrezartzeko. Eta ziur gaude bake hori orduan iragarri zen berdina behar duela izan, iragartzen duena etorkizun lasai bat, eta ordenakoa eta ohorezkoa oparotasunean.

Seme maiteok, probidentziaren asmoak berriro ere agertu zaizkigu mundu berriko ebanjelizazioaren eta fede katolikoaren gotorleku menderaezinen tresna

gisa, zeinak gure mendearen ateismoaren proselitoei eman berri die frogarik gorena, gauza guztien gainetik daudela erlijioaren eta izpirituaeren betiko baloreak.

Zuei dagokizue, anaia beneragarriok apezpikutzan, aholku ematea batzuei zein besteei, bakegintza politikan, denek jarraitu ditzaten elizak irakatsitako printzipioak eta Jeneralak hain noblezia handiz aldarrikatutakoak, justizia krimenari aurre egiteko eta eskeroneko eskuza-baltzasuna oker dabiltzanentzat.

Esker oparoen adierazgarri, hartu ezazue gure bedeinkapen apostolikoa Ama Birjinaren Sortze Garbiaren, Espainiako patroiz Santiago apostoluaren, eta espainiar santu handi guztien izenean, zuek Espainia Katolikoaren seme maiteok, Estaturua eta haren gobernu gorena, apezpikutzan handia eta haren apaiz onberak, borrokalari heroikoak eta fededun guztiok.

Madrilen erortzea

Uste baitzuten Madril berehalaxe eroriko zela, egun horretarako ospakizunak prestatu zituzten. Fatxada batean aldare moduko bat prestatu zuten, eta Francoren erretratua bertan jarri. Erretaula kortinatxo batek estaltzen zuen, eta monarkiaren koloretako argi bonbillaz inguratua zegoen. Francoren erretratuari estalkia kentzen zitzaionean, Madril hartua zen seinale.

1936ko azaroaren 10ean La Voz de España egunkariak honela zioen: *Albiste gloriako horren berri iristen denean, kanpaiak joko dira, suziriak airean lehertuko, eta musika bandak kaleak alaituko ditu. Dendak itxi egingo dira, balkoiak apainduko, eguerdian Tedeum bat ospatuko da parroki elizan eskerrak emateko. Gero, ongietorria elizako agintariei eta agintari militarrei. Ospitaleko asilatuei bazkari berezia. Soldaduei eta tropari diru saria banatuko zaie. Arratsaldeko Setatik 8etara musika plaza nagusian. Horiek izango ziren gerra garaian hiri bat hartzen zen bakoitzeko egiten ziren ospakizunak.*

Egun batean, kortina kendu zioten; pentsatzen ahal duzue nolako oihuak eta kantuek herriko faxistek. Gure tristurak ez zuen kaburik. Baina pentsa ezazu nolako poza gure barrenean, Madril harrapatu zutelako historia hori dena hanka sartze bat izan zela jakin genuenean.³⁷²

Elkarrizketatutako pertsonen buru argitasun handiz gogoratzen dute nola nazionalen euren tropek

hiri handi bat edo posizio garrantzitsu bat, Bilbo, Madril, ... lortzen zutenean, poztasun handiz antolatzen zituzten manifestazioetara derrigorrez joan behar zuten. Akolitoak herriko plazan elkartzen ziren eta manifestazioan parte hartu nahi ez zuten pertsonak euren etxeetatik atera eta behartzen zituzten ikur frankistak jartzera balkoi eta leihoetan.

Langile eskasia

Unión Cerrajeraren zuzendaritzaren txosten batek zioenez, langile falta handia izan zen; *Egoera oso zaila izan zen hasieran, langile faltaz, zeren Arrasate eta Bergarako herriak gorrien aldera hustu zirenean, lantegi bakoitzetik langileriaren % 60k beren kabuz alde egin baitzuen; eta horrela frontea desegin zenean (1937ko apirila) berriro martxan jarri nahi izan zirenean, Arrasaten 450 langile besterik ez zegoen (1936ko uztaillean 1.146 zeuden lekuan), eta Bergaran 231.*³⁷³

Langile espezialistak aurkitzea zaila zenez, eta fronteatatik atera ezin zirenez, prestamenik ez zuen pertsonala hartu behar izan genuen; baina soldadu aldi berriak deitu ahala arazoa larriagotu egin zen, eta une batean espezialistak ez ezik langile arruntak ere faltan ziren. Horregatik, 16-18 urte bitarteko gazteak hartu behar izan ziren; eta horrelako 200dik gora gazterekin jarri zen martxan Arrasateko lantegia. Geroago gorrien aldetik itzuli eta batzorde klasifikatzaileak libre uzten zituen langileak hartzen joan zen. Era horretara Arrasaten lortu zen 800 langiletik gorako plantilla bat osatzea. Bergarako lantegian ere nabaritu zen langile falta; eta mugimenduak irauin zuen bitartean plantilla ez zen inoiz 380 langiletik gora iritsi.

Txostenean 16 eta 18 urte bitarteko gazteez aritzen badira ere, gehienak 13 eta 15 urte arteko gaztetxoak ziren. Hau da, haiek baieztatzen zuten adin minimoa ez zuten. Beste hainbeste gertatu zen ELMA lantegian 108 langile besterik gelditu ziren lanean, 1936 uztailaren 18an 313 zeuden lanean.

Alemanak, italianoak eta mairuak:

Alemanak bateria antiaereo bat jarri zuten Lukoko bolatokian, Santa Barbara atzean; pare bat dozena soldadu egon ohi ziren beti. Italiarrak: asko ikusten ziren, baina pasadizoz beti. Moroak: aldian behin azaltzen ziren, italiarrak bezala.

Arrasateko bombardaketak eta errepre-salia tiroak

Arrasate eta gure posizioen aurkako bombardaketek egunero eta etenik gabe jarraitu zuten. Honen ondorioz, biztanleria zibilak kalte eta biktima asko izan zituen. 15,5 zentimetrotako jaurtigai batek gure lehenengo lerroko ospitaleko horma lodia bota zuen. Izua ikaragarria izan zen moja, zauritu eta gaixoen artean. Ospitalean zaurituta zeuden hainbat pertsona hil ziren eta mojen gehiengoak kikilduta eta etsita geratu ziren urduritasunarengatik gaixoen zaintzan. Gauzak honela, Unión Cerrajerako Injeniarri Zuzendaria bizi zen eta bizi den etxearen etxabe eder eta garbian lehenengo lerroko gure ospitalea egokitu eta hara eramane zituzten gauean zauritu eta gaixoak. Kontuan izan behar da egunero eramaten zituztela erretaguardirara joateko baldintza onetan zeudenak.

Egoeraren larritasuna gero eta handiagoa zenez, Arrasateko bi faktoria garrantzitsuenak Oñatira eramaten hasi ziren Unión Cerrajera (mila langile ingururekin) eta Elma. Honen arrazoia etsaiaren tiroek sortzen zituzten bajek makinaria eteten zutela zen. Lanean ez zen errendimendurik. Alarma sirenek etengabe jotzen zuten eta langileen artean bajak izaten hasi ziren.

Eskoriatzaraino iristen zen trenaren Aretxabaletaraino bakarrik mugatu behar izan zen eta geroago, Arrasatera iritsi baino lehenago mugatu zen, etsaiaren artilleriaren tiroetatik babespean jartzeko.

Igarotako lau hilabeteetan izandako baja kopurua sei-hunik gorakoa zen. Gehienak hildakoak. Borroka garrantzitsurik trabatu gabe egunero sei edo zazpi baja gertatzen ziren.

Martxoaren 1etik 30era: Etsaiaren erasoak gero eta bortitzagoak ziren. Posizioak Kanpazarreko mendatean, Arrasatek Elorriorako errepidean eta Krutzetan zituzten. Azken hau zen punturik gorenena Arrasatek Gasteizerako errepidean, Gesalibar, Aramaio eta Legutiotik igaro ondoren. Egoera honen ondorioz, gero eta zailtasun handiagoak nituen gure posizioetatik etsaia garaitu edo neutralizatzeko. Behatoki falta handia genuen, etsaiak aldiz, behatoki ezin hobeak zituen. Era berean, 81eko morteroak etengabe ari ziren tiroka.

Etsaiaren etengabeko artilleria suak baja asko sortu zituzten. Bateriaezinak ziren bizi genuen tentsioa eta moralak indartzeko ahaleginak.

Errepresalia erasoari ekin genion. Arrasate, Gesalibar, Garagartza, Uribarri eta Untzilla erasotu genituen, azken hau Muru mendipean. Herri hauetan ez zegoen oztoporik gure artilleria sua martxan jartzeko, ez ordea, Elorrio eta beste herri batzuetan. Hau da, hain emaitza onak ematen dituen gerrako hizkuntza mutuaz baliatu ginen. Etsaiak bazekien kanoiekin Arrasatera tiro egiten zutenean (aurretik esan bezala, ezin genituen gure artilleriarekin garaitu) guk berehala lehen aipatutako herrien kontrako erasoak jartzen genuela martxan, nahiz eta, gureak helmen eta potentzia txikiagoa izan. Etsaiaren artilleriak gure kanoiak ez suntsitzeko, egunero, 105/11 Mendiko lau piezak lekuz aldatzen genituen.

Otsaila hasieran, tanke errusiar batzuk gu erasotzen ahalegindu ziren. Elorrioko errepidetik hasi zen erasoak, baina, gure tankeen kontrako 7mm.ko piezek saiakera hau zapuztu zuten. (Rafael Latorrek bere operazio koadernoan jasotakoa 1937ko urtarrilean).

13.2. Hildakoak zibilen artean

Frontea egonkortuta egon zenean, Murugainetik eta Kanpazarretik errepublikarrak lantegietara eta militarrei bonbak botatzen zituzten

Gogoan dut nola, gerra denboran, lantegi gainera bonbak jaurtitzeko zizkiguten. Hegazkinak hurbiltzen zirenean, fabrikako adarra jotzen zuten eta behean babestean ginen. Lur azpiko babesleku bat zegoen eta hara jaisten ginen eta berriro jotzen zuenean, bakoitza bere lanpostura itzultzen zen lanera.³⁷⁴

Eta Zirt! Balak etorten zien. Las balas no eran de los rojos, eran de ellos. Ellos decían de los rojos, pero no eran de los rojos, porque los rojos no estaban entonces ahí, estaban ellos y zirt-zirts! Ate artian... Joan nintzen ugezabangana eta esan notzen Anizetoi: “Zu, Anizeto, han ezin leike lanik ein, balak datoz”, “Imposible! Han ez dau gorririk ez dau han!”, “Ba zurixak botako dituzte, balak datoz!”. Bajau da bera, balarik ezin leikela etorri... eta bera bajau orduko ni por si acaso barrutik geratu nintzen han. Akabetan badau, akabau daixela! Urten auen eta urten orduko ez zotzien jaurti! Eta sartu zituen ateko hertzian... ta barrura berehala, aguro!... “Bai ala ez?” esan notzen, “Bai, bai botaten dotzue, ezin leike holan lanik ein”. Eta la Maritxu, la del Círculo no le mataron por misericordia. Ha zilindruan eiten auen lan eta zilindruan lana eiten auen eskileretako

bentanian parian, ha ez dakit nora joan zan, kanasta topetan edo, norabaitera joa ein zan. Zilindrotik bai! Sartu handitxik, bentanatik zuluau ein jonan gainera, baliak bere zuluau! Bringau bez kristala, utzi zuluau eta jota zilindruan zera... (...) aquello pegó, y no estaba nadie. Gracias que no estaba nadie, si no le pasa a la Maritxu y adiós Maritxu!... Gero ez gura jarri han bestia, ez doiela han jartzen! Jose Casinon aitak ulu baten, ez gura jarri!³⁷⁵

Guda frontea Arrasaten gelditurik egon zen hilabeteetan etengabe bonbardatu ziren errepublikanoen aldetik herriko xede militarrek eta fabrikak. Horren ondorioz hilik gertatu ziren:

Claudio Garai Elexpuru, 56 urtekoa; 1936-12-19an hil zen, hegazkinen bonbardaketan ondorioz. Bere semeak Pedro eta Felix gudariek zirenen.

Hermenegildo Kortabarria, 42 urtekoa, 1936-12-19 Erdiko kalean. Bizkaiko Bankuaren zuzendaria zen. Granada bat lehertuta.

M. Teresa Balzategi Arriola, 15 hilabete, 1937-2-6; metrailaz.

Agustin Larreategi Garai, 38 urtekoa; 1937-2-8; bonbardaketan Gosamendi baserriaren ondoan, gaueko 9 etan. Anaia Eugenio gudariek zirenen.

Rosario Larreategi Bolinaga, 6 urte, aitaren ondoan.

Murutik edo Udalatxetik botatutako bonba batek Gosamendi baserriaren ondoan aita eta arreba hil zituzten. Etxetik urtetan lasterrera jaurti eutzien bonbia, hiru urte neuken, akordetan nok bakarrik koarto baten, ohe bi, baten aitta ta bestien arrebia, guatia belarrixetan aukiela. Ama, Sabina Bolinaga Garai, bakarrik hiru ume txikixekin, Maria, Luis eta Eduardo, pentsaik zelan pasauko auen. Gero, Elman hasi zan lanian. Inungo laguntza barik ez gauen jaso ezebe. Ama ixildu zan gerran, ez auen esaten ezebe, karga haundixa hartu juan.³⁷⁶

Juana Josefa Pildain, 1937ko otsailaren hasiera aldean, balaz. Odol husturik hil zen Bergarako ospitalean.

Olanbarri baserriaren bizi gizen, soldauak zeuden gure etxien, eta bala bateaz zauritu zuten baserriko atean, Bergarara emaran zuten eta odolustuta hil zen. Ez dogu jakin sekula non lurperatu zuten gure ama.³⁷⁷

M^a Pilar Etxebarria Dorronsoro, 8 urtekoa, 1937-2-21. Granada bat lehertu zitzaion.

Bizenta Zubia Eguren, 19 urte; 1937-3-5, granada bat leherturik.

M. Teresa Ormaetxea Etxebarria, 6 urte. Asuncion Vélez de Mendizabal Abarrategui, 9 urte. M. Teresa Vélez de Mendizabal Abarrategui, 4 urte. 1937-3-7an hil ziren hirurak, Kanpazartik botatako obus bat lehertuta. Hiru neskatilak jolasean ari ziren ordu bata eta laurdenean Garibai kalean zegoen Intendentzia Militararen ondoan. Beste hiru neskatila zauritu egin ziren.³⁷⁸

Maritxu Gallastegi Uribe. 1937ko martxoaren 16an hil zen, sei urte zituela, Granada bat lehertuta. Manuel Zulueta Uribe, 4 urteko lehengusua ere, Maritxu-



Argazkia Eduardo Larreategi: ezkerretik hasita, atzean Sabina Bolinaga, Agustín Larreategi, Maria, Rosario, Luis eta Eduardo txikiñena.



Eugenia Igartua eta Claudio Garay.
Jose Ignazio Zaitetik utzitakoa

rekin batera zendu zen. Nafarroa etorbidean (Buena taberna zegoen lekuan) 155 milimetroko granada bat UCEMeko teilatu gainera erori zen eta metrailak bete betean harrapatu zituen neskatia eta haren lehengusua. Maritxu hil zen ospitale militarrean, Maior etxearen behealdean jarri zutena.

Jose Enbeitia Zubia, 57 urte, 1937-4-1. Granada bat leherturik.

Petra Zabala Viteri, 59 urte; 1937-4-1. Metraila zaurien ondorioz.

Bitoria Gorostiza Letona, 31 urte; 1937-4-1

Victoria Gorostiza Letona, 31 urte, 18-04-37.³⁷⁹

Maria Teresa Gorostiza, urtebetekoa, 24-04-37, metrailaz.

Felicia Usandizaga Azcurraga, 25 urte Legutiokoa, 09/01/1937, metrailaz.

Amadeo Berezibar Aspe, Simona Ormazabal emaztearekin, Bartzelonara egin zuen ihes, bertako bonbardaketa batean hilda (1938ko irailean).

Gerria hasi zanién, goguen dauket txarrena izen zala etxien zer gertatu jakun. Sartu zan morterazo handi bat, bañe eztakit nundik bota hauien, anaie hil hauien 18 urte eukela, aitta heridute eta ganu guztixe hilda.

*Ganau eruen hauien aginaldo moduen soldauendako, xentimo bat be ez euskuen emun, lotsabako galantak!*³⁸⁰

Gerra amaitu ondoren istripu gehiago izan ziren eztanda egin gabeko lehergaiak erretiratzen hasi zirenean:

*Bat nere primua zan, ha gerra denboran, Murugainen gerra pasauta zien eta han geratu zien bonbak. Hartu bonbia eskuan, zirristau eta esplotau eta kendu otzen eskua. Ha abilen Cerrajeran, eta ez zauien hartu lanian, gixajua azkenian burutik fan egin zan. Hortxe goixan bizi zan.*³⁸¹

Fakundo Dolara Loidi, Santa Ageda Biziola baserrikoa hil zen bonba batek eztanda eginda gero bere baso batean.

*Geratu gitzen ama ta bixok, gure aitte heridu egin auien Kuartobientos aldien. Bire osue egin hauen frailliek dazen lekuraño lagun bikin ebatuta. Gixajue! Metralla guztixe tripa barruen danak errebentau biher.*³⁸²

Andres Zabaleta Ormazabal. Oñatiarra jatorriz. Garagartzako Mardo Txiki baserrira ezkondua. 1937ko otsailaren 2an hil zuten tiroz.

13.3. Gerraren ondorioz hildako arrasatearrak:

Gerrako ekintzen ondorioz hildako arrasatearrak 216 dira.

Haietatik 140 ziren erresistenteak kolpe militarren aurka: Dragones batailoikoak 54, Amayur batailoikoak 22, beste batailoikoak 7, gudari eta miliziano desagertuak 15, Arrasaten eraildakoak 32 eta epaiketa militarra eginda fusilatutakoak 6. Beste lau espetxean hil ziren.

Matxinatuen aldetik 52 hildako zenbatu dira: erreketek 27, soldaduak 20 eta beste 5 erailak

Kopuru horri gehitu behar zaio beste 24 zibilen heriotza, gerrako ekintzetan edo gerrak iraun zuen bitartean izandako istripuetan hildakoak.



Ezkerretik eskumara: Luzio Berezibar Ormazabal (Balmasedan hil zuten), Jose Mari Berezibar Ormazabal, Zezili Berezibar Ormazabal, Edurne Vitoria, Pilar Berezibar Galdos, Amadeo Berezibar Aspe (Bartzelonan hil zuten), Felix Gonzalez Berezibar, Roman Berezibar Ormazabal (Asturiasen hil zuten), Simona Ormazabal Inurrategi, Ana Mari Vitoria Berezibar, Emilia Berezibar Ormazabal, Nati Garmendia Berezibar. Argazkia Aitor Etxarte Berezibarrek utzitakoa.

Gurutzea, ezpata eta lapurreta

Errepublikanoen esatera hori zehatz bete zen Arrasaten. Hilketen ondoren, fusilatuen alargunek Margariten irain eta barreak pairatu behar izan zituzten.

Gure senarrak bizirik zirela oraindik, esaten ziguten, gure doluaren kontura barre eginez, debekaturik baitzegoen gainera; esaten ziguten beren senarrak eta presoak ez baziren itzultzen bizirik, geuri ere gauza bera egingo zigutela, eta gure semeak ospitalean hazi beharko zituztela.

Alargunek bezala Errepublikaren aldean gudian ari zirenen emazte batzuek ere umilazioak pairatu behar izan zituzten; burusoil utzi, errizino olio edanarazi eta behartzen zituzten plazan bueltak ematen, eta pausoa danborrez markatu. Multak alde guztietatik ugaldutakoak ziren, beti eskean ari ziren, eta beti izaten ziren, etengabe, emaitza derrigorrezkoak; hori ere isun moduko bat zen...

Konfiskatzea: Inozentzia Arriola Badilla, 5.375



Ezkerretik bigarrena M^a Teresa Ormaechea, argazkia Jose Mari Ormaetxeak utzitakoa.



Argazkia. Sabina Dolarak utzitakoa: Fakundo Dolara eta Catalina Mendizabal.



pezeta zeukan zilarretan, eta beste 4.000 Aurrezki Kuxako libretetan. Diru guztia konfiskatu zioten. 1937ko urtarrilean, konfiskatu zenean, Pepe Unibaso zaldizko kapitainaz gainera, erreketek kapitain bat eta herriko komandantea, haren alaba Ageda, Martzela Arregi Zubillaga eta Bizente Sanz izan ziren lekukoak.

Isuna: Urionanekoez gozo denda bat zuten Erdiko kalean; Biktoriano Balerdiren hiletetakoan, gorpua eta segizioa denda aurretik igarotzean pertsiana jaitsi zuen; horregatik 1.000 pezetako isuna ezarri zioten


Derrigorrezkoa zen manifestazio “aberkoietara” joatea. Joaten ez zenari Arrasateko Komandantzia Militarrak isuna jartzen zion. Justo Trojaola Ugarteri adibidez, 1938ko urriaren 6an, 25 pezetako isuna jarri zioten, hilaren batean “Caudilloaren” aldeko manifestaziora joan beharrean tabernan geratu zelako.

Gerra amaitu eta ihesi joan zirenak berriro etxera iristen zirenean dena hutsik aurkitzen zuten. ...etxean sartu eta ezer ez zegoen; ematen zuen han inoiz ez zela bizi izan inor; etxekonekoari galdetu genion eta non esaten digun “soldaduek eraman dute dena”. Erantzun hori ematen ari zitzaidan unean bertan, etxekoneko buruaren gainetik ikusten nuen nola nire paretako erlojua etxean zeukan...

Ezertarako ere askatasunik ez zegoen; gerrari buruzko edozein komentario oso zaindua zegoen; gaua iristen zenerako inor ez zen ikusten kalean, isil deia hamarretatik aurrera zen. Janari askorik ez zegoen, baina dirua zutenek sekula ez zuten beharrik pairatu.

Deportatuak ere izan ziren: Victoriano Balerdi, Romana Eraña, Demetri Arriola, Juan de Zaitegi beste zenbaiten artean.

Bandaluen modura ari ziren horiek berak egunero joango ziren mezetara, eta San Josepe ermitaldera gurutze bidea egingo zuten. Inon diren elizkizun guztiak ospatzen ziren, eta gero Margarita, Flecha eta Pelayoen desfileak izaten ziren (haurrak derri-gorturik zeuden talde horietan sartzerara); denek faxisten diosala egin behar zuten.



Certificat de travail, Ricardo Cegiagarena, Pablo Nerudak sinatua.



Jokin Amilibia eta Ricardo Cegiaga. Sunti Amilibia fondoa.

13.4. Herritik ihes egin zutenen testigantzak

Juanita Uranga Mandaluniz

Tropa frankistek Arrasate hartu zutenean, nire familiak beste familia askok bezala, ihes egin behar izan zuen herritik.

Santanderrera joan gitzen, handik, itsasontziz Frantziara joateko asmoarekin. Aita, bere ama, Josefa Urrutia, emaztea, Bixenta Mandaluniz eta bost seme-alabak, Juanita, Miguel, Lutxi, Beatriz eta Elias izan ziren Santanderrera joan gitzen. Santanderrera iristean baina, emakumeak eta haurrak bakarrik itsasontziratuta ahal zirela esan ziguten. Aita lurrean geratu eta gainontzeko guztiak itsasontzira igo gitzen. Itsasontzi hau emakume eta hurrez gainezka Frantziarantz zihola, akorazatu faxistak hauen kontra tiroka hasi ziren. Denak negarrez eta oihuka itsasontzian emakumeak eta haurrak besterik ez zihoazela ulukatuz.

Frantziara iritsi eta denbora gutxira, Espainiako zonalde errepublikanora joateko agindua eman ziguten. Kataluniara iritsi eta denbora gutxira, amandria Josefa Urrutia Arana gaixotu eta hil egin zen. Han dago lur-

peratuta, Bartzelona ondoko herri txiki batean, Premiá de Dalt.

Gure ama, bost seme-alabekin Arrasatera itzuli zen. Herrera iritsi eta Portaloian esan zioten senarra exekutatu egin zutela eta etxea errekiatuta zuela. Senarrik gabe, kale gorrian eta bost seme-alaba txikirekin. Aitaren erailketaren biktima zutenak. Bera beste batzuekin batera, Bizkaira itzuli zen handik Frantziara pasatzeko asmoarekin. Baina, Iurre inguruko mendietan atxilotu, Arrasatera ekarri eta astebetera Ondarretan espetxeratu zuten, eta epaiketa fartsa baten ondoren fusilatua.

Aitonaren senide batzuk euren etxean hartu zituzten, eta aurrerago Madalena kaleko ganbara bat utzi zieten bizitzeko.

Ba "zerua goixan ta lurra behian", besterik ezer ez. Hona ailegau ginenian... Etxia errekiatuta, ezer ez. Ailegau ginenian, ez dakit ni nork... klaro ze gu gaztiak ginen, esan otzen: "Ez daukotzu ezer, zeure lagunak hor daukazu, klaro, gu danok txikinak, eta jan ein behar gauen eta amak joan zan, txarraurik pentsaubarik inola be apuntau zan Cerrajerara... jendia behar zan lanian eiteko. Enterau zienian "que era la viuda de

Jesús Uranga Urrutia” esan otzien: “usted aquí no tiene entrada porque su marido tiene aquí una mancha negra”. Eta ez zotzien hartu. Elman hasi zan lanean. Neuretako Union Cerrajera izen da oso fascista. Jenderik gehixen hartu zauen fabrika zan Elma, Asam y la Cucharera, horrexeik izan ziren “los que cogieron a todos los vencidos.” “Ene! Gose terriblia pasau gau guk. Zer jaten gauen? Lehenengo lehenengo ezer ez, etorri barri ezer ez. Ni eta ni beste moduko bat joaten ginen andra pare batekin igual lurreko sagartxuak osketan, ostu, horreik kazuelan egoxita jan, eta egun guztiko jana. Gerora hobeto, gero ni joan nintzen eta nire tio bat, aitan anaia, urten auenian... ha “campo de concentración” egon zan.

Ha, tio Jose, ha be zan ajustador de la Cerrajera, eta ha “del campo de concentración” ihes ein auen. (...). Tio Jose etorri zan Mondraura eta agertu zan hamen ez zauela familixarik eta ezer ez, eta bera enterau zan zelan bere anaia hilda auela, gure aita, eta zelan gu hemen gengozen eta egon zan gordeta etxe baten. Gero momentu bat hartu auen alde ein auen, eta joan zan Napar aldera. Bere andria Naparroakua zan baina ez zekixen ezer ez, eta joan zan Napar aldera, han andriakin zertu zan. (...) Han etxian falta zan kriera, eta orduan tia akordau zan bat hemendik gosia kentzeko eta neu joan nintzen. Neu egon nintzen ederto han etxian, neu jaten. Gero ya ekin ginenian apur bat hobeto, anaia be sartu zan Asamen...

Beste anai bat aitana, Pedro, ha be euki auen kartzelan, “en campo de concentración”. Ha kangrenau eta hankia ebai otzien, eta “como un mutilado” bialdu auien etxera.

Eskolara joan nintzen 8 egunian eta entre “Cara al Sol” eta “Viva España”... ama ni ez noia eskolara. Entzunak neuken gehixau hemen amakin, eta ez nauen aguantau, ni las 4 reglas esaten dan moduan.

Hemen ipini auen “Auxilio social”. Zan, gure moduko erdi huérfanos, emuten guzkuen bazkaiten, eta hara joaten nintzen, eta neuri ematen zuztien bokadilua, amari ekarri etxera berak jateko, baina han be “cara al sol”. Han be derrigorrez joaten nintzen, baina janagatik.³⁸³

Juan Jose Gorosabel Aranguren

Gerra bukatu zenean, oso gogorra zen bizimodua. Batez ere, 1941. urtea. Ez zegoen ezer. Gerran ibili ginenok eskatzen genuen berriro ere alemanekin batera

gerran ez sartzeko. Ez genuen ezer eta estraperloan aritzen ginen. Ez genuen ogirik eta asko hiltzen ziren tuberkulosiak jota.³⁸⁴

Antonia Tarragona Calvo

Anai bixek gerrara joan zien, bat joan zan “Batallón de Dragones”era eta bestia “Amaiur”Ama ta ni bildurtuta be joan ginan hortik zehar. Makinatxo kalamidade! Hiru urte, bihako joan. Anaiak joan zien, ez zien karlistak, anai bixak hortik zihar..

Durangon egon ginen eta Durangoko bonbardeuan, hantxe ginen, Mondrauko mutil bat hil zan, frontoian pelotaka abilen, abioiak etorri eta bonba bat. Badakizu zer zan ha? Ha pasau ein behar da! Ez dakitzue zer dan! Ha gerria pasau ein behar zan: gozia, diru asko ezetako balixo bez, eta beti bildurraz.

Beti faten gitzen elizara, eta eliza azpixen egoten zien berdurak saltzen. Etorri jaten bat eta esan zuzten: “Badatoz bombak, goazenan!” Fan gitzen ta ama lo oian, ta: “Ama goazen behera abioiak datoz! Jaiki zaitetz!” Jaiki ama eta astirik ez kalera urteteko, atartian, eta gu hantxe. Gorrixak pasauta!

Arrasatera etorri, kendu guzkuen etxeko traste guztiak, etxe barik eta ezer barik utzi ginttuen. Orduen Logroñora fan nitzen, tia bat naukon Logroñon, aita zelan zauen Logroñon gaixorik. Hamen, lanik ez, etxerik ez... Zarugalden. Etxeko mueble guztiak ostu guzkuen, erropa guztiak. Ze gu fan gitzen jantziakin, ezer barik, ze bazatozen reketiak eta guk alde ein gauen. Etorri gitzenian, ez etxe, ez mueble, ez ezer. Bertako bezinak hartuta gainera muebliak! Eta gero ukatu dana, ez zaukiela, eta hareik geratu zien mueble guztixekin...Hamen jentia faten zanian, sakeo! Orduan, hortik zihar ibili gitzenoi lanik be ez guzkuen emuten.³⁸⁵

Orduan ez zauen! Dirua bai, baina janik ez! Hona etorri nitzen, ta orduan hemen gosia galanta, ez auen jenerorik, dana errekisauta. Nire gizon difuntua jaiki goizeko hiruretan eta menditik faten zan Araotzera babak ekarten jateko eta arto uruna. Goizeko hiruretan menditik ez ikusteko...Ezagunak eta hamendik gauza bat eruen, ze emuten guzkun razionauta dana, azukerra edo beste gauzatxo bat eta eurak babak. Esnia be baserritik ekarten gauen.

Faten zien Arabara, han merkiau hartu eta hemen karuau saldu. Biher bazauen, pagau ein biher! Ogirik be ez auen, artoduna emuten guzkuen: katiluan eindda,

zakarra gañera. Artouruna gozua zan bestela, makina bat talo eta morokil jaten gauen... Hori eta arto esneaz, ekarri uruna eta txapa gainean taluak. Haxe esniakin eta morokila: artouruna lapikoan esniakin ein.³⁸⁶

Consuelo Azcarraga Arejola eta familia

Irailaren 21ean, tren berezi bat antolatu zuten Arrasateko familia errepublikarrak herritik atera eta Bizkaira eramateko. Tren hartan joan ziren Francisco Azcarraga Berecibar, haren emazte Magdalena Arejola Exposito, Matilde eta Carmen alabak eta Consuelo nire ama. Eta Franciscon anaiak Agustin eta Manuel. Bilbora eraman eta Carlton Hotelean eman zieten ostatu. Hiru egun geroago, Tiboliko eskolara eraman zituzten. Bi hilabete geroago Busturiara iritsi ziren.

Faxistak Bilbon sartu aurretik, Gallartara joan ziren. Faxistak ekainaren 24an sartu ziren eta guztiak atxilotu zituzten. Berriro ere Bilbora eraman eta San Anton elizpean utzi zituzten. Hainbat egunez eduki zituzten han. Herrira joan ahal izateko, ibiltzeko baimena eskatzera joan behar zuten. Handik hilabetera, "Margaritas del Mondragóneko" batzuk iritsi ziren. Consuelo eta haren gurasoak ikustean honela esan zieten: - Ba al dakizue zuen ahizpa Constan Aramaioko erreketeniente batekin ezkondu dela? Bi egunera tenientea elizpera etorri zen. Lehenengo Laudiora eraman eta gaua iristean, lekukorik ez izateko, Aramaiora eraman zituzten. Aramaion egun batzuk zeramazkien herriko beste erreketeniente batzuk bisitatu zituztenean: *Etxean duzuen horrek besteekin batera joan behar du.* Orduan, Francisco Azcarraga Berecibar, ezertan parte hartu ez zuela, Arabako Herrialdeko Kartzelara eraman eta bi urtez eduki zuten han.

Etorri gitzen gerra denboran, urtebete hor egin, etorri gitzen eta ni barrero sartu nitzen Elmara. Klaro, nire aitona auen kartzelan. Ni sartu nintzen Elmara, ein nittuen egun bat eta erdi, ta hurrengo egunian fan nintzenian, kalera atera ninduen. Gorrixak gintzela... eta ni kanpora. Gainera andrak, e? Orduan eurak aginketan auen mondrauen, horreik karlistok, frankonak zien baina lehenau karlistak izenda. Atera ninduen, hurrengo goixien ez fateko, bestela ikusiketela.

Gerentia Gregorio Echevarriak deitu zuzten ofizinara, esateko: "Bueno, hemen andrak kejavu ein die zu etorten zarela...ba ez zara etorri beharko, eta kalera". Fan nitzen, kalera atera ninduen, ta aitta kartzelan, eta ni

kalera atarata...geratu gitzen... "Goixan zerua eta beheixen lurra" esaten dan moduan.

Oso gogorra. Orduan, gu etorri gitzenien, atozen danak kartzelara, gizonak. Ba emakumiak ez zaukien ezebe, ogixa erosteko bez, dirurik bez. Estraperluan, jentia trenetik botata...Hilian behin emuten auen razionamendua: ogixa, kilo bat azukerra, beste bat babak...hilebetian jaten zozun dana. Berduria ez zozun topetan, eta baserrikuak eitten auen beti, eukenai emun. Aberatsen etxietara fan eiten zien erueten, aberatsak "de todo" aukien. Akordetan naz, han, Villa Amparon naukon laguna krieria, eurak egoten zien atsaldia pasetan danak jardiniñien, nire laguna egoten zan, 6tan, ni fabrikatik irteten nauenian, ni gosiak handixak, dana holaxe flaka-flaka einda, ta gose bat pasetan gauen... Nire lagunak zainketan auen, Villa Amparoko atian egoten zan, sartzen ninduen, sukaldera erueten nauen eta plato bat baba gorrixak eguardixan sobrautakua. Guk ikusi be ez gauen eitten babagorririk, baña aberatsak, ha be sobra. Neuretako gordeta eukitten zauen, atsaldeko 6tan babak jan, platerkadia jan, etxera faten nitzen pozik. Gose bat auen... Zinien, jentia kakahuetak jaten egoten zan. Zaratia, azala kentzen, baña zinia ikusten be, mundu guztia azala kentzen, gero azala bota eta gero kejavu eitten zan jentia, garbiketan faten zienak. "Que se podía hacer colchones con todo aquello". Akordetan naz periodikuan nozbaiten ekarrita, "que no se puede aguantar la gente". Kakahueten azalak! Danak kakahuezak jaten, oin gosiaz. Kakahuezak jan ta jan zinian.³⁸⁷



Trini Ruiz de Alegria senideekin, Maria ama, Valentin aita, Nati arreba eta Tomas anaia. Trinik utzitakoa.

Trini Ruiz de Alegria Balanzategi

Gerra hasi eta alde egin behar izan genuen. Hemendik joan egin behar genuen. Bilbora joan ginen, Las Arenasera. 9 hilabetez egon ginen bertan ... Han geundela, bi anaia hil zitzaizkidan, zaharrena eta gazteena. Erdikoa geratu zen. Gero, handik, Santanderrera joan ginen. Ahizpa Nati, ama Maria eta Valentin aitarekin batera, Santandertik Frantziara joan ginen. Hiru hilabetez egon ginen han. Frantzian oso ondo egon ginen, baina gaixorik iritsi ginen. Disgustuak, gurasoak edadetuak ziren, ... Nati, ahizpa, ni baino askoz gazteagoa zen.

Pedrok esan eutsen Amai: “-Ama, hartu neskatilak, eta Arenasetara, tian etxera. Gauzak zatarketan hasitta daz, eta zauet gura hemen ikusteik.” Aitta Valentin, eta Ama, Maria neure ahiztia Nati gaztiaua eta neu. Laurok. Trenak espezialak urteten euen, eh! Llenos de refugiados, estaziñotik... Maltzagara, eta Maltzagan, del mismo tren, makina kanbixau, eta Bilboraino. Eta joan gitzen Arenasetara, han bizi zan tia, Aman ahizta.

Bonbardaketak bizi zenuten?

Bai, Arenasetan. Puente Kolgantera etorten ziren. Ez eutsien gauza haundirik egin, baina... Jardín batera faten gitzen... etxetik urrien jardín batzuk euzen, bai. Eta a arrama artien, bedar gainien jarri, eta hantxe geldik, nere primak eta neu. Ikusten ez, bildurrez, baina hantxe, tripas corazón, haciéndonos las valientes... La tierra también se movía así... Menudos apuros...

Eta handik erbestera?

Han hilabete bat ein gauen... eta gero ba... ama pozik euen han, herri txiki txiki bat zan... Ot de Anero, baina egun baten han etorri zan abiaziaua, eta bota zauien bonba bi edo hiru... Tomas be bertan euki gauen... “ezta pentsau bez, bixar bera badoiala Santanderrera eta lehen bailehen Frantziara, hamendik kanpora ikusi arte, ez nau konforme”... Ta joan zan, ta han euen Santanderren delegaziñua, que hacían los trámites para salir...eta mondrauetar bat, bastante lagun haudixe, ta... Tomas fan zan beragana eta esan... “nire famelixia jak hamen, urrien, hamasei kilometrora edo, ta, lehenengoko barkuak noiz urtengo Frantziarako? – datorren astien- ba nire famelixia... – oh oh – eh eh – 2...bentajak... “hori baino gehixau einddakue nok eta nire famelixiak hori bestemerezi juau, topaiek lekua gura joken barkuen, baina hor barkuen nik gurot nire

famelixia sartzia Frantziara fan dein, Aitta ta Ama, alaba bigaz, eta Sabina Arkauz, ha be bai, Mondrauekua da, ta”. Ta bueno ba, datu danak emun eutsan, Aitan pasaportia, ta dana, ta... “bixar etorriko nok” hori zan eguen bat. Hurrengoko egunien fan zan Tomas barrero Santanderrera...”ya vengo con los pasaportes... para ir a Francia”ya gertu euken

Aitxak zenbat urte zituen orduan?

Hirurogeira ez zan ailegetan, 56 zittuen no podía pasar, pero le hicieron un cambio en el pasaporte, y como había... makalduta euen... hamar gehixau ifini bazittuen igual igual pasauko zan

Saratoga zeukan izena?

Bai zera, Saratoga barku haundixa zan, un barco de carga... han fan gitzen Santanderetik Frantziara, Saratogan... Santanderetik Frantziara. Han hiru hilabete ein gittuen, uda osua... herri txiki trankil baten... un pueblo muy bonito... Leblan, provincia de Indre.

Geroago, Frantziatik Kataluniara joan ginen. Urte t'erdiz bizi izan ginen han. Nik asko maite dut Katalunia. Niretzat bigarren aberri bat izan zen.Han be ba... esto de no intervención... y había que salir, o a la frontera de Irun, o a la frontera de Puigcerdá... pues a Puigcerdá, seguir la marcha, y allí nos fuimos.Bai... Seu d Urgell euen... lehenengo egon gitzen Leridako herri txiki txiki baten, Seu d Urgelletik zortzi kilometrora edo... Castellbo... si tengo... me han mandado a mi de Castellbo más papeles... y de todos esos sitios que hemos estado... y del otro también, de Belserrat...Gau bat bakarrik pasau gauen Seu d Urgellen, eta segittuan herri txiki txiki batera, Castellbora, Andorra onduen. Seu d Urgellen egon gitzen seminarixuen...hango jefien kuartuen, baina ixilik ez geuen... ta han be mondrauetar bat... ez, aramaixoarra... el padre le conocía mucho... Salaberri, el hermano del carnicero de aquí...la mujer de Benitin, y... que vivían en Zigarrola... Salaberri hori be ihes eginda zauen eta euen hor, refugixuen, Seu d Urgellen, da Aittak ezauketan euen, da, “baina ze eitten dok hik hemen,” -da ha uta bestia, ta- “...ba hemen pasau bioula gaua ta”...beteta euen, madrileñuak gehixenak; ta bera euen han jefe moruen, Salaberrixi, bakar bakarrik, ta... ixilik egon, bazten batera maletokin, da... “neuk eruengo zauet paraje hobera”... ta etorri zan giltza batzukin, ta sartu giñun kuarto baten, baina, ixilik egoteko eta atia barrutik itxitta. Obispua egoten zan habitaziñua zan, un despacho y un dormitorio,

baina lurrien holakoxe alfonbrie (eskuekin sendua zala adierazitta), asike, lurrien lo eitzeke... edozein lekutan gertu geuzen lo eitzeke... han pasau gauen gaua (barre). Eta hurrengo goixian, handik 12 kilometrora edo, Castellbo. Udabarrirarte. Gurainako edurrak han ikusitxa, beti honainotxeko edurra (keinu eskuekin)

Kataluñan, beste bati lagunketan, baina hor ez, egoten gitzen San Pedro de Torello. Han euen Elorrixoko aizta bi, Elorrixokua ez, Durangoko aizta bi, eta hareik emuten eutsien eskolia ume batzuei, ta... "ayúdame tú", ta holan ni lagunketan... y yo era la maestra. Con catorce quince años, ella era la maestra y yo era la maestra. Los carabineros me pusieron ese nombre, la maestra...

Horreik zien aizta bi... bata gizonakin euen, bata zan Petra, enaz akordetan apellidua, ...horreik ziren Durangokuak baina famelixia abadearteko famelixia zien. Etaorreik aizta bixok egon zien Bilbon, estudixetan, eta bata maistria zan, con Dolores Ibarruri, eran muy amigas, fíjate tú, también casualidad, ta Torellon egon gitzela, neu egoten nintzen, emuten notzen... eurak nau-sixenei eskolia, eta neuk umiei, ta hau eta bestia...hasi nintzen, eta etorri zan Dolores Ibarruri, estudixetan elkarreaz ibilita Dolores ta bera, harek be maistra karrera eindda euen Doloresek pe, ... era cuando empezó la no intervención, extranjero guztiok erretiretan fan zien fre-tietatik, eta holako herri txikixetan sartu zien mientras se preparaban para mandarles... y pues había cantidad de esto... y solían venir algunos, y unos oficiales que vinieron se enteraron de que venía Dolores Ibarruri y el Campesino, un domingo, y habían preparau allí algunos festejos, todo el pueblo, todo engalanado y todo...

Nosotros vivíamos en un balneario, a las afueras, y eran de venir a las siete, y... "ustedes conocen a Dolores Ibarruri, - y - sí, estudiamos juntas, - y- pues tiene usted que esto, ta ta..." eta eurakin... eta gero neskatilei erakutsi biejakon zerbaitx, eta gura euen euskeraz, estranjeroak, polakuak zien gehixenak ... "pero en el idioma de ustedes, en español no, para que le haga ilusión" eta kantu bi edo erakutsi jakuen ahal dan moduan, enaz akordetan... samur batzuk...bat zan "Aldapeko...", da bestia enaz akordetan. Natik, nere aiztiak, ondiokan gaztia zan, harek ba... berba gutxi eindda euen eukeraz, baina jakin baekixen, aittu be bai, baina beste gainetikuak Bilbokuak zien, euserkia entzun bez, sekulan pare... eta harei erakutsiezu euskeraz kantuen, eta horrexek, pasa dittugu, bai, pasa dittugu...

Akordetan naz han aizta bixekin, eta ailegau zan

automobila ta deittu gontzeun, "Dolores..." maistra horrek, elkarreaz estudixautakuak zien ... "pero si yo te conozco a ti, pero si tú eres Felisa," - y- "sí, soy Felisa, sí,"- pero- "qué haces aquí?"... ilusiñue "pues aquí estamos y tal..." eta gero neskatilok, eszenarixua montauta eukien, eurek, internazionalok, eurakatik joan ziren da, ... eta gura euien, ba, Euskalerriko zerbait kantau deixiela... egun bat bakarrik, ... euserkia zer zanik bez hareik umiok... ta erakutsiezu... ba, samurrenak, Aldapeko, eta beste antzekon bat... eta eszenarixora igo, da hasi zienian Aldapeko kantuen, Doloresei emun eutson negarrak, umetan kantetan euela berak hori kantuoi. "Pero cómo así, cómo se os ha ocurrido..." eta gero... "cantadme el Gernikako Arbola", eta, "no, no saben, no sabe ninguna... en otra ocasión tendrá que ser, porque todavía no, esto es justo justo lo que han aprendido, una canción" ... eta holaxen...

Eta San Pedro de Torello horretan, beste mondrauetar batzuk be egon ziren?

Bai Mamateuenak, haxe famelixia

Eta Gomez?

Gomez euen, Bernardo Gómez? Ha egon zan delegau moduan, bertan, San Pedro de Torellón, errefugixuen delegau moduan. Ta gero, mobilizau euen, eta frentera fan zan, eta han geratu zan, denbora gutxira, frentien geratu zan...

Eta Marcelo Vitoria be bai?

Marcelo noixien behin ... eske... egon ziren haren aittaginarreba, eta ama, Simona, Plus Ultra haukien hemen, Mondrauen, Simona eta Amadeo hauken gizonak izena. Hareik semiak eruen zittuen, lagunak ziren Bernardo Gomezekin, gustora egon zitzezen, ta gu be bertan... eta pozen-pozez, emun eutsen ataque bat, eta han geratu zan Amadeo hori, hantxe enterrau zan. Amadeo Berezibar, Plus Ultra haukien...ta hantxe geratu zan, hantxe enterrau ta kitto. Ta gero Simona, ba, semiekin eruen euen Bartzelonara, bakarrik ez zauen gura han ixteik, eta.

Eta Bartzelonan beste mondrauetarren batekin topau zan Hogar Vascon?

Hogar Vascon? Mondrauetarren bat han egoten bazan, hara joango zan, eta permisuaikin euzenak frentien be, haraxe. Baten bat ikusteko haraxe fan biher zitzen.

Gero etorri zineten Arrasatera, ezta?

Gerra amaitzean, amaitzeko gutxi falta zela, 1939ko martxoan itzuli gizen. Bagekigun ez geukala etxerik. Etxia ba, Zerrajeriana zan. Guk ya ezin euki ezer Zerrajeriak. Asike, ezebez... Amai batek, pentsetan euiela ez gitzela gehixau etorriko, eta, "zergatik ba, gu hemenguak gare, zeaittik ez gitzen etorri bihar, gu hemenguak gare"...

Aitta, hurrengoko egunien kuartelera joan biher zan presentetan, eta Aitta detenirua ein euen. Aurretik zaplastekua hartuta. Bai, Zubizarretak, kuarteleko atien... "Hombre Alegría, ya tenía ganas de verte..." (eskuakin joteko keinu zabala eginez) pla... neuri min gehixau emun eustan Aittai baino. Eta, no sé quién era, uno de los guardias era más que Zubizarreta, con galones, le agarró del brazo y le dijo: "Zubizarreta, compórtese". No se me olvidará en la vida. Zubizarreta naparrak, baina gerra aurretik hemen egondakuak ziren, eta hemen bizi zirenak.

Jubilau ta gero, Lagunilla sartuta, han egoten ziren agure guztiak, orduan ez zauen hogar del jubilaue, eta Lagunilla tabernan aitta, eta bere lagun guztiak, egunen baten Zubizarretak esan bihar izan eutson... ez zotzon kasurik pe eitten...

"-Alegría, ya tenía yo ganas, pues, de estar contigo".

-Yo no- aittak...-Y, además, para qué quieres estar conmigo?

-Es que, yo... me he portado muy mal contigo.

-Y ahora te has enterado de que te has portado muy mal conmigo? Y qué te hice yo para que te portaras mal conmigo?

-Tú nada... te tenía envidia.

-Y cuando me diste aquél bofetón delante del cuartel, también me tenías envidia

-También entonces te tenía envidia...

-Mira... si lo que quieres es sentarte aquí en la mesa... - jubilaue guztiak egoten ziren mahai haundi baten jarritta- puedes sentarte, donde te dé la gana... pero al lado mío no eh!, en la otra esquina... si yo estoy aquí, tú en la otra esquina...es lo único que te pido.

Eta gero nun euki zauien preso Aitta?

Ya ... ez eutsien itxi...kartzelara eruen euien, hona, eta gero Bergarara. Hilabete ein euen Bergaran

Zenbat urtekin hasiko zan Aitta Zerrajeran lanian?

Hamalau urtekin, edo, 58 urtekin etorri zan baina Aitta ez, gerra ostien ez, pretendirua bez. Lan barik, eta joan zan Eibarrera lanien

Baina, zergatik ez zioten eman lana?

Ba gorrixa zalako. Asko geratu ziren lan barik... badakizu zenbat mondrauetar geratu zien lan barik, batzuk fan ziren Bilbora... ez dakit nora, beste batzuk Eibarrera...hamendik kanpora. Eta gura Aittak, zelan Tomasek be baeukan hara joateko asmua, Eibarrera, Eibarren egon zien lanien.

Gerraostea ikaragarria izan zen. Gaztea nintzen, 16 urte bete behar nituen gerra amaitu zenean. Bartzelonatik Arrasatera etorri ginenean, batzuetan, estualdia pasatzen nuen kalera irteteko ere. Hori da egia. Oso gogorra izan zen, oso gogorra. Bizi egin behar genuen, baina ez genuen ezer. Gurekin zakartzaguna besterik ez, arropak eta arropak, baina beste ezer ez. Arroparekin bakarrik ezin da bizi. Anaia kartzelara. Aita atxilotu egin zuten ... Pentsa! Ama, ahizpa eta hirurok. Ni umezain egon nintzen etxe batean, zerbait egin behar zen. Eta horrela hasi ginen.

Oroitzapen txar asko. (...) Elkarrekin, batzuetan negarrez, beste batzuetan barrez, horrela egon ginen hainbat urtez, anaia kartzelatik etorri eta pixka bat bizitzen hasi ginen arte. Aitak eta anaiak lan egiten zuten. Aitari ez zioten ematen lanik hemen, anaiari, ordea, bai. Baina, hark esan zuen aita hona ez bazetorren lanera, berak ere ez zuela egingo lanik hemen, eta aita zegoen lekura joan zen, Eibarrera Aitak urte dezente egin zituen Eibarren. Arrasateko enpresa batek nire anaia bertara lanera ekarri nahi izan zuenera arte doitzaille "trokelatzaile" bat nahi zuten. Anaiak ondorioak azaldu zizkien: "Aitarekin hau eta hau pasatzen da. Ta gure aittak, zelan Tomasek be baeukan asmua hara fateko, Eibarrera, Eibarren egon zien lanien."³⁸⁸

Miren Zabaleta Ortubai

Bai, gu kanpora joan gizen. Hiru urtian hor ibili gizen. Bai, lehenengo bai, lehenengo fan gizen Elorrixora, gero Bilbora, klaro, frentia egon zan guztietara. Gero Bilbora, gero Santanderrera, gero handik Frantziara, gero Frantziatik Kataluniara, eta Katalunian egon gizen ixa gerria...bueno, gerria akabau arte ez, nazionalak sartu zien arte, eta sartu zienian ipini guzkun: berriro Frantziara edo etxera eta etxera etorri gizen. Zegatik amak esaten zauen: "Tira, Mondrauen, danak ezauketan

gaue ta...” ez dakitzu? Ta han gelditu bagitze, han ez gindduen inork ezauketan, ta berba eiten ez gekixen frantses eta, ezkerak etorri ginela, zeatik gero bertan atera zan beste gerra bat eta. Bai, eta ibiliko gitzen, gu txartuen ibiliko gitzen, gu refujiauok.

Si, claro, etorri gitzen ta enkontrau gitzen ezebe barik. Aita be ez zauen hemen, aita be kanpuan auen eta... gainera gaixorik auen eta kanpuen auen. Euan, baña ezin zan etorri herrira. Prohibiruta zaukon, baten batek sartu zotzan ziriren bat ta...gu hemen egon gitzen, ta gero Naparruen, aita Naparruen kolokau zan. Egon ondo auen, baña ya gaixorik euen ta gaztia ondion, 45 urtekin hil egin zan. Gero hara ibiltzen gitzen bueltaka. Batien ama ta neu faten nitzen Naparruara, Etxarri-Aranazen bizi zan, eta beste baten ama faten zan ahizpakin, ahizpa gaztiaua zan eta ... ahizpakin faten zan.

Horreik izengo zien gerra aurrian ibili ziela, kastigau egin zituen gero. Zeatik nik euki nauen, lanian ibili zan bat, ofizinan ebilen lanian gerra aurretik, eta gero horreik ofizinetan ebitzenak eta fan zienak gorrixekin, guri gorrixak deketan guzkuen ta. Gorrixakin fan zienak bueltan etorri zienian, kastigauta egon zien. Heuren lekuetara ez zituen bialdu berriro. Sartu zituen lanian, baña lanian (eskuekin lanera), geu letxe mailukakin ta. Lehen akostunbrauta ofizinan plumiaz ta... baña gero denboriak euren lekuetara fan zien. Denboriak... bai asko egon zien han kastigauta, kontra dauzenak.³⁸⁹

Teresa Zabaleta Ortubai

Jaixo nitzen 1926an. Hiru urte jun gintuen, hiru urte. Ba hemendik Elorrixora, gero Bilbora, handik Santanderrera, eta gero Frantziara eta Kataluniara. Hemendik Arrasatetik urten egin gauenian, urten gauen azkenengo kamioian. Aita etorri zan Amari esaten: Maria ni banoia, fan egin bihe dot, zegatik Frankorenak ya Bedoñara ailegetan egon behar daue. Eta amak esan zotzen: “eta nik zer ein got umiokin, zer ein bihe dot nik amen.?” “ba betoz neurekin,” “ba goazen”. Eta orduan ez zauen maletaik eta ezebe, sartu zortzi egunerako edo, sartu mudatzo bat umiendako eta fan egin gitzen. Zortzi egunak hiru urte izan ziren.

Tarragonako probintzian egon gitzen. Reus aldemenien, Miami playan. Etxera vuelta, febrerua izan zan etorri gizenien ta aprilien bukatu zan gerria. Gu bueltau gizenien ez gauken ez etxe ta ez ezebe. Olatxuenak emun gozkuen pisu bat. Batek koltxoi bat, beste batek sillak... Aita exiliua zan eta 45 urtekin hil zan gixajua.³⁹⁰

Pedro Vega Galdos

Irailean fan gitzen Bilbora, ta handik Maliaño, Santanderrera, beste mondrautar morduekin. Bertara etorten zan alkatie Uriarte bisitetan, ta dirua ekarten zauen. Perres Gillet barkoan Frantziara, Burdeosera. Han trenien sartu ta Fere Maze, Normandiara. Juan Rodriguez (Salamankinoa) Txingolo familia guztia, Mamateo, Txintxe, Calahorra... Handik ebakuazioa Kataluñara, Bañolaserara.

Arbols Del Penedes gaudela etorri zan teniente bat Otaño (komisario politikoa). Monjos kanpo abiaziozko jefia, emakume euskaldunak behar zituela, ta horrela nire ama Luisa Galdos, Maria Querejeta, Presentacion Rodriguez eta Platxentxikoa Maria zeukan izena Errotatxiki tabernakoa, miliziana hasi ziren “4ª escuadrilla de aviación”en, Negrinen semia kapitaina be han euen abiadore.

Han gauzela ikusi gauen Gerardo Ruiz, orduan teniente koronela zan ta Ebrora oien, handik hiru egunera hilda euen.

Ebakuatutako pertsonak Arrasatera itzuli ginenean, berriro hasi ziren atxiloketekin. Biteri Eskola prestatu zuten atxiloketa-zentro gisa erabiltzeko. 1939. urte amaieran, ehundik gora lagun atxilotu zituzten. Haien artean zeuden, Francisco Garayren (Galan) familia osoa, Dolores eta María Mondragón, Pedro Vega, Mauricia Alvarez, Dionisia Vega, Ignacio Letona (Txato Colunas) ... Emakumeak alde batetik eta gizonak bestetik bereizi zituzten. Bi hilabete inguru egon ziren atxilotuta.

Gero ama urte eta erdi egon zen baserriz baserri koltxoiak egiten.

Rafael Ceciaga Cortazar

Arrasaten jaio nintzen 1935. urtean. Madalena kaleko 13. zenbakian jaio nintzen, dendako atzealdean eta Arrasaten bizi izan nintzen 1949 urtera arte. Urte hartan deitu ninduen aitak Buenos Airesera joateko, eta gaur arte, han bizi izan naiz. Errealitatean, Monte tabernaren gainean bizi nintzen, baina, gerra hastean, etxea utzi behar izan genuen. Aita frontean egon zen, gerra galdu zuen ... Ama eta arrebarekin batera ihes egin nuen nik. Arreba Abadiñon jaio zen. Guk alde egin behar izan genuen. Casa Ceciagan, Eulogio López González geratu zen Esperanzarekin batera etxe hura zaintzen. Etxe aurrean gasolindegi bat zegoen, aitonarena zena, Julian Ceciagarena. Gerraren erruz galdu zuen gasolindegia, handik atera egin zuten.

Eulogio Lopez Gonzalez geratu zen geratzen ziren ondasun eskasekin. Guk alde egin behar izan genuen eta badakit Gallartan egon ginela. Handik itzuli ginen Arrasatera.

Aita Asameko sortzaileetako bat zen: Ricardo Ceciaga Lasagabaster. Heriberto Ceciaga, anaia, beste sortzaile bat. Osiñaga baserrikoak bazkide sortzaile eta jabe gisa agertzen ziren. Haiek guztiak ziren jabeak. Arruetarrak eta San Martintarrak ere jabeak ziren, azken horiek ahaidetuta baitzeuden. San Martinen emaztea, Damiana, Ceciaga zen. Osiñakoa zen, gu bezala. Eulogio Lopez Gonzalez geratu zen geratzen ziren ondasun eskasak. Guk alde egin behar izan genuen eta badakit Gallartan egon ginela. Handik itzuli ginen Arrasatera.

Entzunez jakin izan dut ekintzak oso modu miserablean ordaindu zituztela. San Martintarrak eta Arruetarrak jabetu ziren guztiaz. Politikak zerikusia izan zuen, izan ere, nire aita Ricardo Ceciaga Buenos Airesera joan izana eta Heriberto preso egotea aprobetxatu baitzuten lantegiaz jabetzeko.

Aitak hemendik Frantziara egin zuen alde, Kataluniara gero eta berriro Frantziara handik Argentinarako bidea hartzeko. Urte bat behar izan zuen hara iristeko ... Txilera zihoan azken itsasontzian sartu ahal izan zen. Aita Frantzian zegoen lanean, Txileko Kotsulatuan, Nerudaren aginduetara.

Luis Lopez Diez, “Bonba”

1936ko maiatzean jaio nintzen. Faxistak Arrasaten sartu aurretik egin genuen ihes herritik. Ama, Leovigilda Diez Fernandez, Adela eta Jose anaia-arrebak eta nik egin genuen alde. Frantzia eta Katalunian egon ginen. Gure aita, Irineo Lopez, frontean hil zuten. Esan ziguten bala galdu batek hil zuela. Arrasatera itzuli ginenean, etxerik gabe geunden, kendu egin ziguten. Ferrerías kalean bertan aurkitu genuen beste etxebizitza bat, baina oso egoera kaskarrean zegoen. Amak neskame joan behar izan zuen gu aurrera ateratzeko.³⁹¹

Jose Lopez Diez

Arrasaten jaio nintzen 1931ko irailaren 9an. Hiru anai-arreba ginen: Adela, ni eta Luis. Nire aita Irineo López Lorenzo zen eta ama Leovigilda Díez Hernández.

Amaren aldeko aitona-amonak Eustasio eta Adelaida ziren. Leovigilda (Leo amarekin eta Ismael Diez anaia-

rekin batera, guztiak ziren Pedrosa del Reyen (Valladolid) jaiotakoak. Adela eta Jose Luisen hildako anaiak Antonio zuen izena.

Josek baieztatzen digu haren heriotzarekin gogoratzen dela bera baino gazteagoa izan behar zuelako. Hileta zibila Arrasaten ospatu zen 1935ean edo 1936an. Amaldeko aitona-amonak Eustasio eta Adelaida deitzen ziren. Leovigilda (Leo amarekin eta Ismael Diez anaiarekin batera, guztiak ziren Pedrosa del Reyen (Valladolid) jaiotakoak.

Adela eta Jose Luisen hildako anaiak Antonio zuen izena. Josek baieztatzen digu honen heriotzarekin gogoratzen bada, bera baino gazteagoa izan behar zuelako dela. Hileta Zibila Arrasaten ospatu zen 1935ean edo 1936an. Adelaida Fernandez, amona, gerra ostean Burgosen eraildako Ismael Diez Fernandez eta Leovigilda Diez Fernandez ama eta ondorioz Irineo Lopez Lorenzoren amaginarreba zena seme-alaben kontzientzia errepublikarrean eragin zhandia izan zuen sozialista nabarmena izan zen. Horregatik egin zitzaion hileta zibila bere biloba Antoniori.

Gerrak Arrasaten harrapatu ginduen eta ebakatu behar izan genuen. 1937ko maiatzean aita galdu nuen gerran.

Bilbora iritsi ginen. Bonbak jaurtitzen zituztenean, trenaren tuneletan babesten ginen.

Bilbo faxisten esku erortzean, Santanderrera egin genuen ihes. Cabezón de la Salen itsasontziratu ginen. Bi itsasontzi zeuden eta itsasontziratzeke zegoen presa handiarekin, amarengandik banatu ginen. Ama Luisekin itsasontziratu zen (1936an jaioa. Bularra hartzen zuen) eta Nire arreba Adela eta ni amaren aldeko aitona-amonekin (Adelaida eta Eustasio).

Frantziara eramán gintuzten, haurren kolonia batera. Hiru egunez egon ginen amarengandik galduta. Jangelan exiliatu guztiak batera bazkaltzen genuen. Hirugarren egunean, Adela eta biok pasilloan korrika ari ginala, amak ikusi gintuen (haiek bai emozioak sortutako negarrak).

Han izan ginen hamar egunetan tratu ona izan genuen. Frantziatik alde egin eta Espainiara itzuli ginen Kataluniatik. Familietan hartu gintuzten. Ni familia batean eta ama eta nire anai-arrebak beste batean. Ni hartu ninduen familiak okindegi bat zuen eta nahi beste ogi ematen zidaten. Sitgesen bonbardatu egin gintuzten. Ama janari

bila ateratzen zen maiz. Inbasio frankistarekin, Frantziarantz abiatu ginen kamionetetan Espainiatik ateratzen ziren soldadu errepublikarrekin batera. Gau batean, soldadu batek bere manta partekatu zuen nirekin. Bonbardatu egin gintuzten. Bonbardaketek belarriak ez min-tzeko, makil bat eramaten genuen ahoan.

Frantzian, erortzeko zorian zegoen kristal lantegi batean elkartu gintuzten. Han, arratoi artean, taulen gainean egiten genuen lo. Hotza ikaragarria zen. (Jose gogoratzen hasi eta abesti bat abesen du): “Silencio en la noche La verrie está en calma, ...”) Tripak garbitu gabe zituzten sardinak ematen zizkiguten ogi zati batekin. Amak Ceregumil indargarria ematen zigun, goilarekada bat goizean eta beste bat arratsaldean.

1939ko Apirila

Arrasatera itzuli eta etxea hutsik zegoela ikusi genuen. Guztiak lapurtu zituzten. Gramola eta Fleta diskoak ere bai.

Amona behin, lagun baten etxera joan zen. Han, berea zen komoda bat ikusi zuen. Lagunari galdetzean, honek berak erosi zuela esan zion. Amonak orduan, komodak leku batean korapilo bat zuela esan zion. Eta horrela izan zen, amonak esandako korapiloa han zegoen. Aitonari zartzueta gustatzen zitzaion eta gramola bat zuen disko batekin. Behin, Ferrerías kalean zegoela, pareko etxebizitzatik zetozen musika doinuak entzun zituen. Bere diskoa zen.

1939ko Ekaina:

Moralesera iritsi ginen. Osaba Moisésen etxean geratu ginen batzuk eta izeba Elisaren etxean besteak. Izeba Elisa kaskamotz utzi zuten eta errizino olio edatera behartu zuten. Han, eskolatik kanpo astebetez bota ninduten elizara ez joatearren.

Handik bi hilabetetara, Leo, ama, Arrasatera itzuli zen, Ferrerías kaleko etxera, goiko solairura. “Baeza” familiaren etxean hasi zen kriada eta eskailerak garbitzen zituen. Amak lan asko egin behar izan zuen. Eskailerak garbitu eta harraskan arropak ur hotzez. Aurrerago Elman hasi zen lanean. Han piezak errekupe ratzen zituen fundizioko desmoldaketan.³⁹²

Juanita Okina Zeziaga

Udalatik 1937ko otsailean, sei baserrikoak ebakuatu gintuzten (Biezkoa, Palazioakoa, Aldekoa, Liorra, Larretxo eta Garaikoa), eta Zamudion ekainean gaudela

faxistak sartu ziren, gurekin zegoen Justo Garai (Biezkoa), esan zioten esateko “Viva España”, baina berak “Viva Euskadi” esan zion. Udalara bueltan handik 15 egunera aita kartzelara. Pedro Okinarekin batera anaia Patxi (Garaikoa) eta Justo Garai kartzelaratu zituzten. Sei hilabete Ondarretako espetxean. Udalako karlista batek esanda “Neri prentzuntau zustenien zure aita zer zan, esan nauen nazionalista zela”. Gero salatazalea, hilerro Arrasateko adoraziotara etortzen zen bera bakarrik. Baina aita gaixorik etorri zen, ez zen gauza lan egiteko, eta ez zegoen, ez segurorik, ez ezer.³⁹³

Brigida Monje García

Nik gerran alde egin nuen. Hiru urtez egon nintzen kanpoan. Lehenengo Somorrostrora joan ginen, eta handik Frantziara. Frantzian galdegin zituzten ea inork itzuli nahi zuen. Nik hemen gertatzen zirenak entzunda nituen, Kataluniara joatea erabaki nuen. Hango herri txiki baten egon nintzen bizitzen, eta handik herrira itzuli nintzen. (...) Itzuli ginenean, asko kartzelaratu egin zituzten, baina ni ez.³⁹⁴

Pedro Gonzalez Pinto

Amak, Modesta Pinto del Teso, Aurea arrebak eta nik, gure izeba Rosa Galvanek eta haren bi alabak, Carmen eta Luisa, hartu genuen errefuxiatuentzako tren berezi bat. Guztiak Arrasatekoak ginen, eta aglomerazio handia zegoen, mundu guztiak denetik sartu nahi baitzuen trenera. Bergararik pasatu, eta gero zuzenean Bilbora eramanez gintuzten. Trenean Alberto de Ubago medikua zihoan. Bizpahiru egun pasatu genituen



Pedro Gonzalez Pinto, eta bere arreba Aurea.

*Eskolapioetan, eta lurrian egiten genuen lo. Handik Solareseko bainuetxera eramán gintuzten. Han oso ondo egon ginen, hilabete batzuk igaro genituen. Maria Mercader Ernesto semearekin, Ana Herrera, Isabel Pinacho, Paulina Paunero, Benita Corral (Perikotxo), Sotera Francisca Moreno alabarekin, Eugenia Lopez “La riojana”, Valeria Llanos, Luvidina Sanchez Elias semearekin, Rufina Riesco Rufina del Pozo “la gallega” alabarekin, Constantino del Pozoren arreba; gurekin batera zeuden Solaresen. Constantino del Pozo arreba bisitatzerá joaten zen, frontean atsedean hartzen zuenean. Alberto Ubago aitak laguntzen zigun errefuxiatuoi. Jesus Uranga eta Eustasio Markaide etorri zitzaizkigun bisitan. Han gertatu zen zorigaitzeko istripu bat: Amparok (Argentinara emigratu zuen) miliziano bat hil zuen nahi gabe, “Mochuelo” izenekoa, Solareskoa bera. Hark errebolber bat zuen, eta deskargatuta zegoelakoan, Amparori eman zion hark tiro egin zezan. Amparok tiro egin eta hil egin zuen.*³⁹⁵

Handik Laredora eramán gintuzten. Kristoren gosea pasatu genuen han; ez zegoen ogirik, arbi hostoak, arbiak, arraina eta soloetatik lapurtzen genuen artoa besterik ez genuen. Asturiasera joateko zegoen arteria bakarra zen Colibresko zubitxoa. Milizianoek atzera egitea saihesteko, faxistek zubitxoa bota nahi izan zuten, baina izkina bat besterik ez zuten apurtu. Orduan, korrika, oraindik ere Laredon dagoen tunelera joan behar izan genuen ihesi. Itsasgora zegoenean, amari gerriraino iristen zitzaion ura, niri leporaino, eta arreba txikia besoetan eduki behar izaten zuen.

1937ko ekainaren 2an, El Liberal de Bilbao egunkarian argitaratutako ohar batek honela zioen: *UGT Sindikatu Metalurgikoaren Batzorde Exekutiboak deia luzatzen du jarraian agertzen diren pertsonak Alameda de Urquijo kaleko 12. Zenbakiko bigarren solairura joan daitezzen ontziratzeke txartela jasotzera: Modesta Pinto del Teso, Rosa Galbán Quesada eta bere alaba Luisa Pérez Galbán.*

Laredon geundela, Errusiara joateko, itsasontziratut nahi izan ninduten Santanderren zegoen barku batean. Itsasontzian nengoela, bombardatu egin gintuzten. Haurrak handik atera eta eraikin batzuetara eramán gintuzten, eta handik etxera, berriro ere beste egun batean itsasontziratzeke. Amak orduan esan zuen: -Ume hau ez doa Errusiara. Eguketara, “Pitón” izeneko itsasontzi ingeles batera sartu gintuzten. Barku hura ikatza eramatera joan zen Santanderrera. Ikatza garraiatutako bodega

zikin haietan sartu gintuzten Laredon geunden arrasatear guztiak, ehundik gora ginen. Zelako bidaia! Denak zorabiatuta. Jateko, ogia eta bola-gazta ematen ziguten. Beste batzuen artean han zeuden: Mendaro serenoaren emaztea Maria eta haren bi alabak (batek Karmen zuen izena), Maria Mercader eta Ernesto semea, “Bizkai”koak, nire izeba Rosa Galvan Carmen eta Luisa Pérez alabekin, Maritxu Juldain Itziar eta Ignacio “Pitillos” seme-alabekin, Felisa Corral, Anita Herrera eta haren semea Roberto Urcelai, Sotero Morenoren semeak, Francisca, Sotera eta Gonzalo Moreno...

Ingalaterran ez ziguten utzi lehorreratzen eta berriro ere Frantziara itzuli behar izan genuen. Maria Mercader “Chanchote” sukarrak jota gaixotu egin zen eta itsasontzia La Rochelleraino joan zen han ospitaleratzeke. Berriro Saint Nazaireraino igo eta han lehorreratu ginen. Oso ondo hartu gintuzten han. Zorriak kendu eta arrondizamendu ezberdinetan banatu gintuzten. Guri Maire egokitu zitzaigun. Hango kartzelara eramán gintuzten eta lo egitera elizara joaten ginen. Gero, herri eta herrixketan banatu gintuzten. Gu San Fraun du Prieresera eramán gintuzten (360 biztanle zituen eta Lemans eta Paris artean zegoen). Mooro izeneko farmazialari batek adoptatu ninduen eta berarekin bizitzen egon nintzen Gurutze gorriak Irunera ekarri ninduen arte.

*Arrasaten, atxilotutako gizonak Trinquetera eramaten zituzten eta emakumeak Biteri Eskolara. Laguntza Sozialera joaten ginen bazkaltzera. Romana Erañak beti ematen zigun pixka bat gehiago jateko. Romanaren ahizpa Vicenta maitasunez hil zen bere senarra preso egin zutenean. “Gorrien” emazteak behartzen zituzten eskolak, kuartela, udaletxea, eliza eta abar garbitzera. Eskolan, behartzen gintuzten goizero, “Cara al Sol” abestera. Behin eskolan kantuan ginela nik besoa ez jasotzearren Miguel Haundik bi ipurdiko eman zizkion amari. Beste batean, eta arrazoi berberarengatik, Jose Zapicos irakasleak makilarekin demaseko jipoia eman zidan Biteri eskolan. 13 urterekin fraideetara joan nintzen, San Viator ikastetxera. Haietako ere klasera sartu aurretik frontoian elkartzen gintuzten “Cara al Sol” abesteko. Orduan Mateo anaia zen ikastetxeke zuzendaria.*³⁹⁶

Biktor Bonet

1935eko maiatzaren 21ean jaio nintzen. Aita Francisco Bonet Carbo, Katalunian, CNTko militantea izan zen. Urriko Iraultzaren ondoren Kataluniatik kanpo bidali zuten eta Bilbora etorri zen. Bertan ezagutu zuen nire ama.

Gerra hasi zenean Bilbon bizi ginen. Santander faxisten esku erori aurretik itsasontzi bat hartu genuen han. Penintsulari buelta osoa eman ondoren, Valentzian lehorreratu ginen, hiria Errepublikaren gunea zelako. Kolpistak sarzanean aita atxilotu zuten eta atxilo zegoela zendu zen. Amak ez zuen urtetan jakin aitari zer gertatu zitzaion. Duela gutxi lortu dugu haren heriotza agiria, eta bertan azaltzen da “bihotzekoak” jota hil zela.

Bilbora itzuli ginen. Ama platanu umelduak saltzen hasi zen Erriberako azokan eta Galdakaotik, tranbian, estraperloan lortutako olioa ekartzen zuen etxera. Berak joan ezin zuen egun batean, Paco eta biok bidali gintuen tranbian. Itzultzean, tranbiak abiada murrizten zuen San Anton zubitik igarotzean. Une hartan, estraperlistek tranbia martxan zegoela salto egiteko aprobetxatzen zuten. Guk ez genuen salto egin eta Arenalera iristean guardia zibilek geratu egin gintuzten. Ama atxilotu eta Larrinagako kartzelan sartu zuten. Gauzak horrela, 9 urterekin Arrasatera izeba baten etxera itzuli behar izan nintzen. Atxa mandatariak ekarri ninduen Arrasatera trenez. Izebak 3 seme-alaba zituen. Gosetea zegoen eta jatekorik ez. Beste aukerarik ez eta morroi sartu ninduten Muxibar baserrian Bengoatarrekin eta han egon nintzen 14 urte bete arte.³⁹⁷


Roberto Uriarte Lasagabaster

Arrasaten jaio zen 1936ko otsailaren 20an. Celestino Uriarteren iloba. Ihesi hiru urtean egon ondoren, Arrasatera itzuli ziren nire ama, Cristina Lasagabaster eta M^a Carmen nire arrebarekin. Aita, Gregorio, 1942an itzuli zen herrira Frantziatik, erbestearen amaieran. Postaria izandakoa zen, baina lanik gabe zegoenez, Bilbora joan ziren bizitzen.


Angel Balzategi Olazagotia.

Arrasatetik fan zien ihesi Ama Floren, aita Angel, nire arreba Isabel eta Mariangeles Udalara, gero Bilbora, Castro eta Santanderrera, eta handik Frantziara. Udalatik Kondeku zubira etortzen zien esnia ekarten. Hor hartu auien presa nire amen primia Florencia Olazagoitia, gero fusilatua.

Amandria Ambrosi Garcia eta gure aman aizta bixak, Tomasa eta Maria Angeles Mont Montelimarren egon zien: “Cuidados por negros senaleses, negros como el carbón, de ojos amarillos.” Abesten auien. Neu, Katalunian Gironan jaixo nitzen enero del 38. Tio Anton be Bartzelonan egon zan. Bitartean aitta preso Santoñan, tio Segundo Intxortako borroketatik Dragones batailloiko



Partida de nacimiento de María Consuelo Bolinaga Garay



María Consuelo Bolinaga Garay recién nacida con un enfermero

komandantia irten auen, Euban kota 333 zauritua eta Bilboko zezen plazan hil zan. Beste anaia Josemari tuberkoloso.

Bartzelonan hil zen Catalina Albistegui Leceta. Gurekin euzen Justina Bidaburu senideekin, haren anaia Andres erreketiekin sartu zan Bartzelonan eta esan eutzien Arrasatera ez fateko. Galiziara bizitten fan zien.

39xan trenien sartu Zumarragaraño eta gero etxera. Etxia apurtuta eta eskerrak Mendikutek beste bat itzi euzkula bizitten fateko.

Ihesi fandakuen artien asko izan gitzen jaixo kanpuan jaixotakuak: Imanol Moreno, Andoni Axpe, Jose Riviere, Felisa Oroiz, Montse Jauregi, Jose Luis Arenaza, Begoña Ceciaga Cortazar... Neu.³⁹⁸

Claudia Cacho Gamazok Maria Luisa Garcia Cacho haurra izan zuen Murierasen, Santanderren. UGTko Sindikatu Metalurgikoko kidea zen. Esperanza Garay Albistegui Maria Consuelo Bolinaga Garay haurra izan zuen Mamersen Frantzian.

3 anai ginen gu, zaharrenak 12 urte zituen, nazionalak sartu aurretik Arrasatetik alde egin genuen amarekin. Haiek zekarten famarengatik beldur ginen. Intxorta erori zen arte Elorrioren egon ginen bizitzen baserri batean; guk ematen genuen laguntzaren ordainez jaten ematen ziguten. Gero, Iturrigorriara joan ginen (Bilboko auzoa); han janaria hasia zen urritzen; Bilbo erori aurretik Santanderra alde egin genuen, eta gure aitak Asturias aldera jarraitzen zuen bitartean, gure aldetik Lisieux-era (Toulouse-tik gertu) eraman gintuzten emakumezko eta haurrez betetako ontzi batean. Ia urtebetea egin genuen han, ez genuen ez janari eta ez arroparik falta izan, eta ikasten hasi ginen; amak etxe garbiketan lan egiten hasi behar izan zuen, baina nondik egun batetik bestera Kataluniatik itzuli gintuzten Olot-etik gertu; herri horretan babesa eman ziguten, hor gose gehiago pasatu beharra izan genuen, eta ez genuen ikasketarik egin; 15 egunez behin bidaltzen ziguten hornigaiarekin ezer gutxitarako iristen zen, eta Errepublikako Gobernuak ematen zigun diruarekin ezin genuen erosi ere egin, dendariak ez baitzuten gorrien dirurik nahi eta ez zioten inolako baliorik ematen; horregatik janaria "hartu" beharrean aurkitu ginen, zegoen lekuetatik, dendak, okindegiak, baratzak...

Berriro nazionalak gerturatzen hasi zirenean, Frantziarantz abiatu ginen gidari batzuekin; Pirinioak oinez igaro genituen; egunetan ibili behar izan genuen oinez, eta

jantzita aldean geneukana besterik gabe iritsi ginen.

Frantzian harrera ona egin ziguten. Berriro garbitasuna, eskola, janaria, arropa, eta abar... bagenuen, eta ama tailer txiki batean hasi zen lanean. Santanderrez geroztik gure aitaren berri ez genuen batere, eta gerra amaitu zenean ikusi ahal izan genuen berriro; Irunen itxoin zigun; elkartu ginenean gure aitak emozioz ezin izan zuen hitz egin ere, begira geratzen zitzaigun eta ez zuen ezer esaten. Arrasatera iritsi ginenean gure aitak beste etxebizitza bat bilatua zuen, lehen geneukanetik dena eraman baitziguten, eta eskubide guztiak galdua geneuzkan, errenteroak ginen eta. Egunetan egon ginen etxetik irten ere egin gabe, eskolara berriro hasi aurretik.

Bilbo eta Santanderko babesetan abestu ohi genuen abesti bat hau zen; letra honekin eta Martxa Errealaren musikarekin:

*Franco, Franco, que cara más estúpida
Que tienes tú,
Eres un criminal,
Bruto, asqueroso, alborno, animal,
A que no sabes tú, tocar la Marcha Real³⁹⁹*

Jesus Moreno

Gerra hasi zanienean aita Justo apuntau zan batallón Loyolan boluntarixoa eta ama Irene eta hiru anai arrebak Elorrixora fan gitzuan, han gazela Imanol jaixoa zan.

Azkenengo egunien kañonazuak egon zittuan 30etik gora, bat jauzi zuan plazan erdixen eta jabitzak pelotan Zabarte ('Arruza') eta beste batzuk. Hori ikusita bildurtu ein gitzuan eta Durangora fan gitzuan bizitten. Jose Ramon Bolinaga (Txorin) aitak topautako etxera, Doña Rosa Matuten etxera.

Gabitzak doktrinan, sartzen gitzuan goizeko 9etan eta 8 t'erdietan izeten zuan mezia. Itxoitten gauzela elizaren ondoan, doktrinara fateko 8 eta laurdenak aldera, kanpaiak jota jo hasi zittuan. Gizon batek obatu euskuan arreba eta bixok eta sartu gitzuan arko baten azpian, hasi zanienean bonbardeoa. Ikusi gaixuan dana, bonbardeoa tremendoa zuan, a zuan tristia desagradablea, jendia auxilio baten, hango ke beltza, polbora useina, astoak tripa kanpoan zittuela, ez euen aguantatzerik. Fan gitzuan Mañaria aldera, eta ametrallau eitten euskuen abioak,



Argazkia: Burdepeas herrian dago aterata. Irene Leibar, eta bere lau seme-alaba: Jesus, Imanol, Nati eta Erenia, bilbotar eta eibartar askokin. Jesus Morenok utzitakoa

balak jasoten euen lurra. Atsaldian berriz be bonbardeoa, Anbototik, biplano bat aurretik” el abuelo”, eta segidan beste zazpi abioi bonbak berriz bota eta buelta.

Ezkurdin pelotan abitzela Mondragoeko bat hil juen, Jose Aperribaien anaia eta beste bat. Elizan denak garbitu zittuan eta gure señoritoa Antonio be bai. Kanposantuan manta batekin tapauta han jauan hilda.

Gabez urten gitzuan kanbio baten Gernikara, eta bertako baserri baten gauzela, berriz be bonbardeoa, abioak Anbototik etorri zittuan, eta ordu erdi baten bonbak botatzen, Gernika guztia txikittu. Bonbardeoa eta ametrallau. Handik urten gitzuan Villaverde de Truciosera, Marques de Villaverden etxera. Bilbo hartzen jazan, eta gabe baten abioak bengala mordo bat bota zittuen, bixar bonbardeoa segurutik, eta irten gitzuan etxetik, eta Villaverde eta Karrantza artean euen tunel baten hiru egun egon gitzuan, baina bonbardeorik ez.

Beste egun baten atsaldeko bostak aldera, irten nitzuan etxetik marmitarekin begiratu naixuan frentera eta el abuelo eta beste zazpi abioi, eta dana soldauaz beteta, esan nauen “vienen 8 aviones”, bakarrik gelditu nitzuan, piñu haundi baten azpixon etzan nitzuan, eta bonbak

ondoan jausten, pelota bat bezela saltoka ibili nitzuan, eta dena odola lurrian, eskuetan, anketan, buruan. Balneario de Karrantzan kurak ein zuztien. Bonbardeo horretan Facundo Kortabarria eta Moises Agiriano oiezen kanbio bat apurtu juen.

Santanderren Jose Gorroñogoiak ein euskun papelak eta ama eta lau seme-alabak Elice Marie barkuan joan gitzuan. Burdeos en desenbarkoa. Gurekin zetozen Jose Antonio Ugarte (siete chaquetas) eta haren anaia Salvador (Frantzian hil zuan), Jose Ramon Etxebarria (Napoleon), Antonio Olazagoitia (plazeroena), Lauriano Letamendi, Elias Letona eta haren anaia. Eruen ginduen Montélimarko ‘Caserne Saint Martin’ kuartelera. Jazan patibuloak, silla elektrikoak, eta fusilatzekeo pareta egurrezkoa oso sendoa dena balakin beteta. Erenia arrebia dipteriakin oso txarto egon zan, eta aitaren ezer jakin barik.

Etorri gitzuan 1939ko udazkenian trenien eta bajau gitzuen jendia itxoitten, guk bolsak hartu bizkarrian eta etxera gatozela, “España si Rusia no” txilixo baten atzetik, margarita batzuk zien. Etxian hormak bakarrik topatu gauen.

Ama astero presentau bihar zan kuartelera. Quien es usted...y su marido. No sabemos nada. ¡Cuantos compañeros nos habrá matado! Ama ixilik entzun eta entzun. Eta despedida bezela Zorita guardiak esan euskun “¿Toda esta cañallada de hijos es de usted?”

Ez ginduen hartzen inun be gorrixak gitzelako, eta hamabi lagun jaten eta amandria bakarrik lanian, Zerrajerako nikelien, eta txurrerixia jarri gauen, denpora gutxirako, urunik eta olixoik ez euen emuten eta.

Nati arrebiek primera comuniona egin zauenien bazkaltzen gauzela aiten kartia eta bere anaia Tiburcio Moreno Jadraque Santoñan fusilatu zauela enteratu gitzuan.

Aita Zerrajeran presentau zan eta beretako lekuri ez euen. Asam-en hasi zan lanian.⁴⁰⁰

Imanol Moreno Leibar

Justo Moreno Jadraque aita, Irene Leibar ama eta Jesus, Nati eta Erenia anai arrebekin, Elorrixora fan zien. Neu, bertan jaixo nitzen 1936ko abenduaren 12an. Amak esaten zuzten, bi bonbardeuetan lehena Elorrixon eta gero Durangon, egon gitzela ni titixa hartzen eta abioak goixen bonbardietan. Aita gerran, gero Batallon de Trabajadoresen, guztira egon zan 7 urtien preso. Fumantxunien hasi zan lanien, eta gero Asamen.⁴⁰¹

Jose Menchaca Mancebo

Mancebo nire aitona-amonei “los churreros” esaten zieten. Erdiko kaleko 50. zenbakian bi beheko solairu eta etxebizitza bat zuten, eta Ferrerías kalean pisu bat eta azpian lokal bat. Erdiko kaleko 27. zenbakian, ostera, pastelak eta bestelako goxoak egiten zituzten txurro famatu haiekin batera, horregatik esaten zieten “los churreros”. Arrasatera itzuli ginenean, etxeak eta lokalak okupatuta zeuden, baina errenta udalari ordaintzen zioten. Hiru urtez ordaindu zizkioten errentak udalari eta guri ez ziguten ezer eman. Lokalak eta etxeak berreskuratu genituenean, pastelak eta txurroak egiteko tresneria guztia falta zen. Behin, bizilagun batek ama gonbidatu zuen kafea hartzera eta, hara non, zerbitzatu zuen baxera gure etxekoa zen. Beste bizilagun batek egun batean amari:” - Aizu, zure ahizpa Regina eta zure seme Miguelen argazki bat daukat.” Baina argazki hori komoda baten gainean zegoen.” Nor jabetu zen komoda hartaz? Beste bizilagun batek, ordea, egia esan zion: “- Maria nik koltxoi bat hartu nizun.⁴⁰²

Paquita García Vermande

Arrasaten jaio nintzen 1935eko apirilaren 9an.

Nire izena Francisca García Vermande da. Ezkontzean, senarraren abizena hartu nuen.

Gerra hasi zenean, aitak (Felipe García Lumbreras) gerrak denbora gutxi iraungo zuela esan zigun eta ihes egin genuen. Ama (Isabel García García), anaia (Agapito), ahizpa (Ángela), amona (Ángela Lumbreras Rodríguez), izeba Leoncia (García García) eta ni.

Aita Dragoien konpainiakoa zen eta trenbideko langilea zen. Horregatik etorri ziren Arrasatera, hemen lana zutelako. Langile moduan bizitza aurrera atera genezakeen, baina, ez gertatu zena.

Itsasontzi bateko bodegetan sartuta iritsi ginen Frantziara. Hasieran, Perpiñánen egon ginen, errefuxiatuentzako eremu batean.

Anaia, Agapito, muga zeharkatzen hil zen. Ángela, nire ahizpa, nirekin zegoen. Handik gutxira, Elgorriak jota hil zitzaidan ahizpa. Eta amari “senarra hilik duzu” esan zioten. Aita hilik, anaia hilik, ahizpa hilik. Zein emakumek jasan zezakeen horrelako egoera bat? Gaur egun, depresioak jota bazaude, badago zer



Francisca eta Ángela García García aizpak Frantzian, azken hau hil aurretik.



Valle de Lys aranean , Luchonen Frantzian 1939an : Isabel Garcia eta bere alaba Francisca, Leoncia García izeba, eta Angela Lumbreras amandrea.



Cándida Rodríguez Barbero eta Ángela Lumbreras Rodríguez.

egin, baina, orduan? Garai hartan bi aukera besterik ez ziren jaiki edo hil. Ez dakit amak nola jasan ahal zan zuen horrelako egoera bat. Oso gogorra izan zen guretzat.

Ziur nago mendira igotzea proposatu zigutela. Mendira, errefuxiatu guztiak eta haiekin zer egin ez zekiten gizonak bidaltzen zituzten tunelak eta antzeko lanak egitera. Gizon haiek kantina bat eduki behar zuten, non jan eta bestelako lanak egiteko leku bat, arropak garbitu adibidez. Orduan, gora, mendi hartara eraman gintuzten. Izeba, gaztetxo zela, zerbitzen jarri zuten, amak arropak garbitzen zituen, amonak platerak eta gauak pasatzeko nik txabola bat deitzen dudana eman ziguten. Baina, ez zen txabola bat. Mendian galduta zegoen etxe bat zen, neguan behiak gordetzeko erabiltzen zutena. Eta han egiten genuen lo. Nik irudi hau gogoratzen dut: tximinia handi bat zegoen. Horixe zen zegoen bakarra. Bazter batean esertzen nintzen sua begiratzera. Amak eta izebak lurrean egiten zuten lo, lastotan. Eta nik amonarekin baserritarrentzako ohe altu batean, arratoiak eta horrelakoak ez igotzeko. Gauetan, “muu” entzuten genuen. Ondo babestuta geunden. Goizetan, jaiki eta gure lanposturaino oinez joaten ginen.

Garai hartan, aitaren anai bat genuen Frantzian. Aspaldi joandakoa zen. Bere izena Juanillo García Lumbreras zen. Luchónen zegoen, Pirinioetan, La Haute-Garonne, Garona Goikoan. Orduan, nik uste, gu bilatzen hasi zen ama ere gurekin zuelako. Menditik jaitsi eta Luchóneherrira eraman gintuen berarekin. Mendian baino hobeto geunden. Goian hotz handia egiten zuen eta. Orduan, amak espainolen arropak garbitzen zituen. Pakete txikitari batzen zituen arropa garbiak eta larunbatetan hauen bila etortzen ziren. Egunez. lan egiten zuen, Luchónen Hotel handi bat zegoelako eta aleman aberatsak joaten zirelako. Eta arropak garbitu behar zituen, baina, orduan ez zegoen makinarik eta zegoen hotzarekin errekarara joan behar zuten arropak uretan eragitera. Amak horrela ateratzen zuen bizimodua.

Frantzia bitan banatuta zegoen. Goiko aldea ia Toulousearaino iristen zen. Beheko aldea zonalde librekoa zen. Pétainek Francoren lagunak eta Lavalek esan zien “hauek ez ditut gehiago nahi” – beheko aldekoak, errefuxiatuak- egizu nahi duzuna haiekin eta Alemaniara bidaltzen zituzten. Guk, errefuxiatuok, kalbario handia

sufritu dugu. Izan ere, espainolak banatu zituztenean batzuk Toulouseera joan ziren eta beste batzuk Montaubanera. Han, bildu egiten ziren, indarrak batu, zerbait egin zezaketen, guk ordea, hemen ahoa itxita eduki behar genen, ez gintuzten ezertarako nahi.

Fantziako alde horretan egotea ikaragarria izan zen. Gorago zeudenak batek besteak baino pixkat gehiago irabazten bazuen elkar laguntzen zuten, gun ordea, ezer ere ez, miseria, miseria eta miseria besterik ez genuen. Hotza. Gogoratzten dut, batzutean, neskato nintzela, aldamiok egiten zituzten eta gu gauetan joaten ginen eta utzitako egur zatiak batzen genituen apurtxo bat berotu ahal izateko. Ez guk ezta gurasoek ere ezin zuten ezer egin. Bederatzi urte bete arte ez nintzen inoiz eskolara joan Luchónen ez baikintuzten onartzen. Aurrerago, eskolara joaten ginenean Luchónen, edurra, hotza, urik gabe, argirik gabe, ezer gabe.

Gogoan dut behin amonarekin ilaran nengoela esne piska bat hartzeko emakume frantses batek amona urkatu nahi zuela haientzako esnerik ez zutelako eta gu han geundelako gurea hartzeko zai. Miseria handia izan zen. Ezin dezakezue imajinatu zer izan zen guretzako. Ziur nago amonak eta amak eurentzako zuten apurra ez zutela eurek jaten niri emateko. Amona ez zen oso zaharra 36an, baina, gazte zaharrak ziren. Bost seme-alaba zituen Zaharrena Frantziakoa zela uste dut, bigarrena, Arrasaten dauden nesken aita, gero nire aita, gero ez dakigun beste bat eta aitarekin batera fusilatu zuten beste bat.

Orduan ni, Cherbourgen, eskolara joan nintzen, baina, 14 urterekin azterketa bat gainditu nuen, izan nuen azterketa bakarra, eta dirurik ez zegoelako eskola utzi eta lanera joan behar izan nuen.

Gustioko nuen ikastea, baina, ezin izan nuen. Mendian geundenean ez genuen dirurik, ezin nuen gauetz kasi. Hau askoz lehenago izan zen, ni eskolara joatea nahi zutenez, baina, argirik ez genuenez, etxerako lanak usaina botatzen duten karburo argiekin egiten nituen. Udan, akaso, zertxobait gehiago egin ahal nuen.

Gogoan dut Luchónen geundenean, gizonak seme eta guzti utzita zituztelako nola esaten zidaten: Abestu Pakita abestu! Eta eurek abesten zutena kantatzen nuen nik ere, batzuetan tontakeriak. Bazegoen gustatzen zitzaidan bat, anarkisten kantua.


'Negras tormentas agitan los aires, nubes oscuras nos impiden ver, aunque nos esperen el dolor y la muerte...'
'Ezin dut.⁴⁰³

Mercedez Bolinaga Garay

Ni jaio nintzen 1931ko irailaren 24an. Bost urte ere ez neukan gerra hasi zenean. Arrasatetik irten genuen familia osoak, "Casanenak" esaten ziguten: Florentina Albistegui Leceta, gure amandrea; Esperanza Garay Albistegui, gure ama, nirekin eta gure ahizpa Rosario; gure aita, Guillermo Bolinaga Marcoida eta gure amaren neba-arrebak Toribia, Genoveva, Francisco eta Felix. Lehenengo egon ginen Elorrion.

Felix, 18 urte baino ez zeukala, gerrara joan zen eta frontean hil zuten. Gure osaba Patxi eta gure aita atxilotu egin zituzten.

Bitartean, emakumeok joan ginen Frantziara itsasontzi batean. Gogoan daukat zelan itsasontzian ematen zizkiguten gazta bola gorri batzuk jateko. Gure amak, haurdun iritsi baitzen, Mamers herrian ekarri zuen mundura gure ahizpa Maria Consuelo de Alis; jarri zioten erizainaren izena.



Florentina Albistegui Leceta, bere ilobekin: Rosario eta Mercedez Garay Albistegui.

Arrasatera iritsi ginenean, gure aita eta gure osaba Patxi preso hartuta zeuden. Ferrerías kaleko etxean ez geneukan ezer, dena kendu ziguten. Gure amaren lagun batek, Benita Zabarte, etxean hartu gintuen, Gazte-luondon, gure ama eta gure ahizpak. Ez geneukan ez dirurik ez lanik; horregatik, joaten ginen bazkaltzen eta afaltzen "Auxilio Social"era, plaza ondora, non gero Zabala zapatadenda egon zen; jana ematen zigun Romana Erañak. Gure amandrea, gure ama, haren ahizpa biak eta haren neba kalera bota zituzten Union Cerrajeran. Geroago ama eta gure izekoak lanean sartu ziren ELMAn, eta gure osaba Patxi Tijeras-en.

Gure amak kontatzen zidan kaletik joaten ginenean karlistek ulu egiten zigutela gorriak ginelako; nabarmentzen ziren "Pagoagatarrak" eta "Agirreurretatarrak".

Adrián Pinto Lorenzo

Adrián Pinto. Benito eta Baldomeraren semea. Morales de Toron jaio zen 1904ko martxoaren 27an. Jornalaria zen. 20. Hamarkada bukaeran emigratu zuen Arrasatera eta igeltsero lanetan aritu zen.

II. Errepublikan, UGT eta Alderdi Komunistan afiliatu zen. María Zubialdea Eguidónekín elkartu zen. María alarguna zen eta bost seme alaba zituen.

1936ko Kolpe Militarraren ondoren, Dragones Batailoian eman zuen izena. 32 urte zituen orduan. Neskalguna, María eta bere bost seme-alabak Bizkaira eramán zituzten. Handik, Santanderrera eta Santanderretik Frantziara.

Bilbo erori zenean, Adrianek lehenengo Santanderrera eta gero Asturiasera egin zuen atzera. Han, borrokan ziharduten indar errepublikarrekin batera borrokatu zuen. 1937ko urriaren 21ean, Asturiaseko La Felguera herrian, faxistek preso hartu eta Santanderreko Corbán kontzentrazio-esparrura eramán zuten. Aurrerago, Burgoseko San Pedro de Cardaña kontzentrazio-esparrura trasladatu zuten. 1938ko abuztuaren 28an, Fuente Saladara eramán zuten eta irailaren 4ean, Castellonera, Sector Montanera. 1938ko urriaren 20an, ihesaldi kolektibo batean, Peñascabiatik ihes egitea lortu zuen eta Lerro Errepublikarretara joan zen.

Madril erortzean, berriro hartu zuten preso. Erregimen diziplinario oso gogorra ezarri zioten Burgoseko Miranda de Ebro herriko kontzentrazio-esparruan. Nekea eta

goseak jota hil zen 1941eko otsailaren 2an. Hurrengo egunean lurperatu zuten Miranda de Ebroko hilerriko hobi komun batean. (José Maria del Palacio Alonsok emandako elkarrizketatik ateratako datuak).

Santiago Orobengoa Cacho

Erbesteari buruzko edozein historia urraketa, banaketa, ziurgabetasunaz... mintzo da. Sufri-mendua eragiten dio bidaia hasten duenari, baita geratzen denari ere. Santiago Orobengoa Cacho, arrasatearra, gerrako haur eta 17 urtez desagertua, horren guzti horren adibide garbia da.

Bere aita, Santiago Orobengoa Gomez (Gallarta, 1-05-1899), eta bere ama, Mari Paz Cacho Gamazo (Morales de Toro, 1-03-1903). Biak ala biak Arrasateko Union Cerrajerara lan egitera etorri ziren, Santiago 1924an 25 urte zituela, eta Mari Paz 1917an 14 urte zituela. Ezkontzean Zarugalde kalera bizitzera joan ziren, eta zenbait seme-alaba izan zituzten; lehenbizikoa, Santiago (1926), isuri bat sufritu zuen jaiotzean eta erabateko paralisia eragin zion. Ondoren, eta 1936ko gerra baino lehen, Felipa, Victor, Gloria eta Milagros (1935) jaio ziren. Azken honi esker, bizirik jarraitzen duen bakarra, historia honen berri dugu.

Kolpe militarra hastean, familia, ideia errepublikanoak



Santiago Orobengoa Cacho

zituen, Gallartara joan behar izan zen. Santiago Basurtuko erietxean ospitaleratua izan zen. Italiar-alemaniar abiazioak bonba asko bota zituen, egoera agoantaezina zen, eta ondorioz Santiago Frantziara eta ondoren Belgikara eraman zuten. Han ebakuntza batzuk egin zituzten baina bere egoerak ez zuen hobera egin. Bere izena zein zen galdetu ziotenean, Santi ez zen kapaz izan besteek bera ulertzea, eta ondorioz automatikoki Vicente Lopez bezala izendatu zuten.

Bitartean, Santiagok, aitak, langile-batailoi batean eman zituen zenbait urte. Handik itzultzean, bera eta Mari Paz neska-laguna ez ziren berriro onartuak izan Union Cerrajeran, ezta Mari Pazen ahizpak ere, Claudia eta Manuela. Santiago, Mari Paz eta Claudia ELMA n lan egiten hasi ziren, izan ere, enpresa honetan onartu egin zituzten UCEMetik kaleratutako pertsona ugari.

Gerra amaitzean, Santiago semea, Vicente Lopez bezala, Basurtuko ospitalera itzuli zuten, baina bere familiak ez zekien non zegoen. Horrela, 1945 urtean, soldadutzara aurkeztu ez zenez, Arrasateko Udalak desertore izendatu zuen.

1954an, bere aitaren lehengusu batek, kamioilaria zena, Bilboko 'Gaceta del Norte'n artikulua bat irakurri zuen, Basurtun ospitalizatutako mutiko baten inguruan, jatorri ezezaguneko, eta ustez, bere gurasoek jaso ez zutena gerra bukatzean. Historia horrek Santi gogorazten dio, eta ospitalean berarekin hitz egitea lortu zuen, ondorengo informazioa lortuz: "Espainiako apostoluaren izen berbera du, bere aita harakina zen, eta soilik gogoratzen du bere etxetik erreka bat ikusten zela". Datu horiek jakinda, kamioilariak ondorioztatu zuen haurra bere lehengusuaren semea zela. Izan ere, Arrasaten egotean, Santi ez zen kalera irteten, eta ikusi ohi zuen Zarugalde ondotik igarotzen zen erreka; gainera, Santiago aita, Sagastatarren harategira joan ohi zen – Monterron parean – txorizoak eta odolkiak egiten laguntzera.

Ordurako, Santiago Orobengoak bihotzeko gai bat zuen, eta badaezpada, aurkikuntza lehenbizi Claudiari kontatu zioten, eta honek aholkua eskatu zion On Calixto medikuari. Medikua gomendatu zien ezer ez esatea, eta belaxe jarri zen harremanetan Basurtuko ospitalearekin. Haraino Claudia eta Manuela joan ziren, eta haurra ikusi zutenean baieztatu zuten bera zela, eta ondokoa ziurtatu zuten: "ez da Vicente Lopez deitzen, Santiago Orobengoa baizik eta gure loba da".

Horrela, 'desagerturiko haurra' Arrasatera itzuli zen. Geroago Donostiako Matia Ospitalean ingresatu zuten, eta bertan hil zen 89 urte zituela. (Milagros Orobengoa, Santiagoren arreba emandako datuak).

Amparo Arenaza Velasco,

Arrasateetik ebakutzean, Elorriara joan ginean ama, Marina Velasco Alonso, ahizpak, Juana eta Margarita, aita, Eusebio Arenaza Uribechevarria eta ni. Casa Jaran egoten ginen. Gure aitak intendentzian egiten zuen lana. Bonbardatu egiten gintuztenean, hilerrira joaten ginen korrika eta panteoien azpian babesten ginen.

Gero Bilbora, eta handik, Santurtzira. Hainbat senitarteko Habana itsasontzian ontziratu ginen: Ni eta nire bi ahizpak Juana eta Margarita, Dominga Vlesco gure izeba (Bergaran bizi zen amaren ahizpa), eta bere hiru alabak, Beatriz, Esther eta Pilar. Frantziara eraman gintuzten. La Rochelera. Etxe partikular batean eman ziguten babesa. Madama oso atsegina zen eta oso ondo zaindu gintuzten.

Ama, Maurina (herrian, "la periodista" ezinenez ezagutzen zuten, Portaloian, beirak zituen egunkari kiosko bat zuelako) + Bartzelonara joan zen. Han jaio zen gure anaia José Mari 1937ko urriaren 7an.

Aita atxilotu eta Santoñako El Dueso espetxean kartzelaratu zuten.

Gerra amaitzean, Arrasatera itzuli ginen. Etxerik gabe aurkitu ginen.

Aita eta bere anaia Dingo ez zituzten berriro Unión Cerrajeran lanean hartu. Aita Asamen hasi zen lanean. Aita 1913an hasi zen lanean Unión Cerrajeran, 14 urte zituela. 32 urte zeramatzan lanean Elorriara ebakutu zuenean.

Ama itzultzean, kioskorik gabe arkitu zen. (Saltzen zuen prentsa "La Voz de Guipúzcoa" eta Gasteizeko "La Libertad" ez ziren argitaratzen Bigarren Errepublikaren aldekoak zirelako). Tokiona eta Garmendia tabernetan aritu zen sukaldari. (2021eko maiatzaren 19an Amparori egindako elkarrizketaren laburpena).

Carmen Domínguez Jiménez

Nik bi urte nituen gerra hasi zenean. Familia guztia atera ginen Arrasateetik Bizkaia aldera. Aita, Antonio Domínguez Gutiérrez, Dragones Batailoiarekin zegoen

matxinatuen aurka borrokatzen. Untzillan larriki zauritu ondoren hil zen.

Familiako gainontzeko kideak Frantziara ebakuatu ondoren, trenez, Kataluniara eramán gintuzten. Hona hemen, 1937an Bartzelonako probintzian, Medionan, geunden senideak: Ama, Demetria Jiménez Sánchez, 26 urtekoa, bere izeba, Concepción Domínguez Gutiérrez, 31 urtekoa 31, Elisa Gutiérrez Vicente 67 urtekoa, Dionisia Gutiérrez Vicente 65 urtekoa, nire amona aitaren aldetik eta aitona, Florentino Domínguez Revuelta 67 urtekoa, eta ni hiru urte bete berri.

Gerra amaitu eta herrira itzultzean ama ez zuten berriro Unión Cerrajeran lanean hartu eta urtebete baino gehiago egon zen lanik gabe. 1940o apirilean hartu zuten berriro lanera fabrika hartan. Nire izeba Concepción 1921etik han lanean egon izan arren, ez zuten berriro hartu eta Elman hasi behar izan zuen. Amona Dionisia ere 1917. urteaz geroztik zegoen han lanean, baina, hau ere ez zuten berriro hartu.

Luzía Etxabe Zubizarreta

1927an Arrasateko Garagarza auzoan jaio zen, baina txikitatik Soraluzen bizi izan da.

Aita, Ángel Etxabe Mendizabal, Aramaixokua zan eta Ama: María Zubizarreta Inurrategi, Eskoriatzakua. Anai arrebak: Mari Ángeles, José Mari, Luis ta Pedro Manuel. Aita, Mikeleten kabua zan ta ama etxeko lanak eitxen zitxun. Gerra aurretik erraz bizi ginan, lagunekin ibili, eskolara jua ta oso lasai bizi ginan. Herriko eskolan dana erderaz izaten zan.

Errepublikan orduan neukan nik sei bat urte eta akordatzen naiz orduan Caja de Ahorrosko etxia amaitzeke euan. Herrixan lehenengo zubixa zan fabrika kañoien onduan eta gu bizi giñan etxe kontran planta bajan. Sukaldian neuan amakin eta han sartzen da Eibartikan bizikleta sorbaldan bandera eta ezkerrekoakin "Viva la República" puñua jasotzen. Pixka bat arduratu nintzan. Gero aldamenekuak oso sozialistak zian eta esanoztan "chica tu madre tenía miedo y todo". Ondo gogoratzen naiz harekin gizon horrekin, Luis Larrea zan.

1936ko Irailean urten genduan Bizkaira aita etorri zan, Donostin euan gerrako lanetan. Han egon zian frentian, Frente Astigarragan uste dot. Handik etorri zan guri laguntzera, lagundu ozkuen gauzak gertatzen ta jun ginan.

Hiru anai arreba ihesian jun ginan. José Mari, Luis eta ni. Berriz, Ama, Maria Angeles zan nere ahizta nagusiena, hamalu urte eukan ta Manolo txikixak urtebete egitteko eukan, geratu zian etxian. Bilbora jun zian iheslari gehixenak. Gu Mungiarara jun giñan. Ta trena hartu eta Amorebietan jaitsi biaginara gero hartzeko Muxikan, autobusa hartzeko Mungiarako ta Mungian amaitxu genduan.

Ikusi genduan Gernika konpletamente sutan, bildur-garrixa. Hamar urte neukan. Abioiak pasatzen zian, gu zelai baten etzinda. Pixka bat beldurra emoten eban ta gabaz dana ikusten zan sutan. Mungiatikan Gallartara, hilabete ein genduan.

Aita Bilbon zebilen lanean intendentzian, zaintzak eta beste lan batzuk egiten, eta seme-alabak atzerrira bidaltzeko izena eman zuen. Luzia eta bere bi anai Inglaterrara bidali nahi zituen aita baina kupoa beteta zegoenez, Belgikarako lehenengoak geratu ziren. Santurtzira jua ginan, Margarita Murgizu eibartarra zan responsablia ta Habana barkuan Frantziara jua ginan, Cap Bretonera. Han pabelloi batzuetan hilebete egin ostean, Belgikara heldu ginan Amberesera. Oso familixa ona tokatu jaukun guri. Etxeko emakumea medikua zan eta gizona abokatua. Egon ginan etxe zoragarri baten, dana ona, kolegixo onak, ambientia etxekoa be eta jolasteko kuartua, etxe handixa. Gu bigarren pisuan geunden eta haiek lehenenguan. Eskolara joaten ginan autobusian. Zentro zentruan urtetzen ginan, Amberesen. Umetakuak teatro bat euki genduan nik dantza ein neban, poxpolin dantzán. Teatrua beteta.

Orduan gañera han euan jan dezaten dana, gero eskola onak, asteburu guztietan joaten giñan gehixenetan behintzat juaten giñan bere kanpo lekura txaleta eukan han, jolasteko leku handixak. Nik usteot hobeto ezin zeinke bizi, únicamente jente askok ezin zebala hori ikusi, obligau ein genduen etortzera. Kanpua urtebete baño gehixau.

Hona etortzeko trenian bueltau ginan Donostiara eta Donostian gaba pasa genduan. Etxe baten, itxuria frankistak, ez zebeñ jakingo nundik gentozen. Hurrengo egunian aita joan zan bila ta etorri ginan danok etxera.

Etxe berdina bueltau giñan, diputaziñoak zan eta anaia bizi izan zan gero han. Etxeko gauzak eruan eben. Ohe bat laga eben, arropia batez be eruan eben eta kubiartuak ere. Cuarto bat barrixa zana aizkorakaria

emonda. Tokau jatan behin neguan, plaza zaharrian geunden eta lagunak jolasten eta beste kale bateko bat eta bat ikusten dot guk geukan abrigua jantzita. Eta esan notzan lagun bateri franquista zana.

Ese abrigo es mío.

No digas bobadas.

Ese abrigo es mío y aquel también porque era uno de mi hermana y el otro mío. Y ese es el mío.

Puede haber abrigos iguales

Ta akordatzen naiz esan notzala – hasta el forro tiene donde tenía el mío.

Ba eskolan eskua jaso ein biazan kantau ein biazan hori “cara al sol”. Gainera, gu etorri ginan be radixuak esaten gezurretan. Ni entzunda neukan, Gernikakua “que habían bombardeado los rojos”, ¿nundik baña “los rojos?” ikusi genduan zeintzuk bonbardeau eben. Lotsagarrixa.

Belgikan egondako familixakin, despedida penaz baña gero asko idatzi genduan, berak be asko, harremana ez dogu galdu.

Jesús Barrutia Bidaburu

Arrasaten 1928an jaio nintzen. Aita Benantzio Barrutia, Garagatzako Perikoneko baserrikoa eta ama Maria Bidaburu, Garagartzza Mangena baserria. Anai zaharrena Modesto, Félix, arrebak Mari nere birkixa eta Arantxa jaio zana orduentxe 36an. Zorjin kalean bizi gitzen aita Cerrajeran eitten zauen lana Zigarrolan Zerran. Gerra denboran danok Bizkaixen egon gitzuan. Hiru familixa Bizkaitxen ibili gitzuan guk. Bestiok frankistak sartu aurretik, gurasoak alde eittea pentsau juen, guk bots anai arreba aita eta ama, Santos lengusua gurekin batera Garagarzara juan zuan, Eustaquiaren arrimoen Manguenera eta guk aita eta ama jaixotako baserrietara. Gurekin batera egon zien, nere amaren aitzia Justa Bidaburu eta bere senarra Félix Abarrategi, Ibarluzekoa, hiru ume txikitsekin. Perikonetik Andres, Luisa, Bizente eta Balbina alde egin eben, Garagartzatik beste baserrikakoak alde egin eben, Tampokonak, Jaiberrekoak, Korriona, Barrutikuak eta Dixenakua be bai.

1937ko ofensibia hasi zanerako Garagartzatik alde eittuan Karraskain baserriraino, egun batzuk astebete ta handik Arrazolara, dana oinez. Karraskainen jaukien

ardixak, nere aitak pentsau jokuan egun bateko gauza zala eta bixar edo etzi ekarri einbierkojuau, eta nere aita eta Modesto nere anaia arditsekin Bizkaiko azkenengo herriraino Enkarterriraino juan zittuan. Guk berriz Larraskituraino. Hara allegaiteko egon gitzuan bidean Larrabetzun eta Lezaman.

Larraskitun tokau jakun ikustea italianoak tanqueta txiki batzuekin handik menditik zelan Bilbora sartu zien, eta Artxandako gerra denporan hango tiroak eta gorabeherak guk Larraskitutik pare parian gingozen eta ikusten gittuen dana.

Bestiok sartu zienean, ostera bueltan, bidez bidez, burdixa beixakin ta arditsekin, Mondraura. Garagarzara allegau gitsuan 1937ko San Juan egunean. Zorjin kantoiko etxea bonba bat bota juen bertara eta dena apurtuta gelditu zan.

Bueltan etorri gitsenien aita preso Ondarretako espetxera eta bere koinetoa Félix, ez zan egon Ondarretan, Añorgara (Zapatari) eraman zauien. Aita ixa bi urte egin eben kartzelan, eta bitartean ama Perikona eta Mangen baserriko lanetan, denbora gogorak gure gurasoendako.

Jesús Cortabarría Lasarguren

Gerra hastean, nire anaia José eta Félix Amaiur baitailoian sartu ziren. 1937ko urtarrilean, neu boluntario sartu nintzen, Pedro Zubizarreta, Eugenio Guridi eta Luis Badiola lagunekin batera Kirikiño baitailoian.

1937ko abuztuan Puenterronen hartu gintuzten preso, Santanderreko probintzian, eta Castro Urdialesera eraman gintuzten. Han 20 egun egoten gara deklarazioa hartzeko zain. Jarraian, Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura eramango gaituzte. Bi aste igarota 76 zk. langile-baitailoira eramaten gaituzte. Bertan daude Manuel Gallastegui Elejalde, Sabin Garay Arregui eta Luis Barrutiabengoa guztiak Arrasatekoak.

Sigüenzako gazteluan bi astez pasauta gero, eskoltak heldu eta frontera eraman gintuzten Guadalajarara, Espinosa de Henares, Carrascosa de Henares eta Cogolludora, non bederatzi hilabete egon giñen errepideak eraikitzen eta gotorlekuak egiten.

1938. urtearen hasieran Extremadurara bidali gintuzten, zehazki Badajozeko Casa de Don Pedrorra, non ezkur asko zeuden, eta ez hain zuzen txerrientzat.

1939ko hasieran, Madrilgo frontera eraman gintuzten,

eta gerra 1939ko apirilean amaitu bazen ere, irailera arte Villaverde de Abajo eta Paseo de las Acacias garbiketa-lanak egiten, lantegi batean kontzentratuta egon giñen.

1939ko irailean Errenteriarra, errepideak eraikitzen jarraitu genuen, zehazki Oiarzungo (Arkalen). Azkenean 1940ko apirilean askatu gintuzten.

Etxera iritsi eta 1941eko irailean berriro atxilotu eta Lesakara eta Aiako Harrietara eraman gintuzten, bertan, 1943ra arte egon ginen.

Franco ohartu zenean alemaniarrek mundu-gerra galtzen ari zirela, kontzentrazio-esparruak desegin zituen.

Epe hori amaituta, Arrasateko zigortuta goaz Espainiako Armadara. 1943ko azaroan Ferrol del Caudillo-ra bidali gintuzten, eta han lau hilabete egon ginen, baina nola langileen batailoiko "indeseables" giñelako, ez gintuzten nahi. Horregatik, Almeriara eraman gintuzten, 1944ko uztailera arte, eta azkenean askatu eta herrira itzuli ginen.

Bidaia honen ondoren, etxera iritsi ginen salbu, baina ezin esan osasun onarekin.

Nikolas Uriarte Zeberioaren eskutitza

Baionan, 1940ko abuztuaren 5ean

ARRASATEKO (Gipuzkoa, Espainia) alkate-lehendakari jauna.

Jaun agurgarria:

Ni, idazten ari natzaizuna, une honetan errefuxiatu

bat naiz Frantzian, Espainiako gerraren ondorioz, eta gerra zibil hori hasi zenean orain zuk duzun kargu berbera zuena, hain zuzen; Arrasateko alkatea, alegia. Datu horiekin ez dut uste oso zaila izango zaizunik nor nauzun jakitea: Nikolas Uriarte Zeberio.

Zuri zuzentzen natzaizu kontu bat kitatzeko, zeina zuzenean ez badagokio ere Arrasateko Udalari, zeharka dagokio zuren agindu barrutiari.

Hona hemen arrazoia:

Gerra zibila hasi zenean, probintzia horretako beste herrietan bezalaxe, hornidura batzorde bat antolatu zen, udaletxearen babespean zegoena; herriko alkate nintzenez, idazten dudan honi beroni zegokidan batzorde horren burutza; horren xedea zen, uste dut gogoan izango duzula, herriaren hornidura ziurtatzea hain zuzen, eta batzorde hori arduratzen zen premiazko artikuluen handizkako erosketaz eta salmentaz, eta salneurrien kontrolaz.


Batzorde horrek bazuen bere diru ondarea, egin behar ziren operazioetarako erabiltzen zuena; eta horren administratzailea Don Kruz Madinabeitia udal enplegatua zen.

Franco jeneralaren tropak bazetozela eta gure herritik alde egiteko ordua iritsia zenez, Don Kruz Madinabeitia aipatu enplegatuari eskatu nion batzordeak zuen ekonomia ondarea udal diruzaintzari emateko, eta nire batzordekideen akordioz, neuk hartu nuen ondare horren kargua, egunen batean garaia iristen bazen, hornitzaileei ondare horren kontu zorrotza emateko.

Diru hori ardura latza izan da uneoro niretzat. Bere garaian herritik alde egindako udal agintariak udalen



Nicolás Uriarte Ceberio Baionan erbestean



Nicolás Uriarteren elbarritasunak

ekonomia ondareak orduko Euskadiko Jaurlaritzaren ogasunari ematera behartu zituztenean, ondare horiek ez zirela hartarako eman behar defenditu nuen nik, erakunde autonomo batenak zirela eta, horrenbestez edozein unetan bere hornitzaileei kontu eman beharra izango zuela, eta gure iritzian berriro oso epe laburrean herriratuko ginenez, ondare hori dirutan edukitzea komenigarria eta ia beharrezkoa zitzaigula, sortuko ziren premiei erantzun ahal izateko.

Berriro herriratu ordez, badakizu zuk, urrutiratu beharra izan genuen, diru hori diru sakratua bezala beti aldean neramala, eta nahiz eta behin baino gehiagotan utzi behar izan nituen neureak nituen gauza eta ondareak, kontu handia izan nuen diru hauxe behintzat ez uzteko, honek balio handia baitzuen, itzuli beharra hain zuzen. Egoera horretan nengoela, beraz, hegazkin batek jaurtitako bonbak zauriturik, eta zauri haien ondorioz beso bat moztu beharra izan zidatelarik, Frantziara atera ninduten nire familiartekoekin, eta hona ekarri nuen dirua.

Hona iritsi orduko, lehenengo hilabeteetan oso egun garratzak igaro beharra izan nuen, aurkitzen nintzen egoera hain eskas eta larriagatik eta oraindik nituen zauritatik sendatzeko behar nuen janaria ez nuelako, baina hala eta guztiz ere ez zitzaidan ezta burutik pasatu ere sekula inoiz, niretzako arriskua besterik ez ziren milaka pezeta horiek aldetik kentzea, eta franko bihurtzea, garai hartan ia parean kotizatzen baitzen; eta nahiz eta nire ekonomia egoeragatik, ordura arte nire saminaren gozagarri izan nuen nire familiarengandik apartatu beharra izan banuen ere, inoiz ez zitzaidan burutik pasatu ere, inoiz ez berriro diot, nirea ez nuen diru horrez aprobetxatzea, zeren nahiz eta edozein gizonek dituen bezala neuk ere nire bizitzan akatsak izan badituzten ere, ondradu izatea baita eta izango da bizitzak irauten didan guztian bizitza gidatzen didan iparra.

Beti erabili izan dudana pentsakizuna izan da diru hori Arrasateko Udaletxera neuk eraman eta neuk ematea han. Geroztik, ordea, gerra galdurik, niretzako fidagarria izango zen pertsonaren baten bitartez bidaltzea ere pentsatu izan dut. Ez dut lortu, ordea, zeren ahalegindu naizen guztietan, proposatzen nienek ez zuten nahi izaten, zeregin hori arriskutzat hartzen baitzuten, eta oraintxe ditudan asmoekin, Ameriketara joatekoa bainaz, nire eskuetan dudana diru hau itzuli egin nahi dut; eta Espainiak Baionan duen kontsularen eskuetan uzten dut horretarako. 1936ko irail hartan Don Kruz

Madinabeitia udaletxeko enplegatu zintzoak eskura eman zizkidan diru berberak dira.

Xehetasunetan ikusiko duzunez, Gipuzkoako Aurrezki Kutxari Santanderren, eta Arrasateko udaletxearen izenean, 5.400 pezeta emanaren frogagiri bat bidaltzen dizut, egin beharra izan bainuen besteak salbatuko bantuen; horrekin eta Espainiako Bankuko diruetan bidaltzen dizkizudan 33.700 pezetekin, 39.100 pezetako kopurua osatzen dute, niri bere garaian eman zizkidan guztiak, ken lehenengo errezioban bertan jasotzen diren zenbait gastu txiki, Don Agustin Aranburu udal diruzainak eginak; hori ere honekin batera bidaltzen dizut.

Zeuk erabakiko duzu beste inork baino hobeto bidaltzen dizudan diru kopuru hori zertan erabili, zeren egia bada ere faktura batzuk ordainkizun geratu zirela, Madinabeitia jaunaren eskuetan utzi zirenak, ez dut uste, ez eta gutxiagorik ere, bidaltzen dizudan kopuru hau adinakoak izango direnik.

Honekin batera, beraz, eta bidaltzen dizudan diru kopuru honen hartu adierazpena bidali diezadazun eskatzeko, agurtzen zaitut adeitasunez. Sinatzen du:

Nikolas Uriartek

Atanasio Casado Fernandez

Atanasio Casado Fernandez. UGTko afiliatua eta Unión Cerrajerako langilea. Faxistak sartu aurretik joan zen Arrasateetik, Ismael eta Crescencio anaiekin batera.

Atanasio eta Ismael anaia Dragones Batailoian sartu ziren. Ismael Intxortako borroketan hil zuten. Atanasiok Asturiasera iritsi arte jarraitu zuen. Gijonen atxilotu zuten 1937ko urriaren 21ean bertako zezen plazan. 3 urte eta 8 hilabetez eduki zuten kartzelan eta langile batailoietan. Gijonetik Santonara eraman zuten, institutura. Handik Iruñara, Mesedetako eskolara, gero San Pedro de Cardenara Burgosera. Aurrerago, Toledoko Manzanedo Institutura eta Cigarralera eraman zuten. Handik, Bilbora berriro, Deustu eta Lezamako unibertsitateetara, eta hemendik, berriro ere, Miranda de Ebrora. Miranda de Ebrotik Palma de Mallorcara eraman zuten. Han askatu zuten, 1941eko ekainean.

Arrasatera itzuli zenean, ez zuten deitu berriro Cerrajeran lan egiteko 1943ko urriaren 31ra arte, herrira itzuli eta bi urte eta erdi geroago.

Valentin Ruiz de Alegria Corcostegi

Hemen dugun testigantzak Valentin Ruiz de Alegria Korkostegiren bizipenak jasotzen ditu. 10 urte zituela hasi zen lanean Unión Cerrajeran. 1936an alde egin zuen herritik, familiarekin batera. Santandertik Frantziara joan ziren, eta handik Kataluniara. Ez ziren Arrasatera itzuli 1939ko martxora arte. Arrasatera itzultzean, Guardia Zibilaren koartelera deitu zuten. Zubizarreta guardiak belarrondoko bat eman zion kalean eta gero, Bergarako kartzelara eraman zuten. Inolako akusaziorik gabe, hilabetez izan zuten Bergarako kartzelan. Valentinen bi seme, Pedro eta Francisco, gerran hil zituzten eta hirugarrena, Tomas, preso zegoen orduan.

Ez zuten Cerrajeran onartu, nahiz eta 48 urtez hango langile izan. Etxe txikiak eraiki zirenetik bertan bizi izandakoak baziren ere, etxe gabe geratu ziren, etxe haiek Cerrajerako langileentzat baitziren. Frankisten sindikatura joan zen, baina han, herrian gaizki ikusia zegoela eta gutxienez 40 kilometrora joateko esan zioten. Gauzak horrela, 60 urterekin, Eibarrera joan behar izan zuen lanera.

Eusebio Menchaca Turiel

Nere amamaren Pilarren anaia zan. Eusebio, Arrasatetik joan zan bizitzera Corrales de Buelnara, Santanderrera. Alderdi komunistakoa (PCE). Gerran Frente Popularreko batailoi bateko kapitaina izan zan, preso hartu eta Santoñako kartzelan fusilatu zuten.

Jose Mari Arsuaga Menchaca nere aita, eta bere aizpa Margarita, Concha Menchaca Turiel nere amaren aizparekin joan zien ihesi, lehenengo Corrales de Buelnara eta gero ontzi batean Frantziara.⁴⁰⁴

Fermin Balanzategui Zubizarreta

Arrasaten jaio zen 1920ko uztailearen 7an. 16 urte zituen bere sorterritik ihes egin behar izan zuenean. Bere aitak, Tomas Balanzategui Ugalde 'Ezkerra' (51 urte), Juan Bautista Azcárate 'Mondragonés' pilotariaren antzeko maila zuena, Unión Cerrajeran lan egiten zuen, eta bertatik kaleratua izan zen bere Jesús 'Clavel' semearekin batera. Bere ama, Antonia Zubizarreta Zuazua (50 urte) herrian geratu zen familiako bakarra izan zen, eta errepresio faxistaren jomugan egon zen: ilea zerora moztu zioten, errizino-olioa edanarazi zioten, eta bera eraman arazi zuten plazara (milizianoen eta

gudarien beste aita-amen artean) 1936ko abenduan abiazio errepublikarraren bonbardaketan.

Bere senar Tomás alabekin eta semeekin batera herritik joan ziren altxamendukoek herrira sartu aurretik: Casilda (25 urte), Jesús (24 urte), Concepción (23 urte), Isabel (20 urte), Luis (19 urte) eta Carmelo (17 urte). Hiru anai (Jesús, Luis eta Carmelo) faxismoaren aurkako erresistentziarekin bat egin zuten, Dragones batailoian. Luis eta Carmelo izan ezik, besteek Frantziara igaro zuten, ondoren Kataluniara eta ostean berriro Frantziara. Casilda eta Isabel Hendaian geratu ziren. Jesús bi kontzentrazio eremu frantziarretik igaro zen, Argèles-Sur-Mer eta Gurs. Luis 1937ko abuztuaren 26an atxilotu zuten Santanderren, eta ez zen aske geratu 1943ko abenduaren 24ra arte. Carmelo atxilotua izan zen eta altxamenduekoekin bat egitera behartu zuten, itota hil zen. Conchita, Arrasatera itzultzean, gai izan zen Guillermo Lasagabasterren semea, Fermín, Hondarribitik klandestinoki Iparraldera igarotzera. Jesussek bere burua entregatu zuen Irunen 1940ko abenduaren 24an, eta Mirandako kontzentrazio eremutik igaro ostean, Madrilera bidali zuten, 169 zenbakidun langileen batailoira. Itzultzean, Arrasateko Alderdi Komunistaren Batzordeko militante klandestinoetako bat izan zen.

Fermin Balanzategi (16 urte zituela) Frantziara eba-kuatutako haurretako bat izan zen. Gerra amaitu ostean, 1939an, bere burua Irunen aurkeztu zuen (19 urterekin) eta atxilotu zuten. Miranda eta San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparruetara eraman zuten. Klasifikatua izan ostean, langileen 105 batailoira bidali zuten, hirugarren konpainia, 1939ko urriaren 22an.

Gerra amaitzean, diktadura frankista Iparraldetik balizko inbasio baten beldur zen. Horregatik hasi zuen (1939 eta 1940an) errepideak eta elementu defentsiboak eraikitzen, bunkerrak esaterako, ametrailadore nidoak, behatokiak,... Nafar Pirinioetan. Fermin langile esklabuetako bat izan zen. Bere batailoia Etxalarko Palomeras-en zegoela, 1940ko urtarrilaren 29an, ihes egin zuen beste hiru lagunekin batera, Juan Romera Garcia, Jose Carbo Escorihuela eta Siro Some Some, eta muga gurutzatu zuten. Fermin Gurs-eko kontzentrazio eremuan sartu zuten, eta Langile Atzerritarren Konpainian lanean hasi zen (Service Travail Obligatoire), beste behin derrigortutako lanetan, hasieran kontzentrazio-eremuaren beraren mantentze lanetan, eta ondoren, bigarren mundu gerran, Bordele inguruan nazien alde,

“Rostpanier” bezala (hala deitzen zieten naziek beraiantzat lan egin zuten errepublikanoei). Atlantikoko Muruaren eraikuntzan izan zen. Aliatuek Frantzia lehorreratu baino lehen, gai izan zen egiten zituzten obren inguruko informazioa Ipar Amerikako Zerbitzu Estrategikoen Bulegoari bidaltzeko. Bere espioitza lana saritua izan zen 1944ko urrian, David Kirkpatrik Este Bruce Koronelaren aldetik, zerbitzu amerikarreko burua, Frantzia askatzeko egindako lanak aitortuz. 1945eko azaroaren 12an, azkenik, Langile Atzerritarren Konpainiatik askatu zuten, eta Tolosara (Okzitania) joan zen, Alderdi Sozialistako eta UGTko kide arrasatearrekin batera.

Han gerrako beste haur bat ezagutu zuen, Sestaokoa, Frantziara Habana itsasontzian ere etorritakoa. Dorita Rodriguez zen; Bordelen ezkondu ziren (1946) eta horren lekuko izan zen Arrasateko beste erbesteratu bat, Jesus Trincado Baños. 1948an Tolosan euren semea jaio zen, Carmelo. Fermin eta Jesus Uruguaira erbestertzeko dokumentazioa prestatzen hasi ziren, baina 1949ko abenduan Fermin hil zen. Bere heriotza bizitako gorabehera guztien ondorio izan zen, 13 urte lehenago Arrasatetik irten zenetik izandako gorabehera guztien ondorio. Dorita (emaztea) eta Carmelo (semea) Hendaiaira joan ziren, bertan Casilda eta Isabel bizi zirelako (koinata eta izeba). Eurek guztiek kolaboratu egin zuten nazismoaren aurkako erresistentziarekin lehenik eta Francoren kontra ondoren. Pertsona hauek izan ziren Celestino Uriarte lagundu zutenak, Martutuneko kartzelatik ihes egin ostean, Bidasoa zeharkatu zuenean. Hendaian bizi da orduetik, eta bertan Carmelo Balanzategi Rodriguez elkarrizketatu dugu.

Ander Barrutia Zuazubiskar

Ander Barrutia Zuazubiskarri egin gutsen elkarrizketie, Baionan, Avenue Maréchal Soult 103 zenbakixen 2004ko apirilien, 19xen. Orduen 90 urte euken ta lau hilebete geruau hil zan 2004ko irailien, 26xen. 68 urte lenau faxistak Arrasaten sartu ziela urteurrenien:

Garagartza auzuen jaio nitzen 1913ko irailien, 4en, eta oin 90 urte dauket. Perikuena baserriko gazteena nitzen, nere aurretik Juan Jose, Maria, Balbina, Benantzio, Vicente, Timotea, Francisca, Agustina eta Luisa azen. Gerra hasi baino lehen oinetan ebai sakona neuken eta guztiz osatu gabe gerran STVkoekin Isus-

kitzara egunez goardiak egiten joaten gitzen. Gero Untzillaraino gauzez oinez etorri gitzen baina belauna haunditxuta neroien eta ezin nitzen ibili eta handik anaiak astoaren gainean Santagerako medikoarengana eramane nindduen Victoriano Balerdirengana. Geroago falangistak fusilatua. Gerra aurretik Timotea Frantziara eta Francisca eta Agustina moja fanda azen.

Faxistak baetozela eta baseritik ihesi Bizkai aldera joan gitzen, Benanzio bere emazte eta bost semeekin, Luisa, Bizente eta neu. Bizente eta biok Amaiur batailoian boluntario sartu gitzen. Luisa erizain ibili zan. Benanzio senideekin berriz poliki poliki Bilborano joan zien behiak eta ardiekin.

Amaiur batailoian zauritu nindduten, Solluben, maizatzen 3en. Algortako ospittelera, Arriluze txaleta zan. Gero, Santanderrera Magdalena ospittelera; Casimiro Labajos, Arrasateko medikue, han euen. Tribunal pasau nauen, “inutile” nitzela gerrarako ta Frantziara juen biher nitzela, eruen nindduten Mieresera, ta handik Gijonera, hantxe “de txiripa” barko ingles baten sartu gitzen ta hiru egunien itsasuen Burdeosera. Bañe trenien ipini ginnduen ta Bartzelonara hogeitamar gerra mutilatu lelengo San Pablo ospittelera, handik Bañolasera ta gero Castellonera, Gabonetan, han gengozela hilebeteak ezer kobrau barik, barriro Bartzelonara. Ministerio de Sanidadekuengana. Bertako medikue ezaune zan, Lopez bilbotarra, Santagerara etorten zana. Hiru atzamarrak konpletamente hildde neuken, esan euzten “aquí tienes operación”; operaute gero masaje elektriko mordue hartu nauen, barriro tribunal medikuen rebiziñue, ta % 83 inkapazidadie emun eustien.

Fusille hartzeko gauze ez nitzela ta Sarrian garaje baten guardiak eitten egon nitzen. Kataluñaren ebaquaziñuen orduen kamio baten Pirineuetaraño, frontierie mendittik igaro gauen, bañe zelan ez geunken papelik, barriro trenien Kataluñara, trenetik guardiakin kanpo batera goiexela bonbardeue, atarte baten sartu gitzen, ta barriro be Frantziara, oinguen Saint Cyprien ondartzara, zelako gaizki errezibiru ginnduen Frantzia, hogei egun arei gañien lo eitten manta batekin, ta jana prestatzeko itosoko uraz, ha kanpo konzentraziñue baño txarraue zan. Bergarako batek esan eusten heuk ez daukak arrebria San Juan de Luzen ezkonduete, ba bai, ba idatziñok karta bat, koñetue etorri zan bertara bañe prefekturan baimena biozu ta urrengo egunien Sétera kombento batera eruen nindduen, (1939ko otsailien, 24en).




Elbarrien karneta



ELA-STVko karneta



Luisa Barrutiaren euskal karneta



Luisa Barrutia La Roseraie-en



Aliatuen aldeko sare bateko kideen argazki oina

Ezkerretik eskuinera zutik:
 Guillermo Andikoetxea, Sorne Unzueta, Leizaola, (Errazti Unzueta ren semeek inguratuta) Matias Eguren, Hipólito Etxepare, Manuel Muñoz, Leonardo Aguirrebeitia, Bustintza, Mateo X, y Jesús Aizarna.
Makurtuta;
 Arrayet, Justo X, Gabino Bustintza, Luisa Barrutia, J. Esturo, Ander Barrutia, Anastasio Esturo eta Guillermo Beaskoetxea

La Roseraieko ospittelien, Bidarte-Ilbarrizera 1939ko abuztuaren 26xen sartu hauen.

Bigarren gerra mundiala hasi zanienez Tarbesko lantegi baten lanien hasi nitzen (1939ko azaruaren 10ien) obusak eitzen, diziplina haundixe euen, 10 ordu egunero ta 15 egunien domeka bat bakarrik libre. Bertan beste bi mondrautarrekin, Jesus Mendizabal ta Andoni Zubizarretakin, etxe bat alokari gauen. (Hirurak gerrako mutilatuak ziren). Lanien ibili gizen alemanak Frantzia hartu arte, 1940ko ekainera arte. Handik udan Pirineosetan La Mongien, Tourmalet inguruan, konpañia bat errefuxiatuena euen arbolak botaten, ta zelan inok ez ekixen idixekin lanien, bost pare idixekin ibili nitzen, beste mondrautar bat Pedro Gallastegui hau "Londres" bertan ebilen lanien ta haren emaztie (Leonor Martinez Solabarrieta) ta koñetie sukaldari. Han geixotu nitzen odola txixen, kalkuluek neuken.

Alemanen denboran enlazie izen nitzen, Mont de Marsanen irrati klasdestinue gurie ipiñi auien, neuk horrako informiek pasetan ibili nitzen, Inghaterrara bielketako. Leizaola profesore ebilen(bera zen burua) Betharranen Lourdes aldien, Robles Aranguiz ta Heliodoro de la Torre Lourdesen. Errasti banku bateko direktoria ta haren emaztie Sorne Unzueta maistrerie ta partiduko oradorie...

Bere espioitza lana saritua izan zen 1944ko urrian, David Kirkpatrik Este Bruce Koronelaren aldetik, zerbitzu amerikarreko burua, Frantzia askatzeko egindako lanak aitortuz.

Beste mondrautar batzuk erbesteratuta ezautu nittuenak Felix Ugalde "Pelli", Nicolas Uriarte, Gabriel Goitia, Likiniano (Eskoriatzan jaiotakue), Salvador Laspiur "Kanpazar" (oso lagun haundixe), Marcelo Vitoria, ta Alejandro Echevarria, "Panaderixakue". Hau Lande-setako emakume batekin ezkondu zan, ta panaderixie jarri euien, bañe alemanak andrie hil euien. Alejandro Baionan txofer hasi zan, ta gero Parisera juen zan, garbitasunek eitteko kamioekin txofer ibili zan, bere barri geixau ez nauen izen. Bergarakuak Kiko ta Murrumendiaratz.

Alemanak urten auienien hasi nitzen lanien Euskal Gobernuarentzat Baionan. Nire emaztie, barrez, Mari Gorostiza Pomposo, 1947xen Aldudestik klandestinoki muga zeharkatu euen. 1950ien ezautu nauen ta urtebete geruau ezkondu gizen, Villa Antonietten hiru seme-alabak jaixo zien ta 1957xen Villa Izarrara pasau



Parrokiako plaka

gizen. Hor etxe bixetan alderdiko EBBko batzarrak egiten zien, bertan bizi gizen, Ajuriagerra ta Don Iñaki Unzueta askotan izaten zien bertan. Alderdiaren artxibue euen Villa Antonietten ta gero Villa Izarrara pasau gitzenien Parisko Euskal Gobernuaren artxibue be ekarri euen bertara, dokumentu ta liburu tonelada asko.

1992xen uztailaren 20xen, zortzi kontainer ta bi mila kutxa baño geixauko dokumentuek Villa Izarratik eruen zien Arteara, Sabino Arana Fundaziora. Maria ta Ander lau hamarkadetan artxibo horren zaintzailiek izen zien.

Bilbo jausi ta gero, Benantzio herrire etorri zanienez 1937ko sanjuanetan, atxilotu ta Ondarretako kartzelara eruen euien, bertan egon zan 1939ko urtarrilerarte. Luisa, barrez, Iparraldera ihesi joan zan eta erizaiñ ebillela La Roseraieko ospittelien ezautu euen Tasio Esturo gudarien kapitana, 1937ko apirilien Elgetako borroketan zauritu euiena. Maittemindurik erabaki euien Tarbesen ezkontzea. Bizente, barrez, Santoñan 1937ko abuztuaren 26xen preso hartu euien ta 25 zenbakiko Langile batailoien lan esklaboetan urtietan ibili zan. Maria beste arrebaren senarra Valentin Bidaburu (Garagatzako Sakristaua) be langile batailoietara eruen euien.

La Roseraie ospitalean, Bidarte-Ilbarritzen, Andrés Barrutia, Antonio Zubizarreta eta Jesús Mendizabal gerrako mutilatuek gain, han egon ziren ere, José



Unión Cerrajerako buru, Ricardo Oreja (kontseilari-ordezkaria), Añibarro (pertsonal burua) eta Basterretxea (zuzendari teknikoa), mitin batean, 1939ko uztailaren 18an.

Ortuoste, Joaquín Pereira, Andrés Garate eta Nicolás Uriarte Ceberio, Timotea Barrutia, Felisa Gorosabel eta Pilar Liquiniano.

Bilbotik Presoak Iritsi

Bilbo erori zenean, 11 hilabetez errepublikanoen eskuetan preso egon ondoren, altxamenduaren hasieran atxilotu zituzten 96 karlistak Arrasatera itzuli ziren berriro. 1937ko uztailaren 18a zen. 1936ko urrirako Celestino Uriartek gutun bat bidalia zuen Arrasatera, eta esan eta agindu zuen beraiek Bilbon preso zituztenei ez zitzaizela ezer gertatuko, eta besteek ere berdín jokatzeke.

Karlistek ez zuten zegokiena egin, eta hori gauza jakina zen Bilbon; hala eta guztiz ere, atxilo zeuden karlisten kontra ez zen inolako errepresaliarik egin. Gudari zahar batek zioen bezala *defentsarik ez duten presoak ez dira hiltzen*.

Bilbotik iritsi zirenak Espainiako zaldun izendatu zituzten. 1937ko uztailaren 25ean, tradizionalisten jaiari ospakizun bat izan zen eta bertan hitz egin zuten Antonio Pagoagak, atxilotuen ordezkari bezala, eta bestetik Prudenzió Iraeta eta Felix Landak. Domingo Arzamendik, FET eta JONSetako

herriko ordezkari izendatuak esan zituen azkeneko hitzak: *gu ez gaituzte tratatu preso politiko bezala, hiltzaile arrunt bezala baizik...*

Inoren begian lastoa ikusten bazekiten, baina beraienean enborrik ez; edo ez zuten ikusi nahi. 1934ko urriaren 14an, Gestorak erabaki zuen Santa Barbarako pasealekua konpontzea herriko atxilotuez, lana izan zezaten. Hona hemen 1938ko apirilaren 22an gestoratik zer adierazi zuten: *Biteriko Eskolak laikotasunaren bekatu originalean jaió baziren ere, garaiz gabiltza akats hura zuzentzeko. Horretarako, herriko artzapeza sartuko dugu eskola batzordean.*

Ospakizun patriotikoak

Gerraren gainerako denbora guztian ekintza patriotikoz beteta egon zen Arrasate, erreketek, Flecha, Pelayo eta Margarita manifestaldiz beteta. Horrela eratu zen 1938ko uztailaren Falange Española Tradicionalista y de las JONS, 2. linea. Lau zenturia osatzera ere iritsi zen, guztira 450 gizon.

Frankisten bandoarentzat dirua biltzen jarraitu zuten.

1938ko ekainaren 4an La Voz de Españak esaten zuenez, Italia faxistarekiko elkartasun moduan,

manifestaldi handia egin zen ekainaren 29an, eta desfilea eta Espainia, Ducea eta Italiarentzat Gorak oihukatu ziren.

Ekainaren 5ean Rodeznoko kontea Justizia ministroa etorri zen herrira bisitan

1938ko irailaren 26an, Herriaren Askatasunaren bigarren urteurrenean, Tedeuma, Gobernari Militarra eta Aldundiko presidentea eta presidente-ordeak, Eizaguirre eta Churruca jaunak, bertan zirela.

1939ko urtarrilaren 14an, meza Bilbon gorri separatisten eskuetan hildakoen alde; Luis Dolara, preso ohien erakundeko apaizak eman zuen.

Erreketete edo soldaduren baten gorpua iristen zenean, doluzko egunak fabriketan. Dolu manifestaldiak.

1939ko ekainaren 5ean, San Juan jaiez, soldadu ohien omenezko ospakizun bat egin zen. Ospakizun hartan Parrokiako arkupeetan plaka bat jarri zen, gerran *por Dios y por España* hil ziren 24 erreketete eta 23 soldaduen izenekin. (Plaka hori bi aldiz hautsi zuen Euskadi ta Askatasuna erakundeak 1966an. Eta gero kendu egin zuten).

Dirua biltzen ere jarraitu zuten, herriko sindikatu profesionalen ekimenaren arabera; diru bilketa haiek derrigorrezkoak ziren, eta armada nazionalarentzat eta milizientzat egiten ziren. Soldata egunak kentzen ziren.

Adibide bat jartzeagatik, aipatuko dugu 1938ko abuztuko hilabetekoari dagokiona:

Arzamendi Berezibar	246	pezeta
Fábrica Mondragonesa	416	pezeta
Roneo eta Unión Cerrajera	671	pezeta
Altuna Mendizabal	278	pezeta
Asam	297	pezeta
Unión Cerrajera Mondragón	9.144	pezeta
Elma	2.556	pezeta
Metalúrgica Cerrajera	483	pezeta

Azaroaren 3an udal Gestorak 5.000tik 10.000 pezetara jaso zuen suskripzioa; era honetara banatu zen: 5.000 Armada Nazionalarentzat; 3.000 Gerrako Junta Karlistarentzat, eta 2.000 Falange Española-rentzat.

1937ko azaroaren 23an bat egin zuten Unión Cerrajerak, San Josek eta Sindikatu Librearen kooperatibak.

Azaroaren 24an ELMAk agindua bidali zion Banco Guipuzcoanori, 12.000 pezeta emateko armadari, Falangeari eta Karlistei. Egun horretan erabaki zen herriko aguazilek eta musika bandak txapel gorria jantzi behar zutela. Parrokian ospakizun patriotikotik erlijioso “emozioz bete” bat ere ospatzen zen. Margaritak eta Pelayoak danborrez, eta JONSetako Falangea formazio zuzenean bertaratu ziren. Frantzisko Imaz koadjutoreak eman zuen meza, eta Lorentzo Arakama erreketeten kaperaua diakono.

Kaleen izen aldaketak

Abenduaren 21ean erabaki zuten plazaren eta zenbait kaleren izenak aldatzea:

Errepublikako plaza, Espainiako plaza izango zen handik aurrera; Arano kalea, General Franco kalea; Pablo Iglesias kalea, Ferrerías kalea; Galan y Garcia Hernandez, Zarugalde kalea; Los Jardines de Viteri, Maestro Arano plaza; Plaza del Fronton Antiguo, Plaza del General Mola; Plaza de San Francisco, Plaza de los Martires del 5 de Octubre; El Paseo de la Estacion, Avenida de Navarra.

Presoak plaza erdian bonbardean

1936ko abenduaren 22an, 27 pertsona atxilotu zituzten, gudara joanak ziren gudarien guraso eta familiartekoak guztiak. Udaletxeko espetxean sartu zituzten, eta testamentu egin beharrean zegoenak deitzeko notarioari esan zieten, eta inork konfesatu nahi bazuen apaizari deitzeko; denak larriturik zeuden, zer ote zen oraingoan?

Egun baten Mondrauen deteniruz zituen gurasuak, Bizkaixan zaukenak semiak, gudariak edo gure dana, batzuk emakumiak eta beste batzuk gizakumiak sartu zituzten kartzelan Mondrauen. 3 deposito zien orduen, bi bentanalak oin dazenak zazen kuarto bi, eskileria erdian eta kartzelarako prestatu zituzten hor kuarto bi eta hor sartu zituzten.

*Suertau zan bertan nire ama be deteniruz ein zauien, beten batek akusauko zauen ni gorrixetan ninguela, eta ni falanjistan ninguen! (...) egun berean soltau zauien.*⁴⁰⁵

*Urten auen presuak eta jarri zien plazan kiosko ondoan, nire aita, Gregorio Arrieta errosarixua errexetan, denak belauniko, han ezekitzien zer ein biutzien be igual hil edo...*⁴⁰⁶

Abenduaren 22an, goizeko hamarrak eta hamaika bi-

tartean, hegazkin bat azaldu zen; ordurako atxilotu guztiak herriko plazara eramane zituzten; 27 ziren gizon, emakumezko eta haur. Garai hartan plazan kiosko bat zegoen. Atxilotuak kioskoa, Udaletxea eta oraingo Iturriotz kale bitartean jarri zituzten. Lurrezko zakuen atzetik apuntatzen ari zitzaizkien, ezin zezaten ihes egin. Hegazkinak joan-etorri batzuk egin zituen, hiru edo lau; eta alde egin zuen. Berrito espexera eraman zituzten. Arratsaldeko ordubi eta erdiak edo hirurak bitartean berrito jo zituzten kanpaiak -hegazkinen bat azaltzen zenean kanpaiak jotzen zituzten jendea ahal zuen lekuan babes zedin-. Ni plaza inguruan ari nintzen jolasean. Oraingo honetan gizonzkoak atera zituzten plazara, eta hegazkinak, biplanoak, bizpahiru bira eman zituen. Horietako batek bomba bat jaurti zuen. Kasualitatez edo, bonbak plaza eta Iturriotz kale bitartean dagoen nibel horman jo zuen, eta plazara erori orde kalera erori zen. Ez zen zauriturik izan. Eta oihuka hasi ziren -"Gora Arantzazuko Ama Birjina"-; soldaduen komandante zegoenak oihu egin zuen -"Ah ze suertea izan duten... horiek, probidentzia ere haien alde dute."⁴⁰⁷

Gizonak atera zituzten kalera, baina emakumeek haien atzetik irten zuten, eta esaten zuten senarren ondoan hil nahi zutela. Han zeuden, Simon Orobengoa eta Marcos Ugalde, biak 60 urtetik gora. Beste emakume batzuen artean ziren Juana Aguirre eta Arana udaltzainaren Juana, bere bi seme-alabekin.⁴⁰⁸

1936ko abenduaren 24an Aguraindik Gasteizako errepedean istripu bat izan zuten zenbait karlistek, Bitoriano Balerdiri bahituran kendutako autoarekin. Victor Bastida, auto gidaria bertan hil zen; Jose A. Berezibar, zinegotzia, istripuaren ondorioz hil zen; Isidoro Etxebarria alkateordea, larri zauriturik geratu zen. 1936ko abenduaren 29an, hilberria zen zinegotziaren orde, eta zinegotzi kopurua gehitzeko, Udal Gestora handitu egin zen: Gonzalo Azkoaga, Santiago Bastida, Santiago Otxandiano eta Bizente Berezibar. 1936ko abenduaren 30eko La Voz de Españak, herriko gutunean, *heroia iritsi da* titulupean, honela dio: Modesto Otadui, lehen lehenen garaietako erreketea, familiaren ondora itzuli da. Uztailaren 20an Arrasatetik ihes egin zuen, beste erreketek batzuekin batera: Beltran, Etxebarria, Madinabeitia, Beitia... Arantzazun Oñatiko marxistek tirokatu zituzten, eta beren lagunetako hiru atxilotu: Juan Jose Otadui, Eugenio Gorosabel eta Joakin Etxebarria. Gasteiza iritsi ziren. Somosierrara joan zen boluntario, abuztuaren 26an bala bat sartu zioten, eta haren ondorioz ezin izan du borrokan jarraitu...

Modesto Otadui 1938an espexean sartu zuten; Arrasaten faxisten garaipenen bat prestatzeko egiten ziren bazkari horietako batean diskurtso bat bota zien, eta gogor ekin zion Guardia Zibilaren kontra; koldarrak zirela deitzen zien, uztailaren 18an erreketekin batera herria hartu orde atzera egin zutela eta. Espexean sartu zuten, baina ez zuen denbora askorik egin han.

Enpleguaren erregistroa

Frankistak Arrasaten sartu eta lau hilabetera, 1937ko otsailaren 5ean, Gipuzkoako herri guztietan bezalaxe, Arrasaten ere enpleguaren erregistroa eratu zen. Urtarrilaren 22an zirkular bat argitaratu zuten probintziako aldizkari ofizialean, non Gipuzkoako eta Bizkaiko gobernadore zibilak ematen dituen arau batzuk udal erregistroetan enpleguaren erregistroa sortzeko. Otsailaren 5ean gobernadorearen ofizio bat irakurri zuten, zeinaren bidez ugazaba eta langile izendatzen zituen, hurrenez hurren, Jose Añibarro Resusta eta Santiago Otxandiano.

Bi bokal haiekin eratu zen herriko erregistroa. Presidente lanetan, Jesus Gorosabel Mendia alkatea aritu zen.

Gregorio Juldain Abarrategi izan zen bilera hartako behin-behineko idazkaria. Hona hemen bileran hartutako erabakiak:

- Lantegi guztietara, erregistroaren baimenik gabe langilerik hartzea debekatzen zuen zirkularra bidaltzea.

- Langabeentzako erregistroa sortzea, une horretan zeuden 6 langabeekin.

1937ko maiatzaren 17an, beste bilera bat egin zuten. Orduko alkateordea Isidoro Etxebarria Maidaganek bideratu zuen. Sindikatu Libre Profesionalari eta Espainiako Falangearen sindikatuari euren langileen zerrendak eskatzea adostu zuten. Zerrenda haiek lortzearen helburua zen langileriaren erregistroa formalizatzea. Bando baten bidez jakinarazi zuten zerrenda honetan izena ematearen behar eta garrantzia edozein lantegitan aritzeko. Falangeak 33 izen eman zituen, sindikatu libre profesionalak 84. Haien artean, frankistek fusilatu zituzten hainbat pertsonaren seme-alabak edota ideia nazionalista edo sozialistak zituztenak ziren.

Lana aurkitu ahal izateko, derrigortuta egon ziren pausu hura ematera.

1937ko maiatzaren 20ko, JONSeko, Central Obrera Nacional Sindicalistako, langabetuen zerrenda: Gehiengoa 14 eta 17 urte bitartekoa:

Patricio Eguidazu Altuna, 17; Jose Maria Lasagabaster Arriola, 17; Antonio Uribechevarria Arriola, 17; Cristobal Bedia, 19; Pedro Sologastoa Iriarte, 18; Domingo Aranburu Basurto, 18; Manuel Iriarte Bolinaga, 18; Julio Aramburuzabala Mugica, 18; Ramon Heriz Aranburu, 16; Jose Maria Garay Arregui, 17; Genaro Serrano Oyarzabal, 15; Francisco Garcia Rodriguez, 15; Ignacio Arregui Oyarzabal, 15; Angel Balanzategui Arizmendi, 16; Benedicto Iburguen Ancelategui, 15; Maximo Arregui Echave, 15; Benito Azcoaga Azurmendi, 15; Jose Ignacio Mendizabal Illona, 15; Luis Bengoa Eraña, 15; Eugenio Balanzategui Arriola, 16; Jose Maria Aranburu Basurto, 15; Gregorio Arana Igidua, 17; Miguel Bolinaga Madinabeitia, 16; Juan Herrero Arana, 14; Anselmo Balanzategui, 45; Vicente Arana Arregui, 19; Pepe Zapico, 37; Gazpar Zaitategui, 15; Juan Lazpita Echevarria, 14; Jose M^a Aranburu Basurto, 14; Alejandro Zabaleta Mendicute, 14; Manuel Ceciaga Arizaga, 17; Pilar Otaduy, 15; Maria Villar, 18; Gregoria Iñarra, 16; Lorenza Uribarren, 16; Anunciacion Guridi, 20; Rosario Guridi, 16; Joaquina Arregui, 14; Nicolasa Arana, 17; Gregoria Elorza, 16; Lucia Uribarren, 16; Concha Azcoaga, 16; Encarnacion Mugica, 16; Concepcion Mugica, 15; y Manuela Langaran, 19.

Falangeko herriko delegatuak sinatzen du, Juan Uribe

Enpresak militarizatuak egotean, ardua zuen komandante militarrek instrukzio berriak eman zituen, lehenengoak uztailaren 4an eta ondorengoak uztailaren 12an. Lanean hasteko oztopoa jartzen zuten lehenengoak lantegiak ziren. Ideia errepublikarrak zituen edonor baztertzeko zuten. Haiak ez ezik, haien senideak ere baztertzeko zituzten. Pertsona baten inguruan zalantzak zituztenean, eskaerak bidaltzen zituzten erregistrora. Arrasateko Udalak alkatearen bidez ematen zuen baimena langileak fabriketan lanean hasteko. Manuel Uriarte Martinezen kasuan adibidez, 1937ko ekainaren 21ean, udalak enpresari baimena ukatu zion Uriarte ELMA-n lanean hasteko.

Alkate berria

Jesus Gorosabel alkateak masailezurreko minbizia baitzuen, 1938ko urriaren 8an kargua utzi behar izan zuen. Domingo Arzamendi Aranzabal izendatu zen alkate berria. Egun horretan beste izendapen batzuk egin ziren: Armengou, Falangeko idazkari. Felipe Azurza, Prentsa eta Propagandako ordezkari. Eta fronteko eta ospitaletako herriko delegatu karguetarako, Isabel Otadui eta Tomasa Beitia.

Gerrako materiala fabrikatzea

Gerra hasi eta Gipuzkoa azkar hartu zutelarik, Arrasate eta Bergara, neurri batean behintzat militarizatu egin zituzten. Errepublikanoen armada Bizkai aldera erretiratu zenean, ordea, boluntario asko joan ziren harekin, eta makinaria puska bat ere bahituran eraman zuten (prentsa, tornu eta fresatzeko makinak, batez ere).

Unión Cerrajeran makina askori piezak kendu zizkieten, fundizioko labe batzuk lehertu ere egin ziren; hala eta guztiz ere, ordea, lantegi horretan eta Elman 1937tik frankistentzat gerrako materiala egiten hasi ziren lanean. Elman egunean 10,5eko 1.000 jaurtigai egiten zituzten, eta aste osoan, igandeetan ere bai, lan egiten zuten.⁴⁰⁹

Unión Cerrajeran Levefell koronelak hartu zuen militarizatuta zeudenen kargua. Handik gutxira hiru txandatan ari ziren lanean armadarentzat produkzioan. Bien bitartean, 1937ko otsailaz geroztik, gainontzeko instalazio guztiak gelditu egin ziren, eta handik bi hilabetera arte ez ziren hasiko polito-polito beren produkzioa itzultzen, lehengaiak iritsi ahal eta langileak lanpostuetara itzuli ahal.

Cerrajeraren militarizazioarekin hango instalazioak eta makinaria etengabe erabiltzera behartu zituzten, eta egunean hiru txanda egiten ziren, astearen zazpi egunetan. 1938 erdi inguruan, Levefell koronaleren kontrolak zertxobait arintzean, hasi zen fabrikazio datuen % 5 bat faltsifikatzen eta igande arratsaldeetako fabrikazioari erantzen; horrela igande arratsaldean jai hartu ahal izateko. 7,5 eta 10,5eko jaurtigaiak artilleriarako; 6,5eko morteroak; hegazkinen bonbentzako estabilizagailu metalikoak; zubientzako tirante tentsoreak; trenbideetako torloju eta tirafondoak eta abar... fabrikatzen ziren Cerrajeran beraren makinekin, edo Francoren armadak harturik zituen zonetan bahituran hartutako fabriketatik ekarritakoekin, edo

Zaldibarko lantegietan jarritakoeekin. 100 tornu pasa, enpresaz kanpotik ekarriak denak, eginahalean ari ziren lanean, produkzioarako kupo eta epe finkoak zituztela.

Enkargua eman zioten Cerrajerari 1937ko maiatzean eguneko 500 jaurtigai egiteko; 200 langilerentzako lana eman zuen. Azaroan produkzio kapazitatea gehitu egin zen eta eguneko 1.000 unitate, eta beste 140 mortero egitera iritsi ziren. Jaurtigailarako lehengai moduan Bergarako borobila erabiltzen zen, harik eta desgasteko sailean izandako matxura batek Bizkaiko labe garaietatik ekarritako materiala erabiltzera behartu zuten arte. Bien bitartean Bergarako txapa saileko bi txanda zeuden militarizaturik (1938ko maiatza); bien artean egunean 25 tona iristen ziren laminatzera.

Gazteak eta, batez ere, emakumeak.

*14 nituenean hasi nintzen Cerrajeran lanean. 18 eta 19 urteko kintoak gerrara joan behar izan zuten. Zahar eta gaztetxoak behar zituzten jaurtigaiak egiteko. 6,5 eta 7,5 neurrietako jaurtigaiak eta 6,5neurriko morteroak fabrikatzen ziren. Batzuetan, egunean hamar orduko lanaldiak egiten genituen. Astean, 100 eta 125 pezeta artean ordaintzen ziguten.*⁴¹⁰

Klaro! Ez zan sartuko ba?, orduan jentia falta eiten zauen gainera, bertan jende gutxi zauela, eta gainera hortik zehar jende guztia gerra horreaz mobilizauta, ba pentsaizu, jendia falta zan lana eiteko. Orduan lan danak aukien, bai gizakumiak eta bai emakumiak aukien lana. Lan hori orduan ez zan falta...Ba en un torno revolver, proiektilak zulaketan lehenengo. Gero, ekin ginen... harek proiektilak erueten dau kobrezko arandela bat, haretxe kanala moletietan. Osea que pikaduria ein, kobrezko arandeli hori gogortuta bertan gelditu daixen. Gero hori ein eta hurrengo lanian, azkenengo desbastia eitera Emakumerik orduan... proiektilakin orduan gizakumiak bakarrik. Oin, prentsetan ta... eiten zien "peines para ametralladoras", han egongo zien, han emakumiak lana eingo auen, zeatik prentsetan ta holan, frisionadoretan, matxinuan... holako lanetan ibiliko zien. Beste batzuk huntzak, abioiak botateko, beti puntia gorutza geraketan zienak kaminuetan pintxazuak eiteko... Gero morteruak be eiten zien beste sezio batzuk, baina, han be, gizakumiak ibiltzen zien. Proiektiletan danetan gizakumiak. Elman eiten ituen 10 y mediuak, eta Cerrajeran 55ko mortero txikinok eta 6 y medio y 7 y

*medio proiektilak, geuk eiten gituenak...Emakumiak zeatik ez zauien egingo hori lana? Zakartxua bazan hori, zeatik proiektilak, berak be, (...) , makina bueltaka abilela harixan bueltan ebatu proiektilai, engantxau behar izeten zan. Badakizu, orduan ondion emakumiak gauza pisutxuak zazen lekuan ez zan sartzen. Gero emakumia ez zabilen asko orduan, gerra denboran sartu zan gehixena emakumia. Gerra denboran falta eiten auen jendia ta... baina más bien emakumiei lan suabietan eta almalzenetan, enpaketetan, enbaletan eta halako gauzak.*⁴¹¹

Errepresaliak seme-alabengana iritsi ziren.

*Gorrien seme-alabek askoz ere aukera gutxiago izan zuten, baina ez zen izan ahalmenik ez zutelako.*⁴¹²

Unión Cerrajerako Escuela de Aprendices.

Aurrekariak: 1931ko irailaren 7an, Arrasateko Udalak behin-behineko Patronatu Lokala eratu zuen herrian, Eskola Profesional bat izateko. Helburua zen Arrasaten Lanaren Oinarrizko Eskola baten sortze agiria onartzea. Eskola martxan jarri ahal izateko, diru laguntzak eskatu zituzten enpresetan. Hona hemen, Marcelino Orejak Eugenio Resusta alkateari igorri zion gutuna: *Que se congratula de su iniciativa y celebraria poderla secundar... pero tiene ante si la realidad de una Escuela dentro de la sociedad misma... por ello no le es factible sintiendolo mucho prestar una ayuda al nuevo establecimiento.*⁴¹³

Errepublikara garaian, Maiatzaren Lehenaren manifestazioetan, ezkerak lan eskolen beharra aldarrikatzen zuen urtero. Baina eskola haien sortu ziren Unión Cerrajerak zuen langile espezializatuaren premiazko beharrak bultzatuta. 1939ko urriaren 3an izan zen inaugurazioa.

Administrazio kontseiluak arma nazionalen garaipena gizarte ekintzak eginez ospatu nahi izan zuen eta primerako langileak trebatzeaz gain, pertsona bikainak hezteaz gain helburu. Horretarako, lan eskolako ikasleak familia onetakoak izatea jarri zuten baldintza gisa, izan ere, etxean jasotako eredu betiko gogoan geratzen zelako eta kasu gehienetan eredu hark eragin handia zuelako.

Eskolak lantegiko beharginen semeei zuzenduta egoteak garbiketa bat egiten zuen kaleratutako langileen semeekin. Enpresatik kanporatutako langile gehienak sozialistak ziren. Unión Cerrajerako administrazio kontseiluak jakinarazi zuen ez zutela

nahi errepikatzea aurreko belaunaldiekin gertatutakoa. Adierazpenetan esan zuten orduan ez zen ezer egin gizona trebatzeko. Guztiz kontrakoa, langilea bere ezjakintasunean bakarrik utzi zuten, era guztietako ideia eta propaganda guztien aurrean. Ezjakintasun horretan, gizonak ez zuen oinarririk epaitu ahal izateko, eta bat egin zuen gehien itsutu zuten ideiekin. Itsutasun haren ondorioak izan ziren:

Marxismoa lehenengo, komunismoa gero eta haren ondoren, iraultza soziala. Langileak ez zuen beste biderik izan, egin zuena baino. Errua ez zen berea izan, erru guztia dute gizon haiek bakarrik utzi zutenek, eta ez beste inork

Horri hau gaineratu zioten: *Eskolan sartzeko hautaketa lehiaketa bidez egingo da, eta aintzat hartuko dira aurretik adierazitako ildoak.*

1950eko hamarkadan hasi ziren onartzen Cerrajeratik kanpo lan egiten zuten aiten seme-alabak.

Emakumezkoen diskriminazioaren beste adibide bat: 1939an Unión Cerrajerak zabalduko Apendizen Eskola mutilentzat soilik izango zen. Eskola horretako ikasleek 14 urterekin hasten ziren; adin horretan, emakumeek beste eginkizun batzuk zeuzkaten zain.

13.5. Testigantzak. Kartzela, lan behartuak eta erbestea.

Atxiloketak pilaka egiten zirenez, espetxez gainera, komentuak eta ikastetxeak ere prestatu beharra izan zuten frankistek preso guztiak edukitzeko. Kalkulatzen zen euskal presoak 40.000 inguru izango zirela. Horien artean 3.000ek heriotza zigorra zuen.

Arrasateko 300 preso baino gehiagok, 4tik 7 urtera bitartean eman zituzten espetxeetan batez beste. Batzuk eramaten zituzten kontzentrazio esparruetara, eta handik lan batailoietara; beste batzuk, ostera, eramaten zituzten Duesoko presondegira, Ondarretako kartzelara, Burgosgo presondegira, Puerto de Santa Mariako, Cadizen, Larrinagako espetxeetara, Deustuko Unibertsitatekora, Eskolapioen komentura, Bilbon, eta beste espetxe batzuetara.

Lehenengo hilabeteetan Gipuzkoako beste eskualdeetako erreketek etorri ohi ziren beren ezagunen bila, Arrasatetik eramateko asmoz. Egun batean Asam-eko San Martin ikusi genuen. Bi anai erreketek Alacanten Albaterako kon-

tzentrazio esparruraino ere joan ziren, herritarren bila.

Italiarren preso zeramaten astebetetera, Santoñako hitzarmena ez baitzuten bete, frankisten esku geratu ziren. Diziiplina gogorreko erregimena hasi zen orduan. Egun batean deklarazioa hartzera etorri zitzaizkigun; zein kargu izan genuen galdetu ziguten; gerrako kontseiluaren simulazio batean Amayur batailoiko ofizial guztiei epaia eman ziguten, eta “errebolta militarra” egin izana salatu; errebolta onartu ez genuelako auzi iheslaritzat jotzen gintuzten.

1937ko urriaren 14an, heriotza zigorra eman zieten gudarietatik, joera politiko guztietako 14 aukeratu eta fusilatu zituzten.⁴¹⁴

1940 – 1943 artean itzuli ziren Arrasatera kartzelan edota lan behartuak egitera behartuak izan zirenak. Haietariko askok soldaduska egitera joan behar izan zuten, lau urte iraun zuen gerra eta kartzela jasan ondoren. Hona hemen batu ditugun zenbait testigantza.

Jose M^a Arriaran Ortueta, Dragoien batailoiko tenientearen testigantza:

Burgosen, 1938ko maiatzaren 22an San Cristobalgot gotorlekutik ihesaldia izan zen ondoren, askoz gogorragoa jarri zen diziiplina, ez genuen bisitarik, ezin genuen paketerik hartu, eta 15ean behin posta kartatxo bat idatzi zitekeen bakarrik, 12 lerroz goitik ukan ezin zitzaheena, ezkongabea zenak gurasoei bakarrik, eta ezkondua zenak bere emazteari edo seme edo alabaren bati.

Ia egunero fusilatzen zuten jendea, igandean izan ezik; egun horretan guztiak mezatara joaten behartzen gintuzten, formazioan, eta besoa jasorik beren lema frankistak oihukarazten zizkiguten.

Goizeko 7etan jotzen zuten diana; petateak jaso ondoren patiora joaten ginen, baita izotza bazen ere (20° C azpiko temperaturak ere ezagutu genituen han). Euria ari bazuen ere berdin zion, han zerrenda pasatzen ziguten, salda moduko bat ematen ziguten (kafea deitzen zioten), eta mugitu eta paseatu gogotik, hotzak ez hiltzeko, negua bazen, eta udan, berriz, itzal apur bat non bilatuko, itzalik bazegoen, edo aulkiren bat non eseri; patio horrek 60 metro zabal eta 70 luze zituen, eta ia 5.000 ginen han preso geundenak; handik geroago, beste patio bat prestatu zuten gaixo zeudenentzat edo gu baino zaharragoak zirenentzat. Janarietako salda moduko bat egoten zen, elikadurarik batere ez zuena, babarrun edo babaundi banaka batzuekin; jende asko hil



Burgosko espetxea:

Lehen lerroan. Eskumatik ezkerrera: Felipe Letona, Trini Azkonaga, Eustasio Marcaide, Román Bidaburu, Vicente Juldain.

2. lerroan: Joaquín Garmendia, Lucio Uriónabarrenetxea, Jose Barrutiabengoa, José M^a Gallastegui, Pablo Bolinaga.

zen goseak edo gaixotasunak jota, baita egarriak jota ere. (Arsenio Rodríguez Zamora, Arrasatekoa, Fuerteventurako lan batailoian zegoela egarriak hil zen. Dragoién batailoikoa zen.)

Gutaz aparte, heriotza zigorra zutenak zeuden; espetxe barruan beste espetxe batean baleude bezala; han zeuden EAfko buruzagiak, Ajuriagerra, Rezola, Unzueta...

Agirrerén gobernuak, Alemanek Frantzia hartu aurretik, espetxearekin harremanetan jartzea lortu zuten. Haien idatziak preso jeltkide batek hartzen zituen; Bilboko Verdes inprimategiko burua zen. Idatzi horiek espetxera sarturik heriotza zigorra zutenei nola iritsiarazi zen arazoa, eta astero garbiketarako bidaltzen zituzten erropetan bidaltzea zen modu bakarra. Ikuztegiari geunden lauak, Julio Martínez (Bakunineko komandantea, anarkista), Gíovar López (Larrañagako tenientea, komunista) jeltkide bat eta neu ginen. Verdeskoak jeltkideari deitu zion lehendabizi ea paper horiek bidaltzeko prest zegoen galdetzeko; hark ez zuen nahi izan, esan zion emaztea eta seme-alabak zituela (esan beharra baitago ikaragarritzko arriskua zegoela garai hartan etsaiarekin harremanetan eta horrelakoetan harrapatzen bagintuzten); gauzarik txarrena ez zen fusilatuko gintuzten edo ez, hura dena nork bidaltzen zuen jakiteko egingo zizkiguten guztiak ziren txarrenak.

Verdeskoak Martínezi hitz egin zion ondoren; hura ere harri eta zur geratu zen (orduko testuinguruan jarri baita); Martínezek erantzun zion: - Begira, nik bakarrik

ezin dut egin, beste bat ere behar da. Eta horrela etorri zitzaidan hitz egitera; uste ez genuen gauza zen hura; pasatua genuen guztiarekin, eta orain berriro. Hura izan zitekeen nire karreraren amaia, baina uko egitea ere gogorra egiten zitzaidan, jeltkideen idatziak zirela jakinik ere; bi egun egin nituen pentsatzen, onartu nuen eta Gíovarri ere jakinarazi genion.

Verdesekin izan genuen hurrengo elkarrizketan esan genion ez genuela ezer jakin nahi paper haiek nork ekartzen zituen, eta baldintza jarri genion: Hau zuen gauza da, EAfakoena; baina zuen alderdi barrenekoak ez diren albisteak baldin badatoz, gerraren gorabeherak eta abar, beste joera politikoetatik heriotza zigorra dutenei, behintzat, jakinaraz diezazuela nahi genuke, ea horrela animoa ematen diegun; eta horrelaxe egin zuten, albisteak zabaltzen hasi ziren, albiste txikiak.

Inprimategian prentsaturako idatziak alkandora bateko patrikan bidaltzen genizkien; idatzi horiek Ajuriagerrak jasotzen zituen (ikaragarritzko odol hotza zeukan hark); honela egiten genuen: arroparen ikuzketa kartoiez (espetxeko dirua kartoiz batzuk izaten ziren) ordaintzen zigutenean, beti ere zerbait itzuli beharra izan zedin konpontzen ginen, eta era horretara dirua itzultzean idatziak ematen genizkien, espetxeko funtzionarioen aurre-aurrean.

Zorte ona izan genuen, zeren horrela urtebete baino gehiagoan aritu ondoren, heriotza zigorra aldatu zieten, eta patio handira etorri zirenean, gu ere haiek adina edo gehiago lasaitu ginen; 1939ko azaroaren 14a zen.⁴¹⁵



Euskal presoak Burgosko kartzelan 1942ko azaroaren 25an. Bigarren lerroan eskumatik lehena Jokin Garmendia. Pilar Garmendiak utzitako argazkia.

Jokin Garmendia Araba

Abuztuaren 21ean, tropa nazionalak Santanderrera hurbiltzen ari zirela, Asturiasera eraman behar nindutenaren Osasun Saileko agindua etorri zen. Nik ez nuen Asturiasera joan nahi eta alta eskatu nuen. Alta ematean, Meruelo herrira eraman ninduten. Han, gure erakundeko kide ziren beste miliziano eriondo batzuk zeuden. Santoñara joan ginen, baina tropa nazionalak sartzean atxilotu eta abuztuaren 28an Duesoko kartzelara eraman gintuzten.

1937ko azaroaren 15ean honakoa idatzi zuen Duesoko kartzelatik:

Gerran zehar denetatik izan dugu, gutxienak izan diren egun alai eta dibertigarriak eta egun txarrak. Egund txarrak frentearen nekearengatik, batzuetan jan gabe eta bestetan egunak lorik egin gabe, gerra guztietan ezinbestean egin beharreko ibilbide luzeengatik eta kideak galdu izanak eragindako sufrimendu moralarengatik.

Ezin dut kontakizun hau amaitu gerran zehar aurkitutako pertsona bihozbera eta eskuzabal guztiei eskerrik zintzoena eman gabe batez ere, Arrazola, Aramaio, Durango, Gernika, Mundaka, Bermeo, Bilbo, Orduña, eta abar. Hau da, gerraren ondorioz egon garen herri guztietako jendeari.

Azaroaren 7an, ezkutuan, gutun bat idatzi zion aitari:

Atzo bi hilabete epaitu nindutela eta heriotza zigorra ezarri zidatela. Orditik, gure bizitza amesgaizto bilakatu da, izan ere, eta jakingo duzuen bezala, fusilamendu

asko egon dira. Nire egoera berdinean daude, Markaide, Gorroño, Juldain, Inchausti, Pablo Bolinaga, Arbe, Bidaburu eta Gesalibarko Andres Garate.

Janaria eskasa da. Arrantxoa oso gutxi da eta ez digute kanpotik ezer sartzen uzten, ezta txokolatea ere.

Zuk garrantzitsua den ezer jakinarazi nahi badidazu sekretupean kontatu. Zentsura hemen oso zorrotza da.

Preso batek esan dit Bilbon ni bisitatzeko baimena lor daitekeela.

Hau da hemen dugun bizimodua: Goizeko sei eta erdietan, diana. Zazpitan, kafesne txar bat ematen digute gosaltzeko. Goizeko bederatzia aldera, ordu laurden ematen digute garbitzeko. Hamabietan arrantxoaren ordua da. Salda baso bat lau txitxirioekin eta ogi-opil gozo bat. Seietan arrantxoa berriro ere. Dilistak edo babak ematen dizkigute eguerdiko kantitate iguanean. Gauean bederatzietatik aurrera denok isilik. Bi egunetik behin patiora ateratzen gaituzte ordu betez eta gainontzeko denbora guztia ziegan ematen dugu. Sei lagun gaude ziegan eta amaierarik ez duten egun hauek gure familia, lagunak gure txokoa, ... gogoratuz pasatzen ditugu.

Pedro Zumelaga Ozaeta

Valentzia ostien akabau zan gerria, eta lizentziau ostien etxera. Etorri eta Roneora sartu biher nitzen osterera.

Nik ordurako anaia hamen geldittu zan, Pablo Zumelaga Ozaeta, eta hirugarren egunian edo kartzelan sartu auen, eruen auien Vitorixara egin zotzien Consejo de Guerra. Ezkerrak Vitorixara eruen auela, ze erueten



1942an Burgosko kartzelan egon ziren Amaiur batailoiko ofizialak dira: goian ezkerretik eskumara: Ramon Jauregi, Imanol Muxika, Eugenio Murua, Pablo Bolinaga, Jose M^a Gallastegi, Telesforo Goieinetxea, José Barrutiabengoa, Joakin Garmendia. Bigarren ilaran: Pedro Zeberio, Jose Sarriegi, Gerardo Zubillaga, Bonifacio Apalategi, Eusebio Ansoleaga, Patxi Arruti. Eserita: Francisco Murua, Fernando Aristizabal, Roman Bidaburu, Agapito Urarte, Eugenio Oianguren, Ascencio Garmendia eta Vicente Juldain.



Burgosko kartzelan 1941eko otsailaren 28an.

bazaiuen bestiak moduan Donostiara afusilauta auen. Eman zotzien 28 urteko kartzela, baina ez auien afusilau anaia.

Anaia kartzelan auen, eta niri, anaia kartzelan auelako edo ez dakit zeaittik, pegak ifintten uztien Roneora sartzeko. Requetiak sartzen zien orduan bakarrik Roneon. Ha koto pribau zelako. Kostau jaten sartzia, enitzen sartu el 18 de julio pasau arte.

Alejandro Sagasta Azcoaga, Mane, Dragones Batailoiko milizianoa

Faxistak sartu aurretik, Asturiasen, San Juan de La Nieblan, Vicenta Perez arrantza ontzia hartu genuen. Itsasoratu ginen, baina preso hartu gintuzten. Sei hilebatez egon nintzen preso Galizian, Aldea del Obispon. Handik Santoñara eraman ninduten eta beste sei hilabetez eduki ninduten preso. Bilbon unibertsitatetik Zorrozara eta handik langileen batailoira, Galiziako Armada gorputzera autoak errekueratzeke lanetan.. Alcañizera joan nintzen lehenengo eta gero, gerra amaitu arte, Vinarozen egon nintzen. Ondoren, sei hilabete gehiago igaro nituen Valentzian. Askatu nindutenean, eta Arrasaten Unión Cerrajeran lanik lortuko ez nuenez, Bilbon arreba bizi zela eta, hara joatea erabaki nuen.

Santiago del Valle Arcada, Dragones Batailoiko milizianoa

Asturiasen atxilotu ondoren, Cadizera eraman gintuzten. Gutako batzuk Santa María presondegira eta beste batzuk Arsenal De La Carracara. Itsasontzietan astoak bezala lan egitera behartu gintuzten. Handik, Algecirasera. Inoiz, Francok langile batailoik guztiak elkartzea pentsatu zuen Gibraltarko Haitza konkistatzeko. Garai hartan izan zen Constantino del Pozo Riesco arrasatearrak ihes egin eta igerian Haitzeraino iristea lortu zuenean. Constantino, geroago, atzerrira joan zen, Hegoamerikara

Andres Garate Umerez

Andres Garate Umerez, 1910eko apirilaren 18an jaixo nitzen. Fan nitzen Arantzazura frailien kolegixora. Han egon nitzen lau urtien fraille izeteko asmuaz, bañe geixotu nitzen, eta sendagileak esan eusten onena zala karrera iztie. 15 urtekin pelukero ikasten hasi nitzen bertan Santa Agedan gehixoekin. Frailien direktoria Fray Damian zan.

Gerria hasi zanienean ni fan nitzen Batzokira. Gero Padura batailoira. Preso hartu ninduen Laredon, nire

kargua zan Komisario Politikoa, egixa esan nauen, horrek izorratu ninduen pase aquí... Santoñan egin euskuen juiziua, condenado a pena de muerte. Ta handik eruen ginduzen Bilbora, Larrinagara.

Kanjea egon biher zan 50 lagunena eta nire lengusua Desiderio, bigarrena euen Garate, frankistekin ibilitakua, Larrinagara etorri jaten eta esan eusten zu ez estutu nik salbauko zaitut. Atera zan kanjia eta euzen 50 kanjeatuak izateko, bañe Lauzirica obispo batek jarri ninduen 51, bat larrei, neu.

Irundik oinez pasau gauen zubixa Hendaiaaraño. 1938ko urtarrilaren 20a zan. Gero Kataluñara han egon nintzen cuerpo de carabineros del mar. Barriro Frantziara Argeles Sur Merreko ondartzan preso eta handik Gursera, han euzen Celestino Uriarte eta bailarako beste batzuk be. Urten nauen La Roseraie hospitalera eta gero Biarritzera fan nitzen, hasi nitzen ulie mozten, ez nakixen beste gauzaik. Etorri zien alemanak eta hantxe pelukerixan izan nituen

Andregaiia neuken Irunen, eta lagun batekin pasau nitzen Bidasoatik, esan eustan hemendik pasau biok errekatik eta igari beste aldera allegau nitzen kamiñua pasau eta Irungo kanposantura busti-busti pasau nitzen eta hartu ninduen nire andregaixak etxien. Hori izango zan 1943en. Irunen ezkondata gero Lemoara pelukero Aurelio Fernandez-ekin. Nire andrien aittak euen lagun bat udaletxien, eta harek egin eustan papel batzuk, papel haiekin ibili nitzen.

Gero, Hondarribin jarri gauen taberna bat fama haundikua. Anaia Jose eta Anton bixak preso egon zien. Jose frailetan ofiziñan lamien abertzalia zalako batek salatu euen. Aita Carlos, barrez, gerria hasita gero be mikelete egon zan Santa Agedan eta Aramaixon.



Andres Garate Umerez.

Miguel Etxagibel Urizar

Jesus Letonakin juntau nitzen Bilbon, Jose Antonio Agirrereren ingurukua zan, preguntau eustan, etorriko nitzen ertzain? Bai, erantzun notzan. Handik egun batzuetara radioan deike nire izena, Club Maritimo del Abran presentetako. 17 urte nittuen, 1937ko otsaila zan. Abando zan tenientia eta gure burua Monzon. Larrinagan eta Karmelon guardiak eitten egon gitzen. Deustuko Bidarte koartelian gauzela boluntarixuak eskatu euien frentera fateko, ofensiba hasita euela eta kalian zainketan baño biherrezkua zala frentera jotie, eta danak presentau gitzen. Jantzixak eta botak emun euskuen.

Autobus bi deskapotablietan sartu eta egunez Durango bonbardea ta gero, gu gabez Durango erreten euela bertatik pasau gitzen Urkiolarutz. Konpañia bi gitzen bata Saibigañera fan zan, eta asko hil zien, desagertuak be. Gu, barrez, Anbotostera, Otxandixo aldera joteko, egunez raso, aterri, eta kañonazuak granadas explosivas botatzen euskuen, aidean lertzen zien eta metralla alde guztietara eta abioak hango bonbardeuak, eta trintxeraik barik. Handik Anbotostera eta euria gogor txaboletan zutik lo eitten bata bestiai besarkatuta...

Gallartan atxilotu nindduten. Gerra kontseiluaren ondoren, Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura eraman ninduten eta, handik, Zamorara Francoren morroi izatera. Errepideak egiten egon ginen eta baita zulo oso sakon bat ere, ura aurkitu arte.

Han, Mussolinik bidalitako italiar indarretako CTV, Corpo Truppe Volontarieko parte izateko boluntarioak eskatu zituzten, Littorio 17 Dibisioaren 65 kalibreko mandoak zaintzeko zen. Bi arrasatear izan ginen han, Antonio Ansoategi Iregi eta ni. Baina, handik gutxira, mandoak kendu eta Fiat kamionetak ekarri zituzten.

Valentzia okupatzera gindoazela Morellara iritsi ginenean, sukar gastrikoak jota nengoen. Tren batean Alhama de Aragonera eraman ninduten italiar ospitale batera.

Gerra amaitzean etxera itzuli nintzen, baina, etorri eta denbora gutxira, soldaduska egitera bidali ninduten Gasteizera. Beste bost urte gehiago. Hiru armadatan zerbitzatu eta etxetik kanpo zortzi urtez egon ondoren etorri nintzen etxera.

Gerrako Presoak : P.G.

Asturias Bigarren Errepublikaren aurkako maxinatuen eskuetan erori ondoren, hauen lehen helburua arma fabrikak martxan jartzea izan zen, ho-

rietako bat Cañones de Trubia izan zelarik. Eskulan kualifikatua behar zuten, eta, horretarako, gerrako presoak errekrutatu zituzten. Unión Cerrajeran urte dezente lanean zeramaten arrasatearrak bertara eraman zuten batzuek identifikatu ditugu: Agustín Heriz Lamarain, Tomás Ruiz de Alegria Balanzategi, Vicente Etxebarria Larrañaga eta Félix Barrutia Guridi.

Txapa bat jartzen zitzaien besoan eta bertan, P. G. inskripzioa inprimatuta dago. (Gerrako presoak). Horietako batek, Agustín Herizek, horietako bat gorde zuen, eta senideek Intxorta 1937 kultur elkarteari eman digute, Elgetako Memoria Historikoaren Interpretaziorako Euskal Zentroan argazki horiekin batera erakusteko.

Segismundo Gonzalez Gonzalez

Morales de Toron jaio zen. Trenbidea egitera etorri zen Arrasatera. Gerra hasi zenean, lehenengo egunetik mobilizatu zen. Gregorio González Kanpazarren desagertu zen. Misio baterako boluntario bat eskatu zuten eta Benito Arriaran aurkeztu zen. Gregoriok ezetz esan zion, „gazteegia zela eta bere orde z bera joango zela. Eskuko bonba pila hartu eta alde egin zuen. Ez genuen inoiz gehiago haren berririk izan. Ziurrena da segada batean jausi izana.

Dragones Batailoiko sanitarioa izan zen. Intxortan, hil zituzten lubakitik gertu hiru arrasatear lurperatu



Gerrako presoak



Lesakan, 1941ko abuztuaren 11an. Jose Maria Etxebarria Bolinagak utzitakoa.

behar izan zituen eta haietako bat Benito Arriaran zen. Laredon atxilotu eta Constantino del Pozorekin (Txabal deitzen zioten 17 urte zituelako eta handia, indartsua eta lasaia zelako) batera, Aragoiko Langile Batailoi batekin borrokatzera eraman zuten. Aurrerako Gibraltarko Haitzera ihes egin zuen. Segismundo On-

darretako kartzelara ekarri zuten eta, hemen, brigadista amerikar batzuekin elkartu zen. Brigadista haiiek euren paketeak partekatzen zituzten berarekin. 1941eko Gabon egunean iritsi zen etxera, baina Antonio Pagoagak salatu egin zuen. Bi apaizen laguntzari esker, bere konfesorea zen Luis Dolara eta gure bizilagun Pergentino Perezen emazte karlista Beatrizen anai bat hain zuzen ere, ez zuten berriro atxilotu, baina, egunero joan behar zuten Guardia Zibilaren kuartelera. Han, batzuetan, Zubizarreta⁴¹⁶ izeneko guardia batek ustarekin jotzen zuen eta hartxintxarraren gainean belauniko ibiltzera behartzen zuen.⁴¹⁷

Korporazio berria Gipuzkoa eta Bizkaiko gobernadore zibilak emandako zirkularrean 108 dekretuan eta beste xedapen batzuetan oinarriturik agintzen du, udal funtzionarioa kargugabetzea bere ideiak marxista separatistengatik, *ez duela dokumentuetan frogatua egon behar eta kargugabetzearen aurka ez dela administrazioarekiko auzi-errekurtsorik onartuko.* Honek esan nahi du funtzionarioen kargugabetzea erabat arbitrarioa izango dela esan nahi du, ez dela inolako frogetan oinarrituko eta administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jartzerik ez dagoenez, kargugabetze hauek behin-betiko izango direla. Udal funtzionarioen garbiketa berri baten beharra eskatzen jarraitzen dute, *espainolistak ez diren guztiak eta laguntasuna alde batera utziz, Espainiako Mugimendu Salbatzailearekin bat ez datorren oro baztertze.* Beraz, eta udal akordioaren lehenengo atalarekin kontraesanean, errepublikan existitzen ziren alderdi politiko eta sozialen aldeko ideiak edo begikotasuna zutenak baztertzeaz gain, errejimen berriarekiko ideiak eta inplikazio aktiboa izatea exijituko zaie funtzionario guztiei.

Errepresioa, Bizkaia ebakatu zuten edo Arrasaten geratu eta frankismoaren aurkako ideiak zituzten

funtzionarioei eragin zien. 1937. urteko martxoaren 16an, Gipuzkoa eta Bizkaiko gobernadore zibilaren idatzi bat irakurri zuten pleno aretoan. Idatzi haren arabera, 40 funtzionarioetatik 17k kargua utzi behar zuten.

1939ko abenduaren 16an, Gobernu Batzordeko ordezkariak eta zinegotziak Santiago Bastida eta Jose Migel Azkaratek, plenoan zeuden guztiek aurkeztu zuten Domingo Arzamendi alkatea, Bixente Berezibar, Santiago Otxandiano eta Gonzalo Azkoaga berretsi zuten txostena: Hona hemen txostenean jasotakoa:

1937ko martxoaren 16ko bilkuran esandakoa, behin betiko erabakitzat hartu behar da, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Erabakia dela eta, hauek dira lanpostuak utzi beharko dituzten udal funtzionarioak: Juan Cruz Aranburu Zabaleta (epaitegiko idazkaria). Trinitario Azkonaga Arana, (udaltzaingoko inspektorea), Jose Atxa Iturbe (aguazila), Juan Arana Ibarguen (aguazila), Marin Unamuno Jauregi (aguazila), Cecilio Garro Altube (gauzainen kaboa), Eugenio Andonegi Arrillaga (gauzaina), Jose Cortes Arana (ordezko gauzaina), Roman Etxebarria Altuna (zergabiltzaile administrazioarekin) Francisco Uribetxebarria (1. Idazkaritzako ofiziala), Agustín Aranburu Zabaleta (gordailuzaina)⁴⁵¹, Jose M^a Arriaran Ortueta (izkribatzailea), Alberto Martinez de Ubago Lizarraga (medikua), Casimiro Labajos Moreno (medikua) eta Guillermo Juldain Saiz.

Lanpostu haiek hutsik geratu zirenez, 1940ko apirilaren 22an erabaki zuten honela banatzea irabazleentzat:

- %20 mutilatuentzat
 - %20 borrokalari ohientzat
 - %20 behin-behineko edo osagarri gisa arituko ziren ofizialentzat
 - %10 umezurtz frankistentzat
 - %20 udalarentzat
- Modu horretan ziurtatu zuten lanpostu guztiak erregimen frankistaren aldekoek betetzea.

40 urte pasatu behar izan ziren udal korporazioak, ebazpena indargabetzeko. 1977ko azaroaren 16an, Jose Antonio Altuna alkateak iritzi zuen iritsi zela unea horrelako injustizia bat erreparatzeko, eta horregatik, korporazioari proposatu zion deklaratzeko baliorik gabe udal funtzionarioen kanporatzea. Udaleko osoko bilkurak proposamena onartu zuen, eta deklaratu zuen baliorik gabe, xede guztietarako, 1937ko martxoaren 16ko ebazpena.

15. Espainia bakarria eta euskararik gabe:

1937ko otsailaren 29an, 6. Erregioko dibisio jenerala López Pinto etorri zen herrira. Jose Miguel Azkarate jarduneko alkateak eman zion ongi etorria. Lopez Pintok alkatea zoriondu zuen herriaren izaera espainolista zoragarriarengatik. Bizi zen egoera hartan, izaera espainolista nabarmendu beharreko beste kontu bat zen.

Euskara ere oso kaltetua izan zen altxamendu faxistaren ondorioz. Hizkuntza irakastea ez ezik, euskaraz mintzatzea ere debekatu egin zuten.

Garaileen hizkuntzaren inposaketa espainola, bizitzako esparru guztietara hedatu eta Ikastola desagerrarazi zuten.

Hura ez zen gauza berria Arrasaten. Ez zen gertatzen zen lehendabiziko aldia.

*Orain dela 105 urte, 7 urteko neskatila bati zer gertatu zitzaion kontatuko dugu: Doña manuela mais-tranien eskolan hasi nintzela ederra pasau jatan, lehenengo egunian euskeraz berbetan nabillera, aldameneko neskatilliak anillo bat eman eusten, baña zelan ez ekien erderaz hurrengo egunian be zeozer esan bier, berriz be euskeraz eta beste anillo bat, horrela zazpi anillokin juntau nitzen. Etxera fan ta amai esan nutsen, zazpi anillo neukela, ta amak esan eusten, erruki haz, orduan arratoien kuartora eruango zaue. Egun baten anillo guztiak kalamoakin lotu nituen eta puntatik hartuta bueltaka erabili nauen, aixiak kendu nusten ta han joan zien anilluok Paula Garron teillatura. Orduan galdu zan anilluena, gero Aranongana fan nitzen; han be erderaz, baña ez euskuen anilloik jarten.*⁴⁵²

1918ko azaroaren 8an akordio bat hartu zuen udalak, eta erabaki zuen bileretan nahi zuenak

euskaraz nahiz gaztelaniaz berba egin ahal izango zuela. Lehendik ere zinegotziek ez zuten eragozpenik jartzen bertan izaten ziren eztabaidetan euskaraz hobeto mintzatzen zirenek hizkuntza hori erabili ahal izan zezaten. Nazionalistek udalean zeukaten gutxiengoa ados zegoen mozio horrek barnean zuen esanahiarekin, baina *euskaraz nahiz gaztelaniaz bietara hitz egin ahal izango da* hori baino urrutirago iritsi nahi zuten. Juan Goñi alkate jaunak, integrista izaki, erabaki zuen auzia, esanez gaztelaniaz hitz egin behar zela, horixe zelako hizkuntza ofiziala, eta tolerantzia eskatzen zuen, eskubiderik ez baitzuen aitortzen, euskaraz mintzatu ahal izateko. 1922an Gernikako Kongresuaren erabakiekiko adostasuna erabaki zen, eta lehen mailako eskoletan euskara irakatsi zedin eskatu eta hizkuntza hori Euskal Herri osoan zabal zedin.

1936ko apirilaren 17an, Eustasio Markaidek esan zuen euskaldunok gure hizkuntzaz arduratu behar genuela, eta proposatu zuen herri eskoletan elebitasuna ezartzea. Bozkatu eta proposamena onartu zuten, nahiz eta lege berriaren aplikazioa Gestoretatik jarraitu beharreko orientabide egokiak jaso arte atzeratu.

Baina, oraingo hartan, euskararekiko gorrotoa bizitzaren esparru guztietara hedatu zuten. Altxamendu frankistaren matxinatu askok euskaraz hitz egiteari utzi zioten, eta beste inork ez erabiltzeko saiakerak ere egin zituzten. Euskal izenak erabiltzea debekatu zuten.

Ta zu zeu nora fan ziñan eskolara?

Mondrauen euen e, batzokixe. Batzokixen atzien

eu en jardiñe haundixe. Ta han ein zan, ein auen PNV-kuek frontoi bat.

Ta frontoien atzien ikastolie. Eta frontoien errebotie izeten zan holako ate haundi bat zerretan zan, ta ha zan eskolie. Ta gero errekreuen ha zabaltzen zeuen ta handik jardiñera faten gutzen. Ta ha izen zan "Fronton Gurea". Gero ipini utsien. Baiña ha zan Batzokiko frontoie.

Ta gero beste eskola bat euen abadetxien. Ikastolia ha be. Dana euskerakue zan orduen. Republika garaixen.

Oseake ikastola. Orduen zueik eskolak euskeraz jaso zittuein? Bai, bai, gerrara arte. Gure maixuek zien, Hilario Urrutia... eta Juanito Etxebarria, arrasatearrak.

Zu ikastolan hasiko ziñan hogeita hamaikan, edo hogeita hamabixan edo... Bai, holako baten.

Gerrie, gerrie akabau ta segittuen hoik ikastolak ta honeik fuera! Honeik danok. Hori izen zuan e... ta Euskeraz ezin ein!

Pasatu gutzen San Viatorrera. Ta guk kanika bat eukitten gaixuan. Viatorista batek emon, ta baten bati entzuten badutsek errekreuen euskeraz, hik hari emon biher utsan /bitzan/. Ta bestiek bestiei. Makiña bat bider egon nok ni, kastigaute! "No hablaré más en Vasceña"

Bai. Ta hori eskribidu biher? Kastigaute. Zenbat bider? Baaa ordubetien igual.

Oseake San Viatorren... Frailliak! Frailliak ez hittuan, mezadunak ez hittuan. Zuan leguek, baiña frailliek. Eta kanikiakin, e? (José Arriarán Aramburu. Aho-tsak.eus)

Ez zauen izten habla en cristiano esaten auen.⁴⁵³

Nere amak ez dakit zenbat multa pagau dauen Imanol deitziarren. Manuel deitu bihar zala, neuk Imanol ipiñi dotzat eta Imanol deituko dotzat.⁴⁵⁴

Amari, nos hemos enterado que tienes una hija que se llama en vasco, esan otzien zer esan be ez zakitziela, si tiene el nombre vasco, pues no de descuide porque le va a pasar algo si le llama en vasco.⁴⁵⁵

Arrasateko futbol taldeko atezainak Imanol zuen izena. Futbol zelaian Aupa Imanol esatean, atzetik, berehala, karlista batek ea hori zer zen galdetzen zizun.

Torres aguazilak honako pregoia ematen zuen: Domingo Arzamendi alkatearenaginduz, debekatuta

dago haurrak euskarazko izenekin deitzea. Torres egunero ari zen atentzioa ematen, inork ez ziolako kasurik egiten. Behin, honako erantzuna jaso zuen: "Aizu, esan alkateari, que es el Montelobos".⁴⁵⁶

Luisa gure amandria egun baten deittuten Libe, Jaione, eta Torres alguazilak, hi Luisa hori ez tok deitu biher, prohibiruta jasak. Luisak, horreik jaukiek hori izenoi eta hori deituko dutziet. Torres isilik fan zan.⁴⁵⁷

Herriko elizan ez dela euskaraz ezer hitz egiten, predikatzen edo otoitz egiten.. David Esnal zen orduko apaiz parrokoa. Harek ongiatorri bikaina egin zien gobernuaren alde bataila-eremutik askatutako presoiei. Jainkoaren kausaren martiritzat jo zituen gerra preso ohi haiek.⁴⁵⁸

Beste egun batean, Arrasate kaletik zihoan agure bat soldaduekin aurrez-aurre topatu eta ea nora zihoan galdetu zioten. Hark ez zienez ezer ulertu, esan zuen: . Ai Jangoikua!. - Ta soldaduen erantzuna: - *Qué Jangoikua y puñetas, hable en cristiano...*"

Gipuzkoan euskeraz hitz egitea galarazi omen dute. Zer nahi dute ba? Euskerari utzita arabez, italiano edo alemanez hitz egitea? Guk ondo ezagutzen dugu Gipuzkoa. Euskadiren zati bizi bat den bezela. Badakigu Gipuzkoako seme-alabek behin ere ez diotela utziko berba egiteari euskaraz. Nahi badute hamar aldiz galarazi dezakete. Alperrik ariko dira faxistak, mila urtean galdu ez den hizkuntza ez da galduko faxistek gogoa dutelako.⁴⁵⁹

15.1. Jazarpena euskararen kontra

Frankistek instituzioetatik euskeraren aurkako jazarpena bultzatu zituzten.

Gipuzkoako gobernadore militarrek, Alfonso Velarde, 1937ko apirilaren 16an bidali zuen bando hau Donostiako prentsara:

¡Hablado castellano!

Preocupación de toda autoridad debe ser el eliminar las causas que tiendan a desunir a los gobernados... Para nadie es un misterio las diferencias que han existido entre algunas regiones de España... Para suavizar esas diferencias y que por la buena voluntad de todos, vayan fundiéndose en un exaltado amor a la madre España, en apretado abrazo de sus hijos, hermanos de las diferentes regiones. Para ello, uno de los medios de demostrar la compenetración de cariño y de ideas es utilizar el idioma común... Como esto en nada indica menosprecio de los idiomas regionales, sino una exaltación patria que nos apiñe en las manifestaciones de nuestro entusiasmo, espero del patriotismo de todos que contribuyan

a ello, sin que tenga que corregir resistencia alguna.

Ez zen existitzen estatuko araudirik errepresio hura sostengatuko zuenik. Zegoen arau bakarra zen Antolakuntza ministerioak eta ekintza sindikalak egindakoa, 1938ko maiatzaren 22an. Bereziki euskarari zuzendutako arau haren aplikazioak esparru oso mugatua du, eta euskararen aurka errepresioaren nondik-norakoak argitzen laguntzen du. Haren sorreran azaltzen da egoera zein zen eta zeintzuk ziren egin nahi zituzten aldaketak:

Ohituraren inertziarengatik herrialde baskongadetako zenbait elkarte kooperatibok euskara erabiltzen du bere titulu sozialetan eta araudi eta estatutuak euskaraz idazten ditu, betiere gazteleraren ondoan. Ohiturarengatik dela uste dugu eta ez gutxiengo adoretzu baten pozgarri ziren eta betirako desagertu ziren sentimenduengatik, garaituak izan baitira eta Espainia nazionalatik kanpo ihes egin dutelako.

Jarraian, arau hori zergatik onartu zuten azaltzen da hitzaurrean. Arrazoi haiek euskararekin ez ezik, Estatu Espainoleko hizkuntza guztiekin errepresioan dute jatorria:

Ezinbestekoa da sentimendu nazionala eta espainolista, edozein generotan, inolako duda edo zalantzarik gabe adieraztea eta oso modu berezian espirituan eta estatuaren entitateekin egiten diren ekitaldi guztietan. Horrek ez du kentzen familiarreko harreman pribatuaren dialektoen erabilerak merezi ahal duen errespetua.

Arau horrek argitzen digu mentalitate faxistaren baitan euskararen erabilera Espainiaren batasunaren aurka korrante ideologiko separatistek loturik dagoela eta haren erabilera familiarreko harremanetara mugatzen dela, eta inoiz ezin izango da erabili, inondik inora, estatuarekin harremanetan.

Planteamendu horrekin batera etorri zen Euskararen kontra jarrera errepresiboa eskoletan. Irakasleek haurrak hezi behar zituztenez sentimendu nazional eta espainolistan eta Espainiaren batasun ukazinean, ideal haren aurka jo zezakeen edozein jarrera edo ideologia zigortzen zuten. Gauzak horrela, eskoletan euskara erabiltzea batasun sentimendu haren aurka zegoen, eta pentsatzen zuten gerraren ondoren euskararen erabilerak gogorazten zituela ustez desagertutako korrante separatistak.

Izen propioak ezinbestean gazteleraz erregistratu behar ziren erregistro zibilean. Izen propioak euskaraz jartzea debekatu zuten, Erregistro Zibilaren gainean, 1957ko ekainaren 8ko legearen 54. arti-

kuluan.

Agerikoa da euskararen aurka errepresioa esparru publikotik eta ofizialetik at egunerokotasunera ere hedatu zela, familia arteko harremanetan ere bete-betean eraginez. Errepresio hura sostengatuko zuen estatu arautegi zehatz bat ez zegoenez, debekuaren zenbaterainokoa agintari zehatz batzuen eskuduntza zen.

Euskararen kontra jarrera nabarmena eta gordina izan zen hasieratik:

Hizkuntza izaera ez duen hizkera nimiñoa, jatorri ezagun gabekoa eta desagertzeaz dagoena ezertarako balio ez duelako. Ganadurarekin hitz egiteko bakarrik balio duen baseritarren hizkera hau bizitza modernoarentzako oztopo eta atzerapena besterik ez da.⁴⁶⁰

Horrelako planteamenduekin, ez da batere harritzekoa euskararen aurkako errepresioa kale erabilerara mugatu ez ezik, eskoletara ere zabaltzea.

Administrazio zentralak Gipuzkoako Diputazioaren bitartez hizkuntza horren garapen normalizatua eragotzi eta jazarri egiten zuen: *Aberriaren batasunaren aurka edo ideia banatzaileen zabalkundea ematen bada, berehala aplikatuko da arau hau Euskal Herrian; Arautegi honen baitan daude, bataiatzen diren haurren izen propioak gazteleraz egotea, euskarazko izena zuten itsasontziei izena aldatu eta gaztelerazkoa jartzea edota jendaurrean euskaraz mintzatzea.⁴⁶¹*

Ikastetxeetan, euskara ama hizkuntza bakar moduan erabiltzen zuten ikasleak gaztelaniaz hitz egitera behartu zituzten. Horrela ez bazuten egiten, kolpe, mehatxu eta zigorrak izaten zituzten ordain gisa sarritan. Euskarazko liburuak erretiratu egin zituzten, *espainiaren batasuna* arriskuan jartzen zutelako.

Zu espainola zara, euskaldun edo gaztelau, aragoitar edo galiziar, katalan edo andaluz izan aurretik. Jainkoak nahi izan zuen horrela izatea, eta espainol guztiok anai-arrebak bezala elkartuz, aberri hau guztion artean handi egitea. Jainkoak hautatu zuen historiako balentriarik handienaren aberria hau izango zela, bertan, mundu berri bat eraiki, zibilizatu eta Jesukristoren mezua predikatuz.⁴⁶²

Euskarazko izenak erabiltzea ere debekatu egin zuten, eta seme-alabei euskarazko izena jarrita zutenei buruz horrela esaten zuten: *halakoa da haien ideologia separatista, seme-alabak baiatatzen dituzte euska izenez. Izen euskalduna zuten pertsona zibilei ezin zitzaizkien euskarazko bere izenez deitu. Miren*

denak Maria bihurtu ziren, Edurne denak Nieves, Amaia izeneko batzuek Fina... Norbaiti bere izenez deitzeagatik isunak jartzen ziren, baita gonbiteak egin ere hilerriko xafletatik izenak aldatzeko... debekatu zuten erregistro zibilean euskarazko izenak ematea; denborarekin, debeku hori jasota geratu zen 1957ko ekainaren 8ko Legearen 54. artikuluan.

Habla en cristiano agindua emanez, lortu nahi zuten euskaldunek euren hizkuntza ez erabiltzea. 1937ko apirilaren 13an, Donostian argitaraturiko La Voz de España egunkarian artikulua bat agertu zen, haien pentsakera laburbiltzen duena:

Gaztelania da inperioko hizkuntza bakarra; euskarak ez du balio tresna moduan komunikatzeko; bakarrik balio du aztertzeko.

Hizkuntza da modua inperioa eraikitzeko. Inperioak kultura hizkuntza bakar bat behar du, kulturaren beraren benetako komunikazio bidea. Gure kasuan gaztelania da funtzio horiek bere gain hartzen dituen (...) inperio batentzat arriskua dago bi kultura hizkuntza edo gehiago izatean (...) baina esparru txikiak hizkuntzak, familiarrak, antzinako garaietatik biziraun

dutenak, ez dira arriskua bakarrik, baizik eta aparteko babesa merezi dute, filologikoki balio handikoak diren neurrian, euskararen kasua den bezalaxe.

Ez zegoen estatu araudirik euskararen kontra errepresioa hobesten zuena, baina bai agindu bat, 1938ko maiatzaren 21ean sindikatuen antolaketa eta ekintza ministerioak ateratakoa. Bertan esaten da *probintzia vascongadoetan* kooperatiba zenbaitetan agiriak ele biz egiten jarraitzen dutela, euskaraz eta gaztelaniaz, eta hori aldatu beharra dagoela: *Erabat ezinbestekoa da erakustea sentimendu nazionala eta espagnolista inolako zalantzarako tarterik utzi gabe, eta batez ere estatuarekin harremanetan dauden erakundeetako espirituan eta ekintzetan.*

Aginduak zioenez, euskara “famiako harreman pribatuetan” soilik erabili behar zen. Famiakoekin kalean euskaraz egitea, baina, gaizki ikusia zegoen, eta batzuetan zigortu ere egiten zuten. Donostian, adibidez, isunak jarri zituzten horregatik, eta baita jendea kalabozoan sartu ere. Tokian tokiko agintariek erabakitzen zuten zer egin. Baina toki gehienetan euskara etxe barruko hizkuntza bihurtu zen. Ezkutatu beharrekoa.

Padres de familia. 2

INFORME DEL MAESTRO D. FRANCISCO TERREU

Conducta particular	: BIEN
Conducta profesional	: BIEN
Conducta politica	: MUY IZQUIERDISTA; DEMANDE

LA DOMINACION ROJA DE
ESTA VILLA SE DISTINGUE
HACIENDO CAUSA COMUN CON
LOS MARXISTAS, HABIENDO
ABANDONADO ESTA LOCALIDAD
AL VERER LAS FUERZAS DE
NUESTRO QUERIDO EJERCITO.

Por la Comision de padres de familia

J. Oñedey
Susan Urquiza

Sr. Párrico

En contestación al vengo que se me dirigió por el Sr. Presidente de la Comisión Depuradora del Magisterio, solicitando un informe, lo más detallado posible, acerca del Sr. maestro de esta localidad, Sr. Angel Susunaga, después de haberme asesorado de personas fidedignas, informo, que el citado Sr. maestro, es de ideas marxistas; no se ha recalcado en decir que es socialista, y no se le vió en ninguna de las iglesias de Mendrojin. Hoy, hallase afiliado a la Falange Española y lleva su uniforme. En Villafraña de los Baños, cuya escuela regenta, por dicho motivo informo y datos más correctos.

No se le ha contestado antes, por haber tardado en llegar aquí la solicitud, nada menos que cinco días.

Dios pague a España y a V.
Mendrojin 4 de Mayo de 1937
El Párrico - Arroyabe
Saverio Leal

Sr. Presidente de la Comisión de Instrucción Pública
San Sebastian

16. Hezkuntza Errepublikara

Hezkuntza izan zen II. Errepublikaren konpromiso sozialetako bat. Hezkuntzaren bitartez, demokrazia ezarri, herritar guztien eskubideak bermatu eta herria modernizatu nahi zuten. Irakaskuntza eratu nahi zuten, Errepublikaren defentsa egin nahi zuten, gai izango zena herritarrak hezteko, konprometituak gizarte berri bat sortzeko, zeinak atzean utziko zituen beste garai batzuetako desberdintasunak eta obskurantismoa. Hezkuntza publikoa, derrigorrezkoa, doakoa, aktiboa, laikoa, elebiduna eta solidarioa, zeina saiatzen zen bukatzen mendeetako diskriminazio batekin, sexu edo klase sozialaren arrazoiak tarteko.

Baina, zoritxarrez, II. Errepublikaren planteamen-
duak geratu ziren funtsik barik eta osatu barik.

Altxamendu faxistak urritu egin zituen eraldaketa sozialerako ilusioak eta esparru guztietarako, hezkuntza barne, jarduera erreformatzaileak ezarri zituen.

Herritarrentzako hezkuntza proiektu haren baitan leku pribilegiatua betetzen zuten errerepublikaren aldeko maistrek. Hala ere, oso gutxi dakigu konprometitutako emakume ausart haiek bizi behar izan zuten mespretxu, desterru eta ahazterik handienari buruz. Haien izen, bizipen eta lanak memoriara itzuli behar dute, gure hezkuntzaren historiaren legatuaren parte izanik.

1936tik aurrera, garbiketa, errepresioa eta erbesteak kolektibo guztien gain izan zuten eragina eta, beraz, II. Errepublikaren hezkuntza politika demokratikoa sinbolizatu zuten maisu-maistregan.

Errepublikaren maisu-maistrek ardura izan zuten etorkizuneko herritarrak balore errepublikarretan hezteko. Horrek argitzen du frankismoak zergatik nahi zituen ordezkatu irakasle haiek beren ideologiako beste batzuek. Maistren kasuan, handitu egin zen errepresioa. Eredu publikoan, frankismoak erabat ukatzen zuen emakumearen eredu eraldatzeko egindako lana, izan ere, eredu hura katolizismo-nazionalak defendatzen zuen emakume idealaren kontrakoa baitzen.

Maistrek egindako lana eta haien bizipenak berreskuratzen ez baditugu, betirako ahaztu daitezke. Eskoletan aritu zirela baieztatzen zituzten artxibo asko eta asko desagertu egin dira eta beste asko suntsitu egin dituzte. Gauzak horrela, elkarrizketak ezinbestekoak dira maistrek garai hartako gizartean bete zuten paper garrantzitsua berreskuratu eta dokumentatzeko.

16.1. Maisu-maistren garbiketa

Garbiketa batzorde probintziala jarduten hasi zen 1936aren bukaera aldera. Erabakiak hartzeko, txosten batzuk zituen, bidalitakoak herriko hainbat instantziatatik: alkatetza (Jesús Gorosabel Mendia, alkatea); Karlisten Gerra Batzordea (Gonzalo Azcoaga Gordo, presidentea); Arrasateko erreketen herriko buruzagitza (Nicomedes Zubillaga Aguirre, burua); familia gurasoak (Julio Otaduy eta Juan Unzueta ordezkariak); Eliza (David Esnal, parrokoa) eta Guardia Zibila; txostenak estamento horiek

egiten zituzten. Haiez gain, edozeinek salatu zitzakeen. Salaketetan agertzen da maistraren baten izena, baina salatzaile batzuek ez zuten agertzen bere izena.

Seguru dakigula 24 maisu-maistra izan ziren garbiketaren biktima. 15 banatu, zigortu eta erbestera egin zituzten. Sei emakumeak ziren. Maisu bat erail zuten, beste bati 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta 9 euren postuetan konfirmatu zituzten.⁴⁶³

Zigortuak 15:

Isabel Balbas García: leporatu zioten ezkerreko ideologia edukitzea, irakurtzeagatik Madrilgo Herardo eta Bilboko Liberal, eta sinatzeagatik bere atxikipena Iturmendi maisuari egindako omenaldian, atzerritik itzultzean, urriko iraultzaren ondorioz atzerriratu. Salatzaile batek, emakumea bera, zeinak ezkutatu egin zuen bee izena, esan zuen entzun ziola esaten: nahiz eta Margariten ikurra eroan, barrutik jarraitzen dut izaten, badakizue, beste hori. Arrasaten nazionalistako maistra batek, Juana Larraya, esan zuen: begiko zituen nazionalistak eta FUEko ohorezko bazkidea zen. Harremanak izan zituen pertsona ezkondu batekin, eta haren neska ikasleek agur egiten zuten ukabila jasota. Nicomedes Zubillaga Aguirrek, erreketen herriko burua bera, esan zuen: haren portaera partikularra zen hutsik gabekoa, eskumazalea eta espagnolista. 1937ko maiatzaren 10ean zigortu egin zuten eta lekuz aldatu zuten beste herri batera.⁴⁶⁴

María Gregoria Echevarría Echegaray: Juana Larrayaren txosten baten arabera, haren senarra da gorriekin ihes egin zuten maisuetako bat. Begikoa zuen pedagogia antikatolikoa, eta gaitzesten zuen Espainiako Armada Salbatzailea. Sinatu zuen Iturmendi maisuari egindako omenaldiaren atxikipena. Zigortu zuten behin betiko banatuz.⁴⁶⁵

Catalina García Michelena: zuzendaria zen Arrasateko neskatoen eskola graduatuan. Salatzaile anonimo batek leporatu zioen berbaz iraintzea hainbat maistra. Aurea Arregui Goñik, maistra ere bai, gezurtatu egin zuen akusazio hori. Hala izanik ere, zigortu zuten 1937ko abenduaren 14an hiru hilean etenda bere lana, eta bidali zuten Gumiel de Izán herrira, Burgosen.⁴⁶⁶

María Rosario Echenique Aguirre: leporatu zioten nazionalismoaren jarraitzailea izatea eta Iturmen-diren atxikipen karta sinatu izana. Luisa Alonso, Aurea Arregui eta Juana Larraya maistres haren alde egin zuten. Baina zigorra jarri zioten, gaitasunik gabe utzi zuten eskolak emateko Baskongadetako probintzietan eta haren mugako probintzietan bost urtez.⁴⁶⁷

Angel Susunaga Martitegi: alderdi sozialistakoa izan zen 1934ko urrira arte. 1937ko maiatzaren 4ko txostenean David Esnal parrokoak esan zuen ideia marxistakoa zela, eta ez zutela inoiz ikusi Arrasateko elizetan. Falangean sartu zen 1936ko azaroaren 27an, eta soldadu sartu zela 1937ko abenduaren 12an, eta lortu zuela alferrez probintzial gradua. Zigortu zuten lan barik utzita sei hilabetez eta bidali zuten hiru probintzia baskongadoetatik kanpora, eta mugako probintzietatik kanpora, bost urtez.⁴⁶⁸

Augusto Peñin Balbas: David Esnalek dio bere txostenean, eliza ez zapaltzeaz gain, politikan gobernu iraultzaileen amorratua zela, Azañarena, Prietorena eta Largo Caballerorena. UGTen afiliatuta zegoen, eta Arrasatetik kanpora ibili zen tropak sartu aurretik. Zigortu zuten zerbitzutik behin betikoz banatuta, eta baja eman zioten laneko mailan 1939ko maiatzaren 10ean. 1941eko irailaren 25ean berrikusi zuten espedientea eta zigortu zuten enplegu eta soldata barik utzita urte biko, eta bidali zuten probintzietatik kanpora.⁴⁶⁹

Francisco Terreu Carrasco: txostenetan agertzen da oso ezkerzalea zela; jardun zuen marxistekin, alde egin zuen herritik. Guardia Zibilak leporatu zion ekintzako sozialista izatea eta UGTkoa izatea. David Esnalek errepikatzen du Augustoz esandako berbera: eliza ez zapaltzeaz gain, politikan gobernu iraultzaileen amorratua zela, Azañarena, Prietorena eta Largo Caballerorena. Zigortu zuten behin betiko banatzeaz.⁴⁷⁰

Rogelio Izarra Ijalba: leporatu zioten ekintzako ezkerzalea izatea, esku hartu baitzuen sentsore telefonoetan gorrien agintaldian. Bertan behera utzi zuen bere egitekoa, destinoan. Zigortu zuten bere karguaz behin betiko banatzeaz.⁴⁷¹

Julian Pantrigo López: Jesús Gorosabel, Nicomedes Zubillaga eta falangea bat etorri ziren txos-

tenan, oso ezkerzalea zela; alde egin zuen herritik. Zigortu zuten bajarekin 1937ko eskalafoian. Jarraitu zuen eskatzen 1948an bere espedientea berrikusteko. Orduko alkateak, Domingo Arzamendi, txostenean, 1948ko uztailaren 6koa, zioen: ez du kargurik kontra, gorrien agintaldian elikagaiak banatzen zituen herritar zibilen artean.⁴⁷²

Angel Iturmendi Busto: salatu zuten afiliatu sozialista zelako eta Oñatiko komisarian buru egon zelako, gorrien zerbitzura. Preso hartu zuten urriko gertakarien ondorioz. Banatu zuten bere kargutik behin betikoz 1937ko urtarrilaren 4an.⁴⁷³ Oñatikoa, 24 urte. Maisua Arrasateko Zarugalde kaleko eskola publikoan. Arrasateko Talde Sozialistako kidea. Urriko Iraultzan atxilotu eta bando iraultzailearen egile izateaz akusatu zuten. 1937ko urriaren 24an, Zumalakarregi Tertioko (gehienbat Arrasateko eta Oñatiko erreketez osatutakoa) kapitainek herriko taberna batetik atera zuten beste hiru lagun sozialistekin batera: Rogelio García Lumbreras eta Felipe García Lumbreras eta Dragones batailoiko miliziano arrasatearrak, eta Vicente Oregi UHP batailoikoa, 26 urteko Oñatiarra. Guztiak han bertan, taberna kanpoan, fusilatu zituzten.⁴⁷⁴

Coronacion Ramirez Veras: zigortua.

Arturo Ortiz de Anda: banatua.

Francisco Vitoria Errasti, 30 urteko kartzela zigorra.

Angelita Arano Garcia, banatua.

Matxinatuek erreboltari izateaz akusatu zuten Ciriaco Jauregui maisua baina ez dugu aurkitu kasu horren banaketa espedienterik.

Euren postuetan konfirmatutakoak: 9

Fulgencio Cavia Fiel

Josefa Aguirre Azurmendi

Luisa Alonso Frias

Juana Larraya Egues

Francisca Torregaray

Martin Calvo Sanabria

Aurea Arregui Goñi

Antonio Armengou Narro

Mariano Montiano Uriarte

1937ko otsailaren 8an, alkateak honako informea bidali zion Instrukzio Publikoko ordekariburuari: herri honetan daramatzen urteetan, Mariano Montianok portaera moral eta profesional akatsik gabekoa izan du. Politikan, eskumako pentsaera du eta Mugimendu Nazionalaren jarraitzaile tinkoa da.

Antonio Armengou Marro Langileen Enplegu Bulegoko arduraduna izateaz gain, marrazketa irakaslea ere bazen Biteri Eskolan. 1937ko apirilaren 14an, erantzukizunak argitzeko Herrizaintza Batordeak kargu hauez akusatu zuten: *Nazionalismoaren jarraitzailea izatea, "Euzkadi" irakurtzen zuen eta. UGTkoa, Udal Langileen Elkarteko kidea zen eta. Bere estudioan Galán eta García Hernándezen erretratu bat zeukan.*

Baina Gestora Munizipalaren Herrizaintza batordeak haren alde erabaki zuten, hauek argidiatuta: hauteskundeetako lehian une oro egin zuen eskumako elementuen alde. Bere portaera moral eta erlijiosoa oso ona izan zelako beti, eta hasieratik demostratutako egungo mugimenduarekiko jarrera abertzale eta espainolarengatik.⁴⁷⁵ Urte batzuk geroago, 1942ko urriaren 5ean, lanik eta soldatarik gabe utzi zuten udalean, adingabeak galbidean jartziaz akusaturik.

Francok 1936ko Gerra irabazi izanak familiaren zentzu tradizionalaren berrezarkuntza ekarri zuen berarekin. Errepublikaren garaiko lege zibilak indargabetu eta, berriro ere, hezkuntza elizaren kontrol ideologikoaren menpe jarri zuten.

Sección Femenina bihurtu zen emakumeek gizaratean zuten bigarren mailako paperaren transmisiorako elementu garrantzitsu, bere esku baitzegoen etorkizuneko maistren prestakuntzaren zati inportante bat: etxeko ekonomia, etxeko lanak, musika, eta prestakuntza politikoa eta soziala, gorputz hezkuntzaz gain.

Baterako hezkuntza debekatu zuten. Espainolen Foruan "emakumea tailerretatik eta lantegietatik liberatu nahi zuten", etxeko lanek eta erlijioak hartu zuten pisurik handiena ostera. Berriro ere, neska-mutilak bereizi egiten dituzte geletan eta hezkuntza bereizia ematen diete, gizonen eta emakumeen funtzio sozialen arabera.



Gazteluondoko eskola publikoa (1934). Azken iladan, lehena ezkerretik hasita, Rogelio Izarra Ijalba maisua.

17. Erantzukizun politikoei buruzko legea

Erantzukizun Politikoei buruzko Legea 1939ko otsailaren 9an onartu zen, gerra amaitzear zela. Azalpenen arabera, legearen helburua zen *“liquidar las culpas de este orden (Responsabilidades Políticas) contraídas por quienes contribuyeron con actos u omisiones graves a forjar la subversión roja, a mantenerla viva durante más de dos años y a entorpecer el triunfo, providencial e históricamente ineludible, del Movimiento Nacional”*.

Aurreikusitako zigorrak hiru multzotan sailkatuta zeuden:

- Jarduera murrizten zutenak: desgaikuntza berezia edo erabatekoa.
- Bizileku askatasuna murrizten zutenak: erbeste-teratzea, Afrikako kolonietara bidaltzea, konfinamendua edo deserriratzea.
- Ekonomikoak: ondasun guztiak galtzea, kopuru finko bat ordaintzea edo ondasun jakin batzuk galtzea.

Erantzukizun politikoen barruan eta, beraz, aipatutako zigorren eraginpean, besteak beste, jurisdikzio militarrek kondenatutakoak zeuden, *“por la jurisdicción militar por alguno de los delitos de rebelión, adhesión, auxilio, provocación, inducción o excitación a la misma o por los de traición en virtud de causa criminal seguida con motivo del Glorioso Movimiento Nacional”*.⁴⁷⁶ Horrek esan nahi du lehendik prozedura militar batean kondenatutakoek beste zigor bat jasan zezaketela, lehenago epaitutako ekintza berberengatik. Lege horren babespean iza-

pidetutako prozesu askotan, zigor ekonomikoak oso ohikoak izaten ziren; horrek beste zama bat gehitu ohi zion zigortuen egoera ekonomiko larriari

Erantzukizun Politikoen Legea 1942ko otsailean moldatu zen, eta ordutik aurrera zigor ekonomikoak ordaindu zitzaizkien soilik aplikatu zitzaizkien. Erreformaren arrazoiak honako hauek izan ziren: justizia frankistaren kolapsoa; auzipetu gehienak pobrezian bizi zirenez, zigor ekonomikoei aurre egiterik ez izatea; Bigarren Mundu Gerraren eboluzioa, eta, azkenik, errepresioaren zati nagusia betea zela egiaztatu izana. Azkenik, Legea baliorik gabe utzi zuten 1945eko apirilean. Horren ondorio bakarra espediente gehiagorik ez irekitzea izan zen, ordura arte irekitako espediente guztiek beren bideari jarraitu baitzioten.⁴⁷⁷ Sasoi hartatik aurrera, indultu batzuk izapidetu eta onartu ziren, kasu partikular batzuetan. Gerra amaitu eta 27 urtera, 1966ko azaroan dekretu batek bertan behera utzi zituen isunak.⁴⁷⁸

Nafarroako eta Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Epaitegi Zibil Bereziak espedientatutakoak: 148

1937ko abenduaren 3an, bi probintzietako menpeko administratzaile izendatu zituzten. Arrasateren kasuan, udaleko idazkariak bete zuen kargu hura.

Prozesatuak eta kondenatuak izan ziren pertsona guztiak Erantzukizun Politikoen espediente bati egin behar izan zioten aurre kartzelatik atera edota

langileen batailoietan aritu ondoren. Espedientea hasten zen Bergarako Instrukzio Epaitegira eskatzen zen informarekin. Herriko indar biziei, alegia. Informe haietan, 1936ko uztailaren 18aren aurreko zein ondorengo aurrekari politiko eta sozialekin batera, haien ondasunen zerrenda eskatzen zuten. Helburua zen estatu kolpearekin bat ez zetozen pertsona haiei eta kondenaturik zeudenei kalte-ordainak eskatzea matxinadak eragindako kalte-engatik. Konfiskatzeak, enbargoak eta isunak izan ziren horretarako erabili zituzten bideak.

Honela baloratzen zitzaizkien jabetzan zeuden etxeak: Teodoro Larrañaga Ezcurra, 38 urte, EAJkoa, General Franco kaleko 6 zk. eta 9 zk etxeak 50.000 pezetan baloratu zuten eta 3.000 pezetako isuna jarri zioten.⁴⁷⁹ Jesus Pagoaga Dolara, Zarugalde kaleko etxea 4.300 pezetan baloratu zuten; Antonio Lasagabaster Loinaz, General Franco kaleko 36 zk. etxea 13.080 pezetan baloratu zuten. Jesus Menchaca Aguirre bere emaztearen etxearen zati baten oinordea da, General Franco kaleko 50 zk. Etxea 17.490 pezetan baloratu zuten. Claudio Aranzabal Achoteguiren Nafarroa etorbideko 3 zk. Etxea 7.200 pezetan baloratu zuten. 1940ko otsailaren 16an, 1.500 pezetako isuna jarri zioten. Manuel Gallastegui Berecibar 50 urteko gizona eta 20.000 pezetan baloratutako Intxausti baserriko jabeari, 1940ko otsailaren 12an, 1.000 pezetako isuna jarri zioten.

Abarrategui Zubia, Leandro
Altuna Abarrategui, Victor.
Aguirre Loidi, Andres.
Acha Sagasta, Tomas
Adan de Yarza Gortazar, Mariano
Aramburu Zabaleta, Juan Cruz.⁴⁸⁰
Aranzabal Ochotegi, Claudio.⁴⁸¹
Arenaza Uribechevarría, Domingo
Arregui Lasagabaster, Juan.
Arregi Larrañaga, Tiburcio.
Azcoaga Aldanondo Juan Pedro.
Azcoaga Rezola, Juan Antonio.
Aranburu Echaniz, Domingo.

Arregui Sagasta, Andres *Kataide*
Arriola Eguidazu, José *Recho*
Angulo Susperregui Bernardo.⁴⁸²
Balanzategui Cillaurren, Jenaro
Barrutia Corta, Cayo
Berriochoa Garitaonandia, Alejandro.
Ceciaga Olalde, Domingo.
Ceciaga Olalde, Juan.
Ceciaga Olalde, Julian.
Celaya, Vitoriano
Cortabarría Chinchurreta, Facundo
Cortazar Moranati, José Antonio
Gallastegui Berecibar, Manuel
Garro Altube, Domingo
Garro Altube, Jenaro
Gonzalez Folliot, Vicente
Herrazti Aguinagalde, Benito
Larrañaga Ezkurra, Teodoro
Lasagabaster Loinaz, Antonio
Luco y Madina, Vitoriano
Luco Gastañarez, Josefina
Mercader Oyanguren, Luciano
Martínez Martínez, Peregrino
Menchaca Agirre, Jesús
Mendizabal Arana, Hilarion
Murguzu Barrena, Aquilino
Osinaga Urrutia Patricio
Pagoaga Dolara, Jesus
Riviere Olaizola, Benito
Ugalde Osinaga, Felix
Uriarte Ceberio, Hipólito.
Uriarte Ayastuy Valentin.
Uribe Arregui, Vicente.
Urquiola Garaygordobil, Benito.

Zaitegui Ibarzabal, Juan.
Urquiola Garaygordobil, Benito
Zarraoa, José Maria
Zubia Bedoña, Pedro
Zubizarreta Amuchastegui, Ignacio
Porto Montijo, Emiliano
Garai Albistegui, Francisco *Galan*
Azcarraaga Berecibar, Francisco
Balerdi Urionabarrenechea, Victor
Labajos Salvadores, Angel
Mugica Almandoz, Luis
Vitoria Errasti, Francisco
Dominguez Gamaz, Urbano
Urcelai Zarraoa, José M^a (Fusilatua)
González González, Francisco *Kiko*
Azconaga Arana Trinitario (Inspector Munizipala)
Zabalo Lizarralde, Jesus
Herrero Otero, Manuel
Herrero Carreras Cleobaldo
Eguia Osa Jesus
González Gómez Baltasar
Martínez Ubago José Luis
Itaiz Murillo, Valentín
Isasmendi Otaduy, Lorenza.
Yarza Mugica, Francisco.
Yarza Abalia, Gregorio
Azcoaga Gordon, Felix
Oroiz Fontaura, Segundo
Heriz Lamarain, Agustín
Labajos Moreno, Casimiro
Mendizabal Ceciaga, Francisco (Ikastolako Irakaslea)
Ruiz De Alegría Balanzategi, Pedro (Frontean hila)
Uriarte Ceberio, José
Marcaide Larrañaga, Eustasio ⁴⁸³

Marcaide Larrañaga, Lucio.
Mondragon Oyanguren, Ignacio.
Madinabeitia Altube, Nazario.
Pildain Mugarza, Juan Jose.
Trojaola Bengoa, Juan Maria.
Eskurra Gallastegui, Isidoro.
Eskurra Gallastegui Florencio.
Echevarria Mendizabal Ricardo.
Eguidazu Arregui, Martin.
Garitaonandia Gurtubay, Guillermo.
Garcia Orte, Juan.
Uriarte Ceberio, Nicolás
Letona Múgica, Felipe
Gómez Otxoa, Bernardo (Frontean hila)
Gorosabel Gorosabel, Jose.
Unamuno Azcoaga, Gregorio.
Uranga Urrutia, Jesús (Fusilatua)
Resusta Olañeta, Eugenio
Garro Arriola, Cecilio
Goñi Azcoaga, José Antonio
Zulueta Belástegui, Felix
Astaburuaga Bengoa, Mateo
Garmendia Alava, Joaquín
Sologaistoa Iriarte, Santos *Txatua*
Sologaistoa Ayerbe, Gregorio
Eguidazu Pagaldai, José Miguel
Ceciaga Uriarte, Segundo *Oxiña*
Azkarate Isasmendi, Juan
Laspiur Urrutia Salvador
Letamendi Ojea, Francisco
Arizabaleta Zabaleta, Pablo
García España, Luis *Pancorbo*
García Orte, Juan
Pérez Marino, Enrique

Nurias Rico, Arturo
Del Río Fernández, Francisco
Esquibel Echevarría, Luciano
Escudero Pinacho, Santos
Mugica Arregui, Saturnino
Celemin Tabares, Eduardo
Ormaechea Ibarrondo, Victoriano
Sanchez Lopez Eutiquiano⁴⁸⁴
Arregi Lizarralde, Eusebio⁴⁸⁵
Ceciaga Uriarte, Segundo⁴⁸⁶
Garate Umerez, Andres⁴⁸⁷
Altuna Sagasta, Cosme⁴⁸⁸
Garate Umerez, Jose
Garate Larrañaga, Carlos⁴⁸⁹
Abarrategi Azcarate, Mercedes⁴⁹⁰
Lopez Rodriguez, Victor⁴⁹¹
Menchaca Trecu, Juan⁴⁹²

Marichalar Iñurrategi, Tiburcio⁴⁹³
Ariztimuño Ayerbe, Gregorio⁴⁹⁴
Leibar Guridi, Jesus⁴⁹⁵
Oyanguren Arana, Emeterio⁴⁹⁶
Esquibel Elorza, Francisco⁴⁹⁷
Zubizarreta Idigoras, Jose⁴⁹⁸
Berezibar Azpiolea, Jesus
Berezibar Azpiolea, Guadalupe
Berezibar Azpiolea. M^a Tere
Berezibar Azpiolea, Jose Luis
Berezibar Azpiolea, Juan Jose
Berezibar Azpiolea, Sabin
Berezibar Azpiolea, Imanol
Núñez Núñez. Demetrio
Sanz Núñez, Fernando
Arriola Badilla, Inocencia

18. Kausa militarrek

Errepresio judiziala frankismoaren hasierako urteetan.

Altxamendu militarren hasieratik errepresio judiziala justizia militarren kodean oinarritu zen eta orduko interes politikoak babesteko, beharrezko aldaketa eta egokitzapenak egin zituzten.

Tropa faxisten altxamenduaren ondoren, Espainiako Defentsa Nazionalaren Batzordea eratu zuten Burgosen, eta bertan onartu zuten 1936ko uztailaren 30eko bandoa. Bando haren bitartez, estatu-lurralde osoan gerra egoera deklaratu zuten eta hainbat delituengatik, hala nola altxamendua, sedizioa, eta arrazoi politiko edo sozialengatik pertsonen edo haien jabetzen aurka atentatzeak adibidez, prozesu sumarismoen bidez tramitatzea onartu zuten.⁴⁹⁹ Ordura arte, justizia militarren kodea prozesu sumarismoen aplikazioa delitu militar nabarmenengatik heriotza zigorrera edo bizi arteko kartzela zigorrera kondenatutako erruztatuei aplikatzen zitzaizkien soilik. Prozedura hura aplikatzean, bi ziren Batzorde Nazionalaren helburuak: prozesuak azkartzea batetik, eta bestetik, auzipetuentzako berme prozesalen absentzia.

Bando hark eta aurrerago egin zituzten lege frankistek matxino, sediziozile edo traidoretzat jotzen zituzten legitimoki eratutako Errepublikaren gobernu defenstatzen zutenak, baina, paradoxikoki, altxamendu hartan parte hartu zutenek, hain zuzen ere, haiek epaitu eta kondenatu zituztenak

1936ko abuztuaren 31an, 79 dekretuan jaso zuten gerra eta marina jurisdikzioak ezagutzen zituzten kausa

guztiak epaiketa sumarismoaren tramiteen inruituko zirela. Honetarako “ez da beharrezkoa izango erruztatua in fraganti harrapatzea ezta ere ezarri beharreko zigorra heriotza edo bizi osorako kartzela zigorra izatea”. Hau da, Prozedura Sumarismoa instituzionalizatu zuten ohiko prozedura kaltetuz.⁵⁰⁰

1936ko azaroaren 1eko 55 zk. Dekretuak jasotzen duena araua deitzen duenari buruz: *“el sin número de crímenes de todo orden, amparados por la carencia de tribunales, cuando no protegidos a instancia del llamado gobierno de la república, obliga a dictar la presente disposición en la que, junto a las garantías procesales, queden coordinadas las características de rapidez y ejemplaridad tan indispensables en la justicia castrense,”*⁵⁰¹ Zortzi gerra kontseilu eratu zituzten, erabaki zuten defendatzailearen kargua beti militar batek bete behar zuela eta Presazko Prozedura Sumarismo berri bat ezarri zuten. Aldaketa haiek epaiketak oraindik ere azkarragoak izateko egin zituzten., Hainbat fasetako tramiteak murriztu zituzten ordura arte jarraitzen zuten prozedura laburrari. Auzipetuek ez zuten inolako berme juridikorik. Horrez gain, erabaki zuten defendatzaileak ezinbestean militarra izan behar zuela, hau da, inolako formazio juridikorik ez zuen pertsona batek defendatuko zituen epaiketetan. Prozedura berri haren bidez, defentsarako inolako aukerarik gabe utzi zituzten auzipetuak. Presazko Prozedura Sumarismoa 1940ko uztailan indargabetu zuten.

Justizia militarren kodeak zehazten zuen, emandako epaiari agintari judizialak soilik jarri ziezaiokeela helegitea. Eta, oso kasu berezietan baimentzen zuen

zigortuak edo bere hurbileko senideek epaia berrikusteko errekurtsioa jarri ahal izatea. Justizia Militarreko Goi-auzitegiak 1936ko azaroaren 21eko zirkularren bidez zabaldu zuen errekurtsioa jartzeko aukera ohiko prozeduretara mugatzen zela, eta horrela, galarazten zuten errekurtsioak egitea prozedura summarisimoetako sententziak berrikusteko.⁵⁰² Aurretik esan bezala, gerrak iraun bitartean eta baita haren ondoren ere, tramitatutako prozedurek summarisimo izaera izan zuten.

1940ko urtarrilaren 25eko agindua betez, herrialde guztietan eratu zituzten “Zigorren-azterketa” batzordeak. Ordenaren sarreran azaltzen da: *Estatu berriaren funtsezko helburua da: Marxismoak armadaren altxamenduaren kontra eta kausa nazionalaren aurka jotzeagatik aberriaren kontrako traizio kriminalarengatik dituen erresponsabilitateak kitatzea*. Hiru urtez, etenik gabe, aplikatu zuten jarduera judizial hura, eta horren ondorioz, kartzela eta langile batailoi guztiak preso z gainezka zeuden. Orduan aitortu zuten, arau honek desberdintasun handiak eragiten zituela irizpideetan larritasun maila berdineko delituak epaitu eta zigorrak ezartzeko. Hain nabarmenak ziren, estatuak berak ere errekonozitu egin behar izan zituela. Epai irmoetan aplikatzen zuten, legalitatearen eta segurtasun juridikoaren urraketa nabarmena ematen zen. Desberdintasun haiek konpondu nahian, ohar hau gehitu zioten aginduari: *Arau batzuk eta matxinada delituen modalitate nagusiak ... auzitegiek eta agintari judizialek zigorraren gehikuntza duten konmutazio proposamenetan erabil ditzaten*.⁵⁰³

Herrialdeetako hiriburuetan eratutako batzordeek ofizioz aztertzen zituzten tribunal militarrek artxibatutako sumarioetako epai irmoak, hau da, kondenatuak hala eskatu gabe. Ofiziozko izate hura jarraituz, berrikusi zituzten kartzelan hildako zenbait pertsonaren sententziak. Berrikuspenen emaitzen arabera, kartzelan hildako pertsona haiek kalean behar zuketena.

1945eko urriaren 9ko dekretuaren bidez, indultu totala eman zieten zigortutakoei altxamendu militarrengatik edo 1939ko apirilaren 1era arte egindako beste delitu batzuegatik. Dekretuaren arrazoien azalpenetan azaltzen den bezala, hona hemen indultuaren oinarriak: *Baldintzapeko askatasuna eta lan eginez penak luditzeagatik iraultza komunistarengatik kondenatuak izan zirenen ehuneko laurogeita hamarra*

kartzelatik kanpo egonik, eta, beste asko ihesean atzerrira joandakok izanik, nahiz eta, haietariko askok aske geratu diren preso batzuen baino arduratsu txikiagoak izan, gobernuak duen indarraren eta nazioak ematen dion babesaz kontziente izanik, beste pausu bat eman nahi du Espainiako bizitzaren normalizazio progresiboaren bidean. Hala ere, indultutik kanpo geratuko dira masak zuzendu eta krimenera sutu zituztenak edo edozein giza kontzientzia higuintzen duten ekintzak burutu dituztenak. Indultua aplikatu edo ez erabakitzeke, egokitutako sententzien terminoetara.⁵⁰⁴

Epaia betetzeko presak agerian uzten du epaiketa haietan auzipetuek ez zutelako berme prozesalik. Ezta defentsarako bermerik ere. Akusatuak ezin zuten izendatu lekukorik, bere testigantza defendatuko zuena, ezta aukerarik ere abokatu defendatzailea izateko. Abokatu defendatzailea izango balu, akusatuaren defentsa beteko luke azken orduan izendatutako militar batek. Hura defendatzen zuten militar batek, ezagutza juridikorik ez zuena eta auzipetuaren egoeraren berri ez zekiena. Ez zuten inolako aukerarik sententzia errekurritzeko. Heriotza zigorrera kondenatzeko arrazoirik nagusia oinarritzen zuten salatzaileak bere aurka egindako deklarazioan. Salaketetan, leporatzen zieten aurrerago hilik agertuko ziren pertsonen atxilotketan parte hartu izana. Arrazoi hura nahikoa izan zen auzipetu asko heriotza zigorrera kondenatzeko, nahiz eta, kasu honetan bezala, inolako zerikusirik ez izan atxilotketaren ondoren gertatuko heriotzarekin.⁵⁰⁵

Gerran atxilotutako pertsonak bertako Presoen eta Aurkeztutakoen Sailkapen batzordearen esku uzten zituzten, hark galdeketa egin ziezaien. Batzorde hark informeak eskatzen zizkion atxilotuaren herrietako lau instituziori: Udalari, Falangeari, Guardia Zibilari eta Elizari.

Herrietatik bidalitako informe horien arabera, Sailkapen batzordeak 5 taldetan sailkatzen zituen atxilotuak: “A, B, AD, C eta D”. Erregimen frankistaren jarraitzaileek A taldean sailkatutako pertsonak askatu edo matxinoen bandoko errekruta kutxetara eramaten zituzten. B taldean zeuden, erregimenaren aurkakoak izan arren, deliturik ez zuten eta epaituko ez zituzten atxilotuak. AD taldean kokatzen zituzten aurreko bietan sartu ezin zituztenak. AD eta B taldeetako atxilotuen

preso izaera mantentzen zuten eta Langile Batailoietara eramaten zituzten. C edo D taldeetan sartuta zeudenak tribunalen esku uzten zituzten, haiek zer egin erabaki zezaten: kartzela edo fusilamendua.⁵⁰⁶

Honako hemen arau honek zer aukera ematen zien atxilotuei: aske geratzea, erruztatua izatea, kontzentrazio esparruren batera eramatea, bere aurka prozesua abiatzea, kartzelaratztea edo exekutatua izatea. Presoen eta Aurkeztutakoen Sailkapen batzordea 1937ko bigarren seihilekoan hasi zen eskatzen horrelako informeak. Arrasateren kasuan, ezagutzen dugun azken informea da 1950ean egin-dakoa. 1937ko bigarren seihilekotik 1938ko urrira arte Arrasateko Udalak igorritako informeak Jose Miguel Azcaratek eta Isidoro Echevarria Maidaganek sinatu zituzten, nahiz eta, orduko alkatea Jesus Gorosabel izan.⁵⁰⁷ JONS eta Espainiako Falange Tradizionalistak igorritako informeak sinatu zituzten Domingo Arzamendi, elkarteko lehendakariak eta Roberto Arcauz elkarteko idazkariak. Elizakoak David Esnalek sinatu zituen eta Guardia Zibilarenak, 1937ra artekoak, Bienvenido Iglesias Fondevillak, 1938koak Braulio Gomez Arranzek eta 1940tik aurrerakoak Valentin Romera Ortizek.

Diktaduraren hasierako urteetan, 1939tik 1948ra, Arrasateko alkatea zen Domingo Arzamendi Aranzabal, eta kudeatzaileak ziren Isidoro Echevarria, Jose Miguel Azcarate, Vicente Berecibar, Santiago Bastida, Santiago Ochandiano, Gonzalo Azcoaga, Esteban Pagoaga, Nicomedes Zubillaga, Mariano Azcarate, Celestino Otaduy, Antonio Pagoaga, Jose Maria Ecurra, Manuel Madinabeitia, Sotero Acha, Miguel Laspiur, Sergio Crespo... Karlistak nagusitu arren, falangistak ere badaude izen horien artean. Kudeatzaile batzuk finkoak ziren eta beste batzuk txandakatu egiten ziren.

Aztertutako kausa judizialak, haietako gehienak, auzipetuaren ikerketa deklarazioarekin hasten dira, eta horretan galdetzen diote ea zein afiliazio politiko edo sindikal duen, zer egin zuen Errepublika garaian eta gerra hasi zenean.

Kausa tramitatzeke, pertsona horri buruz informazioa eskatu zieten herriko alkateari, Guardia Zibilen komandantziari eta Falange Españolari. Bidalitako txostenek auzipetuaren aurrekariak eta ideologia aipatzen dituzte, eta kasu askotan baita

haren ingurua nolakoa den, lagunak, senideak eta zer irakurtzen duen, ea hortik altxamenduaren aurka daturen bat lortu daitekeen. Txostenetan egiazkotzat jotzen dituzte gertaerak, kontrastatu barik, horietan esaten direnak egiak diren ala ez frogatu gabe, benetako judizio moral eta erlijiosoak eginez.

Kausa batzuetan herriko bizilagunen testigantzak agertzen dira, askotan alkateak proposaturiko bizilagunak. Nabarmendu behar da haien testigantzetan agertzen diren gertaeretan ez direla lekuko izan, kasu askotan aipatzen dituzte zurrumurruek edo susmoak baino ez diren kontuak. Kausa batzuetan bakarrik jasotzen dira auzipetuak berak proposatutako bizilagunen testigantzak, eta kausa horiek dira tramitatzen zenbait urte luzatzen direnak. Kausa batzuetan agertzen dira pisu politiko eskuindar argiko bizilagunek bidalitako ziurtagiriak, eta adierazten dute auzipetuaren aldetik laguntza jaso zutela edota zuzentasun moral osokoa dela.

Gerra garaian hasitako kausen tramitazioa oso azkarra da, hasi eta epaia eman arte hilabete bat edo bi baino ez dira igarotzen. Hain arin eta azkar tramitatzea prozesatuaren eskubideen eta berme juridikoen kalterako da beti.

Kausetan ez dago jasota abokatu defendatzailea izendatu denik, nahiz eta kausaren batean jasota dagoen abokatuak parte hartu duela ahozko ikustaldian; beste batzuetan auziperatuek beraiek eskatzen dute ofiziozko abokatu bat izendatzeko, euren deklarazioetan. Abokatuak orokorrean militarrek dira, bezeroarekin inolako harremanik ez zeukatenak, ez dute proposatzen errugabetasun probarik, eta mugatzen dira defendatuen absoluzioa eskatzera.

*Santoñako epaiketetan, prozesatuok ez genituen abokatuak ezagutzen, ezta eurekin berba egiten ere.*⁵⁰⁸

Epaietan oro har txosten ofizialetan aipatutakoak frogatutzat ematen dituzte, eta aurrez epaitutako gertaerak berriro erabiltzen dituzte, adibidez, 1934ko urriko iraultzan parte hartu izana. Indarrean zegoen ordena defendatzen zutelako, kolpista eta matxinatu izateaz akusatu zituzten asko eta asko. Atxilotu, epaitu eta kondenatu egin zituzten. Baina, benetako kolpistak pertsona hauei kondenak ezarri zizkietenak izan ziren. Altxamendu-militarra, matxinada edota

matxinatuei lagundu izana leporatu eta kondenatu egiten zituzten atxilotuak. Hona hemen, kondenak ezartzeko jarraitutako irizpideak: Altxamendu-militarrarengatik akusatutako pertsonentzako eta Kolpearen kontrako erresistentzian karguren bat zutenentzako, heriotza zigorra edo biziarteko kartzela zigorra eskatzen zuten. Milizianoentzako, 12 urte eta egun leko kartzela zigorra.

Arrasateko 85 prozesaturen kontrako Kausa Militarrak aztertu ondoren, inolako zalantzarik gabe baieztatu dezakegu, 1934ko urriko gertaerekin lotutako akusazio gehienak faltsuak direla eta salatzaileak faltsutasun horren jakitun zirela. Kolpisten helburua pertsona hauek erailtzeko edozein arrazoi aurkitzea zen, nahiz eta, akusazioa egia ez izan.

Era berean egiaztatu dugu, arrasatear askok epaitegietan egiten zituzten deklarazioak akusatuen kontrakoak zirela gehienetan, eta, estamentu ofizialen hasierako salaketekin kontraesanean zeudela.

Donostia. 1937ko 1.661 zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

Jesus Uranga, Felipe Letona eta Trinitario Azconaga Iurre inguruko mendietan atxilotu zituzten, 1937ko irailaren 8an. Bahitzaileak Jose María Echenagusía, Jesus Bilbao eta G. Barrenechea, Iurreko erreketek laguntzaileak eta Placido Ortega Lemoako falangista izan ziren.

Jesus Urangak 39 urte zituen atxilotu zutenean. 5 seme-alabaren aita. Unión Cerrajerako langilea eta Arrasateko udaleko zinegotzi sozialista. Nicolás Uriarte zauritu zutenean, Arrasateko alkatea izan zen errepublikar aldean.

Frantziara ihesean zihoala atxilotu eta Arrasatera ekarri zuten. Herrian 8 egun igaro ondoren, Ondarretako kartzelara eraman zuten preso. Isidoro Echevarriaren informea:

Jesus Uranga Urrutia. 40 urte. Sozialista. UGTko afiliatua. Pistola eskuan zuela, parte aktiboa izan zuen 34ko gertaeretan. Berak agindu zuen Oreja jaunaren fusilamendua. Mugimenduan Finantza Batzordeko kidea. Eskumako jendeari isunak jartzeagatik ezaguna. Udaleko zinegotzi eta Errepublikaren Defentsako kudeatzaile. Portaera morala: Hala moduzkoa. Portaera erlijiosoa: Txarra!.



Jesus Uranga, eta Vicenta Mandaluniz. Argazkia Juana Urangak utzitakoa

Txostenean Falangearen informea gehitu zuten: *Parte-hartze aktiboa Urriko Iraultzan. Oreja eta Resusta heriotza zigorrera kondenatu zituen Tribunaleko kidea. Arriskutsua. Portaera Morala: Hala moduzkoa. Ez du ondasunik.*

1937ko urriaren 28ko deklarazioa (Ondarretako kartzela): *1931 aurretik UGTko afiliatua zela eta 1932an afiliatu zela Alderdi Sozialistan. Dioenez, ez zuen parte hartzerik izan 34ko Urriko gertaeretan, ezta ere, inolako zerikusirik izan, Orejaren hilketan. Defentsa Batzordeko kidea eta Finantzetako bokala izan zela.*

Estatuburua 1938ko uztailaren 16an egin zen heriotza-zigorraren jakitun. Ondoren, 1938ko abuztuaren 7an, kausa Donostiako 18. Exekuzio Epaitegira bideratu zuten honek epaia bete zezan. 1938ko Abuztuaren 13an, goizeko bost erdietan, exekutatu egin zuten Bidebietako tiro-eremuan. Polloeko hilerrian lurperatu zuten San Nikolas kaleko 48 zk. 3.ean.

Isidoro Echevarriaren informea (txostenean jasota): **Felipe Letona Múgica.** 37 urte. Afiliazio politikoa: Sozialista Erradikala. Geroago, Ezker Errepublikarra. UGTko afiliatua. Alderdiko zinegotzi eta Probintziako kudeatzaile. Mugimenduan pisuzko ardura izan du. Buruzagi arriskutsua eta oso ekintzaile. Urriko gertaeretan ez zen iraultzaile izan baina, presoekiko elkartasuna adierazteko mitin batean, hiltzaileen jokabidea goraiatu eta egun hori goratu zuen. Portaera morala: Hala moduzkoa. Portaera erlijiosoa: Txarra.

Bienvenido Iglesias Guardia Zibilaren informea (txostenean jasota): *Udaletxeko kutxa gotorraren la-*

purretan nahastuta egon zen. 34an oso parte aktiboa izan zuen. Oreja eta Resustaren erailketa berak agindu zuen. Elementu oso nabarmena eta arriskutsua.

Zinegotzia eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeatzailea. Marxisten agindupean, herriko Garraio Komisario izendatu zuten. Kargu hau Defentsa-batzordeko kide izatearen baliokidea zen. Berak sinatu zituen atxiloketen, konfiskazioen, nazionalenganako erresistentziaren, eta abar luze baten inguruan batzorde honek hartutako erabaki guztiak. Elorrio, Las Arenas eta Santanderren kargu berdina izan zuen.

Ondarretan atxilotu zuten. Bere deklarazioa: *Alderdi Errepublikanoan afiliatuta egon zela. Alderdi Sozialista Erradikala sortu zenean, bertako militante egon zela eta idazkari kargua bete zuela. Alderdi hau desagitean, Ezker Errepublikarrean militatu zuela. 1931. urtean aukeratu zutela Alderdi Sozialista Erradikaleko zinegotzi. 1936ko otsailean, bere alderdiak Probintzia-Diputazioko kudeatzaile izendatu zuela. Ez zuela inolako zerikusirik izan 1934ko urriko gertaeretan. Mitin batean izan zuen parte hartzea hizlariak aurkeztea besterik ez zela izan eta ez zuela data hura goratu. Mitina presoan amnistiaren aldekoa zen. Bere borondatez hartu zuela Garraio Komisario kargua. Kargu honek Defentsa Batzordeko kide suposatzen zuen eta batzorde honek hartutako akordio guztiak sinatu zituela.*

1938ko uztailaren 16an zigorra kommutatu zioten. Unión Cerrajeran onartu ez zuten, 1947ko maiatzaren 22an, lan egiteko bizilekua aldatu ahal izateko, 1939ko apirilaren aurretik altxamendu militarrengatik zituen delituengatik indultua eskatu zuen. 1947ko uztailaren 9an, indultuaren benefizioak lortu eta Zumarragara joan zen bizi eta lan egitera.

Isidoro Echevarriaren informea (Irailak 12koa): **Trinitario Azconaga Arana.** *Ezker Errepublikako militantea. UGTko afiliatua. Udaltzaingoaren inspektoreburua. 1934ko mugimenduan iraultzaileen estaltzailea. Parte hartze zuzena izan du mugimenduan. Batzordean aritu da eta Ordena Publikorako inspektore lanak burutu zituen. Partikularren armak konfiskatu eta haien kargu egiten zen. Kargu berbera izan zuen Elorrión, han, multak kobratzeko okerkeriak eginez. Portaera partikularra: Hala moduzkoa. Portaera erlijiosoa: txarra.*

1938ko uztailaren 16an kommutatu zioten zigorra.

Epaiketa 1938ko martxoaren 6an egin zen. Epai-mahaiko presidente Leocadio Quijano eta Sanz de Pipaon Infanteriako koronela izan zen. Gerra Kontseiluak erabaki du kondenatu beharra duela eta heriotza zigorrera kondenatzen dituela akusatua. Era berean, akzio zibila Estatuaren esku uzten du kondenatuei edo euren oinordekoei kalte-ordaina exijitzea matxinadak sortutako kalte-galerengatik. Sententzia honen testigantza Ondasunak Konfiskatzeko Batzordeari igorriko zaio.

Ricardo Azcoaga Resustak 1950eko otsailaren 7an, Donostiako Epaitegian deklaratu zuen Celestino Uriarteren aurka abiatutako kausa militarrean. Azcoaga zauritu egin zuten hanka batean baina bizirik atera zen 1934ko urriaren 5ean Marcelino Oreja eta Dagoberto Resusta hiltzeko iraultzaileen tiroketatik. Abokatu defendatzaileak galdetu zion ea Uriartek fiskalaren kargua bete zuen inolako tribunalik existitu ote zen. Azcoagak ezetz esan zuen. Ez zela inolako tribunalik existitu eta ondorioz, ezinezkoa zela Uriarte tribunal hartako kide izatea. Faltsutasunaren beste erakusgarri bat da Jesus Uranga 1934ko urriko prozesuan ez zuela akusazio hori izan eta berarentzako ez zutela heriotza zigorrrik eskatu, beste askorekin ez bezala.

Txostena sinatu zutenek jakin bazekiten, gezurra zela Resusta eta Azcoaga epaitu zituen tribunalak existitu zenik. Izan ere, Azcoagak exekuziotik ihes egitea lortu zuen eta bere deklarazioan jasota dago ez zela existitu horrelako tribunalik inoiz. Ezin izan zuten kondenatu Arrasateko prozesatuak epaiketaren aurretik aske geratu zirelako. Alkatea ere gezurretan ari da *Orejaren erailketa agindu zuen* dioenean. Gezurra. 1934ko gertaerengatik prozesatu zuen fiskalak 20 urteko espetxe zigorra eskatu zuen, eta pentsatu izan balu atentatua agindu zuela, heriotza zigorra eskatuko zukeen, horrela jokatu baitzuen beste arrasatear batzuekin. Guztia gezurra bai, baina arrazoi nahikoa Arrasateko Udaleko zinegotzia Jesus Uranga fusilatzeke.

Juanita Uranga: *Patxi Urrutia gure aitaren lehengusua zen. Ondarretara bisitan joan zitzaioela, honela esan zion kartzelero batek: Ea Arrasaten gizon hura aske uzteko sinadurarik ez zegoen. Bere ideiak defendatu*

bestarik ez zuela egin eta ez zegoela hau hiltzeko arrazoirik. Kartzelako zuzendariak honakoa esan zion: Herritik zuen aurkako txostenak bidali dizkigute. Arrasateko jendea da erditik kendu nahi zaituztena. Joan zaitetz hemendik eta ez berriro agertu. Bihar bost gizon fusilatuko dituzte eta hauetariko bat Uranga da, zu bisitatzera zatozena.

Urriak pasau zienian amak esan zuzten goazen Donostiara, amak euki auen baloria kartzelara fateko, eta esan eutzan: “Nire gizona zan..., die hamar urte, jakin neike nun dauen?”, “Bai, en Polloe, tal calle...”. Emun eutzen apuntauta eta papel bat “que les atienda el enterrador”. Fan gitzen enterradoriak leiru auen eta esan eutzan: “Si señora, aquí están 5, fusilados el 13 de agosto. Si quiere llevar los huesos de su marido, no le puedo decir si está el primero o está el quinto. No se, hay que empezar por la dentadura...” Cosas que entonces no se podían, ni dinero. Orduan esan auen amak: “que descanse ahí”. Eta hantxe gelditu zien, gero hareik hazurrak atarako auen eta kitto.⁵⁰⁹



Ismael Diez Fernandez.

Donostia. 6. Epaitegiaren 13.846 zk. Pre-sazko Prozesu Sumarisimoa

Ismael Diez Fernandez, 39 urte, Arrasateko Talde Sozialistako kidea zen. 1934ko gertaeren ondoren egin zuen ihes Frantziara. Beste batzuen artean, hau ere, Arrasateko apaiz artzapezaren informeen erruz fusilatu zuten.

1938 urtearen erdialdera hasi zuten kausa hura bera aurkitzeko asmoz. 1940 urtearen erdialdera, Valentin Romera Ortiz Arrasateko Guardia Zibilaren Postuko komandanteak esan zuen, Ismael Diez preso zegoela Burgosko kartzelan heriotza zigorrera kondenatuta. Ez zekien baina, 1938ko azaroaren 14an fusilatu zutela. Kausa hari esker jakin dezakegu zer gertatu zitzaion Ismaeli, 1937ko abuztuaren 26an, Santoñan, atxilotu zutenetik. Preso eta Aurkeztutako Sailkapen Batzordeak “A” atalaren barruan sailkatu eta aske utzi zuen. Ismael Diez Arrasatera itzuli zen irailaren 23an. Bienvenido Iglesias Fonddevilla Guardia Zibilaren kaboak egindako informeak dioenez: *Herritarrek aurrekari txarreko pertsonatzat jotzean, atxilotu eta herriko kartzelan sartu zuten, Santoñako Aurkeztutako Sailkapen Batzordeak berarekin zer egin erabaki artean.*

Hona hemen, 1937ko urriaren 6ko Falange Tradizionalistaren eta Ofentsiba Nazional Sindikalisten Batzordearen txostenean jasotakoa: Ismael Diez Fernandez sozialista nabarmenetakoa izan da. UGTkoa. Oso parte aktiboa izan zuen urriko gertaeretan. Oreja jaunaren fusilamenduan parte hartu zutenetarikoa da. Frantziara egin zuen ihes. Mugimenduari dago-kionez, Donostiako Maria Kristina Hoteleko borrokan hartu zuen parte. Betidanik izan du portaera moral eta erlijioso txarra.

1937ko urriaren 8an David Esnal Garmendia Arrasateko apaiz artzapezaren informea: Ismael Diez Fernandez pertsona zitala da. Iraultzaile oso aktiboa. 1934ko urriaren 5eko iraultzan oso parte aktiboa izan zuen. Kartzelaratua, baina ihes egitea lortu zuen. Oso pertsona gaiztoa eta zitala. Berdin zaio erlijioa, eta oso arriskutsua da mugimenduaren eta gaur egungo Espainia Berriarentzat. Horrela baieztatzen dute pertsona fidagarri eta sinesgarriek.

Urriaren 9an, Isidoro Echevarria Maidagan alkaterearen deklarazioa: Ismael Diez Fernandez Arrasaten bizi da. Sozialista. UGTko afiliatua. Bietan pertsona

nabarmena. Boluntario marxista mugimenduan. 1934ko gertaeretan parte aktiboa izan zuen, eta bu-ruetako bat izan zen. Frantziara ihes egin zuen. Portaera Morala: oso txarra. Portaera Erlijiosoa: oso txarra. Ez du aberastasun ondasunik.

Regino Huertas Aspe Industrial Mondragonesako (Ismaelek hemen egiten zuen lan) Sindikatu Profesionaleko ordezkari arrasatearrak honela zioen bere informean: Zurrumurruek Oreja eta Resustaren erailketak leporatzen zizkieten, deklarataleak aldiz, ez zituen ikusi erailketa haiek. Donostiarantz abiatu zela Maria Cristina hotela eta Loiolako Kuartelak hartzera laguntzera. Baina, bidean, Eibarren hain zuzen ere, beste baten armak berak bakarrik tiro egin eta zauritu egin zuela. Arrasatera itzuli behar izan zuenez, ez zuela beste interben-
tziorik izan.

Urriko gertaeretan ez zuten atxilotu, nahiz eta, batzuek hori esan. Fusilamenduetan parte hartu izanaren akusazioak ez datoz bat 1934ko 106 zenbakidun kausa militarrean gertaera haietako lekukoei jasotako testigantzekin.



Jose Maria Urcelay Zarraoa.

Santoña. 1937ko 163 zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

Jose Maria Urcelay Zarraoa. 22 urte zituen atxilotu zutenean. Juventudes Socialistas Unificadasen militatzen zuen. ELMAko langilea. Honela dio 1937ko urriaren 8an egin zuen deklarazioak: UGTko afiliatua zela. Gerran, eskopetarekin, errepideetako zaintza lanak egin zituela. Arrasate ebakuatzen ari zirela, Kanpazarren zauritu zuten Dragones batailoiko milizianoa zela. Zaurituta Durangora eroan zuten. 1937ko urtarril hasieran, Bilbora joan eta Asturias batailoian sartu zen sukaldari lanetan aritzeko. Bilboko kartzelak eraso zituztenean, bere batailoia bidali zuten ordena jartzera. Hurrengo egunean, kartzelara joan zela ezagutzen zituen preso arrasatear batzuk bisitatzen. Ezbeharrak izan zuten ala ez jakin nahi zuen. Miguel “Paiku” eta Bueno aipatzen ditu. Dioenez, bi haiek baieztatu dezakete berak esandako guztia. Urriko mugimenduan parte hartu zuela, baina ez zuela parte hartze aktiborik izan. Altxamenduan eskopeta bat izan zuela. Errepresalien beldur, mendira egin zuela ihes eta hurrengo egunean Donostiara joan zela. Han, azaroaren 1era arte egon zen, orduan itsasontziratatu baitzen Frantziara joateko. 1935eko abuztuan, Errusiara joan zen ebakuntza kirurgiko bat egin behar ziotelako. Klinika Moskutik hurbil zegoela. 1936ko amnistiarekin itzuli zen etxera.

Arrasateko Udalaren informazio testigantza. 1937ko irailaren 18an: *ezker-muturreko kidea da. Jokabide politiko oso nabarmena du. Bera izan zen Donostiako eskuindarren kontra armekin ikusi zuten lehenengotariko bat. Bilboko Carmelo presondegiaren kontrako erasoaren buru izan zen. Resustari heriotza arintzeko buruan tiro egin eta bitxiak lapurtu zizkiona. Guadalupeko gotorlekutik ihes egin eta Frantziara joan zen.*

Epaia frogatutzat ematen ditu gertaera haiek guztiak deklarazioan aipatzen dituen presoei deklaraziorik hartu gabe. Nola egingo zuen ba ihes Guadalupeko gotorlekutik inoiz ez bazuten atxilotu?. Epaian ageri dira Carlos Batoret, Casimiro Gimeno eta Arturo C. Ruizen sinadurak.

1937ko urriaren 27an, heriotza zigorrera kondenatu zuten Altxamenduarekin bat egitea leporatuta. Abenduaren 10ean epaia irmoa da. Exekuzioa eten zuten Estatuburuaren jakinarazpena jaso arte. Ja-

kinarazpena 1938ko otsailaren 28an igorri zen Salamancan.

Bilboko Larrinaga kartzelan exekutatu zuten 1938ko martxoaren 11an *Suzko armak eragindako zaurien lesioengatik*.

Donostia. 1937ko 1.839 zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

Francisco Azconaga Arana. 38 urte. Unión Cerrajerako langilea. Euzkadiko alderdi komunistaren militantea. 3 seme-alabaren aita. Dragones batailoiko tenientea. 1937ko abuztuaren 26an Santander erori aurretik, mendian barrena joan zen Frantziara ihes egiteko. Mugatik hurbil atxilotu zuten, Arantzako mendietan, Santandertik irten eta 24 ordura. 1937ko irailaren 25ean Ondarretako kartzelan sartu zuten, Amos Azconaga Zubiate bere semearekin batera.



Francisco Azconaga Arana.

Jardun judizialak 1938ko urriaren 4an eman zituzten eta Rafael Berrio Salamanca izan zen epaimahaiko presidentea. UGTkoa eta komunista. Oso nabarmena bere ideologia eta egintza estremistarengatik. 1934ko urriko gertaeretan, Errepublika Soziala deklaratzeko bandoa diktatu eta argitaratzea agindu zuen. Armategiak konfiskatu zituen. Eskumako jendea atxilotu zuen. Arrasatetik trenak pasatzea galarazteko istiluetan bi hildako izan ziren. 1936ko uztailan, kalera atera zen UGTko beste ehun afiliatu ingururekin batera. Bera zen taldeburua. Herriaren jabe egin ziren Mugimendu Nazionalaren garaipena eragozteko. Arrasatetik ihes egitean, Elorriora joan zen Indar Nazionalen kontra frontetean borrokatzera.

Beste prozesatua da Amos Azconaga Zubiate. 1936ko martxoan bete zituen 18 urte. Aitarekin batera ebakuatu zuen Arrasate eta berarekin aritu zen Laguntza zerbitzuetan kolaboratzen. Biak atxilotu zituzten. Hainbat txostenetan jasota egon arren, ez zuten inoiz frogatu ahal izan bere parte hartzea 1934ko urriko gertaeretan. Izatekotan ere, bere aitaren eragin kaltegarriak bultzaturik izan zela Amosek 34an 16 urte baitzituen.

Francisco Azconaga heriotza zigorrera kondenatu zuten. Amos semea B Atalean sailkatu eta aske utzi zuten.

Francisco Azconaga Donostian fusilatu zuten 1938ko azaroaren 27an.⁵¹⁰

Beste bat zan Mondraukua, Azkonaga, eta hareik en cambio ekarri ein auien, han kanposatuan dau, hortxe zentruen, kuadrotxo bat lehoiak dauzen lekuen. Hareik ekarri ein auien bañe seguru ez dakit zelan ein auien... hareik zien, gañera. orduan afusiletako bera eta bere seme bat, 17 urteko mutiko bat, bañe ha mutikue atzera bota auien eta aita afusilau. Hilda dau, Amos, gu baino zaharraua zan.⁵¹¹

Donostia. 1937ko 2.204 zk. Prozesu Sumarisimoa

Benito Regil Bengoa, "Chatua". Arrasate. 30 urte. Eibarren bizi zen. Juventudes Socialistas Unificadas, UGT eta Socorro Rojo Internacionaleko kidea. Beste 200 miliziano gorrirekin batera, Arrasateko martxan hartu zuen parte eta handik Donostiara joan zen. Amuategui batailoiko tenientea. Matxi-

natuak Santanderrera sartu zirenean, ihes egin zuen. 10 egunez, Debako baserri bat baino gehiagotan ezkutatuta egon zen, atxilotu zuten arte. 1934ko iraultzan 25 urteko kartzela aldira zigortua izanaz akusatu zuten. Gorrien agindupean, Ordena Publikoaren komisarioa izan zen Eibarren. Isunak jartzea eta jendea atxilotzea agindu zuen. Armada Gorriaren teniente zela Arrasateko sutean hartu zuen parte.

1939ko maiatzaren 25ean egindako epaiketan, 21. Epaitegi Militarrek heriotza zigorra ezarri zion.

Hilabete batzuen buruan, 1939ko abenduaren 6an, Benitok honakoa idatzi zuen: *Con arreglo a los principio elementales del Derecho Natural no puede recaer un fallo absolutamente justo cuando en el procedimiento se omitieron detalles y se callaron acusaciones que después aparecen en el Consejo insólitas y espontaneas; acusaciones no vertidas ni sostenidas durante la sustentación del sumario ni en los resultandos iniciales que justifican plenamente los autos de procesos que se dictan. Cuando el Juez del Juzgado 21 dicto contra mí el auto de procesamiento y prisión lo hizo por supuestos hechos subalternos e intrascendentes, sin que apuntaran siquiera la idea de una intervención mía contra la vida del exalcalde Alañeta que fue asesinado.*

Ocurrió lo siguiente, detenido el vecino de Eibar Lucio Brotons y acusado por la Guardia Civil de haber dado muerte a Alañeta, no encontró mejor medio de sacudirse la grave acusación de que era objeto achacármela a mí que me creía muerto, y basto ello para que el Consejo la aceptara. Me costa de que dicho Brotons se ha dirigido al tribunal arrepintiéndose de su manifestación anterior.

Testigo de importancia excepcional es la propietaria del bar conocido como "Chalcha" y la criada las cuales pueden acreditar mi ausencia en el hecho objeto. Por lo que solicito un nuevo Consejo permitiéndome aportar aquellas pruebas que las irregularidades que dejo expuestas no me permitió procurarme para mejor servicio de la justicia que pido.

Baina, ez zioten inolako kasurik egin eta 1940ko maiatzaren 21ean ezarritako zigorra jakinarazi zioten. 1940ko ekainaren 3an fusilatu zuten 33 urte zituela.

Santoña 1937ko 10 zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

Jose Maria Gallastegui Arregui. 23 urte. EAJko afiliatua. Deklarazioa: Mugimendua Arrasatera iritsi zenean, frentera eraman zutela. Elorrion konpainia batean izena eman zuela miliziano izateko. Geroago, Amaiur batailoian sartu zela eta han sarjentu mailara igo zela. Santoñan atxilotu zuten itsasontzi ingeles batean.

Heriotza zigorrera kondenatua. 1937ko urriaren 9an zigorra maila baxuagokoagatik kommutatu zioten. 1942ko uztailaren 14an preso jarraitzen zuen Burgosko kartzelan. 1942ko abenduaren 23an bizi arteko kartzela zigorra kommutatu eta sei urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten.

Irailaren 15ean David Esnalek honakoa esan zuen: herrian bizi izan zen bitartean, portaera moral eta erlijioso ona izan zuela eta hala baieztatzen dutela pertsona fidagarri eta sinesgarriek.

Cerrajera Moderna ELMA SAREN txostena 1937ko irailaren 20an. Elektrizista laguntzaile lanak bete ditu enpresan 1927ko maiatzaren 31tik 1936ko abuztuaren 28ra arte. Portaera ona izan du.

Santoña. 1937ko 11 zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

Segundo Ceciaga Uriarte, Pablo Bolinaga Arregui eta Florencio Gastelu Larrañaga dira kausa honetako prozesatuak.

Segundo Ceciaga Uriarte. 30 urte. EAJko afiliatua. Deklarazioa: EAJk deitu zuela gerrara joateko 1936ko abuztuan. Kalamua, Orduña eta Bizkargiko fronteetan borrokatu zuela eta ondoren, Santanderren. Kargu ugari izan zuela: kabo, sarjentu eta teniente izandakoa. Laredon zegoela, agindu ziotela Santoñara joateko armak entregatzera, eta agindutakoa bete zuela.

David Esnal Arrasateko parrokiako prebistero eta apaiz artzapezaren informea 1935eko irailaren 15ekoa: pertsona fidagarri eta sinesgarriek emandako informeen arabera, portaera morala eta erlijiosoa ona izan zen Arrasateko biztanleriarekiko Arrasaten bera pertsona zintzoa dela esan dezaketen eskuineko bi lagun dituela: Luis Arrue eta Ignacio San Martin.

Segundori biziarteko kartzela zigorra ezarri zioten.

Pablo Bolinaga Arreguiren epaian jasota dago: arriskugarritasun eta transzendentzia zirkunstantzia larrigarriak atzeman daitezkeenez, heriotza zigorrera kondenatzen dugu.

Florencio Gastelu Larrañaga. Elgetarra. 40 urte. Arrasaten bizi zen. 1937ko irailaren 7an Gerra Kontseilu baten 12 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten matxinatuei laguntza ematea leporatuta.

Arrasateko alkatetzaren informea: jeltzalea. Euskal Solidarioa. Batzokiko atezaina izan zen. Lehenen-gotariko boluntarioa mugimenduan. Parte hartze nabarmena izan zuen eskumako jendearen etxeetan egin ziren era guztietako konfiskazioetan. Portaera morala eta erlijiosoa: Hala moduzkoa. Ez du ondasunik.

Santoñaako El Dueso kartzelan sartu zuten preso. 1941eko apirilaren 28an zigorra erdira kommutatu zioten eta 6 urte eta egun bateko zigorra ezarri.⁵¹²

Bilbo. 1937ko 19.911 zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

Jose M^a Arriaran Ortueta. 21 urte. 1938ko otsailaren 8an emandako epaian altxamendu militarra leporatu eta bizi arteko kartzelaratzera, 30 urte eta egun bateko zigorra betetzera kondenatu zuten. UGT eta JSUko (Gazte Sozialista Bateratuak) jarraitzaile. Arrasateko matxinoekin elkartu zen. Herria zaintzen zuen arma aldean zuela. Defentsa batzordeak hala aginduta Jacinto Elorzaren atxilotetan hartu zuen parte. Atxilotua aske utzi zuten. Teniente funtzioak bete zituen boluntario batu zen milizien batailoietan.

1938ko uztailaren 7an Burgosko kartzelan sartu zuten. 1940ko ekainaren 26an atera zen Baldintzapeko Askatasunean.

Santander. 1937ko 2257zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

Cosme Altuna Sagasta. 31 urte. 1934ko urrian prozesatua. Aurrerago, Fronte Popularrak amnistiatu zuen. Alderdi Sozialistako kide. Kargudun nabarmenatariko bat Batzorde Gorrian. Boluntario eman zuen izena milizietan. Hidalgo de Cisneros izan zen Auzitegiko lehendakaria. Matxinatuei laguntza ematea leporatu eta 12 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten.

Santoña. 1. Epaitegiko 1937ko 29. Kausa.

Santos Sologaistoa Iriarte. 1915eko abenduaren 6an jaio zen. 21 urte zituen. Santoñan atxilotu zuten abuztuaren 26an. Matxinatuei laguntza ematea leporatu eta 12 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten.

Santoña, Puerto de Santa María eta Valladolideko kartzeletan egon zen. 1940ko abuztuaren 8an kale-ratu zuten baldintzapeko askatasuna emanaz. Aldika, bere bizilekuko autoritateen aurrean aurkeztera behartu zuten eta ezin zuen herria utzi behin betiko epaia eman artean.⁵¹³

Donostiako 6. Epaitegiaren 1938ko 16.153zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

Leon Abarrategui Eguidazu. 44 urte. 1937ko abuztuaren 26an atxilotu zuten belaontzi baten, itsas zabalean, Frantziarako bidean. Elorrioko Munizio Parkeko eta hainbat frontetako milizianoa. Atxilotu zutenean, 48 Dibisiokoa zen. C kategorian sailkatuta. Murgiako kartzelan sartu zuten eta han jarraitzen zuen 1938ko martxoaren 14an.

Sozialista. UGTko afiliatua. Izaera iraultzaileko istilu guztietan hartu zuen parte. Mugimenduan, hasiera hasieratik egon zen borrokatzen Fronte Popularraren esanetara Espainiar Armada Loriaitsu Salbatzailearen aurka. Parte aktiboa izan zuen 1934ko urriko gertaeretan, eta prozesatu egin zuten. Portaera morala eta erlijiosoa txarra.

1938ko martxoaren 11an, Domingo Arzamendik Lehendakari karguan eta Roberto Arcauzek Ofentsiba Nazional Sindikalistako Batzarren Espainiako falangeak eta Elkarte Tradizionalistetako Arrasateko Bulego Nagusiko Idazkari karguan honako informea bidali zuten:

Sozialista aurreratua. UGTko sindikalista. Urriko matxinadan armekin hartu zuela parte eta Oreja jauna erail zuten pelotoian zegoela. Mugimenduan, aurrenetariko milizianoa kalera armekin ateratzen. Ondoan dagoen Eskoriatzako batzordekidea izan zen parte hartze handiarekin. Portaera morala: hala moduzkoa. Portaera erlijiosoa: txarra. Pertsona arriskutsua. Hiru egunera, martxoaren 14an, Braulio Gomez Arranz, Guardia Zibilaren postuko komandanteak berretsi zuen alkateak esandakoa bere informean. Matxinatuei laguntza ematea leporatu

eta prozesatu egin zuten. Baldintzapeko askatasunean zegoela, 1940ko martxoaren 17an absolbitu zuten Arrasaten.

1945eko martxoaren 21ean hil zen Donostiako Santiago Abad ospitalean, biriketako tuberkulosiak jota.⁵¹⁴

Santoña. 1937ko 6 zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa

1937ko abuztuaren 27an atxilotutakoak.

Joaquin Garmendia Alava. 23 urte. EAJko eta Euskal Langileen Elkartasuneko afiliatua. Batzokiko diruzaina. Abuztuan sartu zen Euzkadiko Armadan gudari. Aurrerago mailaz igo eta teniente eta kapitain izatera iritsi zen. Ekintza militar askotan hartu zuen parte, besteak beste, Solluben eta Bizkargin. Azken honetan zauritu egin zuten eta Basurtoko ospitalera eramán zuten. Handik Algortara, eta gero Santanderrera. Alta eman ziotenean, Indar Nazionalen aurrean agertu zen Santoñan. Abuztuaren 28an Duesoko kartzelan sartu zuten.⁵¹⁵

1937ko irailaren 11n epaia irmoa da. Heriotza zigorrera kondenatu zuten.

1937ko urriaren 9an, heriotza zigorra kommutatu eta gradu txikiagoa ezarri bazioten ere, azaroaren 26an erabakiaren komunikazio ofiziala jaso gabe zuen.

Vicente Juldain Sainz. 34 urte. Ezker Errepublikarreko afiliatua. Deklarazioa: *Mugimendua hasi zenean, Arrasateko udaltzaina zela eta Gerra Batzordeko esanetara jarri zutela. Batzordeko kideei erregimen politikoaren aurka zeuden pertsonen zerrenda bat eman ziela haiek atxilotzeko. 107 pertsonak osatzen zutela zerrenda, eta, une hartan Arrasaten zeuden guztiak atxilotu zituztela. Hasiera batean, Arrasaten giltzapetu zituzten kartzela gisa erabiltzen zuten eskolan, baina aurrerago, Arrasaten aritu zela kartzela zaindari lanetan hamabost edo hogeit egunez. Irailaren 23an, Elorrion alde egin zuela udalarekin batera. Ondoren, Gernikan, aurkitu zuen Arrasateko konpainia baten sartu zela, eta, hauekin, Gernika, Calamua, Orduña, Asturias, Otxandio eta Artxandako fronteetan egon zela. Sarjentu karguan aritu zela eta gero teniente izendatu zutela Laredora joan arte. Laredon Indar Nazionalen zain egon zela. Agapito Uriarte Amayur Batailoiko komandanteak nazionalekin lortutako akordioaren berri eman ziela ofizialei. Akordio honi jarraikiz, ofizial edo arduradunak Frantziara joango ziren, eta,*

milizianoak errenditu egingo ziren. Milizianoen bizia errespetatuko zutela hitzartu zuten. Iskanbila handia sortu zela, milizianoek guztiak edo inor ez geratzea nahi baitzuten. Laredotik Santoñara, ofizial guztiak eta milizianoen heren bat joan zirela. Hurrengo eguneko goizeko 6etan kartzelaratu zituztela.

1937ko irailaren 11an epaia irmoa da. Heriotza zigorrera kondenatu zuten. Kartzelan, 5 urte, 4 hilabete eta 21 egun egin zituen.

Gasteiz, 1936ko 523zk. kausa sumarisimoa

Pablo Zumelaga Ozaeta

1936ko urriaren 2an atxilotu zuten. Jardun Judizialak urriaren 5ean hasi zituzten Gasteizko 523/36 kausan. Euskal Jeltzalea. Milia Gorriek eskatu zioten guardiak egiteko. Bi astez aritu zen zaintza lanetan, eta, lan horretarako Parrokian edo Arrasate deitutako elkargune baten ematen zizkioten Ehiza eskopetak erabili zituela. Bere ardura zen dinamitaren eta herrira sartu edo ateratzen ziren ibilgailuen zaintza egitea. Armada Nazionala Arrasaten sartu baino zortzi egun lehenago, zerbitzuak utzi eta Gesalibarko kobazulo batean eta gero eroetxean ezkutatu zela. Aurretik ez zuela ihes egin gorriekin batera. Indar Nazionalak herrian sartu eta bost egunera atxilotu zuten. Ordura arte ez zen agertu indar nazionalen aurrean.

Ministerio Fiskalak bizi arteko kartzela zigorra eskatu zuen eta defentsak absoluzioa. 1937ko urtarrilaren 13an, hamalau urte, zortzi hilabete eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten. Iruneako San Cristobal Gotorlekuan eduki zuten preso 1938ko irailaren 15era arte. Egun horretan eramán zuten Galiziako San Simon uhartera.⁵¹⁶

Bilbo. 1938ko 16.402zk. presazko prozesu sumarisimoa

Tomas Zabarte Iturriaga. 25 urte. 1937ko urriaren 21ean atxilotu zuten Avilestik zetorren bapore batean. Etsaien Armadan teniente kargua betetzen zuen 1937ko uztailaz geroztik. Boluntario sartu zen Dragones batailoian (22 zk). Gipuzkoan eta Bizkaian borrokatu zen. Azken horretan, zauritu egin zuten. Zaurituta, Santanderrera joan zen, eta, alta hartu zuenean, Reinosan lehenengo eta Asturiasen geroago aritu zen. Asturiasen itsasoratu zen, baina zihoan itsasontzia harrapatu, eta atxilotu egin zuten.

Atxilotuta dago Santoñako Igo biltegian. Han, "C" Atalean sailkatu zuten 1937ko abenduaren 17an.

Bilboko Escolapiotara eraman eta haren kontra Kausa Militarra hasi zuten 1938ko uztailaren 20an. Urriaren hamaikan deklaratu zuten.

Hona hemen Domingo Arzamendi Arrasateko alkateak azaroaren 5ean igorritako informea: Gazte Sozialista Bateratuetako (JSU) militantea eta UGTko afiliatua. 1934ko urriko gertaeretan parte aktiboa izan zuen armak erabiliz. Zurrumurruek diotenez, Oreja eta Resusta jaunak erail zituen pelotoiko hiltzaileetako bat izan zen. Gertakari haien ondoren atxilotu eta prozesatu egin zuten. Mugimenduan hasiera hasieratik aritu zen miliziano gorriekin boluntario, eta armak erabili zituen.

Basilio Gómez Arranz Guardia Zibilaren Sarjentuaren informea: 1934ko urriko gertaeretan armaz baliatuta hartu zuela parte, baina ez zutela prozesatu horregatik (alkateak esandakoa gezurtatu zuen). Mugimenduan, pistola eskuetan zuela Zirkulu Karlistatik hurbil zegoen lagun talde bat mehatxatu zuen. Esteban Echevarría Aspe da haietariko bat, eta herri honetan dago.

Esteban Echevarría Asperen deklarazioa: Mugimendu Loriatsua hasi baino egun batzuk lehenago gertatu zela. Alderdi Tradizionalistako kide ziren beste lagun batzuekin Zirkulu Karlistaren inguruan hitz egiten ari zela, Tomas Zabarte eskuetan pistola zuela hurbildu zitzaizela eta handik mugitzera behartu zituela.

Resustaren suhia Felipe Jose Azurza Arregui deitu zuten deklaratzera. Honek esan zuen, ez zekiela auzipetuak delituzko ekintzetan parte hartzerik izan zuen edo ez. Felipe Amozarrain Uribechevarriak eta Jesus Mondragon Zubiak ez zekitela delituzko ekintzetan parte hartzerik izan ote zuen. Domingo Arzamendi alkateri hartu zioten deklarazioa. Hark baieztatu zuen pertsona horrek ez zuela inolako parte hartzerik izan Oreja eta Resusta erail zuen pelotoiarekin.

1939ko urriaren 14an, kapitain epaile instruktoreak erabaki zuen: Oreja eta Resustaren fusilamendu pelotoian parte hartu izanaz akusatua izan bazen ere, akusazioa egiaztatu ala gezurtatzeko asmoarekin, alkatea eta beste lekuko batzuk deklaratzera deitu zituztela. Emaitzak aztertutik, Jarduera Judizial hau bertan behera uzten dut.

1939ko abenduaren 18an, behin-behineko artxibatzea egokitzen jo zuten inputatzen zitzaizkion gertaerek garrantzi penalik ez zutelako. Langileen batailoiei batean sartu zen egonaldi maximoan. Abenduaren 22an, Deustuko Biltegiko Konpainiaren esanetara jarri zen.⁵¹⁷

Donostia 1938ko 1433 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Jose Aranburu Bidaburu. 19 urte. Prozesatua adin txikikoa zela, matxinatuen altxamenduekin bat egin zuen Arrasaten. Uztailaren 22an tren berezi bat hartu zuen Donostiara joateko, espedizionario gorriak Indar Nazionalak erasotzeko; Soinean hainbat arma zeramatzan. Eskribaua Arrasateko Hornidura Komisarian eta Bizkaiko Gerrarako Komisarian, lotura kotxe bateko txoferra eta Larrañaga batailoiko milizianoa Gijon erori arte. Atxilotu, askatu eta Montejurrako Tertzioan inskribatu zuten. Han, Morella aldean, arin zauritu zuten.

1937ko ekainaren 23an, Esteban de Galdames elizara sartu zen miliziano talde armatu baten hartu zuen parte. Elizan eskuineko preso asko zeuden. Armadak berehala askatuko zituela sumatzean, gatibu zituzten eskuindarrak tirokatu eta ingeniari bat hil eta beste bi lagun zauritu zituzten.

1938ko maiatzaren 9an Ondarretako kartzelan sartu zuten. Jarduera Judizialak maiatzaren 14an hasi ziren.

Prozesatuak lerro marxistetan boluntario eman zuela izena eta, gertaera esanguratsuetan, Arrasatetik abiatu zen soldadu zutabe bateko burua izatea edota Galdamesko kartzelari egindako erasoan parte hartu izana kontsideratuz, eta, heriotza zigorra ezarri zioten 1938ko abuztuaren 11an emandako epaian. Rafael Barrio Salamanca izan zen Auzitegiko Lehendakaria.

1939ko maiatzaren 30ean, Manuel Madinabeitia Elejalde Montejurra-Zumalakarregi Tertzioiko Bigarren Konpainiako kapitainak jakinarazi zuen, bere aginduetara zegoenean, ondorengo bataila fronteetan hartu zuela parte: Asturias, Teruel, Alfambra, Maestrazgo eta Ebron, Corverako sektorean. Ebroko batailan zauritu zuten eta ospitalera eraman zuten 1938ko urriaren 8an.⁵¹⁸

1939ko urriaren 1ean, heriotza zigorra kommutatu eta 30 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten.

1942ko urriaren 29an, Jose Maria Uranga Arreguik adierazi zuen, Jose Aramburu Bidaburuk ez zuela parte hartzerik izan San Pedro de Galdames elizan, 1937ko ekainean izandako gertaeretan. *Ikusirik zer egoera zegoen Jose Aramburu bertara iritsi zenan eta zer-nola portatu zen zauridunekin, baieztatzen du ezin zela hura inportatu, inolaz ere, gertaera haietan parte hartzerik izatea.*⁵¹⁹

Santoña. 1937Ko 138 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Gregorio Yarza Abalia. 22 urte. Euskal Solidarioa. Boluntario eman zuen izena euskal milizietan. Zaintza lanak egiten zituen. Aurrerago, frontera pasatu zen. San Andres batailoiko komisario izatera iritsi zen Santoña. 1937ko 138zk. Presazko Prozesu Sumarisimoa. 1937ko azaroaren 10ean, biziarteko kartzela zigorrera kondenatu zuten. 1938ko abuztuaren 11an, Puerto de Santamariako kartzelara eraman zuten.

Santoña. 1937Ko 59 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Eustasio Marcaide Larrañaga. 35 urte. ANVko militantea. Arrasateko Udaleko alkateordea. Herriko Batzorde Gorriko Finantza komisarioa. Ingeniarien 8. batailoiko konpainiaren komisario politikoa. 1936ko uztailaren 26an kartzelatu zuten Burgosen.

Jose Gorroñoigoitia Sein. 39 urte. EAJko militantea zuela 20 urte baino gehiago. Solidaridad de Trabajadores Vascoseko Batzorde Nazionaleko Bokalari. Mugimendua hastean, Gerra komisario Iraunkorraren kargurako izendatu zuten. Beste batzuekin batera, Arrasateko Defentsa Batzordean hartu zuen parte.

1937ko irailaren 7ko epaiak heriotza zigorrera kondenatu zituen biak. 1937ko abenduaren 7an, zigorra kommutatu eta 30 urteko zigorra jarri zieten.⁵²⁰

1942eko urriaren 18an, Division Azulean ibilitako bost arrasatear, Máximo Gonzalez, Manuel Garate, Eustaquio Heriz, Daniel Aramburu eta Felipe Loidik hau idatzi zuten: *Eustasio Marcaide Larrañaga, antes del Movimiento y durante el trascurso de este no ha cometido ningún acto de violencia, ni persecución de personas de derechas, comportándose dentro de la mayor corrección en las relaciones con todas las personas del*

pueblo, sin distinción de ideas. Firman el documento a petición de los familiares del interesado.

1942eko azaroaren 11n, beste zigor txikiago bat ezarri zieten 12 urte eta egun bat.⁵²¹

Jose Gorroñoigoitiari, berriz, 1943eko apirilaren 26an, 15 urteko zigorrera jaitsi zioten.⁵²²

Santoña. 1937ko 59 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Eduardo Liquiniano Heriz, Arrasatekoa, 24 urte, Donostian bizi zen. Armada Gorri Separatistan borrokatzeko eman zuen izena. Teniente izendatu zuten. Biziarteko kartzela zigorra ezarri zioten. 1937ko abuztuaren 27an atxilotu zuten. 1937ko irailaren 29an, Santanderko 1. Epaitegi Militarrek epaitu eta biziarteko kartzela zigorra ezarri zion. 1937ko abuztuaren 31an Duesoko kartzelara sartu zuten. 1938ko abuztuaren 21ean, Puerto de Santa Mariako kartzelara eraman zuten. 1940ko abuztuaren 26an, baldintzapeko askatasunarekin kaleratu zuten. 1943ko abuztuaren 27an iraungi zioten zigorra.⁵²³

Bilbo 17.410 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Francisco Garay Albistegui. 26 urte. Sozialista. UGTkoa. *Parte hartzea izan zuen urriko gertaera iraultzailean. Atxilotu eta prozesatu egin zuten horregatik. Boluntario aritu zen Frente Popularraren zerbitzura, armak erabiliz. Gertaeren hasierako egunetan Donostiara*



Ezkerretik hasita lehena: Francisco Garay Albistegui. Lagarrrena Jose Antonio Agirre Maño.

abiatu zirenen artean zegoen, ziurrenik, Loiolako Kuartela, Kursala eta Maria Cristina hotela erasotzeko. Baina ezin izan da argitu akusazio hura, ezta ere, inkulpatuak zer-nolako zerikusia izan zuen gertaera haietan. Portaera txarreko pertsona. 1937ko irailean Santanderren atxilotu zuten miliziano moduan ospitaleratuta zegoela

1939ko martxoaren 9an, matxinatuei laguntza ematea leporatu eta 12 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten. Canella teniente koronela izan zen Tribunaleko Lehendakaria.

1940ko irailaren 26an, zigorra 2 urteko zigorrera jaitsi zioten.⁵²⁴

Santanderko zezen plazan egon nintzen 1937ko azaroa arte; handik Bilboko Escolapioetan 1939ko otsaila arte. Larrinagako espetxean 1939ko uztaila arte eta Astorgan 1940ko azaroa arte.⁵²⁵

Donostia 1938ko 16433 zk. presazko prozesu summarisimoa

Cristobal Zabaleta Axpe. 26 urte. UGTkoa. *Juventudes Socialistasen afiliatuta. Ez zuen parte hartzerik izan 1934ko gertaeretan. Gorrien zerbitzurako kanpaina telefonoak jartzen aritu zen. Pertsona arriskutsua eta portaera txarrekoa. Bere jabetzako kotxe batekin, Gorrien Batzordearen zerbitzura jarri zen.*

Armarik gabe, 1937ko ekainaren 21ean azaldu zen autoritateen aurrean. Itxarkundia Batailoiko milizianoa. 1938ko otsailean preso jarraitzen zuen.

Oviedo. 1946ko 412zk. kausa summarisimoa

Celestino Uriarte Bedia. 37 urte. Atxilotu ondoren, Altxamendu Militarren pareko delitu batetik prozesatu zuten.

Celestino Uriartek bere informean adierazi zuen Máximo Ardanaz Ramírez Infanteriako komandante epaileari ez omen zitzaiola batere gustatu Valladolideko Kapitaintzak berak egindako proposamena ez onartzea. Ardanazek proposamen hartan, heriotza zigorra eskatzen zuen Batzorde Erregionaleko 6 kiderentzat eta Remigio Blancorentzat, baina Kapitaintzak gehieneko 20 urteko kartzela zigorra eskatu zuen. Aurrerago, epaiketa egin bitartean, Tribunalak kontsideratu zuen ezin zituela kondenatu 20 urteko kartzela zigorrera Batzorde Erregionaleko kideak, izan ere, zigor hori Eskualdeetako Batzor-

deetako kideei ezartzen zieten kartzelatzea zelako. Batzorde Erregionaleko kideek zigor handiagoa behar zuten izan. Logika horri jarraikiz, Batzorde Erregionaleko kideentzat 25 urtera arte igo zuten kartzela zigorra. Uriarteri, aldiz, batzordeburua izanagatik, 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten.

Gerra Kontseilua 1947ko abuztuaren 20an hasi zen Oviedoko Pelayo Kuarteleko Justizia Aretoan. 1943ko Martxoaren 2ko legea aplikatu eta Altxamendu Militarren pareko delitua egotzi zieten. Prozesu summarisimoaren bidez prozesatu zituzten. Antonio Navarro Serrano koronela izan zen Tribunaleko lehendakaria. Ministerio Fiskaleko ordezkaria Jaime Barrio Cuadrillero kapitain auditorea izan zen. Celestino Uriarte, Aquilino Gómez, Montes eta Remigio Blancoren defendatzaile Dionisio Homet Díaz Estébanes Infanteriako kapitaina izendatu zuten. Fiskalak 20 urteko kartzela zigorra eskatu zuen bakoitzarentzat eta abokatu defendatzaileak 12 urte eta egun bateko kartzelatzea.⁵²⁶

*Kontseiluan zehar, kamarada batzuek salatu genituen prozesuan zehar egon ziren irregularitasunak eta poliziek zein epaileek testigantza asko ateratzeko erabilitako metodo krudelak. Komisarian gertatutako Casto García Rozaren eta beste kamarada baten erailketak salatu nituen eta tribunalari eskatu nion gertaera haien inguruan espediente bat irekitzeko. Espediente hark argitu zitzakeen eta, sumarioko aitortza askotan agertzen ziren gezurrak. Tribunaleko kideen aurpegieta garbi ikusi zitekeen ez zitzaiela batere gustatu nire interbentzioa. Aurrerago, beste bide batzuetatik jakin genuen nire interbentzioak zeresan handia izan zuela Oviedoko Soldatu Taldean.*⁵²⁷

Celestino Uriarte kondenatu zuten 30 urteko kartzela zigorra betetzera. Erantzukizun zibilaren kontzeptuari dagokionez, elkartasunez onartu zituen jarraian agertzen diren sabotajeetako kalteengatik zuen erantzukizuna: Gijonen, Espainiako Ipar-Ekialdeko Produktu Erregionaleko Armari Nazionalari egindako eraso; Piñeresen, Sociedad Electra del Viesgo S.A.k energia elektrikoa eramateko linean egindako kalteak eta, azkenik, Sevillan, Minas de Aller Hullera Española enpresaren garbategian eragindako kalteak. Erasoaren ondorioz, erabat suntsituta gelditu zen ikatz garbategiko ura jasotzeko instalazioa.⁵²⁸

Donostia. Seigarren Erregioaren Epaitegi Militar Berezia. 804/46 kausa.

Victor Berecibar Ormazabal. 1906ko otsailaren 2an jaio zen. 40 urte zituen. 1946ko urriaren 17an atxilotu zuten Donostian. Muga ilegalki pasatu eta kontrabandoan aritzeaz akusatu zuten. Baina, gainontzeko atxilotuak bezala, hura ere Oreja hiltzeaz akusatu zuten: *Hark ere, egun hartan, parte hartu zuen Marcelino Oreja eta Dagoberto Resusta jaunen erailketetan. Armada Gorrian boluntario aritu zen.* Parte hartze aktiboa izan zuen Donostiako gertaera iraultzaileetan eta hiriarren liberazioan. Handik, Bizkaira, gero, Frantziara eta Frantziatik, Bartzelonara joan zen, berriro Frantziara itzultzeko. Fiskalak 30 urteko kartzelaldia eskatu zuen Altxamendu Militarren delitua egotzita.

Ez zuten 106/34 kausa aurkeztu, ezinbestekoa prozedura honetan inputatzen zizkioten gertaerak zehazteko. Era berean, eta haren abokatu defendatzaileak hala eskatu arren, ez zituzten eman nahi izan gerraren hasieran Arrasaten atxilotutako eskumako pertsonen izenak. 1947ko urriaren 2an, 20 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten Altxamendu Militarren delitua egotzita. 1940ko urtarrilaren 25eko konmutazio arauak aplikatu eta kondena 12 urte eta egun batera aldatu zioten.

Victorrek deklaratu zuen, berriro Bartzelonara joan zenean, hamar hilabete igaro zituela kontzentrazio eremu batean. Handik ateratzean, sarrailagile lanetan aritu zela Frantzia inbaditu zutenera arte. TODT erakundean egin zuen lan alemanak irten arte.⁵²⁹

Jose Barrutiabengoa Gallastegui. EAJko afiliatua. Lehenengotarikoa EAJko milizietan izena ematen Loiolan. Amaiur batailoiko kapitaina. David Esnal Arrasateko parrokiako Prebistero eta Apaiz Artzapezaren informea: 1937ko irailak 15a. *Herrian bizi izan zen bitartean, portaera moral eta erlijioso ona izan zuen eta hala baieztatzen dutela pertsona fidagarri eta sinesgarriek.* Altxamendu Militarraz akusatu eta heriotza zigorrera kondenatu zuten. 1937ko urriaren 9an, zigorra konmutatu eta gradu bat beherakoa-gatik aldatu zioten.

Pablo Urrutia Zaitegui. 1937ko irailaren 7an Bienvenido Iglesias guardia zibilak egindako informe:

Eusko Ekintzako nazionalista eta UGTkoa. Eusko Ekintzako lehendakaria izan zen. Zentro Tradizionalistaren egoitza ixtean, lokala Euskal Ekintzaren egoitza bihurtu zen. Urrutia hango atezaina izan zen.

Irailaren 27an, Esnalek esan zuen *portaera morala eta erlijioso ona atzeman ziola.* 1937ko azaroaren 15ean, jarduneko alkatea Jose Miguel Azcaratek esan zuen, *portaera moral eta erlijioso txarreko pertsona zela eta urriko gertaeretan presoei laguntzen aritu zela.*

12 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten.

1943ko 794 zk. kausa

Ignacio Letona Azurmendi. Auzipetuak ezkerreko aurrekariak ditu. 1941eko urriaren 25ean, *Angel Bengoaren tabernan mozkortuta zegoela, eta hiru aldiz oihukatu zuen GORA ERRUSIA!!!.* 1936ko uztailaren 19an, boluntario joan zen gorriekin borrokatzera. Bere kamioneta gidatzen laguntzen zituen indar marxistak. Bizkaira joan zen gorriekin. Gerra ostean, Langileen batailoi batetik etorri zen. Arrasatera iristean, 31 egun igaro zituen atxilotuta beste pertsona batzuekin batera.

Honela dio alkatetzek eta Falangeak 1941eko azaroaren 13an elkarrekin egin zuten informea: *duen portaera morala publiko zein pertsonala txarra da. Mugimendu Loria suaren guztiz kontrakoa da. Birritan egon da kartzelatu arrazoi horrengatik. Gauzak horrela, alkatetza honek FET eta JONSeko buruzagitzekin batera proposatzen du oso komenigarria izango litzatekeela pertsona hura herritik kilometro askotara bidaltzea.*

1941eko urriaren 25ean atxilotu eta urte bereko azaroaren 19an askatu zuten. 1943ko irailaren 2an berriro atxilotu zuten eta preso eduki zuten 1944ko otsailaren 11ra arte. 1944ko urtarrilaren 17an, sei hilabete eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten.⁵³⁰

Bilbo. 10.313 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Marcelo Barrutia Guridi. 25 urte. 1937ko ekainaren 22an errenditu zen Santurtzin. *Pistola eta fusila zuen. Campsa zaintzen ari zen errenditu zenean. Ertzaintzako kaboia. Nazionalista. STVkoa. Portaera morala eta erlijioso ona.*

Alkatetzaren informea. 1938ko maiatzaren 4a: *Mugimenduan hasiera-hasieratik eman zuen izena gu-*

daria izateko. Gasteiz hartzeko asmoarekin Arrasatetik abiatu zen zutabeen sartu zen. Tropak Arrasaten sartu zirenean Bizkaira egin zuen alde. 1938ko maiatzaren 9an preso sartu zuten Gasteizko Carmeliten kartzelatan.

Juan Arregui Lasagabaster. Duesoko kartzelatan preso. Udalak esan duenez, *tropak Arrasaten sartu eta 15 egunera egin zuen alde. Nazionalista. STVko lehendakaria. 25.000 pezeta ditu.*

Felix Ugalde Oxinagari hartu zioten deklarazioa 1942ko martxoaren 4an: nazionalista. STVkoa. Bilbora joan zen. Zerbitzua ospitaleak bisitatzen eman zuen eta gipuzkoar zaurituen aktak jasotzen zituen. Santandertik Frantziara joan zen. Tornularia izan zen Breguet abiazio lantegian 1940ko urrira arte. Orduan itzuli zen Espainiara.⁵³¹

947ko 551 zk. ohiko sumarioa

Lucio Urionabarrenechea Aguirre. 35 urte. *Atxilotu ondoren, galdeketa egin zioten 1947ko uztailaren 14an Donostian. Hark dio matxinatuei laguntzea leporatuta prozesatu zutela eta 30 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu. Burgosko presondegi zentrallean egon zela hiru urtez. Mugimenduaren aurretik UGTkoa zela. Boluntario joan zela gorrien aldera. Zabalbide Zulatzaileen batailoiko kidea. Bilbon atxilotu eta Carmelo presondegira eraman zutela. Handik Larrinagara, eta Larrinagatik Burgosera.*

Hauteskundeen bezperan goizeko ordu bietan Jose Maria Echevarriarekin batera zer egiten zuen azaltzeko eskatuta, erantzun zuen ez zela ezer berezi egiten ari. Tabernaz taberna ibili zirela eta plana egin zutela goizeko zazpitan mendira joateko, besterik ez. Bozkatzea derrigorrezko eginkizuna izanik, mendira joatea bozkatzera joan ez izateko aitzakia ote zen galdetzerakoan, ezetz erantzun zuen. Bere izena ez zela erroldan ageri bozkatzeko gaitasunik gabe utzi zutelako kondenatu zutenean eta berak ez zuela inoren agindu ez kontsignarik jaso. Propaganda esku-orriak zer ordutan aurkitu zituen esateko eta paperok lurrera bota zituen mutikoa identifikatzeko esan genion. Hilaren 5ean arratsaldeko 8ak aldera aurkitu zituela esan zuen eta ez zuela mutikoa ezagutzen. Goiburuan irakurri zuela, "A los obreros vascos", eta poltsikoan gorde zuela irakurri gabe. Ez zela gorrien lotura, ez zekiela hauek nortzuk ziren eta ez zuela inolako kontsignarik jaso deklaratu zuen.

Jose Maria Echevarría Goenaga. 24 urte. Lucio

eta Jose Mariri egun berdinean egin zieten galdeketa. Ea mendira joatea bozkatzera ez joateko norbaiten agindua edota kontsignarik ote zen galdetzerakoan, ezetz esan zuen. Ez zela bozkatzera joan, igandero mendira joaten zelako, eta ez zela betebeharrarekin jabetu. Deklaratu zuen ez zela gorrien lotura, ez zekiela haiek nortzuk ziren eta ez zuela jaso inolako kontsignarik.

1947ko uztailaren 13an Guardia Zibilaren informea honela zioen: *Lucio Gazte Sozialista Batera-tuetako (JSU) kidea zela. Gazte talde haren burua zela. Mendian, taktika militarra eta pistolarekin tiro egiten erakusten zuela. Parte hartze aktiboa izan zuen 1934ko urriko gertaeretan. Pertsona garrantzitsua herri honetan Guardia Zibilaren kuartel etxearen kontrako erasoan. Oreja eta Resusta jaunak erail zituen taldeko kidea da. Gorriek menderatu bitartean, lehenengo egunetik ikusi zuten armekin kalean. Donostiara joan zen gorrien lehenengo espedizioarekin batera. Maria Cristina hotelaren eta Loiolako kuartelaren kontrako erasoetan hartu zuen parte.*

1934ko urrian eman ziotela baldintzapeko askatasuna. Pertsona arriskutsutzat daukate.

Jose Mariri buruz esan zuten jende susmagarriarekin ibili ohi zela eta maiatzeko grebetan Barakaldoko Ikerkuntza agenteek atxilotu zutela kotxe batean, antzeko aurrekariak zituzten beste hiru sozialistekin batera. Zortzi egunera askatu zuten ezagutzen ez ditugun arrazoiak zirela medio.⁵³²

Donostia. 1940ko 3.046 zk. prozesu sumarisimoa

Vicente Arabaolaza Arriola. 31 urte. 1937ko irailaren 26an atxilotu zuten Santanderren. 1940ko maiatzaren 17an, oraindik ere, preso jarraitzen zuen Santanderko Central Tabacalera presondegian.

Prozesu judiziala 1940ko urtarrilaren 15ean hasi zen. Arrasatetik sinadurarik gabe igorritako informe batek honela dio: *sozialista. Oso gaztetatik UGTn. Portaera ezin txarragoa. Oso pertsona arriskutsua herrian.*

Camilo Basterrecheak Unión Cerrajerako ingeniari zuzendari gisa, informe hau idatzi zuen 1940ko apirilaren 4an: *1920ko irailaren 17an sartu zen faktoria honetan lanera eta hemen egon zen 1934ko urriaren 4ra arte. Urriaren 5ean atxilotu zuten agintari militarrek eta automatikoki enpresatik kanpo geratu zen. 1936ko otsailean, Frente Popularrak hauteskundeak*

irabazi ondoren, berriro hartu behar izan genuen faktorian. UGTren bitartekaritzarekin eta, “errepresaliatuen” dekretuari helduz, diru erreklamazio bat aurkeztu zuen enpresaren kontra. Bera lanpostuan aritu zen 1936ko irailaren 17ra arte. Herritik kanpo egonez, ez du haren nondik norakoen berri.

Gregorio Urcelay Arana eta Antonio Pagoaga Maquibar lekuko gisa deitu zituzten deklaratzera. Lehenengoak esan zuen ez zekiela hark mugimendurekin zerikusirik ote zuen edo ez. Bigarrenak, aldiz, 1936ko uztailean atxilotu zutela eta 1937ko ekainean itzuli zela herrira, baina ezin duela ezer esan haren parte hartzearen inguruan.

1940ko uztailaren 15ean, Gerra Kontseiluak behin-behineko artxibatzea proposatu zuen.⁵³³

1937ko 4.399 zk. kausa. Donostia

Kausa hartan hamabost arrasatear prozesatu zituzten. Haietatik hamahiru Tolosan zeuden preso.

Prozedura 1937ko azaroaren 4an hasi zuten eta epaia 1939ko urtarrilaren 10ean eman zuten. Hamalau absolbitu egin zituzten “presoaldi prebentiboaren luzapenarekin zigorra bete izana” argudiatuta. Hamabosgarrena, **Hilario Uranga Balanzategui**, kartzelan mantendu zuten bere kontrako akusazioa argitu artean.

Jose Gorosabel Gorosabel Unión Cerrajera de Mondragon enpresako kontramaisua eta Alderdi Nazionalistako afiliatua. **Jesus Ortuoste Altuna**, **Domingo Arenaza Uribechevarría**, **Fausto Andres García**, **Domingo Santos Zarraoa**, eta **Faustino Urcelay Arana** enpresa berdineko beharginak. Ortuoste Ezker Errepublikarreko afiliatua eta Arenaza UGTkoa. Beste hirurak afiliazio politikorik gabekoak. Haiek lanean jarraitu zuten liberazioaren bezperara arte, orduan joan baitziren Bizkaira eta Santanderrera. Ortuoste txofer lanetan aritu zen, Arenaza lubakiak egiten eta Fausto garraio unitate batean egon zen platerak garbitzen. Gainontzekoek ez zuten izan jokabide marxistarik.

Andres Aguirre Loidi prozesatua, Euskal Etxearen jabea, Santanderrera joan zen. Han, sukaldari ibili zen. **Pedro Pereira Floriajak**, Ezker Errepublikarreko kideak, Intendentzia Marxistan egin zuen lan Elorrioren eta, handik, Santanderrera joan zen. **Guillermo Herrera Izcoak**, UGTko afiliatua, ez

zuen izan mugimenduaren kontrako jokabiderik. **Maximo Orobengoa Gomez**, **Ambrosio Gomez Carranza**, **Ufemio Jimenez del Campo**, **Julian Lafuente Gil** eta **José Inda Errasti** Elmako langileek ez dute izan jokabiderik mugimenduaren kontra, Herrerak izan ezik. Lehenengo laurak, Frantziara ihes egiteko, itsasontziratzen ari zirela atxilotu zituzten, eta Indak batailoia marxista batean eman zuen izena.⁵³⁴

1941eko 3.367 zk. ohiko prozesu sumarisimoa. Donostia

Felipe Barrutiabengoa Gastañaga. 24 urte. *Ideologia separatista. STVko afiliatua. Amayur batailoian borrokatu zuen. Atxilotu ondoren, San Ignacio Erreketean Tertziora pasatu zen. 1938ko irailaren 6an, bere unitatearekin Teruelgo fronteko Torgas aldean zegoela, pentsatu zuen beste batzuekin batera sorora joatea mahatsa jasotzera. Mahatsetan ari zirela, gorriek preso egin eta Algineteko armamentu lantegian jarri zuten lanean.*

Fiskalak 30 urteko kartzela zigorra eskatu zuen desertzio delituagatik eta abokatu defendatzaileak absoluzioa. 1941eko martxoaren 13an absolbitu egin zuten.⁵³⁵

1940ko 3.445 zk. ohiko prozesu sumarisimoa. Donostia

Sumario hartan prozesatu eta kondenatu zituzten **Ignacio Olazabal Larreategui** eta **Guillermo Juldain Sainz**. Prozesua 1940ko ekainaren 18an hasi zen eta Lamuela Laspiur koronela izan zen Auzitegiko lehendakaria.

Desertzio delitua egotzita, 30 urte eta egun bateko kartzela zigorra betetzera kondenatu zituzten 1941eko irailaren 25ean. Gerra Kontseiluak proposatu zuen zigorra 6 urte eta egun bateko espetxealdiarengatik kommutatzea.

Ignacio Olazabal. Euskal Alderdi Jeltzaleko eta STVko afiliatua. Milizianoa matxinoen armadan Gallartan atxilotu zuten arte. Aurrerago, 1938ko otsailaren 27an, San Ignacio Tertzioan eman zuen izena. **Guillermo Juldain Sainz**. Ideologia separatista. Matxinoen armadako milizianoa izan ondoren, Laredon atxilotu zuten. San Ignacio Tertzioan eman zuen izena. 1938ko irailaren 6an, Castellonen, Ahingo Alturas aldean, *etsaiaren frontean zeudela, gorrien aldera pasatu eta, berriro ere, matxinoen armadan sartu ziren*

miliziano. Han egon ziren gerra bukatu arte.⁵³⁶

1937ko 41 zk. presazko prozesu sumarisimoa. Santoña

Prozesatuak: Francisco Vitoria Errasti eta Angel Labajos Salvadores.

Francisco Vitoria. 26 urte. EAJko afiliatua. Unión Cerrajerako langilea. STV eta Centro Obrero Catolicoko kide izandakoa. Maisu industrial. Ingeniariaren batailoi mistoan kapitain izatera iritsi zen. Fortifikazio lanak egin zituen. Laredon errenditu zen 1937ko abuztuaren 26an. Bere defentsa egiteko, une horretan lanean ari zen abokatua izendatzen zuen. 1937ko irailaren 10ean Duesoko penalera eramane zuten.

Angel Labajos Salvadores. Ezker Errepublikarreko kidea. Odol ospitale batean laguntzen aritu zen praktikante moduan. Aurrerago, osasun arlora destinatua eta teniente izendatu zuten.

1937ko urriaren 5eko epaian, Francisco 30 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten, eta Angel 12 urte eta egun batera.

Francisco Vitoria 1938ko abuztuaren 21ean lekualdatu zuten Puerto de Santa Mariako presondegira. 1940ko abuztuaren 11n, baldintzapeko askatasuna eman zioten eta etxean bete behar izan zuen zigorra. 1943ko apirilaren 29an, zigorra kommutatu eta 6 urtekoa ezarri zioten. Zigorra 1943ko abuztuaren 26an iraungi zen.⁵³⁷ Unión Cerrajera ez zuten lanerako berriro hartu eta Bilbora joan zen bizitzera.⁵³⁸

Angel Labajoseri 12 urteko zigorra jarri zioten.

Santoña. 1937ko 90 zk. presazko prozesu umarisimoa

Juan Azcarate Isasmendi. 24 urte. EAJko afiliatua. 1937ko abuztuaren 27an atxilotu zuten. Duesoko kartzelara eramane zuten. Santanderko 1. Epaitegi Militarrek biziarteko giltzapetzea ezarri zion 1937ko azaroaren 12an, altxamendu Militarraz akusatuta. Boluntario eman zuen izena batailoi nazionalista



Casimiro Muguruza Expósitoren heriotzaren agiria kartzelan.

batean eta teniente-gradua lortu zuen.

1938ko abuztuaren 4an, Puerto de Santa Mariako presondegira eramane zuten. 1940ko abuztuaren 19an, baldintzapeko askatasunean kaleratu zuten. 1941eko urtarrilaren 8an, behin betiko lizentziatu zen.

Bilboko 2. Epaitegi Militarra. 1937ko 291zk. presazko prozesu sumarisimoa

Casimiro Muguruza Expósito. 1880 martxoaren 3an jaio zen Arrasaten. Elorriora ezkondua. 1937ko uztailaren 17an atxilotu zuten. Abuztuaren 12an, biziarteko giltzapetze sententzia betetzeko agindua eman zuten. 1938ko maiatzaren 24an, Bilboko Eskolapios kartzelatik, Santoñara, Duesoko kartzelara, eramane zuten. Abuztuaren 9an, Duesoko kartzelatik atera zuten Puerto de Santa Mariako kartzelara eramateko. 1938ko abuztuaren 17an iritsi zen Cadizeko kartzelara, Duesotik atera eta 8 egunetara. 1939ko martxoaren 5ean hil zen, 59 urte zituela, Puerto de Santamaria presondegiko erizaintzan.⁵³⁹

Santanderko 1. Epaitegi Militarra. 1937ko 105 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Mateo Astaburuaga Bengoa. Arrasate. 44 urte zituen atxilotu zutenean, 1937ko abuztuaren 27an. Sozialista. 1934ko gertaeretan inplikaturik. Hasieran guardiak egiten aritu zen. Aurrerago, milizia gorrrietan eman zuen izena boluntario. 1937ko irailaren

20an kartzelaratu zuten. 1937ko azaroaren 13an, “altxamenduarekin bat egiteaz” akusatu eta bi-ziarteko giltzapetzea ezarri zioten. 1938 abuztuaren 21ean, Puerto de Santa Mariako presondegirako trasladoa hasi zuten eta abuztuaren 24an kartzelatu zuten. 1940ko abuztuaren 16an atera zen kalera baldintzapeko askatasunean. 1943ko ekainaren 28an eman zioten behin betiko askatasuna.⁵⁴⁰

Donostia. 1937ko 381 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Jose Maria Ceciaga Ezcurra. Arrasate. 1936ko urriaren 2an atxilotu zuten Bergaran. Han bizi zen. 1936ko urriaren 6an, Donostiako Ondarreta kartzelara sartu zuten Bergarako komandante militarren esanetara. 1936ko urriaren 14an, Lasarteko abiazio eremura eraman zuten, eta han izan zuten 1937ko martxoaren 24ra arte. Orduan itzuli zen Ondarretara. 6. Epaitegi Militarrek Gerra Kontseiluaren bitartez, bi-ziarteko giltzapetzea ezarri zion altxamendu militarra egotzita. Auzitegiko burua izan zen Leon Puig Dublan artilleriako teniente koronel erretiratua.

Uztailaren 18an, Espainiako Armadak abian jarri zuen Mugimendu Nazionala nazioaren gobernuaren funtzio guztiak bere esku hartuz haren salbazioak hala eskatzen zuelako. Lurralde Nazionalaren zati batek armak hartu zituen gobernuaren aurka jotzeko. Jose Maria Ceciaga prozesatua, UGTko afiliatua, mugimendu marxista abiaraztean, harekin bat egin zuen Bergaran. Beste 40 lagun ingururekin batera, Eibarrera joan zen. Han, pistola metrailadoreak eman zizkieten. Armak hartu eta Oriako frontera joan ziren. Handik, Buruntzako Gainera joan ziren.

1937ko uztailaren 31n, Guardia Zibilaren esku utzi zuten hauek Puerto de Santa Mariako presondegira lekualdatu zezaten. Abuztuaren 3an iritsi zen Cadizko presondegira. Urriaren 14an, Tomas Vélez funtzionarioak parte bat eman zuen bere kontrako, *Espainiaren eta Francoren alde derrigorrezko bibak ez emategatik*. 1937ko urriaren 20an, Diziplina batzordeak zigortu zuen hilabetez komunik nazkagarrienak garbitzera, presoak ez emategatik biba aberkoiak, kartzelako zuzendaritzak aginduta.

1940ko urriaren 20an, behin-behineko askatasunarekin kaleratu zuten, eta 1943ko irailaren 29an, behin betiko askatasuna eman zioten, zigorra betetzat eman baitzuten

1940ko urriaren 20an, behin-behineko askatasu-

narekin kaleratu zuten eta 1943ko irailaren 29an, behin-betiko askatasuna eman zioten zigorra betetzat emanaz.⁵⁴¹

Bilbo. 1937ko 711 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Felipe Loidi Zubiaur. Arrasate. Bizilekua Durangon. 51 urte zituen atxilotu zutenean, 1937ko abuztuaren 10ean. Atxilotu eta lau egunera kartzelaratu zuten. 1937ko urriaren 27an, Upo-Mendi ur gaineko kartzelara eraman zuten. 1937ko azaroaren 17an, gerra kontseiluak altxamendu militarra leporatu eta bi-ziarteko giltzapetzera zigortu zuen. 1937ko abenduaren 21ean, Duesoko presondegira eraman zuten eta handik, 1938ko abuztuaren 4an, Puerto de Santa Mariako kartzelara eraman zuten.

1940ko abuztuaren 9an atera zen kartzelatik. 1943ko maiatzaren 15ean behin betiko lizentziatu zuten.⁵⁴²

Santoña. 1937ko 129 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Vicente Ballona Ansoategui. Arrasate. Bizilekua Azpeitia. 29 urte. Izquierda Republicanako kidea eta UGTko afiliatua. Errepideetan kontrolak egiten zerbitzatu zuen Zulatzaile batailo batean izena eman zuen boluntario joateko. Milizianoa. Hori dela eta, altxamenduarekin bat egitea leporatu eta bi-ziarteko giltzapetzera kondenatu zuten. 1937ko irailaren 29an, Duesoko kartzelan sartu zuten. 1938ko abuztuaren 4an, Puerto de Santa Mariara lekualdatu zuten. 1941eko maiatzaren 7an utzi zuten aske. Zigorra 1949ko abuztuaren 22an iraungi zen. Urte askoan, hilero eskutitz bat bidali behar izan zuen Puerto de Santa Mariako kartzelara bere egoera pertsonala azaltzeko. 1963ko azaroaren 14an jakinarazi zioten behin betiko askatasunean zegoela.⁵⁴³

Santoña. 1937ko 196zk eta 211 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Alejandro Rodríguez Pérez. 39 urte. Arrasate. Unión Cerrajerako langilea. 1937ko irailaren 27an, Duesoko kartzelara eraman zuten. 1938ko otsailaren 24an, Santanderko Lehen Epaitegi Militarrek bi-ziarteko giltzapetzera zigortu zuen.

Miliziano patruila bateko buru izatea leporatu zioten, nahiz eta, inoiz frogatu ez gertaera bortitzetan parte hartu zuenik. 1938ko abuztuaren 4an, Duesotik,

Puerto de Santa Mariako kartzelara eraman zuten. Abuztuaren 12an iritsi zen. Lekualdaketa 8 egunez luzatu zen. 1940ko abuztuaren 11n, behin-behineko askatasuna eman zioten. Zigorra 1943ko azaroaren 5ean iraungi zen.⁵⁴⁴

Gasteiz. 1935eko 524 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Félix Zulueta Belastegui. Arrasate. 35 urte. Euskal nazionalista. 1936ko urriaren 1ean atxilotua. Gasteizko presondegi probintzian kartzelaratu zuten. 1937ko otsailaren 9an, gerra kontseilu batek epaitu zuen. Akusazioa: Kanoidun eskopeta batekin, zaintza lanak egiten aritu zen munizioen biltegi gisa erabiltzen zuten parrokan. Fiskalak altxamenduarekin bat egitea leporatu eta biziarteko giltzapetzea eskatu zuen zigortzat. Defentsak, aldiz, auzipetuaren absoluzio librea eskatu zuen. 15 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Baina zigor horrekin konforme ez eta, 1934ko apirilaren 23an, Justizia Militarreko Goi Tribunalak sententzia baliogabetu eta biziarteko giltzapetzera kondenatu zuen. Francisco Gómez Jordana izan zen tribunaleko jeneral presidentea eta Emilio de la Cerda bokal auditorea. Puerto de Santa Mariako kartzelara eraman zuten. 30 urteko zigorra bi urteko zigorraren truke konmutatu eta, 1940ko uztailaren 13an, behin-behineko askatasuna eman zuten.⁵⁴⁵

1939ko 29 zk. presazko prozesu sumarisimoa. Santoña

Prozesatuak: **Santos Sologaistoa Iriarte, Jose Miguel Egidazu Pagalday eta Gregorio Ariztimuño Ayerbe.**

Santos Sologaistoa. 21 urte. Eusko Alderdi Jeltzaleko afiliatua. Informatzaile lanak egiten aritu zen bere bizilekuan 1936ko abuztuaren 26ra arte. Egun horretan eman zuen izena euskal milizietan boluntario. Usurbilgo frontean andari izan ondoren, Arrate konpainian sartu zen eta handik Amayur batailoira pasatu zen. Kalamua, Orduña, Asturias, Otxandioko frontea eta Sollubetik ere pasatu zen. Bilbotik alde egitean, Somorrostrora joan ziren. Otoñeroko frontean zegoela sarjentu izendatu zuten.

Jose Miguel Egidazu. 21 urte. EAJko militantea eta STVko afiliatua. Zaintza lanak egiten egon

zen, alderdikoek Loiolako koartelera bidali zuten arte. Bidania eta Ventas de Zarateko frontera destinatatu zuten. Arrasatera itzuli zenean, lehenengo Arrasate konpainian eta gero Amayur batailoian sartu zen. Bizkargin zauritu egin zuten. Santandertik Santoñarako fronteetan sarjentu lehenengo eta aurrerago teniente izendatu zuten.

Gregorio Ariztimuño Ayerbe. 25 urte. Ez zuen afiliazio politikorik. Solidaridad de Empleados Vascos sindikatuko afiliatua. Sindikatuan lehendakari kargua bete zuen. Arrasatetik Abadiñora joan eta han egon zen 1936ko urriaren 23ra arte, egun horretan deitu baitzituzten bere kintakoak Gernikara. Arrasate konpainian erroldatu zen. Fronte askotan borrokatu zen eta brigada izendatu zuten. Armizan mailaz igo eta informazio teniente izendatu zuten.

Epaia 1937ko irailaren 21ean. Atxilotu eta hila-betera epaitu zuten. Egidazu kondenatu zuten 30 urte eta egun bateko kartzela zigorra betetzera; Ariztimuño 20 urte eta egun batera, eta Sologaistoa, 12 urte eta egun bateko kartzela zigorrera.

1943ko maiatzaren 12an, Egidazuri zigorra konmutatu eta 6 urteko espetxealdia ezarri zioten. 1938ko abuztuaren 6an Puerto de Santa Mariako kartzela nagusira eraman zuten. Ariztimuñori 1940ko irailaren 3an zigorra konmutatu eta 3 urteko espetxealdia ezarri zioten, eta Sologaistoari zigor berdina ezarri zioten 1940ko irailaren 21ean.⁵⁴⁶



Gregorio Ariztimuño Ayerbe, eskumatik bigarrena.

1939ko 2.770 zk. kausa. Donostia

Kausa hartan, **Guillermo Lasagabaster Gorosabel eta Fermin Ibañez Azcoaga** auzipetu zituzten.

Guillermo. *Sozialista. UGTko afiliatua eta Gorrien Batzordeko Zuzendaritza Taldeko kidea. Pistolari ekin-tzailea, mugimenduko buru. Parte hartze oso bereizia. Parte hartu zuen ere 1934ko urriko gertaera iraultzaileetan. Fermin. 29 urte. Afiliazio politikoa: Sozialista Estremista. UGTko afiliatua. Pertsonai bereizia mugimenduan eta 1934ko urriko gertaera iraultzaileetako buruetako bat. Oreja diputatu tradizionalistaren erailketaren ustezko egilea izateagatik prozesatua. 1939ko urtarrilaren 14an, altxamendu militarra leporatu eta auzi iheslaritzat jo zituzten. Zigorra beteko zela ziurtatzeko, dokumentazioa idatzi eta beharrezko errequisitoriak eman zituzten.*⁵⁴⁷

Arrasatetik bidalitako informe haiekin baina, erabat logikoa izan zen atxilotuta zituzten Corbaneko kontzentrazio eremutik ihes egin izana. Ihesa: 1938ko urtarrilaren 21ean hasi zituzten diligentziak. 1937ko urriaren 20an edo 21ean gertatu zen. Une hartan, 2.906 pertsona zeuden atxilotuta. Gauetan eginkarien soroa atera behar zuten ezin zirelako komunak erabili. Gauetz atera eta sororen baten gelditu zirela esan zuten, baina hori ez dator bat gertatu zenarekin.

1938ko 12.447 zk. prozesu sumarisimoa. Bilbo

Lucio Urionabarrechea Aguirre. 26 urte. Unión Cerrajerako langilea. Sozialista bereizia. *Ekintzaile nabarmena 1934ko urriko gertaeretan.* UGTko filiala den Industria eta Merkataritza Langileen Elkarteko kidea. Arrasateko Juventudes Socialistas Unificadaseko buru. Donostiara joan zen matxinoen lehenengo espedizioekin. Abuztuaren 3tik aurrera joan zen lanera, Unión Cerrajera gorri-separatisten menpe zegoenean. Bilbora ihes egin eta han atxilotu zuten.

1934ko urriko gertaeretan Guardia zibilaren kuartelari egindako erasoan eta Marcelino Oreja, Dagoberto Resusta eta Ricardo Azcoagaren atxilotetetan parte hartzeaz gain, akusatu zuten aurreneko biak erail eta hirugarrena zauritzeaz ere. Ricardo Azcoagaren deklarazioaren arabera, sumarioan jasotako jarduketek agerian utzi zuten Luciok ez zuela inolako parte

hartzerik izan, ez atxilotetetan, ezta erailketetan ere. Unión Cerrajeraren jakinarazpenetan jaso zuten, irailaren 19ra arte egunero joan zela lanera. Gero, Bizkaian babestu eta han egon zen lanean Langile Batailoi baten izena eman zuen arte. Laguntza zerbitzuak ematen aritu zen akats fisiko batek lan horretara mugatzen zuelako.

Horregatik guztiarengatik, fiskalak 20 urteko kartzela zigorra eskatu zuen eta Canella koronela buru zuen Gerra Kontseiluak 1939ko maiatzaren 21ean erabaki zuen 15 urteko kartzela zigorra ezartzea, matxinatuei laguntza emateagatik.

Luis Coretes Etxanobe, Seigarren Erregio Militarreko auditorea, ez zen azaldu erabakiarekin ados, eta 30 urteko kartzela zigorra ezarri zion. Justizia Militarraren Kontseilu Goreneko burua Ruiz de Portal Martinez izan zen eta Kontserilariak, Ruiz de Aauri, Guerra Zagala, Feroso Blanco eta Cortes Echanove. 1939ko irailaren 28an kontseilu hark altxamendu militarra leporatu eta erabaki zuen Lucio Urionabarrechea heriotza zigorrera kondenatzea.

1940ko maiatzaren 8an, zigorra kommutatu eta gradu baxuagoa ezarri zioten.⁵⁴⁸

1938ko 3.110 zk. prozesu sumarisimoa. Bilbo

Fermin Arabaolaza Arriola. Urte bat atxilotuta eman ondoren, erabaki zuten 1938ko abuztuaren 22ko epaiaren behin-behineko artxibatzea. B atalean sailkatu zuten, langile batailoi batera destinatu zuten.

2.456 zk. aurretiazko eginbideak. Santander

Candido Ruiz de Cuesta Gomez. 1920ko apirilaren 20an jaioa. Bete berri zituen 16 urte gerra hasi zenean. 22. batailoian anaiarekin batera Renedotik zetorrela atxilotu zuten Santanderren, 1937ko abuztuaren 27an. Urriaren 5ean, C atalean sailkatu zuten. 1938ko martxoaren 30ean, Corbaneko kontzentrazio eremutik Bilboko Escolapios kartzelara bidali zuten. Espediente prozesalari hasiera eman eta 1938ko urriaren 18an lehenengo deklarazioa hartu zitzaion. Deklarazioa: *Arrasatetik Elorriara joan eta, boluntario, Dragones batailoian eman zuela izena. Lotura lanak egiten egon zela batailoi hartan urtarrilera arte, adin txikikoa izanagatik, baja eman zutenera arte. 16 urte zituela. Santanderrera joan zela errefuxiatu. Ez dela*

inoiz izan alderdi politiko edo sindikatu bateko kide. Esan zuen ere Gregorio Echevarriak eta Ricardo Azcoagak bere alde deklaratu zezaketela.

Honela zioen 1938ko urriaren 26an herriko Falangeak egin zuen informeak: *Afiliazio politikoa: ezkertiarra. Boluntario eman zuen izena Fronte Popularraren milizietan. Portaera morala eta erlijiosoa: txarra.*

Domingo Arzamendi alkateak gehitu zuen: *afiliazio politikoa sozialista. UGTko afiliatua. Ez du aberastasun ondasunik. Postuko Guardia Zibilaren komandanteak esan zuen: komandante gorria zen, anaiarekin batera, armak hartzen lehenengotarikoa. Zurrumurruak diotenez, alfereza izan zen Bizkaian. Kontua da, Candido Sotero Ruiz de Cuesta, Pradoren aita, sei urte aurrerago, postu horretako guardia zibila izan zela.*

Ricardo Azcoagak esan zuen *ezkerreko joera zuela, baina, bere adinarengatik, ez zegoela inolako alderdi politikotan afiliatuta eta ezin zuela ezer esan haren jardueraz, mugimendua hasi zenean Arrasatetik alde egin zuelako.*

Gregorio Echevarriak esan zuen *adin txikikoa izateagatik ez zuela inongo afiliazio politikorik eta, Gorrien agindupean, lotura zerbitzuak bete zituela herri inguruko gardien artean.*

1938ko azaroaren 25ean, Donostian Ondarretako kartzelara eraman zuten. 1939ko otsailaren 9an, Justo Munarriz Muratoriri hartu zioten deklarazioa. Hemen hark esandakoak: *Arrasate gorrien agindupean zegoenean, ez zuela ikusi ezertan parte hartzen. Ez ziola inori entzun milizianoa zenik. Eta familiarekin batera egin zuela ihes herritik. Egunean bertan hartu zioten berriro deklarazioa Domingo Arzamendiri. Hark orduan esan zuen, adin txikikoa izateagatik, ez zutela haren kontra inongo jardueraren berri.*

Lau egun geroago, B atalean sailkatu zuten.⁵⁴⁹

1942ko 12.957 zk. sumarioa. Bilbo

Juan Cruz Aranburu Zabaleta. *Ezkerrekoen edo nazionalisten aldekoa. Ez da inon agertzen afiliazio politikorik izan zuenik. Arrasaten zegoen, Udal Epaitegiko idazkari kargua betetzen ari zelako. Dirudienez, herrian sortu zen batzorderako errekeritu eta bertako mekanografoa izan zen. 1942ko ekainaren 23an, presoaldi prebentiboan urte eta erdi zeramatzanean, sumarioaren behin-behineko artxibatzea adostu zuten.*

1938ko 2.021 zk. aurretiazko eginbideak. Santander

Segismundo Gonzalez Gonzalez, Izaera Deliktiboentzako Delitu batzordeak ez zuen ikusi arrazoirik atxilotuta jarraitzeko. 1940ko otsailaren 1ean eman zioten baldintzapeko askatasuna, atxilotu zutenetik urte bi eta erdira.⁵⁵⁰

1937ko 1.769 zk. presazko prozesu sumarisimoa. Bilbo

Pablo Querejeta Urrutia. 35 urte. Bilbon agertu zen, 1937ko ekainaren 19an. Polizia Militarren Unitateko milizianoa. Abuztuaren 17an, A atalean sailkatu eta baldintzapeko askatasunean atera zen. Astean behin joan behar zuen bizi zen herriko Guardia Zibilaren Komandantziara. Hona hemen Sailkapen batzordeak jaso zituen informeak: 1937ko uztailaren 30ean, Jose Añibarrok sinatzen zuen Unión Cerrajerako informea: *sarrailagile egin zuen lan 1914tik 1936ko irailaren 19ra arte. Normaltasun osoz joan zen lanera. 1936ko abuztuaren 3tik aurrera. Haren izena ez da agertzen Frente Popularreko milizianoen ordainsariak jasota dauden zerrendetan. Abuztuaren 7an, David Esnal Arrasateko parrokiako apaiz artzapezak esan zuen: portaera moral eta erlijioso oneko gizona. Abuztuaren 13an, Domingo Arzamendi FET eta JONSeko arduradun lokalak esan zuen: nazionalista aurreratua. Solidario aurreratua. Propagandista. Guardiak egin zituen. Portaera moral onekoa.*

Bienvenido Iglesias Fondevilla Guardia Zibilaren postuko komandantearen aurrean agertu zen. Orduan, Guardia Zibilak informe berriak aurkeztu zituen: *afiliazio nazionalista. Solidarios Vascoseko kidea. Hauteskundeetan, mahai ikuskatzaile gisa bereizi zen. Milizianoa izan zen gorriek menderatzen zutenean eta zaintza lanak egin zituen. Sarritan, aginduak ematen omen zizkion batzordearekin biltzen zen.*

David Esnali buruz, Guardia Zibilak bere informean gehitu zuen: *gudaria. Zaintza lanak egin zituen. Kristau modura, portaera moral eta erlijioso ona. Jose Miguel Azcarate alkatea nazionalista oso aurreratu zen. Propagandista bikaina politikoki zein sindikalki. Horren aurrean, Sailkapen batzordeak proposatu zuen, aurretik ezarrita zuen sailkapen atala aldatu eta C atalean sartzea (Deustun, 1937ko irailaren 25ean).*

1937ko abenduaren 6an David Esnalek egin zuen deklarazioa: *EA7ko eta Solidarios Vascoseko kidea urte batzuk aurreragotik. Azken hauteskundeetan, ikuskatzaile lanak egin zituela. Arrasatetik ihes egin ondoren, Ertzaintzan sartu zela eta zaintza lanak egiten zituela herri zaintzan eta kartzeletan. Zaintza lanak egiteko ez zuela erabili inoiz armarik eta ez zuela sekula jo batzordera instrukzioak eskatzera.*

1938ko martxoaren 22an, Roberto Arcauzek, Falangearen idazkaria, bidalitako informean jasotakoa: Pablo Querejeta Urrutia afiliatu zela Falangen 1937ko abenduaren 15ean. 1938ko martxoaren 25ean, informea bidali zuten Fidel Amozarrain, Tomas Arreguik, Marcelino Berecibarrek, Jose Ramon Zubillagak, Antonio Eizaguirrek eta Juan M^a Sanpedrok: preso zeudela Bizkaiko kartzeletan gorri separatistak nagusi zirenean; *deklaratu zuten oso ondo zaindu eta hartu zituela Pablo Querejeta Urrutia arrasatearrak, begirunez eta zintzotasunez jokatu zuela, kartzelan zaintza lanak egitea egokitu zitzaionean.*

1938ko martxoaren 8ko epaiak absolbitu egin zuen Ministerio Fiskalak bere kontra egindako karguetatik eta B atalean sailkatu zuen.⁵⁵¹

Gasteiz. 1936ko 494 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Hipolito Uriarte Ceberio. 18 urte. Nazionalista. Solidaridad de Obreros Vascosen afiliatua. Gorriek herria okupatu zuten bitartean, haiekin batera aritu zen, Unión Cerrajera lantegian eskuko bonbak torneatzen. Egunean 500 bonba inguru fabrikatzen zituzten. Horregatik, 1936ko urriaren 24an, Gerra Kontseiluak 12 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zion. 1940ko apirilaren 10ean, zigorra kommutatu eta bi urteko kartzelaratzera ezarri zion. Ia zigorraren bikoitza egin zuen kartzelaratzera.

Gerra Kontseiluak Autoritate Judizialari abisu eman zion Unión Cerrajerako enkargatua José Gorosabel, Menchaca milizianoz, Cornelio Berecibar eta Garro herritarrek eta “Orduña” ezizenarekin ezagutzen zenak gaizki egindakoen inguruan izan zezaketen erantzukizunez ohartarazteko.⁵⁵²

Bilbo. 1937ko 994 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Julio Goronaeta Mendizabal. Juventudes Socialistaseko afiliatua. Arrasaten zegoen gorri separatisten altxamenduaren hasieran. Infanteriako 28.

batailoian (Baracaldo de Izquierda Republicana) eman zuen izena boluntario. Fronte askotan hartu zuen parte. Peña Lemoako ekintza baten ondoren, teniente gradua eman zioten. Ekintza hartan, zauritu egin zuten eta Santanderrera eraman zuten. Handik, “Aller” baporean ihes egiten saiatu zen, baina bertan atxilotu zuten.

1937ko irailaren 6an atxilotu zuten. Urte bereko irailaren 30ean, epaitu eta biziarteko kartzela zigorra ezarri zioten. 1940ko apirilaren 26an, zigorra kommutatu eta bi urteko kartzela aldia ezarri zioten.⁵⁵³

Bilbo. 1938ko 10831 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Valentin Goicoelea Garaygordobil. Arrasate. UGT eta Alderdi Sozialistan afiliatuta. Izaera muturreko izaera oso nabarmena. Urriko iraultzarekin bat egiteagatik 10 eta 6 hileko kartzela zigorrak bete zituen. Egungo altxamenduaren hasieran, gidatzen zuen kotxearekin aurkeztu zen boluntario herriko Frente Popularrean. Hasieran udaletxean zerbitzatu bazuen ere, aurrerago, garraio militarretan zerbitzatzeko aritu zen. Ziur gaude Círculo Tradicionalistan aurkitu genituen bandera apurtuekin zerikusia duela. Diman atxilotu zuten senide baten etxean. 1938ko apirilaren 21ean, hamabi urte



Valentin Goikolea eta Benita Zabala Madina. Esther Goikoleak utzitakoa.

eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten.

1940ko ekainaren 24an, zigorra kommutatu eta bi urteko kartzelaratzera ezarri zioten.⁵⁵⁴

Bilbo. 1938ko presazko prozesu sumarisimoa

Leonardo García Llanos. Morales de Toro (Zamora). 39 urte. Sozialista nabarmena Arrasaten. Altxamenduaren hasieran, Frente Popularraren esanetara jarri zen. Eibartik munizioak ekartzea zen haren zeregina. Ardura bat baino gehiago izan zuen komite lokalean. Aurrerago, milizietan eman zuen izena. Teniente izendatu zuten. 1938ko irailaren 9an, biziarteko giltzapetzea ezarri zioten. 1943ko apirilaren 12an, zigorra kommutatu eta 6 urteko kartzelaratzera ezarri zioten.⁵⁵⁵

Santoña. 1937ko 58 zk. presazko prozesu sumarisimoa

Antonio Guridi Garai. Guardiak egin zituen. Fronteran ofizialorde gradua izan zuen. Aurrerago, Konpainiako komisario politiko izendatu zuten eta tropen moralala altxatzen eman zuen zerbitzua. 1937ko irailaren 30ean, heriotza zigorrera kondenatu zuten. Heriotza zigorra kommutatu eta biziarteko kartzela zigorra ezarri zioten. 1943ko martxoaren 10ean, 12 urte eta egun bateko zigorraren truke konputatu zioten aurrekoa.⁵⁵⁶

Donostia. 1937. Kausa 168 zk.

Teofilo Igartua Bolinaga. Izquierda Republicanako kidea eta UGTko afiliatua. 1938ko uztailaren 8an, 12 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten. Antonio Armengou Marro, Cesareo Garcia Pesquera eta Julio Otaduyren informeez diote, *oso aktiboa izan zela iraultzan, eta askotan, armak erabiltzen ikusi izan zutela. Mugimendu Nazionalaren zaleak*

*zeuden eraikinean guardiak egiten ere aritu zen.*⁵⁵⁷

318 kausa sumarisimoa

Francisco Letamendi Ojea. *Oso nabarmena Alderdi Sozialistan. UGTko afiliatua. Prozesatu eta kartzelaratu egin zuten 1934ko urriko gertaerengatik. Oreja diputatu tradizionalista ustez hiltzeagatik kondenatu zuten.* – Epaiketa egin ez zuten, ezin izan zuten kondenatu. Gezurra informe haietako konstantea da. Gezurra. Lehenengo, Orejaren erailketan parte hartzeaz akusatzen zituzten eta bigarrenagoz, zigortuak izan zirela esatea.

Hasieratik Dragones batailoiko milizianoa izan zen, eta sarjentu kargua izan zuen. 1938ko apirilaren 2an Donostian bildutako Gerra Kontseiluak epaia eman zuen, Francisco Letamendia 30 urteko kartzela zigorra betetzeko. Matxinadak eragindako kalteengatik kalte-ordainak exijitzeko, sententzia haren testigantza Ondasunen Inkautazio batzordera igorri zen. Caja de Ahorros Provincialeko kartilan 13,93ko kopurua enbargatu zioten.⁵⁵⁸

Donostia. 1941. 2193 zk. Kausa.

Clemente Ramos Gamazo. Sozialista. UGTko afiliatua. *Urriko gertaeretan, iraultza hartan parte hartu zutenen aktiboetako bat izateagatik prozesatu zuten. Lehenengo egunetik jarri zen marxista gaiztoen esanetara. Armak erabili zituen. Alkatearen iritziz, portaera moral eta erlijioso txarreko gizona da.* 1941eko ekainaren 24an, hamabi urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten.

20157/38 kausa Santanderren

Casimiro Labajos Moreno. Sendagilea izan zen Arrasaten. 1938ko urriaren 11an, 6 urte eta egun bateko espetxe zigorra ezarri zioten matxinadarako eszitazio delituaz akusatua.

19. Kartzeleratuak, heriotzera kondenatuak eta langile batailoiak

Kartzelaratuak: 415

Heriotzara kondenatuak (berme gabeko epaiketetan) eta fusilatuak: 6

José Maria Urcelai Zarraoa
Ismael Diez Fernández
Francisco Azkonaga Arana
Jesús Uranga Urrutia (zinegotzia)
Benito Regil Bengoa
Eusebio Menchaca Turiel⁵⁵⁹

Heriotzara kondenatuak, 30 urte eta egun bateko kartzela zigorraren truke kommutatua: 15

Eustasio Marcaide Larrañaga (zinegotzia)
Felipe Letona Mugica (zinegotzia)
Trinitario Azconaga Arana
Pablo Bolinaga Arregui
Joaquin Garmendia Alava
Vicente Juldain Sainz
Pablo Barrutia Gallastegi
José Maria Gallastegi Arregui
Andres Garate Umerez, 1938ko urtarrilean trukatua
José Gorroñogoitia Sein, 1938ko urtarrilean trukatua
José Aramburu Bidaburu⁵⁶⁰
José Barrutiabengoa Gallastegi
Roman Bidaburu Aramburuzabala
Lucio Urionabarrenechea Aguirre
Antonio Guridi Garai. Puerto Santa Maria espetxean

30 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatuak: 21

José Maria Arriaran Ortueta, Burgosko espetxean
Segundo Ceciaga Uriarte, Puerto de Santa Maria espetxean
Juan Azcarate Isasmendi
José Miguel Egidazu Pagaldai
Francisco Vitoria Errasti, Puerto de Santa Maria espetxean
Ignacio Olazabal Larreategui
Guillermo Juldain Sainz
Gregorio Yarza Abalia, Puerto de Santa Maria espetxean
Eduardo Liquiniano Eriz, Puerto de Santa Maria espetxean
Celestino Uriarte Bedia, Oviedo, Martutene espetxean
Felipe Loidi Zubiaur, Puerto de Santa Maria espetxean
Mateo Astaburuaga Bengoa, Puerto de Santa Maria espetxean
Nicolas Bengoa Urrutia, Puerto de Santa Maria espetxean
Felix Zulueta Belategi, Puerto de Santa Maria espetxean
Alejandro Rodríguez Pérez, Puerto de Santa Maria espetxean
Vicente Ballona Ansoategui, Puerto de Santa Maria espetxean
Jose Maria Ceciaga Ezcurra, Puerto de Santa Maria espetxean

Julio Goronaeta Mendizabal
Francisco Letamendi Ojea
Leonardo García Llanos
Casimiro Muguruza Exposito Puerto de Santa
Maria espetxean hil zen

20 urteko eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatuak: 2

Victor Berezibar Ormazabal
Gregorio Aristimuño Ayerbe

12 urteko eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatuak: 12

Pablo Urrutia Zaitegi
Santos Sologaitoa Iriarte
Francisco Garai Albistegi
Cosme Altuna Sagasta⁵⁶¹
Hipolito Uriarte Ceberio
Florencio Gastelu Larrañaga
Angel Labajos Salvadores
Pablo Arizabaleta Zabaleta Santanderko Tabacaleran preso.⁵⁶²
Valentin Goikoelea Garaigordobil, Puerto de Santa Maria espetxean egon zen.⁵⁶³
Teofilo Igartua Bolinaga⁵⁶⁴
Clementino Ramos Gamazo
Cleobaldo Herrero Carreras, Duesoko penalean preso.⁵⁶⁵

6 urteko kartzela zigorrera kondenatuak: 3

Juan Uriarte Martinez
Eladio Urizar Gosenza
Casimiro Labajos Moreno

2 urteko kartzela zigorrera kondenatuak: 2

Eusebio Arregi Lizarralde.⁵⁶⁶ 1939/04/12-1943/08/27
Carlos Garate Larrañaga.⁵⁶⁷

Ondarretako espetxean: 46

Antonio Garate Umerez, 16 urte. 1938ko uztailaren 9an atxilotu zuten Gobernu Militarren aginduz eta 1938ko urtarrilaren 19an askatu zuten.

Felipe Barrutiabengoa Gaztañaga. 1940an sartu zuten Ondarretako espetxean, eta han eduki zuten preso 1941eko martxoaren 14ra arte.

José Díaz Fumero, 1940/06/08-1940/12/26

Avelino Abarrategui Abarrategui, 1940/05/07-1940/07/08

Valentín Echenausia Salaverri, 1940/05/08-1940/02/02

León Abarrategui Eguidazu, 1939/04/03-1940/02/09

Pío Altuna Sagasta, 1937/10/03-1940/05/19

Anastasio García Llanos, 34 urte. Morales de Toro (Zamora). Abuztuaren 26an harrapatu zuten, itsaso erdian belaontzi batean zihoala. Milizianoa eta automobil parkeko tenientea. Ondarretako kartzelan eduki zuten preso 1939ko maiatzaren 2tik 1940ko ekainaren 23ra arte.

José Fernández Barbero. Juventudes Socialistas Unificadaseko kidea. Miliziano armatua. Pertsona arriskutsua. 66. Langile batailoikoa, Castejón (Nafarroa) 1938. Ondarretako kartzelan eduki zuten preso 1938ko azaroaren 1etik 1940ko abenduaren 25era arte.

José Barrena Amilibia, 1939/10/02-1940/01/22

Vicente Arabaolaza Arriola, 1940/06/08-1940/07/05

Lucio Aranzabal Cacededo, 1940/06/08-1940/09/22

José Ramón Azcárate Mendieta, UGTko sozialista eta milizianoa 1938/11/01-1940/25/12. Aurretik Escolapios espetxea Bilbon

Segundo Azcoaga Leibar, 1938/10/01-1940/02/23

Pedro Rodríguez Ortega, 1939/04/02-1940/02/29

Francisco Rodríguez Rodríguez, 1940/05/03-1944/11/31

Agapito Madinazcoitia Unzueta, 1939/04/01-1940/02/23

Eugenio Jáuregui Legaristi, 1937/08/06-1940/02/10

Severiano San Vicente Santamaría, 1938/11/04-1940/09/30

Pedro Zubia Begoña, 1941/07/08-1941/12/23

Alberto Tausque Murgoitia, 1940/06/02-1941/05/26

Julio Vaquero Lentijo, 1937/12/05-1941/02/03

Javier Celayaundi Toquieder, 1940/05/01-1941/02/20

Esteban Abarrategui Orue, 1938/06/04-1955/08/01

Germán Sagasta Azcoaga, 1938/01/02-1940/08/13

Feliciano Salazar González 1938/11/10-1945/12/16

Adrián Pinto Lorenzo, 1939/04/01-1941/08/20, Morales de Torokoa
Jesús Oyanguren Arana, 1940/03/11-1941/10/28
Jesús Ceciaga Aguiriano, 1941/02/07-1942/03/11
Vicente Cubillo Grimás, 1939/05/06-1949/06/23
Agustín Solaberri Echano, 1941/02/05-1942/03/29 ⁵⁶⁸
Jose Garate Umerez
Ignacio Letona Azurmendi
Francisco Gorosabel Gorosabel. Urte betez egon zen preso.
Jose Zubizarreta Idigoras
Francisco Azcoaga Leibar
Benantzio Barrutia Zuazubiskar
Daniel Berecibar Berecibar
José Manuel Eguidazu
Agapito Ozaeta Larrañaga
Santiago Herrasti Goicoechea
José Uribechevarria
Leandro Abarrategui Zubizarreta
Pedro Oquina Guridi
Francisco Oquina Guridi
Justo Garay Idigoras.

Tolosako kartzelan: 33

Jose Gorosabel Gorosabel. Bi urtez Tolosako kartzelan preso eduki ondoren askatu zuten, eta 1944ko apirilaren 22an absolutu egin zuten.
Jose Arregi Garai, 1936/09/11-1936/10/06
Andres Agirre Loidi, 1938/08/09-1938/12/27
Domingo Arenaza Uribecheverría, 1938/01/09-1938/08/27
Pablo Echeverría Errasti, 1938/01/08-1938/08/15
Isidoro Eguren Muguruza, 1938/01/08-1938/08/15
Gualberto Ergüin Barquin 1938/01/08-1938/08/15
José Fernández González, 1938/01/08-1938/08/15, Cuevas del Vallekoa
Ambrosio Gómez Carranza, 1938/01/09-1938/08/27, Mucienteskoa
José Inda Errasti, 1938/01/09-1938/08/27
Eufemio Jiménez del Campo, 1938/01/09-1938/08/27
Julián Lafuente Gil, 1938/01/09-1938/08/27

Pantaleón Leturia Gallastegui, 1936/10/10-1936/11/17
Juan Mondragón Uribarren, 1938/01/08-1938/08/19 ⁵⁶⁹
Máximo Orobengoa Gómez, 1938/01/09-1938/08/2
Jesús Ortuoste Altuna, 1938/01/08-1938/08/25
Domingo Santos Zarraoa, 1938/01/09-1938/08/27
Hilario Uranga Balanzategui, 1938/01/09-1938/08/27
Faustino Urcelay Arana, 1938/01/09-1938/08/27
Esteban Arregui Garay, 1938/12/05-1939/04/20
Miguel Barrenechea Arando, 1938/01/10-1938/08/09
José Errarte Iturbe, 1938/01/10-1938/08/09
Gregorio Ruiz de Alegría Corcostegui, 1938/01/10-1938/08/09
José Soto Rodríguez, 1938/01/10-1938/08/09
José Zubizarreta Unsalu, 1938/01/10-1938/08/09
Juan José Echevarría Errasti, 1938/01/11-1938/08/06
Félix Fernández Marín, 1938/01/10-1938/08/09
Felix González Rubio, 1938/01/12-1939/08/13, Morales de Torokoa
Cornelio Lasaguren Eguidazu, 1938/01/04-1938/08/03
Luciano Otaduy Barrutia, 1938/01/12-1939/08/01
Alfredo Pedrejón Mate, 1938/01/05-1938/08/07
Ciriaco Ibarra Treviño, 1938/01/05-1938/08/07
Manuel Liedana Salvo, 1938/01/05-1938/08/09 ⁵⁷⁰

Zapatari espetxean 11:

Domingo Querejeta Urrutia
Gonzalo Moreno Acebes
Agustin Solaberri Echano
Jose Pérez Exposito
Leonardo Carmona Conejo
Pedro Martinez Martinez⁵⁷¹
Fermin Abarrategui Abarrategui
Francisco Gorosabel Gorosabel
Benigno Zuazubiscar Heriz
Marcelino Jauregui Echave
Lorenzo Unamuno Sologaistoa (Archivo Militar del Ferrol , sumarísimo 1102/38)

Beste espetxe batzuetan: 78

Saturnino Abarrategui Arcauz, Valdenocedan, Burgozen, 1940arte.



José Joaquín Mújica Almandoz

Heriberto Mendizabal Unamuno. Valdenocedan, Burgosen.⁵⁷²

Vicente Erostarbe Elisburu, 1941/05/06-1941/30/01, Azpeitian preso.⁵⁷³

Bernardo Garcia Garcia, 1942ko ekainaren 18an Gasteizko espetxean zegoen.⁵⁷⁴

Iñaki Gorospe Zabala, Lenago il bataloikoa, komisario politikoa, Burgosko Penalean preso.

Gregorio Madinabeitia Arana, Eusko Alderdi Jeltzalekoa, Santoñan preso, gaixorik irten zen eta berehala hil zen.

José Joaquín Mugica Almandoz, Amayurreko gudaria, espetxean hil zen.

Luis Mugica Almandoz, Huelvako espetxean egon zen. (Vascos en la Prisión Provincial de Huelva)

Roman Berecibar Aramburuzabala, Larrinagako espetxean.

Mercedes Urcelay Zarraoa

Manuel Gallastegi Elejalde, Santoñan preso eta gero langileen 76. batailoian, Toledon eta Guadajajaran errepideak eraikitzen aritu zen. (Ane Miren Gallastegik esandakoa)

Guillermo Bolinaga Marcoida, Santoñako espetxean.⁵⁷⁵

Jose Miguel Garmendia Olaziregui

Tomas Leturia Pagaligorria

Francisco Azcarraga Berecibar, bi urte preso Gasteizen.⁵⁷⁶

Gregorio Unamuno Azcoaga

Damian Uribesalgo Balanzategui

Zozimo Olmedo Paunero, Bilboko Tabacalera

Jose Acha Iturbe

Simon Arana Eibarguren

Donato Arregui Zubillaga

Tiburcio Astondoa Mendizabal

Jose Gastañarez Unbicando

Jose Maria Ceciaga Ezcurra

German Gallastegui Elcorobarrutia

Vicente Gallastegui Elcorobarrutia

Eugenio Garcia Barberan

Francisco Gorosabel Arregui

Miguel Barrenechea Arando

Gregorio Ruiz de Alegria Corcostegui

Jose Zubizarreta Unzalu

Iñaki Arrieta Arregi

Manuel Aguirre Barrutia

Felix Fernandez Marin

Mercedes Heriz Abarrategui

Teresa Herrarte Sologaistoa Gasteizen

Joaquin Domingo Herrarte

Domingo Herrera Izcoa

Juana Isasi Erguin

Pedro Mancebo Vazquez

Gregorio Mancebo Vazquez

Vicente Martinez de Ubago Oquendo

Luciano Plazaola Urizar

Jesus Saez Mendia

Antonio Vitoria Errasti

Miguel Zuazua Aspe

Guillermo Lasagabaster Gorosabel, Corbaneko kontzentrazio esparruan

Fermin Ibañez Azcoaga, Corbaneko kontzentrazio esparruan

Felisa Murguzur Yarza

Josepa Yarza Abalia

Dolores Mondragón

María Mondragón
Patricio Osinaga Urrutia. Gasteizen
Manuel Abasolo Mondragón. Gasteizen
Ricardo Sagasta Altuna. Gasteizen
Roman Orobengoa Ceciaga. Gasteizen
Marcelo Barrutia Guridi. Gasteizen
Domingo Ceciaga Olalde. Gasteizen
Julia Abarrategui Abarrategui, Gasteizen
Pedro Abarrategui Eguidazu, Gasteizen
Fermin Arabaolaza Arriola Gasteizen
Carlos Andrés Carmona
Lucio Marcaide Larrañaga, Gasteizen
Mauricia Álvarez
Dionisia Vega
Genoveva Garay Albistegui
Toribia Garay Albistegui
Benita Fernández Abarrategui,
Eulalia Altuna,
Paulina Bengoa,
Antonia Balanzategui,
Juana Arana,
Juanita Salinas,
Catalina Sologaistoa,
Juana Aguirre
Iñaki Arrieta Arregi
Venancio Elorza Lupierro

Langile-batailoetan : 116

Errepresio frankistak gatibu lanak egitera behartuta zeuden langileen batailoiak sortu zituen gerra hasieran eta baita hura amaitu ondoren ere. "Astoak bezala lan egitera behartu gintuzten".⁵⁷⁷

Arrasatekoak leku askotan egon ziren: "Batallón de Trabajadores", "Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores", "Batallón de Trabajadores Penados", "Batallón de Trabajadores Comando Genio C.T.V.", "Batallón de Trabajadores Milicia de Falange Española y de las JONS", "Batallón de Trabajadores Cuerpo de Ejército de Galicia", "Campos de Concentración", "Compañías de Castigo de Batallón Disciplinario"...

Miseria, gosea, hotza eta osasun eza konstante bat bihurtzen da diziplina batailoietatik bizirik atera zirenen kontakizunetan. Gerra presoiei edota gerra ondoren soldadutza urteak armada frankistarekin errepikatzen behartuak izan ziren gazteei ezartzen zieten zigor politikoa izan zen.⁵⁷⁸

Erailak langile batailoietan:

Guk dakigula, arrasatear hiru hil ziren egoera hartan preso zeudela: Arsenio Rodríguez Zamora eta Máximo Bolinaga Ormaechea, biak Kanarrietan eta Adrián Pinto Lentijo. Miranda de Ebroko (Burgos) kontzentrazio esparruan.

Langileen batailoietako presoak

Jarraian agertzen zaigun zerrenda, batez ere, Guadalajarako Artxibategi Militarretik ateratako informazioarekin.⁵⁷⁹ Baita ere jasotako testigantzekin osatuta dago, nahiz eta jakitun garen ez dela erabat osaturik egongo.

Jose Acha Zubia, Cadizko langile batailoi batean egon zen.⁵⁸⁰

Jose Aguirrebengoa Gabilondo, egon zen "Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores" en 61 eta 75 zk. etan, Azuaran jarraitzen zuen 1940eko azaroaren 9an.⁵⁸¹

José Julian Agirrebengoa Gabilondo, "Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores" 38 zk. an Errenderin 1941ko irailaren 3an, irten zen libre 1943ko ekainaren 30ean. Irten eta gero 1945ko apirilaren 2an hil zen.⁵⁸²

Cipriano Aguilar Goicoechea, langile batailoi 136 zk. Figuerasen.

Jose Amozarrain Oyanguren, Santoñan atxilotua, 1937ko urriaren 6an Miranda de Ebro, handik Kontzentrazio eremura eta langile batailoira 63 zk.⁵⁸³

Francisco Amozarrain Urquiola, Santanderren atxilotua, Miranda de Ebro 1937ko urriaren 6an, handik langile batailoi 63 zk.⁵⁸⁴

Antonio Ansoategui Iregui, Miranda de Ebro, eta handik "Regimiento 26", Zamorara lan behartuak egitera.⁵⁸⁵

Fermin Arabaolaza Arriola, Cadizen langile batailoi batean egon zen.⁵⁸⁶

Jose Aperribay Oquina, UGT, Dragones batailoikoa, preso Gijonen, 1937ko abenduaren 18an sartu zuten “Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores 13 zk.”, gero 1939ko martxoan eraman zuten “Meategietako 201 zk.ko langileen batailoira”.

Jose Aranburu Garro, langile batailoia 2 zk. Errenderian.

Gregorio Arregui Amilleta, gudaria, zauritua 1937ko urriaren 9an ebakutua Frantziara. 1939 irailaren 23an “San Pedro Cardaña kontzentrazio eremura” handik “Rotako presoeren eremura” eta gero langile batailoia 9 zk.⁵⁸⁷

Jesus Arregui Garay, PNV eta Solidaridad de Trabajadores Vascos, Amayur batailoikoko intendentea, Santoñan atxilotua, Miranda de Ebron 1937ko urriaren 1ean gero langile batailoia 63 zk, libre irten zuen 1939 azaroaren 10ean.⁵⁸⁸

Angel Arregui Loidi, Amayur batailoikoa, atxilotua Laredon 1937ko abuztuaren 25ean, azaroaren 6an Miranda de Ebron, handik langile batailoia 37 zk.⁵⁸⁹

Jose Maria Arriaran Ortueta, Burgosko kartzelatik irten eta gero, Miranda de Ebron 1941eko abuztuaren 21ean eta handik langile batailoia 91 zk. Arguinéguil, Las Palmas Kanaria Handian”.⁵⁹⁰

Donato Arregui Zubillaga, PNV eta STV, langile batailoia 38 zk, 1940ko maiatzaren 28an.⁵⁹¹

Juan Azcargorta Zabaleta Miranda de Ebron zegoen 1942ko ekainaren 13an.

Manuel Azconaga Zubieta, “Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores 30 zk”, Sondikan⁵⁹²

Benito Balanzategui Arizmendi, UGTkoa, “Igualadako kontzentrazio eremura”, eta handik langile batailoia 12 zk.⁵⁹³

Fermin Balanzategui Zubizarreta, “Depósito de Miranda de Ebro”, 1939ko urriaren 22an eraman zuten “Batallón de Trabajadores 105, San Pedro de Cardaña”, 1940ko urriaren 29an, bertatik ihesi joan zen.⁵⁹⁴

Luis Balanzategui Zubizarreta, “San Juan de Mozarrifarko kontzentrazio eremura”, Zaragozan eta handik eramaten dute 1937ko abenduaren 13an, langile batailoia Comando Genio CTV.⁵⁹⁵

Jesus Balanzategui Zubizarreta, Irun 1940ko abuztuaren 24an, “Depósito de Miranda de Ebro” eta gero langile batailoia 169 zk, Madrilera. Ventas, abuztuaren 31an.⁵⁹⁶

Marcelo Barrutia Guridi, Miranda de Ebroko kontzentrazio eremura”.

Felix Barrutia Guridi, Trubia, Asturiasen.⁵⁹⁷

Modesto Barrutiabengoa Gallastegui, 1941eko apirilaren 17an, “Depósito de Concentración de Reus”, apirilaren 22an “Depósito de Concentración Miguel de Unamuno” Madrilera.⁵⁹⁸

Vicente Barrutia Zuazubiscar, EAJekoa, atxilotua Santoñan 1937ko abuztuaren 26an, Amaiur batailoikoa. San Juan de Mozarrifarko langile batailoia 25 zk.⁵⁹⁹

Atanasio Casado Fernández, Gijonen atxilotua 1937ko urriaren 21ean, Miranda de Ebro eta Palma de Mallorcako kontzentrazio esparruetan.

Miguel Etxagibel Urizar Miranda de Ebroa 1937ko abuztuaren 17an, eta handik, abuztuaren 21ean “Regimiento 26” Zamorara lan behartuak egitera.⁶⁰⁰

Vicente Echevarria Larrañaga, Trubia, Asturiasen.⁶⁰¹

Jose Maria Echevarria Larrañaga, 1938ko abenduaren 5ean langile batailoia 21 zk. “adoquinador” bezela Cumial, Orense zegoen eta handik langile batailoia 90 zk. 1940ko maiatzean 24arte. Urtebete geroago 1941ko abuztuaren 11an Lesakan zegoen.⁶⁰²

Justo Echevarria Ugarte, langile batailoia 28 zk, Labacolla, Santiago de Compostela”, han jarraitzen zuen 1941ko urriaren 7an.⁶⁰³

Agustin Echevarria Uribechevarria, langile batailoia 25 zk.⁶⁰⁴

Celestino Eriz Arizmendi, 1937ko urriaren 21ean atxilotua Navas, Asturiasen, Dragones, 22 zenbakia batailoian. Miranda de Ebroko kontzentrazioa esparruan eta handik langile batailoia 68 zk.⁶⁰⁵

Jesus Eriz Arizmendi, 1937an langile batailoia 1 zk, ihesi joan zen, 1940ko maiatzaren 11an Torelloko langile batailoia 69 zk. ra eraman zuten.⁶⁰⁶

Jesus Errasti Uribe, atxilotua 1937ko abuztuaren 16an, gero langile batailoia 136 zk, libre irten zen 1939ko ekainaren 22an.⁶⁰⁷

Fermin Garai Etxabe, 1937ko abuztuan atxilotua Limpas, Santander, 1937ko azaroaren 30ean Miranda de Ebroko depositoan, 1940ko apirilaren 5ean Barbastron, eta Zaragozatik etxera etorri zen 1941ko abenduan.⁶⁰⁸

Pedro Garai Igartua, Valentziako kontzentrazio esparrutik ihesi joan zen.

Lucio Goronaeta Mendizabal, kartzelatik irten eta gero, Miranda de Ebro, Miguel de Unamuno Madrilen eta batallón disciplinario de soldados trabajadores 91zk.Las Palmas de Gran Canaria, libre irten zen 1942eko azaroaren 29an.⁶⁰⁹

Segismundo Gonzalez Gonzalez, Aragoiko langile batailoiei batean egon zen.⁶¹⁰

Agustin Heriz Lamarain, Trubian, Asturiasen.⁶¹¹

Benito Herrarte Sologaistoa, Depósito de Miranda de Ebrotik eraman zuten “Batallón de Trabajadores nº 68”, Puigcerdatik ihesi joan zen 1940ko maiatzaren 7an, 1941ko maiatzaren 15ean atxilotu zuten “mugatik klandestino igarotzeagatik”, ekainaren 14an “Figueresko presondegian” eta gero “Compañía de Castigo de Batallón Disciplinario nº 75”, 1942ko urtarrilaren 7an.⁶¹²

Esteban Ibarra Iriondo, 1938ko martxoaren 7an sartu zuten langile batailoia 69 zk.⁶¹³

Sabin Iturriaga Murua, Miranda de Ebron eta Castellonenen egon zen.⁶¹⁴

Imanol Iturriaga Murua, Teruelen egon zen.⁶¹⁵

Felix Iraola Otaduy, Cadizko langile batailoiei batean egon zen.⁶¹⁶

Guillermo Juldain Sainz, espetxetik irten eta gero, 1942ko apirilaren 18an “Depósito de Concentración de Miranda de Ebro”, eta 1942ko urriaren 16an Madrilera Depósito Unamunora, eta gero “Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores nº 93”, libre irten zen hiltzeko, 1943ko ekainaren 18an anemiaz jota hil zen.⁶¹⁷

Luis Mendizabal Altube, “Bon. Disciplinario de Soldados Trabajadores nº1”, 1941ko urtarrilaren 1ean eta gero “Bon Disciplinario nº 46”. La Escalan, Gironan.⁶¹⁸

Jose Menchaca Mancebo, Miranda de Ebrotik Castejonera, gero Alcañizen errepideak egiten, Don Benitotik, Extremaduran, libre irten zen Jose.⁶¹⁹

Angel Mendizabal Unamuno, 1939ko azaroaren 2an, “Prisioneros de Miranda de Ebroko presoek kontzentrazio esparrua”, hurrengo egunean “Batallón de Trabajadores nº 2”, libre irten zen 1940 maiatzaren 28an.⁶²⁰

Jesus Mendizabal Urtubai, Hueskako espetxetik Tonerora, eta gero Miranda de Ebroko kontzentrazioa esparrura.⁶²¹

Felipe Murgoitio Madariaga, UGTko laugarren bailoikoa, Aller ontzian preso hartu zuten 1936ko abuztuaren 26an. Handik Orduñara eta Miranda de Ebrora, 1937ko abenduaren 3an “Batallón de Trabajadores Milicia de Falange Española Tradicionalista y de las JONS”, parapetoak egiten La Muelan, Teruel, errepideak Riban, Guadalajara, eta errepideak eta mendiko bidea Trempen, Lleidan

Lucio Murgoitio Madariaga, Gogorki batailoian, Miranda de Ebro, eta 1937ko azaroaren 6an langile batailoia 37 zk.

Jacinto Olazagoitia Ceciaga, Dragones 22 zenbakia. Atxilotua 1937ko abuztuaren 26an, langile batailoia “Grupo de Zapadores de FET”, libre 1940ko maiatzaren 29an.⁶²²

Elias Olmedo Paunero, langile batailoian egon zen.⁶²³

Francisco Orobengoa Gonzalez, atxilotua Santanderren 1937ko abuztuaren 26an, “Cardeñako kontzentrazio esparrua” eta gero 1937ko urriaren 14an, “Batallón de Trabajadores nº 50”.⁶²⁴

Benjamín Pereira Juldain, “Ebroko kontzentrazio esparrua”. Handik langile batailoia “Comando Genio CTV”.

Constantino del Pozo Riesco, Arsenal de La Carraca. Handik Algecirasera, 1940 apirilaren 28an lortu zuen ihesi egitea.⁶²⁵

Adrian Pinto Lorenzo, Dragones batailoikoa, atxilotua La Felgueran, Asturias, 1937ko urriaren 21ean, “Corbango kontzentrazio esparruan” Santanderren, gero “San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparruan”, 1938ko abuztuaren 28an eraman zuten Fuente Saladara, irailaren 4an Sector Montan, Castellonen, urriaren 20an Penascabiatik ihesi joan zen.⁶²⁶ Madril erortzean, berriro hartu zuten preso. Iheslaria izanagatik, erregimen disciplinario oso gogorra ezarri zioten Burgoseko Miranda de Ebro herriko kontzentrazio-esparruan.

Nekea eta goseak jota hil zen 1941eko otsailaren 2an. Hurrengo egunean lurperatu zuten Miranda de Ebroko hilerriko hobi komun batean. erortzean berriro erori zen preso. (Jose Mari del Palacio)

Carlos Regodeseves de Lucas, “Medina de Riosecoko presoen kontzentrazio eremuan” Valladoliden, 1937ko azaroaren 18an “Batallón de Trabajadores nº 2”, 1938ko abuztuaren 2an Legiora joan zen.⁶²⁷

Tomas Ruiz de Alegria Balanzategui, “Deustoko kontzentrazio esparruan” eta Trubian Asturiasen eta San Pedro de Cardeñan.⁶²⁸

Candido Ruiz de la Cuesta Gomez, langile batailoia 123 zk Errenderian, 1939ko abenduaren 17an.⁶²⁹

Alejandro Sagasta Azcoaga, langile batailoia “Cuerpo de Ejército de Galicia”.⁶³⁰

Domingo Uribechevarria Oquina, “Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores nº 6”, 1941ko irailaren 1ean.⁶³¹

Joseba Uribechevarria, Laredotik San Juan de Mozarritarera, langile batailoia 25 zkra gero errepideak egiten eta bukatzeko Linea de la Concepcionen parapetoak egiten.⁶³²

Angel Uribechevarria Osinaga, 1941ko apirilaren 12an batallón disciplinario 15 zk, Palenciara.⁶³³

Santos Urcelai Zarraoa, 1941ko irailaren 10ean “Deposito de Miranda de Ebro”, irailaren 22an “Batallón Disciplinario 12 zk.”⁶³⁴

Santiago del Valle Arsenal de la Carraca, Cadizen, eta gero Algecirasera.⁶³⁵

Gabino Vitoria Albistegui, “Bon de Recuperación nº 12”.

Emilio Vitoria Vitoria, Dragones batailoikoa, 22 zenbakia, “Depósito de Miranda de Ebro”, handik 1941ko irailaren 22an “Batallón Disciplinario nº 12”.⁶³⁶

Felipe Vitoria Zabarte, “Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores nº 30”, Sondikan.⁶³⁷

Saturnino Vitoria Zabarte, Irunen aurkeztu zen 1939ko urriaren 28an, handik “Depósito de Miranda de Ebro”ra, eta 1939ko abenduaren 12an Batallón de Trabajadores nº1, gero “Batallón de Soldados Trabajadores nº 13” eta “Batallón Disciplinario nº

4”, bukatzeko 1942ko irailaren 18an, soldadutza egiten “Regimiento de Infanteria Mixto nº 86”.⁶³⁸

Pablo Uribarren Altuna, Madrilen 1941ko abuztuaren 25ean.

Antonio Urrejola Errekalde, EAJkoa, Santoñan atxilotu zuten 1937ko abuztuaren 26an, eta 1938eko urtarrilaren 3an batallón disciplinario de soldados trabajadores 16 zk. Santa Espina Valladoliden, guztira hiru urte.⁶³⁹

Gregorio Yarza Abalia, 1941eko abuztuaren 22an Miranda de Ebroko depositoan eta handik “Bon de Trabajadores Penados nº 91” irten zen libre 1942ko abenduaren 12an.⁶⁴⁰

Gabino Yarza Abalia, kartzelatik irten eta gero, Zorrotzako langile batailo batean egon zen.⁶⁴¹

Tomas Zabarte Iturriaga, bi urte espetxean egonda gero langileen batailo batean sartu zen Deustuko biltegiko konpainiaren esanetara jarri zen.

Antonio Zubizarreta Urcelay Trubianen, Asturias.⁶⁴²

Alejandro Zubia Zumelaga, kontzentrazio esparruetan Celorio eta Corbanen egon zen 1938eko urtarrilaren 10etik abuztuaren 20ra arte.⁶⁴³

Pablo Zumelaga Ozaeta, Astorgako kartzelatik irten eta gero Miranda de Ebroko depositora eramán zuten 1941eko abuztuaren 25ean, eta handik “Bon de Trabajadores Penados nº 91”, irten zen libre 1943ko ekainean Tetuandik.⁶⁴⁴

1938ko urriaren 28an, Domingo Querejeta Urrutia, Gonzalo Moreno Acebes eta Agustin Solaberri Echano, Zapatari kartzelatik San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparrura trasladatu zituzten.

Domingo Uribetxebarria Aguirre. Laredon preso. 17 zk. langile batailoian destinatua. 1940ko ekainean askatu zuten.⁶⁴⁵

Santos Uriarte Isasa, 1938ko azaroaren 17an, B taldean sailkatu zuten.

Jesus Leibar Guridi, B taldean sailkatu zuten. 1939ko otsailaren 11an, urte bat baino gehiago preso egon ondoren, langile batailo batera destinatua zuten.

Eduardo Celemin Tabares, langile batailo batean egon zen.

Valentin Bidaburu Gorosarri, Medina Seco, Valladoliden.

Prudencio Bengoa Arregui, 4. Langileen Batailoitik Deustuko basera etorria.

Santiago Orobengoa Gómez Langileen Batailoian.

Miguel Menchaca Mancebo Miranda de Ebroko kontzentrazio-eremuan sartu zuten 1941/09/04an, hilabete geroago Madrilgo Miguel de Unamunora eraman zuten eta handik Bon Disciplinario 48. Zenbakira, 1942ko abenduaren 14an kaleratu zen.

Ignacio Letona Azurmendi, langile batailoiei batean egon zen.

Sabin Arrieta Arregi, langile batailoiei batean egon zen Asturiasen eta Albarracinen.⁶⁴⁶

20 arrasatear egon ziren Burgosko San Pedro de Cardaña kontzentrazio esparruan.

Gregorio Azcoaga Azurmendi 20 urte, Roberto Alvarez Eizaguirre 29, Gregorio Azconaga Arana 31, Luis Arana Maiztegui 19, Francisco Ayesa Azcarate, Eduardo Olazagotia Cegiaga 41, Juan Beitia Guridi 30, Juan Mancebo Vazquez 30, Francisco Mondragon Altuna 22, Lucio Berecibar Galdos 22, Florencio Zabarte Goronaeta 32, Vicente Uribe Arregui, Jose Eriz Ezcurra 41, Patricio Heriz Aguirre 23, Francisco Unamuno Ladrera 31, Tomas Ruiz de Alegría Balanzategui 28, Lucio Aranzabal Cacicedo 26, Eugenio Arocena Belamendia 25, Jose Vallejo Azcoaga 26, Faustino Basauri Azcarazo, Simon Axpe Zubia. (Avilako Artxibo Militarra)

Errefuxiatuen euskal esparrua Gürsen:

Frantziara milaka euskal errefuxiatu iritsi ziren, eta Argeles-Sur-Mer, Saint Cyprien, Barcares eta Septfondseko eremuetan sartu zituzten. Eusko Jaurlaritzak batzorde bat sortu zuen euskal errefuxiatuen alde; asmoen artean zegoen euskaldun guztiak biltzea eremu berean.

Argeles-Sur-Mereko hondartzetan gutxienez 22 arrasatear egon ziren:

Marcelo Vitoria Zabarte, Victor Berecibar Ormazabal, Fermin Ibañez Azcoaga, Salvador Laspiur Urrutia, Tomas Uranga Urrutia, Tomas Abarrategui Altuna, Felix Herrera Aguirrebeitia, Ventura Vega

Alvarez, Alejandro Echevarria Uribechevarria, Jose Ortuoste Altuna, Jesus Balanzategui Zubizarreta, Atilano Ramos Gamazo, Jenaro Ibarra Treviño, Andres Garate Umerez, Celestino Uriarte Bedia, Leoncio Ortiz de Guzman, Jesus Herrera Garcia, Daniel Ugarte Arcauz, Angel Acha Iturbe, Victor Ugalde Lasagabaster, Felix Zuazubiscar Lasaga, Joaquin Pereira Gonzalez.⁶⁴⁷ Horietatik 18 gero Gursera eraman zituzten.

Eremu horietan sartu zituztenetik, Eusko Jaurlaritzak batzorde bat sortu zuen euskal errefuxiatuen alde; asmoen artean zegoen euskaldun guztiak biltzea eremu berean. Eremu hori Gürs-en eraiki zuten, 1939ko martxoaren 15ean hasi zen eraikitzen.⁶⁴⁸ Errefuxiatuak apirilean bertan hasi ziren heltzen. Hura izan zen arrasatear askoren babeslekua. Hasiera batean, errefuxiatu gehienek pozik hartu zuten Gursera aldatuko zituztelako berria, baina laster ohartu ziren toki hura ez zela amestu zutena.

1939ko maiatzaren bukaeran, Gürs-eko esparruan preso zeuden 19.000 gizon-emakume eta haurrak; horietatik 4.700 euskaldunak ziren A, B, C eta D lekuak hartzen zituen euskal esparruan. Era berean, leku bakoitzak zeukan 1.200 preso, eta han zeukaten lantalde nagusia, osasun taldea, intendentzia eta sukaldea.⁶⁴⁹

Gürs-eko euskal esparrutxoetako buruzagitza nagusia hauek osatzen zuten:

Saint Cypriengo kontzentrazio esparruan 16 arrasatear egon ziren atxilotuta. Hauetariko 12 Gursera eraman zituzten: Agustín Abarrategui Azcauz, José Luis Ezcurra Areitio, Martin Errarte Sologaistoa, Rafael García Fernández, Luis Mendizabal Altube, Amadeo Labajos Salvadores, Lorenzo Aguirrecomezcorta Echevarria, Andrés Barrotia Zuazubiscar, Ricardo Cegiaga Lasagabaster, Pedro Gallastegui Azpitarte, Félix Liquiniano Heriz, Francisco Zabaleta Axpe; Faustino Andrés González, Ángel Ruiz Legarreta, José Zuazua Mondragón eta Pedro Zubia Eibar.

Septfondseko kontzentrazio esparruan lau arrasatear egon ziren: Jesús Trincado Baños eta José María Olazagoitia García (biak Gurs era trasladatuak), Pablo Ibarra Iriondo eta José Uriarte Ceberio.

Bram (Aude), kontzentrazio esparruan arrasatear bat egon zen: Luis Tarrasa Elorza.

Argelian, Moraud (Boghari) kontzentrazio esparruan: Jacinto Arabaolaza Arriola.

Gurs

Errefuxiatuen esparru hau Gave d'Oloron ibaiaren aranean eraiki zuten, Gurs herritik hurbil. Gurs Pirinio Atlantikoko departamenduan dago kostatik 84 kilometrorra eta Espainiako mugatik 34ra. Nekazaritzarako besterik ez zuen balio lur sail hark. Luzeran bide batek erditik mozten zituen bi kilometro zituen eta 400 metroko zabalera.

Eremuko arduraduna: Celestino Uriarte Bedia, arrasatearra; laguntzailea Rafael Ortega Sufrategi.

Hantxe zeuzkaten sartuta, besteak beste, mondragoetar hauek:

Gürs-eko kontzentrazio esparruan preso: 55

Abarrategui Arkauz, Agustín

Agirrebengoa Gabilondo, José

Aguirrebeitia Valvueda, Leonardo José

Agirregomezkorta Etxebarria, Lorenzo

Andrés González, Faustino

Andoaga López, Felipe

Arabaolaza Arriola, Jacinto

Aranzabal Cacicedo, Ignacio

Arenaza Jainaga, Ramón

Atxa Iturbe, Angel

Balanzategui Zubizarreta, Jesús

Barrutia Zuazubizkar, Andrés

Berezibar Ormazabal, Víctor

Ceciaga Lasagabaster, Ricardo

Errarte Solagaistua, Martín

Etxeberria Uribetxerberria, Alejandro

Ezkurra Areitio, José Luis

Gallastegui Azpitarte, Pedro

Garate Umerez, Andrés

García Fernández, Rafael

Gimeno París, José

Gordobil Gómez, Jesús

Herrera Aguirrebeña, Félix

Herrera González, Jesús

Ibañez Azkoaga, Fermín

Ibarra Treviño, Jenaro

Inda Errasti, Jesús

Izarra Ijalba, Rogelio

Labajos Salvadores, Amadeo

Laspiur Urrutia, Salvador

Letamendi Ojeda, Laureano

Liquiniano Heriz, Félix

Mendizabal Altube, Luis

Olazagotia García, José María

Ortíz de Guzman Gallastegui, Leoncio

Ortuoste Altuna, José

Pereira Pildain, Joaquín

Tarragona Pola, Pablo

Tarrasa Elorza, Luis

Trincado Baños, Jesús

Ugarte Arkauz, Daniel

Uranga Mendizabal, Vicente

Uranga Urrutia, Tomás

Uriarte Bedia, Celestino

Uriarte Bedia, Gregorio

Uribesalgo Icaran, Fernando

Vega Alvarez, Ventura

Vitoria Goitia, Marcos

Vitoria Zabarte, Marcelo

Vitoria Zabarte, Saturnino

Zabaleta Axpe, Francisco

Zuazua Mondragón, José

Zubia Eibar, Pedro

Zugazubiskar Arrizabalaga, Ignacio



Arrasatearrak Gürs-en. Roberto Uriartek utzitakoa.



Celestino Uriarte eta anaia Gregorio. Roberto Uriartek utzitakoa.



20. 1940 - 1956: Borrokan Frankoren kontra

20.1. 1940: Ez ziren egon soilik exekuzio pelotoiak. Erresistenzia diktaduraren aurka. Atzerria.

Diktadura Frankistak ez zion utzi 2. Errepublikari harririk harriaren gainetik; 1931ko konstituzioa kendu zuen, Kataluniako eta Euskadiko autonomia estatutuak baliogabetu zituen, alderdi politiko eta langileen sindikatu guztiak deuseztatu zituen eta langileek lortutako lorpen politiko guztiak indargabetu zituen. Indargabetu egin zituzten ezkontza zibilak, derogatu dibortzioaren legea, elizaren zentsurak bizitza intelektuala eta aisialdia kontrolatzen zituen eta erlijio zeremoniak egunero-egunero gertatzen ziren.

Errepublikaren aldeko atxiloketa, epaiketa, emakumei ilea moztea, lanpostuak galtzea, dendak eta negozioak kentzea, isun galantak ordainaraztea edota, kanpotik herrira itzultzean, lanik ez aurkitzea izan ziren, besteak beste, galtzaileen bizimodua markatu zuten ezaugarriak.

Gipuzkoako J.O.N.S.eko (Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista) buruak, gero Lan Ministro izendatuko zutena, hau da, Fermin Sanz-Orrriok, oso gutun esanguratsua bidali zion F.E.T eta J.O.N.S. eko (Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista) herriko buruari, orduko egoeraz:

Camarada:

En el momento de cesar en el cargo de Jefe Provincial del Guipuzcoa para acudir donde dispone el mando,

hago llegar a ti con mi afectuosa despedida de camaradería... es preciso que la Falange local a tu cargo sea ejemplo vivo para los demás españoles.... menester es... que conservéis el fuego de los sentimientos que impulsaron el movimiento de la nación para salvar a España. Tened presente en cada instante y hacerlo así constar en público y con violencia si falta hiciese, que la causa de los males que nos agobian en el interior y exterior de la patria, radica única y exclusivamente en la feroz convulsión provocada por las doctrinas democrático-liberales y marxistas... no consintáis a nuestros enemigos de siempre, los rojos y separatistas, la menor crítica sobre la situación política, social y económica de España... ⁶⁵⁰

Nahiz eta gerra ofizialki bukatu, gatazkak sortutako oinaze eta zailtasunak ez ziren amaitu askorentzat. Gerraondoko gose urte beldurgarriak herritar gehienei eragin bazien ere, batzuei askoz sakonago erasan zien. 1940ko hamarkadan pertsona asko hil zen goseak eragindako gaixotasunez.

Gerraostea ikaragarria izan zen guztientzat, miseria gorrian utzi baitzuen biztanleria. Giza galerak eta galera ekonomikoak zirela eta, biztanleek ezin zituzten eskuratu oinarrizko gauza asko; nahiz eta dirua eduki, ez zen erraza lortzea zenbait janari (ogi, patata, kafe, azukre...). Honako hauek izan ziren garai berriaren ezaugarri nagusietako batzuk: premia biziko ondasunen falta, errazionamendu kartilak, dirurik eza...

Halaxe sortu zen beste mundu bat, mundu paralelo bat; jendea ezkutuko salerosketan aritzen zen janarekin, arroparekin, eta merkatu beltza azaldu

COMISARIA GENERAL DE ABASTECIMIENTOS Y TRANSPORTES

TARJETA DE ABASTECIMIENTO

DATOS DEL TITULAR

Mercedes (Nombre) Bolinaga Garay (Primer apellido) (Segundo apellido)

Sexo: H Nacimiento: día 24 mes sepbre año 1931 Años cum- plidos

Estado civil: S Profesión: escolar

Lugar de nacimiento: Municipio de Mondragon Provincia de Guip.

Nombre del padre: Guillermo lb. de la madre: Esperanza

Para los extranjeros: nacionalidad Ferrerías, 34

Domicilio: calle o plaza de Mondragon a 1 de 1 piso de 15

Serie SS Número 270499

ES COPIA

Firma del interesado (l) (Provincia) (Sello) de 19 El Delegado de Abastecimientos.

Consérvese cuidadosamente este documento y los cupones que figuran por ser todo ello indispensable para obtener y usar colecciones de cupones de racionamiento.

Arrazionamendu txartela.

zen, kontrabandoa eta estraperloa: izen bat baino gehiago, ekintza bera izendatzeko. Mundu horretan babestu ziren beste lan batzuk aurkitu ezin zituztenak. Industriako edo baserriko lanaren osagarri gisa ere hartzen zen.

Errepublikaren aldean edo honen alde borrokatu zuten arrasatearren egoera oso gogorra izan zen gerra ondoren. Gauza materialetan ez zuten, ez lanik, ezta jatekorik ere. Baina horrek baino askoz ere sufrimendu handiagoa eragiten zizkieten egoerak sufritu zituzten, Jaungoikoak aukeratuak zirela uste zutenen burla eta harropuzkeria galantak kasu.

Lantegietan, eskulan espezializatuaren premia handia zegoen. Unión Cerrajerak ere langile espezializatuaren premia handia zuen. Doitzaille, tornulari, urtzaille eta trokelatzaileak ziren fabriketan gehien behar zituztenak eta herrian egon bazeuden. Arrasaten langile espezializatuaren portzentajea batez bestekoaren gainera zegoen, baina asko ez zituzten lanerako deitzen "gorriak" zirelako. Aldiz, Euskal Nazionalista ziren langile espezializatu gehienek ez zuten inolako arazorik izan lanean hasteko. Ulergarria izan zitekeen Unión Cerrajerak altxamendu militarren kontra altxatu ziren buruzagiei lanik eman nahi ez izatea, baina era berean erabat ulergaitza 12 urte zutenetik bertan lanean aritu ziren 60 urteko langileak ez onartzea. (Hauetatiko bat, Florentina Albistegui Leceta izan zen, 60 urterekin kaleratua, 1918an lanean hasitakoa zen) Askok herritik kanpora joan behar izan zuten lana bilatzera. Herrian geratu zirenek

eraikuntzan hasi behar izan zuten lanean, beste aukerarik ez zutelako. Gerra amaiztean, Elma, Unión Cerrajera eta Asam enpresak zementu armatuzko pabiloi berriak eraikitzen hasi ziren.

Donostiako Olasagasti y Cia empresa izan zen guztietatik indartsuena. Lantegiko agintariak zapaltzaile amorratuak ziren. Langileek ez zuten oinarritzko giza eskubiderik. Euren inpunitateaz eta langileengan sorrarazten zuten belduraz baliatzen ziren giza eskubideak urratzeko. Irainak, oso lan gogorak eta lan baldintza negargarrien ondorioz, edozein gaitz komun harrapatuz gero, gripea kasu, langileak hil egiten ziren, oso ahul baitzeuden gaitxotasun arrunt bati aurre egiteko. Elikadura oso eskasa zen (estraperloaren bidez jakiak erosi zezaketenak ziren jateko zerbait zuten

bakarrak) eta ez zuten lanerako behar zuten arropa edo zapata egokirik. Negua oso latza zen eta hezetasun handia zegoen. Gehienak espartinekin joaten ziren lanera, nahiz eta izotza edo elurra izan.

Unión Cerrajeratik hainbeste langile kaleratzearen errudun zuzenak izan ziren: Ricardo Oreja, Camilo Basterrechea, Ignacio Chacon, Jose de Anibarro eta abar.⁶⁵¹

Gainera, diktadura garaiko erregimen estuak ez zuen uzten inolako zirrikiturik norberaren iritziak libre azaltzeko, eta are gutxiago gerrak galtzaileei ekarri zizkien kalteak arintzeko. Ezin zen gertatukoaz garbi hitz egin, etxe barruko bakardadean izan ezik; eta sarritan, ezta hori ere, beldurra baitzen nagusi. Horrela igaro ziren frankismoaren lehenengo hamarkadak.

Diktaduraren erresistenteak

Baina egoera horretan, gerra galdu zuen eta kartzelatik edota esklabo lanetatik bizirik atera ahal izan zen belaunaldiaren zati batek, 1942-1944 urteetan, "behin-behineko baldintzapeko askatasunean", euren herrietara itzuli ziren. Horietako batzuek, borrokara itzuli ziren, oraingoan klandestinitatean, erakunde politikoak eta sindikalak berreraikitzen, faxistek debekatutakoak: STV, CNT, UGT, PNV, Euzkadiko PC, Alderdi Sozialista, ANV, Izquierda Republicana, Euzkadi Mendigoixale Batza... Euren bat egin zuten gazte belaunaldi berriek, JSUtik – Juventudes Socialistas Unificadas – eta

EGItik – Euzko Gaztedi – . Horiek guztiak izan ziren diktaduraren kontra lehen masa mobilizazio garrantzitsuak egin zituztenak.

STV-ELA. (Eustasio Markaide, Esteban Zaitegi “Palmeño”, Claudio Aranzabal Atxotegi, Pablo Urrutia Zaitegi.

PCE-UGT. (Tomás Ruiz de Alegría, Vicente eta Fermin Arabaolaza, Gregorio Laspiur, JoséM^a Etxebarria, Jose Maria Olazagoitia, Jesus Balanzategi “Clavel”, Jose Maria Arriaran “Chispas” eta Juan Cruz Aramburu.

PNV. (Roman Bidaburu, Juan Azkarate, Gregorio Yarza, Pablo Bolinaga eta José Barrutiabengoa...)

ANV. (Eustasio Markaide, Pablo Urrutia Zaitegi...)

Partido Socialista. (Francisco Gonzalez “Kiko” eta Cosme Altuna “Txaparro”)

JSU. (Juventudes Socialistas Unificadas), (Cruz Ugarte, Pako Goronaeta Mendizabal, Luis Badiola, Jose Menchaca, Luis Azkonaga, Manolo Azkonaga “Txapel Pegado”).

EGI, Euzko Gaztedi: (Imanol Arizaga, Luis Bengoa, Jesús Berezibar, José Ramon Bolinaga... Geroago, 1955ean beste belaunaldi bat: Juan Jose Etxabe Orobengoa...) Juan Jose Etxabe EGiko militantea zen; kontaktua zen eibartar bat. (oharra Iñaki Arizabaleta).

Erregimen frankistaren aurka zeudenei ez zieten baimenik ematen dendak edota tabernak zabaldu ahal izateko.

Maria Querejetak taberna itxi behar izan zuen frankistak herria okupatu eta ebakuazioa gertatu zenean. Gerra amaitzean, baimena eskatu zuen berriro taberna ireki ahal izateko, baina 1940ko ekainaren 6an ukatu egin zioten.

1940ko maiatzaren 9an, Felipa Berechinaga Lainaga eibartarrak baimena eskatu zuen ardo biltegi bat zabaltzeko. Azalpen honekin ukatu zioten baimena: *Jeneral Franko kaleko 6. zenbakian ireki nahi duen ardo biltegirako baimena ukatzen zaio Mugimendu Nazionala dela-eta dituen aurrekariengatik.*

Urte bereko irailaren 8an, Luciano Mercader Oyanguren baimena ukatu zioten harategia zabaltzeko, eta Mercedes Letona Azurmendiri gauza

berbera egin zioten Arrabal kaleko 18. zenbakian zabaldu nahi zuen fruta dendarekin.

1941eko apirilaren 17an, Emilia Bolinaga Ezpeletari baimena ukatu zioten taberna zabaltzeko, eta Eugenio Uriarte Altuberi txikizkako ardo salmentarako. 1941eko uztailaren 30ean.

Maria Facunda Cortabarriari baimena ukatu zioten Nafarroa etorbideko 11. zenbakiko etxabeen taberna zabaltzeko: *Itxiera errekurtsugileak gorri separatistekin alde egin zuelako gertatu zen. Gorrien jarraitzailea zen. Taberna itxita egon da 1936ko irailetik.*

Ignacio Fuldainek, Elantxobekoa, baimena eskatu zuen Resusta kaleko 15. zenbakian dentista kontsulta bat irekitzeko. Hura lortu ahal izateko, eskatu zizkioten ziurtagiria, *portaera ona* izan zuela jasotzen zuena, eta *Mugimendu Nazionalarekiko atxikimendua*.

Tailerrak irekitzeko baimenak, ordea, eman zizkieten Mugimendu Nazionalaren alde zein aurka zirenei.

Bizkaitik etorri zienak, kartzelatik eta, Zerrajerak ez zituen hartu eta orduan gehixenak euren kontura bakarrik tailer txikitxuak, batek trokelak eiteko, bestiak ez dakit zer eiteko... gehixenbat Cerrajerako artikuluak eiteko. Artikulo horreik hobeto eta merkiau. Tailerrak irekitzeko baimenak ordea, Mugimendu Nazionalaren aldeko zein aurkako zirenei eman zizkieten.

Artikulo horreik hobeto eta merkiau. Zerrajeraria fan zan artikulo txarrekin geratzen, eta holaxen poliki-poliki, inberzinorik gabe, modernizau bape, eta azkenian ezin konpetiru.⁶⁵² Feliciano Aranzabal ez zauien hartu Cerrajeran, ha ajustadoria zan eta Elmara pasu zan. Gero gerra ostian, bere kontura hasi zan ofizial ona zan. Gabino Oiartzabal be bere tallerra ipini zauen. Beste bat Joanito Uribetxebarria “Eperra”. Ha be fundizino bat ipini zauen.⁶⁵³

1941eko apirilaren 17an, “Isidoro Echevarria Maidagan y Cia”k baimena lortu zuen Jeneral Franko kaleko 14. zenbakian tailerra zabaltzeko.

Madina, Trojaola eta Yarza Elkarteari, Ferrerías kaleko 4. zenbakian zabaltzeko.

1942ko urtarrilaren 15ean baimendu zituztenak: Mugica eta Querejetari, baimena tailerra Zarugalde



Toulousen 1946ko ekainaren 24a

1. lerroan: hasita ezkerretik: Ignacio Aranzabal, Felix Herrera, Eibarkua, Emilio Vitorian emaztea, Emilio Vitoria, Mercedes Jauregi eta Jesus Trincado
2. lerroan: Pedro Gallastegi, haren emaztea, Salvador Laspiur, Felipe Anduaga, Marcos Vitoria, Achotegi (eibartarra), Marcelo Vitoria, Garagartzako auzokidea, Herreraren emaztea eta Herreraren semea. Salvador Laspiurrek utzitakoa.

kaleko 26 zenbakitik Legarre kalera eramateko.

Jose Galdos Olañeta eta Ceferino Mendizabal Ortubayri baimena Resusta kaleko 19. zenbakian "Osla Elkartea" irekitzeko.

Juan Azcarate Isasmendiri baimenak Zarugalde kaleko 17. zenbakian TEYAR burdindegia eta Ferrerías kaleko 42 zenbakiko etxabea bulegoak irekitzeko.

Luciano Eguidazuri 1944ko maiatzaren 26an baimena eman zioten Nafarroa etorbideko 19. zenbakian "Talleres Eguidazu" irekitzeko.

1945eko azaroaren 22an, Jose Gorosabel Gorosabeli baimena eman zioten "Taller de Fumanchu entre Industrias Asam y Mugica y Querejeta" irekitzeko. Jose Gorosabel gerra amaitzean ez zuten Unión Cerrajeran hartu eta Asamen hasi zen lanean, Ferrerías kalean lehenengo eta Legarren gero.

1946ko martxoaren 28an, Antonio Ansoategui baimena eman zioten tailerra zabaltzeko.

Guillermo Valdes Mateori, Nafarroa etorbideko 9 zenbakian ireki nahi zuen burdindegia biltegitarako.

1946ko apirilaren 11n emandako baimenak:

Pedro Sologaitoari argazkilaritzarako.

Mugica y Mendizabali Zarugalde kaleko 13. zenbakian Leunketa tailerrarako.

Luis Maria Aranzabali, Legarren.

Juan Olave eta Juan Uribechevarria Mondragóni Zaldibar auzoan.


Rafael Muñoari Altamirako bidean.

Valentin Mendizabal Marcaide, Zaldibar auzoan lokala Gamey tailerretarako planoak egiteko.

Pagola Dolarari Legarreko tailerra handitzeko.



Conchita, Isabel eta Casilda Balanzategui Zubizarreta



Fermín Balanzategui Zubizarretaren amerikarren txostena

Santiago Altuna Ortuosteri, lixiba lantegirako, Arrabal kaleko 22. zenbakian.

Alejandro Altuna Ortuosteri, baimena eman zioten leunketa tailerra Arrabaletik Ferixaleku berriera eramateko, 1946ko otsailaren 14an.

Domingo Arzamendi Aranzabali, Arzamendi, Berecibar y Cia SLko gerenteari, baimena eman zioten Arrasate pasealekuaren ondoan pabilioi industrialak irekitzeko, 1947ko emainaren 19an.

Francisco Azpiazu Zubiaurreri, konponketa tailerrera Arrabaleko 18. Zenbakian.

Jose Cortabarría Lanzagureni, ebanisteria tailerrera Resusta kaleko 49. Zenbakian.

1940an ihesi joandakoak

Arrasatek 8.645 biztanle zituen 1940. urtean. 4.715 emakumeak eta 3.930 gizonak. Haietatik, 345 pertsona kanpoan zeuden, 240 gizon eta 105

emakume. Atzerrian ziren denak, preso edo erbesteetan: Frantzia, Burgos, Cadiz, Aljeria, Argentina, Chile, Erresuma Batua eta abar.

1940an Arrasateko erroldan agertzen dira 25 pertsona erbesteratuta daudela. Lehenengo hogeiak badakigu ihesi joandakoak direla:

Lorenzo Aguirregomezorta Echebarria, 23 urte Frantzian

Irene Aranzabal Cacicedo, 40 urte, Frantzian

Roman Arenaza Jainaga, 28 urte, Frantzian

Fermin Balanzategui Zubizarreta, 19 urte, Toulouse

Conchita Balanzategui Zubizarreta 26 urte, Hendai

Victor Berecibar Ormazabal, 34 urte, Saran

Ricardo Ceciaga Lasagabaster, 30 urte, Argentina

Gregorio Ceciaga Olalde, 31 urte, Frantzian

Constantino del Pozo Riesco, 22 urte, Uruguay
Alejandro Echevarria Uribechevarria, 27 urte,
Frantzian

Celestino Heriz Arizmendi, 26 urte Frantzian
Andres Garate Umerez, 30 urte, Frantzian
Jose Gorroñoigoitia Sein, 42 urte, Frantzian
Pablo Ibarra Iriondo, 30 urte, Frantzian
Daniel Ugarte Arcauz, 30 urte, Frantzian
Secundino Urionabarrenechea Aguirre, 32 urte,
Frantzian

Celestino Uriarte Bedia, 31 urte, Chile
Gregorio Uriarte Bedia, 42 urte, Frantzian
Ventura Vega Alvarez, 32 urte, Frantzian
Marcelo Vitoria Zabarte, 34 urte, Frantzian

Hurrengo bostak ez dugu jakin ihesi joandakoak ziren edo ez.

Demetria Altuna Mondragón, 26 urte Ingalaterra
Francisco Garro Maortua, Argentina
Juan Larrea Azcarraga, 21 urte, Buenos Aires
Candido Uranga Guridi, 26 urte, Frantzian
Luis Echevarria Echevarria, 29 urte, Frantzian

Horietatik aparte, erroldatik desagertutakoak beste hauek ere ihesi zeuden erbestean:

Presentacion Rodriguez Rodriguez

Mercedes Jauregi Pagoaga

Pedro Gallastegui Azpitarte

Marcos Vitoria Goitia

Jesus Herrera González

Felipe Andoaga Lopez

Jesus Trincado Baños

Ignacio Aranzabal Cacicedo

Guillermo Lasagabaster Gorosabel. 1940an Lan-nemezango kartzela eraiki zuten.

Fermin Ibañez Azcoaga

Salvador Laspiur Urrutia

Gabriel Goitia Uralde

Nicolas Uriarte Ceberio

Jenaro Ibarra Trebiño

Felix Likiniano Heriz

Andres Barrutia Zuazubiskar denak Frantzian

Luisa Barrutia Zuazubiskar, Tarbes, Frantzian

Félix Lasagabaster Ugalde, Osun

Ángeles Ugalde Guridi, Osun

Jesús Inda Errasti, Paris

Severiano San Vicente Santamaría,

Dominga Mendizábal Ceciaga, Iparralde

Daniel Zuazubiscar Arrizabalaga, Maroko

José María Zubizarreta Hériz

Donato Beltrán de Guevara Cámara, Argentina

M^a Luisa Mendizábal Unamuno, Argentina

Jesús Beltrán de Guevara Mendizábal, Argentina

Pedro Garai Igartua, Argentinan

Fernando Uribesalgo Icaran, Winnipeg, Txile



Pedro Garai Igartua



Matilde López eta Iñaki Aranzabal en el exilio

Jaime Uriarte Cestona, Winnipeg, Txile

Guillermo Ruiz de Alegria Aguirrebeitia

Rogelio Izarra Ijalba. Winnipeg, Txile

Juan Marcaide Pildain, Mexiko

José María del Pozo Riesco, Uruguay

1940ko urriaren 3an, Nicolas Uriarte Ceberio alkate errepublikarrak 31.900 pezeta igorri zizkion Arrasateko Udalarari. Diru hura orduko udalak eraman zuen herriaren ebakuazioa izan zenean.

San Juan Bataiatzailearen Ermandadea:

San Juan Bataiatzailearen Ermandadea 1940ko otsailaren 24an eratu zuten. Horretarako, Jose Ochoak ordezkatzan zuten Ama Birjinaren Sortze Garbiaren kofradia, Felix Zabaletak ordezkatzutako San Jose kofradia, Jose M^a Bolinagak ordezkatzan zuten Mutua eta Fernando Bergarechek ordezkatzutako Sindikatu Librea bateratu ziren. Sorreran, 836 bazkide zituen eta honako enpresek hartzen zuten parte horretan: Elma, Industrial Mondragónesa, Altuna Mendizabal y Cia, Arzamendi Berecibar y Cia, Metalurgica Cerrajerá eta Komertzioa.

Union Cerrajerako langileek Hetruc-a zeukatela ikusita, beste lantegiko beharginak ez zeukaten ezer eta horren aurrean San Juan Bautista sortu zuten. Reunixo batzuk euki zituzten eta pentsau auen Hetruc moduan beste bat, antzerako bat beste fabrika guztiakin. Orduan danak baietz esan auien. Felix Zabaletak eman zauen bastante zera, eta Elmako jarentiakin akordua egon zanian bueno, egin auen. Ha zan: Hermandad Sanitaria de San Juan Bautista.



Andres Barrutia Zuazubiskar, Baionan

Beste danak, 6 enpresa zien orduan: Elma, Cucharera, Metalúrgica, Arzamendi, Komerzioa... 6 edo zien, eta baietza eman eta holaxe formau zan hori.⁶⁵⁴

Lehenengo batzordea osatu zuten kideak izan ziren: Vicente Gonzalez, Galo Lete, Felix Landa, Manuel Arrieta, Andres Bidaburu eta Roberto Arcauz.⁶⁵⁵

20.2. 1941 Frankisten kausa generala

Faxistek, gerra ostean, “Kausa General” delakoa martxan jarri zuten, herriz herriz udalen inplikazioaz, horrela osatu zituzten Kolpe Militarren aldekoen errepresialatu guztien izenak: hildakoak, presoak, inkautazioak. EUREN EGIA osatu zuten:

1941eko apirilaren 29an, Auzitegi Goneneko fiskalak kausa honetako instrukzioa abiatu zuen eta udaletxe guztiei zirkular bat igorri zien eta eskatu zien hiru egoera ezberdin haiei erantzuteko:

- Estado 1 zk.: bortizki hil edo desagertu ziren pertsonen zerrendak.

Maiatzaren 9an Arrasateko Udalak igorritako erantzuna: Lucio de La Cruz (24 urte) eta Lino Mardaraz Elustondo (27 urte) tradizionalistak.

1936ko irailaren 26an hil zituzten. Gorpuak ez ziren inoiz aurkitu. Arrasateko kartzelatik Kanpanzar gainera eramane eta han erail zituzten. Leonardo Garcia Carmonak parte hartzea izan zuen haiek Kanpanzarrera eramaten.

- Estado 2zk.: udalerrian jasotako heriotza bortitza izan zuten herritarren hilotzen zerrenda.

Alkatetzaren erantzuna: Inor ez.

- Estado 3zk.: Tortura, sute, arpilatze, eliza suntsiketa eta abarren zerrenda

1936ko abuztuaren 16an, Bergaran atxilotu zituzten 14 arrasatear Arrateko Ama Birjinaren Santutegira eramane zituzten kamioi batean. Galdeketak egin ondoren, modu basatian jipoitu zituzten gehienak.

1937ko otsailaren 10ean, Udalako posizioetan zeuden gorrien aldeko bi milizianok Garagartza auzoan Lete baserria erre zuten.

Maiatzaren 19an, deklarazioa hartu zioten Osinaga-errota baserriko Vicenta Uriarte Ceciagari. Baserri hartan zuten jasota Lino Mardaraz. 1936ko irailaren 19an, baserrian bertan, hiru ezezagunek atxilotuta eramane zutela deklaratu zuten.

Jacinto Herrarte Aguirre baserriko jabeari ere deklarazioa hartu zioten. Hark esan zuen baserriari su eman ziotela, bera eta Jose Herrarte Ercilla, semea, Espainia Nazionalaren Armadara boluntario joan zirelako.

Egun horretan bertan, alkateak eta herriko buruak deklaratu zuten, Leonardo Garcia Carmona Alderdi Sozialistako kidea eta UGTko afiliatua zela. Mugimenduaren hasieran, Frente Popularraren defentsan kalera armatuta atera zen lehenengotarikoa izan zela. Hala moduzko portaera morala zuela eta portaera erlijioso oso txarra. Larrinagako kartzelan egondakoa zela.

Guardia Zibilak esan zuen herrian ez zela Leonardo Garcia Carmona izenarekin inor existitzen eta hemen zegoena Leonardo Garcia Llanos zela.

1942ko otsailaren 15ean, Bilboko Udaltzaingoak jakitera eman zuen ez zutela pertsona hori atxilotu, baina Tabakalerako kartzelan Benito Garcia Carmona zegoela kartzelaratu, Quintana de la Serenakoa (Badajoz).

1942ko urriaren 16an, gertatutakoa kontatzeko, deklarazioa hartu zieten 14 atxilotuei eta urte bereko

abenduaren 12an deitu zituzten tratu txarrak eman zizkieten pertsonen izenak emateko. Atxilotuetako 11k deklaratu zuten ez zituztela ezagutzen tratu txarrak eman zizkieten pertsonak. Felipe Jose Azurzak esan zuen, Eibarren bizi zen "Asturiano" deitzen zutena eta "Regil" izenarekin ezagutzen zuten arrasatearra gogoratzen zituela. Antonio Pagoaga Maquibarrek esan zuen jipoitu zituzten beste bat Juan Jose Prieto Arana izan zela.

1943ko otsailaren 2an, Eibarko Guardia Zibilak jakinaraztera eman zuen "Asturiano" gaitzizena zuena Jose Vazquez Romay de Mieres zela eta Cuencako Torrubia del Campoko 56 konpainiako 14. Legioaren Banderan zegoela. Regil Benito Regil Bengoa zela eta inork ez zekiela non zegoen, fusilatua izan zenaren zurrumurrua zebilela herrian. Juan Jose Prieto Aranari buruz esan zuten ezezaguna zela herrian, bazirela herrian abizen horiek zituztenak, baina izen ezberdinarekin: Andres, Ramon, Eugenio eta Jose Luis, baina Juan Jose izenarekin ez zegoen inor.

1943ko uztailaren 20an, Lucioaren anaia, Luis de la Cruz Basaldua, deitu zuten deklaratzera. Esan zuen berak ezin zuela eman inolako detailerik.

1943ko abenduaren 24an, kartzelatik atera ondoren, Lore del Rion (Sevilla) desterratua zegoen Benito Garcia Carmona deitu zuten deklaratzera. Hark esan zuen ez zekiela Arrasate non zegoen eta ez zituela pertsona haiek ezagutzen. Esan zuen atxilotu zutenean Castueratik Orduñara eta handik Bilbora eramane zutela. Gerran, Extremaduran, Andaluzian eta Levanten egon zela.⁶⁵⁶

Fiskalek, epaileek eta udalak bi urtez ikertu zituen gertakari haiek. Ondorioztatu zuten 2 hildako eta 14 pertsonari eman zizkietala tratu txarrak.

80 urte pasatu eta gero, oraindik ere, fiskalek eta epaileek uko egiten diote eraildako edo desagertutako 50 arrasatear, edo 100 epaituak edo kondenatuak inongo garantiarik gabe edo beste 200dik gora preso edo langile batailoietan inguruko ikerketak abiaraztera... Besteen sufrimenduak, izan ez baziren bezala.

Jose Maria Arizmendiarieta

Kooperatibismoaz aritzeko, ezinbestean ekarri behar dugu gogora Jose Maria Arizmendiarieta. 26 urteko apaiz hau 1941eko otsailaren 5ean iritsi zen Arrasatera. Honek bultzatutako ekimena izan

8 Febrero 1941

Círculo de estudios a las 7¹/₄ de la tarde en la Escuela de Aprendizices. Lo dirigió el H^{co}. Juan y asistieron 32 socios. El mismo H^{co}. Juan habló sobre diversos puntos entre ellos: "la fundación de la Iglesia", "armas para el apostolado", "Hechos de los Apóstoles", etc. con lo cual y sin otra cosa digna de mención dió fin el Círculo.

~~Alfonso Fortis~~

22 Febrero 1941

Círculo a las horas y en el lugar de costumbre. Lo dirigió el H^{co}. Juan y asistieron 36 socios. El Sr. Drequi continuó con la explicación de la H^{ca} de la Iglesia que se ha venido haciendo en los últimos círculos. El H^{co}. Juan habló después sobre diversos puntos con lo cual dió fin el Círculo.

~~Alfonso Fortis~~

21 Marzo 1941

Círculo a las 7¹/₂ y en el lugar de costumbre. Lo dirigió D. José M^o Arismendi, nuevo consejero parroquial y asistieron 40 socios. Habló él mismo sobre diversos asuntos entre los que predominó el de los planes para el futuro. Con lo cual y sin otra cosa digna de mención dió fin el Círculo.

~~Alfonso Fortis~~

28 Marzo 1941

Círculo de estudios a las 7¹/₂ y en el lugar de costumbre. Lo dirigió D. José M^o y asistieron 42 socios. El Sr. Monzópolis explicó el Evangelio con el tema "Genealogía eterna de Jesús". El Sr. Zulueta expuso el tema de la H^{ca} de la Iglesia "Persecuciones". Y finalmente D. José M^o habló sobre el "respeto humano".

~~Alfonso Fortis~~

zen kooperatibismoa. Herriko gazteak motibatu zituen garai hartan ohikoak ziren enpresa solidarioagoak eta justuagoak sor zituzten.

1941eko martxoaren 21ean, parrokiako kontsiliario berri bezala parte hartu zuen, Juan Zubizarreta anaia biatoristaren ordean, Ekintza Katolikoko Ikasketen Zirkuluan, Unión Cerrajerako Ikastun Eskolako liburutegi-aretoan egiten ziren bilerak, 40 bazkidek parte hartu zuten bilera horretan. Egun horretako bileraren akta Alfonso Gorroñogoitiak sinatu zuen.

Jose Maria Arizmendiari 1941ean hasi zen irakasle lanetan Unión Cerrajerako Escuela de Aprendicesen. Lanean hasi eta berehala, Unión Cerrajerakoak ez ziren ikasleak onartzen hasi zen eskolaren hazkundera helburu zuela, nahiz eta, bere langileen semeek lehentasuna emateko tendentzia partidarioa hor izan. Jose Mariak Viteri Eskolako patronatoan sartzea lortu zuen, Armengou joan zenean.⁶⁵⁷ 1942ko urriaren 5ean, adingabeak galbideratzearen akusaziopean, lanik eta soldatarik gabe utzi zuten Antonio Armengou Marro, Viteri Arte eta Ofizio Eskolako irakaslea zena.

20.3. 1942tik 1946ra: Gertaera garrantzitsuak Arrasaten

Irailaren 26an, herriaren liberazioaren V. urteurrenean, beharginek jai izatea eskatu zuten lantegietan igande arratsaldeetan dantzaldira joateko. Aurrerago ikusiko dugu X. urteurrenaren porrota nolakoa izan zen.

1943

Arrasateko Eskola Profesionala

1943ko urriaren 10ean eratu zuten Viteri Eskolako lokaletan Acción Católica gizonen ekimenez. Escuela de Aprendices-en bezala, gizonetzkoak bakarrik ikasi zezaketen bertan. 1943ko irailaren 8an iragarri zuten publikoki irekiera: *Mende honetako miseriarik handiena da gizonen formazioa kontuan ez hartzea. ... Eskola honek teknikoak ez ezik ispiritua soziala eta erantzukizunaren zentzua izango duten gizonen formazioan egin nahi du lan etorkizun hobeago bat eskaintzeko. ... Horrelako eskola nahi dugu. Eskola honek arretaz eta maitasunez hezten ditu gure semeak.*

Lehenengo kurtsoan, 14 eta 19 urte bitarteko 60 gaztek hartu zuen parte. Sei ziren irakasleak.

Herriko 15 enpresak jardun zuten elkarlanean eskolarekin, Unión Cerrajerak izan ezik, gainontzeko guztiek kolaboratu zuten eta milatik gora familiako aita.⁶⁵⁸

Eskola horretan ibilitakoak:

*14 urtekin hasi nitzen lanian, 6 ordu estudixetan, Eskola Profesionalien Viteri eskolan ta beste 4 lanian Elman. 14 pezeta astien irabazten nauen, lau ordugatik. Profesoriak Antonio Balerdi, Gaspar Ezkurra, Prudencio Osinaga, Jesus Palacios, Lorenzo Jimenez eta Lasa.*⁶⁵⁹

*Prudencio Osinaga Saez de Nanclares eta Mariano Montiano Uriarte zien egun guztiko klaseak ematen, besteak berriz lanetik irten da gero ematen zituzten.*⁶⁶⁰

Kontraesanak alkateen eta parrokoen artean

Bergarako Instrukzio Epaitegiak 1936ko uztailaren 18aren aurreko zein ondorengo aurrekari politikoen eta sozialen informeak jaso zituen. Kontua da aurreneko aldia izan zela, José Luis Iñarra herriko parrokoak iritzia eman zuena espedientatuaren alde. Isidoro Echevarria eta Domingo Arzamendi alkateek, ostera, informea eman zuten haren aurka.

Teofilo Igartua Bolinaga: *Horrela dio Iñarra parrokoak: 1936ko uztailaren 18 a baino lehenago, portaera erlijioso eta moral ona zuen 1941ean bezala, bere familiarekin bat egin zuenean. Honela dio Arzamendi alkateak bere informean: Mugimenduaren aurretik, Alderdi Sozialistako eta UGTko afiliatua zen. Boluntario eman zuen izena Frente Popularreko lerroetan. Portaera morala txarra da eta erlijioso oso txarra.*⁶⁶¹

Leonardo Carmona Conejokin kontraesana errepikatzen da: Iñarra parrokoak *“Portaera moral eta erlijioso ona ikusten du”* eta Isidoro Echevarria alkateak *“Portaera moral eta erlijioso txarra”*⁶⁶²

Gauza berbera gertatzen da Pedro José Peregrino Martínez Martínez eta Clemente Ramos Gamazoren informetan.

Kartzela eta Mendekua

Ignacio Letona Azurmendi 1943ko irailaren 2an Ondarretako presondegian sartu zuten *Biba Rusia* oihukatzeagatik.

Jose Maria Arriaran 1943ko abuztuan atera zen kartzelatik. Gerra aurretik zendu zen. Simon Arriaran aguazila zen bere aita. Familiak pentsio bat jasotzen zuen aitaren heriotzarengatik, baina 1936ko

irailean diru laguntza eten zieten. Kartzelatik atera eta berehala, 1943ko abuztuaren 24an, udalari eskatu zion 1936ko irailetik ordura arteko ordainketak egiteko, baina hark ezetza eman zion.

Nik gehiago sufritu dut kartzelatik ateratzean barruan nengoenean baino. Arrasatera etorri nintzenean, ez zitzaidan bururatu ere egin udaletxera joatea nire lanpostua erreklamatzera. Espedientea ireki eta kanporatu egin gintuzten. Udalak egin bezala, Cerrajerak ere errepublikaren aldean izandakoak kanporatu egin zituen. Negar egiten ikusi ditut 60 urte zituzten eta 12 urte zutenetik Cerrajeran lanean aritutako pertsonak. Gorrien alde egon zirelako ez zituzten berriro lanerako hartzen. Orduan, gainera, ez zegoen erretirorik.

Trinketean sarraila-denda bat zegoen. Iñaki Gorospek han egiten zuen lan eta bulegorako pertsona bat behar zutela esan zidan. Ostiral batean joan nintzen nagusi-rengana eta astelehenean itzultzeko esan zidan. Azaldu nintzenean, hasieran ez ninduen hartu nahi, baino joaten ez nintzela ikusirik, hartu eta honela esan zidan: Legeek agintzen didate gorri bat lanean sartzan dudan bakoitzeko, nazionalen aldeko hiru hartu behar ditudala bulegoan lanean eta ezin dut. Gainera, mezetara joaten

*ez zarela esan didate. Nik erantzun nion, alde horretatik lasai egon zaitezke, ez nauzu aurrerantzean ere ikusiko eta. 1945. urtean, Riman hasi nintzen lanean. 12,5 pezeta ordaintzen zidaten eguneko.*⁶⁶³

1944

Arrasateko Alderdi Komunista

1944ko igande batean, hori baitzen libratzen genuen asteko egun bakarra, Santa Barbaran elkartu ginen, Tomas Alegria, Vicente eta Fermin Arabaolaza, Gregorio Laspiur, Jose M^a Etxebarria eta ni. Esan nien beharra sentitzen nuela Euzkadiko Alderdi Komunista Arrasaten eratzeke. Guztiak ados azaldu ziren horrekin, nahiz eta jakin bagenekien horrek arrisku handiak zituela. Hala ere, aurrera egitea erabaki genuen. Arrasaten, ordura arte Euzkadiko Alderdi Komunistak ez zuen izan inoiz ordezkariarik. Ez genuen txikitarik ere. Heritik kanpo ez genuen ezagutzen alderdi komunistako inor. Egia esan, ez genekien alderdia inon antolatuta zegoen ala ez. Lehenengo batzordea, Jesus Balanzategi “Clavel”, Pello Arabaolaza, Tomas Ruiz de Alegria eta laurok osatu genuen. Bergarako militantea izan ziren, Josuren Gabilondo “Basarte”, Evaristo Albeniz



Eskola Profesionalekoak Viteri eskolan. Eduardo Larreategik utzitakoa.

eta Torres. Uribarri auzoan Gautxori tabernan elkartzen ginen, ugazabak konfiantzazko nazionalistak zirelako.

Gure helburu nagusia zen ekintzak egitea baino gehiago jendeari beldurra kentzea. UGTk indar handia izan zuen Arrasaten, eta erabaki genuen saiatzea hura berrantolatzen. Batzuk mugitzen zirela ikusirik, berriro sindikatua zegoela ikusita, jendea animatzen hasi zen.

Kasualitate hutsa izan zen gu alderdiarekin harremanetan jartzea. Musakola San Isidro eliza eraikitzen ari ziren. Eliza margotzen, Alegriarekin kontzentrazio esparruan egondako donostiar bat zegoen. Larrañaga batailoiko ofiziala izan zen gerran. Hark esan zigun Donostiako Alderdi Komunista berriro ere martxan zegoela. Aguirre kamaradarekin izan nuen aurreneko kontaktua. Bere benetako izena Gual zen, eta Larrañaga batailoiko komandantea izan zen.⁶⁶⁴

Bitartean, eta nazismo-faxismoaren aurka borroka internazionalaren testuinguruaren baitan, Celestino Uriartek erabaki zuen Espainiara itzultzea eta klandestinitatean borrokatzea. 1944 urtearen erdialdera iritsi zen Portugalera eta, irailean, erabaki zuen Madrilerara joatea. PCEko Batzorde Politiko Militarrean hasi zen lanean. Alderdiaren Ordezkaritza Nazionaleko Idazkaritza Militarreko arduraduna zen eta berak egiten zuen kale gerrillaren jarraipena.

Bitartean, 1944ko abenduaren leko harrera teknikoko akta batean jasota dagoen bezala, Unión Cerrajerak 12,7 Breda metrailadore zintentzako grapak fabrikatzen jarraitu zuen.⁶⁶⁵ Fiat eta Savoia hegazkin itailarrek erabiltzen zuten metrailadore hori. Beraz, bigarren mundu gerran ere hura erabili zuten



Viva la Republica, Zaldibarko frontoian (montajea).

1945

Errepublika eta ikurriña errebindikatzea.

Garai horretako ekintza bat, esangurutsuenetakoa 1945ean, Zaldibarko udal pilotalekuan pintada bat izan zen, "¡Viva la República!" zioena, metro bateko altuerako letrekin idatzia. Jose Maria Arriaranek testigantzagatik dakigu, *kendu zutela, baina handik egun gutxira, lehen euriekin, inskripzioa berriro agertu zela.*

Nik 18 urte neukela, 1945ean, Inozentzio Arregik, Arrue etxetxikeñetakua, ikurrin mordo bat emun euskun pegetako arboletan, Nafarroa etorbidean. Arbola guztixak ikurrinez bete gauen. Lau izen gutzen bertan, Luis Bengoa, Jesus Berezibar, Jose Ramon Bolinaga Txori eta ni neu, Pedro Vega Galdos.

Esteban Echevarria Arabaolaza 1945eko apirilaren 2an atxilotu zuten. Celestino Uriarte Madrilan zegoen orduan. Han, jardunaldi batzuetarako deialdia egin zuen apirilaren 14an eta 15ean, Errepublikaren alde elkartasuna eta borroka antifaxistaren inguruan: *Lurrak ikara egiten duela nabaritzen duten indar faxistek ahalegin handia ari dira egiten bloke erreakzionario bat sortzeko. Monarkiaren berrezarkuntzan oinarritzen dira, erregimenaren esentzia faxistak ez galtzeko, nahi demokratiko eta errepublikanoak burlatu eta herriaren garaipena saihesteko. Katalan, galego, euskaldun goazen guztiok elkarrekin borrokatzera errepublikaren alde, errepublikak ekarriko baititu zuen herrien libertateak.*⁶⁶⁶

Madrildik Valentziara joan zen PCEko Batzorde Erregionaleko Idazkari Nagusia izateko. Aurrerago, 1946ko martxoan, Asturiasera joan zen Santander, Asturias eta Leongo Batzorde Erregionaleko Idazkaritza Nagusira.

1945ko maiatzaren 9an alemanen eta faxisten porrota izan zenean, Arrasaten etxafleroak bota zituzten. *Alemanek amore eman zutela jakin genuenean, gaueko 11etan etxafleroak bota genituen. Faxistek zalantzak izan zituzten, amerikarrek eta ingelesek Franco kentzen lagunduko zutela pentsatzen baitzuten. Guk esaten genuen haiengandik ezin genuela ezer espero.*⁶⁶⁷

Debagoiena makien igarobidea izan zen

1944 eta 1945 urteetan, Debagoiena borrokalari makien igarobidea izan zen. *Valcarlosko tiroketa batetik ihes egitea lortu zuten bi maki Epele gainean dagoen Altuna baserriraino iritsi ziren. Gizon bat ikusi*



Hasita eskumatik zutik: Jose Ceciaga *Ponponio*, Gregorio Laspiur, Jose Maria Etxebarria, Carlos Ezcurra *Galarra*, Tomas Ruiz de Alegria *Porra*, Satur Abarrategui *Botines*, Fermin Arabaolaza *Pello*, eta Antonio Eguiluz, milizianoak eta Diktadurari erresistenteak.

*zuten baratzean lanean, eta laguntza eskatzera hurbildu ziren. Baserritarra Salvador eta Gregorio Laspiur anaien aita zen. Gregoriok bi makiak aurkeztu zizkidan. Kanpanzarren elkarriketatu ginen haiekin. Bata asturiarra zen eta bestea bizkaitarra. Gregoriok mendiz lagundu zituen Durangoraino.*⁶⁶⁸

Oñatin, Arantzazu eta Olateko ur jauzietan lan egiten zuten Unión Cerrajerako langileak mendian ibiltzen ziren. Horregatik, eskopetak eman zizkieten eta Lamiategin entrenatu egiten zituzten. Somaten berri bat zen. Enpresak, batez ere, ezezagunik ikusi ote zuten jakin nahi zuen, gero guardia zibilei esateko. Guardia Zibilak 1917tik, Unión Cerrajerako lokalak doan erabiltzen zituen.


Ziur dakigu 1945eko apirilean guardia zibilek bi gerrillari hil zituztela Urbia aldean. *San Adriandik bi maki hilak jaitsi zituzten mando gainean soka batekin lotuta eta manta batekin estalita, botak kenduta Zegamako kanposantuan lurperatu zituzten.*

*Hasi nintzen mendi lanean, eta edurra ein zauen baten Demetrio Otaegik esan zidan joango al zīnake txabola ixtera Aratzera. Bertan txabolan nengoela orbela otsak entzun nuen, irten nintzen eta hiru lagun ikusi nituen, naranjeroekin. Galdetu nien ¿A donde vais ahora? A Levante. ¿Por dónde tenemos que ir? Por San Adrian, hacia Burgos. Mapa bat atara zuten eta begira egon ziren. Bizkaitik zetozen, 25 urte ingurukoak. Ogia eta urdaiazpikoa eman nien, eta joan egin ziren.*⁶⁶⁹

Gerra ondoren, Guardia Zibilek txabolan egiten zuten lo.... Ugaztegiara joan ziren, baina, joan aurretik, “inor badator abisatzeko” esan zidaten. Halako batean, bost maki asturiar iritsi ziren txabolarara. Jana eman nien eta joan egin ziren. Baina, norbaitek Goardia Zibila abisatu zuen eta itzuli zirenean harri baten ondoan jarri ninduten. Guardia oso beltza zen. Pistola atera eta “hil egin behar zaitugu” esan eta apuntatu egin zidan. Gero, pistola jaitsi eta horrela esan zidan: “Ez zaitugu hilko gaztea zarelako”. Joxe Bixente Etxaberen testigantza.

Ordurako Dragonesen ibilitakoek herrian milizia bat sortua zuten

Alderdiak Nazio Batasuna proiektua abiarazi zuen, eta sustatu zuen estatu osoan miliziak sortzea. Herrian konpainia bat eratzea erabaki genuen, buruzagi eta guzti; kapitaina zen Laspiur, tenienteak Tomas eta Jesus Balanzategi (Jesus Ezkerra), ni neu komisario politikoa nintzen, sarjentuak, kaboak, Dragoiekin eta haien anaiekin konpainia bat jarri genuen borrokarako prest, uste genuen armak etorriko zirela. Baina ez zuen luzaroan iraun, eta guk geuk desegin genuen.



Leoncio Ortiz de Guzman Gallastegui erbestean.

Eustasio Markaiderekin jarri ginen harremanetan. Esan zigun STV berrantolatzen ari zirela. Tomas Ruiz de Alegria UGTko ordezkaria eta STVko Pablo Urrutia joan ziren bileretara. Arrasaten agiri komun bat argitaratzea erabaki zuten demokraziaren bidean langileriaren bizi baldintzen egoerak hobetzeko fronte baten eraketa nabarmentzeko. Honela zioen agiriak:

Faxismoaren aurka herriaren erresistentzia heroikoa izan arren, eta faxisten garaipenak min handia egin bazigun ere, urte beltzak joanak dira. Estatuaren egoera zein den ikusirik, uste dugu gure asmoetan zuzen gabiltzala eta, berriro ere, mobilizatu beharra dagoela. Badakigu zaila dela ostera ere sakrifizioak eskatzea, baina uste dugu askatasunak merezi duela.

Agiri hau 1945 urte amaieran edo 1946 urte hasieran argitaratu zen. Arrasate izan zen behetik iniziatiba hartu zuen Euskadiko herri bakarra. Eskuorria egin zuten Bilbon alderdiaren inprimategi txiki batean. Guk Maltzagan jaso genuen orria, eta lantegi eta etxebizitza guztietara banatu genuen, eskuz esku.⁶⁷⁰

Urte haietan soldadutza egiteari uko egin ziotenak

Leoncio Ortiz de Guzman Gallastegui. 1933ko deialdikoa. Iheslari espedientea ireki zioten 1940ko abenduaren 26an.

Miguel Garagarza. Ihes egiteagatik espedientea ireki zioten 1941eko urtarrilaren 23an.

Sabino Ugalde Basoa. Ihes egiteagatik espedientea ireki zioten 1941eko maiatzaren 10ean.

Luis Andoain Alustiza. Ihes egiteagatik espedientea ireki zioten 1945eko irailaren 18an.

Diego Arregui Aranzabal. Ihes egiteagatik espedientea ireki zioten 1945eko irailaren 18an.

Timoteo Casto Zabala. Ihes egiteagatik espedientea ireki zioten 1945eko irailaren 18an.

Santiago Orobengoa Cacho. Ihes egiteagatik espedientea ireki zioten 1945eko irailaren 18an.

Antonio Moreno Perez. Iheslaria Frantzian, 1946ko apirilean.

Ramon Pérez Balbas, 1941

Leandro Escribano Ortiz, 1941

Julián Ezcurra Mas, 1941

José María Zubizarreta Hériz, 1941

Estatu Espainolean aurreikusten zen erregimen aldaketaren aurrean

“El Pacto de Baiona” bigarren gerra mundiala bukatu baino lehen 1945eko martxoaren 31n -40 egun lehenago sinatzen da,- pentsatuta aliatuek frankismoa botatzen lagunduko zutela, PNV, STV, CNT, PCE, Izquierda Republicana, Partido Socialista, UGT, Partido Republicano Federal eta ANV, sinatzaileak, artean bi mondrautar daude; ANVtik Gabriel Goitia eta CNTtik Felix Likiniano.

Hilabete eta erdira, 1945eko ekainaren 17an, Marcos Vitoria Arrasateko Sindikatu Metalurgikoko ordezkariak Frantzian eta Felipe Anduaga Arrasateko Alderdi Sozialistako ordezkariak Frantzian, korrespondentzia bidez harremanetan jarri ziren Nicolas Uriarterekin, EAJko kidea Biarritzen zegoena, eta Gabriel Goitiarekin, ANVko kidea, Baionan zegoena. Elkarren artean, Justizia, Askatasuna eta Ermandadean oinarritutako akordio bat lortu nahi zuten. Akordio horrekin, Arrasate administrazioaz arduratuko zen udal batzordea eratu nahi zuten. Batzordea erakunde sinatzaileek izendatutako ordezkariak osatuko lukete, ordezkatzeko duten indarraren proportzioaren arabera banatuta. Batzorde horren helburuak izango lirarteke:

Batzordeak herriaren eta agintarien aurrean ardura hartzen du Arrasateko “fusilatuen” atxiloketetan, epaiketetan edota exekuzioetan, zeharka zein zuzenean parte hartu duten pertsonak epaitu eta exekutatzeko.

Udal batzordeak berehala konfiskatuko ditu Altxamendu Militarrean, zeharka zein zuzenean, matxinatuei laguntza eman eta ondoren erregimen terroristaren kontsolidazioan lagundu dutenen ondasun higigarriak eta higiezinak. Ondasun haiek udalekotu egingo dira. Era berean, batzordeak ostatu emango die gaur egun aterpe eta altzaririk gabe daudenei, eta 1936an Arrasateko biztanle ziren herritarrei.

Udal batzordeak udalerrian 100 langiletik gorako industria guztiak konfiskatuko ditu, eta UGT eta STV langile erakundeekin batera, ahalik eta azkarren jarriko ditu martxan.

Komentarioa: Guztiok jabetu gara artikulu horien larritasunaz, baina denok dugu gogoan gerra zibilarengatik lehenengo eta mundu gerrarengatik ondoren bizi berri duguna. Egoera hark munduak orain arte inoiz ezagutu ez duen iraultza ekarri du berarekin. Aro iraul-

tzaile haren atarian, berak probokatutako katastrofe izugarriaren ondorioz ondoratu den gizarte kapitalistaren hondakinen gainean, prest dagoen langileria nabarmentzen da gizarte justuago bat eraikitzeko.

Ekainaren 20an Goitiak erantzun zuen: Gestora izendatzearekin ados dago.

Bat nator segurtasun eta garbiketa neurriak gestoraren kargu direla esaten dugunean, baina ez dut uste horrek errudunak epaitu edo exekutatu behar dituenik. Horretarako, Barrutiko Auzitegia eratuko dugu.

100 langiletik gorako lantegiak udalekotutzearen ideia interesgarria iruditzen zaio, eta lantegi guztiekin berdina egitea nahi du. Arrasateren kasuan, mugimenduari emandako laguntzarengatik eta legez kanpo ateratako etekinengatik, arrazoi sendoak daude haien aurka jotzeko.

Hala ere, ezin dugu alde batera utzi Estatuari oso arazo larriak planteatu behar zaizkiola, hala nola errejimen frankistaren biktima izan zirenen erreparazio justua: elbarriei, lanerako ezintasuna zutenei, umezurtei, lan egiteko ezintasuna zuten alargunei eta euren ondasun guztiez gabetu zituztenei.⁶⁷¹

Eskola Profesionala

Iturripen eraikitzeko, Eskola Profesionaleko tramiteen hasiera 1945eko urtarrilaren 15ean.

1946

Urte haietan egiten ziren erresistentzia ekintzen beste erakusgarri bat izan zen: Erregimen frankistaren aldekoek nahi izan zuten “duintasunez” ospatu Arrasateko “askapenaren” hamargarren urtemuga, 1946ko irailaren 26an. Aitzakia horrekin, fabriketan saiatu ziren inposatzen langileei goizez lanegun intentsiboa, arratsaldean pilota partidu batera joan zitezten. ASAM fabrikako langileek uko egin zioten horrelako maniobrari, benetako iskanbila eragin zuelarik, eta sikario falangistek onartu behar izan zuten langileen erabakia. Jarrera hark jarraipena izan zuen eta herri osoak jarraitu zuen. Horrela, Arrasateko langileek bihurtu zuten hamargarren urtemuga frankismoaren aurkako ekintza. ASAM enpresak, Industrial Mondragonesa, ELMA eta Magdalena Oslarekin batera, bere plantilan pertsona langileak onartu zituen, aurrez Unión Cerrajeratik kanporatuak izan zirenak “gorriak” izateagatik.⁶⁷²

1946ko udaberrian, Cruz Ugarte, Luis Mendizabal

eta Luis Garcia Españak eratu zuten JSUko Komite Lokala eta Eduardo Aparicio izendatu zuten komiteko arduradun.

1946ko udaberrian, Muruko lubakietan, faxismoaren aurka borrokan aritu ginen lekuan, 20 lagun bildu ginen bilera klandestino bat egiteko. Arriaranek hartu zuen hitza eta UGT berriro ere martxan jartzera animatu gintuen. Hilean, UGT-ko 2 pezeta kotizatzen hasi ginen, beste bi pezeta Juventudes-endako eta 5 pezeta gehiago gaixorik, behartsu edota lanik gabe zudenentzat. Cruz Ugarte zen diruzaina eta Juanito Mondragón arduraduna.⁶⁷³

Braulio Ochoa Abarrategui, Basilio Aguirre Trebiño eta Domingo Uribetxebarria Aguirreri, bakoitzari 500 pezetako isuna jarri zieten. Atxilotu eta Ondarretako kartzela probintzialera eramane zituzten, 1946ko martxoaren 26an, urte horretako inauterietan “Biba Errepublika! Biba Rusia! eta Biba komunismoa!” oihukatzeagatik. Garagartzako parrokoek, Jacinto Herrarte eta Joaquín Urrutia, esan zuten Basilio Aguirre Treviñok oihukatu zituela kontsigna haiek. Apirilaren 17an askatu zituzten, baina hilero, hilaren 10ean, 20an eta 30ean Arrasateko Guardia Zibilaren kuartelean aurkeztu behar izan ziren 1946ko abuztuaren 6ra arte. Kausa Gerra Jurisdikzioan zegoen eta Ohiko Jurisdikziora pasatu zuten.⁶⁷⁴

Gerraondoko gose urte beldurgarriak herritar gehienei eragin bazien ere, gerra galdutakoei askoz sakonago. Une batean Arrasateko tuberkulosoak ehunka izan ziren. Horregatik ireki zen 1946an Dipentsarioa Tuberkulosiaren aurkako zerbitzua, ospitale zaharrean jarri zena

Arrasatearrak erbestean

Marcelo Vitoriak, 1946ko maiatzaren 6an, Saratik gutun bat idatzi zien Tatxo Amilibiari eta Ricardo Ceciagari, biak Argentinan. Gutun hartan, informazioa igorri zien erbestean zeuden 25 arrasatearren inguruan: *Ez dut uste Celestino hemen dagoenik. Egongo da Ricardok zioen bezala “por nuestros pagos? Gallastegui Tarbesen jarraitzen du emaztearekin batera. Euzkadiko Juventudes Socialistas taldea antolatu nahian zebilen. Frantziar, Royan, La Rochele bolsak geratzen zirenean, Euskal Brigada antolatu zen. Alderdi sozialistako ezagun askok hartu zuen parte hemen, Martinez, Soralezeko Uriarte eta Kepa sukalde-kabo gisa, hau orain Tarbesen dago. Marcos,*

Anduaga, Herrera, Trincado eta Aranzabal, "Tambor", PSOEkoa uste dot, Toulousen daude Fermin Balanzateguirekin. Guillermo Lasagabaster Tarbesen dago, emaztea ekarri zuen hona. Salvador Laspiur Lyonon da. Duela gutxi afiliatu zen alderdian. ANVko Goitia Baionan. Ezkonduta dago eta aitagarrebaren piano dendan lanean. Nicolas Uriarte Biarritzen dago. "más nacionalista de los del FEL-jesuita que nunca". Alejandro Echevarria duela gutxi iritsi da Baionara. Txoferra da. Takolo anaiak eta Daniel Ugarte mendian, hirurak Espainiako mugan. Jenaro Ibarra Treviño Narbonne inguruan dagoela uste dut eta Presentacion Rodriguez Rodriguez "Montauban ondoan. Secundino Uriona Agirre Landetan dago.

Beste arrasatear batzuk ere badira, baina ez dakit nondik nora dabiltzan, mugikorak dira. Bergarako Fernando Espainian dagoela uste dut, gerrillatan, Galarra gaztea,⁶⁷⁵ Pilatos... Victor Ormazabal Saran dago eta "Sancho"ren anaia Arrasaten, nahiko izorratuta. Jose Otaduy hemendik pasatu da, "Joshe Chosha" famatuaren iloba. Toulousen egun batzuetan lan egin ondoren, El Havrera joan eta polizoi sartu zen itsasontzian. New Yorkeraino iritsi da.⁶⁷⁶

Celestino Uriarte. Txiletik borroka klandestinora.

Gerra amaitu eta hiru urtera itzuli ginen Arrasatera. Orduan hasi nintzen osaba Celestino ezagutzen. Orduko bertsioen arabera, osaba Celestino, gerrako gorabeheren ondoren, Txilen ei zegoen ondo baino hobeto enpresa batean lanean, eta bazirudien berak lagunduko gintuela pobrezia hartatik ateratzen.

Uste dut Txiletik 44an joango zela... Etxean ez genekien hemen zegoenik. Ez genekien non zegoen. Celestinok ez duela idazten, Celestinok ez duela idazten, eta halako batean, 45ean, arrasatear batek ikusi egin zuen. Hark aitari esan zion: entzun, Gregorio. Celestino ikusi dugu Valentzian. Ez inori ezer esan, isilik egon. Aitak orduan, pentsatu zuen Celestino klandestinitatean zegoela.

Hamar urte nuela ezagutu nuen, 1946an. Gure etxera etorri zen Bilbora. Amak zabaldu zuen kaleko atea, ni sukaldean nengoen, orduan sukaldean egiten zen bizimodua eta. Amaren oihu bat entzun nuen eta orduan sartu zen sukaldera. Berehala konturatu nintzen hura zela Celestino. Heroia, borrokalaria. Orduan esan nion: - Zu al zara gorria? Eta berak erantzun: - Bai, ni naiz gorria. Hamabost egun inguru egin zituen gurean. Alderdiko bilerak gure etxean bertan egiten zituzten. Handik hilabete batzuetara atxilotu zuten.⁶⁷⁷

Celestino Uriarteren atxiloteta eta torturak.

1946ko abuztuan atxilotu zuten Gijonen. José Sainz Gonzalezen aginduetara zegoen taldeak 43 egunez torturatu zuen komisarian. Sainz Santanderkoa zen. Bekoki zabala zuen, itxura onekoa, azkarra eta oso trebea. Galdeketetan, ez zituen berak atxilotuak kolpatzen edo torturatzen. Horretarako, bere lantaldea zuen. Haien artean nabarmentzen ziren bere hiru lekaio, Recaredo Gómez García, Ruiz eta Claudio Ramos Tejedor. Trantsizioan, ez zuen inolako zigorrik izan, ezta gutxiagorik ere. Bere karreran aurrera egin zuen eta kategoria altuagoko karguak eman zizkieten.⁶⁷⁸

30 urteko espetxe zigorra betetzera kondenatu zuten. Aurrerago, fiskalak heriotza zigorra eskatu zuen, Arrasaten 1934an izandako istiluengatik. Arrazoi hura zela medio, 1946ko irailaren 20an, Manuel de Irujo jeltzaleak gutun bat idatzi zion erbestean zegoen Espainiako Errepublikaren Ministerioari. Honela zioen gutunak: *Celestino Uriarte Arrasatekoa. Euskal Armadan Dragones Batailoiko buru izan zena. Asturiasen atxilotu ondoren, tratu basatiak jasan zituen. Orain, arriskuan dago epaiketa sumarisimo bat izateko. Gure esku dagoen guztia egin behar dugu ez dezaten exekutatu.*⁶⁷⁹

Hemen, Arrasaten, atxilotetaren berri izan genuenean, herri guztia paskinez bete genuen haren askatasuna eskatzeko. Sinadura bilketa egin genuen. Arriskutsua bazen ere, horretarako giroa bazegoen. Celestino estima handiko gizona zen herrian. Sinadurak igorri genituen Bilbora, Ingalaterrako kontsulatura, Oñatiko mandataria Atxaren bitartez.⁶⁸⁰

Celestino Txilen zoriontsu bizi zela uste genuen kartzelan zegoela jakin genuen arte. Gerrilletan harrapatu eta torturatu egin zuten. Ikaragarria izan zen. Familiari esaten ere ez ginen ausartzen. Nire anaia Tomasek sinadurak bildu behar genituela esan zidan ... eta guztiak atera ginen kalera sinadurak batzera. Nik orduan Carmetalen egiten nuen lan eta lanera orri zuriak eraman nituen lankideek Celestinoren alde sinatu zezaten. Inork ez zion sinatzeari uko egin. Ez nuen inor ezetz esaten entzun. Nik sinadurez beteriko orriak eta orriak ikusi nituen etxean. Egia esan arraro egiten zitzaidan. Haien kontra borrokatu ziren askok bere askatasunaren alde sinatu zuten. Eskuz esku aritu ginen sinadurak jasotzen Ingalaterrako kontsulatura bidaltzeko. Karlista batzuk ere sinatu zuten. Hauek bazekiten Celestinori esker ez

zitzaiaela ezer gertatu Bilbon atxilotuta egon zirenean.

Anaiak kontatzen zuen preso oso garrantzitsu bat iritsi behar zela esaten zietela eta Donostian epaitu behar zutela. Oso preso garrantzitsua. – Baina, nor izan zitekeen? . Segurtasun neurri zorrotzekin ekarri zuten Celestino. Hiru egunez inkomunikaturik izan zituzten. Leku berri batera iristen direnean Bazekiten han bat zegoela, baina, ez zekiten nor zen. Hirugarren egunean, udaberriko egun batean eta guztiak patioan eguzkitan zirela, ateak ireki eta hara non, Celestino agertu zen. Anaiak esan zigun berak ezin zuela sinetsi. Celestino. Eta harengana hurbildu zen. Batak bestea begiratu eta egundoko besarkada eman zioten elkarri. Besarkada honek jasandako neke guztiak arintzeko balio izan zuen. Guztia ahaztu zitzaion. Hilabetera, anaia etxera itzuli zen, baina, han egon zen denbora Celestinoren ondoan pasatu zuen. Berba egiten zuten, kontu kontari ibiltzen ziren, anaia pozik itzuli zen etxera. Egia esango dizut – Kartzelatik pozik etorri al da? Ba horregatik bakarrik, han Celestinorekin elkartu izanagatik. Asko gogoratzen zuen Arrasate.⁶⁸¹

Bitartean, biztanleak egundoko gosea pasatzen ari ziren. Hona hemen errazionamendua Gipuzkoan pertsona eta hilabeteko, 1946ko abuztuaren 15etik irailaren 16ra: litro erdi koko olioia; 200 gr. arroza, sei kilo patata; 300 gr. azukre eta 200 gr. azukre laukia. Estraperloan beste jakirik erosteko ez zutenen elikadura oso urria zen. Errazionamendu liburuxka haiek 1939an ezarri zituzten, eta 12 urtez iraun zuten.

20.4. 1947: borroken eta mobilizazioen urtea

Barruko erresistentziaren manifestua

1947ko otsailean argitara eman zen Barruko Erresistentzia Kontseiluaren Manifestua, Euskal Herriari zuzendua:

*Gaur egungo egoeraren aurrean, Euzkadiko Gobernuak gaitzetsi egiten ditu egoera bateraezin guztiak gure herriaren sentimendu errepublikanoen eta demokratikoen aurka. Konpromisoa hartzen du zintzotasunez euskal indar demokratiko guztien batasuna landuko duela eta horri eutsiko diola, denon etsaiaren aurrean borrokatzeko. Euskal Herriak bere iritzia askatasunez adierazi ahal izan arte. Gora Errepublika! Gora Euzkadi!*⁶⁸²

1947ko otsailaren 8an, CNT eta UGT bi erakundeen artean, Euzkadiko Lotura Sindikalerako batzorde bat eratu zuten. Erregioaren planoetatik lan-

postuetaraino. Adierazten dute euren borroka ez duela atsedetik izango erregimen politiko, faxista eta filofaxistak herrien administrazio garbi eta justu batez ordezkatu arte.⁶⁸³

Egun haietan, 1947ko otsailean sortu ziren UGT eta STVren artean Bitarteko Sindikalaren Komiteak, lehenengo Arrasaten eta gero Bergaran.

Arrasateko Unión Cerrajeran, baja boluntarioa eman zieten 600 langileetatik 78 besterik ez zituzten berriro lanean hartu, eta, gainera, atzeraeraginezko eskubideak kendu zizkieten. Idatzizko erreklamazio bat aurkeztu zuten Arrasatera iritsi zirenean, kontuan hartu ez zitzaizkien soldata eta sailkapen hobekuntzak eskatzeko.⁶⁸⁴

Bandera errepublikanoa 1947ko apirilaren 11an.

Bandera dela eta, kideei ezer esan aurretik, zenbait gautan, Portaloitik begira aritu nintzen ideia bideragarria zela ziurtatzeko. Egin zitekeela ikusi nuen. Ilargi gaua ez bazen, ia ez zen zutoina bereizten, eta lainotuta zegoenean ez zen ezer ikusten. Bandera jarri nuen gaua iluna izan zen. Ideia azaldu nien eta espero bezala begi onez ikusi zuten. Hasiera batean, pentsatu genuen bandera apirilaren 13an jartzea, baina iritziz aldatu genuen, pentsatu baikenuen gau hartan zaintza handia egongo zela; azkenean, hilaren 11n, larunbatean jartzea erabaki genuen. Hurrengo egunean eguraldi zoragarria zegoen. Eguzkiari itzala egiten zion bakarra zutoinetik bi metrora zegoen bandera eder hura zen. Uste dut txakurrak ere Portaloitik igaro zirela. Bergaratik bizpahiru kotxe etorri ziren bandera ikustera, horrekin guztia esanda dago, ezta, ala?

Gertatu liteke etxean banderarik nola izan genezakeen pentsa izatea. Lasai, ez ginen hain ausartak eta. Banderie eitteko, tela zurixe erosi gauen eta etxien tinttau gauen, pistaik ez emuteko. Apirilaren 11n zapatuan gabien Resusta kaletik (gaurko Iturriotz) bera noiela, gerri bueltan jarritte banderie, ixte muturrez aurrera jausi nitzen portailoien guardixie eitten euzen trikorniodun batzuekin. Beste guztixe samur-samurre izen zan, Olatxon kantoitik salto egin ormie barruko patixo batera, un patio donde tiene la cocina el Bar Mendi, por entonces vivía otra familia eta kasualidadez tabernako sukaldera emuten auen atie zabalik, eskerrak ez auela inor orduen, igo, jarri banderie eta jatsi, dana bost minutuen, suertie eukinauen, horreik bost minutuetan ez zan inor pasau handik, Caja de Ahorros Municipaletik,

izen be, ederto ikusten zan handik postie, gainera kalkuletan dot 35 metro altu zala. Portaloiien, ditxosozko parejiaz aparte, 30 pertsona edo gehixau egongo zan.” *Esta es la Historia de la bandera. Hurrengo egunien egundoko egunek urten auen, eguzkixai keizpie eitten eutzen bakarra zan poste gainean hauen bandera ederra, nahiz eta bi metro harutzau.*⁶⁸⁵

Euzkadi Roja aldizkarian ,1947ko maiatzaren batean berria ematen du:

Beasain, Eibar, Pasaia, ... herri guztietan agertu ziren banderak. Arrasatekoa apoteosikoa izan zen. Ordutan egon zen bandera haizearen eraginez mugitzen, eguerdiko ordu bi eta erdiak arte. Haren aurretik, bertako eta inguruko herrietako antifrankista guztiek desfilatu zuten. Egia esan, ez zen gutxiagorako. Herri erdian zegoen jarrita, guztion begien bistan. Hain altu zegoen, inor ez zen ausartu bandera kentzen.⁶⁸⁶

*Nik Viteri eskolako patioko burdin hesietatik ikusi nuen bandera errepublikanoa. Telefonicarean eraikinaren ondoko zutoinean zegoen. Pertsona nagusiek Portaloiatik ikusten zuten. Nik paretik ikusi nuen. Jendeak komentatzen zuen bandera hara gora igo zuenak demaseko “potroak” zituela. Nork kendu zuen ere ikusi nuen, Ricardo Zabaleta izan zen, karlista bat Círculoko etxean bizi zena. Igo, kendu eta lurrera bota zuen. Eguerdi aldera izango zen hori.*⁶⁸⁷

*Karlista batek Ricardo Zabaletak “Cañardo” igo zauen eguerdiko ordubietan postera eta banderia lurrera bota zuen. Sari bezela kuartelean pistola bat eman zioten.*⁶⁸⁸

Sarekadak

Sarekada bat egon zen eta Gasteizen genuen lotura atxilo eraman zuten. Tomas Ruiz de Alegriak Frantziara ihes egin zuen. Hilabete batzuetara itzuli zen eta logikoa denez, preso eraman zuten. Hiru hilabetez eduki zuten preso muga klandestinoki igarotzearren, ez zioten beste kargurik leporatu. Itzuli ez zena Luis Badiola Carecha izan zen, hura ere saltsan sartuta zegoen eta. Luis Badiola jendarmeez atxilotu eta kuartel batera eraman zuten. Han, iheslari politikoa zela deklaratu zuen eta ea zein alderditakoa zen galdetzean, alderdi komunistako kidea zela esan zuen. Hura entzutean, bi aukera eman zioten, mehatzetan lan egin edo kartzelara. Kartzelara joatea erabaki zuen. Han, gaixotu eta denbora gutxira hil egin zen. Gora Frantziaren abegikortasun ona!

*UGTri buruz ezin dizut eman detailerik. Izan ere, gu aktibo geundenean ez genuen izan inolako kontakturik. Uztailetik aurrera, kontaktu guztiak galdu genituen. Nik jakin banekien jarraipena egiten ari zitzaidala, eta erabaki nuen aktibo egotetik pasibo egotera pasatzea. Ez nuen egin inolako saiakerarik inorekin harremanetan jartzeko. Horren ondoren, hirutan deitu ninduten kuartelera joateko, arrazoi ezberdinengatik; baina guztiak politikarekin lotuta. Osasuna Pello.*⁶⁸⁹

Irrati klandestinoak

Urte haietan gehien entzuten ziren irrati klandestinoak ziren Radio España Independiente, Estación Pirenaica, zeinak egunero transmititzen zuen uhin laburrean, eta Radio Euskadi, Londresko BBCrekin eta Radio Parisekin batera, nahiz eta frankisten interferentziak izan. Irratiek eta prentsak diktadura frankistak baimendutako berriak soilik ematen zituzten, eta hura zen modu bakarra zentsura frankista apurtzeko.

Greba eta hau bertan behera uzteko deialdia Deba Garaia.

1947ko maiatzaren leian Bilbo aldean milaka langilek hartu zuten parte greba orokorrean. Haietatik 14.000 lanetik kanporatu zituzten. Horrek ekarri zuen Bizkaian grebaren iraupena luzatzea. Gipuzkoan, aldiz, ez zen egon lanuzterako deialdirik, egun hartan Bizkaiarekiko elkartasuna adierazteko.

Arrasaten, Maiatzaren lehenengorako, manifestazio deia egin zen, UGTk eta Solidarioak antolatuta:

*Manifestazioa egitekoa ginen Unión Cerrajerako langileek lanetik irteterakoan, arratsaldeko 6 eta erdietan, baina elurtea hain gogorra izan zen, manifestazioa bertan behera utzi behar izan genuen.*⁶⁹⁰

Greba Bizkaian egun batzuk egin arte, Gipuzkoan ez zen egin Bizkaiarekiko elkartasun deirik. Udalerrri haietako Erresistentziarako Komiteek dei egin zuten maiatzaren 8rako borroka solidarioa. Ondorengo deialdia Aretxabaletan jendarteratu zen:

Euskal Erresistentziarako Ordenua

Maiatzaren Lehenean – lanaren jaian – jai egiteagatik Bilbon kaleratu dituzten 14.000 lankideei elkartasuna adierazteko, Leintz bailara osoak lanera joateari utzikodio, maiatzaren 8ko lehen ordutik eta ordenu berri bat izan arte.

Gora Langileen Batasuna!

Gora Euskal Erresistentzia!.⁶⁹¹

Debabarrean Eibarren, Elgoibarren eta Sorluzen 8an ere huelga hasi zuten. Debagoienean, ordea, UGT eta Solidarioak egindako akordioaren arabera, huelga hurrengo egunerako deitu zuten, maiatzaren 9rako.

Arrasaten

Jose Maria Arriaranek zera kontatzen du: *Maia-tzaren 8an, Trenbidean elkartu ginen Osiñagatik hurbil, PNVko Roman Bidaburu Aranburuzabala (Amaiurko kapitaina izandakoa), SOVeko Eustasio Markaide Larrañaga (Errepublikan ANVko zinegotzi izandakoa), UGTko Tomas Ruiz de Alegria Balanzategi eta lauork (ni PCEko ordezkari moduan). Azken biok borrokatu ginen Dragones batailoian, ni teniente graduarekin).*

Adostu genuen burubelarri lan egitea egun batez jendartean, hurrengo egunean Arrasate osoan huelga orokorra deklaratzeko, kontsigna ahoz aho igaro zen, eta igartzen zen huelga handia izango zela.

Era berean, urduritasuna sumatzen zen indar frankisten artean, zeren eta gaueko 9etan lehenbiziko aldiz pregoilariak (Torres) bando bat irakurri zuten Arrasateko kaleetan esanez: *“Mugimendu Nazionalaren izenean, neurri oso zorrotzak hartuko dira huelgan parte hartuko dutenen aurka, errebolta militar delitua delako”*. Bestalde, erreketek, pistolak eskuan zituztela, herriaren erdialdea zeharkatzen zuten, txilioka eta garraxika, eta esaten zuten hurrengo egunean Portaloian odola isuriko dela.

Gaueko 12ak inguruan nire etxeko atea jo zuten, eta galdetu nuen: nor da? eta SOVeko Esteban Zaitegi Zeziaga “Palmeño”k (Amaiurko gudaria) erantzun zidan, etxean sartu zen, eta esan zidan:

“Ferixaleku berrian urgentziazko bilera bat dago, Huelgaren Komitekoa”. Gehitu zuten: “Kontuz joan zaitetz guardia zibilak eta erreketek patruilatzen dabiltzalako”. Esteban eta biok elkartu ginen, eta ez zen inor ageri. 4 eta erdietan eguna argitzen zuten. Ordu horretan etxera joatea zaila zenez, Zigarrolako Arrue baserrira joan ginen, Jose Migel Egidazurengana (Amaiurren teniente izandakoa). Gertatu zitzaiguna kontatu genion. Egidazu goizeko 7etan herrira joan zen eta 8etan, bueltatzerakoan, esan zigun guztiak lanera zihoazela, baita seguruenik huelga egingo zuten

jendearen izenak ere.

Gero, gure kontaktuarekin Tomás Ruiz de Alegría hitz egin nuen, eta esan zidan Eibartik mutil batzuk etorri zirela, Komiteak bilera egiteko eta huelga bertan behera geratzeko, berari esan ziotela Komiteak adierazi zuela huelga bertan behera uzten zela. Esan zioten ere ni bilera horretan egon nintzela, eta kontra ordenua jarraitzaileen gehiengoari komunikatu zitzaiola.

*Ziurtatu ahal izan genuen bakarrik hainbat eibartar Arrasaten egon zirela. Baina, Eibartarrek loturak ezagutzen ez zituztenez, ezinbestean, Arrasateko jendeak parte hartu behar izan zuen hartan. Nortzuk eta zergatik? 42 urte igaro dira eta ez dut oraindik ulertzen. Gertaera haien ondorioz, Eustasio Marcaide muga pasatzen saiatzen ari zela atxilotu zuten, eta Tomás Ruiz de Alegría Frantziara egin zuen ihes.*⁶⁹²

Mobilizazioek Elizaren Hierarkiaren interesa pizten dute.

Greba hark oihartzun handia izan zuen Estatu Espainiar barruan zein kanpoan. Horren adibide izan zen Cayetano Cicognanik, Aita Santuaren nuntzioak Espainian, 1947ko ekainaren hasieran karta pertsonal bat eta erreserbatu bat bidali izana Euskal Herriko artzapez barrutietara, bertan erantzunak eskatzeko:

- *Motivo y carácter de la huelga.*
- *Organizaciones o elementos que la promovieron o secundaron*
- *Proporciones que el paro obtuvo en los diversos centros industriales y actitud de la población ante el hecho*
- *Medidas gubernativas adoptadas y derivaciones que de ellas han resultado. Estado de ánimo de la población por tales motivos.*

Ekainaren 18an Arrasateko parrokoa Jose Luis Iñarrak nuntzioari erantzun zion:

Leintz ibarrak hiru gune industrial ditu. Eskoriatza bostehun langilerekin, Aretxabaleta mila bat langilerekin eta Arrasatek bi mila eta bostehun produktorekin, bi sexuetakoak.

Arrasaten, maiatzaren lehenean kontzentrazio baketsu bat ospatzekoa zen, disimuluz, erdialdeko toki batean, arratsaldeko sei eta erdietan, baina ez zen egin eurite baten ondorioz. Tabernak jendez bete ziren jai egunen itxura emanaz. Egund horretan, besteetan ez bezala, ez

zuten lanaldia amaitu ondoren ordu estrarik egin.

Tokiko Erresistentzia Komiteak, UGTko elementuz osatutakoa (ezkertiar gehiengokoa), baita STV-ko ez ere (katolikoak), huelgaren agindua eman zuen maiatzaren 8ko arratsaldean eta gaualdean. Badirudi kontra ordenu bat jaso zuela, une egokian langileei komunikatu zitzaiena. Bazirudien langileen % 80ek gutxienez lanuztea egingo zuela.

Aretxabaletan kontra ordenu pixka bat berandu heldu zen, eta ondorioz han % 90 ez zen lanera joan goizez, eta arratsaldean huelga erabatekoa izan zen.

Eskoriatzan huelga hastekoa zen maiatzaren 9ko eguerdian, Arrasaten eta Aretxabaletan egin ondoren, baina Arrasaten bertan behera geratu zenez, han ez zen huelga egin.

Huelga egiteko ordenuaren motiboa izan da langile haiek daukaten gogo bilbotarrei elkartasuna adierazteko. Argi dago langile masan politika gero eta barneratuago dagoela. Orain arte kezka nagusia zegoen beste arazo batzuen inguruan: hornidura, etxebizitza. Gero eta konbentzituagoak daude ez duela ezertarako balio beste gauza batzuentatik kezkatzea, eta urgenteena euren ustez errejimena aurka borrokatzea dela, eta errejimena deuseztatu ondoren beste gauzak konponduko direla.⁶⁹³

Greba politiko bat frankismoaren aurka

1947ko maiatzeko greba politikoaren helburua izan zen barruan zein kanpoan adieraztea erreprezioaren gaineratik posible zela diktadura frankistaren aurka denok batera borrokatzea. 1947ko maiatzeko greba izan zen aurreneko greba politikoa frankismoaren kontra. Hiru zentral sindikalen borroka batasunak (UGT, CNT eta STV) eta Erresistentzia Juntaren babesak (euskal alderdi politiko guztiak ordezkaturak zeuden juntan) posible egin zuten gerra amaitu zenetik berrogei mila langilek batera borrokatzea diktaduraren kontra.

Erantzun solidarioak Gipuzkoan, non gutxienez sei herrietako lantegiek euren jarduna geratu zuten (Aretxabaleta⁶⁹⁴, Elgeta,⁶⁹⁵ Eibar,⁶⁹⁶ Elgoibar, Soraluze,⁶⁹⁷ eta Bergara,⁶⁹⁸ azken hori Agustin Unzurrunzaga “Xabale” solidarioaren heriotzagatik)⁶⁹⁹ eta horretarako ezinbestekoa zela elkartasuna indar antifaxisten artean erakutsi zuen posible zela elkartasuna zabaltzea.⁷⁰⁰ Aukeraturakoa unea ere egokia izan zen, handik bi hilabetera, uztailaren 6an, Erregimenak ospatu behar

zuen Estatuko Ley de Sucesión Legeari buruzko Erreferenduma. Estatuko buruzagitzak jasotzen zuen: “*España se constituye en Reino, estado católico y social, la Jefatura del Estado corresponde a Franco y en caso de muerte le sucederá la persona de sangre real con mejor derecho*”. Hau da, Espainia erregerik gabeko erreinu bihurtuko zen. Hona hemen helburua: “Normaltasun konstituzional aldi batean sartzea”. Nazioartean diktadura onartzea nahi zuten, Juan de Borbónen asmo monarkikoak desaktibatu eta oinarriak finkatu nahi zituzten, etorkizunean Franco ordezkaturakoa zuen frankismoak prestatutako eta trebatutako errege bat jartzeko, eta horrela izan zen.

Erreferendum fartsa: Franco EZ

1947ko uztailaren 6an, prentsa, irrati, txartel, mitin, herrialdeetako gobernadoreen bisitak herriz herri eta elizaren hierarkiaren laguntzarekin, hilabeteak iraun zuen kanpaina handia egin zuten. Kanpaina hartan bigarren errepublikaren aurka jo zuten kolpistek soilik zuten hitza eta Erregimen Frankistak Ondorengotza Legearen erreferenduma burutu zuen Estatuko Buruzagitzan. Honela adierazten zuen prentsak: *Gipuzkoar katoliko zintzo guztiek Bai borobila bozkatuko dute erreferendumean. 1936ko belaunaldia Jainkoaren, Espainiaren eta Francoren alde agertuko da. Diktaduraren ikasgaia da Espainiako xede gorenak ezin ditugula alderdikierien esku utzi.*⁷⁰¹

Bitartean, klandestinitatean, erreferendumean parte hartzerik ez izateko ari ziren lanean. *Alderdikide bat Magdalena Oslako erdi bazkidea zen. Hango bulegoko makinan egin genituen esku orriak kalkoak erabiliz. Gau osoak eman genituen orriak atera eta atera. Alderdiko militante bakoitzak ziurtatu behar zuen orri bakoitza gutxienez 10 pertsonarengana iritsi behar zela.*⁷⁰²

Orri haietako bat zen 1947ko uztailaren 6ko erreferendumean erabiltzeko. Orri honen bidez frankisten kanpainaren laburpen bat zabaldu genuen:

Beldurrik izango ez balute, ez lukete mehatxatuko. Ez lituzkete xahutuko milioiak propagandan. Ez lukete hainbeste erabiliko prentsa eta irrati. Ez lirakeke baliatuko gobernadoreen bisitez. Ez lukete euskara erabiliko, gorrotatzen baitute. Ez lukete eskatuko gotzainen laguntza. Ez lituzkete erabiliko pulpituak euren propagandarako. Gaur arte hainbeste mespretxatu duten eta oraindik ere mespretxatzen duten herriaren iritziaren beldur dira, baina hainbeste behar dute haren babesa, non ez duten inolako

¿ Como votar

en nuestro Referendum ?

La contestación es sencilla. Votar afirmativamente en el referendun franquista, equivale a decir « Franco, sí », puesto que él se erigirá en Rey. Votar negativamente, equivale asimismo a decir « Franco, sí », ya que él continuaría en el poder. Pues bien, nuestro voto ha de ser, no puede ser otra cosa, que un rotundo ¡ **FRANCO, NO !**

Es el denominador que a todos nos une. El grito que nace en todos nuestros corazones ; el que pugna constantemente por asomar a nuestros labios.

Vosotros los que contáis un padre, un hermano, un hijo, un pariente o amigo entre los asesinados, gritad ¡ **FRANCO, NO !**

Los que perdistéis en los frentes alguien de vuestra sangre : los que cuentan en su familia alguna víctima de los bárbaros bombardeos aéreos, gritad ¡ **FRANCO, NO !**

Quienes sufristéis prisión, conocistéis campos de concentración o formastéis en los llamados batallones de trabajadores ; quienes contáis algún deudo entre barrotes o alambradas, gritad ¡ **FRANCO, NO !**

Aquellos que perdistéis vuestra propiedad en los raids de la aviación germano-franquista, o por la artillería o por el fuego ; los que vistéis saqueadas vuestras casas, robado vuestro ajuar, incautados vuestros talleres ; los que fuistéis multados ; los que perdistéis los puestos que ocupabáis en corporaciones o empresas de cualquier clase ; quienes os vistéis robados en vuestra clínica, en vuestro bufete, en vuestra clientela comercial, industrial... ; aquellos a quienes se prohibió, o aun se prohíbe, el ejercicio de su profesión, gritad ¡ **FRANCO, NO !**

Los padres de familia que contempláis impotentes cómo la tuberculosis consume al hijo insuficientemente alimentado o le veis roído por lesiones que se originaron en la cárcel ; los que lucháis en vano por llevar a vuestras casas nada más que el pan bastante para matar el hambre de los vuestros, gritad ¡ **FRANCO, NO !**

¿ Sois patronos honrados ? En respuesta a las socalifias y exacciones continuas de que sois víctimas, gritad ¡ **FRANCO, NO !**

¿ Sois obreros ? Contemplad la tristeza de vuestros hogares. Recordad que miles de hermanos vuestros sufren hoy una grave reducción en sus salarios, ya antes míseros. Acordaos de aquellos otros muchos que han sido expulsados de sus fábricas y condenados inmisericordio-

Franco Ez.

samente al hambre. No olvidéis a los camaradas aun presos, ni las torturas a que se vieron sometidos. Gritad, ¡FRANCO, NO!

Y si en ninguna de esas categorías — aun cuando ello es difícil — os consideraréis incluidos. ¿Sois hombres dignos? ¿Os preciáis de serlo? Pues, entonces, por odio hacia la injusticia, por caridad para con el humilde y perseguido, por asco ante la corrupción, por repugnancia innata a la prodredumbre, por rebeldía de la dignidad humana ante el pisotón de la bota militar, por limpieza de alma, por decoro, por vergüenza... ; en nombre de todo lo santo y bueno que en vosotros haya y que quisieráis respñandeciera en vuestros hijos, gritad con nosotros :

¡ Franco, NO !

¡¡ Franco, NO !!

!!! Franco, NO !!!

EL PRECIO DE NUESTRO REFERENDUM.

Si. Iremos muchos a la cárcel. En toda Euzkadi diez mil, veinte mil... Acaso más. Pero este sería nuestro mayor triunfo. Porque, entonces, el referendum de Franco se habría derrumbado, su prestigio en el interior como en el exterior, ya tan minado, quedaria reducido a cero ; la unanimidad en su favor de que tanto alardea, desmentida conjuntamente.

El dictador se encontrará ante un dilema. Si encarcela a miles de hombres y mujeres, el exterior le derribará apoyado en los hechos. Si muestra lenidad, será el interior, seremos nosotros, quienes ahogue mos la dictadura. La carta a jugar será para él en aquel momento de importancia decisiva. Por lo tanto, también para nosotros.

Debemos, en consecuencia, afrontar la cárcel : y a cara descubierta. Mujeres, hombres de toda edad y condición... ¿ No la afrontaron en mayo nuestros obreros ? ¿ Por qué razón no la desafiaremos ahora todos ?

Unos días, unas semanas acaso de cárcel, contra la caída de Franco. Esta es la puesta en la partida que vamos a jugar. Con ella a la vista, serenos, confiados, preparémonos a nuestro referendum.

¿ Franco, rey ? ¿ Franco, dictador ?

!!! Franco, NO !!!

Si no tuvieron miedo, no recurrirían a las amenazas. Ni gastarían millones en carteles. Ni emplearían tan intensamente la prensa, la radio. Ni echarían mano de las visitas de los gobernadores. Ni emplearían el euzkera, que les repugna. Ni mendigarían la colaboración de los Obispos. Ni utilizarían los riluitos para su propaganda.

pero tienen miedo, un miedo incontenible, a la opinión del pueblo. Y por eso culeren falsearla, violarla, prostituirlo, a fin de presentarse luego ante el mundo como apoyados por esa misma opinión a la que han despreciado hasta hoy, a la que aun hoy desprecian, pero de la que necesitan tanto, que no vacilan en falsearla monstruosamente para fingir que les apoyan, cuando la necesidad mostraría a todo un pueblo gritando el "Franco", no, que ha de ser nuestro tope de clarín en el combate.

Nadie va a votar. Tampoco tú.

DIWUNDE, CUMPLE Y HAZ CUMPLIR LAS CONSIGNAS QUE IRAS RECIBIENDO.

Magdalena Oslako lantegian egindako paskiña.

zalantzarik egiten modu nazkagarrian hau falsutzeko herriak babesten dituela adierazteko, beharrak erakutsiko zuenean herri oso bat Franco EZ! Oihukatzen, horrek behar baitu izan gure borrokarako turuta deia

Inork ez du bozkatuko. Ezta zuk ere.

Zabaldu, bete eta betearazi itzazu jasoko dituzun kontsignak.

Errepresio genozida batez errepublikar konstituzioaren aurka eta haren iritzi berekoak ez zirenen aurka armak altxatu zituztela hamaika urte igaro ondoren, euren burua garbitu nahi zuten. Francok hitz hauekin baieztatzen zuen hura: "Helburua izango da normaltasun konstituzionalaren aldiari sartzea". Nazioartean diktaduraren onarpenaren bila ari ziren, Juan de Borbónen (Alfonso XIII.aren semea) asmo monarkikoak desaktibatu nahi zituzten eta oinarriak finkatu nahi zituzten, etorkizunean Franco ordezkatzeko zuen frankismoak prestatutako eta trebatutako errege bat izendatzeko. Eta horrela izan zen.

Erakunde antifaxistek euren indar guztiak jarri zituzten jendea bozkatzera joan ez zedin Franco EZ! lemapean. Hona hemen kontsigna: Inork ez du bozka emango. Ezta zuk ere!" Paskinak era masiboan banatu ziren. Horrela zioen Arrasaten, Lucio Urionabarrenecheari aurkitu zioten paskinak:

Erreferendum frankistan baiezko bozka emateak Franco Bai! esatea da... elikadura eskasarengatik tuberkulosiak jota dagoen semea edo kartzelaren eraginez apurtuta

ikusten duzuen eta ezer egin ezin dezakezuen familiako aitek gogoratu itzazue lantegietatik kanporatuak eta errukirik gabe gosea pasatzera zigortuak izan diren guztiez. Injustiziarekiko gorrotoarengatik, pertsona umilenganako karitatearengatik, ustelkeriak eragiten duen nazkarengatik, bota militararen zapalkuntzaren aurka giza duintasunaren errebeldiarengatik, lotsarengatik, gurekin batera, ozen, oihu egin ezazue, Franco Ez!

Bai. Kartzelara joango gara. Euskadi osoan, hamar mila, hogeita mila, agian gehiago. Franco erortzearen aurka hau da jokatu dugun partidari egingo dugun apustua. Hau ikusiz, lasai, gure erreferenduma itxaropentsu prestatu dezagun. Franco Ez!

Uztailaren 6an, goizeko ordu bietan, guardia zibilek Lucio Urionabarrenechea Aguirre eta José M^a Echevarria Goenaga atxilotu zituzten Arrasateko Ferrerías kalean. Erreferendumaren aurkako propagandarekin. Lehenengoari erreferendumaren aurka hiru propaganda orri aurkitu zizkioten.

Herriko frankistek kanpaina indartsua jarri zuten abian Guardia Zibilaren eta erreketen eta falangearen soldadu ohi askoren babesarekin, beldurra zabalatzeko, herritarrak bozkatzera joan zitezten. Uztailaren 6an, arrasatear asko eta asko mendira joan ziren, goizean goizetik, eta han igaro zuten eguna bozkatzera joan behar ez izateko.

Bozketaren emaitzak hurrengo egunean eman zituen Arrasateko prentsa frankistak. - Iruzurra? Hona hemen emaitzak: 4.601 pertsona zeuden

erroldatuta herrian. Baiezkoa botoak: 3.482; abs-
tentsioak: 838; aurkako botoak: 164; boto zuriak:
117. Frankistek onartu behar izan zuten bozkatzeko
eskubidea zuten mila pertsonatik gora ez zutela
bozketan parte hartu.

Berriro erbestera

Arrasaten greba haren ondoren, handik hamabost
egunera, Eustasio Markaide atxilotu zuten. Aske utzi
zutenean, esan zigun Tomas Ruiz de Alegriaren izena
asko aipatzen zela. Heriz familiaren etxean ezkutatu
genuen, eta Gregorio Laspiurrek mendiz Hernaniraino
eraman zuen. Handik Frantziara pasatu zen.

1947ko uztaileko erreferendumean, Zarauzko ardura-
duna (Agirre, Basarri bertsolariaren iloba) atxilo eramán
zuten Alderdi Komunistaren propaganda aldean zeramala.
Hark nire izenaz ezagutzen ninduen ni. Ni hurrengo
egunean ezkondu behar nintzen. Bagenekien Melitón
Manzanasek torturatu egin behar zuela, eta horrela izan
zen. Baina hiru egunez torturak jasan zituen eta hiru
egun horien buruan esan zuen arduradun nagusia ni
nintzela. Eztei bidaiari nengoan etxera ni atxilotzera
joan zirenean. Logroño eta Iruñean egon ondoren, Do-
nostiara iritsi ginen. Victor tabernan bazkaltzen ari
ginela, hiru arrasatear sartu ziren. Haietariko bat Isidoro
Echevarria zen. Nire buruari esan nion: ez du ezer esan
edo uste du ni lasai asko Arrasatera joan eta han
atxilotuko nautila. Oleaga baserriko bat zegoen han eta
ezkontzagatik zoriondu gintuen. Tenez joan ginen Zu-
marragara. Han, Bergarako alderdikide bat genuen zain.
Esan zidan ni atxilotzera joan zirela. Azpeitiko helbide

bat idatzita zuen paper bat eman zidan, eta ni trenetik
jaitsi nintzen. Emazteari esan nion etxean bakarrik sartu
beharko zela, eta Urolako trenean Azpeitira joan nintzen.
Han, alderdikoa zen bat bizi zen, Bergarako Lonbide
tabernakoa. Hiru egunez izan nintzen han, esan zidaten
arte muga pasatu behar nuela. Guardia Zibilaren sarjentu
batek pasatu ninduen Behobia eta Biriatu artean. San
Martzialera igo, handik artasoro batera jaitsi, trenbidea
eta Bidasoa ibaia zeharkatu. 1947ko uztailaren 14ko
goizeko hirurak ziren.⁷⁰³

Juan Cruz Aramburu Zabaleta 1947ko uztailaren
25ean pasatu zen Frantziara. Alderdiak utzitako
motora batean pasatu zen Donostiatik Donibane
Lohitzunera. Gerra aurretik, EAJ eta Ezker Erre-
publikarreko militantea izan zen. Azken horretan
militatu zuen gerra amaitu zen arte. Gerran, Inten-
dentsia Militarrean egon zen Uriartek bidalita. Au-
rrerago, frentera joan zen Gomez karabiniereen te-
nientearekin batera, eta Bilbo erori aurretik, Bilboko
lehen epaitegian ibili zen lanean. Indarrekin batera
Santandererantz abiatu zen, baina, han, Asturiaserako
paso moztu zioten. Egun batzuetan ezkutuan egon
zen eta gero Arrasatera itzuli zen. Hemen egon zen
1940 arte, orduan egin zuen ihes Galiziara, atxilotuko
zutenaren beldur.

Galizian harakin aritu zen eta Alderdi Komu-
nistarekin hasi zen lanean. Han egon zen 1945era
arte. Urte hartan, eta Francok Galiziara egindako
bisita bat zela medio egun batzuetan atxilotuta
eduki zuten. Aske utzi zutenean Bilbora joan zen



Jose Maria Arriaran Ortueta eta
Eulogia Sanchez Atorrasagastiren
ezkontza ihesi joan aurretik.



1950ko irailaren 9an ELMAko langileak: Luis Ibañez Txomin Txiki, Esteban Etxabe Muxibar, Toribi Garay Caxan, Aguirre Belarru, Gregorio Orobengoa Zapaterito, Maria Luisa Telon, Filo Baltza, Lucio Marcaide, Sabina Leibar, Juanita Dos Chaquetas, Rosa Galván, Menchaca, Merche Vitoria, Anita Herrera, Luisita Cacho, Gregorio Arregi Legarre, Bernardino, Zubizarreta... Valeriano Martinezen argazkia.

eta denbora batez kontrolik gabe egon zen. 1946an, Celestino Uriarte propaganda banatzeko erabiltzen hasi zen urte bereko maiatzera arte. Orduan hasi zen alderdiko ordezkari gisa Bizkaiko Erresistentzia batzordean. Kargu hartan mantendu zen Frantziara joan arte. Frantziara joateko arrazoia izan zen Erresistentzia batzordeko kide bat atxilotu izana propaganda paketa batzuekin, 1947ko uztailaren 5eko erreferendumaren aurka. Atxilotuta zegoela, hark Erresistentzia batzordeko kide guztiak salatu zituen. Guztietatik, berak eta EAJko ordezkariak bakarrik lortu zuten ihes egitea.⁷⁰⁴



Ignacio Cortabarría Larsanguren erdian dagoena da.

Gaizka (Salvador) Amuchategui Celaya eta Jesusa Ateka Erostarbe, biak euskal nazionalistak, lehena jaio zen Elantxoben eta bigarrena Mungian; heldu ziren Arrasatera gerra ostean, deserriratu zituzten euren herrietatik. Jesusarekin batera etorri ziren bere neba-arrebak: Maria Luisa, Matxalen, Patxi eta Ignacio.

Gaizka eta Jesusa atzerriratu ziren Iparraldera. Itzulitakoan, Gaizka atxilotu egin zuten, eta eroan zuten langileen batailoi batera, Gibraltarko haitzaren aurrean. Geroago, Arrasatera itzuli eta lanean hasi zen, baina haren asmoa zen ihes egitea Frankoren Espainia hartatik. Eta halan, aukera bat etorri zitzaion: 1947ko ekainean British Council-ek gonbidatu zuen Londresko Espainia Institutua bidali zitzan Espainiako dantza talde batzuk urteko zeltiar jaialdi batera, Galesen... Ezin izan zuten lortu txistulari banda bat, gonbita onartuko zuena. Donostiako Emakume Sailak agindu zion Arrasatekoari Amuchategiren zerbitzuak eskatzeko. Hark poz-pezik onartu zuen...

(Jardun eta gero) Lehenengo egun librean Londresen, Galestik bueltan, Delegazioan agertu eta bere historia kontatu digu. Baieztatua Venezuelatik, eroan dugu Home Office-ra, Arrasatera bueltan eroan behar zuen



Gaizka Amutxategi eta Jesusa Ateka



1947ko Santa Ageda egunean, beste batzuen artean Luis Bengoa, Jesus Berezibar, Angel Ezkurra Arocena Galarra, Joseba Bengoa, Pedro Vega...

hegazkinak irten aurreko egunean. Hegazkina joan da Amuchategi barik... Venezuelako enbaxadak bermatu du Amuchategiren emigrazio bisatua... Herrialdetik irten aurretik, Amuchategiuk euskal musikako hainbat programa egin zuen BBCn, horietan Aita Urrutiak prestatzen zituen hitzaldiak.⁷⁰⁵

Behin Venezuelan bizitzen jarria, 1948an, ahalordez ezkondu zen Jesusarekin, zeinak jarraitzen zuen Arrasaten, hura elkartu zedin berarekin. Jesusari ukatu egin zioten irtetea; horregatik Gaizkak Venezuelako elizara jo zuen, euskal elizaren bidez tramitatu zedin dibortzioa; orduan baino ez zioten utzi irteten Jesusari.⁷⁰⁶

Ignacio Cortabarría Larsanguren, “Kaki” izan zen beste atxilotu bat urte hartan.

Santa Ageda egunean, jai handia egoten zen, arratsaldean lantegi askok jai ematen zuten, bertako taberna batean txikito bat edaten zeuden Jesus Moreno, Joseba Bengoa eta Ignacio, eta harek Frankoren argazki bati esan zotzan: *Yo bebiendo y tu no... Eta ardoa bota zotzan. Batek parte eman eta atxilotu egin zuten. Epaiketa aurretik Frantziara ihesi joan zen. Urte askotan zirko batean lanean ibili zen.*⁷⁰⁷

1947ko otsailaren bostean, gaueko bederatzietan, ostatuko jabea, Victorino Eriz Iriondo, Guardia Zibilaren kuartelera joan zen. Hark azaldu zien ostatutako tabernan zuen Franco Jeneralaren koadro bati norbaitek ardo basokada bat bota ziola eta

dena zikindu zutela. Felipe Loidik eta besteren batek esan ziotela *Caqui* gaitzizenez ezagutzen zuten gizon bat izan zela, baina, berak ez zuela ezer ikusi. Hurrengo egunean, otsailaren 6an, atxilotuta eraman zuten. Otsailaren 13an, Isidro Echevarria alkateak eman zuen aditzera *harengan portaera moral ona ikusi zuela*. 1947ko maiatzaren 31n askatu zuten.⁷⁰⁸

Mobilizazioak

ELMAko mobilizazioak. Enpresak zituen 42 langile urtzaileei soldatan 5 pezetako igoera ukatu ondoren, haiek erabaki zuten ordu estrarik eta zereginak ez egitea. 15 egunez mantendu zuten langile guztiek batera jarrera hori. Egoera hark % 40ko murrizketa suposatu zuen produkzio orokorrean. Borrokan zeuden langileen elkartasunaren eta tinkotasunaren aurrean, enpresak bere jarrera zorrotzean amore eman zuen eta 42 urtzaileek amaitutzat eman zuten gatazka. Soldatetan eguneko 3 pezetako igoera lortu zuten.⁷⁰⁹

Erresistentzia bizirik zegoela ikusteko, beste ekintza bat izaten zen suak mendietan piztea:

*Murugañen sue ixoketan hauien Aberri Egunien. Gañera, Mondrauetik ederto ikusten zan. Guardia zibilak zainketan egon arren, sua ixotu eta anka eitten hauien guardia zibilak bertara etorri aurretik. Luis Bengoa, Jesus Berezibar eta kuadrillakuek ibiltten zien.*⁷¹⁰

Grupo San Juan

1947ko San Juan egunean, Grupo San Juaneko lehenengo harria jarri zuten. Etxeak eraiki behar ziren Francisco Solaren palazioan.

20.5. 1948: Atxiloketak. Kontraesanak antifrakisten artean

Zozimo Olmedo zen nazionalistekin koordinatzen zuena. Hura atxilotu zutenean, Frantziara egin genuen ihes Paco Goronaeta, Isidro Apaolaza Legutianokoa eta hirurok 1948ko apirilaren 17an. Gidari baten laguntzarekin, Bera aldetik igaro genuen muga.⁷¹¹

Tomas Ruiz de Alegria, nire anaia, Frantziara pasatu zen. Sei hilabetez egon zen han, bere bila joan behar ziren abisu bat jaso zuelako kartzelatik. 6 hilabetez egon zen Frantzian. Hegazkin lantegi batean egon zen lanean Toulousen. Gabonetan etortzeko esan zioten eta horixe egin zuen. Egun gutxiren buruan, bera beti joaten zen lekuan hasi zen lanean. Bi polizia etorri eta lanetik eraman zuten. Baina nora eraman zuten? 48an izango zen hori, urte hasieran. Ondarretara eraman zuten. Handik bere eskutizak jaso genituen. Haietan kontatzen zigun trasladoo egitea tokatu zitzaiola, berak gidatzen zekielako, txofer militarren gida baimena zuen. Kamioneta zahar batekin, kartzela aldaketa egitea tokatu zitzaion. Altzariak kartzela berrira, Martutenera, eramaten aritu zen. Eta han egon zen sei hilabetez, muga klandestinoki igarotzearren. Etxera itzuli ondoren, kontatzen zigun nola ez zen damu sei hilabete horiek Martutenen edo kartzelan egon izanaz, han aukera izan zuelako Celestino Uriarte besarkatzeko. Horrenbeste urteren buruan ikaragarria izan ei zen. Guardiak begira-begira geratu zitzaiea.

Anaiak kontatzen zuen preso oso garrantzitsu bat iritsi behar zela esaten zietela eta Donostian epaitu behar zutela. Oso preso garrantzitsua. – Baina, nor izan zitekeen? . Seguratasun neurri zorrotzekin ekarri zuten Celestino. Hiru egunez inkomunikaturik izan zuten. Leku berri batera iristen direnean

Bazekiten han bat zegoela, baina ez zekiten nor zen. Hirugarren egunean, udaberriko egun batean eta guztiak patioan eguzkitan zirela, ateak ireki eta hara non Celestino agertu zen. Anaiak esan zigun berak ezin zuela sinetsi. – Celestino. Eta harengana hurbildu zen. Batak bestea begiratu eta egundoko besarkada eman zioten elkarri. Besarkada hark balio izan zuen jasandako neke guztiak arintzeko. Guztiak ahaztu zitzaion. Hilabetera, anaia

etxera itzuli zen, baina han egon zen denbora Celestinoren ondoan pasatu zuen. Berba egiten zuten, kontu kontari ibiltzen ziren, anaia pozik itzuli zen etxera. Egia esango dizut – Kartzelatik pozik etorri al da? Ba horregatik bakarrik, han Celestinorekin elkartu izanagatik. Asko gogoratzen zuen Arrasate. Amak taberna bat izan zuen garai haietan Arrasaten, sukaldaria zen.⁷¹²

Tomas Ruiz de Alegria 1948ko ekainaren 21ean askatu zuten.⁷¹³

Vicente Abarrategi Abarrategi 1948ko abuztuaren 18an atxilotu zuten, klandestinoki, muga pasatzen saiatzeagatik. 2.500 pezetako isuna ezarri zioten. Hark 15,40 pezeta irabazten zuen egunean, eta ez zuen ordaindu isunik. Urriaren 16ra arte izan zuten giltzaperatuta isuna ez.⁷¹⁴

Euskal elkartasun antifrakistatik antikomunismora.

2. Mundu Gerra amaitzean, eta mundua bi bloke antagonikoetan banaturik zegoela, “Gerra Hotza” izenarekin ezagutu genuen aldia hasi zen. Horrek Europa Mendebaldeko alderdi komunistekiko isolamendu politika bat ekarri zuen berarekin. 1947ko martxoa maiatza bitartean, Frantziako, Italiako eta Belgikako gobernu komunistetako ministroak kanporatu zituzten.

Urte horren amaieran, sozialistek Eusko Jaurlaritzari eskatu zioten Fermin Zarza eta Enrique Dueñas komunistak gobernutik kanporatzeko, haiek 1947ko maiatzeko grebarako grebalarien fondoez jabetzeaz akusaturik. 1948ko maiatzean, Leandro Carro kanporatu zuten. Nardiz, ANVko kontseilaria, erabaki haren aurka agertu zen, indar antifaxisten elkartasuna apurtzea suposatzen zuelako. Fondoan gaiak gain, EAJk Euskadiko Alderdi Komunistaren izaera “Espainola” salatu zuen Espainiako Alderdi Komunistaren esanetara egoteagatik.

Arrasaten porrot egin zuen indar antifaxisten akordio bateratu batek.

Markaideri eskatu genion EAJrekin bilera batera deitzeko. Egun batzuk geroago, bildu ginen Zarugalde kalean burdindegiko bateko biltegian. EAJtik, Juan Azkarate eta Gregorio Yarza joan ziren, ANVtik, Markaide eta guretik Jose Maria Olazagoitia eta Jose Maria Arriaran. Iritziak elkartrukatu genituen. Klandestinitatean biltzen ginen aurreneko

aldia izan zen hura, baina ez genuen lortu inolako akordiorik.

Aurrerago, berriro ere elkartu ginen. Guk orri bateratu bat ateratzea proposatu genien, eta proposamena onartu zuten. Erabaki genuen guk idatziko genuela. Idatzia egin eta besteei igorri genien. Markaidek ontzat eman zuten, eta EAJkoek esan ziguten, beraiek ados egon arren, alderdiko zuzendaritzarekin kontsultatu behar zutela. Alderdi Sozialistako Cosmekin “Txaparro” ere hitz egin genuen, eta hark esan zigun gure esku uzten zuela EAJrekin eta ANVrekin egin genezakeen akordioa.

Egun batzuk geroago, edukiarekin bat zetozeela, baina esaldi bat kendu nahi zutela. Orri bukaeran genioen: “Azaldutako guztiagatik, eskatzen diegu gure indar eta jarraitzaile guztiei jokatzeko zentzuz eta arduraz gure herriak ahalik eta azkarren askatu daitezten. Oroipen gogoangarria gerran, kartzelan edota frankisten kontzentrazio esparruetan bizia eman zuten guztiei”.

Eskatu ziguten esaldi hori beste honekin aldatzea: *hildakoen arimaren alde otoitz bat eskatzen dugu*. Sorpresa handia hartu genuen. Erantzun genien ezinezkoa zitzaigula komunistei eta jarraitzaileei Franco garaitzeko errezatzen hastea. Haiiek bere horretan mantendu ziren. Orduan, aurrekoa mantendu eta prest agertu ginen honakoa gehitzeko: *Eta hau irakurtzen ari diren fededunei eskatzen diegu otoitz egin dezatela haien arimen alde*.

Baina ez zuten jarrera aldatu. Ulertu genuen kontsigna zorrotzak zituztela gurekin eztabaidak amaitzeko. Honela zuzendu zitzairen Olazagotia bilera amaitu zenean:- Azken urteotan gertatu den guztiarekin eta gaur egun gertatzen ari denarekin gehiago eboluzionatuko zenutelakoan geunden. Eta Azkaratek erantzun zion: -Ez ahaztu gurea alderdi konfesionala dela. Horrela amaitu zen proiektu hura, sinetsita bakarrik lan egin beharko genuela.

20. 6. 1949: Franco Arrasaten

Franco Arrasatera etorri zan Bastida “Sagu” alkatea zegoela. Franco Donostian zauen oporrak pasatzen eta inbitau zauien Conde de Monterron palaziora. Egun bat lehenago ezkerreko eta sindikalistak kartzelan sartu zauien. Kotxean etorri zen inork be ez zauen ikusi, bere guardixia bai txapela kaki kolore borla gorriekin. Viva Franco oso gutxi egon ziren, bi emakume falangistak

besterik ez. Txalorik bez. Arrasaten etzaku gustau inoibe. Herrian sufrimiento asko eta memoria zegoen. ⁷¹⁵

Herriaren ongi etorria ezin hotzagoa izan arren, udalak ohorezko alkate izendatu zuten.


Franco diktadoreak Monterrongo Kondeari egin zion bisita zela eta, Santiago Bastida buru zuten Udal Korporazioak udalbatzak horrela adostuta, Francisco Franco Arrasateko ohorezko alkate izendatu zuten, 1949ko abuztuaren 22an. *Invicto Caudillo de la España Nacional Don Francisco Franco Bahamonde, como testimonio de la leal e inquebrantable adhesión a la persona que en momentos en que parecía que todos los enemigos de nuestra Religión y de nuestra Patria se habían desencadenado para sumirnos en el caos y en la desesperación con la negación de todo lo bueno y santo y exaltación de todo lo material y bajo, con verdadera fe que hace grandes a los hombres y con patriotismo difícil de igualar, salvó a nuestra querida Patria en cruenta pero Gloriosa Cruzada de Liberación.* ⁷¹⁶

Intxorta 1937 elkarteak egindako proposamenaren ondoren, 2008ko azaroan utzi zuten bertan behera erabaki hura Arrasateko Udalak, diktadorea ohorezko alkate izendatzen zuena.

20.7. 1950: Celestino Uriarte ihesa Martutenetik

1950eko otsailaren 28an, 4 presok ihes egin zuten Martuteneko kartzelatik. Iheslariak izan ziren Ramón Peña Azcue, Alberto Harina Salado, Eugenio Urrutia Anduaga eta Celestino Uriarte Bedia arrasatearra. Funtzionario bat menderatu ondoren, iheslari batek haren jantziak jarri eta ate nagusitik atera ziren, aske geratzeko agindu faltsutu batzuk erakutsita kalean ateko soldadu batzuei. Peña eta Uriarte Hendaiara joan ziren, eta handik Frantziara. Beste biak atxilotu egin zituzten.

Arrasateko frankista batzuek uste zuten ez zela nahikoa Uriarteri ezarritako 30 urteko kartzela zigorra. eta herriko guardia zibilekin batera, euren esku zegoen guztia egin zuten Celestino heriotza zigorrera kondenatu zezaten, 1934ko mugimenduan eta gerran parte hartzeagatik bere aurkako prozesuan. Jarduera haiiek batez ere Euskadin burutu zirenez, 1948ko maiatzaren 4an, Oviedoko guardia zibilek eskoltaturik Donostiako kartzelara eramane zuten.



Martuteneko espetxetik ihesi.

Felipe José Azurza izan zen salatzaileetako bat. Hona hemen hark egin zituen baieztapenak: *Uriarte udaleko matxinoen agintaria izan zen, baina nik ez nuen ikusi, jakin nuen ezagutzen ez dudana pertsona batek kontatu zidalako.*

Celestino 1948ko maiatzaren 8an Martuteneko kartzelan sartu zutenean, bazekien heriotza zigorra ezarri behar ziotela. Hona hemen Aquilino Gómezi zer jakinarazi zion Oviedon Donostiara eramane behar zutela esan ziotenean: *Oreja Elósegui diputatuaren hilketan parte hartu izanaz akusatzen naute. Nire bila doaz. Susmo horrengatik hasiera hasieratik pentsatu zuen ihes egitea, eta pentsatu zuen aukera bakarra zela ate nagusitik ateratzea. Preso gehienek kultura*



Celestino Uriarteren "errekisitoria".

maila baxua zenez, saiatu zen kartzelako administrazioan sartzen. Administrazioa kartzelako burdin sareetatik kanpo zegoen, hau da, ate nagusiak besterik ez zuen zeharkatu behar kalera irteteko. 1948ko uztailaren 30ean, erregimen laguntzaile izendatu zuten, eta orduan hasi zen ihesa prestatzen.

*Nire aita bere abokatua izan zen. Gogoan dut aitak nola esan zigun instrukziozko epailarekin hitz egitera joan zela. Ordura arte eta bere abokatua izan arren, inork ez zion ihesari buruz ezer esan. Kontatu zigun epaile hark ahoz jakinarazi ziola ihes eginda zegoela eta epailearen hitzak izan zirela berak bazekiela mutil hura oso azkarra zela.*⁷¹⁷

20.8. 1951tik 1956ra: Grebak. Gertaera garrantzitsuak Arrasaten.

1951

Eskola Profesionala berria

Eskola Profesionala Viteri Eskolako lokaletan eratu zen lehenengo momentutik Jose Maria Arizmendarrietak nahi izan zuen Eskola Profesionala fusionatu Unión Cerrajerako Escuela de Aprendizecekin. Baina Unión Cerrajerako zuzendaritzak ez zuen onartu proposamena.⁷¹⁸

Gauzak horrela, 1951ko abuztuaren 26an, Zaldibar auzoan Eskola Profesional berria inaguratu zuten. 1951-52 ikasturtean, lokala Cometel ferreteriako biltegi bat zen, gero Arrasateko Liga de Educación y Culturarena izatera pasatu zen eta lekua zuen 200 ikasleentzat.⁷¹⁹

1952

Etxetik kanporatuak

1952ko martxoaren 10ean, Unión Cerrajerak 6 hilabeteko epea eman zion Pablo Querejeta eta Romana Eraña senar-emazteari Maala 12ko (Etxetxikiak) etxebizitza husteko. Querejeta ez zuten hartu gerra ondoren berriro lanerako. Romanaren aita, Jose Eraña, Cerrajerako langilea zena eta etxebizitzaren titularra, hilda zegoen.⁷²⁰

20.7. 1951ko eta 1956ko mobilizazioak. Erresistentziaren lekukoa belaunaldi berri batera pasatu zen.

1947ko greba hura izan zen gerran borrokatu eta gerra galdu zuten langile borrokalariek zuzendu zuten azkena. 1951ko greban, belaunaldi horrekin batera, sozialista belaunaldi berri batek hartu zuen parte. Sozialisten belaunaldi berri hark ez zuen gerran parte hartzerik izan, orduan oso gazteak zirelako.

1951ko apirilaren 23an eta 24an, “la huelga de los garbanzos” izenarekin ezagutu zen grebak jarraipen handia izan zuen Gipuzkoan. Francisco Sáenz de Tejada gobernadore zibilak ohar bat atera behar izan zuen apirilaren 23an, 1951ko apirilaren 24an argitaratua prentsan:

Langileek gaur lanean hasi beharko dute. Lanean

hasten ez direnak euren lan eskubide guztiak galduko dituzte. Aitzitik, emandako azalpenek eta atzerritik ordenaren eta bake sozialaren etsaien eta haien jarraitzaile ilunek egindako propagandaren ondorioz, herri langilearen hainbat sektorek euren lanpostuak utzi zituzten, ekonomiari eta masa sozialei eragin zien kaltearekin. Gauzak horrela, atsekabe handiz, eta engainatuei dagokienez, legeak jarraikiz honakoa agintzen dut:

1. *Hilaren 24an, asteartea bukatuko da epea langile guztiak euren lanpostuetara itzultzeko.*

2. *Goian adierazitakoa betetzen ez dutenen kontratua amaitutzat emango da indarrean dauden xedapenak jarraikiz eta bake soziala izorratuz greba zigorgarriak egiten dituztenentzat legeak zehazten dituen ardurengatik, enpresek zor ahal dizkieten soldaten likidazioak egingo dizkiete euren eginkizunak betetzen ez dituzten langileei. Modu horretan, azken aukera ematen zaie langileei gaurko portaerak sortu ahal izan dituen gaizkiulertuak zuzentzeko.*⁷²¹

Mehatxuen gainera, grebak apirilaren 24an jarraitu zuen. Hortik, apirilaren 26ko prentsan, Donostiako alkatea “bi lanegun melankoliko” haiek aipatu izana. La Voz de Españako editorial batek ez zuen zalantzarik utzi gabe grebaren jarraipenaren inguruan argitaratu zuen: “Con pena hemos visto como numerosos trabajadores guipuzcoanos se han sumado a la protesta...”

Feliciano Aranzabalenean 1949an sartu nintzen lanean. Bertan jarraitu neban 1961 arte, Iparraldera ihesi etorri arte. 1951n Cerrajera irten zen grebara, eta atzetik poliki-poliki besteak be. Hor Markaide ELAkoa ibili zen. Gorosabel “Amelu”. Karlista zen, sartu zauien kartzelan eta libratu zuteneien herri guztia joan zen tren estaziñora trenean etorri zenean. 1956an apirilean Felicianokoek izan giñen gehien aguantau zauena greban, 4 egun, besteak baina bi egun gehiago. Gobernadore zibilak tailerra zerrau ein biau zauiela eta hasteko lanean meatxatu zauien.⁷²²

Gainontzeko sindikatuak bezala, Sindicato Librea desagertu zen ere gerra ostean. Sindicato Falangista zen Estatuak onartzen zuen sindikatu bakarra. Afiliatu gabe egon arren, nominatik kentzen ziguten sindikatuko kuota. Hau 1938. urtean izan zela uste dut. Derrigortuta geunden sindikatuan afiliatuta egotera. Lanean hasi bezain laster, Sindicato Verticalean afiliatzen zituzten langileak. 1944. urtean, enpresa guztietan hauteskunde sindikalak egin

ziren. Hiru aukeratu behar genituen, kategoria ezberdinetako hiru pertsona, eta orduan botoa sinatu egin behar zen. Bakoitzak esan behar zuen botoa noren alde ematen zuen. Inor ez zen ausartzen botoa sinatzera gorri baten alde. Ta guk ba, hori, Ameluri botoa eman, karlista zela, eta gu libre. Ia erretiroa hartu arte egon nintzen han lanean, ondo edo txarto. Gipuzkoako Metalaren Mutualitate Siderurgikoa oso garrantzitsua izan zen. Gainera, arautegitik kanpo zegoen fondo bat zuen. Orduan, jende asko zegoen tuberkulosiak jota eta fondo horiek Extrectomicina erosteko erabiltzen genituen, oso garestia zelako. Ni alfabetatu gabea nintzen, eta honela esan behar nien: hemendik pezetak atera ahal dira ... jendea beldur zelako. Beti zeuden isorratu nahian eta, orduan, nik erregimena-rekin kolaboratu izana leporatu ahal zidaten.⁷²³

Juan Jose Gorosabel Aranguren, “Amelu”, enlaze sindikala izan zen ELMA. ⁷²⁴ Onartzen du greba horretan atxilotuta egon zela.

Pentsaizu, huelga bat egon zan por la carestia de la vida en el año 1951. Huelgan fabrikari baina, neuk urten nauen azkenengua. Bezperatik neu topetan ebitzen guardia zibilak, eta kartzelan hiru egun egon nintzen Donostian. Euki nittun tenientiakin be zer batzuk esan notzan: Yo no se nada, han nik ez nauen parte hartu... Bezperan, Eibarko lagun batek, nik Mutulidadian lana obeto eitteko, nik Eibartarren asuntan defendiruten nittun, eta berak Mondraukuak. Bezperan joan nintzen eta Eibarko lagunak, horrek batek esan zuzten “Hi, hemen zabaldu dok, bixar eta etzi, huelga por la carestia de la vida.” Nik ha entzun nauen eta azkenengo trenian etorri nintzen. Gero, enterau nintzen, bezperatik ebitzela nire bila, eta ni Eibarren.

Sindikatu inposatuta zegoen. Kritikarik onartzen ez zuen sindikatu zen, eta ni oso kritikoa izan naiz. Ez nuen politika hura ulertzen, haiek egiten eta desegiten zuten guztia. Behin reunixo baten, nere izenak irten zauen, informe batean como agitador rojo, que no he tenido ni la corbata... Yo nunca he sacado una huelga, he amenazado si (se rie), pero nunca he sacado una huelga. Tenia miedo... y muchas veces puse en peligro mi libertad, muchas veces y sali bien. ⁷²⁵

1951. urtean hasi nintzen Feliciano Aranzabalen lanean. Hasieran, 65 pezeta irabazten nituen astean, eta apupiloek 70 pezeta ordaindu behar genizkion patronari. 1951n, greba bat edo bi egin ziren. Nik ezagutu nuen lehenengoa. Orduan Unión Cerrajerak bakarrik egin zuen bat deialdiarekin. Guk ez genekien zergatik, ezta zertarako

zen ere. Gero, “la huelga de los garbanzos”i buruz hitz egin zen, badirudi ELAtik etorritako agindu bat zela. Gerra aurretik sindikatuetan ibilitako jendea zen.

Aurrerago, 1956an, beste greba bat egon zen. Orduan bai, 20 langile inguruk egin genuen bat deialdiarekin, eta gelditu egin ginen. Atxilotetak egon ziren, Arrasaten eta Bergaran lehenengoak. 1956ko grebaren ondoren hasi ginen antolatzen. Ezberdintasun handiak zeuden gizon ezkondu eta ezkongabeen artean. Orduan, “Plus familiarra” zegoen “puntuak” izenarekin ezagutzen genuena. Emaztea eta seme-alabengatik diru kopuru bat ordaintzen zizuten. “Puntuak” bidez, lanean baino gehiago irabazten zen. 400 pezeta puntu bakoitzeko. Emazteak 5 puntu zituen eta seme-alaba bakoitzak puntu bat. Ezkonduak ez zuten nahi sartzera lanera jende ezkondu gehiago, guztiak gazteak ginen. Ez zuten soldatagatik ezer egiten, puntuak diruarekin nahikoa eta sobera irabazten zutelako.

Gauzak horrela, hurrengo hauteskundeetan sindikatuko lotura izatetik kendu genituen. Egin genituen lehenengo grebak hotzarengatik izan ziren. ⁷²⁶

Gerra ostean, Eustasio Markaide, Pablo Urrutia, Esteban Zaitegi, “Palmeño”, eta Roman Bidaburu ziren sindikatuko arduradunak, eta esan ziguten eurak erreta zeudela; horrela buruzagi berriak hautatu genituen: 1956ko maiatzean ELA-STV Arrasateko komitearen arduradunak, Jabier Olalde, Kortabarria “Arrazola”, Jose Mari Lasagabaster, kontaktuak egiteko, Juan Fuaristi Unamuno “Kotxero” poskutxa, eta neu Josu Otadui diruzaina. 80 lagun inguru ginen kotizatzen, batez be Union Cerrajeran, Elman (Xabier Arregi Kataide jaunak, lanean zebilena enpresa horretan, esan digu Sabino Amozarrain Sabin Txikik jasotzen zuela dirua; hasieran pezeta bat zen) eta Asamen. 1945ean 2 pezeta kotizatzen genuen eta orduan 5 pezetara igo zen kotizazioa. Lan Deya zabaltzen genuen, batez ere Union Cerrajeran. UGTko kontaktua Zozimo Olmedo zan. ⁷²⁷

1947xen-edo ELAn sartu nintzen; oso peligrasue zan sartzie sindikatu baten, legez kanpo euen. Geruau, 1954en urten nauen enlaze Union Cerrajeran. Bai edo ez ibili gitzen, parte hartu edo ez. Orduen denporan kolaborazionista zitzen parte hartu ezkerreko sindikatu bertikalien. Esan nutzen Alfontso Gorroñogoitiari preguntetako aitta Joseri, exiliaute euen, zer pentsetan jakon, eta esan euskun Frantziar komunistak bai hartuko auiela parte, eta horreaitik handik aurrera prentau gitzen sindikatu bertikaleko jurau eta enlaze izeteko. ⁷²⁸

Debagoienean STV izan zen greba haiek bultzatu zituenetako bat. Grebak zuzendu zituzten solidarioen testigantzak elkarrizketa hauetan daude jasota: *Ba-surto Añorgakua, biajante ibiltzen zana, etortzen zan gugana, Aretxabaletan, Esteban Gorroño, Sabin Bengoa, Santiago Bengoa ta neu gitzen, Arrasaten, Felipe Barrutiabengoa Txirri, Antonio Zubizarreta, Jabier Olalde ta Jose Maria Zubia Liorra, Aramaixon, Alexander Nafarrete, Sabin Goiko Errotakoa, Eusebio Benta Txikikoa eta Aiastui Lonbide. Horreik ta Eskoriatzako emakume bat ta Bergara ta Elgetako bana joan gitzen batzar batera lehengo Urrietako sagardotegi batera, Lauxuetan, Gipuzkoa osokoa, juntau gitzen 70 pertsona. Gero, Beheko ta Goiko Debakuak Elgetan ta Basurto izan zan hizlarixa. Paruak % 100koak izan zien". 1956xan Policia Armadako autobus bat etorri zan Arrasatera, ta detentziñuak egon zien: Esteban Gorroño, Jabier Olalde ta Jose Maria Zubia.⁷²⁹*

1956ko greba izan zen apirilaren 13an eta 14an. Silvio Garciak, Bergaran Unión Cerrajerako Labe Garaietan UGTko agintari sindikala Errepublikara iragan, eta handik bidalia gerra ostean, azaltzen digu zergatik deitu zen eta zer gertatu zen Bergaran. Silvio Garciak eskutitz hau idatzi zion Bergaratik bere seme Pedrotxori Grenoblera, non ihes eginda zegoen:

Hemen izandako greben berri zango duzu. Paris Irratiak albisteak eman ditu horien inguruan. Bergaran, bi egunez izan dira greban, Labe Garaiak, Mayc, eta ehungintza lantegi guztiak. Jakingo duzu oinarrizko soldata % 20 igo digutela, 2 eguneko 20 pezeta irabazten zituenarentzat 4 pezetako gehikuntza suposatzen du igoerak. Beste lantegi batzuk, aldiz, % 20 eman bai, baina plus boluntarioak kentzen zizkieten, eta soldata bere horretan mantendu. Hainbat artikuluren prezioak nabarmen egin du gora. Okelak kiloko 6 pezetako igoera izan du. Hortik etorri da protesta. Baina zuk badakizu, zuzendaritzarik gabeko grebek porrot egiten dutela. Soldata igoera handiagoa eskatu da eta langileak lanera itzuli dira; esan dietelako enpresek gaia aztertuko dutela eta egun batzuen buruan erantzun bat emango dietela.⁷³⁰

1944ko abenduaren 23an dekretu bidez iragarritako Kode Penalaren lege errepresiboak eta 1947ko apirilaren 18ko Bandidaje eta Terrorismo legea hor egon arren, 1947, 1951 eta 1956ko grebek argi eta garbi adierazten dute, frankismoak sorrarazitako izuak ezin izan zuela geldiarazi euskal langileen mobilizazioak.

1953

Aramaiona errekan bonba baten eztanda

1953ko apirilaren 23an, eztanda handia egin zuen Breda izeneko bonba batek, Zarugalde kalean Aramaio ibaian aurkitutakoa. Eztandaren ondorioz, lau ume zauritu ziren: Juan Zubizarreta Sagasta 13 urtekoa, Ramón Molina Blanco 10 urtekoa, Luis Jiménez Ortega, hura ere 10 urtekoa, eta Luis Maria Inda Orobengoa 6 urteko umea.

Eztanda gertatu eta hiru astera, Alejandro Berriochoa Garitaonaindiak guardia zibilei esan zien artilleriako granadak eta morteroak zituela "Arriaran" bere baserrian. Jaurtigaietatik hiruk espoleta zuten, 10,5 eta 7,5 kalibrekoak ziren. Morteroa 50 milimetrokoa zen. Arma guztiak baserri inguruan suntsitu zituzten.⁷³¹

1954

ULGOR sortzeko arrazoiak

Urte hartan, Sindicato Verticalaren bidez, hauteskundeak egin ziren enpresetako lotura sindikalak izendatzeko. Arrasateko Unión Cerrajeran bi urte geroago Ulgor sortuko zuten bi pertsonak hartu zuten parte lehenengoz hauteskunde haietan, Jose Maria Ormaechea Uribechevarriak eta Alfonso Gorroñoigoitia Gonzalezek. Bulegoetako kolegiotik aukeratu zituzten.

Jose Maria Ormaecheak kontaktzen digu enpresa kapitala handitu nahian zebilela eta enpresari proposatu ziotela kapitalaren zati bat enpresako langileen artean banatzea. Enpresak uko egin zion dirua banatzeari, eta orduan erabaki genuen Unión Cerrajera utzi eta Ulgorren lehenengo kooperatiba sortzea.

1956

ULGOR sortzea

1956ko apirilaren 14an, arrasatear askok diskrezio eta kontu handiz Bigarren Errepublikaren urteurrena ospatzen ari ziren Jose Maria Arizmendiarririk Ulgorreko lehenengo harria bedeinkatu zuenean. Izen horrek sortzaileen izenak biltzen zituen: Luis Usatorre, Jesús Larrañaga, Alfonso Gorroñoigoitia, José María Ormaechea eta Javier Ortubay. Guztiak ziren Arrasateko Unión Cerrajerako langileak, eta 12 eta 18 urte bitartean zituzten.⁷³²



Eskerretik eskumara: Luis Usatorre Arriola, Jesús Larrañaga Lizarralde, Alfonso Gorroñoitia Gonzalez, José María Ormaechea Uribechevarria eta Javier Ortubay Arana

JURADO DE EMPRESA

Comisiones asignadas á los Vocales Titulares del Jurado

Fiis Familiar

Alfonso Gorroñoitia Gonzalez	-	Técnicos
Carlos Colón Santisteban	-	Administrativos
Juán Azcárate Aguirrezabal	-	Administrativos
Gregorio Azcoaga Azurmendi	-	Mano de obra cualificada
José Ramón San Miguel Eguiluz	-	Mano de obra no cualificada
Francisco Moñux Angulo	-	Mano de obra no cualificada

Comité de Seguridad

José M ^o Ormaechea Uribechevarría	-	Técnicos
José Arregui Zubillaga	-	Administrativos
José M ^o Lasagabaster Arriola	-	Mano de obra cualificada
José M ^o Zubia Barrutiabengoa	-	Mano de obra no cualificada
Félix Lascurain Charroalde	-	Técnicos
Francisco Moñux Angulo	-	Mano de obra no cualificada

Comedores Obreros

José M ^o Ormaechea Uribechevarría	-	Técnicos
José Ramón San Miguel Eguiluz	-	Mano de obra no cualificada

Economato

José Arregui Zubillaga	-	Administrativos
José M ^o Lasagabaster Arriola	-	Mano de obra cualificada
Juán Azcárate Aguirrezabal	-	Administrativos

Hetruc

Alfonso Gorroñoitia Gonzalez	-	Técnicos
Juán Azcárate Aguirrezabal	-	Administrativos
Gregorio Azcoaga Azurmendi	-	Mano de obra cualificada

Viviendas

Félix Lascurain Charroalde	-	Técnicos
Carlos Colón Santisteban	-	Administrativos
Domingo Ugarte Beitia	-	Mano de obra cualificada
José M ^o Zubia Barrutiabengoa	-	Mano de obra no cualificada

Escuela de Aprendices


José M ^o Ormaechea Uribechevarría	-	Técnicos
José M ^o Lasagabaster Arriola	-	Mano de obra cualificada
Domingo Ugarte Beitia	-	Mano de obra cualificada

Reportes

José Arregui Zubillaga	-	Administrativos
José M ^o Zubia Barrutiabengoa	-	Mano de obra no cualificada

26 de Marzo 1954.

Jurado de Empresa, 1954an Union Cerrajeran.



Unión Cerrajerako zuzendaritzak gerra aurretik eta gerra garaian bertako langile frankisten artetik hildakoei eraikitako monumentua. 2000. urtera arte egon zen.

Union Cerrajerako Monolitoa

Union Cerrajerako gurutzean, jarrita zeuden 20 izenetatik, hiru, 1934an hildakoetakoak ziren: Marcelino Oreja Elosegui, Dagoberto Resusta Mugica eta Eugenio Eduerra Ona.

Gerran hildakoen artean 17 pertsona zeuden, eta horietatik sei soldaduak ziren, kintetatik joatera behartuak: José Antonio Berecibar Altuna (1936/12/21); José Barrena Garitano, (1938/02/08); Jose Endeiza Bengoa (1937/04/01); Pedro Lizarralde Aguirrebalzategui); Pablo Arregui Amilleta eta Angel Echevarria Berecibar.



Francisco Gastañarez Elorza gudarria izan zen eta, preso hartu ondoren, matxinatuekin joan behar izan zuen.

Matxinatutako bandoari borondatez lagundu ziotenetatik, 9 hauek dira:

Roneo enpresako bi langile: Lucio de la Cruz Basaldúa eta Lorenzo Escudero Pinacho.

Unión Cerrajeratik berriz, Andrés Carmelo de Gorriño; Ángel Vélez de Mendizábal Arana; José Zubillaga Eguiluz; Juan Ercilla Pagalday; Juan Zabalo Urtecabo; Florencio Zubillaga Ugalde eta Antero Abarrategui Aguirre.

Hamargarrena. Pedro Aguirre Garayri buruzko daturik ez dugu aurkitu.



Union Cerrajerako zuzendaritzak gerrak aurretik eta gerra garaian bertako langile frankisten artetik hildakoei eraikitako monumentua. 2000. urtera arte egon zen.

21. Giza eskubideen urraketak

Frankisten kolpisten giza eskubideen urraketak eta ondorengo diktadura kontuan hartzen baditugu, esan dezakegu horiek Arrasateko biztanle gehienei eragin zietela: desagertze behartuak, exekuzio sumarioak, torturak, espetxeratze arbitrarioak, nahitaezko soldadu joan beharra, lan behartuak, erbestera behartutako milaka pertsona... Emakume irainduak eta estigmatizatuak, diskriminatuak, lanik gabeak, etxerik gabeak... Ideia politikoekiko jazarpena, hitz egiteko eta biltzeko askatasunik gabe, euskaraz hitz egiteko debekua... Denak berdinak izan gabe legearen aurrean, inolako lege-babesik gabe... Laburpen honetan horietako batzuk zerrendatuko ditugu.

Arrasaten, biztanleriaren % 34k, hau da, 2.450 pertsona (492 emakume), giza eskubideen urraketa desberdinak jasan zituzten.

Hona hemen laburpena:

Herritik ihesi joandakoak: 2.000tik gora

Gerran hildako arrasatearrak: 216

Faxismoari erresistenteak: 140 (4 emakumeak)

Pertsona zibil epaitu gabe erailak: 32

Epaitu ondoren erresistente fusilatuak: 6

Erresistente erailak eta desagertuak: 15

Frontean hildako erresistenteak: 83

Kartzelan egondakoak: 4

Matxinatuen aldekoak: 52

4 pertsona zibil erailak eta guardia zibil bat fusilatua..

27 erreketete

20 kintakin joandakoak (behartuak)

Pertsona zibil: 24 (13 emakume)

16 pertsona zibil (12 emakume) bonbardaketan hildak. 14 Arrasaten edo inguruan
1 Durangon eta beste bat Bartzelonan.

Gudari eta miliziano hilak Arrasateko frontean: 131 (11 arrasatear)

Matxinatu hilak Arrasateko frontean: 116 (3 arrasatear).

Frontean lehenengo lerroan ibilitako arrasatearrak: 940

537 erresistente (Dragones 195; Amayur 158; beste bataloi batzuk 184 (15 emakume)
403 matxinatu (Erreketekak 137; Falange 5; División Azul 10, Legión 1)-
Kintakin behartuak: 250

Atxilotuak: 511

Erresistenteak: 415 (20 emakume)

Matxinatuak: 96 (2 emakume)

Erbesteratuak: 578

Erbesteratutako gudari eta milizianoak: 70

Erbestera ihesi joandako pertsona zibilak: 508 (318 emakume)

Gerrako umeak: 279 (150 neskatila)

Genero zigorra (Ilea moztea): 4 emakume

Funtzionario depuratuak: 17

Union Cerrajeratik bidalitako langileak: 601 (101 emakume)

Erantzukizun politikoengatik espedientatutako pertsonak: 148 (6 emakume)

Maisu - Maistrak depuratuak: 15 (6 emakume)

Herritik kanporatuak: 3 emakume

22. Eranskinak

I ERANSKINA

Arrasateko biztanleria datuak

Urtea	Biztanleria	Emakumeak	Gizonezkoak	Herritik kanpo	Emakumeak	Gizonezkoak
1930	6.906	3.375	3.354	319	173	146
1940	8.834	4.769	4.065	383	143	240*
1945	9.155	4.959	4.196	135	52	83
1950	10.134	5.438	4.696	165	73	92
1956	11.932	6.196	5.736			
1960	14.148**	7.269	6.879			

Datuok 1956ko urtarrilaren 1etik, 1960ko abenduaren 30era bitarteko erroldetatik eta Memoria Munizipaletatik atera ditugu.

*55 soldadutzan

** Horietatik 1.904 pertsona Euskal Herritik etorritakoak dira: Araba 1.506, Bizkaia 544, Nafarroa 304; eta 3.380 Estatutik: Gaztela-Leon 2.672, Extremadura 248, Andaluzia 217, Galiziatik 188, Aragoikoak 65.

II. ERANSKINA

Arrasateko Alderdi Sozialistako eta Juventudes Socialistas-eko militanteak.

- Celestino Uriarte Bedia, Elmako langilea eta UGTko buruzagia. Liburuan agertzen da haren biografia.
 - Pedro Ruiz De Alegría Balanzategi, Unión Cerrajerako langilea. Gerra hasieran, milizien komisario politikoa Donostia hartu zenean. Aretxabaletan hil zuten borrokaldi batean.
 - Guillermo Lasagabaster Gorosabel, “Mala leche”, Unión Cerrajerako langilea. Santanderren atxilotu zuten Dragones batailoiko tenientea zela. Frantziara ihes egin zuen 38 egun iraun zuen ihesaldian ELMAko langilea zen Fermín Ibáñez Azkoagarekin batera, “Faja roja”. Katalunian jarraitu zuten borrokan gerra amaitu arte.
 - Gerardo Ruiz de La Cuesta Gómez. ELMAko langilea. Dragones batailoiko komandantea. Ebroko batailan hil zuten teniente koronela zela
 - Marcos Vitoria Goitia, Unión Cerrajerako langilea. Karabineroen kapitaina gerra amaitzean. Gürs-eko kontzentrazio esparruan 4 isloite euskaldunetako bat.
 - Ismael Díez Fernández, Burgosen fusilatu zuten 1938ko urte amaieran.
 - Jesús Uranga Urrutia. Zinegotzi sozialista eta Unión Cerrajerako langilea. Donostian fusilatu zuten 1938ko abuztuaren 13an.
 - Bernardo Gomez Otxoa “Rentería”. Unión Cerrajerako langilea. Dragones batailoiko kapitaina. Ebroko batailan hil zuten
 - Segundo Olazagoitia García “Santxo”. Unión Cerrajerako langilea. Dragonesko lehenengo konpainiako kapitaina lehenengo eta eta izen berdineko batailoiko komandantea gero. Euban hil zuten 333 kotan.
 - Pedro Gallastegui Azpitarte “Londres”. Batailoiburua erretaguardian Katalunian.
 - Tomás Ruiz De Alegría Balanzategi, “Porra”, Unión Cerrajerako langilea.
 - Cosme Altuna Sagasta, Unión Cerrajerako langilea.
 - Ricardo Ceciaga, Asameko langilea. Tatxo Amilibia komisarioaren txofer laguntzailea.
 - Secundino Urionabarrenetxea Agirre, Unión Cerrajerako langilea.
 - Vicente Arabaolaza Arriola, Unión Cerrajerako langilea.
 - Juan Gaztañares Elorza, Unión Cerrajerako langilea.
 - Angel Iturmendi Busto, maisu Zarugaldeko eskolan. Gijónen fusilatu zuten.
 - Felipe Andoaga López, Unión Cerrajerako langilea. Dragones batailoiko tenientea.
 - Benito Uranga “Troski”, Unión Cerrajerako langilea. Donostia hartzean hil zuten.
 - Camilo Ibáñez Azkoaga, Elmako langilea. Donostiako Hotel María Cristina hartu zutenean hil zuten.
 - José Uribarren, Unión Cerrajerako langilea.
 - José Riviere “Chocho”, Unión Cerrajerako langilea.
 - Pablo Ibarra, Unión Cerrajerako langilea.
 - Antonio Guridi Garai, Dragonesko tenientea. Heriotza zigorra.
 - Saturnino Abarrategui Arkauz.
 - Marcelino Uribesalgo.
 - Ignacio Aranzabal Cacicedo, Unión Cerrajerako langilea.
 - Jaime Uriarte Cestona, Unión Cerrajerako langilea.
 - José Agirregomezkorta Etxebarria, “Lapiko”.
- Juventudes Sozialistetan, Celestino Uriarte eta beste hainbat zeuden: Jose M^a Olazagoitia Ceciaga, Unión Cerrajerakoa, San Bernabeko batailan hil zuten; Jose M^a Arriaran Ortueta *Chispas*, udal langilea, Dragones batailoiko tenientea; Timoteo Zubizarreta; Benito Arriaran Ortueta, Intxortan hil zuten; Francisco Gonzalez *Kiko*; Jose M^a Etxebarria *Kirten*, Unión Cerrajerakoa; Martin Herrarte Sologaitua; Mateo Abarrategi Abarrategi *Bostate*,

Durangon hil zuten; Martin Alberdi, Elma-ko langilea, Dragones batailoiko tenientea, Lemoako atxetan hil zuten; Gregorio Laspiur, Elma-ko langilea; Francisco Ruiz de Alegria Balanzategi, Unión Cerrajerako langilea, Intxortan hil zuten; Secundino Vitoria Goitia, udal langilea, 1934ko urriko iraultzan hil zuten; Guillermo Lasagabaster Union Cerrajerako langilea; Lucio Goronaeta Mendizabal, Elmako langilea; Cristóbal Zubizarreta; Tomas Zabarte Iturriaga, Unión Cerrajerako langilea eta Dragones batailoiko tenientea; Juan Berezibar Ormazabal, Intxortan hil zuten; Lucio Berezibar Ormazabal, Balmasedan hil zuten; Jose M^a Urzelai *Txarol*, Bilbon fusilatua; Cruz Ugarte, Asam-eko langilea; Tomas Uribarren; Victoriano Fernández; eta Francisco Letamendi, Elmako langilea

III. ERANSKINA

1934ko Urriko Iraultza bultzateagatik Arrasateko 132 auzipetuen zerrenda

1934ko Urriko Iraultza bultzateagatik Arrasateko 132 auzipetuen zerrenda. Beste 26 atxilotu egin zituzten, ihes egin zutenak zenbatu barik. Guadalupeko gotorlekuan egon ziren kartzelaturik eta gero Ondarretako espetxean:

Pío Altuna Sagasta, José Acha Zubia, León Abarrategui Egidazu, José María Arriaran Ortueta, Cosme Altuna Sagasta, Vicente Arabaolaza Arriola, Benito Arriaran Ortueta, Ignacio Aranzabal Cacicedo, Eusebio Berezibar Otadui, Lucio Berezibar Ormazabal, Ricardo Ceciaga Lasagabaster, Cándido Ciardegui Gallastegui, José María Etxebarria Larrañaga, Vicente Etxebarria Larrañaga *Ferrer*, Ignacio Ezcurra Areitio *Galarra*, José Eguidazu Lizarralde, Pedro Gallastegui Azpitarte, Francisco Garay Albistegui, Juan Castañares Elorza, Lucio Goronaeta Mendizabal, Agustín Heriz Lamarain, Pablo Ibarra Iriondo, Celestino Heriz Arizmendi, Martin Herrarte Sologaistoa, Eugenio Iza Zubia, Esteban Ibarra Iriondo, Cristóbal Lizarralde Otadui, Francisco Letamendi Ojea, Sabino Lasaga Zuazubiscar, Joaquín Mendieta Egaña, Miguel Menchaca Mancebo, José Ortuoste Altuna, Segundo Olazagoitia García, Jacinto Olazagoitia Ceciaga, Juan Olazagoitia Ceciaga, Tomás Ruiz de Alegría Balanzategui, José Riviere Ormaechea, Alejandro Sagasta Azkoaga,

Lucio Urionabarrenechea Agirre, Secundino Urionabarrenechea Agirre, Marcelino Uribesalgo Balanzategui, Tomás Uribarren Zubizarreta, Cruz Ugarte Arcauz, Santos Urcelay Zarraoa, Marcelo Vitoria Zabarte, Rafael García Fernández, Juan José Rodríguez Rodríguez *Salamanca*, Clementino Ramos Gamazo, Angel Iturmendi Busto, Gregorio Laspiur Urrutia, Salvador Laspiur Urrutia, Melquíades Marañón Peña, Bernardo Gomez Ochoa, Tomás Romero Boraita, Juan Martín Alberdi Juldain, Victoriano García Gonzalez *Pancorbo*, Eugenio Andonegui Arrillaga, José Agirrebengoa Gabilondo, Pedro Rodríguez Ortega, Justiniano Rodríguez, Gabino Aranburu Garro, Pedro Ajuría Diaz, Vicente Cubillo Grima, Gabriel Goitia Uralde, José Fernández Barbero, Luis Fernández Barbero *Correas*, Jesús Uranga Urrutia, Juan Maria Etxebarria Chinchurreta, Victoriano Fernandez García, Daniel Ormaechea, Julián Greño Rudiez, Laureano Guerra Bernarte, Fernando Agirre Kortabarria, Felipe Andoaga López, Tomás Avechacho Barrecheguren, Francisco Orobengoa Gonzalez, Heriberto Mendizabal Unamuno, Bernardo López Alceaga, Felix Oroiz Leonardo, Ulpiano Rubio Miguel, Atilano Ramos Gamazo, José Aperribay Oquina, Mariano Zubia Arcay, Pedro Vega Bibiano, Santiago del Valle Arcada, Pedro Uranga Urrutia, Ventura Vega Alvarez, Sabino Ugalde Basoa, Salvador Rodríguez Rodríguez, Marcelino Uribesalgo Balanzategui, Tomás Uranga Urrutia, Benito Uranga Balanzategui, Valentin Goicoelea Garaigordobil, José Ramón Azcarate, Salustiano Ormazabal Arregui, Daniel Ugarte Arcauz, Ignacio López Gardoqui, Marcelo Tarragona Calvo, Rogelio García Lumbreras, José Bengoa Gondra *Txaeta*, Severiano San Vicente Santamaría, Francisco Gonzalez Gonzalez, Mateo Abarrategui Abarrategui, Domingo Abarrategui Abarrategui, Lucio Aranzabal Cacicedo, Francisco Orobengoa Gonzalez, Camilo Ibáñez Azkoaga, Juan Ugalde Basoa, Irineo López, Fermín Ibáñez Azkoaga *Faja Roja*, Francisco Arabaolaza Arcelay, Bernardo García García, Tomás Zabarte Iturriaga, Pedro Unamuno Loidi, Rufino Ormaechea Ibarrondo, Francisco Alvarez del Rio, Eugenio Iza Zubia, Gregorio Gonzalez Rubio, Gerardo Ruiz de La Cuesta, Juan Elorza Heriz, Leonardo Carmona Conejo, Agustín Uriz Ichaso, Evaristo García Sanguitu, Francisco Rodríguez Rodríguez, Gurmertsindo

Alvarez del Río, Francisco Zabaleta Aspe, Esteban Ibarra Iriondo, Jacinto Ruiz Goñi, Pedro Unamuno Loidi eta Segismundo González González.

Horietaz gain, beste 26 aske utzi zituzten: Pedro Goitia Uralde, Román Berezibar Ormazabal, José Lazcano Lasagabaster, Julián Lafuente Gil, Feliciano Salazar González *El Baratillo*, Abundio Pinacho Delgado, José Mugica Bañales, Fermín Arabaolaza Arriola *Pello*, Domingo Garro Altube, Valentín Ruiz de Alegría, Eugenio García Jiménez, Anastasio García Lumbreras, Esteban Arana Cortazar, Andrés Fernández Bilbao, Francisco Ruiz de Alegría, Hilario Madinabeitia Lamarain, Marcos Balanzategui Elorza, Laureano García, Leonardo García Llanos, Manuel Herrero Otero, Román Zabarte Garay, Jesús Trincado Baños, Joaquín Pereira Juldain, Luís Arrieta Echevarria, Juan Elizazu Ugalde eta Francisco Etxebarria Alday.

Ondoren, Jesús Trincado, Anastasio García Lumbreras eta Leonardo García Llanos, berririo atxilotu zituzten.

IV. ERANSKINA

Eusko Alderdi Jeltzaleko gudariak 1936an: 129

Jose M^a Gallastegui Arregui, Juan Azcarate Isasmendi, Joaquin Garmendia Alava, Sabin Garai Arregui, Ricardo Gorosabel, Ramon Gorosabel, Juan Gorosabel Gorosabel, Alejandro Urrutia Arregui, Leon Aguiriano Arana, Jose Maria Echevarria Garay, Vicente Arabaolaza Abarrategui, Vicente Orobengoa Cenciaga, Manuel Gallastegui Elejalde, Pablo Querejeta Urrutia, Jose Gordobil Gomez, Segundo Cenciaga Uriarte, Feliciano Aranzabal Laspiur, Santos Sologaistoa Uriarte, Florencio Mugica, Fortunato Bedia Arregui, Modesto Leibar Balanzategui, Ricardo Gorosabel Amozarrain, Gregorio Armentia Berrio, Miguel Echaguibel, Lucio Otaduy, Lucio Berecibar Galdos, Eustaquio Guridi, Paulo Bolinaga Arregui, Jose Amozarrain Oyanguren, Vicente Barrutia Sologaistoa, Elias Uribe Arregui, Felipe Aguirre, Domingo Martiartu, Francisco Uribechevarria Barandiaran, Domingo Querejeta Urrutia, Ramon Aranbarri Goñi, Vicente Uribe Echevarria, Pablo Cenciaga Laspiur, Pedro Garay, Esteban Zaitegui Cenciaga, Felix Garay Lizarralde, Pablo Zu-

melaga Ozaeta, Antonio Murua, Jose Echaguibel Otaduy, Jose Aguirre Balanzategui, Victor Murguzur Yarza, Juan Azcoaga Bidaburu, Esteban Arana Aranceta, Imanol Iturriaga Murua, Pablo Arizabaleta Zabaleta, Sabin Arrieta Arregui, Iñaki Arrieta, Miguel Arrieta Arregui, Pedro Murgoitio Alberdi, Pedro Arriola Arabaolaza, Cruz Villar Igartua, Felix Iraola Otaduy, Emilio Inda Loza, Roman Fernandez Palacios, Juan Echevarria Arabaolaza, Francisco Mendizabal, Jose Letona Arrieta, Juan Juaristi Unamuno, Imanol Ormaechea, Gregorio Uranga, Eugenio Uranga Olabe, Javier Gorosabel Burguiña, Joseba Uribechevarria Osinaga, Antonio Urrejola Errekalde, Ignacio Gorostiza, Pablo Echevarria Larrañaga, Lucio Murgoitio Madariaga, Gerardo Amozarrain, Francisco Unamuno Ladreda, Perico Uribechevarria Arenaza, Pablo Jauregui Echave, Manuel Areizaga, Jose Cortabarria Lasarguren, Pedro Mendizabal Cenciaga, Lucio Otaduy Barrutia, Juan Iraola, Angel Galdos Elorza, Felipe Yarza Abalia, Juan Yarza Abalia, Gregorio Yarza Abalia, Felix Eraña Mugica, Angel Garay Arregui, Alejandro Arregui, Jose Barrutiabengoa Gallastegui, Juan Barrutiabengoa Gallastegui, Francisco Mendicute Arregi, Francisco Gorosabel Burguiña, Jabier Celayaundi Tokieder, Gregorio Eguidazu Lizarralde, Jose Miguel Eguidazu Pagalday, Gregorio Arregui, Francisco Gastañarez Elorza, Jose Zabalo Lizarralde, Juan Jose Echevarria Herrasti, Martin Echevarria Errasti, Felix Garay Lizarralde, Maximo Gallastegui Elejalde, Adrian Iturbe Sampedro, Martin Iturbe Uribe, Lorenzo Urrutia Arregui, Eduardo Urrutia Arregui, Prudencio Usobiaga Arrieta, Gregorio Cenciaga Laspiur, Iñaki Olazabal Larreategui, Jesus Cortabarria Larzanguren, Pedro Zubizarreta, Eugenio Guridi Belategui, Pablo Aguirre Ugalde, Jose Azcarate, Luis Altuna Lizarralde, Sabin Iturriaga Murua, Antonio Zubizarreta Urcelay, Angel Arana, Felix Cenciaga Laspiur, Fortunato Cenciaga Laspiur, Felix Cortabarria Larzanguren, Andres Cortabarria, Esteban Echevarria Arabaolaza, Juan Echevarria Laspiur, Benito Echevarria, Paulo Echevarria Herrasti, Ricardo Pereira Juldain, Andres Barrutia Zuazubiskar, Andres Garate Umerez, Guillermo Juldain Sainz.⁷³³

V. ERANSKINA

Unión Cerrajeratik 1936ko Urriaren 1ean Kaleratutako Pertsonak: 601(horietatik 101 emakume)

Faxisten errepresioaren beste aurpegia izan zen lan barik utzi zituztenena. Arrasaten Union Cerrajera saiatu zen gehien horretan.

